


Nerea Areta Azpiri

# Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea



Deustuko Unibertsitatea

• • • • •

Eibarko euskara:  
izen sintagmaren deklinabidea



Nerea Areta

# Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea

2003

Deustuko Unibertsitatea  
Bilbao

Euskal Herria Saila, 21. zk.

Argitalpen hau, zatiz edo osorik, azalaren diseinua barru dagoela, ezin kopia daiteke, ez eta bildu edo igorri inola ere, dela elektrikaz, dela kimikaz, dela mekanikaz, dela optikaz, dela grabazioz, dela fotokopiaz, baldin eta lehendaurrez argitaratzailearen baimenik ez badu.

Argitalpen hau paper ekologikoan inprimaturik dago.

© Deustuko Unibertsitatea  
Posta Kutxa 1 - 48080 Bilbo

ISBN: 84-7485-888-7  
Legezko gordailua: BI - 1594-03

Espanian inprimatua/Printed in Spain

Fotokonposizioa: IPAR, S. Coop. - Bilbao

Inprimatzailea: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L.

Agur t' erdi

Zorionez, Eibarko euskeriaren inguruan egindako hainbat liburu argitaratu diranez azken urtiotan, hainbat hitzaurre egittia tokatu jata eta, egixa esan, harro egoteko modukua da daukagun produziñua, bai kantidadea bai kalidade aldetik.

Era guztietako ikerketak, taldian egindako lanak eta baita be agortuta egon diran liburuen ediziño barrixak be kaleratu dittugu, takian potian.

Baiña, Eibarko euskeriaren gaiñeko tesirik ez jata gaur arte etorri hitzaurrea egin eta argittaratzeko eskatuz. Eta, horrek, erregular, poza emon desta eta baita zeozer gehixago be, jakin dotenian, argittarapena Deustuko Unibersidadiarekin batera dala eta doktoria Nerea Areta eibartarra.

Ez dago bape txarto. Hori adierazgarrixa da. Azken baten, Eibarko euskeriak bere ekarpenak egin arren euskera estandarri, giro urbano eta industriale-ra egokittuz, sasoi batian gitxiespena jaso zeban eta oraiñ, ostera, doktoretzarako ikerketa gaixa bihurtu da.

Neri irizten jata, horrek guztiak, oraiñ arte egin dittugun ahaleginak euren frutua emoten hasi dirala eta Eibarko euskeriak berari dagokixon prestigixuaren neurrixa hartzen diharduala.

Liburua, tesisaren laburpena bada be, nik uste dot Eibarko euskeriaren ezaugarri nagusixak azaltzen dittuala eta, alde horretatik, nahiko tresna erreferentziala eta objetibua izan leike urteetako ikerketaren ondorixua da eta.

Ia era horretan beste bultzadatxo bat emoten detsagun geure euskeria ikerzeko zaletasunari eta bultzadatxua, ahula dakagun transmisioñuari.

Beste barik, amaitzeko, nire zorionik beruenak Nerea Aretari egindako lana bikaña dalako eta eskerrik asko Deustuko Unibersidaditari, Eibarko euskeria beste atalaia batera eruaten lagundu eta gizarteratzen laguntzearren.

Iñaki Arriola López  
Eibarko Alkatia  
Eibar 2003ko martxuan



## Aurkezpena

Eskutan duzun liburua ikerlan sakona da, eta horrelako lanen argitalpena pozgarri gertatzen da, argitaratu gabe gelditzen direnean, aski maiz zoritxarrez, zabalpenaren eta jakintzaren kalterako izaten baita. Euskal Filologiako ikasketak Unibertsitatean ezarri zirenetik doktorego-tesi asko egin dira euskara mintzatua deskribatuz: herrikoa, bailarakoa ala eremu zabalagokoa. Ongi datoz denak eta behar-beharrekoak dira tokian tokiko hizkera bizia ezagutu ahal izateko, hizkera bera prestijiatu eta indartzeko eta euskara bera aberasteko; azkenik, baita euskalki eta aldakiak zehazki aztertu eta sailkatzeko ere.

Nerea Aretak, Eibarko alaba izanik, horixe egin du hain zuzen, bere herriko euskara-mota aztertu. Eibarko euskarak aspalditik du nortasun bizkorraren aipua, eta sartu ere egin izan dira eibartarrekin inguruko herrietakoek, beti bitxikerietan oinarrituz, ohartu gabe hizkuntzaren bizitasunak herriarena agertzen duela eta bai batak eta bai besteak bide berriak aurkitu behar izaten dituztela, alboan begira daudenen esamesei jaramonik egin gabe.

Egileak herrian bertan izan ditu aitzindariak eta haiek irekitako bide berari ekin dio, eta konfiantzaz esan daiteke landu eta jorratu duen esparrua ongi deskribatua gelditu dela eta, horrez gain, Eibarko euskara erabat ezagutu ahal izateko bidea irekia eta material ugariz hornitua utzi duela. Lortu duen korpusa handia eta aberatsa da: tesi-lanean transkribatuak eta landuak eskaintzen ditueenez gain beste maila guzietako material asko ditu. Bestalde, lekukoen iritzi eta jarrera metalinguistikoak ere jasotzen ditu, eta, oro har, hain da askotarikoa materiala, ezen, berak dioen bezala, etnografia-kulturalerako ere hainbat baliak daitezkeen. Agian, Nereak berak jarraituko du hasi duen lana, eta hori litzateke arrazoizkoena, orain arte egin duenarekin gelditzen denaren erdia —esate bat da— egina duelako.

Dialektologiako lanek, besteak beste, bi arrisku izan ohi dituzte: orokortasun edo irekitasunak sortzen duena bata, deskribapen hutsean edo azalekoegian



gelditzekoa, alegia; eta alderantzizkoa bestea, hots, handiaren handiaz lana bera azpiratu ezina. Egileak ongi txuliatzen ditu biak, alde batetik lan-eremua mugatuz eta, bestetik, hartu duen gaia ahalik eta zehatzen landuz, gaia ia erabat usiatzeraino, hizkuntz munduari dagokionez horrelakorik esaterik inoiz edo behin zilegi balitz bederen. Kasuistika guzia bildu du, polimorfismoa bera ere barne, eta, ondoren, kasu guziak nahiz fonetika, nahiz morfologia, nahiz funtzioen aldetik banan-banan eta zehazki aztertu ditu.

Ahozko hizkera bizkorra da, bizitasun handikoa, eta horrek hitzen kategorien arteko nahasketa/bereizketa arazoak usu sortzen ditu, eta haien funtzio eta esanahien arteko txandaketa eta gurutzaketak ere bai, eta horiek lexikalizazio-bilakabideaz ere badute zerikusirik. Beraz, ezin zaio lanaren alderdi honi ere garrantzirik ukatu hizkuntzaren, euskararen esan nahi baita, azterketarako, ez eta hortik ateratzen dituen ondorioei ere Eibarko hizkeraren kokapenerako.

Onartu beharra dago lan hau zientifikotasun eta zorroztasun handiz egina dela eta hagitx emankorra gerta daitekeela nahiz hizkuntzaren deskribapen-azalpenerako, nahiz dialektologiarako, nahiz edozein gramatika normatibotan hizkuntza mintzatuaren aberastasunak izan lezakeen eragina kontutan hartzeko.

Horrenbestez, erraz ohar daiteke lana ez dela denbora-pasakotzat hartzekoa, baina bai ustiagarria, eredu bezala jarraigarria eta, lan eskerga den aldetik, hagitx eskergarria ere. Egileak, bestalde, badu nortasunik eta, aurrekoen iritzi eta lanak ongi ezagutu ondoren, ez du arazorik haiek gainditzeko ongi baderitzo, ez eta bide berritatik abiatzeko ere horrela badagokio. Itxaropentsu naiz, beraz, hartu duen bi-deari jarraituko diola eta aurrerantzean ere fruitu umoturik emango duela.

Rosa Miren Pagola

## **Eskerrak**

Gogoan ditudan eskertu beharreko guztien izena ipini behar banu zerrenda amaigabea ezarri beharko nukeenez, izenok isiltzea nahiago dut.

Eskerrak eman nahi dizkiet jakinean eta jakin barik etxean eta etxetik kanpo lagundu didaten guzti-guztiei, baita tesi zuzendari izan dudan Rosa Miren Pagola-ri, eta Eusko Jaurlaritzari ere, «Ikertzaileak Prestatzeko Beken» onuradun izan nintzenez. Bestalde, Deustuko Unibertsitateari eta Eibar-ko Udalarari ere eskertzen diet liburu hau argitaratzeko egin duten ahalegina. Lekukoentzat dira bereziki nire eskerrik beroenak. Tesia egiten hasi eta amaitu bitartean lan horren «inguruan» hil direnekin ere ezinbestean gogoratzen naiz, minez; baina bizi direnei ere asko zor diet, eta bakoitzak be-rea hartzen jakingo du.

## **Eskaintza**

Goian eskertutako guztientzat, batez ere Andoni, Ekain eta Davidentzat.



# Aurkibidea

<b>Laburdurak</b> .....	17
<b>Egilearen aurkezpen orokorra</b> .....	19
Sarrera .....	21
Alderdi teoriko-metodologikoa .....	21
Azterketa bera .....	29
<b>1. Morfologiako alor baten azterketa: izen sintagmaren deklinabidea</b> .....	33
1.1. Aurkezpena .....	33
1.1.1. Kasuak; azter eremua; atalen egitura .....	33
1.1.2. Atal berezietan jasotako mailak .....	35
1.1.3. Orokortasunak .....	35
1.2. Deklinabidea kasuz kasu. Izen-sintagma: izen arruntak .....	36
1.2.0. Amaiera mugagabeak .....	36
1.2.0.1. <i>-a</i> itsatsiaren zenbait kasu .....	37
1.2.0.2. Mugatzaile singularra erantsitakoan neutralizatutako amaie- rak .....	45
1.2.0.3. Amaieran <i>-i</i> bokal sabaikari soila duten berbak .....	45
1.2.0.4. <i>-o /-u</i> amaierak .....	47
1.2.0.5. Diptongoak berba amaieran .....	48
1.2.0.6. Hiatoak .....	53
1.2.0.7. Bokal luzeak .....	54
1.2.0.8. Amaierako hiru bokalen elkarketa .....	54
1.2.0.9. Kontsonanteak .....	54
1.2.0.10. Amaiera kontsonantikoaren eta bokalikoaren arteko alter- nantzia .....	56
1.2.1. Nominatiboa (Ø) .....	57
1.2.1.1. Alderdi formalak .....	57
1.2.1.2. Erabilera .....	64
1.2.1.3. Ondorioak .....	70

1.2.2.	Partitiboa <i>(-r)ik(an)</i> .....	71
1.2.2.1.	Alderdi formala .....	71
1.2.2.2.	Erabilera .....	74
1.2.2.3.	Ondorioak .....	81
1.2.3.	Ergatiboa <i>(-e)k</i> .....	81
1.2.3.1.	Alderdi formala .....	81
1.2.3.2.	Erabilera .....	84
1.2.3.3.	Ondorioak .....	86
1.2.4.	Datiboa <i>(-e)(r)i</i> .....	86
1.2.4.1.	Forma .....	86
1.2.4.2.	Erabilera .....	90
1.2.4.3.	Ondorioak .....	91
1.2.5.	Edutezko genitiboa <i>(-r)(e)n</i> .....	92
1.2.5.1.	Alderdi formala .....	92
1.2.5.2.	Erabilera .....	96
1.2.5.3.	Ondorioak .....	102
1.2.6.	Leku-denborazko genitiboa <i>(-e)(ta)ko/go</i> .....	103
1.2.6.0.	Leku-denborazko kasuez zenbait ohar .....	103
1.2.6.1.	Alderdi formala .....	103
1.2.6.2.	Erabilera .....	111
1.2.6.3.	Ondorioak .....	135
1.2.7.	Instrumentala <i>(-e)s</i> .....	135
1.2.7.1.	Forma .....	135
1.2.7.2.	Erabilera .....	136
1.2.7.3.	Instrumentala ordezkatzeko bideak .....	145
1.2.7.4.	Ondorioak .....	149
1.2.8.	Soziatiboa <i>(-r)(e)kin /-(e)(g)as</i> .....	149
1.2.8.1.	Alderdi formala .....	149
1.2.8.2.	Erabilera .....	153
1.2.8.3.	Ondorioak .....	159
1.2.9.	Motibatiboa <i>(-re/n)(g)aitxik/(g)aittik(an)</i> .....	159
1.2.9.1.	Forma .....	159
1.2.9.2.	Erabilera .....	163
1.2.9.3.	Ondorioak .....	166
1.2.10.	Destinatiboa <i>(-r)(e)ndako/-retako // -ntzat/-retzat // -ntzako/-(re)-tzako</i> .....	167
1.2.10.1.	Forma .....	167
1.2.10.2.	Erabilera .....	170
1.2.10.3.	Ondorioak .....	173
1.2.11.	Prolatiboa <i>(-tzat/-tzako)</i> .....	174
1.2.11.1.	Forma .....	174
1.2.11.2.	Erabilera .....	175
1.2.11.3.	Ondorioak .....	177

1.2.12. Inesiboa <i>-(e)(ta)n; -(e)gan // -(e)n/-re(n) gain</i> .....	177
1.2.12.1. Alderdi formala .....	177
1.2.12.1.1. Bizidunak-bizigabeak, deklinabidea .....	178
— Bizidunen eta bizigabeen deklinabideko kurutzaketak leku-denborazko kasuetan ..	178
— Bizidunen inesiboko formak .....	182
1.2.12.1.2. Mugagabeak .....	184
1.2.12.1.3. Mugatu singularrean .....	186
1.2.12.1.4. Mugatu pluralean .....	188
1.2.12.2. Erabilera .....	188
1.2.12.3. Ondorioak .....	205
1.2.13. Ablatiboa <i>-(e)(ta)tik //-(r)(e)(n)(g)andik</i> .....	207
1.2.13.1. Forma .....	207
1.2.13.2. Erabilera .....	213
1.2.13.3. Ondorioak .....	221
1.2.14. Adlatiboa <i>-(e)(ta)ra //-(e)(n)(g)ana</i> .....	223
1.2.14.1. Forma .....	223
1.2.14.2. Erabilera .....	229
1.2.14.3. Ondorioak .....	236
1.2.15. Adlatibo bukatuzkoa <i>-(e)ra(i)ño(k) /-(e)rarte //-(e)(n)gana(i)ño(k)</i>	237
1.2.15.1. Alderdi formala .....	237
1.2.15.2. Erabilera .....	243
1.2.15.3. Ondorioak .....	244
1.2.16. Adlatibo bide zuzenezkoa <i>-(e)ru(n)tz //-(e)(n)gan(ar)utz)</i> .....	245
1.2.16.1. Forma .....	245
1.2.16.2. Erabilera .....	248
1.2.16.3. Ondorioak .....	250
1.2.17. Bokatiboa .....	251
1.2.17.1. Mugatzailez edota determinatzailez .....	251
1.2.17.2. Mugagabez .....	253
1.2.17.3. Deklinabide kasu markaz .....	255
1.2.17.4. Ondorioak .....	257
1.3. Bestelako bukaera batzuen deklinabidea: <i>-e(e)-ren</i> eredia .....	257
1.4. Kasu arraro batzuen deklinabidea: metahizkuntza, mailegu batzuk, eta abar .....	261
1.5. Mugagabea. Singularra eta plurala .....	265
1.6. Forma mugatuak: erabilera .....	268
1.7. Artikulu gradu hurbilekoaz mugaturiko deklinabide ereduak .....	271
1.7.1. Lehenengo graduko artikulua mugaturikoak: mugatu singularra <i>(-au)</i> .....	273
1.7.2. Bigarren graduko artikulua mugaturikoak: mugatu singularra <i>(-o(r)i)</i> .....	274

1.7.3. Gradu hurbileko artikulua mugaturiko deklinabide ereduak: plurala .....	277
1.7.4. Ondorioak .....	279
1.8. Izen berezien deklinabidea .....	279
1.8.1. Lagun izenak .....	280
1.8.2. Leku izenak .....	281
1.8.3. Ondorioak .....	287
1.9. Adizlagunak sortzeko galdetzaileetatik eratorritako egiturak .....	288
1.10. Erakusleak .....	294
1.10.1. Izenordain legez erabilitako erakusleak .....	295
1.10.1.1. Arruntak .....	295
1.10.1.1.1. Forma singularrak .....	295
1.10.1.1.2. Forma pluralak .....	301
1.10.1.1.3. Erakusle arrunten erabilera .....	303
1.10.1.2. Indartuak .....	315
1.10.1.2.1. Singularreko formak .....	316
1.10.1.2.2. Pluraleko formak .....	331
1.10.1.2.3. Forma indartuen erabilera .....	334
1.10.2. Erakusleak determinatzaile gisa .....	338
1.10.2.1. Singularreko forma arruntak .....	342
1.10.2.2. Pluraleko forma arruntak .....	346
1.10.2.3. Forma indartuak .....	349
1.10.2.4. Formazko ezaugarri orokorrak .....	350
1.10.2.5. Ondorioak .....	353
1.10.3. Balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak .....	354
1.10.3.1. Forma arruntak .....	355
1.10.3.2. Forma indartuak .....	358
1.10.3.3. Erabilera .....	364
1.10.3.4. Ondorioak .....	369
2. Amaierako berbak, ondorioak .....	371
3. Bibliografia, erreferentziak .....	377
Bibliografia .....	377
Kontsultatutako internet gune nagusiak .....	385
Erabilitako dokumentazioa .....	386

# Laburdurak

<i>aip. lib.:</i>	aipatutako liburua ( <i>opus citatus</i> )
<i>arg.:</i>	argitalpena, argitarapena
<i>e.a.:</i>	eta abar
<i>hur.:</i>	hurrengo(k)
<i>ibid.:</i>	<i>ibidem</i> (arestian aipatutako leku berean)
<i>iz.:</i>	izena
<i>izlag.:</i>	izenlaguna
<i>kom.:</i>	komuna, euskarazkoa orokorrean
<i>oh.:</i>	oharra
<i>or.:</i>	orria, orrialdea
<i>or. eta hur.:</i>	orria/orrialdea eta hurrengoak
<i>sing.:</i>	singularra





## Egilearen aurkezpen orokorra

Liburu hau joan den 2001-2002 ikasturtean aurkeztutako doktorego tesi batean eginiko lanaren ondorioz kaleratu da. Deustuko Unibertsitatean “Bikain Cum Laude” kalifikazioa lortu zuen Rosa Miren Pagola doktorearen zuzendaritzapean burututako *Eibarko euskara. Morfologiako alor baten azterketa: izen sintagmaren deklinabidea, adjektibo sintagma eta adberbio sintagma* tesiak. Epaimahaian Pello Salaburu, Patxi Goenaga, Orreaga Ibarra, Patxi Altuna eta Juan Manuel Etxebarria jaun-andreak egon ziren. Hemen argitaratzeko batez ere egindako azterketa aukeratu da, piskat murriztuz bada ere; eta kanpoan geratu dira tesiko sarrera teorikoa, erabili dugun metodologiaren atala, azterketa zati bat eta eranskin guztiak. Dena dela, aipatutako atal horietan informazio garrantzitsu asko dago; besteak beste, adibide korpus guztia esate baterako, baita edonorako balio izan dezakeen galdekizun linguistikoa, hainbat azterketa fonetiko-akustiko ([www.fonatari.org](http://www.fonatari.org) Internet helbidean daude horietariko 68 erregistro ikusgai), lexiko eta fraseologia-ipuina mailako emaitzak, leku-koen eta egile askoren iritzi pertzeptualak eta abar. Dena dela ere, Deustuko Unibertsitatearen eta PROQUEST Information and Learning enpresaren artean tesi osoa Internet-en *on-line* ezarri dute eta han begiratu daiteke<sup>1</sup>.

Ikerlan hau sortu eta gorpuztu bada hainbat alderdik horretarako lagundu dutelako izan da. Batetik, betidanik etxean eta inguruetan entzun dudana “Eibarko euskara” etxeko euskara izan dudalako. Bestetik, txikitatik bestelako euskara ereduak ezagutzerakoan konturatu nintzelako eskolan ikasitakoaren

---

<sup>1</sup> Helbide hauetan dago: edonongo ordenagailuetatik sartuz gero, <http://www.lib.umi.com/dissertations>; eta Deustuko Unibertsitateko ordenagailuetatik, <http://www.lib.umi.com/cr/deusto/main>. UMI-ko datu basean eta handik kudeatutako osterantzeko produktueta tesi honek **3071883** argitalpen zenbakia du; ISBNko zenbakiz bilatuz gero, **84-7485-852-6** zenbakia du.

eta jardun arruntetan erabilitakoaren artean bazela alde handia, eta hainbat gogoeta eta jarrera sortu zitzaizkidan piskaka-piskaka. Eskolako eredu normalizatuaz gain, herri bakoitzeko euskara ereduak ere bitxi eta interesgarri gertatu ohi zaizkit beti, baina beti ere Eibarkoarekiko atxikimendu bereziz. Txikitako gogoeta eta jarrera horiek helduz joan dira ikasketen eta euskararen egoera, historia eta barne egituren ezagutzaren puruan. Euskal Filologiako ikasketak euskararen inguruko jakingura goseak bultza eginda egin nituen eta Eibarko euskara tesi baterako adinakoa ote zen sortu zitzaidan zalantza gisa. Euskalkiak eta hizkerak zehatz aztertu behar direla hainbat egilek aldarrikatzen dutenez, duda edo beldur horri aurre egin diot. Gainera, lantzean behin beste herri batzuetako monografiak sortuz joan dira, eta Eibarko euskara nola edo hala jorratu duten lanen ezagutza ere lagungarri izan da ahozko hizkera ahalik zehatzen ezagutzeko nahia eta gogoia indartzeko. Egindakoa eginda, hemen lan hau hainbat lanen emaitza.

Euskal Filologiako ikasketak burutu, eta doktoradutza kurtsoak hastera-koan, Patxi Altuna izan nuen laguntzaile lan honen zuzendari den Rosa Miren Pagola-ren eskuetan uzteko bidea urratu baitzuen. Lehenengoari eskerrak eman behar dizkiot zuzendari zorrotz eta era berean lagun izan denarengana igortze-arren. Bigarrenarekiko esker oneko ez ezik zordun ere ikusten dut nere burua, bere eten gabeko ohar eta iruzkinak barik ez nukeelako egin dudana egingo. Bestalde, txarki eginak neure hobenez dira.

Beraz, geroago aurkeztuko dugun metodologia aukeratu genuen eta maila bakoitza gauzatzea hasierako helburuetara lotuta egon da une oro. Nolanahi ere, ikuspegi eta jarrera ñabardurak aldatuz joan dira, denboraren joanean be- rezko eta ikasketaren ondoriozko bilakaera legez.

Izan ere, prestakuntzaren iturri nagusia bibliografia izan bada ere, aipatu beharrekoa da aukera izan dudana guztietan ikerketa lanean lagun dezaketen Eibarko Instituzioetako, Unibertsitateetako eta osterantzeko pertsona par- ticularrekin harremanak sendotuz joan naizela. Unibertsitateetako irakas- leengandik, Euskaltzaindiako kideengandik eta beste aditu euskaldun ba- tzuengandik argitaratu gabeko informazioa, aholkuak eta materiala jaso ahal izan ditut.

Aipatzekoa ere bada nire hasiera-hasierako asmoa ia utopikoa ere bazela: hasi umeen hizketak aztertzetik (ikaste prozesua barne dela), eta azterketa so- ziolinguistikoko zehatzak egiteko asmoa ere banuelako. Baina tesi baterako baino, hiru edo lau tesirako adinako gaia ere bazen hori guztia; bai behintzat azterketa monografiko ugarirako. Beraz, helburuak murriztu egin behar izan dira, bai ja- soketa eremu mailan (nahiz eta gramatikako alor gehienak jaso), bai azterketa mailan, oinarritzkoena hautatu delakoan.

Beraz, aztergai izan den korpusa erdietsitakoan —“corpora” ere dei die- zaiokoe—, ahozkoaren “azterketa” batez ere maila linguistikoko egin da, sozio- linguistika eta pragmatika bigarren mailan baino ez direla ageri.

## Sarrera

### *Alderdi teoriko-metodologikoa*

Hasieratik, argi gera bedi sarrera honetako azalpenak aipatu tesiarekikoak direla. Oinarrizkoa begitandu zaigu ikerketa lan oso baten, Eibarrek historikoki izan duen eta duen ondasun linguistiko jatorra<sup>2</sup> jasotzeko bidea ezartzea, ondoren azterketa sinkroniko estrukturalaren bidez, morfologiako alor baten sistema azaltzeko, sistema hori osatzen duten aldaeretatik abiatuz. Horrela, herriko aberastasun kultural linguistikoa erakusteko eta bide batez, oinarrizko nortasunaren definitzaile den memoria historikoa gordetzeko eta ikertzeko; eta, era berean, euskal hizkuntzan egiten ari diren ikerketa linguistikoetan laguntzeko ikergai eta ikuspegi berriak ekarriaz. Ahozko jardun jatorra hautatu da aztergaitzat.

Osootasunean, lan hau dialektologikotzat har daiteke, baina ardaztat leku parametroa ez eze, lekukoaren ezaugarri soziolinguistikoak ere aintzat hartu dira, baita euren iritzi metalinguistiko eta pertzeptualak ere. Beraz, eremu linguistikoaren alderdi inmanentea ez ezik, eragina duten hizkuntzaz kanpoko faktoreak ere aintzakotzat hartu nahi izan dira.

Izan ere, interesgarria iruditu zaigu aldaeretan eragina duten aldagarri geo-soziologiko nagusiak aipatzea; lana alderdi kualitatiboan finkatuz. Perzeptzio hutsean oinarritutako baiezenak gainditu nahi izan ditugu, eta lekukoak eta euren ekoizpenak horretara bideratuta kodifikatu egin ditugu.

Horrez gain, herri mailako nahiz maila kultoan daudekeen aurreiritziak baieztatatu edo gezurtatu nahi izan dira datu objektiboetatik abentatuta.

Eibarko euskara aztertu duten egileen lanetan nabari den osotasun eza, teoria eta praktika linguistikoaren ildotik egin den lan estrukturatu eta sistemiko honetan bete nahi izan da. Geroago, gaur egungo joerekin adosago diratekeen proiektu eta egitasmoentzat beharrezko diren oinarri eta irizpideak ezarri nahi izan dira.

Beraz, aztergai izan den korpusa erdietsitakoan, zaindu gabeko erregistroaren eremuan beti ere, ahozkoaren “azterketa” batez ere maila linguistikoan egin da, eta bat hautatu behar izan denez, ikuspegi estrukturalistaz baliatu gara, beste eskola edota metodologia motak albora lagata. Soziolinguistika eta pragmatika bigarren mailan baino ez dira ageri azterketa honetan. Nolanahi ere, aldi oro maila zientifiko eta objektiboena zainduz jardun dugu, preskriptibismo eta normalizazio helbururik gabe.

Hortaz, tesian alderdi bi bereizi ditugu:

---

<sup>2</sup> Euskarari dagokionez, Eibarkoari bereziki, zentzu subjektiborik gabe darabilgu lan honetan, “ohikoa, betikoa, tradiziozkoa, molde “*zaharrekoa*” adierazteko, eta ez “ona, zuzena” esanguraz.

—Batetik, mailak hauek jaso dira:

- Fonetika eta fonologia segmentalak:
  - Fonologia: bokalen eta kontsonanteen bikote minimoak.
  - Fonetika: gertakari fonetikoetara hurbilketa.
- Morfologian:
  - Deklinabidea: izena, adjektiboa, izenordainak, erakusleak, zenbatzaileak; adberbioak.
  - Aditza: adizki jokatuak, adizki jokatugabeak, aditz tratamenduak, neutralizazioak (fonetiko-morfologikoak), komuntzadura, forma pasiboak, aditz nagusi - aditz laguntzaile harremana, aditz izena, partizipioa, aditz bereziak, eta abar.
- Sintaxian:
  - Koordinazioa.
  - Menderakuntza.
  - Bestelako testu-loturak (edo lokailuak).
- Gai horiei dialektologia pertzeptualari dagokion atala ere gehitu diegu, eta bidenabar lexiko maila ere jaso dugu.

Hori guztiori CD-ROM batean gordeta aurkeztu genuen, eranskin gisa, hainbat karpeta eta artxibo informatikotan banatuta.

—Bestetik, aztertutako maila daukagu:

Gaia areago murriztuz, tesiko azterketan morfologiara mugatu gara, eratu dugun galdekizun nagusiaren hiru atal bereziki aztertuz. Izen sintagmaren deklinabidearen ondoan, adjektibo eta adberbio sintagmak ere jorratu ditugu; izenlagunak eta adizlagunak dira aztertutako eremu horien arteko zubi. Laburtuz, lehengo zati nagusian, deklinabidearen atalean, izen (eta izenondo) arruntek onartzen dituzten hamasei (16) kasu gehi bokatiboa aztertu dira. Izen bereziak, amaiera bereziak, gradu hurbileko mugatzailez<sup>3</sup> eraturako ereduak, erakusleak, zenbatzaileak, izenordainak eta izenordain zehaztugabeak, besteak beste, zehatz arakatu dira. Tesiaren bigarren zati nagusian, aditzondoak eta aposizioa jorratu dira, eta adberbioari eskainitako atalean, postposizioak eta aditzondoak. Azkenik, adjektiboen, adberbioen eta beste osagai batzuen mailakatzea ere kontuan hartu da. Maila horietan jasotako aldaera guztiak kontuan izan ditugu azterketa garatzerakoan, eta horrek ekoizpen maila zehatz jorratzera eraman gaitu, hizkuntza mailako abstrakzio eta orokortasunen oinarrian. Liburu honetan ordea, deklinabideko atal batzuk kaleratzen dira bakarrik, gure lan ildoaren erakusgarri;

---

<sup>3</sup> Gaztelaniako “artículo”.

argitalpen honetatik kanpo geratu dira zenbatzaileen eta izenordainen deklinabidea, besteak beste, baita adjektibo sintagmaren eta adverbio sintagmaren azterketa ere.

Alderdi metodologikoan, bada, korpusaren eraketarako pausoak hauek izan dira: materiala jasotzeko prozedura ezarri, propio eraturako galdekizunaren eta solasaldi askeen bitartez. Hurrengo, lekukoaren planifikazioa jorratu da, bereziki sexua, adina eta auzokako jatorri geografikoa kontuan hartuta. Lekuko bakoitzari kode berezia ezarri zaio. Aztergai izan den korpusoko adibide guzti-guztietan lekukoaren berri eman izateak soziolinguistikara hurbiltzeko bidea eman digu, eta alderdi hori kontuan hartuz gainditu da maila dialektologiko hutsaren azterketak suposatzen duen muga. Horrela sartu gara euskal dialektologiako monografiagintzan ia jorratu bako alorrera. Ahozkoaren transkripzio fonikoa, transliterazio erreala egin da, Euskaltzaindiak idazteko ematen dituen gomendioak eta arauak kontuan izan gabe, alegia. Jarraian aurkeztuko ditugu adibideetako oinarrizko transkripzio zeinuak, horien irakurketa zuzena egin ahal izateko. Bokal eta konsonante luzeak idatzi ditugu, fonetikoki lekukoak horrela egiten duenean, dela balio adierazkorrekin, dela geldiune baten ondorioz (zalantza, nola jarraitu pentsatzen duen artean, *lapsus*-a pentsamenduan edo ahoskeran...), edo sistematikoki jakineko hitz batzuk bokal luzearekin ebakitzen direnean; (...?) / (?)... / (¿)... zeinuek esan gura dute egileak ez dakiela ziur lekukoak hori ahoskatzen duen edo hori esan nahi duen. Komatxoak (“ ”) erabili dira zuzeneko estiloa adierazteko, baita metahizkuntzalaritza kasuetan ere; horrez gain, bestek egindako transkripzioak ere komatxo artean ezarri dira. Letra larriak idazkera literarioan ere normalean horrela idazten diren kasuetan erabili dugu: puntuaren ondorik; jakineko izen batzuekin... jakinekoa den arren maiuskulaz ez dela ezer oguzkatzen ez entzuten, irakurketa laguntzeko egin dugu hori; beste batzuetan ezaugarriren bat azpimarratzeko ere erabili ditugu. Hitzen arteko erdiko puntua (·) lekukoak normala baino eten handiagoa egiten duela adierazteko erabili da: eten normalak ez ditugu adierazi, baina bai luzeagoak direnak. Zenbat eta luzeago, orduan eta erdiko puntu gehiago. [*sic*] marka erabili da egileak hori entzuten izan duenean, inguru edo era horretan arraroa izan arren ere. Kako bikoitzak (<<...>>) kako artekoak egilearen ustez euskara arautuaren edo beste aldakiren baten eragina duenean erabili dira. Transkripzioen aurretik ° zeinua dutenak, solasaldi askeetatik atera diren adibideak dira<sup>4</sup>. Ondorik ezarriko ditugu zenbait grafemen balioa:

- “c”: gatzelaniazko idazkeran-ahoskeran duen balioa du, hortzetako kontsonante frikari ahoskabea.
- “ε”: *a*-ren eta *e*-ren tarteko bokalaren errealizazioa adierazten du zeinu horrek.
- “g”: kontsonante leherkari (edo ingurunearen eraginez hurbilkari) belare ahostu-na adierazteko erabili da (“oge”).

---

<sup>4</sup> Zeinu hori aurretik ez duten adibide guztiak galdekizunaren erantzunak dira.

—“j”:

- 1) orokorrean, kontsonante frikari belare ahoskabea adierazteko erabili da (“pajia”).
- 2) batzuetan, goranzko diptongoetako yod adierazteko idatzi da (“etxen”).

—“l-l”:

- 1) “l-l” luzea, “ll” sabaikariarekin ez nahasteko.
- “w”:
- “x”:

—“z”:

- 1) noizbait, alfabetizatutako lekukoren batek hala ahoskatuta, normalizatutako euskaraz erabiltzen den balioz ezarri da (“ez”).
- 2) osterantzean, gatzelaniazko idazkeran-ahoskeran duen balioa du (“zaragoza”).

Galdekizunarekin zein solasaldi askez, bietan lortu dugu lekukoen jardunean naturalitate maila handia: zaindu gabeko hizkera, bapatekoa, jaso dugu nagusiki; hizkera “informala”, “arduragabea”, egunerokoa, edozein modutan.

Emaizta nagusiak, horrenbestez, oparoak izan dira: grabatu eta transkribatutako korpus handia (400 kaset zinta inguru grabatu eta transkribatu dira, 100 lagun baino gehiagori jasota), hainbat azterketa akustikoren bilduma (berrehun eta hirurogeita hamarretik gora, iruzkin eta guzti), fonetikako laborategiko lanean egindako orduen emaitza; eta lexiko eta fraseologia mailako altxorra, besteak beste (hiru milla eta bostehun erregistrotik gora jaso ditugu, aldaerez gain). Horietariko hitz mordoa Eibarko Udalak oraintsu argitaratu duen *Eibarko Hiztegi Etnografikoa*-ra<sup>5</sup> iragazi dira, baita Udalak *on-line* ezarriko duen *Eibarko Hiztegi Orokorra*-ra ere. Horregaz gainera, lekukoen eta beste zenbaiten iritziz eta aurreiritzien multzoa ere lortu dugu; gai hori nahikoa berria da euskal dialektologiaren eremuan, dela monografiagintzan dela beste era bateko lanetan, benetan interes handiko esparrua euskararen ingurua sakon ezagutzeko. Bestalde, korpusak balio etnografiko-kulturala ere badu gure iritziz.

Azterketa bideratzerakoan, sistema linguistikoen eraketarako erabili dugun prozedura nagusia hau izan da: aldaerak identifikatu; dagozkien azpisisistemak antolatu, eta Eibarko deklinabidearen diasistema eratu. Hizkuntza maila bakoi-tza soziolinguistikako analisi estatistikoz azter zitekeen, baina oraingo lanaz gaindi geratu da zeregin hori. Hala ere, esan denez, korpus osoak erreferentzia soziolinguistikoa du lekukoen kodeen aldetik, eta alderdi hori kontuan hartuz gainditu da maila dialektologiko hutsaren azterketak suposatzen duen muga. Ezaugarriak eta joerak azaltzerakoan batzuetan lekukoak banaka aipatu dira,

---

<sup>5</sup> S. BASAURI, *et alii* (2003).

polimorfismo handiko kasuetan edo ezaugarri idiolektalak erakusterakoan adibidez; eta beste batzuetan multzoka banatu ditugu.

Azterketaren emaitzatzat, funtsean, aurkitu ditugun eredu nagusiak eta aldaerak ditugu, eta bitxikeriak ere bai, hainbat jaso dira eta. Formari dagokionez, aldaera fonetikoak eta morfologikoak aztertu dira batez ere. Beste herri-inguru batzuetako monografietan nahiz dialektologia lanetan ez dugu aurkitu fonetika sintaktikoaren eragina mugatzailea eta kasu markak ezartzerakoan adibidez (lan gehienetan formak inguru gabe aurkitzen ditugu eta ahozko jardunean beste aldaerarik ez balego legez): nolabaiteko “hutsune” hori gainditu nahi izan da ikerketa honetan. Erabilerari dagokionez, ostera, eremu semantikoa jorratu da batez ere, morfologiak eta sintaxiak ere lekua duten arren, egiturak, lokuzioak, komuntadura eta antzeko gertakariak ere aintzakotzat hartu direnez. Eredu, aldaera eta bitxikeria horien subjektu-erabiltzaileen berri ere eman da, zein lekukok zer darabilen adierazgarria baita benetako hizkera ezagutzeko. Une oro ezarri izan dira kontsiderazio soziolinguistikoak eta pertzepziozkoak.

Azterketa bera morfologiako gai zehatzei eskaini badiegu ere,aldi kontuan izan dira beste atalekin dituzten harremanak, dela fonikoa, dela morfosintaktikoa, dela lexiko-semantikoa, ez dugulako uste bereizketa garbi eta osorik egin daitekeenik atalen artean. Ez dugu uste, gainera, atalen bat beste(k) baino garrantzitsuagoa denik, guztiak elkar-osagarriak baitira gure ikuspegiz.

Azken finean, datuak eta emaitzak ez ezik, uste dugu gure ikerbidea ekarria izan daitekeela hizkuntzalaritza, dialektologia eta soziolinguistika batuz, edozein euskalki, azpieuskalki edo hizkera lantzeko.

Lekukoek aipamen berezia merezi dute, gure lana haien jardunean oinarrituta dagoenez gero. Lekuko bakoitzaren sexua, adina eta jatorri geografikoa kontuan hartu da bereziki, eta bakoitzari kode berezia ezarri zaio. Aztertzerakoan gogoan izan ditugu osterantzeko faktoreak ere, alfabetizazioa, gurasoen edota ezkontidearen jatorria eta abar. Zazpi lekukorekin propio egin dugun galdekizuna landu dugu (horiei “lekuko nagusiak” esaten diegu, ez zaharrak direlako, korpus zati handiena bete dutelako baino<sup>6</sup>). Lekukoek kode hauek dituzte: *S.B.* —kalekoa, gizonetzkoa, zaharra—; *f.a.* —Arrate Balleko baserri batean jaiotakoa, andrazkoa, zaharra—; *kgg* —kalekoa, gizonetzkoa, gaztea—, *raz1* —Arrate Balleko baserri batekoa, andrazkoa, zaharra—, *kmz* —kalekoa, gizonetzkoa, zaharra—, *nme2* —Aginagako baserri batekoa, gizonetzkoa, adin ertainekoa—, *naz* —Aginagako baserri batekoa, andrazkoa, zaharra—. Horren osagarri, beste ia 100 lagunen jardun askea erabili da, bai geuk grabatuta, bai beste bidez lortuta.

---

<sup>6</sup> Beraz, “lekuko nagusi” diogun bakoitzean, galdekizun nagusia bete duen lekukoaz dihardugu, edozein adinekoa. Ez da nahastu behar “lekuko zahar”-ekin, 60 urtetik gorakoekin.



Kodeak ezartzerakoan taula hauek erabili dira:

**Lekukoen taula orokorra**

Nongoa	Kodea	Sexua	Kodea	Adina	Kodea
Kalekoa	<i>K</i>	gizonezkoa, "mutila"	<i>M</i>	gaztea (25-40 urte)	<i>G</i>
Arratekoa (Arrate, Gorosta, Mandiola, Maltzaga bailarak)	<i>R</i>	andrazkoa	<i>A</i>	adin ertainekoa (40-60 urte)	<i>E</i>
Aginagakoa	<i>N</i>			zaharra (60->)	<i>Z</i>
Kinarraga-Otaolakoa (Kinarraga, San Salvador, Otaola, Ipurua)	<i>Ñ</i>				

**Ezaugarrien konbinatoria lekuko bakoitzarentzat**

	Kodea	Esanahia
1	<i>KAG</i>	kaleko andrazko gaztea
2	<i>KGG</i>	kaleko gizonezko gaztea
3	<i>KMG</i>	kaleko "mutil"-gizonezko gaztea
4	<i>KAE</i>	kaleko andrazkoa, adin ertainekoa
5	<i>KME</i>	kaleko gizonezkoa, adin ertainekoa
6	<i>KAZ</i>	kaleko andra zaharra
7	<i>KMZ</i>	kaleko gizon zaharra
8	<i>RAG</i>	Arrateko andrazko gaztea
9	<i>RMG</i>	Arrateko gizonezko gaztea
10	<i>RAE</i>	Arrateko andrazkoa, adin ertainekoa
11	<i>RME</i>	Arrateko gizonezkoa, adin ertainekoa
12	<i>RAZ</i>	Arrateko andra zaharra
13	<i>RMZ</i>	Arrateko gizon zaharra
14	<i>NAG</i>	Aginagako andrazko gaztea
15	<i>NMG</i>	Aginagako gizonezko gaztea
16	<i>NAE</i>	Aginagako andrazkoa, adin ertainekoa
17	<i>NME</i>	Aginagako gizonezkoa, adin ertainekoa
18	<i>NAZ</i>	Aginagako andra zaharra
19	<i>NMZ</i>	Aginagako gizon zaharra
20	<i>ÑAG</i>	Kinarragako andrazko gaztea
21	<i>ÑMG</i>	Kinarragako gizonezko gaztea
22	<i>ÑAE</i>	Kinarragako andrazkoa, adin ertainekoa
23	<i>ÑME</i>	Kinarragako gizonezkoa, adin ertainekoa
24	<i>ÑAZ</i>	Kinarragako andra zaharra
25	<i>ÑMZ</i>	Kinarragako gizon zaharra

**Lekuko guztien taula kodeka antolatuta<sup>7</sup>**

Kodea	Izena	Abizenak
<i>anaz</i>	Ines	Arregi
<i>armz</i>	Felix	Uranga
<i>bñaz</i>	Gregoria	Elkoroiribe
<i>dkmz</i>	Pedro	Laka
<i>ekmz</i>	Patxi	Alberdi
<i>enae</i>	M. <sup>a</sup> Dolores	Arrillaga Arrillaga
<i>ermg</i>	Dabid	Ibarra Arando
<i>ermz</i>	Jose	Alberdi
<i>f.a.</i>	Felisa	Areta Leceta
<i>kae</i>	Mertxe	Garate
<i>kae1</i>	Maitere	Azkoaga
<i>kae2</i>	Mila	Garai
<i>kag</i>	Leire	Narbaiza Arizmendi
<i>kag1</i>	Arantza	Azkoaga
<i>kag2</i>	Carmen	Echeverria Areta
<i>kag3</i>	Amaia	Leyaristi Areta
<i>kag4</i>	Cristina	Navarro Areta
<i>kag5</i>	Esther	Zarraua
<i>kag6</i>	Itziar	Alberdi
<i>kaz</i>	Dina	
<i>kaz1</i>	M. <sup>a</sup> Luisa	Maitre-Jean Gorosabel
<i>kaz2</i>	Luziana	Larreategi Arizaga
<i>kaz3</i>	Paz	Gisasola
<i>kaz4</i>	Julia	Balenciaga
<i>kaz5</i>	Victoria	Bascaran
<i>kaz6</i>	Candida	Eguren
<i>kaz7</i>	Juanita	Gurrutxaga Ansola
<i>kaz8</i>	Kontxa	Laspiur
<i>kaz9</i>	Olga	Arizmendiarieta
<i>kaz10</i>	Herminia	Torre, de la
<i>kaz11</i>	Pakita	Abendibar
<i>kaz12</i>	<i>Andria</i> (Justo Larrañaga-rena)	
<i>kgg</i>	Asier	Sarasua Aranberri
<i>kme</i>	Roberto	Larreategi
<i>kme1</i>	Jose Luis	Rodriguez Astigarraga
<i>kme2</i>	Antxon	Narbaiza
<i>kmg</i>	Roberto	Kerexeta
<i>kmz</i>	Javier	Echeverría Eguren
<i>kmz1</i>	Antonio	Laucirica
<i>kmz2</i>	Juanito	Lazpita

<sup>7</sup> Tesigilearen jarduna batzuetan transkribatu da, beste lekuko en esanak ulertzeko ezinbestekoa izan denean bereziki. Neure buruari ezarri diodan kodea hau da: *t*.

Kodea	Izena	Abizenak
<i>kmz3</i>	Pedro	Arrizabalaga Iriondo
<i>kmz4</i>	Juan	San Martin
<i>kmz5</i>	Timoteo	Zubiata
<i>kmz6</i>	Faustino	Mujika
<i>kmz7</i>	Jose	Etxeberria Ayerbe
<i>kmz8</i>	Justo	Larrañaga
<i>kmz9</i>	Ramon	Sarasua
<i>kmz10</i>	Candido	Eguren Zabarte
<i>kmz11</i>	Juan	Gisasola
<i>kmz12</i>	Benigno	Baskaran
<i>kmz13</i>	Julio	Sarasua
<i>kmz14</i>	Paulino	Larrañaga
<i>kmz14</i>	Vicente	Olave Echevarría Azpiri
<i>kmze</i>	Jose	“Riojanua”
<i>mnaz</i>	Juliana	Mandiola Maguregi
<i>nae</i>	Ageda	Aranzegi Arregi
<i>nag</i>	Mariaje	Loiola Arrillaga
<i>naz</i>	Eusebia/Euxebi	Gisasola Aldazabal
<i>nme</i>	Pedro Balentin Pablo	Azpiri Mandiola
<i>nme1</i>	Jesus Mari	Gisasola
<i>nme2</i>	Jose Mari	Loiola Gisasola
<i>nme3</i>	Sabino/Sabin	Loiola Gisasola
<i>nme4</i>	Felix	Loiola Gisasola
<i>nmg</i>	Javier	Loiola Arrillaga
<i>nmgl</i>	Roberto	Loiola Arrillaga
<i>nmz</i>	Tomas	Loiola
<i>ñaz</i>	Timotea	Etxaniz San Martin
<i>ñaz1</i>	Bonifazia	Urkia Gorrotxategi
<i>ñaz2</i>	Alejandra	Urkia Gorrotxategi
<i>ñaz3</i>	Segunda	San Martin Urriategi
<i>ñaz4</i>	M. <sup>a</sup> Luisa	San Martin
<i>ñaz5</i>	Dolores	Berasaluze
<i>ñme</i>	Rafael	Andonegi Etxaniz
<i>ñmz</i>	Migel	Zarrabe
<i>ñmz1</i>	Migel	Sagastume
<i>rae</i>	M. <sup>a</sup> Asun	Azpiri Mandiola
<i>rae1</i>	M. <sup>a</sup> Asun	Atxa Agirregomezkorta
<i>rae2</i>	Lurdes	Urzuriaga Bollar
<i>rae3</i>	M. <sup>a</sup> Isabel	Ugarteburu Arrillaga
<i>rag</i>	Virginia	Areta Azpiri
<i>rag1</i>	Aitxiber	Areta Azpiri
<i>rag2</i>	Cristina	Uriarte Arguiano
<i>rag3</i>	Mirari	Ubera Urzuriaga
<i>raz</i>	Carmen	Areta Leceta
<i>raz1</i>	Feliziana/Felisa	Atxaorbea Uriarte
<i>raz2</i>	M. <sup>a</sup> Teresa	Areta Leceta

Kodea	Izena	Abizenak
<i>raz3</i>	Maria	Gisasola
<i>raz4</i>	M. <sup>a</sup> Dolores	Areta Lazpiur
<i>raz5</i>	Jesusa	Sustaeta Abendibar
<i>raz6</i>	Paulina	Ugarteburu Iriondo
<i>raz6</i>	Frantziska	Atxa-Albizuri Aldazabal
<i>raz6</i>	Antonia	Iriondo
<i>raz7</i>	Maria	Yarza Agirrebeña
<i>raz8</i>	Miren	Iriondo Rementería
<i>rme</i>	Migel	Alberdi Atxaorbea
<i>rme1</i>	Javier	Leceta
<i>rme2</i>	Ignacio	Baskaran Bidaguren
<i>rmg</i>	Aitor	Oregi Gisasola
<i>rmz</i>	Vicente	Areta Leceta
<i>rmz1</i>	Juanito	Leturiondo Alberdi
<i>rmz2</i>	Ziriako	Ortiz de Zarate
<i>rmz3</i>	Gregorio	Alberdi Atxaorbea
<i>rmz4</i>	Candido	Baskaran Azpitarte
<i>rmz5</i>	Jose Luis	Urzuriaga Lete
<i>rmz6</i>	Migel	Gallastegi
<i>rmz7</i>	Txomin	Alberdi Arrizabalaga
<i>S.B.</i>	Serafin	Basauri Arteaga

### *Azterketa bera*

Azterketaren oinari nagusia, lekukoen erantzun eta adibideak izan dira. Ezau-garriak eta joerak azaltzerakoan batzuetan lekukoak banaka aipatu dira, polimorfismo handiko kasuetan edo ezaugarri idiolektalak erakusterakoan adibidez; eta beste batzuetan multzoka banatu ditugu. Gertakari batzuk behin baino sarriago aipatu arren, azalpen edota iruzkin nagusia leku bakarrean egin dugu gehienetan.

Lana gorpuzterakoan tesian jasotako adibidetegian oinarritu gara baina ez ditugu jasotako erantzun eta adibide guztiak hemen txertatu<sup>8</sup>, egoki eta beharrezko iritzi diogunean baizik. Gainera, hemen ipini diren adibideak ez dira besteak baino garrantzitsuagoak; adibide adierazgarriak ipini nahi izan dira, edozein lekukorenak direla ere, baina beste batzuk ere izan zitezkeen, pareko egiturak azaltzeko ia beti jaso ditugulako lekuko baten baino gehiagoren adibideak. Adibideetako mezua-mezuak kontzeptu edo egitura abstraktuz adieraztea zaila iritzi diogunean ere jo dugu adibide-eredu zerrendak ere ezartzera.

Ikuspegi epistemologikotik, hasieratik argi gera bedi ez dugula teoria berririk asmatuko euskal gramatikagintzari dagokionez eta horrenbestez, eginiko lanetara

<sup>8</sup> Adibide guzti-guztiak aipatutako tesiko CD-ROM-eko "Korpusa" karpeta aurki daitezke, bai galdekizunean txertatuta, bai tauletan.

jo dugula oinarrizko azalpenetarako. Gramatikak eta hainbat hizkeren monografiak izan ditugu lagungarri<sup>9</sup> aldi oro. Aipatzekoa ere bada euskal gramatigintzan eta monografiagintzan eredu anitz daudela bai osagaien aurkezpen hurrenkeran-egituran bai terminologian<sup>10</sup>. Guk guretzat egokiena aukeratu dugu eta orokorrean ez da jakineko eredurik jarraitu, lan bakoitzetik lagungarri eta funtzionalena iruditu zaiguna hartuz. Guk euskal hizkuntzalaritzaren eta dialektologiaren alor honetara dakargun berrikuntza nagusia datuena da, orain arte honelako lanetan ez baita azaldu Eibarko ahozko lagunarteko euskara biziaren egitura lan sistemiko eta oso baten. Jorrotutako hainbat ezaugarri euskarazko orokorrak dira; beste batzuk Bizkaierako hizkera batzuekin komunak dira, Eibar inguruko herriekiko adibidez; beste ezaugarri batzuk, edo agian guztien arteko harremanak edo konkurrentzia eta maiztasuna dira Eibarko bereziak. Edonola ere, maila horiek ongi bereizteko lan monografiko honen tankerako gehiago behar dira.

Azterketaren emaitzatzat, funtsean, aurkitu ditugun eredu nagusiak eta aldaerak aipatuko ditugu, eta bitxikeriak ere bai, hainbat jaso dira eta. Formari dago-kionez, aldaera fonetikoak<sup>11</sup> eta morfologikoak aztertu dira batez ere; erabilerrari

---

<sup>9</sup> Adibidez, batzuk aipatzearen: F. ARANBERRI (1996); J. ARRETXE-ren argitaratutako tesia (1994); ZENBAIT-en lana (1988); J. ELORTZA-ren eta beste zenbaiten lana (1999); A. ERRAZTI (1994); J.M. ETXEBARRIA-ren argitaratutako tesia (1991b); EUSKALZAINDIA-ren gramatika laburra (1993); I. GAMINDE (1988); P. GOENAGA (1980); J.I. HUALDE, G. ELORDIETA eta A. ELORDIETA (1994); J.I. HUALDE eta J. ORTIZ DE URBINA (1993); argitaratutako O. IBARRA-ren tesia (1995); J. LARRAÑAGA (1998); I. LASPIUR (1999a)-(1999b); J.C. ODRIOZOLA eta I. ZABALA (1992); J. ORTIZ DE URBINA (1989); G. REBUSCHI (1984)-(1997); G. REBUSCHI eta beste (1986); argitaratutako K. ROTAETXE-ren tesia (1978); I. TÚRREZ, A. AREJITA eta C. ISASI (1998); TXILLARDEGI (1977); J.A. URIARTE-ren argitaratu gabeko tesia (1995); L. VILLASANTE (1972)-(1992); M. ZARATE (1979); I. ZUBIRI eta E. ZUBIRI (1995).

<sup>10</sup> Begiratu besterik ez dago aipatu berri ditugun lan guztiak, esate baterako.

<sup>11</sup> Deklinabidearen atalean, esaterako, ez ditugu fonetika sintaktikoan daudekeen egitura guztiak aztertuko, baina alor horretara hurbilketa egingo da. Aipatzen den lehenengo aldaera etimologikoena litzateke; ondokoak, aldaera fonetikoak (horien artean, ingurunearen eraginik gabekoak eta fonetika sintaktikoz aldatutakoak genituzke). Beste herri-inguru batzuetako monografiatan nahiz dialektologia lanetan ez dugu aurkitu fonetika sintaktikoaren eragina mugatzailea eta kasu markak ezartzera-koan adibidez: formak inguru gabe aurkitzen ditugu eta ahozko jardunean beste aldaerarik ez balego legez. Hainbat liburutan aurki dezakegu egitura “garbi” hori deklinabideko kasu eta atal gehienetarako: F. ARANBERRI (1996, 47-74); ZENBAIT-en lana (1988, 75-81); J. ELORTZA-ren eta beste zenbaiten lanean (1999, 148-153); A. ERRAZTI (1994, 33-35, 54-71); I. GAMINDE (1988); J.I. HUALDE, G. ELORDIETA eta A. ELORDIETA (1994, 85-107); J. LARRAÑAGA (1998, 50-86) —egile horrek, nolahi ere, ahozko jarduneko aldaera asko aurkezten ditu—; I. LASPIUR (1999b, 21-62). Tesietan sakontasun handiagoz azaltzen da gai hori, adibidez, J.A. URIARTE-k hainbat maila lexiko-morfologikori aplikatutako araz azaltzen ditu Fruizko formak (1995, 165-187, 352-390); O. IBARRA-k ere, errealizazioei nahikoa erreparatzen die (1995, 338-404); J. ARRETXE-ren tesiaren osteko argitalpenean ere oharretan hainbat ezaugarri aurki ditzakegu (1994, 96-105); K. ROTAETXE-k ere azalpen luzeak egiten ditu formen eta erabileren inguruan (1978). Horietariko egile batzuek deklinabideko aldaera mordoa fonetikako atalean jorrotzen dituzte. Gure ustez sistematiko-teorikoa azaltzea ongi dago, baina errealtatea ere erakutsi beharra dago sistemaren jatorria eta ezaugarriak hobeto ulertu ahal izateko.

dagokionez, eremu semantikoa jorratu da batez ere, morfologiak eta sintaxiak ere lekua duten arren. Eredu, aldaera eta bitxikeria horien subjektu-erabiltzaileen berri ere emango da, zein lekukok zer darabilen adierazgarria baita benetako hizkera ezagutzeko.

Edonola ere, hemen egin den azterketak ez du agortzen lekukoengandik transkribatutako guztiaren etekina, ez hizkuntzalaritza sistemiko aldetik, ez idiolekto bakoitzaren azterketa egin den neurrian ere. Lan “dialektologikoagoa” egitea ere beste ikerketa lanen zeregina da. Ondoko herrietako aldakietan ere antzerako azterketa beharko litzateke, ostera, hori zuzentasunez burutu ahal izateko, datuak erkagarri gerta daitezten.



# 1

## Morfologiako alor baten azterketa: izen sintagmaren deklinabidea

### 1.1. Aurkezpena

#### 1.1.1. *Kasuak; azter eremua; atalen egitura*

Ikerketa lan honetan hamasei deklinabide kasu berezi dira Euskaltzaindiak jarritako bidetik<sup>12</sup>, baina horien azalpena ez dugu barreiatuta egingo kasu bakoitzak sortutako unitate gramatikalaren edo funtzioen arabera (hau da, izen sintagmari atxikitakoak edo gramatikazkoak<sup>13</sup>, izenlagunak eta adizlagunak), bata bestearen jarraian baino. Jarraian ipiniko ditugu kasu bakoitzari dagozkion formazko berezitasunak eta erabilerak<sup>14</sup>.

---

<sup>12</sup> Deklinabidearen azterketaren bilakaera XVII. mendetik aurrera ikuspegi diakroniko-historio-grafikoz ezagutzeko ikus J. ALBERDI, 1989, 1989b. Ikuspegi diakroniko-linguistikoz egina da M. AZKARATE-ren eta P. ALTUNA-ren liburua ere (2001), eta deklinabide kasuei “Euskal deklinabidea” atala eskaintzen diete bereziki (*aip. lib.*, 81-135). Hainbat egilek jorratzen dute izen sintagma morfologiako gai berezi legez, baina izenaz landa beste kategoria batzuk ere landuz (izenordainak, determinatzaileak eta adjektiboak esate baterako); erreferentzia gisa hartu ditugu besteak beste: P. GOENAGA (1980, 45-106), J.C. ODRIOZOLA eta I. ZABALA (1992); G. REBUSCHI (1984, 109-173), TXILLARDEGI (1977). Nolanahi ere, deklinabide kasuak aditz sintagmaren barne aztertzeko joera ere badago; ikus adibidez P. GOENAGA (*aip. lib.*, 108-143).

<sup>13</sup> Kasu “gramatikal” hauek adizkietan duten komunztaduragatik bereizten dira beste kasuetatik. Hala ere, komunztadura hori era askotakoa izan daiteke eta ikerlariak kasu ergatiboak kezkatzen ditu gehien.

<sup>14</sup> Izan ere, zein ikuspegitatik eta zein irizpidez begiratzen den, banaketa era askotara egin daiteke; egile batzuek leku-denborazko kasuak, lokatiboak alegia, multzo berezi legez aztertzen dituzte. Bestelako hurbilketak egitekotan oinarritzkoa litzateke I. ZABALA-ren laneko kontzeptuak gogoan hartzea (1999).



Kasu hauek aztertu ditugu:

— *Nominatiboa (absolutiboa)*.

— *Partitiboa*.

— *Ergatiboa*.

— *Datiboa*.

— *Edutezko genitiboa (genitibo edutezkoa, jabego genitiboa, genitiboa)*.

— *Leku-denborazko genitiboa (leku genitiboa)*.

— *Instrumentala*.

— *Soziatiboa*.

— *Motibatiboa*.

— *Destinatiboa*.

— *Prolatiboa*.

— *Inesiboa*.

— *Ablatiboa*.

— *Adlatiboa*.

— *Adlatibo bukatuzkoa (muga adlatiboa)*.

— *Adlatibo bide zuzenezkoa (hurbiltze adlatiboa, norabide zuzenezkoa)*.

— Goikoei beste “kasu” bat gehitu diegu, *bokatiboa* hain zuzen. Jakin badakigu izatez ez dela berezko kasua, erabilera-funtzio bat baino, baina bai forma aldetik kasu marka guztiak eta hainbat mugatzaile-determinatzaile<sup>15</sup> har ditzakeen, eta batez ere erabilera aldetik berezia denez atal berezia eskaini diogu.

Deklinabideari eskainitako kasu eta atal bakoitzean egitura hau beteko da orokorrean:

— *Alderdi formala*. Deklinabide kasu bakoitza honela banatuko dugu:

- *Mugagabea*
- *Mugatu singularra*
- *Mugatu plurala*

— *Erabilera*.

— *Atalaren ondorioak*.

Izenaren deklinabidea amaiera bokaliko guztietan lortu dugu, diptongo bukaera batzuk ere gogoan izan ditugu eta amaiera kontsonantikoa duten hitz

---

<sup>15</sup> Determinatzailetzat edozein izenen eremu orokorra mugatzen duen kategoria-funtzioa har du dugu lan honetan. Funtzio hori, besteak beste, betetzen dutenen artean mugatzailea, erakusleak, zenbatzaileak, galdetzaile batzuk eta abar ditugu.

batzuk ere jaso dira. Batzuetan izenaz landako adibideak ere jarri dira sintesi lan honetan. Ez da sistematikoki jaso aditzondoan deklinabidea, eta aditzen (partizipioen eta aditz izenen) deklinabidea ere ez da sistematikoki aztertu.

Hitz batzuen amaiera mugagabeei atal berezia eskainiko zaie deklinabide kasuen azterketaren aurretik, batez ere amaieren alternantziegatik.

Mugatzailea erantsitakoan berba-amaiera bakoitzaren jokabidea azalduko dugu ez kasuz kasu, bereziki nominatiboaren atalean baino. Beste kasuetan aipagarri balego dagokion kasuaren iruzkinean jarriko dugu.

Kasuz kasu ezaugarri bereziak eta xehetasunak azalduko ditugu; baina ezaugarri orokor batzuk ere kasu bakoitzaren barrena aurkeztuko ditugu (leku-denborazko kasuetako mugagabeko *-ta-* artizkia azaldu ala ez, adibidez). Bizidun-bizigabeen deklinabideko kurutzaketa<sup>16</sup> orokorrak inesiboaren atalean azalduko dira.

### 1.1.2. Atal berezietan jasotako mailak

— *Bestelako bukaera batzuk dituzten berben deklinabidea*, hala nola amaiera geminatuena-geminatu legez funtzionatzen dutenena.

— *Zenbait “kasu arraro”-ren deklinabidea* (maileguko hitzak batez ere, eta metahizkuntza).

— *Mugagabearen forma, balioa, erabilera, eta abar*. Deklinabideko orokortasun legez.

— *Forma mugatuen erabilera*.

— *Gradu hurbileko mugatzailez mugatutakoak*.

— *Izen berezien deklinabidea*. Lagun izen eta leku izen batzuen deklinabidea, amaiera bokalikoz eta amaiera kontsonantikoz.

— *Adizlagunak sortzeko galdetzaileetatik eratorritako egiturak*.

— *Erakusleak*.

### 1.1.3. Orokortasunak

Deklinabide kasuen erabilera orokorrean aztertu dugu, kasuka, unitate gramatikaletan erreparatzeko: izenak, izenordainak, izenondoak, aditzondoak eta abar aurki daitezke erabileraren adibideetan.

Forma bakoitzaren bizitasunaz eta erabileraz egiten ditugun zenbait ohar lekukoen pertzepzioan oinarrituta daude.

---

<sup>16</sup> Guk sinkretismo, ordezkaketa eta alternantzia gertakariak izendatzeko hitz orokortzat auke-ratu dugu.

Oro har, ez dugu azentuzioan erreparatuko, transkribatzerakoan bokal tonikoak grafikoki markatu ditugun arren.

Gurea egiten dugu *Euskal gramatika...*-n aurkitu dugun iruzkina, forma batzuen sinkretismoa azaltzerakoan:

“Hizketa bizian sinkretismo horiek guztiak eta gehiago ere aurkituko dira, egia esan. Dena dela, hiztunak baditu bideak sinkretismo horrek sor ditzakeen anbiguetateak hausteko, azentuzioa, testuingurua, aditzaren morfologia, e.a.” (EUSKALTZAINDIA, 1993, 197-198).

## 1.2. Deklinabidea kasuz kasu. Izen-sintagma: izen arruntak

Aurkezpenean aurreratu dugu aztergaia zabala eta murrizta dela era berean. Oraingoan alderdi murrizta azpimarratuko dugu, aurkeztu genuenez ez baitugu lexikologia landuko “Izena” bera lantzerakoan: ez dugu morfologia eta semantika aldetik Eibarko izenen sailkapena egingo eta ez ditugu Eibarko izen bakunak, eratorriak eta elkartuak azalduko. Izena lantzerakoan deklinabidean erreparatu dugu batez ere eta kasu bakoitzari eskainitako ataletan ikusiko ditugu izen batzuen “jokaerak”, bai arruntak bai bereziak. Dena dela, atal honetan izen arrunten deklinabidea ez ezik, izen berezi batzuk ere jorratuko ditugu; izenondoek ere izenen gisako deklinabidea dutenez, lekua izan dute kasu bakoitzaren azterketa garaian.

Kasuen izenburuaren ondoan parentesi artean kasu marka diasistemikoa jarriko dugu. Atal honetan gradurik gabeko mugatzailea (*-a*, *-ak*) erantsitakoan sortutako formak aztertuko ditugu mugatuaren alorrean.

### 1.2.0. Amaiera mugagabeak

Jarraian azalduko dugun “mugagabea”-ren inguruko xehetasunak, batez ere maila fonikoari dagokionez, kasu guztietarako baliokoa da, eta harremanak ezarriko ditugu bai mugatu singularrarekin bai mugatu pluralarekin ere, bai nominatibo kasuan bai beste kasu batzuetan ere. Forma mugatuak ere begiratu ditugu atal hau osatzerakoan, eta horiez hemen dioguna ez dugu berriz errepikatuko.

Jarro har, euskara arautuaren ereduak ditu Eibarko euskara mintzatuak, beti ere *-h-* hizki/fonemarik ez dela kontuan hartuta, eta sarritan bokal arteko kontsonanteen galera gertatzen dela (honek amaierako diptongoak sor baititzake, hitz homofonoak ere sortaraziz: “be(h)i; be(g)i > bei”, hiatoz edo diptongoz, ebakera-aren arabera), baita kontsonanteak tartekatu egiten direla ere (“oge”, kom. “ohe”).

Berezitasunik ez da baina falta amaierari erreparatuz, eta kasu batzuetan gertakari sistematikoak diren bitartean, beste batzuetan polimorfismoa da nagusi. Jarraian, amaieran “nahasteak” sortzen diren zenbait kasu azalduko dira amaiera arrunten ondoan<sup>17</sup>.

#### 1.2.0.1. -a ITSATSIAREN ZENBAIT KASU

##### 1.2.0.1.1. Eibarko euskarari euskara arautuko formak betetzea

Eibarren berezko -a bokala duten berbak orokorrean euskara arautukoak dira, Eibarko aldakian<sup>18</sup>: bai euskaraz oso errotutakoak “elixa, neska, txitxara, titara, abixa, gona, denpora, arantza, andra, euskera” eta abar; bai maileguak. Mailegu berriagoetan amaierako -a bakarrik joan daiteke: “erropa, playa, pint(x)ura, botika”, nahiz hiatoko partaide izan daiteke: “polea, idea, tarea” eta abar.

Atzizkiekin ere gauza bera gertatzen da; Eibarren -a itsatsidunak dira besteak beste “-gura/-kura, -ska(ra/da), -bera, -kerixa, -tza, -durixa/turixa”; salbuespena *kgg*-ren erabilera “tontokeri” berebarekin (lekuko horrek “astakerixa” darabil beste kasu baten).

##### 1.2.0.1.2. Eibarren -a itsatsiduna egiten duten berba batzuk

Eibarren hitz batzuk -a itsatsia dute euskara arautuan bestelako amaiera dutenean (arrunki -e amaieradunak); adibidez, “lora”. Salbuespen bakarra aurkitu dugu, *nme2*-ren hitzetan: “séma lore <<daure>>?”, agian Elgoibarko hizkeraren eraginez, izan ere, beste kasuetan “lora” oinarria deklinatzen baitu:

*nme2* edúrtzan, lu- lórak urten dabe // *nme2* lorá bat ekarrisu

Edonola ere, bere auzoko beste lekukoak eta beste guztiek “lora” darabilte. Beste antzerako adibide batzuk: “bela” (salbuespen bakarra *kgg*-ren erantzunak dira, alfabetizazioaren ondorio, noski), “basurda”, “laba”, eta abar<sup>19</sup>.

---

<sup>17</sup> J.M. ELEXURU-k ere bere tesian “Mugagabeko fenomenoak” atala eratu zuen. Guk baino murriztago heldu zion gai horri eta batez ere amaiera bokalikoen alternantziak aipatu zituen (1996, XVIII). K. MITXELENA-k aipatu zuen beste arazo bat ere badago tartean: “Hay restituciones erróneas de formas básicas, en las que todos incurrimos con facilidad cuando lo único que está documentado son, en la terminología de Kurylowich, *formes fondées*, y no las correspondientes *formes de fondation*: téngase en cuenta que éstas son básicas porque a partir de ellas las otras son previsibles, mientras que la inversa no es siempre cierta” (in R.M. AZKUE, 1984, 37).

<sup>18</sup> Ikuspegi deskriptiboaren gainetik preskriptiboa duela, ikus I. LASPIUR-en “-a artikulua mugatzaillia” artikulua (1999, 31-32).

<sup>19</sup> Ikus K. MITXELENA-ren iritzia eta azalpena (1990, 128-129).

Forma estandarrean *-i* amaieradun forma diren batzuek *-a* itsatsia hartzen dute Eibarren: “gasterixa”, “aixerixa” (adibideak forma mugatuan aurkitu ditugu<sup>20</sup>). Grabatu ez dugun “keixa” (kom. “gerezi”) ere multzo horretan sar daiteke<sup>21</sup>. Amaiera kontsonantikoa du euskara normalizatuan “kedar”-ek baina Eibarren “kedarra” ere egiten da<sup>22</sup> (“kidar” baino gehiago).

Eibarko euskararen *-a* itsatsia duen beste hitz bat: “egoia” (kom. “hego”). Berba hau forma mugatuan aurkitu dugu bakarrik, baina forma horrek berezko *-a* duela pentsarazten digu<sup>23</sup>: *kmz*-ri eta *razl*-i jaso dizkiegun adibideetan ikus dezakegu:

*kmz* °“égoia dao”: ... égo-aixía · daolako —*razl* °“égoya” ta “egoaixia” dána da bat!: orí beruori! · á píkatzen dabena, gaur goixiam-be-ederki píkatze-isen dau égo-ya eon da ta //*razl* °(?)dana-gorútz ekárten dau ifárrak eta · égoya-pe bai onútz! ...

#### 1.2.0.1.3. Euskara arautuko *-a* itsatsia ez gordetzea

Hitz batzuek Eibarren bestelako amaiera dute. Adibidez, “ira/ire //ida/ide” (arrunki *-a/-e* alternantzia gertatzen den arren; kom. “ira”); hor ditugu lekukoen adibide garbiak, batzuk ipintzearen:

*raz* °“iría” ... “iré askó”: “iría” eroo ... “mendíraa · garotára” eskendúan esán, guk “mendíra iretára góyas” ... —*me2* idé asko dao —*naz* eee, sémat e idé dao —*rae* °... mendíra ide-bátera! ...

Izan ere, lekuko nagusi guztiek *-e* amaieradun forma eman digute, salbuespenik barik. Beste adibide bat Eibarko “giltz” berban dugu: zeharo galdua da amaierako *-a* bokala lekuko guztiengan.

#### 1.2.0.1.4. *-a/-e* alternantzia

Horrelakoetan mugatzaile singularra erantsitakoan emaitzak neutralizatu egiten dira. Hemen adibide batzuk:

—“Ultza/ultze”. Lekuko batzuek beti darabilte *-e* amaieraz, eta beste batzuek txandaka.

---

<sup>20</sup> T. ETXEBARRIA-k ere “GAZTEDIXIA” eta “AIXERIXIA” forma mugatuak dakartza, amaierako *-adunak* (1986, 114).

<sup>21</sup> T. ETXEBARRIA-k ere “KEIXIA” forma mugatua dakar, amaierako *-aduna* (1986, 482).

<sup>22</sup> T. ETXEBARRIA-k ere “kedarra baltza” forma mugagabea eta “kedarria” mugatua dakartza, amaierako *-adunak* (1986, 482).

<sup>23</sup> Horrela ez balitz, gaur egungo forma mugagabea “\*egoi” litzateke. Edonola ere, R.M. AZKUE-k bere hiztegian “egoa, egoe, egoi” formak dakartza bizkaierarako (1984, 377).

—“Erla/erle”. Lekuko batzuek beti darabilte *-a* amaieraz, *kmz-k* kasu; beste batzuek alternantziaz, *nme2-k* kasu; eta beste batzuek beti *-e* amaieraz: *razl-ek*, *naz-k*.

—“Arta/arte”. “Arta” darabilte *kmz-k*, *nme2-k* eta *rmz-k*; “arte” berriz, *razl-ek*, *S.B.-k*, *f.a.-k* eta *kkg-k*; alternantziaz *naz-k*.

—“Kurutza/kurutze”. Lekuko gehienek “kurutze” darabilte (*kmz*, *razl*, *nme2*, *kkg*), baina *naz-k* “kurutza” darabil bakarrik; eta alternatzen *S.B.-k* eta *f.a.-k*.

—“Kuma/kume”. *-a* amaieraz hauek darabilte: *kmz*, *razl*, *nme2*, *S.B.*, *f.a.*, *raz6*, nahiz eta gehienek “ume” darabilten horren parean, *naz-k* izan ezik “uma” eta “ume” darabilelako. Alternantziaz darabiltzate *naz-k* eta *kkg-k*.

—“Suma/sume”. Lekuko batzuek *-e* amaieradun forma darabilte (*kmz-k*, *nme2-k* eta *S.B.-k* esate baterako); beste batzuek *-a* amaieraduna (*naz-k* eta *f.a.-k*); eta beste batzuek txandaka biak (*razl-ek*).

—“Erla/erle”: lekuko batzuek *-a* amaieradun aldaera darabilte bakarrik (*kmz-k*); beste batzuek *-e* amaieraduna darabilte (*nme2-k* eta *naz-k*); eta beste batzuek alternatzen (*razl-ek*).

—Beste adibide batzuk: “balda/balde”, “larra/larre”, “erpa/erpe”, “oda/ode //ora/ore //odei<sup>24</sup>”, “suba/sube”, “laba/labe”, “asukra/asukre”, “sikuta/sikute”, “urte/urta”, “alpapa/alpape”, “bida/bide //bira/bire”, “bara/bare”, “agura/asure”, eta abar<sup>25</sup>.

—Bikote berezia egiten dute “ule/betule, ule/betula”-k: “ule” hitza gure lekukoek beti erabili dute amaieran *-e* bokala duela; baina hitz horrekin osatutako besteak bitara egiten du (mugagabea eta mugatu pluralean erreparatu behar ondorioak ateratzeko), “betule/betula”. *-e* amaieraz darabilte *kmz-k*, *f.a.-k* eta *kkg-k*; *-a* amaieraz *razl-ek* eta *S.B.-k*; alternantziaz *nme2-k* eta *naz-k*.

—Beste jazoera bat amaierako *-a* itsatsia *-e* ahoskatzea<sup>26</sup> da: *nmz-ri* jasotako “ogetamaikE” forma, zein *nme2-ri* jasotako “séma-paitté!” forma lirateke adibide batzuk. Ez dugu uste alternantziak bakarrik azalduko lukeenik amaierako bokalaren izaera; gure ustez bestelako aldaketa fonetikoak litzateke (bokalaren inflexioa aurrekoaren eraginez, noski), nahikoa idiolektala Eibar mailan, baina *nmz* lekukoarengan sistematikoa hitz hori beti horrela baitarabil (ikus mugatzailea hartzerakoan ere nola amaierak *-ie*, *-ue*, *-ixe* egiten dituen salbuespen gabe; baina “amama /aitei”); *nme2-k* berriz, txandaka darabiltza *-a* amaiera eta *-e* amaiera. Agian aurreko silabako glide<sup>27</sup> sabaikariaren eraginez itxi da amaierako bokal hori.

<sup>24</sup> *nme2* lekukoari jaso dizkiogu forma bi hauek: “odeyak” eta “odeixak”.

<sup>25</sup> Ikus K. MITXELENA-ren iritziak eta azalpena (1990, 128-129).

<sup>26</sup> Nahiz eta aditzondoak sortzeko atzizkia den, amaiera hori *kmz-ri* ere jaso diogu: “peaute”.

<sup>27</sup> Glidetzat hartzen dugu bai goranzko bai beheranzko diptongoetan gune silabikoa ez den erdi-kontsonantea zein erdi-bokala, *yod* zein *wau*.

#### 1.2.0.1.5. Mugatuan batzuetan izen berezi legez funtzionatzen duten hitzak (“ama/amia”)

*Ama/amia* da adibide bata. Deklinabide kasu guztietan eta deklinabide arruntean “ama” izen berezi legez deklinatzen da, baina bada salbuespen bat, berba hori animalien munduan erabiltzerakoan bereziki<sup>28</sup>, eta baserri eremuan izango luke indar nagusia fenomeno horrek, nahiz eta ez baserri guztietan. “Amia” formaren erabiltzeileak gure lekukoetatik *nme2*, *nme1* eta *naz* lekukoak dira, beraz Aginaga auzoan zalantza barik erabiltzen den forma da; beste auzoetan zer gertatzen da?: ikus zer zioen *raz1*-ek *armz*-ren formari erantzunez (nahiz eta *raz1*-ek “txarri amia” forma ere ontzat jotzen duen):

*raz1* “<<txarráma>>” dá-alá?: ní-sékula estót entzún!, ní-“txarri emía” betí!

“Amia” forma hori *f.a.*-k ere badarabil. Gogoan izan behar da Aginagan behintzat ez dela bat “(txarri) amia” (nahitaez umeak egin dituen) eta “(txarri) emia” (emea, beste gabe: berdin dio umeak izan dituen ala ez). Dena dela, bigarren graduko artikuluz “amori” forma jaso diogu *raz5* lekukoari: erreparatu egin behar da, baina, ez dela “\*amiori” beste berba arrunten ereduari jarraituz espero zitekeen legez; horren tankerako berbak ere “aitxori, aitxitxori, amamori” lirateke. Lekuko bati jaso diogu “amandria” forma aposizioan:

*raz* °amén len guk eskendúan esáten “amáma”, e?, guk esáte-gendúan · “amándria”! ... ba oingoó- oingoó será da-“amáma” ... guu- ní- ní- ní- amá- betí amándriari esáte- san “amándria Páula”! ... “amándria Páula”!

Beste antzerako gertakari bat *aita* hitzak ere badu, bestelako esanguraz eta egituraz den arren. Deklinabide kasu guztietan eta deklinabide arruntean “aita” izen berezi legez deklinatzen da, baina bada guztiz lexikalizaturiko esaera edutezko genitibo kasuan, “Aitxiaren da Semiaren...”, otoi-tza hain zuzen, mugatzailea hartzerakoan *-a* itsatsidun beste izenen moduan deklinatzen baita. Lekuko nagusi guztiek *-kga*-k izan ezik “Aitxaren” forma baitarabil- “Aitxiaren/Aittia- ren” forma darabilte otoi-tz hori ahoskatzerakoan.

Izen berezi legez erabiltzen dira beste batzuk: “amama, aitxitxa, uesaba, kaka<sup>29</sup>...”. Badirudi berezi legez funtzionatze hori mugatu singularrera mugatzen dela batez ere, beste deklinabide kasuetan plurala onartzen baitute.

---

<sup>28</sup> Elgoibartarrei sarri entzun diegu jendetza handiaren artean andrazko eta ume asko daudenean: “ango umia ta amia!”, ez animaliei deitzeko, haurren ama-edo direnei baino. Burdingintzan ere erabili izan da —edo zen— forma mugatu hori, J.A. Mogel-ek “Cepo-amia” baitakar bere *Peru Abarca* ezagunean (Internet-eko helbide honetan jaso dugu *on-line*: [www.eibar.org/materixala](http://www.eibar.org/materixala)).

<sup>29</sup> Idatziz T. ETXEBARRIA-ri “kakia” jaso diogu “zeregiñ kakia” egituran; adibiderako: “Baskuliari abuja zulua firi-fariakin eittia, zeregiñ kakia” (1986, 102), “Zeregiñ kakia, pitxoikuan kaxan, atakadore zulua eittia” (*aip. lib.*, 470).

#### 1.2.0.1.6. Lekuko batzuen erabileran *-a* itsatsia duten berbak

Lekuko batzuen ahotan hitz batzuek *-a* itsatsia duten artean beste lekuko batzuek ez dute horrela egiten. Hori gertatzen da bai euskarazko hitzetan bai maileguetan<sup>30</sup>.

a) Euskarazko hitzetan. Besteak beste bikote hauek jaso dira:

—“Pitxi/pitxia”. *kmz*-k, *S.B.*-k eta *f.a.*-k beti darabilte “pitxi” forma; *razl*-ek ostera, beti “pitxia” (lau adibidetan darabil<sup>31</sup>, beraz, ez dirudi ahoskatze uneko “errata” denik). Edonola ere, forma mugatuan ere “pitxia” forma darabil *razl*-ek. *naz* lekukoak erantzun gehienetan “pitxi” darabil baina baten “pitxia” ere erabili du. Gure ustez hitz hori da beste berba alkartu bateko partaidea: “pitxi-lora”, eta hor ez da berezko *-a* bokalik ageri.

—Polimorfismoa dago beste hitz baten ere: “burdiñ/burdiña”. Lekuko batzuek beti darabilte *-a* itsatsiaz: *razl*-ek, *nme2*-k, *naz*-k, *S.B.*-k, *f.a.*-k, *kgg*-k, eta jaso ditugun beste adibide bakanetan ere horrela deklinatu dute (*kazl*, *kmz3*, *rmz5*); baina alternantziak ere bai: *kmz*-k.

—Alderantziz gertatzen da “urr(a)” hitzarekin: lekuko gehienek amaierako *-a* gabe darabilte baina *kgg*-k amaierako bokalaz darabil forma mugagabeen ere.

—“Anai/anaixa”. Gehienek “anai” hutsa deklinatzen dute, baina lekuko batek “anaixe” ere onartzen eta erabiltzen du: *nme2*-k (euskal jatorriko *-ia* amaieradun berben artean ere sar genezakeen, baina amaieran hiru bokal daukenez, ez dugu hori aintzat hartu).

—“Alde/aldia”. Lekuko gehienek “alde” forma mugatuaren gainean ezartzen dute mugatzailea baina lekuko batzuei *-adun* forma jaso diegu: *f.a.*-ri, *razl*-i (birritako erakuslez eta postposizioetan jaso diegu<sup>32</sup>), *kaz2*-ri, *rmz5*-i eta *ñmz*-ri (“aldatar” adlatibo forman) hain zuzen; ez da, bada, gertakari isolatua<sup>33</sup>.

—“Bastar/bastarra”: aurreko bikotean antzera, *-adun* forma hiru lekukori jaso diegu, *rae*-ri, *kmz3*-ri eta *kmz7*-ri. Hemen adibide bat:

*rae* °garúa?!: jo! .. bastarra gustiak!

—“Orro/orrua” bikotea. Lekuko gehienek *-a* itsatsidun forma darabilte<sup>34</sup>: *nme2*-k, *razl*-ek, *naz*-k, *S.B.*-k eta *f.a.*-k; beste lekuko batzuek forma biak darabiltzate: *kmz*-k (lekuko honek “orro” ere onartu zuen baina lehenago ukatu

<sup>30</sup> Ikus K. MITXELENA-k zer dioen (1990, 131-132).

<sup>31</sup> Bi adibide deklinabidea lantzerakoan, eta beste bi bokalismoa lantzerakoan lortu ditugu; beraz, bai gai eta bai denbora tarte handia izan zen ekoizpen aldi bien artean eta ezaugarri hori sistematikotzat jo daiteke lekuko horrenagan.

<sup>32</sup> Deigarria da, baina, kasu markak hartzerakoan ere “aldia” egiten duela esaterako, bai *razl*-ek bai *kaz2*-k.

<sup>33</sup> K. MITXELENA-rentzat *-a* itsatsidun aldaera hori “desconcertante” zen idazle klasikoengandik etortzera, baina haiengan ere gutxitan azaldu arren ezin “errata” zenik pentsatu (1990, 500).

<sup>34</sup> Oraintsu jaso dugu beste aldaera bat adibide honetan: “orroia ugeri ta biarra gitxi”.



ostean) eta *naz*-k (-a gabeko formarako “orru” darabil); eta *kgg*-k -a gabeko forma darabil bakarrik, “orru” aldaera (gogoan izan forma mugagabeko amaierako -o/-u alternantzia). Aipatzekoa da mugatzailea hartzerakoan forma ez dela aldatzen singularrean (ez da \**orruia* moduko formarik sortzen<sup>35</sup>), eta pluralean “orruak” dugu.

—“Berandu/berandua”. Alternantzia da nagusi lekukoengan: *kmz*, *raz1*, *nme2*, *naz*, *ñaz5* (*kmz*-k hasieran -a gabeko forma onartu zuen bakarrik, baina erabili, forma biak darabiltza); *f.a.*-k -adun forma onartzen du bakarrik, eta *kgg*-k -a gabeko forma.

—“Lai(xa)” hitzaren adibidea ere jarri egingo dugu, antzinako tresna baita, baserritarrek sarri erabilitakoa. Bada berba horretan ere alternantzia dago amaierako -a dela eta ez dela. Mugagaberako kaletarrek nagusiki “lai” darabilte (*kmz*-k eta *S.B.*-k forma mugatu singularra “laixa” egiten dute, *kgg*-k ez daki ziur nola den ez duelako ikasi ere egin); baserritarrek berriz, “laixa/laixe” darabilte denek (horren forma mugatu singularra “laixia” egiten dute).

b) Maileguetan ere horrela gertatzen da, eta nabarmen igartzen da forma mugatuekin alderatuz: “kate, kattia, katiak /kate(ia), kateia, kateiak”, “are, aria, ariak /are(ia), areia, areiak”.

—“Kate(ia)” hitza lekuko gehienek “kate” legez darabilte<sup>36</sup>, baina aurkitu ditugu adibide batzuk -a itsatsidun legez deklinatuta: *raz1*-ek, *nme2*-k, *naz*-k, *rmz*-k, *nme1*-ek inoiz horrela egiten dute.

—Gauza bera gertatzen da “are(ia)” hitzarekin; -adun legez *nme2*-k eta *naz*-k deklinatzen dute batzuetan.

Bikote berezia egiten dute “kantina/kantiña” eta “kantin” berbek. Bien jatorria gaztelaniako “cantina” da baina -a itsatsidunak “taberna, edariak saltzen diren lekua” adierazten duen artean -a barikoak ontzia adierazten du, marmita.

#### 1.2.0.1.7. Mailegu batzuen joera

Jatorriko hizkuntzan amaiera kontsonantikoa izaki ere, berba batzuk euskaraz -a itsatsidun bihurtuta erabiltzen dira, eguneroko hizkeran oso errotuta dauden berbak gainera. Adibide batzuk: “arbola”, “esamiña”; “Ama Birjiña” (gure iritiz forma horiek guztiz zabalduak dira, nahiz eta *rmz*-k partitiboan “esamiñik” egiten duen)<sup>37</sup>.

---

<sup>35</sup> Gogoan izan “aroba/arrua” berba: bokal arteko kontsonantea galdu ala ez, mugatzaile singularra erantsitakoan “arobia/arruia” egiten du, galera gertatutakoan elkarren ondoko bokalen aldaketa eta guzti.

<sup>36</sup> K. MITXELENA-ren ustez amaierako -aren galera aspaldi gertatu zen (1990, 500).

<sup>37</sup> Ikus K. MITXELENA-ren azalpena (1990, 146-147).

Beste berba batzuk erdibidean daude, alternantzia baitute: “krabeliña/klabeliña //krabeliñ/klabeliñ //krabeliñe”. Sarrien amaieran kontsonanteak hartzen du mugatzailea, baina hainbat aldaera jaso ditugu. *naz* lekukoak beti *-a* itsatsi legez egiten du deklinabidea; *raz1*-ek bietara egiten du, *-a* itsatsidunagaz eta gabe; eta *nme2*-k amaiera bokalikoa egiten du mugagabeen baina *-e* amaieraz (deklinabidea ere oinarri horren gainean egiten du, jakina: “krabeliñia/klabeliñia”).

Beste antzerako kasu bat “senallia/señalia” da. Lekuko bati jaso dizkiogu aldaera bien adibidide bana, bietan forma mugatuan, baina forma horiek berezko *-a* duela pentsarazten digute; horrela ez balitz, *-e* amaieraduntzat hartu beharko lirateke (“señale” da gaur egun normalizatutako forma euskara batuan). Ez dugu forma mugagaberik jaso. Norbaitek pentsa lezake kontsonante amaieradun berbak direla, gaztelaniazko “señal”-etik hartuak, baina ez dute horien moduan jokutzen.

#### 1.2.0.1.8. *-ia* amaieradun berba batzuk. Maileguak eta euskal jatorrikoak

a) Maileguko hitz batzuk: *-ia* eta *-ea* amaieradunak.

— Jatorriko hizkuntzan *-ia* amaiera duten berbak. Mailegu gehienek Eibarren *-a* itsatsia gorde egiten dute, hitz barruko aldaketak aldaketa (amaierako hiatoa txuliatzeko kontsonante txistukari sabaikaria tartekatzea; bokal aldaketak, eta abar). Gazteleraz bokal sabaikaria azentuduna den ala ez emaitza hala-koa du Eibarko euskararen orokorrean: *-ia* atonoa dutenek batzuetan *-ixa/-ixe* eta beste batzuetan *-ia* egiten dutelako. Hemen hiato horren jokabideaz ez dihardugenez, ez dugu azalpena luzatuko eta adibide batzuk jarriko ditugu: “famelixa/familixa, sanaorixa, ferixa, parroixia, memorixa”, “farmasia, lejjia, justisia, polisia<sup>38</sup>”; *-a* itsatsiduna gorde bai, baina bi forma hartzen ditu “industria/industrialia” berbak, “industria” lekuko gehiengan, baina neure senak “industrialia” ere onartzen du, eta entzutea ere badut, baina ez grabatuta; “erromerixa, loterixa, karniserixa/karnaserixa, ortografixa, Marixa/Maria”<sup>39</sup>... Ez da amaierako bokalaren galera erraz gertatzen horrelakoetan, beste herri batzuetan gertatzen den gisa<sup>40</sup>; gure lekuko guztien erantzunetan aurkitu dugu *-a* horren errealizazioa.

---

<sup>38</sup> Ez dugu adibideetan jaso, baina nominatibo mugatu singularrez mugagabeko formak erabiliko lirateke, “ama, amama” eta abarren ereduaren ildotik. Nolanahi ere, fonetikak badu eragina; adibidez, “\*farmasi-*ia*” litzateke alegiazko forma; baina errealizazioak “farmasia” ematen du, soilketaz; eta agian norbaiten ahotan “\*farmasi-*x-ia*”, silabak bananduz.

<sup>39</sup> Hemen ipini ez ditugun beste adibide asko ere jaso ditugu.

<sup>40</sup> J.A. URIARTE-k hauxe dio Fruizko erabileraz: «entzun daitezke oraindik “familidxe edarra” bezalako formak, baina gehiengoak *-a* gabekoak erabiltzen ditu» (1995, 355), forma hori ia salbuespentzat joaz.

—Beste berba batzuk *-ia* amaiera balute legez erabiltzen dira: “animalixa” edo “tximinixa”, esate baterako (“animal” eta “chimenea”-tik datozela nahikoa erraz antzeman daiteke).

—Jatorriko hizkuntzan *-ea* amaiera duten berbak. “Tarea, idea, marea” erakoek ere gorde egiten dute amaierako *-a*, deklinatzerakoan mugatu singularrean *-ei(y)a* eginez. *nae*-ren adibide batek erakutsiko digu hori:

*nae* °jo!, goor in d- luse in ddoe taréiye-e?

Mugagabean hiatoaren disimilazioa ere aurki daiteke: “idea /idia” adibidez (ikus beherago ere).

b) *-ia* amaiera duten euskal jatorrizko hitz batzuk. Euskarazkoetan, *-ia* batzuetan gorde egiten da *-ixal/-ixe* legez; latineko jatorria duen arren, euskaraz oso errotutako “premiña<sup>41</sup>” hitzaren kasuan lekuko guztiek *-iña* amaiera darabilte; eta beste batzuetan amaierako *-a* galdu egiten da (“egia”-ren kasuan, adibide bakarra jaso dugu, bera *kgg*-rena eta *-a* bakoa).

Joera nagusia *-a* itsatsia gordetzea da: “abixa, karabixa, a(i)txikixa/a(i)txekixa (berba honen *-a* bako adibide bakarrak *kgg*-ri hartu dizkiogu; beste lekuko guztiek darabilte *-a* itsatsia), fristixa/prixtixa”. Berezia da “anaia” hitza, amaiera ez baita *-ia* bakarrik, hiru bokaletakoa baizik. Eibarren gehienetan beheranzko diptongotzat hartzen da. Beraz, Eibarko ezaugarriak ez datoz bat honetan K. MITXELENA-k dioenarekin, mugatzaile singularra hartzerakoan bokal disimilazioa *-ia* amaieradunetan ez dela gertatzen baitio<sup>42</sup>.

#### 1.2.0.1.9. Leku izenak, batez ere *-ia/ixa* eta *-ua* amaieradunak

Hemen zehaztasun batzuk jarriko ditugu bakarrik<sup>43</sup>:

—*-i(a)/-i(xa)* amaieradun leku izenak. Arrunki amaierako *-a* gorde egiten da Eibarren; bokalen artean batzuetan kontsonante frikari sabaikaria tartekatzen da eta beste batzuetan ez. Adibide batzuk jarriko ditugu<sup>44</sup>: “Donostia<sup>45</sup>, Mañari(x)a, Mallabixa, Getarixa” izenetan ia denek gorde dute berezko *-a*, *kgg*-k “Mañari”-n eta “Mallabi”-n izan ezik (beste adibideetan “Mañaria” eta “Mallabixa” erabili

<sup>41</sup> S. SEGURA-k eta J.M. ETXEBARRIA-k “premo, -ere”-tik datorrela diote (1996, 205).

<sup>42</sup> (1990, 114).

<sup>43</sup> Ikus orokorrean leku izenei eskainitako atalean ere.

<sup>44</sup> Zerrenda hori luza egin daiteke: R.M. AZKUE-k bete eragin zuen erizkizundian Eibarko erantzuna “Errenteriña” baitzen, esaterako (in A.M. ECHAIDE, 1984, 307).

<sup>45</sup> Badirudi nominatiboan amaierako *-a* bokala gordetzeko joera handiagoa dagoela. Adlatiboan deklinatzerakoan, ostera, lekuko gehienek galdu egiten dute bokal hori (ikus “Aspeitxi(xa)”-ren adlatibo formaz gerotxoago dioguna); adibidez, kasu marka horrekin *nme2*-k “Donostira” forma egiten du. Amaierako *-a* gabeko forma hori ez da hain zaharra baina, R.M. AZKUE-ren erizkizundiko Eibarko erantzuna “Donostiara” baita (in A.M. ECHAIDE; 1984, 299).

ditu). “Aspeitxi(xa)” toponimoak bi lekukok darabilte amaierako *-a* gabe nominatiboan<sup>46</sup>: *kgg-k* eta *nme2-k* (*kgg-k* “Aspeitxixa” forma ere badarabil). “Zumaia” toponimoa bitara erabiltzen da: bai “Sumaia” bai “Sumaixa”.

“Plaentxi, /Plaentxia/Plaentzia, /Plasentzia/Plasensia” oso joria da aldaeratan: soralezetarrek “Plaentxi” Eibarren euren adarra joteko erregistroan bereziki erabiltzen dela diote, baina guk uste dugu forma hori lekuko batzuek behintzat edonoz darabiltela. Beste biak, *-adunak*, gehiago erabiltzen direlakoan gaude jaso ditugun adibideek erakusten dutenez, baina lehenengoa ere erabili bai egiten da, zalantzarik gabe.

—*-ua* amaieradun leku izenetatik “Ermua” galdetu diegu lekukoei eta denek aho batez *-adun* erantzuna eman digute; “Ermu” forma *S.B.*-ren ustez erdaldunek darabilte. Dena dela, deklinatzerakoan galdu egiten du, adlatiboan adibidez lekuko guztiek “Ermura” egiten baitute.

#### 1.2.0.2. MUGATZAILE SINGULARRA ERANTSITAKOAN NEUTRALIZATUTAKO AMAIERAK

Atal hau bereziki *-a* eta *-e* amaieradun formen emaitzentzat eratu da. Alternantzia kasu batzuk arestian aipatu ditugu; jarraian, sistematikoki erroa bereizten den kasuak aurkeztuko ditugu, *-e* amaierako batzuk bereziki (*-a* amaiera goraxeago azaldu baitugu). Era horretakoak dira besteak beste: “kale, ate, ule, ume, sare, koipe, ale, etxe, esne, gaste, seme”. Amaieran bokal luzea dutenek, edo luze gisa aldatzen direnek (“be(e), me(e)”...) atal berezia dute aurrerago; hala ere, luzapen fonikoa, indartzailea nahiz solasaldirako laguntzailea zalantza unetan ez da kontuan hartuko horretarako. Hitz horiei mugatzaile singularra erantsitakoan *-a* amaieradun izen arrunten emaitza bera dute; plurallean ostera, ezberdintasuna gorde egiten da.

Nolanahi ere, berba batzuetan alternantzia gertatzen da, amaiera kontsonantikoa ala bokalikoa (ikus 1.2.0.10. ataltxo).

*-o* eta *-u* amaieradun berbetan ere neutralizazio bera gertatzen da —areago, pluralera ere hedatua—, baina beherago azalduko dugu, 1.2.0.4. azpiatalean.

#### 1.2.0.3. AMAIERAN *-i* BOKAL SABAIAKARI SOILA DUTEN BERBAK

Era horretakoek ez dute alternantzia handirik beste amaierekin. Amaieran sistematikoki *-i* bokal soila duten berben artean hauek ditugu, besteak beste: “erri, afari, baskari, ipurdi, saldi, txiki, ogi, argi, gari, belarri, mendi, euri, euli, idi/iri, ardi, txori, asti” eta abar.

---

<sup>46</sup> Baina adlatiboan deklinatzerakoan jaso ditugun adibideak “Aspeitxira” forma dute, *-a* gabea, aldaerak aldaera.

Nolanahi ere, badira aipatzea merezi duten berba batzuk zenbait gertakari direla eta:

—“Pitxi(a)”. Ikus *-a* itsatsiari eskaini diogun atalean.

—“Gorantzi(x)a”. Ez dugu mugagabeko formarik lortu, izan ere, esapide legez erabiltzen da gehien, eta hitz arrunt gisa partitiboan-edo erabil daiteke agian. Baina forma mugatueta joera bikoitza du, kontsonante frikari sabaikaria tartekatuta ala ez. Gure lekukoei bietarikoak jaso dizkiegu: badirudi aldaera hedatuena forma mugatuan “gorantzia(k)” dela, baina “gorantzixa(k)” ere ia denek onartzen dute, eta *kmz*-k baserrikoen aldaera dela dio; *nme2*-ren ustez azken hori forma “bizkaitarragoa” da.

—Beste adibide batzuk. Goikoaren ereduan sartuko genuke “gusti(a)/gusti(xa)”: mugatuan tarteko kontsonante sabaikaririk gabeko forma da hedatuena baina kontsonanteduna ere onartu eta erabiltzen da. Antzerako bikotea “aspaldi(a(n))/aspaldi(xa(n))” hitzetan ere bada (deklinabide kasuz murrizago erabiltzen da, aditzondoa baita: adibideak mugagabeen eta inesibo singularrean jaso ditugu): forma biak erabiltzen dira mugatuan. Antzerako erabilera du beste bikote batek, “illuntzi(an)/illuntzi(xan)”: forma biak erabiltzen dira Eibarren<sup>47</sup>. Toponimian ere bada horrelako bikoizketa: “Sumendia/Sumendixa” baserri izenean hain zuzen: *rmz*-k bietara darabil izen hori (gogoan izan behar da bere etxe ondo-ondoan dela aipatutako baserria eta sarri erabiltzen duen izena dela). Forma mugatueta alternantzia duen beste hitz bat “erdi” da: jakineko egituretan, ordua adierazterakoan hain zuzen, aldaera erabiliena “erdiak //erdietan/erditan” da, tarteko kontsonante sabaikari gabekoa; hala ere, beste esanguraz (zatikia adierazteko zein lekua) beti tartekatzen da kontsonante sabaikaria: “erdixa”.

—Adibide bitxiak. Horietariko bat ez dakigu ahoskatzerakoan erratuta egina den ala lekukoarengan arrunta den, *-a* itsatsidun hitza *-i* bokalez amaituko balitz legez deklinatuta: “miura” darabilte lekuko guztiek, eta *naz*-k forma horren ondoan “miurixa” ere eman digu birritan. Bestalde, gure ustez zeharo berria eta anekdotikoa den forma adierazi zigun *S.B.*-k: “txakolixa”, Eibarren kontsonante sudurkariz amaitzen den hitza *-i* bokalaz amaitutako moduan deklinatuta. Hona bere azalpena:

*S.B.* °Or, e, euskaldún barríxak, ero érderiakín kontato aundíxa dakénak esáten dabe “gaur” -e, *mm*, e, aber, séla esáten dabe?- “txakolí botílla bat”, e?, “txakolí piskát eran dóu”: “txakolíñ” estabe esáten, e? Eta igual, “gaur, txakolíxa eran dou”, e?, bañá, el kolmo da orí ya, e?, ya, éibartar einda bañá óker, “txakolíxa”

—Amaieran alternantzia dutenen artean: “jertzi/jersi /jarsei”. Diptongo amaieradun aldaera *kgg*-k darabil bakarrik, baina sistematikoki.

---

<sup>47</sup> Kontsonante txistukaririk gabeko forma “illuntze”-tik azal daiteke (gaur egun ere, forma normalizatua hori da euskaraz); kontsonante txistukariduna osterá, “illuntzi” amaierako *-idun* berbatzat hartzen delako litzateke.

#### 1.2.0.4. *-o /-u* AMAIERAK

Badira mugagabeen sistematikoki *-oz* amaitzen diren berbak, bai *-uz* amaitzen direnak ere; baina oso gertakari hedatua da amaiera horien arteko alternantzia. Mugatzailer singularra eta plurala erantsitakoan amaierako bai bereizketa bai alternantzia hori neutralizatu egiten dira; eta gure iritziz alternantziaren jatorria neutralizazio horretan datza.

—Sistematikoki *-o* bokalaz amaitzen diren berba batzuk: “baso, asto, mando, goso, solo, soro, otzo, ao, olo, koko, soso, gogo, ostro, lapiko, ollo, mosolo, bero, arro”, beste batzuen artean. “Beso” hitza lekuko gehienek *-o* amaieraz eman digute, baina *nme2*-k “besu” forma ere badarabil “beso”-ren ondoan; antzerakoa gertatzen da *kgg*-ren “giro” eta “soro” formekin ere.

—Sistematikoki *-u* bokalaz amaitzen diren berba batzuk: “leku, lengusu/lengosu, esku, buru<sup>48</sup>, negu, narru, akulu, kaiku, liburu, ordu, katu, sapatu; pixu, piñu, frutu, puru, porru”, eta abar.

—Alternantzia gertatzen diren kasuak oso ugariak dira. Bereziki aipatuko ditugu “potzu/posu //potzo/poso”. Hitz horietan alternantzia ia erabatekoa da lekuko bakoitzaren baitan ere, baina forma nagusia *-u* amaieraduna da. Ondoren ipiniko ditugun adibideetan alternantzia batzuetan lekuko bakoitzaren erantzunetan gertatzen da (alternantzia idiolektala edo norbanakoarena), baina beste batzuetan lekukoak “koherenteak” dira forma batekin eta orduan alternantzia lekukoaren artean gertatzen da (alternantzia sistematikoa, gizartekoa); adibide pilo handia jaso denez, ez ditugu banan-banan azalduko. Erreparatzekoa da adibide asko eta asko maileguak direla, euskal jatorrizko hitzak eta mailegu zaharrak ere tartean diren arren. Beste adibide batzuk: “uso/usu, barixako/barixaku, soño/soñu, soñeko/soñeku, kirikixo/kirikixu, laño/lañu, maixo/maixu, amorro/amorru, katillo/katillu, piko/piku”; “kaso/kasu, laso/lasu, piso/pisu, espillo/ispillo//espillu/ispillo, mediko/mediku, mango/mangu, estomago/estomagu, erlojo/erloju, kaballo/kaballu, banko/banku, sekreto/sekretu, minuto//minutu/minutu” eta zerrenda luza daiteke; atzizkietan ere bada alternantzia: “-txo/-txu”, “-tzo/-tzu (kom. “-tsu”)”. Alternantzia hori ez da berria, baina, beste euskalkien emaitzetan, K. MITXELENA-k berak ere aipatu baitzuen idazle klasiko batzuen ezaugarri legez, nahiz eta beste inguru baten<sup>49</sup>; amaierako posizioan Gipuzkoako eta Goi-nafarrerako leku batzuetako ezaugarritzat dakar<sup>50</sup>.

Batzuetan amaiera *-o* izan zein *-u* izan, ondoko berbaren hasierako soinuek asimilatu egin ditzakete eta ekoizpeneko emaitza bestelakoa izan (asimilazioz zein murrizketaz).

---

<sup>48</sup> Hala ere, inoiz entzun diogu *mmz*-ri mutikoekin gaztelaniaz txantxetan diharduela “artaburo!” forma ere.

<sup>49</sup> (1990, 56).

<sup>50</sup> *Aip. lib.*, 130-131.

### 1.2.0.5. DIPTONGOAK BERBA AMAIERAN

#### 1.2.0.5.1. Amaierako diptongoen alternantzia

—Amaieran glide sabaikaria duten diptongodun berbak. Horietariko batzuek aldaera asko dituzte Eibarren, hala nola eredu komuneko “igitai” berbak: “idetei, iretei, igetei, ietei, iitei, itei //iratai, ietai, itai”. Lekuko batzuek *-ei* amaieraz darabilten bitartean beste batzuk *-ai* amaieraz darabilte eta lekuko biri jaso diegu alternantzia euren erantzunetan, *razl*-i eta *nme2*-ri; *kmz*-k *-ei* amaieradun aldaera erabili arren *-ai* amaieraduna ere onartzen du.

Aldaera gutxiagoz baina alternantziaz erabiltzen dira esate baterako “atai/atei, urdai/urdei, gai/gei”. Ikus besteak beste K. MITXELENA-k dioena alternantzia horren inguruan, euskalki guztietarako, jakina: “Hay muchos ejemplos de permutación *ai / ei*, sobre todo en posición final” (1990, 103).

Edonola ere, mugatzailea hartzerakoan berdin jokatzeko dute beheranzko diptongo biek, *-i* amaieradun berben moduan mugatzen eta deklinatzen baitira.

—Amaieran glide belarea duten diptongodun berbak. Baliteke hiatoaren bilakaeraz diptongoa sortzea; izan ere, “ardau/ardao” hitzaren jatorria, K. MITXELENA-ri jarraiki, \**ardano* forma litzateke<sup>51</sup>; hala ere, ikus lehenago amaierako *-oi/-u* alternantziaz esan duguna. *-au/-ao* alternantzia hitz gehiagotan ere aurkitu dugu posizio horretan: “sardau/sardao, asau/asao, samau/samao, abau/abao, agarrau/agarrao” besteak beste.

Badira, baina, Eibarko hizkeran beti *-au* diptongoz amaitzen diren berbak, esate baterako: “lau, templau, kopau, kristau, sakristau, soldau, ganau, gixau, garau, grabau”, eta abar (*-u* amaieradun berben moduan mugatzen eta deklinatzen dira).

“Kriau” adibidean *-eu* amaieradun aldaera ere aurkitu dugu *razl*-en ekoizpenean. Izatez hiru bokaletako elkarketa da, maileguak bokal arteko kontsonantea galdua baitu (<\**kriadu*). Hala ere, mugatzeko eta deklinatzeko *-u* amaieradun berben moduan funtzionatzen du.

—*-ui* amaieradun “kui” berban aldaera nagusi bi aurkitu dira: hiato gisa ekoizten dutenena eta diptongo gisa ekoizten dutenena. Adinez nagusi diren lekukoek hiato gisa egiten dute eta *kgg*-k adibidez, diptongo gisa. Edonola ere, mugatzailea hartzerakoan horrek ez du eraginik, bokal sabaikariaren joera nagusiaren bidetik baitoa. Dena dela ere, mugagabeen ere aldaerak aurkitu ditugu: “kuix” *kmz*-rengan eta *razl*-engan, eta “kui” besteengan.

#### 1.2.0.5.2. Diptongo batzuen jokaera mugatzailea hartzerakoan

Beheranzko diptongoen alorreko glide sabaikaridunen sailean batez ere *-ai* eta *-oi* amaieradunek mugatzailea hartzerakoan joera bikoitza dute. Adibidez:

---

<sup>51</sup> (1990, 94).

“jai(xa) - gasta(ia); loi(xa) - sasoi(a), morroi(a), erraldoi(a)<sup>52</sup>”<sup>53</sup>. Mugagabea, nolana ere, neutralizatu egiten dira itxuraz berdinak direlako. Gainera, diptongo biek dute soiltzeko joera lekuko batzuegan, *naz* eta *nme2*-rengan, adibidez (emaitza “gasta, kampa, ana” eta abar dira *-ai* diptongoaren kasuan, eta “arrato, saso, jabo, leo” eta abar *-oi* diptongoaren kasuan). Ikus forma soilduen erabilerari dagokion ohar bat:

*nme2* °... “sémat gastá! eroo .. “amar gastá!” eró... .. “Amar gastai” esam-bierrin “amar gastá”, · bueno! esá- ba- bárdiñ esa-nai dau!

a) *-ai(-ei)* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-aixa* egiten dutenak (*-i* amaieradun berben moduan mugatzen eta deklinatzen dira).

Berba batzuek etimoan lukete azalpena, adibidez: “atai/atei”. \**ata-iri* > \**atari*<sup>54</sup> > *atai/atei*<sup>55</sup>. Kontsonante ostean antzina *-i* bokal soila legez deklinatu zen.

Beste adibide batzuk: “jai, mai, sapai/sabai, sai, ai, tantai, nardai, selai, tantai”. “Lai(xa)”-ren inguruko azalpena ikus *-a* itsatsidun berben atalean atzerago. “Ai(xa)” berbaren forma mugagabea “ai” darabilte gehienek, baina *kmz*-k eta *razl*-ek “aixa” ere esan dute: *kmz*-ri forma biak jaso dizkiogu, eta *razl*-i amaierako *-xaduna*.

b) *-ai* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-aia/-aya* egiten dutenak<sup>56</sup>.

Goian bezala, hemen ere etimoek laguntzen dute batzuetan bai forma mugagabea bai mugatua azaltzerakoan. Ikusi besterik ez dago K. MITXELENA-k “kanpae” (Eibarren “kanpai”) hitza nola berreraiki zuen \**-ana* amaieradun formatik abiatuta; gainera, kasu horretan “no caben dudas acerca de la forma primitiva, lo que nos da luz sobre ejemplos de pasado menos conocido” (1990, 145). Eta hortik ateratzen du “gaztai” forma <\**gatzana*-tik letorkeela, eta “biai” <\**bigana*-tik. “Kampai”-k eta “gastai”-k, beraz, ez dute bokal sabaikariak hartuko lukeen kontsonante sabaikaria hartzen mugatzailea erantsitakoan, glide sabaikariaren baino lehenagoko aldiak \**-e* zenez, eta horrela gorde denez paradigma guztietan ere. Ez dakigu nola azaldu mugagabeko forma bat, edutezko genitiboaren kasu markaz den arren: *naz*-k esandako “gastaen” forma: arestian

---

<sup>52</sup> K. MITXELENA-k “Roldán” hitzetik datorrela dio, eta oraingo forma bere iritziz bokal metatesiak azalduko luke (1990, 84).

<sup>53</sup> Formazko bikoiztasuna etimoaren arabera ere ager eta sailka zitekeen, gertatutako bilakaerak azalduaz.

<sup>54</sup> Eibarrerako \**zeinua* behar dugu, ez baitugu kontsonante dardarkaridun adibiderik jaso.

<sup>55</sup> Ikus K. MITXELENA (1990, 91).

<sup>56</sup> K. ROTAETXE-k hainbat erregela morfofonologiko eman zituen Ondarroako emaitzak azaltzeko (1978, 258-268). Eibarkoak azaltzeko beste era batera formulatu beharko liriteke, batez ere azken emaitzen alorrean.



aipatutako “biae” formarekin harremana al du?, “gastain” esan nahi zuen baina “gastaen” ahoskatu du?, “gastaren” forma ahoskatu nahi zuen?...: zein du erroa?, “gasta”, “gastai” ala “gastae”?... Edonola ere, mugagabeen diptongoa murrizten duten *nme2* eta *naz* lekukoek singularrean “gastaya” forma darabilte.

“Biai” formaz beste zerbait esan behar dugu: Eibarren jatorriko bokal arteko kontsonantea ez du inork gordetzen eta horregatik hitz amaieran hiru bokaletako elkarkea<sup>57</sup> dago. Gainera, mugagaberako hainbat aldaera jaso ditugu: “biai” arruntaren ondoan, lekuko batek eskaini digu “biaya” forma, *raz1*-ek hain zuzen; bi lekukok, *raz1*-k eta *nme2*-k, diptongoa soilduta: “bia” forma beraz; eta azkenik, *naz* lekukoari “biae” forma jaso diogu:

*naz* da erosítú bíiii... bi bíáE: · bíayak, bí!

Mugaturako “biaia/biaya” forma ez eze, “bieya” ere jaso dugu, baina hitz barruko bokalen armonizazioz izango litzateke, jakina (*naz*-k, *kmz*-k eta *raz1*-ek horrela ahoskatuta).

c) *-ai* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-aixa // aia/-aya* alternantzia egiten dutenak.

—“Anai(xia)” da era horretako berba. Gehienek “anaia/anaya” eredia darabilte, baina hiru lekukok “anaixa” eredia onartu eta erabili egiten dute, *nme2*-k, *naz*-k eta *kgg*-k. Ikus ditzagun *kgg*-ren iritziak “anaixa/(anaixia)” forma mugatu horretaz:

*kgg* °... baña “anaixa” be bai esáten da, es? Ta nik i- iñois úste-ot esán dotéla oiñ “anáixa”: sékula es neban esaten eta geruao ta geixao geruao ta geixao eta... . . . Nik estot erabiltzen baña badákitx iñois askénengo illfotan ésan eta konturau ei-naixela: *hhe-hhe*, bildurtu!, «“anáixa” esán dot!» ... “Anaixa” oso no-, gaur egun nik uste-ot “anaia” baño normálaua dala, jendé gastíagan e?” // *kgg* °geruao da normálau eitxejata-“anaixa”: óri len es játann bápe rárua- oo bápe normála eitxen eta · geruao ta geixao · entzúzen dó-nik úste dot

Solasaldi askean *kgg*-k erabili erabiltzen du, eta grabatutako adibide bat ere badugu.

—“Galbai(xa)” gence beste berba bat. K. MITXELENA-k<sup>58</sup> antzinako *\*ba(h)e*-tik datorrela dio hitz horren bigarren zatia (eta aurreko egoeraren baten *\*-ane* amaiera izango luke), eta horrek azalduko luke “galbaia” aldaera, jatorrizko *\*-e* bokalaren deklinabidea gordez. Beste aldaera analogiaz-edo azal daiteke agian, “jaixa”-ren ereduari jarraiki. Edonola ere, mugaturako forma arruntena “galbai” da baina beste aldaera bi ere aurkitu ditugu: “galbaya”

---

<sup>57</sup> *kmz*-ren ekoizpenean hiru bokalek silaba bakarra osatzen dute; *raz1*-en ekoizpenean bi silabatan banatuta dago, nahiz eta mugatzailez lehen bokal biak goranzko diptongo legez ahoskatu.

<sup>58</sup> (1990, 88).

*nme2*-ren ahotan, eta “galba” diptongo soilduaz *naz-r*%nean. Mugaturako “galbaya” nahiz “galbaixa” jaso ditugu, eta forma “arraro” bat ere bai, *kgg*-ren ahotan: “galbaixia”, *-a* itsatsiagaz. Lekuko guztiek, *kmz*-k izan ezik —“galbaixa” ez baitu onartzen— eta *kgg*-k izan ezik —“galbaia” forma ez duelako onartzen—, forma biak onartzen dituzte, gehienen lehenengo erantzuna tarteko konsonante sabaikari bakoa izan arren. *nme2* lekukoak ezaugarri “bizkaitarrago”tzat hartzen du “galbaixa” forma; eta *kgg*-ren ustez baserri gehienetan “galbaixa” forma da erabiltzen den “bakarra” (guk bere iritzia jaso egin dugu baina ez dugu ontzat hartzen, izan ere, *kmz*-k ongi ezagutzen zuen baserri giroa, eta *S.B.* izan ezik beste lekuko nagusi denak bizi dira baserrian edo bizi izan ziren aldi batez).

“Galbaia” berba erabiliena da gure ustez, baina horretarako bide eman duen “ba(he)” hitzak ere badu bizitasuna Eibarren. Formari dagokionez, mugagabea “baya” forma jaso diogu *nme2*-ri, eta “bae” *kgg*-ri (azken honek aitortu egin zuen “idéari-bés” ez zeukala, eta oraintsuan eskolan-edo ikasitakoa dela pentsa dezakegu); forma mugatuan *nme2*-k (berba hori era jatorrean erabilia jaso diogun lekuko bakarra) bi forma darabiltza: “baya” eta “baixe”, “galbai” berbaren eredian legez. *kgg*-k “baia” darabil.

—Goikoak errotutako erabilera “zaharra” dutenak diren artean, bada beste eredu bat, baina gure ustez guztiz berriak eta anekdotikoak baino ez diren adibideak dira: “gastaixa”, esaterako. Adibide horren berri eman zigun lekukoaren hitzak dakartzago argigarri:

*kgg* “gastáixa” be esáten da, es? ...: “ogíxa gastaixákin” es jata rárua... es neukían sékula esango //kgg “gastaixakin”?!, ééeeess ééeeess ... “gastáixa”?, ess ess...

d) *-oi* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-oixa* egiten dutenak (*-i* amaieradun berben moduan mugatzen eta deklinatzen dira).

Multzo honetakoa da “goi” berba. K. MITXELENA-k<sup>59</sup> berba hori aipatu egiten du *oi* diptongoaren atalean, baina ez du inongo azalpenik egiten, diptongo zaharra gorde egin dela baino. Mugatu singularreko forma hartuz gero, “goixa”, homofonismoz “goiz” berbarekin nahas daiteke, baina hori mugatuan bakarrik, kontsonante frikari txistikaria *-i* bokalaren ostean eta beste baten aurrean palatalizatu egiten baita (ingurueak zalantza gabe argituko luke esangura eta mezua gure ustez).

Beste euskalki-aldaki batzuetan bisilabikoa den hitz bat ere hemen kokatu behar dugu Eibarko aldaeran: “loi” (“lohi”), baserritarrek darabilten berba batez ere (“placenta” adierazteko).<sup>60</sup>

<sup>59</sup> (1990, 106).

<sup>60</sup> Ez dugu ahoz jaso baina bai idatziz “zoi” berba, J. SAN MARTÍN-engandik (2000b, 1020); forma mugatua ere badakarrenez, ez dago zalantzarik “zoixa” multzo horretakoa dela.

e) *-oi* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-oia/-oya* egiten dutenak<sup>61</sup>.

K. MITXELENA-k hainbat forma berreraiki zituen amaierako *\*-one* formatik abiatuta *>\*-oe >-oi*<sup>62</sup>.

Jatorrian legokeen amaierako *-e* bokalak azalduko luke amaierako glide sabaikariaren ondoan mugatzailea eransterakoan kontsonante sabaikaririk ez agertzea, *-e* amaieradun gisa deklinatzerakoan. Talde honetako berbak ditugu hauek, besteak beste: “jaboi, arratoi<sup>63</sup>, baloi, kantoi, erresoi<sup>64</sup>, leoi<sup>65</sup>, milloi, jamoi, frontoi, melokotoi, sasoi; bukoi, koroï, trum(b)oi; erraldoi, morroi”, zerrenda ikaragarri luza daitekeen arren.

f) *-oi* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-oixa // -oia/ -oya* alternantzia egiten dutenak. Gure ustez guztiz berriak eta anekdotikoak baino ez diren adibideak dira: “frontoixa” adibidez. Ikus *kgg*-ren iritzia:

*kgg* °ésan arritzekua isango, e?, “frontóixa”, e? ... *mm!*, olakó berbárem-bat e lén-gunian be · kontúrau nítzan · oiñ así dala esaten, · jendfak oiñ · “-xa” esaten dabela: ésto-gogóratzen oin sé- se- sé san! · olako bestee ... “-ía”-amaitzen daben bat ... *ftx!*, tákitx!

g) *-ei* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-eixa* egiten dutenak. Hori da joera nagusia; adibideak: “iputei/upatei, dei, sei”... (ikus gainera arestian aipatutako *-ai/-ei* alternantzian). Mugatzerakoan eta deklinatzerakoan *-i* amaieradun berben moduan egiten da.

h) *-ei* diptongoaz amaitutako berbak: mugatzailea erantsitakoan *-eia/-eya* egiten dutenak. Lekuko bakarrari, *kazI*-i, jaso diogu adibide bakarra: “birreya”, mailegu garbia.

---

<sup>61</sup> K. ROTAETXE-k hainbat erregela morfonologiko eman zituen Ondarroako emaitzak azaltzeko (1978, 258-268). J.A. URIARTE-k honela dio forma horietaz: «Azken adibideotan “oe”, “gastae”, “kee”, “kanpae”... bezalako formak proposatu behar dira azpiegituren, deribazioak ondo aterako badira. Hizkuntz ekoizpenean “oi bet”, “gastai bet”... esaten den arren, derrigorrez proposatu behar da azpiegituren E bukaeradun berbak direla. Bestela, “soi”/“oi”, “dxai/gastai”... bikoteek emaitza bera beharko lukete erasterakoan (...) Hori ez da horrela gertatzen. Beraz, diakronikoki gainditurik dauden formak izanik ere, bokalen asimilazioarako erregeletan present daude “oe”, “kanpae” (...) bezalakoak» (1995, 186-187). Eibarko kasuan, diakroniari dagokionez, J. ELORZA-k aurkitu du “Cantoe” toponimoa agiri historikoetan (2000, 85). Gogoan eduki behar da XIV-XVI. mendeen berri ematen duela, baina ez dakar erreferentzia dokumental zehatzik izen horretarako.

<sup>62</sup> (1990, 147-149).

<sup>63</sup> Ikus nolako emaitzak izan dituen berba horrek beste euskalki batzuetan K. MITXELENA-ren lanean (1990, 148).

<sup>64</sup> K. MITXELENA-k hitz hau gaztelaniaz *-ión* amaiera dutenen artean kokatu du eta gainera oharra eginez *-ón* amaiera dutenen antzerako emaitza duela esanez. Agian latineko “ratio” hitzarekin lotuko zuen?

<sup>65</sup> Eibarko euskaran sortutako formak hiru bokaletako elkarketa du hitz amaieran. Dena dela, diptongoen ondoan jarriko dugu, emaitza bat baita.

i) Diptongo/kontsonante alternantzia. Kasu garbiena hau da: “gau //gaba/gabe” mugagabez, “gaua/gaba/gabia” mugatu singularrez.

Kasuistika zabala dago hitz honekin, *-au* beheranzko diptongoaz amaitzen diren beste berbekin ez bezala. Lekuko batzuek forma mugagabeen “gau” darabilte eta deklinatzerakoan, edo mugatzailea hartzerakoan “gaba/gabe” dute oinarri: *nme2*-k horrela darabil, forma mugaturako “gaba” aldaera erabiliz. Eredu horrek baina, aldaera asko ditu: *kmz*-k adibidez, eredu hori darabil, mugagabe nominatibo soilean “gau” eta “gabe” erabiltzen duen arren, eta instrumentalean “gabas” forma; inesibo mugagabeen ostera, “gautan” zein “gabetan” darabil, eta nominatibo singularra “gaua” zein “gabia”. *kgg* ere eredu horretan sartuko genuke, nominatibo mugagaberako “gau” baitarabil, eta “gaba” ez du onartzen eta “gabe” zalantzez; *naz* lekukoak ere mugagabeen “gau” nahiz “gaba” darabiltza. Beste lekuko batzuek mugagabeen “gaba/gabe/gau” darabilte, *raz*-k (lehen forma biak darabiltza) eta *raz1*-ek esate baterako (hiru formak darabiltza). Beste lekuko batzuek “gaba/gabe” darabilte bai mugagabeen bai osterantzean ere: *S.B.* eta *kaz2* ditugu horietarikoak. Beste ereduia beti “gau” oinarria erabiltzea da, bai mugagabeen bai mugatuan: *f.a.*-k darabil horrela. Ikus beste xehetasun batzuk deklinabide kasu bakoitzaren barrena, adibideak lortu ahal izan ditugunean, hain berba aldakorra<sup>66</sup> denez.

Osterantzean, *-au* diptongoz amaitutako berbak *-u* amaieradunak bezala mugatzen eta deklinatzen dira orokorrean.

#### 1.2.0.6. HIATOK

—Batzuetan alternantziak gertatzen dira, maileguetan batez ere: “idea/ idia”; “paseo/pasio, desio, arrio”. Euskarazko hitzetan ere bai, adibidez “oe/oo” (kom. “ohe”). Azken forma hori *naz*-ri jaso diogu leku-denborazko kasu markaz.

—Hiatoen lekuan kontsonantedun egitura bisilabikoak. Jatorrizko joeren ezagupen ezaz, edo bilakaera fonetikoaz, egun badirudi bestelako formak hedatzen hasi direla gazte jendearen artean: “bidixua” modukoak (*bidixua* < \**bidiua* < \**bideo(a)*), *kme2*-ren esanei jarraiki.

—Euskarazko hitzetan alternantzia tarteko kontsonante leherkari-hurbil-karia agertu ala ez gertatzen da batzuetan: “ao/ago, oe/oge”, baina deklinatzerakoan emaitza nagusia hiatoetan, orokorrean, amaierako bokalaren arabera-koa da. Beste kasu bat, esate baterako, *-iol/-ixol/-iño* alternantzia litzateke: deklinabideko emaitzak, amaierakoak bederen, berdinak dira (kasu baterako, “\*aldamio / \*aldamixo /aldamiño” jarri dezakegu, guk jaso dugun aldaera

---

<sup>66</sup> I. LASPIUR-ek askoz ere itxura tinkoagoa eman nahi du “gau” hitzaren deklinabide paradigma erduztat proposatzen duen taulan (1999b, 54). Gure ikuspegi ez da errealista.

sudurkariduna den arren, adibide erakusgarri gisa jarri dugu bakarrik; benetako adibideak nahi beste jasota daude hiatoen atalean bertan nahiz *-oi* behe-ranzko diptongoaren atalean).

#### 1.2.0.7. BOKAL LUZEAK

Amaierako bokal luzeen adibiderako, edo luze legez funtzionatzen dutenerako atal berezi bat eratu da behe-rago. Ikus bestelako bukaera duten hitzen deklinabidearen azalpenean: “be(e), me(e), ke(e)”.

Hona beste adibide bat ekarriko dugu: “arra(a)” hain zuzen ere. Mugatzaile singularra hartzerakoan “arria” nahiz “arraia” forma hartzen baitu. “Arria” da lekuko gehienek darabilten forma mugatua, baina *naz*-k “arraia” ere badarabil aurrekoarekin batera.

#### 1.2.0.8. AMAIERAKO HIRU BOKALEN ELKARKETA

Aztertu dugu “biai”, “anai(xa)” eta “leoi” hitzen jokabidea diptongoei eskainitako atalean. Beste adibide batzuk ipiniko ditugu: “kamioi, abioi...”. Euren jokaera “leoi”-rena modukoa da, berdin osatutakoak baitira.

Ohar bat egingo dugu, izan ere, gaztelaniaz “-ión” amaiera dutenek Eibarko euskararen gehienak “-iño” amaiera eman dute mailegutzat hartutakoan (“telebisi-ño”, adibidez). Argi dago hemengo adibideek (“kamioi, abioi”) ez dutela bide hori egin eta “-ón” amaierakoen bidea egin dutela, Eibarren “-oi” eginez, agian “kamiño” beste zerbait delako (“camino”), edo agian aurreko kontsonantearengatik (“sarampión” → “sarampioi”, “rebelión” → “rebelioi”?, “guión” → “gioi” egingo litzateke); baina “Comunión”-ek ez du \*“Komunioi” formarik eman, “Komunio/Komunixo/Komuniño” baino, eta berdin “reunión” → “reunixo/reuniño” (“religión” ere sistematikoki “relijioiño” egiten da).

Beste gertakari bat elkarketa hausteko kontsonantea tartekatzea da: horrelakoetan bokal soila gelditzen da amaieran eta deklinabidea horren arabera da: “arraixo” ipin dezakegu adibidetzat. Besterik da artikulua nahiz kasu markak erantsitakoan amaieran hiru bokaletako elkarketak sortzea: “etxiai” adibidez; erroa “etxe” litzateke.

#### 1.2.0.9. KONTSONANTEAK

Kontsonanteen alorrean, fonetika sintaktikoaren eraginez, edo hitz amaieran izan, emaitza anitzak izan daitezke: soinuak neutralizatu, asimilatu nahiz disimilatu egin daitezke, baina hori ez da bereziki deklinabideko arazoa. Hor ditugu bustidura kasuak, hobietako sudurkariaren aldaerak, dardarkariaren kasua, afrikariaren jokaera... Adibide batzuk jarriko ditugu:

—Kontsonante albokariaren sailean, bokal sabaikariaren atzetik ez badao ez du eraginik ondorengo osagaiaren hasierak<sup>67</sup>: “ospel, sabal, estul”...; bai du eragina oster, bokal sabaikariaren ondoan badao ondoko berbaren hasierako soinuak, edo ahoskatzerakoan lekukoak etena egiten duen: “mutil”-en kasuan adibidez, batzuetan sabaikaria da eta beste batzuetan ez. Areago, *kgg*-ren kasuan kontsonante frikari ere bihur daiteke, errealizazio hori baita nagusi bere idiolektoan (beste hiztun batzuek ere horrela egin dezakete baina guk aztertu ditugun gehienek orokorrean kontsonante albokari sabaikari egiten dute).

—Kontsonante dardarkariaren sailean ere bada berezitasunik: hurrengo berba bokalez ala kontsonantez hasten den, ala amaiera absolutuan den, ala ahoskatzerakoan lekukoak etena egiten duen, dardarkariaren errealizazioa bakuna edo anitza izan daiteke (edo alternantzia gertatu). Adibide esanguratsua “ur(r)” (“agua”, kom. “ur”) /urr (“avellana”, kom. “hur”)-en bikotean dugu. Aztertu ditugun hitz gehienak “urr (kom. “hur”)-en ereduak dira: “moskor, sagar, sator”... Ikus, dena dela, errealizazioak kontsonantismoaren alorreko kontsonante dardarkariaren atalean “hitz amaieran” zatia. Han ikus daiteke *kmz*-k “ur (“agua”)-en bokal aurrean ere “urr asko” egiten duela, eta “urebagi/urrebagi” (<\*ur-ebaki); baina *ñmz*-k “... ur’e- erátera ta-ará!”.

Dena den, amaierako dardarkariak ere alternantzia du amaiera kontsonantia izan ala bokaliko, batez ere gaztelaniazko *-or* amaieradun hitzetatik hartutakoetan (bokal artean dardarkari bakarra egiten diren kasuetan), eta deklinatzerakoan emaitzak ere halakoak. Adibidez, “tenedor/tenedore/tenedora” hirukotea dugu mugagabeen, eta mugatutakoan “tenedora/tenedorra/tenedoria”, azken aldaera *nme2*-k umeen erabilerakotzat hartzen duen arren. Pareko “sekadoria” forma jaso diogu *razl*-i; eta toponimoak deklinatzerakoan ere alternantzia dago: “Salbadorrera/Salbadorerera”. Gure ustez mugatu singularrean *-ria* amaiera egiten duten hitzak mugagabeen *-e* amaieradun egingo lituzkete lekukoek: “grabadoria —“grabadore” forma mugagabea sarri jaso dugu—, jugadoria, fumadoria, pint(x)oria, umoria”, eta abar.

—Kontsonante sudurkariaren sailean bi alderdi izan behar dira gogoan: bate-tik, aurretik bokal edo glide sabaikaria duen; eta bestetik, ondoren zein soinu duen ala etena duen.

- Aurretik bokal edo glide sabaikaria badu eragina izango du hurrengo berba bokalez hasten bada ala amaiera absolutuan bada, ala ahoskatzerakoan lekukoak etena egiten badu, sudurkariaren errealizazioa sabaikaria izan baitaiteke. Sabaikaritzea “fin” hitzean gertatuko litzateke, adibidez.

---

<sup>67</sup> Zein ingurune duen alomorfoak sortzen diren arren, jakina.

- Edozein kasutan, bien bitartean etena ez badago bederen, ondoren kontsonante leherkari ezpainkaria badago sudurkaria asimilatu egiten du eta “fin” → “fim-” bihurtzen da. Gertakari hori aurretik edozein bokal duela ere gertatzen da: “gison” → “gisom-”.

—Kontsonante afrikarien sailean sabaikarizazioa gertatzen da batzuetan aurretik bokal edo glide sabaikaria badu (ikus “aritz/aritx”-en errealizazioak lekukoengan, adibidez<sup>68</sup>). Eragina duen beste faktorea ondorengo soinua da, ala etena dagoen, jakina. Amaiera absolutua, etena edo bokala badu ondoan, kontsonantea afrikari egiten da orokorrean; beste kontsonante bat badu, joera frikari egitea da (ikus *razl*-en eta *naz*-ren adibideak, besteak beste), eta zenbait kasutan afrikari sabaikaria galtzea ere bai (“poli-bat”, esaterako, “politx” berbatik).

—Kontsonante frikari txistukarien sailean ere palatalizazioa gertatu ala ez legoke jokoan ingurumenaren eraginez: “gois/goix” adibidez (dena den, ikus adibide hori hurrengo atalean, amaiera bokalikoarekin duen alternantzia).

—Kontsonante leherkarien sailean ez daude hitz asko amaiera hori izan eta deklinatu egiten direnik, baina egon badaude. Forma mugagabeen ingurumenak badu eragina zein errealizazio izan dena delako kontsonante horrek. Amaiera absolutuan, edo etenaren aurrean, edo bokal aurrean bada, kontsonantea ez da aldatzen; baina ondorik beste kontsonante bat badu joera bikoitza hartzen dute: edo galdu, edo gorde. “Txolot” genuke era horretako berba. Beste sail bat *-tt/-tx* alternantzia egiten dutenak osatzen dute, “politt/politx” esate baterako.

#### 1.2.0.10. AMAIERA KONTSONANTIKOAREN ETA BOKALIKOAREN ARTEKO ALTERNANTZIA

—Euskarazko berbetan, adibidez, “il/ille, gain/gaÑe, goix/goixe”. K. MITXELENA-k honela aurkezten du gertakari hori: “Hay frecuente vacilación entre formas con y sin *-e*.” (1990, 133); eta maileguetan bereziki “no parece haber tampoco reglas muy fijas detrás de algunas consonantes, lo que probablemente guarda relación con la fecha de introducción” (1990, 134).

Lekukoen joerak aurkeztuko ditugu jarraian. “Il/ille” bikoteraren kasuan amaiera bokalikoa beti darabilte *kmz*-k eta *kgg*-k (bai mugagabeen, bai deklinatzerakoan ere, nahiz eta *kmz*-k plurala “illak” egiten duen); amaiera kontsonantikoa darabilte *razl*-ek, *naz*-ek, *S.B.*-k, *f.a.*-k; alternantziak, *nme2*-k.

*kmz* lekukoak joera handia du amaiera bokalikoak egiteko: “goixe” berba ere berari jaso baitiogu birritan, baita “gaÑe” ere. Beste lekukoek “goix/gois” egiten dute (*naz*-k mugatu singularrean “goixa” darabil); eta “gain/gaÑe/gaÑa?”-ri

<sup>68</sup> Bitxia da *razl*-en errealizazio bikoitza: frikari txistukari sabaikari legeez, eta afrikari sabaikari legeez.

dagokionean kasuistika zabalagoa da. *kmz*-k argi egiten du “gañe” mugagabea, errepikatzerakoan beste lekukoek “gain” forma darabilte mugagabea baina deklinatzerakoan emaitza anitz daude: argitasunik atera dezakegun forma mugatu singularra eta plurala da. Nominatibo mugatu singularra *nme2*-k eta *ñmz*-k “gaña” egiten dute eta *kgg*-k “gañia”; beste lekukoei plural formak jaso dizkiegu: *kmz*-k “gañak” egiten du mugagabea “gañe” esan arren; *raz1*-ek eta *naz*-k ere “gañak” forma darabilte eta *kgg*-k onartu egiten du; *S.B.*-k eta *kgg*-k “gañiak” forma darabilte; *ñmz*-k birritako erakuslez “aretxi gañari” eta “aetxi gañiai” egiten ditu datiboan. Zein da horien oinarritzko forma mugagabea?: *kgg*-rengan “gañe” suposa daiteke singularreko forma ere kontuan hartzen badugu. *ñmz* lekukoak datibo singularra “gañiai” egiten du batzuetan, eta ezin jakin horren oinarrian “gañe” ala “gaña” duen; nahiz eta beste batzuetan “gañari” egiten duen.

—Mailegutan. Berba askotan dago alternantzia hori, batez ere jatorrizko hizkuntzan hitza kontsonante dardarkariz amaitutakoan (gai hau lehen ere aipatu dugu kontsonante dardarkarien sailean eta ez dugu beste adibiderik jarriko: ikus bada, goraxeago).

Gogoan izan arestian MITXELENA-ri jaso diogun pasartea<sup>69</sup>, zergatik ezei barren ere “kurutz//kurutze/kurutza” bikotea dugu maila ezberdineko lexikoan: hitz arrunt gisa, “cruz” esanguraz alegia, joera amaierako bokala gordetzea da (*kurutze/kurutza*<sup>70</sup>), baina “Santakurutz /Santakruz /(Santakurutze)” ditugu toponimian. Beste esanguraz, “cruce” esan nahi duenean behin “kurutze” jaso diogu *naz*-ri, nahiz eta joera nagusia zuzenean “kruse” egitekoa den; hala ere, toponimoan txertatutakoan “Ibarkurutze” dugu, baina “bidakurutz” berbak ez du *-e* “cruce” esanguraz. Bestelako esanguraz eta egituraz jaso dugu “karai-kutz”, gaztelaniazko “cara o cruz”-tik mailegatuta ziurrenik. Mailegatze dataren gorabehera izan liteke horren azalpena?

### 1.2.1. *Nominatiboa* (Ø)<sup>71</sup>

#### 1.2.1.1. ALDERDI FORMALA

##### 1.2.1.1.1. Mugagabea

Ikus “1.2.0. Amaiera mugagabeak” atala, han garatu baititugu hainbat amaieretako gertakariak.

<sup>69</sup> (1990, 134).

<sup>70</sup> R.M. AZKUE-k bete eragin zuen erizkizundeko Eibarko erantzuna ere “krutzia” zen, kontsonante multzoa banatzeke bada ere (*in* A.M. ECHAIDE, 1984, 342).

<sup>71</sup> Ikuspegi diakronikoz kasu honen oso aurkezpen xumea egiten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001, 87).



### 1.2.1.1.2. Mugatu singularra

#### 1.2.1.1.2.1 Amaiera arruntak, jokaera nagusiak

##### Nominatibo mugatu singularra: eredurako<sup>72</sup>

-a: <i>alabia /alabie /alabie /alabja /alabje /alabi</i>
-e: <i>etxia /etxie /etxie /etxja /etxje /etxi</i>
-i: <i>txikixa /txikixe</i>
-o: <i>astua /astue /astwa /astwe /astu</i>
-u: <i>katua /katue /katwa /katwe /katu</i>
-kontsonantea: <i>egurra /egurre</i>

Forma mugatu singular askoren jokaera eta aldaera berezienak 1.2.0. atalean azaldu direnez ez ditugu berriz errepikatuko. Bestalde, mugatzailea erantsita-koan sortzen den nominatiboaren erdua baliokoa izango da beste kasuetarako ere: berezitasunen bat dagoenean aipatuko dugu dagokion kasuan (besteak beste, multzo osoak ditu “berezitasun” horiek: leku-denborazko kasuak, deklinatu-takoak bizidunak ez direnean, edo ez-bizidun legez deklinatutakoan).

a)  $-a + a > -ia (> /-ie /-i)$ <sup>73</sup>

Edonork pentsa dezake Eibarko emaitza bakarra *-ia* amaiera dela, baina guk argi eta garbi ikusi dugu ezetz. Batzuetan inguruak eragina du eta beste batzuetan ez.

— *-ia* aldaera da sarrien aurkitu duguna, lekuko gehienengan (forma hau da gainera leku-denborazko kasuetan bizidunei aplikatzen zaiena).

— *-ie* aldaera (armonizazioz sortutakoa) lekuko batzuegan aurkitu dugu bakarrik: *kmz*, *nme2*, *naz*, *rae*. Zenbait adibide jaso ditugu (“entzutie, merixendie, pelotie, faenie, letrie”), eta bitan etenaren aurretik dago eta beste baten “da” partikularen aurretik. Beste kasu batzuetan ere aurkitu dugu aldaera hau, ergatiboan adibidez.

— Bai euskaraz bai Eibarko euskaraz bokalen tinbrea oso tinkoa ez denez *-ia* eta *-ie*-ren tarteko errealizazioa ere jaso dugu: *-ie*.

— *-i* aldaera ondoko soinuari estuago lotuta dagoela dirudi, adibide guztietan ondorik beste bokal bat edo bokal multzoa baitu. Besteak beste lekuko

<sup>72</sup> Era honetako taulak txertatu ditugu azterketan zehar aldaerak errazago eta sintetikoki adierazteko, baina kontuan hartzekoa da taula hauetan ez direla aldaera guzti-guztiak ageri, eta horko informazioa lagungarri baino ez dela.

<sup>73</sup> Transkripzioak egiterakoan, amaierarako ongi eskarmentatu ginen, azterketa akustikoen laguntzari esker neurri handi batez, beti ere ahalik eta objektiboan entzuteko ahaleginak egiten jarraituz.

hauek darabilte: *raz1*, *nme2*, *nme4*, *rae*, *rmz*, *kaz1*, *kaz2* (bakoitzari arrunki adibide bat baino gehiago jaso dizkiogu). *kaz1*-en adibide bata “kanteri euan” da, kate fonikoan lau bokal elkarren segidan. Aldaera honen oinarrizko forma *-ia* nahiz *-ie* izan daiteke.

—*-ja/-je* goranzko diptongoak. Ez dakigu zenbaterainok errealizazio hau sistematikoa den<sup>74</sup>. Goranzko diptongoen errealizazioei eskainitako beste azterketa askoz ere zehatzagoa beharko genuke.

b) *-e + a > -ia (> /-ie /-i)* (*-a* amaieradun berben emaitzekin guztiz bat egiten da, sinkretismoz)

Hemen ere goiko azalpenek balio dute orokorrean:

—*-ia* aldaera da sarrien aurkitu duguna, lekuko gehienengan (forma hau da gainera leku-denborazko kasuetan bizidunei aplikatzen zaïena).

—*-ie* aldaera lekuko batzuegan aurkitu dugu bakarrik: *kmz*, *nme2*, *nme4*, *nmz*, *rmz*, *raz1*<sup>75</sup>, *rmg*<sup>76</sup>. *nme2*-k forma hau *-iarekin* txandaka darabil normalki; ikus adibide bi hauek:

*nme2* emén elíssetatik, · paisajie · oso-óndo ikusten da // *nme2* or elíssetatik, ·· paisajia osóndo ikusten da

*nme4* lekukoarengandik *-a* itsatsidun kasuan *-i* aldaera lortu dugu bakarrik, baina oraingoan “bestie” forma jaso diogu esaldiaren amaiera-amaieran; baliteke aldaera hori izatea bere idiolektoko nagusia.

—*-i* aldaera ondoko soinuari estuago lotuta dagoela dirudi, adibide guztietan ondorik beste bokal bat edo bokal multzoa baitu. Besteak beste lekuko hauek darabilte: *nme2*, *nae*, *rae*, *rmz*, *kaz1* (bakoitzari adibide bat baino gehiago jaso zaionez, aldaera arruntzat hartu behar da). Emaitza inoiz bokal luzatua ere bada hurrengo berba tinbre berekoa bada; *rae*-ren adibide bat dakargu:

*rae* °... asúfri-im-bier ...

—*-ja/-je*. Badirudi errealizazio hau kontuan hartzekoa dela adibide frankotan jaso baitugu. Besteak beste errealizazio hau honakooi jaso diegu: *-ja* diptongoa *ñaz2*-ri, *kmz*-ri, *kaz1*-i, *kaz2*-ri, *rmz5*-i, *kmz3*-ri, *ñmz*-ri eta *kmz6*-ri (azken hiru hauei pluraleko adibideetan); *-je* diptongoa *rae*-ri eta *naz*-ri (baina bieci pluraleko adibideetan).

---

<sup>74</sup> Beste amaiera eta kasu batzuetan ere gertatzen direla kontuan izanik, ez lirateke sistematik kanpo ere utzi behar. Nolanahi ere, TXILLARDEGI-ren esanen kontra (1977, 190), honelakoak egiten dituztenak ez dira “erdal hiztunak”, euskaldun jatorrak baino.

<sup>75</sup> Inesibo forma mugatuan aurkitu dugu errealizazio bat; hiru bokaletako elkarketadun berban ere bai.

<sup>76</sup> Inesibo forma mugatuan jaso diogu adibide bat.

c) *-i + a > -ixa (> /-ixe)*

—*-ixa* aldaera da sarrien aurkitu duguna, lekuko gehienengan (forma hau da gainera leku-denborazko kasuetan bizidunei aplikatzen zaiena).

—*-ixe* aldaera lekuko batzuegan aurkitu dugu bakarrik: *nme2*, *nae*, *rae*, *rmz* (lekuko honi ergatibo kasu markaz nahiz nominatibo pluralez jaso dizkiogu horrelako errealizazioak), *naz* (lekuko honi ergatibo kasu markaz, pluralez jaso diogu aldaera hori), *nmz*, *ñaz1* (lekuko honi adibideak inesibo kasuan jaso dizkiogu), *kmz*. Glide sabaikaria duten beheranzko diptongoentzat *-i* bokalaren erdua jarri dugunez mugagabearen atalean, *-ai* amaieradun hitz bat ere aldaera honekin aurkitu dugula aipatu behar, bi lekukorengan: *ñaz1* eta *kaz1* (adibideak mugatu pluralean jaso ditugu), baita *-oi* amaieradun baten ere, *ñaz2*-ri kasu inesiboan jaso (“goixen”).

Ikus *raz*-k egiten duen forma berrien inguruko iruzkina: *raz* “<sup>o</sup>“txikía” oiñ · guré umák esáten dábe: “txikíxa da”; guk · “txikixa da””. Forma “zaharra” berriaz, eibartar jatorriko andrazko batek damaigu elkarrizketa baten barrena:

-monja <sup>o</sup>[euskara] el d'Eibar...

-*raz4* <sup>o</sup>“txikíxa” ta ...

(...)

-*raz4* <sup>o</sup>en Eibar (?)... mutxo “*xi-xa*”: ba, “txikíxa,-aundíxaa...” i · llama l’atención, · sí es un modo especial...

d) *-o, -u + a > -ua (> /-ue /-u)*

Lehenago azaldu dugu *-o* eta *-u* amaieradun berbak mugatzailea erantsita-koan berdin jokatzeko dutela, bai singularrean bai pluralean. Horregeatik, eta lekuko bakoitzaren alternantziadun berben errealizazioak banaka aztertzea lan astuna bezain alperrikakoa litzatekeelako, batera aurkeztuko ditugu amaiera bien emaitzak.

—*-ua* aldaera da sarrien aurkitu duguna, lekuko gehienengan (forma hau da gainera leku-denborazko kasuetan bizidunei aplikatzen zaiena). Ikus *kmz1*-ek nola dakusan:

*kmz1* <sup>o</sup>“télátú·á” <mugatzaile singularra nahiaz bereizirik>

—*-ue* aldaera lekuko batzuegan aurkitu dugu bakarrik: *nme2* (lekuko honi nominatibo singularrean ez ezik, ergatibo kasu markaz nahiz nominatibo pluralez jaso diogu), *nae* (hauxe da berarengandik jaso dugun aldaera nagusia, hainbat adibidetan), *rae*, *rmz7*, *nmz*, *naz*.

—*-u* aldaera ondoko soinuari estuago lotuta dagoela dirudi, jaso ditugun adibide gehienetan ondorik beste bokal bat edo bokal multzoa baitu. Besteak beste lekuko hauek darabilte: *nme2*, *nme3*, *nae*, *rmz*, *rae*, *kaz2*, *ñmz*. Hala ere, baditugu bestelako adibideak, ondorik kontsonantea dutela:

*kaz2* <sup>o</sup>... erretratu tara [sic] ta ... —*nme2* berá-dirú báleroye ... //*nme2* <sup>o</sup>au bada... · au báda-aparatu geró! aparátue!: · ála! ... —*nme3* <sup>o</sup>... berándako kastigú da, e?

Beste errealizazio bat ere lortu dugu, amaiera-amaierako posizioan, baina lekukoak hitza erabiltzen ez duenez ezin dezakegu adierazgarritzat hartu: *naz* “goróldixu”.

—*-wa/-we* goranzko diptongoz. Errealizazio hau sistematikoa da, adibide mordoia jaso baititugu. Besteak beste lekuko hauengandik jaso ditugu adibideak: a) *-wa* diptongoz *kmz*-ri, *raz1*-i, *raz*-ri, *rmz2*-ri, *ñaz1*-i, *ñaz2*-ri, *ñmz*-ri, *kaz1*-i, *kaz2*-ri, *kaz3*-ri, *kmz6*-ri, *kmz3*-ri, *rmz5*-i (pluraleko adibideak ere aintzat hartu ditugu lekukoak aipatzerakoan); b) *-we* diptongoa ere jaso dugu baina gutxiagotan (pluralean edo beste kasu batzuetan batez ere).

e) Hitz amaierako bokal elkarketen (diptongoen, hiatoen eta hiru bokaleta-ko elkarketen) jokaera ezagutzeko ikus 1.2.0. atalean egin diren azalpenak eta oharrak.

Amaieran *-au* diptongoa duten hitzetan erreparatuko dugu: orokorrean *-u* amaiera duten berben antzera mugatzen eta deklinatzen dira (berdin da mugagabe oinarritzko forma *-au* izan ala *-ao* izan), eta emaitza *-aua/-aue/-au*<sup>77</sup> aldaerak dira. Lehenengo aldaera biak erraz aurki daitezke gure lekukoaren ahotan, lehenengoa batik bat; baina azkena ere bai, ingurunearen eraginez ziu-  
renik:

*kaz2* °... mantekau artzera...<sup>78</sup>

“Gau/gaba/gabe”-ren kasua aipatuko dugu bereziki. Hiru forma jaso diezkiegu lekukoei mugatu singularrean: “gaua /gaba /gabia”, alternantzia lekuko bakoitzarengan ere nagusi dela.

Beraz, laburbilduz, kontsonante txistukari sabaikaria tartekatzen ez den kasuetan, hitzaren amaiera bokal soilekoa bada emaitza nagusia hiatoa-diptongoa da; hiatoz zein diptongoz amaitutako berbetan, hiru bokaletako elkarketa; eta hiru bokalez amaitzen diren berbetan, lau bokaletako elkarketa.

f) Kontsonantea + *-a*.

Joera arrunta mugatzailea zuzenean kontsonanteari txertatzea da; beste aldaera bat badu, amaierako *-a* mugatzailea itxita *-e* eginda, aurreko bokalaren eraginez, noski. Ezaugarri hori lekuko batzuen da bakarrik: *nae*, *rmz*, *nme2*. J.A. URIARTE-k honako orokortasuna antzeman zuen Fruiz-en: “Azkenaurreko bokala A, E edo O denean, A bukaera dugu beti, baina kontsonante aurreko bokala I edo U baldin bada, E izango dugu azkenean” (1995, 354). *nae*-ren adibidean (“mutille”) horixe gertatzen da, baina ez da beste lekukoengan horrelakorik sistematikoki gertatzen: *rmz*-k txandaka darabiltza “egurre” eta “egurra”,

---

<sup>77</sup> Zein hiato-diptongotzu sortzen diren ere aztergai uzten dugu. Gai horrek merezi du monografiaren baten lantzea gure iritiz.

<sup>78</sup> Kasu horretan ere irtenbide salomonikoa osorik idaztea litzateke: “mantekauartzera”.

eta *nme2*-k “aitza, politta /utze, krise, politte, igoñe” darabiltza (inoiz, bada, ez *-i-* eta ez *-u-* ez diren bokalen atzetik). Gerta daiteke mugatzailea ondoko soinuekin bat egin eta soilduta agertzea.

#### 1.2.1.1.2.2. *Gertakari bitxiak*

— Izen batzuek ez dute plurala onartzen, adibidez: “asti”.

— *-a* itsatsidun hitzak. Batzuetan mugatuan izen berezi legez funtzionatzen duten hitzak, mugagabeen berdin (“ama/amia”-ren kasua adibidez: ikus arestian eginiko azalpena).

— *-i* amaierako hitz bitxia: “pitxia”.

Bokal sabaikari soilaz amaitzen diren ia hitz guztiek kontsonante txistukari sabaikaria hartzen dute mugatzailearen aurretik, baina salbuespenik ez da falta. Guk aurkitu dugun bat aipatuko dugu, besterik den ezin uka dezakegun arren: “pitxia” berbaz dihardugu. Aipatu dugu 1.2.0. atalean ere hitz hau, lekuko batek *-a* itsatsidun legez darabilelako. Hemen beste arrazoi batengatik aipatu dugu, mugatzailea hartzerakoan ez beste lekukoek ez *razl*-ek ez dutelako erroaren eta mugatzailearen arteko txistukari sabaikaria txertatzen, eta denek “pitxia” forma darabilte singularrean eta “pitxiak” pluralean (espero zitezkeen “\*pitxixa, \*pitxixak”-en lekuan, “itxixa, itxixak” egingo litzatekeen moduan).

#### 1.2.1.1.3. Mugatu plurala

##### Nominatibo mugatu plurala: eredurako

<i>-a: alabak</i>
<i>-e: etxiak /etxiek /etxiek /etxjak /etxjek /etxik</i>
<i>-i: txikixak /txikixek</i>
<i>-o: astuak /astuek /astwak /astwek /astuk</i>
<i>-u: katuak /katuek /katwak /katwek /katuk</i>
<i>-kontsonantea: egurrak /egurrek</i>

Beste ikerlari batzuek forma osoak berreraiki dituzte pluraleko formak azaltzeko (amaierako kontsonante leherkari ahostuna litzateke pluralgilea, eta hainbat gertakarik azalduko litzukete deklinabide kasu guztietako formak), baina guk joera nagusietako emaitzak aurkeztuko ditugu.

Orokorrean, mugagabeen *-a* itsatsia duten berbetan izan ezik, osterantze-koetan singularreko formei *-k* ezaugarri plurala erantsita lortzen dira pluraleko formak, aldaerak ere berdintsuak izaki.

Pluraleko formek berezko duten amaierako kontsonante leherkariak ingurunearen eraginez aldaketak jasan ditzake:

— Amaiera-amaieran badago, ondorik etena edo isilunea badago, edo ondorik bokalez edo sekuentzia bokalikoz hasten den berba badu joera nagusia kontsonante leherkaria dagoen-dagoenean gordetzea<sup>79</sup> da (bokal artean hurbilkari bihur daiteke).

— Ondorik kontsonantea badu, batzuetan gorde egiten da lekukoa alfabetizatua delako eta *-k* horren konszientzia osoa duelako edo lekukoak indar-arreta berezia eskaintzen diolako esaten denari. Beste batzuetan ostera, gehienetan esango genuke, kontsonante leherkari hori galdu egiten da beste gabe, edo ondoko kontsonantea asimilatu ostean (ahostuna ahoskabe bihurtuta, adibidez).

Plurala nola osatzen den hizkuntzalaritza herrikoiairen ikuspegiz<sup>80</sup>:

*-kmz* °el final de “-ak” · en basko, · eu- éuskas “-ak” askéna, · sér da?: pluralá  
-t plurala

*-kmz* °ñññó! ooóri da!...

*-kmz* / °da, orrék ólaxen daos órrek

*-kmz* °“mutíll · ák”, “nés · kák”

*-kmz* / °“néskaak”!

*-kmz* °“néskak eta mútillak”

*-kmz* / °“téllatú-á”

*-kmz* °“téllatúak”!

*-kmz* / °téllatú-ák”. D(o)a [sic] bázutan ba, · amén e sártzen dabe ba · létra bá-da úrrengo beste létra bat eta...

— *-a + ak > -ak*, salbuespenik gabe (leherkariaren ondoko soinuak eragin-dako gorabeherak dira bakarrik aipagarri).

— “Gau” hitzaren forma pluralak: “gauak/gabak”. Horren ondoan “lauak/laurak” bikotea ere jarriko dugu, aldaera bakoitzaren jatorria izenen estatus eta izaeratik datorren arren: “lauak” “lau” izen-izenondoa nahiz “lau” zenbaki “mugatua” litzateke, eta “laurak” zenbaki zehatz plurala baina zentzu “mugagabeduna”.

— Amaiera guztien aldaera hedatuenean ondoan (*-iak*, *-uak*, *-ixak*, *-aixak*, *-eixak*, *-oixak*, *-aiak*, *-eiak*, *-oiak*, *-ak*), besteak ere aurki ditzakegu (kasu batzuetan pluraleko forma hauen bitartez ezarri ditugu singularrekoak): “bidiek, umiek”; “burdixek, garixek, orrixek”; “selaixek”; “beixek”; “musikuek, ton-tuek, erregaluek”; “eskuek”; “batekuk”<sup>81</sup>; “urrek, giltzek”.

<sup>79</sup> Bokal artean kontsonante leherkaririk gabe ere aurkitu dugu.

<sup>80</sup> Erreparatu nola zatitu duen *-a* itsatsidun berba *kmz-k*, eta nola *kmz* /-ek berba horri bokala luzatu egin dion (luzapen adierazkorra da, beste gabe).

<sup>81</sup> Adibidea hauxe da: *kaz2* °... eum-batekuk [sic] órrek!

## 1.2.1.2. ERABILERA

### 1.2.1.2.1. Erabilera arruntak

Edozein gramatikatan aurki daiteke nominatiboak betetzen dituen funtzioen eta erabileren zerrenda: aditz iragangaitzetako (edo horrela funtzionatzen dutenen) subjektu, aditz iragankorretako (edo horrela funtzionatzen dutenen) objektu, atributu edo predikatu osagarri, kantitatea-salneurria-neurria-pisua-denbora eta antzerakoak adierazteko, bokatibo funtzioa, definizioak egiteko, postposizio batzuen aurrekari. Eibarren ere funtzio horiek ditu nagusiki.

Bokatiboari berari eskaini diogu atal berezia eta beraz irakurleari eskatzen diogu hara jo beza funtzio-erabilera horren inguruko argitasunak ezagutzeko. Aurrez aipatuko dugu forma mugagabea nahi mugatuan osa daitekeela.

### 1.2.1.2.2. Zenbait erabileraren berri

Ondoren gure iritziz “bitxiak”-edo diren egiturak eta adibideak aurkeztuko ditugu, bai mugagabea, bai mugatua. “Bitxi”-tzat hartzen dugu batez ere erabilera mugagabea izatea mugatua ere izan daitekeenean, eta alderantziz.

#### 1.2.1.2.2.1. *Mugagabea*<sup>82</sup>

—Lanbidea, zeregina adierazteko. Batez ere “ibili, egon, juan, etorri, izan” erako aditzez eraturako egiturak; “abade karreran ibili, monja eon, andero juan” egiturako adibideak ugari dira; batzuetan aditzik ere ez du behar, adibidez:

*kmz* °nik ess: · léleno deléneante, ·· úrtetan; ·· geró Méjikota ·· an jéfe morúan, ·· diretóre morúan!

—Forma konposatuetan: “ganau-gobernua”, “ganau-jiria”, “soro-usaña”, “edurr-aixia” erako elkarketetan.

—Subjektua. Adibidez:

*rmz* °andra- andráskuak es, bañaa gisonéskuá-dának!: áitxa tá, kriaú tá..., géro jornaléruak etá...

—Objektu funtzioan:

- Aditz nominalizatuekin osaturako egituretan. “Arrain-saltzen<sup>83</sup>, bedarr-ebaten, perretxiku-batzen” erako egiturak<sup>84</sup>: egitura horrek aditz nominalizatua

---

<sup>82</sup> Ikus gainera deklinabide kasu guztietan, leku-denborazkoetan batez ere.

<sup>83</sup> Adibide hauetan gidoia idatzi dugu osagaien arteko harreman estua argiago ikusteko: partizipioaren kasuan “arrain saldu” erabil daiteke beste osagaien bat gehituz gero: “nahikoa arrain saldu” eta ez litzateke arraroa izango, baina guk osagai bien baterako erabilera aztertzen dihardugu.

<sup>84</sup> Tesi honen defentsa egunean P. Goenaga doktoreak egitura hauek hitz elkartutzat jo zituen. Nik neuk ez dut hain garbi ikusten izen izaera hori.

eskatzen du itxuraz, ez baitu onartzen partizipio mugagabea (\**arrain-sal-du*), baina bai partizipioaren erroa mugagabean nahiz deklinatuta: “ganau zain, ganau zaiñerako, patata jorria”. Aditz izena deklinatuta ere onartzen du egitura honek: “dantza eskatzera”. Jaso dugun beste adibide mota bat hauxe da “arrain saltzaille, bei zaintzaille, ganau gobernatzaille”. Horren ondoan forma mugatudun “arraña saltzen” erako adibideak ere jaso ditugu, azken finean esangura bat delako.

- Bestelako adibideetan. Ikus adibide batzuk (ez ditugu asko jaso):

*nme2* txal im-barrixan ee esní eran dot  
*raz* °... gaur, · purÉ séñek estau jan? Umfak seáitxik estau jan purÉ? Geró béi-txu! ...

Dena dela, badirudi ume-hizkeraren ezaugarrietariko bat dela<sup>85</sup>. “Jai euki” egitura ere hemen kokatuko genuke.

— Atributu-predikatu funtzioan. Adibideak dira adierazgarrenak (eta oso ugari jaso ditugu), “egin, ipini, izan, egon, ibili, juan, sartu, jausi” eta hainbat aditzez osatutako esaldietan, esaterako:

*nme2* °... éss! <eskuekin egiten du> onakó bat alturíaa..., · onakúa sabál, · onakó bat alturía, da onakó ba-lusé; bueno!, txafanákiñ! —*naz* ee, barau nao-onddiok ...  
 —*rmz* °... ni baño urté bete gastiao eo estaki-se san!

— “Bihurtu, egin” esangurako egituretan. Adibidez:

*naz* °... gantzá kóipe itten da tá...

— Esapideetan, hitza errepikatzerakoan:

- Lehenengo izena forma mugatuan (nahiz singularrean nahiz pluralean) eta bigarrena mugagabean. Honelako bikoteak sortzen dira, esaterako: “jokua joku, tirua tiro; ipoñak ipoñ, kontuak kontu” eta abar. Adibide batzuk, erakusgarri:

*kmz* °báái bá!; sártzaría sártzara!  
*raz5* °... -“Eibar baákik!, · Eibarren · póbre-egon aberatza eón, Sanjuána-Sán-juan!” ...

- Izenaz landa, beste osagai batzuk ere errepika daitezke, aditza adibidez, eta horrelakoetan egitura erlatiboak sortzen dira; ondorengoetan partizipioa

---

<sup>85</sup> Eibarko forma neutro arrunta, nagusi bati esanez gero, “su! segaitxik estosu jan puria?” izango litzateke; edo umeari berari nagusi bati moduan eginez gero hauxe esango litzateke: “ume! segaitxik estosu jan puria?”. Objektua adierazteko mugagabeak eta bigarren pertsonari zuzentzean (umeei hain zuzen) hirugarren pertsonako formak erabiltzea umeentzako hizkeraren ezaugarri bereziak dira.



errepikatzen da: “esanak esan, eiñak eiñ; eindakuak einda; pasau dana pasau, entzuten dosuna entzun”, eta abar. Adibidez:

*f.a.* entzúten dosuna entzún suk es ein kásorik iñóí

- Aurreko horren tankerakoa da perpauseko adizki jokatua errepikatzen deneko egitura, sintaxi egitura konplexuagoak sortzen diren arren: “entzuten dosuna entzuten dosula, daona daola” gisakoak. Adibidez:

*S.B.* esaten dabena esaten dabela, su trankil eon

- Izen bereziak ere horrelako egituretako osagai izan daitezke:

*razl* “Ermúa Eibártzat” °<pragmatikoki, baina> esss, es! Éibar ésta Ermúa!, és-es-es-es! Bai!, bátzu-pai!, batz- báí bá!, kámpotarra-pái!, bai! geurí be oixe pása-tze-aku kámpora juandakua-baña és!: Éibar Éibar!

Sistema horretatik kanpo legoke “dana dalakua” egitura ihartuagoa, esan-guraz ere bestelako ñabardura baitu, formazko aldeak ez ezik.

- Lehenengo izena deklinaturik (instrumental kasuz, ablatibo kasuz) eta bigarrena mugagabeen: “etxes etxe; etxerik etxe”.

— Hitzen hurrenkera aldatutako sintagmetan. Esaterako:

*rmz* °dána! Urenakoo-ori mu- ee... sélai eméndikalioi be bai!

— Instrumentalaren orde. Esaterako:

*rmz* °ee, an es!: áre-lúbarrixak ero bai bañá...; aau! etx- etxe bueltako-one-solúok!, erdíxak ee garí txa erdíxak ártó!

— Denbora adierazteko. Esaterako:

*rae* °jái-txa-aste... · euneo-euneo gau t’égún!

— Kantitatea, salneurria adierazteko. Adibidez:

*kmz* °... iru pérro san sínia!

#### 1.2.1.2.2.2. *Mugatu singularrean*<sup>86</sup>

Nominatiboaren erabilera eta funtzioetan aipatutakoez gain, mugatu singularrak badu berezitasunik:

— Kolektiboak, multzoak, orokortasuna adierazteko, izen konkretuekin (gure iritziz atal honek ikerketa sakonagoa merezi du lexikoaren azterketaren laguntzaz).

<sup>86</sup> Ikus gainera deklinabide kasu guztietan, leku-denborazkoetan batez ere.

Aurkitu ditugun adibideak baserriko bizimodua azaltzeko dira mordoak; baina pertsonen inguruko azalpenetan ere bide honek balio du. Adibide batzuk ipiniko erakusgarri:

*raz1* °bai-bai-bai... e, loria karu dao. · Loria beti da elegantia <loria guztiez dio hori> —*rmz* °bai!, idixa ee, lotuta eotia ok ónena! ... léngo moruan!, lem-biarra ta biarra ta biarra itxe-juen da idixa eote-suam-ba gógor!, góor!, e antxee jarrirtxa jéuasen araxe ta, · eun gustia lotuta!, eun gustia lotuta ta baa, eun gustian lotutakuan aaa... a jarrirta daok: oñ e, · eun gustian kórtan lo! ... —*raz* °... da juntátze-giñan lagúnak eta dántzan éin da nóbixua baeuan-nóbixuakin da bestéla · “mesédes” eskátu ... mutíllak eskátze-ben “meséres”, da suri espaatzun gustátzen · ba “es” esesátetzásun!, da-asarrétuta juate-sían ... baña s- sékula neskía esan juaten mutillen... mutílla etórri bia-san-neskíaána, · da suk espasendua-nai arékin · “meséres” esáte-san, da · “ess!”: ólan buelta ein da muturrak asáre ta...

— Izen abstraktuekin, antzerakoa gertatzen da. Esaterako:

*naz* °obéto!: gaste asko dauen lékuen e beti dao umoría! —*kmz* °dánok aka- akáu orí!: béstien lékuan · txarrá!

— Izen abstraktu bihurtzeko, lanbide edo zeregina adieraziz. Adibidez:

*rmz2* °... gaur itxen dítxúe-pa segádorekim-bedárrak ebái txa idíak eta dának · ero garúak eta... ba · órtitxi-galdú dó-segía géixen-nerétako ...

Kasu horretan lekukoak ez du esan nahi jakineko “sega”-ren bat galdu denik, sega-lanak eta sega-jokoak orokorrean baino.

— Mugatu pluralaren ordeztuz (atal hau arestian aipatutako kolektibitate-multzo-oro zentzuaren barrena ere txerta genezakeen, baina adibide hauei haiei hartzen ez diegu ñabardura antzematen diegu). Esate baterako:

*kmz* °Eibárren!?: e- erréka-aberátza san geró, e?; Eibárren, eskálluA, loiñíAA, kangréjuAA... áingirAAK, amórrañAAK... · aberátza saan! · au errékiau!, · joséuuss!

— Definizioak osatzeko: bat definitu denak definitzerakoan. Esate baterako:

*f.a.* °ee u, kristauak: andabídia da kristaua juateko bidia! // *f.a.* °“txaria”? : ba mendixan e pasau esindako lékua, árbolia-ta-árbolia-ta-árbolia, taa pásorik estauan lékua, oixe da txaria: o larra o asuna o árbolia o lo-ke-sea; an kristaua pasau esindako lékua, axé da txaría ...

— Ez da beti “bat” zenbatzailea izenaren ondoan jartzen, mugatu singularra erabiltzen da. Esate baterako:

*raz5* °... erriala kostatze-sam-bixigua!, kíloko bixigua...

— Izen bereziak, toponimoak mugatzailez. Esaterako:

*ñaz1* °bai bá!, óne-guk ee, Isasíxa ba, amén e, eskerrékaldekua esautzen dou!, baña ori eskumakaldiori...

*ñazl* °... esáte-ben e, au Isasíxau be ba, gero índakua salá · esáte-ében: lén ésala lbarren ...

*rae* °... da geróo · mendíxak?!: o- Umáixo-ondúa, · Máldeii, Basobáltzaa<sup>87</sup>, Góikoe-txe onduaa, Krábeliññ, · buenóo! ...

*rmz* °berréun ardíki [sic] eró: emen guría ta Iñarría taa... emem-bueltan! páre bat illebeta pásatze-sitxuan árek! <adibide honetako toponimoa, mugagabea, “Iñarre” da, baserri izena>

— Instrumentalaren orde. Adibidez:

*rmz* °orí garua eote-san! Bueno! <“garoz beteta” alegia>

— Mugagabearen orde. Esate baterako:

*rmz* °lem-béti gu-uretá orrá!, · éuardixan da gabian!: ero umia eo sarrá ero gastia!, Léstakua, Samartingua da gú, · amábixak ero amabi tx’erditan, · dának urétan!, · kantíña eo pitxárra ero... <“umeren bat, sarren bat, gasteren bat”>

— Atributu edo osagarri legez (ez dugu erabilera arrunta jasoko, berezia baino). Adibideak:

*rmz* °txikiXA ero etorri súan da, · billúrtu eró, beyan loitten eó... · a, goixan loitte-ban aékl!: goixán estai-sein kuartotam-bañá, u- améntxe ústot... <“txikitan, txikiA zenean” esan gura du> —*rmz* ° “... Eta ostian neuk bakarrik urten neban pelotarixa ...”

— Objektu legez (ez dugu erabilera arrunta jasoko, berezia baino). Adibideak:

*raz* °... Edúrnek e Ásitaingoo · Bisénte-eba-nóbixÚA!, eséban-nóbixO-orí!- ...  
—*kmz* °... afaríxa e, ser- ser daon ikúsi, lélengo!

— Aposizioko lehen osagaia. Esaterako:

*raz* °Amén len guk eskendúan esáten “amáma”, e?, guk esáte-gendúan · “amándria”! ... ba oingoó- oingoó será da-“amáma” ... guu- nik- nik amá- betí amándriarí esáte-san “amándria Páula”! ... “amándria Páula”!

— Esapideetan, hitza errepikatzerakoan: ikus adibideak mugagabearenean.

#### 1.2.1.2.2.3. *Mugatu pluralean*<sup>88</sup>

— Itxuraz zenbagaitzak diren izenak plural markaz. Izen zenbakarriekin singularra erabiltzeko joera handia ikusirik, harritzekoa da pluralaren erabilera zenbagaitzetan ere. Adibide batzuk ipiniko ditugu bakarrik:

<sup>87</sup> Toponimo hau berau *rmz*-ri jaso diogu ablatibo kasu markaz eta “Basobaltzetik” forma du, kontsonantez amaitutako moduan deklinatuta; neuk beti “Basobaltza” entzun dut nominatibo forman, agian kasu horretan beti mugatzailea erantsita erabiltzen delako.

<sup>88</sup> Ikus gainera deklinabide kasu guztietan, leku-denborazkoetan batez ere.

*f.a.* °buruan ekartze-sitxuen esnía-kalera —*naz* txálak iru beiñ · esniak eraittue —*razl* °... <eskuarekin egiten du> ónaxeñoko urak, e? —*raz* °bai! o- o- abárketa-galdúta ee lokátz artían! <erdi barrez>. Iñárre ta i- Arikítxa bitxártian · estakísu se-láko lokátzak eóte-sían!, eneéééé! —*razl* °bañaa... ta gausá-asko, e?, jóyak-etá, · sidárrak eta urriák-etá... · oin-nun dáos? ...

— Izatez zenbakarriak diren hitzak, sarri singularrean erabiltzen direnak. Singular erabileraz aurkitu ditugun hitz asko pluralez ere aurkitu ditugu; esaterako:

*razl* °... “umia negarrés da garixak bedarrés” entzun dosu sekuláá? —*rmz* °geró bedárronduak iñ!, da bedárronduak ee · segiakiñ ebate-sien!, dómeke góixetan da, sá-patuetan da... · goixian e jáiki e-egun-séntixan da —*ñaz3* “... Elgoibarrera oñez; hartu Elgoibarren ogixak “Goiko Errotan” da Arratera ...”

— Izatez zenbakarriak diren hitzak, baina ez zentzu literalez, inguruko lanak adierazteko erabiltzen direnean (prestatu, erein, landu; eta uzta jaso eta gorde. Beheko adibidean uzta jaso-gordetzeko inguruko lanak adierazten ditu leku-koak). Adibidetzat:

*rae* °BEDÁRRONDUAK eta ee...: lénao bedárronduak eta gero gari-ebatía! Geróó... · e, e, garí ontzuek ee, galtzúek e · sertú! · astártu tee erréta ipiñi! e náborako preparau!; gero patatí etá! · Aber!: gero árek amaitxutakuam-BÁBAK ETAA · SERÁK!, mendíra ide-bátera! · da gero-óndorik... · árek, árek IDIEKIN DA BATERA-ARTUAK ETA BÁBAK! · Geróó, an- ándik átzera ser san geixao?... · artuek eta babak...; geró, gari-bate- GARÍXEK...

— Jaiak edo egun bereziak adierazteko. “Jaixak” hitz orokorra erabiltzen da, baina arrunki santuren baten izenari eransten zaio mugatzaile plurala; esaterako:

*razl* °... orí a- órrek e goiko amérauno-kéndu eim-bia-día, Arrátia-dátos-da! —*naz* <“San Blas es en febrero” galdetutakoan> Samblásak, fébreruan dia

— Definizioetan. Adibidez:

*raz* °“gisénaa”... baái!, orixe da “grasa”!, gisenaa...: “koipía”, koipíai esátetzauu · grása ... “manteka”, koipía ... [okelak izaten duen gizen zuria] orí be giséna- giséna da. ... Gántza-día [sic] ee · ya ótra ko- gántza daa ee gisen giséna, ollúak etaa · bildótzak eta eukitzen dabén e bare-sária morokua, gántzak. ... [pertsonek] Kláro!, igual-iguál!: kuando una persona se-érnia, · es ke se rompee... bare-sária-apúrtzen daná, gantzá daa... · axé jósten dabe átzeraa, érníauta, porke órrek e e sújetatzen dabe tripá gustía, (es)tákísu?, · da-á-apúrtzen báda, ba úrtén eitzen dabe intestínuak eta ordúan da érnía. Ga- gn- gantzák órretxe-días

— Atributu edo osagarri legez. Adibidez:

*raz* °... <erdi barrez> Jabiérri eún batén é, euríxa in dau, · da u- ordúan gú nóbixúa-  
gñan, da Eusébio be bai, d'eurí... udáko euri sápparrada bat ein dau! ...

— Senitarte edo kolektibo bateko partaideak izendatzeko. Batez ere abize-  
nei eransten zaie, baina “deretxak” ere jaso dugu politikako taldeak izendatze-  
ko. Beste adibide bat, erakusgarri:

*kmz* °... Áxe!, áxe san ba!, “Ondaméndikoo gibéla”. Da Ondaméndikúa-día-Ansó-  
IAK. · Justínaa, Ondaméndikúa, ... arrebía, Txéná! ··· Txé famosúa!

### 1.2.1.3. ONDORIOAK

Alderdi formalari dagokionez, joera arruntena euskara orokorraren ereduak  
betetzea da, salbuespenak salbuespen. Badira berezitasunak ere, dena dela. Esa-  
te baterako, hitz amaieretan alternantziak gertatzen dira, bai bokalen artekoak  
bai bokal-kontsonante artekoak; hitz amaieretako neutralizazioak ere aipaga-  
rriak dira, bai mugagabeen bai mugatzailea erantsitakoan ere; hitz batzuek de-  
klinatzeko joera bereziak dituzte, eredu nagusien salbuespen legez.

Mugatzaile singularra orokorrean *-a* da baina fonetikoki aldaera anitz ditu  
zein hitzi itsasten zaion, disimilazioak eta soilketak gertatzen baitira; amaiera  
bokalikodunei itsatsitakoan hauxe dugu: *-i(x)a /-ua*; *-i(x)e /-ue*; *-i /-u*. Txanda-  
keta fonetiko horiek ez dira berrikuntzak, lekuko zaharrek<sup>89</sup> ere badarabiltenez.  
Gainera, kaletarrek zein baserritarrek egiten dute *-e* mugatzaile legez (Agin-  
gan oso hedatua dago joera hori<sup>90</sup>), baita murrizketak ere, azken hauek gutxia-  
gotan jaso ditugun arren. Amaiera kontsonantikoei itsatsitakoan, *-a*, *-e* edo kate  
mintzatuan erabateko soilketa da emaitza.

Mugatzaile plurala eransterakoan funtsean singularreko formetan oinarri-  
tzen da, amaieran *-k* marka erantsirik; fonetika sintaktikoak eragin ditzake alda-  
era gehiago kontsonante horren inguruan.

Erabileraren alderdiari dagokionez, Eibarko euskararen nominatiboa beste  
edozein aldakitan legez erabiltzen da, bai forma mugagabeek bai mugatuek era-  
bilera eta esangura bitxiak dituzten arren. Aipagarria da mugagabearen erabile-  
ra aberatsa. Bestalde, mugatu singularra erabiltzeko joera handia izaki, “esniak,  
urak, diruak” forma pluralak erabiltzea ere deigarria da.

---

<sup>89</sup> Adinez, 60 urte baino gehiagoko lekukoak dire guretzat “lekuko zaharrak”; ez dira nahastu  
behar, lehen esan denez, “lekuko nagusiekín”, galdekizun nagusia bete duten edozein adineko leku-  
koekin.

<sup>90</sup> Grabaketetan islatutakoaz gain, eguneroko jarduna zuzenean entzunda baieztapen hori era-  
bat indartzen da; disimilatzaileenak ez ezik, murriztaileenak ere badira Aginagakoak. Beraz,  
hauen jarduna ondoan duten Barinaga auzoko hizkeraren antza handia du, erabat berdina ez bada  
ere, noski.

## 1.2.2. Partitiboa (-r)ik(an))

### 1.2.2.1. ALDERDI FORMALA

Mugagabeari eransten zaio beti<sup>91</sup>. Hasieratik azalduko dugu *-(r)ikan* aldaeraren erabilera; askoz ere gutxiago erabiltzen da *-(r)ik* soila baino. Aldaera hori noizbait darabiltenen artean lekuko hauek ditugu: *kmz*, *ñmz*, *kmz1*, *kmz3*, *S.B.*, *kmz5*; denek darabilte *-(r)ik* forma soila ere, horrenbestez, *-andun* aldaera ez da kasu marka nagusia, bigarren mailakoa baino. Adierazgarriak dira lekukoen iritzi batzuk, izan ere *-an* gehigarri horretaz honelakoak jaso izan ditugu: *f.a.* ““*kan*, *kan...*”, “*kan*” no significa nada!, *diruikan*, bai esan leike, baña, “estakasu dirurik ala?””; hala ere, *f.a.* lekukoak beste honetan bai darabil: “ondio-kan”, jardun askean. Beste lekuko batek: *kgg* ““-kan” orí estot séku- es inún erabiltzen, úste-dot: “onddio-kan”, baña estáki-bardíña dan”.

Perpaua kompletiboetako adizkiek ere har dezakete *-(e)nik* formaz amaitutakoan (amaierako *-ik* partitibotzat har daiteke): adibide bakarra jaso diogu *kmz1-i*:

*kmz1* °... oiñ, ni enaok esaten dana-diasénikan, e? ...

Badirudi *-an* gehigarri hori amaiera *-(i)k* egiten duten atzizkiek eta egiturek onartzen dutela; besteak beste ablatiboan, motibatiboan, aditzondo batzuetan, adizki batzuetan<sup>92</sup>.

#### Partitiboa: eredurako

Amaiera bokaliko gehienak: <i>alabarik / alabaik; etxerik /etxeik; astorik /astoik; katurik /katuik</i>
Amaieran bokal zein glide sabaikaria dutenak: <i>txikirik /txikiik /txikik; txoririk /txoririk /txorik; gastairik /gastaik</i>
Amaiera kontsonantikoak: <i>egurrik</i>

### 1.2.2.1.1. Amaiera bokalikoei erantsita

a) Amaieran bokal sabaikaria ez duten berbetan alternantzia handia dago kasu markako kontsonante dardarkaria jarri ala ez. Hurbilketa gisa badirudi kaletarrek gehiagotan gordetzen dutela kontsonantea baserritarrek baino, baina

<sup>91</sup> Ikus 1.2.0. atalean zein mugagabe forma diren nagusi Eibarko hitz batzuen oinarrian. Kasu markaren amaierako kontsonante leherkariari dagokionean, ikus nominatiboko mugatzaile pluralari egin diogun iruzkina, zein soinu inguru duen kate mintzatuan, halako aldaera. Kontsonantea galduriko adibiderik ez dugu espektrogrametan aztertu baina bai transkripzioetan jaso: *nme2* “*peskári-bábill or?*” [“<\*peskaririk”]. Horrez gain, partitiboa ikuspegi teorikoz azaltzen du J. ORTIZ DE URBINA-k adibidez (1989, 97-108); M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k ikuspegi diakronikoz aurkezten dute (2001, 89-93).

<sup>92</sup> Partitibokoak ez diren adibide gehienak ablatiboaren atalean bildu ditugu.

denetarik aurki dezakegu lekukoen adibideetan. Adibidez, *kmz* kontsonante gordetzaillea da gehienetan baina tarteko kontsonante gabeko adibide bakan batzuk ere jaso dizkiogu; *kmz1*-i eta *kkg*-ri adibide guztiak dardarkaridunak jaso dizkiegu; *raz*-k ere kontsonantea ahoskatzeko joera du gehienetan baina kasu marka bokalikodun adibide bakan batzuk jaso dizkiogu; berdin gertatzen da *raz1*-en erantzunekin. Kontsonante gabe ahoskatzeko joera handiena dutenak *nme2* eta *naz* lekukoak dira, kontsonantedun kasu marka ere noizbait badarabilten arren. Beste lekuko gehienek txandaka darabiltzate aldaera bata nahiz bestea, baina dardarkaridun aldaera nagusi da. *nme4*-k ostera, kontsonante dardarkari gabeko aldaera darabil bakarrik (edo guk behintzat horrelako adibideak jaso dizkiogu). Kontsonante dardarkaririk gabeko aldaera darabiltzen hitzaren amaierako silaban bokal elkarketa egiten dute, beraz: batzuetan hiato gisa, bestetan beheranzko diptongo gisa<sup>93</sup>. Dena den, gure lekukoek eurek ere ez dute oso garbi Eibarko partitiboaren aldaerak nolakoak diren, edo agian “garbiegi” daku-sate; gure lekuko baten iritzia ekarriko dugu hona, zein oker den erakusteko:

S.B. “Emén “etxéik” eta ala esate... órrek e, e baseuan Eibarren e “\*\*\*” bat, \*\*, e?: ba ibiltze-san e ólan e, euskal jáixetan da, présentatzen da olako séretan, da bueno!, éibartarra san, baña jator plánian áste-sánian ba, áretxek eitxe-sitxuan olákuak: “etxérik” eta esan biar[rian], “etxéik” eta, alako piskat bertzolárien e, e, gipuskoarren e olan kontrasiñuekin da eitxen sitxuan; da bueno!, párr eitxen genduan guk e!, arék eitxe-sitxuen plántekin da, bueno!... “Etxéik” es, “etxérik”

b) Bokal sabaikariaz amaitzen diren berbetan espero genuen gertakari anitz bilatzea, kasu markako bokala ere tinbre berekoa izanik eta dardarkaria ahoskatu ezean murrizketak, luzapenak eta abar gerta baitaitezke. Aurkitu ditugun aldaerak hauek dira: *-irik/-iik/-ik*. Kontsonantea tartekatu ala ez, lekukoen idiolektoen arabera da batez ere: beste bokal amaieradun berbetan kontsonantea orokorrean gordetzen dutenek oraingoetan ere bai (“mendirik, aundirik”), eta bestera, gordetzen ez dutenek oraingoetan ere ez nagusiki. Hala ere, *naz* lekukoak gehienetan *-irik* aldaera darabil beste bokalekin dardarkaria ez ahoskatzeko joera handia izan arren. Kontsonantea ahoskatzen ez dutenek gehien darabiltzen aldaera *-ik* da<sup>94</sup> (“mendik, txikik, idik”), *rmz*-k, *nme2*-k, *naz*-k eta *ñaz2*-k batez ere (dardarkaridun formak ere jaso dizkiegu); beste aldaera, gutxiagotan aurkitu duguna, *-iik* da: *rmz*-ri, *ñaz2*-ri eta *kmz3*-ri jasotakoak, “barriik, idiik” gisakoak.

Aldaerak ugaritu egiten dira deklinatu beharreko hitza *-ri* silabaz amaituz gero, bai lexiko soilean bai eratorrietan (“-lari” atzizkiz, adibidez). Forma osoenetik murriztena, *-ririk*, *-riik*, *-rik* alegia, jaso ditugu. “Txoririk, peskaririk; aiskolaririk” modukoak erabiltzen dituzte *kmz*-k (behin *-rik* aldaera ere badarabil),

<sup>93</sup> Gai hau ere zehatzago ikertu beharko litzateke lan fonetikoago baten.

<sup>94</sup> Forma hauek ergatibokoekin neutralizatu egiten dira, sinkretismoa gertatzen baita: inguru-nearen laguntzaz ez da zaila formak bereiztea.

*kgg*-k, *raz1*-ek, *ñmz*-k. “Txorik, arari(k), eurik; aiskolarik<sup>95</sup>” gisakoak *nme2*-k, *naz*-ek (honelakoetan ez du beti dardarkaria gordetzen *-i* bokalez amaitutako beste berbetan egiten duen moduan, noizbait baino), *rmz*-k. Tarteko aldaera, *-riik*, da gutxien erabilia: *kmz3*-k darabil (“bersolariik”).

c) Glide sabaikariz amaitutakoekin bokal sabaikariz amaitutakoen antzera jokatzan dute:

— *-ai* amaieradunak. Jaso ditugun adibide guztiek kontsonantedun *-a(i)rik* aldaera dute, *nme2*-ren erantzunek barne. Barruko glide sabaikaria parentesi artean ipini dugu *nme2*-k eta *naz*-k diptongoa soilduta ahoskatu dutelako “gastai”-ri dagozkien adibideetan.

— *-ei* amaieradunak: *kmz3*-ri “sardandekik” jaso diogu. Denek hiato gisa ahoskatu dute, baina “bei” hitzaren partitiboa ere batu ditugun adibideetan kontsonante dardarkaria ageri da.

— *-oi* amaieradunak. Jaso ditugun adibide guztiek kontsonantedun *-o(i)rik* aldaera dute, *nme2*-ren eta *naz*-ren erantzunek barne. Barruko glide sabaikaria parentesi artean ipini dugu *naz*-k diptongoa soilduta ahoskatu duelako “jaboi”-ri dagokion adibidean, “jaborik” alegia.

— *-au/-ao* amaieradunak. Jaso ditugun adibide guztiek kontsonantedun *-aurik/-aorik* aldaera dute, *nme2*-ren, *naz*-ren eta *rmz*-ren erantzunek barne. Ez dugu jaso “gau” hitzaren deklinabidea.

#### 1.2.2.1.2. Amaiera kontsonantikoei erantsita

Kontsonanteek *-ik* kasu marka hartzen dute zuzenean, adibidez “estulik, mutillik, burpillik, erresik, gatxik, lorrotzik, biarrik, urik, serik, isenik, useñik”.

“Mutik, muti-pes” berbak merezi du iruzkina: gatzelaniaz “ni mú” da, baina euskaraz esaterakoan lekuko guztiek aho batez “muti(k)” forma darabilte. Ez dakigu zein forma duen oinarrian; edonola ere, forma ihartua da Eibarren, ez du beste erabilerarik onartzen.

#### 1.2.2.1.3. Aditzarekiko komunztadura

Euskaltzaindiaren esanak bete egiten dira eibartarren ahotan, singularrez egiten baita. Adibidez:

*rmz* <sup>o</sup>Íreikoik eta sékulaa... esan etorriko Maltzá!

---

<sup>95</sup> “Tabernari” berba deklinatzerakoan emaitza bitxia aurkitu dugu hiru lekukorengan: “tabernarik”. “Tabernari”/“taberna”-ren deklinabidea partitiboan neutralizatu egiten da, sinkretismoz. Agian “tabernaririk > tabernarik” egiten dutenek “tabernaik” esango lukete “taberna”-ren kasuan, eta horxe legoke balizko nahasketaren argibidea...



### 1.2.2.2. ERABILERA

Edozein gramatikatan aurki daitezke partitiboaren erabilerearen inguruko azalpenak, noiz bai, noiz ez, eta abar<sup>96</sup>. Euskaltzaindiaren gramatika eta argitaratzen joan diren erabakiak begiratu ditugu, beste monografiaren ondoan. Besteak beste, hau aurki dezakegu *Euskal Gramatika Laburra ...* (EUSKALTZAINDIA, 1993, 189) liburuan: “Partitiboa kasu autonomotzat hartu izan den arren sarritan gramatiketan, absolutiboaren baliokidea da guztiz eta absolutiboak duen distribuzioa du, neurri handi batean bederen (...) komunztadura singularra balitz bezala egin behar du”. Beraz, noiz eta nola erabiltzen da partitiboa Eibarren?<sup>97</sup>.

#### 1.2.2.2.1. Ezezko perpausetan

— Aditza osorik dela, euskaraz erabilera arruntenetarikoa. Adibidez:

-*anaz* “jolasten”!

-*naz* °jolásten -baña “joláste”ik ésta baña Eibárren!, emem-beste... Eibarkua dou guk eta..., a, bai...

— Aditza isilduta ere bai; horrelakoetan zein den suposatu egin behar da. Adibidez:

*rmz* °eméndi-Maltzáa goisela paéta ortxe dao! Barrundiko se- selaixan aspixan!, pae- paeta!: ormia ei-eindda!, áá-ántxe! eitxe-sam-pélotioi!, bésteik e... // *rmz* °gam-gamiñua [sic] beyán daa · paéta!, ántxe!: ostiam-pelotaik e... · nóixi-beñian kotxe bat etortze-súan, da... ...

#### 1.2.2.2.2. Galderetan

a) Bai ala ez tankerako galderak:

— Zuzenekoak; adibidez:

*nme2* beñ-o-beñ ikusi dosu olakoik?, seos’olakoik?

---

<sup>96</sup> Ikus adibidez nola aurkezten dituen R.P.G. DE RIJK-ek *-(r)ik*-en erabilera eremu nagusi bi, nahiz eta bie “partitive” izena ipini; bata kasu marka moduan, eta bestea determinatzaile moduan, nominatiboaren “pare” edo (1996, 145-158). Partitiboa determinatzaile erabilera orokorrean euskarazko “ezer” eta “inor” erabil daitezkeen lekuan azaltzen dela dio. Hipotesi hau frogatzen ahalegina egiten baitu: “that the partitive determinater has evolved out of the partitive case by deletion of the indefinite absolutes *ezer* and *inor*, and may even argue for a synchronic derivation along that line” (*aip. lib.*, 157). Nolanahi ere, erabilera eremu guztien jatorrian bere iritzi ablatibo kasu marka dago.

<sup>97</sup> Ez dugu nominatibo kasuz eraturako adibiderik jarriko erkatzeko eta kontrastatzeko, jakina baita dena delako erreferentea ezaguna denean arrunki nominatiboa erabiltzen dela.

—Zehar galderetan ere bai, esaterako:

*razl* °... arek esan dau gast- gasteri-daon da nik esaetzat -“gastérik ess” ... —*raz5* °ba, Nárru bajatze-san Maltzára!, d’Arráterako kartárik ero... et’euan..., da, posá-dam-béti eoten da ogi pusketia ta, txarri-játekora-arek... —*kmz* °ta oin dirúrik daká-ten ikúsi!

— Aditza guztiz isilduta:

*kaz3* °e, ta, an tabernarik?: Bareténekua bérao...

-*kgg* °ási, es? ... Éstin barrí badósu?

-*kag* °e?

-*kgg* °Éstin barrírik?

b) Zati galderetan ere erabiltzen da. Gure ustez ez du zertan erretorikoa izan derrigorrez<sup>98</sup>:

*ñmzl* “... baietza emon netsen. Eta, bidian doiazela, programia egitteko, batak bestieri esan zetsen: “Hi, baietz esan jeskuk. Eta, oin, zelan ez jakixagu izenik eta aPELLIDORIK honenik?” ...”

c) Sakoneko ezeztapena proposatzen duten galderak:

— Aditzez:

*kgg* nois ikúsi dosu e bustán bako e astórik?

— Aditza isilduta:

*razl* °bai, go- gosóri-bakúa-gáñerá?!

#### 1.2.2.2.3. Moduzko esaldietan

Hemengo adibideak agian baldintzazkoen ondoan ere jar daitezke:

*kgg* jakín barik esín da berbárik ein -*naz* jakim-barik ési-leike berbaik eiñ

#### 1.2.2.2.4. Baldintzazko esaldietan

Galdekizunez ez dugu horrelako adibiderik lortu, *nme2*-k “ogirik [nai badosu]” forma ontzat jo arren. J.A. URIARTE-k dakartzan adibideei ohar batzuk egin beharrean ikusi dugu gure burua, bere tesiko adibideetan bata “orrenbeste edango espasenke, esintze lodittuko” (1995, 360) da eta hor partitiboa erabil daitekeen arren, ez da inon ageri (“orrenbesterik” izango litzateke kasu markaduna); beste adibidea “au dxakiñik, enintzoan etorriko”<sup>99</sup> da: kasu horretan, -*ik*

<sup>98</sup> Ikus EUSKALTZAINDIA (1993, 190).

<sup>99</sup> *Ibid.*

atzikia aditzari lotuta doa, eta ez izen sintagmaren barneko ezein osagairi. Eibarren ez dugu partitibo egiturarik lortu.

Solasaldi askearen barrena bai aurkitu ditugu, oster, adibide batzuk, esaterako:

*razl* °... oingo egunetan e gurían e, asto- astolárrosa-p'ekarri sitxúan orrék! ... daa lándarai-badao ekarri txa ortxe sartu bitxut!, ortxé! ... —*kmz7* “... Eta illuntzietan, dirurik bagenkagun, pixkat edaten genduanian, kantau egitten genduan ...”

#### 1.2.2.2.5. Konparaketetan

— Superlatiboetan, gehientasuna adierazterakoan. Beste bide batzuk ere zi-legi dira baina partitibo bidez eraturako oso zabaldua dago mota guztietako lekukoengan; gainera, partitibo erabilia ere egitura bat baino gehiago eratzen dira. Adibide batzuek lagunduko digute argiago ikusten:

*kmz* au da · janárik ónena —*nme2* auxe da jatekoik ónéna —*naz* auxe da játekoik ónena

*lrazl* auxé da gausÁRIK ETA éderRÉNA

— Formaz berdintasun zein gehiagotasun mailakoak diren arren, esanguraz superlatiboa adierazten dutenak.

- Formaz berdintasunezkoak diruditenak batez ere “olako, sekula olako, ain” osagaiez eraturikoak dira; “olako neska ederrik”, “ain jateko onik” eta antzerakoak. Adibide batzuk ere jarriko ditugu:

*rmz* °mala-létxe bat!: milla... “óstixa” diar e-san espaitxum-bat etxum-b'arek · mutillak esan!: sékula-alako kristáurik etxuat ikusi ... —*rmz2* °... Ermúan Lomiñókuak, Lomiñóko anáyak eta óllarrik · oiñ es moukuak, jó! ...

- Formaz gehiagotasunezkoak direnek ere antzerako esangura dute; esate baterako:

*naz* °e- a- itxítako lékuti-jun dia!: ará!, ganau txarríxaorik mundúen!, da, bedarra jan esindda...!

— Berdintasuna adierazterakoan ere erabiltzen da partitibo. Adibidez:

*razl* ausokuak ensegida-arreglatzen dia ... °bai, danían orí, etxÉIK ÁÑA<sup>100</sup>! .. úmia-p'ensegida-asten dia! // *razl* °... béti-ipintxen dau berbía diferente-e? Eibárren etxéik aña diferente!

---

<sup>100</sup> J.A. URIARTE-k “asko” eta “gítxi” adberbio legez aurkezten ditu baina adibidean “sarrík, gítxi egon da” zenbatzaile legez darabil (1995, 361, 23. oh.). Gainera, “a(d)ina” ere horien ondoan jartzeko ez du oztoporik ikusten, Fruizen erabili ez den egiten arren. Guk *razl*-i “aña”-z osatuta jaso dizkiogun adibideak konparatibotzat hartu ditugu baina zenbatzailatzat ere har genitzake, eta horrela erabilera zahar batekin lotuta legoke (ikus M. AZKARATE, P. ALTUNA, 2001, 92-93).

*raz* °... ta ní etxían!, séose pasau-akuelakúan!, amá batí déika...: -“suré morukó amárik!, dáneri s-...” ...

—Gehiagotasuna adierazteko egituretan. Aurkitu ditugun adibide guztiak ezezko perpausetan txertatuta daudenez, ez dakigu partitiboa zergatik azaltzen den, ezezkotasunagatik, ala konparaketa zentzuagatik:

*kmz* gú-báenka · seose obíaorik

*nme3* °iguálaorik estáo ee...!

*raz5* °... -“étxaok · txárraorik! · mayoráskua básarrixan isatia báño!” ...

*kmz* °au báño biskórraorik estót esáutu iñóbe, játen

#### 1.2.2.2.6. “Nola” galdekariarekin erlazonaturiko zenbait perpausetan

Aditzondoak sortzeko atzizkitzat ere har daiteke, “(absolutiboak ere sintagma adberbialak sortzen dituen era berean), predikatuan aurkituko ditugunak” (EUSKALTZAINDIA, 1993, 191).

Eibarren ez du edozein hitzek onartzen atzizki hori modua adierazteko (Fruizen “suririk” eta “altari(k)” adibideak aurkitzen ditugu adibidez<sup>101</sup>, baina Eibarren ez da horrelakorik esaten), baina zenbait oso hedaturik daude, “gazte-rik etorri/juan” adibidez:

*kgg* gastérik etórri san gure etxéra -*kmz* gastérik etórri san guré-etxéra -*raz1* súen etxéra gastéri-juan san -*nme2* gastéik etorri san gurerá -*naz* gure-etxera, · gastéik etorri san

Beste adberbio batzuk ere hemen kokatzen dira: “sutik/sutiñik, gordiñik, ortoztik/ortosik, ankutzik, makalik, gaixorik, (narru-)gorri(ri)k, narrutzik, posik” eta abar.

#### 1.2.2.2.7. Ezeztapena esan nahi duten egituretan

Batez ere “barik, bako, eza”-z osatutako egituretan azaltzen da. Batzuetan partitiboa ageri da:

*f.a.* °Jesukristo bisarri-bakua -*nme2* Ásitxaiñen, · bisárri-bako Krísto dao -*naz* Asítxaiñan [sic] daó, · ee, Krísto bat e bi- bisárri-bakúa

*nme2* <persona motela> gatzí-bakó bat

*lraz1* Kurutzían, ba- e bisárri-bari-dao

*lkmz7* “... oiñ bakizu, oiñ biarrik eza. Orduan be egote ziran biarrik ezak, egun erdikuak esate akonak eta, eztakizú ...”

---

<sup>101</sup> J.A. URIARTE (1995, 360).

Beste batzuetan ez:

*nme2* °... “miñ artu dau!”, ero · “á mindúta dao! · suk esandakuakiñ”: · entenitzen dosu? ... erída bako mífia!

*nme2* bai, bai!, ardurebakua... ... txotxólua —*naz* séla ise-leike alakoo... ... alakoo ardúrabakua!?

*naz* bustam-bak’astua suk noix ikusi dosu sékula?

#### 1.2.2.2.8. “Asko” eta “gitxi” erako zenbatzaile-aditzondoekin egiten diren perpausetan

Batez ere “gitxi”-ren ondoan aurkitu ditugu adibideak, *nme2*-ri eta *rmz*-ri jasoak gehienak; hona hemen batzuk:

*nme2* °eske amém-béste gausé bat e... · o-amén ee, <<emakumiai>>-“íf” éitteik e, gítxi oittú da ... <“gitxi”-k aditzondo funtzioa du adibide honetan>

*rmz* °gúre aitxa-sanak e Léstako Inasiok esate-juan · berak sékula beste idiik · esebala ikusi!, aitti- áitxitxa-beti-idi gorrixak... Geró a lautzaniam-ba-aitxák e, · gallegua eró... bee... bestee... t- t... es- béste kláse bat!: áetxek es beste dá-nak!, e, gúre akordum-be · gorriék emen gítxi eon dok!: Aárraspí etá, o kapritxósom-baték!, axé gustatze-akonak! <“gitxi”-k adibide honetan zenbatzaile funtzioa du>

*raz* lekukoari “erromerixaik (...) piskat” adibidea jaso diogu, baina baldintzazko perpaus baten txertatuta; ez dakigu partitiboak zerk azalduko lukeen, baldintzak ala zenbatzaileak. Adibidea hauxe da:

*raz* °Kéixeta-Mendíxetan, · ántxe. Da-án erromérixáik ólann baéuan piskat átzaldian · baña ... <baldintzazko zentzua ere badu>

#### 1.2.2.2.9. Partitibo kasu markaz esanahi berezia hartzen duten berbak

Beste deklinabide kasu guztietan ez bezalako esanahia hartzen duten hitzak partitiboan erabilitakoan.

a) Berba edo adibide bat “sarata” da. Berez, “ruido” esan nahi du; “partitiboan eranstean zaionean, “zerbaiten berri izan”, “zerbaiten entzutea izan” edo antzekoaren adierazle da” (J.A. URIARTE, 1995, 361).

—Ezezkoetan:

Norbaitek eginiko galdera hau litzateke:

-*nme2* aurtém-basoyase kombídautá-álá? —*naz* aurtem-basoyas gombidau alá? —*kmz* aurtén e basoyasíe ímbitautá · kombídáu- kombidáu · báskarira? —*raz* ímbítuak eongo díá?

Eta interesatzen zaigun erantzuna:

-*raz1* saratári-p'estáo tá!... -*naz* estao saratáik orduan, esaitxuee gombídau!  
<barrez>

—Galderetan. Elkarrizketa balego honela litzateke:

-*nme2* Errégiak ekárrikoskue seose urté ontán, e? —*naz* Errégiak ekárrikoskue seose  
-*raz1* saratári-badáo alá?

Dena dela, ez da asko erabiltzen, lekuko gehienek ezagutu egiten duten arren (lekuko gazteenak, *kgg*-k, entzun ere egin gabe zeukan egitura hori guk zuzenean galdetu arte). “Zarata”-ren ordeztu “barri, notisia” eta bestelako osagaiak erabiltzen dira.

b) Beste berba edo adibide bat “kolore” da: berez, “margoa” esan nahi du baina partitiboa eransten zaionean, “ur/urre emon”, hur emateko zailtasuna, ezintasuna edo antzekoaren adierazle da (gaztelaniaz “no haber color” esapidea erabiltzen da<sup>102</sup>). Adibidez:

*rmz2* °... ta béste baté-pe, Eibárren, Pátxi!, · Pátxi Aspítarte Abóntza basárrikúa: á be gisón aundíxa, ikáragarríxa! d'inyartzúa! ... Ordúan Amásabalei anáyak -béste bat Amasabalei etxúa-len aítxátu, Julián Laskuráññ “Amásabalei”: probalári óna súan Eibárren, óna!; d'anáyá be bai berána! baa, inyartzúa Eusébio be, bña-á [sic] ésuam-probán da íbíltem-baña... áre-bíxak úrteúten; · daa, Eibárren ordúam-be jo-ta <<sesém-plasá>> jó-ta tópera! Da, an da kolóre bárík irabási · bíxei! ... <<“alde handiz irabazi”>

*kaz3* °... biajante bat íbiltze-an ámen ee... · (?)Iturríxa Barselónatik estaki-beran asuntuetán!, da, aretxem-bitxartes jírau ebán · al- e será, blúsi-itxekó · télia, estai-sú? · aretxem-bitxartes, e? bestela · kolorei-pes! ... <ezinezkoa zelako>

#### 1.2.2.2.10. Baiezko esapide adierazkorretan<sup>103</sup>

—Konparaketen ataltxoan azaldutakoa hemen ere jar dezakegu: “aundixaorik ikusi”, “sekula olakorik”, “*sekula olako* + izena-*rik*”. Gure lekuko batzuen errealizazio batzuk ipiniko ditugu erakusgarri:

*kmz* áundíxaorik ikúsi biou! —*raz1* ikúsi biou aundíxaorik ónddiokan -*nme2* aundíxaorik e... · ikúsi biou ónddió

-*rae* °Migelmáriiii · seréko baintzét, Loixolakó, Maltzára jute-san!: ník e, erretratua ikusitxa daukat e...

<sup>102</sup> Baina edonola ere, esangura ez da guztiz berdina. REAL ACADEMIA ESPAÑOLA-k “No admitir comparación algo con otra cosa que es mucho mejor” (2001, 401) esan gura duela dio.

<sup>103</sup> O. IBARRA-k baiezko perpaus enfatikoen barne jarri ditu “gazteik” partitiboaz osatutako hainbat adibide (1995, 378) eta horrela aurkitzeak piskat harritu egin gaitu. Tesigileak partitibo atzizkiz osatutako aditzondoan sailean kokatuko lituzke adibide horietariko zenbait bederen.

-*rmz* °L-loixólako Mielmarí?!, bai eee... .. gastíaori-be!, Sumendíxako Lourdes da bes- esendusen ikusi alá? juaten? Maltzá?

*kgg* sékula olakórik! —*kmz* sékula olakórik! —*razl* sékula olakórik, andrá!, je-sús! —*naz* sékula olakoik! —*rmz3* °jersixa jantzi bikou! ... sékula olakoik órraitxiok!

*naz* sékula orraitxiok olako gausáik, e?! —*nme3* °baña-baña-akordatze-ako-órre-burutasínuok!, sékula olako umeik, e!?

*nme2* e, akordátzia be olako gauséik!

*nme2* pentzátzia be olakoik!

—Bestelako egituretan: “*apenas* + *izena-rik* + *egon/ibili*”; esaldi adierazkorrak, aditza isildu eta zalantza adierazten dutenak...

*kmz* apénas jenté-ri-séuan —*razl* apénas euan jentérik —*naz* apénas euan jentéik

*nme2* °ór, benétakua-siénn, partídu beneta- polítiko benétakorik, Dolóres Ibárruri ero-or ee... atxó sár ba-bískaitarraa... o ser?, sozialístia- komunístia sán!

*rmz* °Doroteo tá..., · Doroteo ta neu!, amendi-juate-iñánik · mutíll! —*kmz7* “... alé-manak, ba, naixau izate eban, mediko, injiniero ero abogau eró. O sea, ee, maixo gitxi iriste-akón ... Beterinarixorik pe, léelengo estudixatzen asi zianak beterinarixúa, izan zian ámen, Añazpi tabernerúa ta panaderua José, zerá, Arraguetákua ...” —*kmz12* “... Nahi badogu alkartasuna billau, nahi badogu guk hori euskeriori aurrera etara eta hau herrixau —Euskal Herrixa, Euskadi— aurrera etara, alkartasuna da bakarrik bide-rik, ez dago besterik ...”

*ñaz2* °“Otaola-buru-erdikoik” e, guríen e... .. “Trango-búru” bai! —*ñazl* °óixe ba!, oixe... Bárrenekua, da geró · txaléta i-ben... .. béstei- bésterik é...

#### 1.2.2.2.11. Ezeztapenaren eta baieztapenaren kurutzaketaz

Adibidez:

*rmz2* °... Eibárrem-ba básarritxar · deportístariK ESTAO gaur!: káletarra-DAOSÉ-NAK · depórtistAK ero · esáten doténa e depóрте rurálekoIK ...

#### 1.2.2.2.12. Jakineko egitura duten esaldietan

Agian hauek erlatibotzat hartu beharko genituzke<sup>104</sup>:

—Izen sintagmari lotuta:

---

<sup>104</sup> Tesiaren defentsa egunean P. Goenaga doktoreak egitura hauek osagarritzat hartu beharko lirakekeela esan zuen, ez erlatibotzat. Adizki jokatzu osatuta direnetik —orainaldiko eta iraganaldiko komuntadura gordetzen dute, baita pertsona eta numeroarena ere—, gure ustez erlatiboen ingurura ere hurreratzen dira, nahiz eta lexikalizazio bidean izan.

*razl* °biarra gorá ta biarra berá!, jantzí a- jan ondó ta jantzí be bai baña, béste-espeta-  
kuluak ee, kásori-pes!, e- e- diáni-péss... Orí neu bákarrik isenda, e? —*nmeI* °“dani-  
p’estot entzun!, sani-p’estot entzun!”, ori latiñeko “neke-esset audibimus” da...

—Galdetzaile bidez eratuta:

*razl* °<gereziak> lén! txorixa-jaten sitxuela, txorixa-jaten sitxuela ta penauta!: oiñ  
... sóbre dao-bai! tta oiñ iño-játekua-diani-bés, allá ellos... · ní-pósi-jango nittuke  
bañá... —*kmz* °... nún · nabilléni-pés!: sorátu biestásu! ...

### 1.2.2.3. ONDORIOAK

Alderdi formalari dagokionez, gehien erabiltzen den aldaera *-(r)ik* da, *-an* gehigarriduna oso bakan erabiltzen baita. Bestalde, amaiera bokalikoa duten hitzetan txertatzen denean aldaera ugari sortzen dira kasu markaren inguruan, batez ere kontsonante dardarkariaren galeraz eta ondorioz gertatzen diren bokal elkarketan bilakaeraz: dardarkaria galtzeko joera baserrietan hedatuago dago kalean baino, denetarik jaso dugun arren. Diptongo amaieretan joera nagusia, ostera, kontsonante dardarkaria gordetzekoa da. Bestalde, bokal sabaikariz edo *-ri* silabaz amaitzen diren berbetan jazotzen dira aldaera gehien, dardarkariaren galerak tinbre bereko bokalen murrizketak eta luzapenak sortzen baititu; baita silaba osoen galera ere.

Erabilera aldetik partitiboia aberatsa da, batetik nominatiboaren ia parekoa delako; eta bestetik, ezezko perpausetan ia erabat erabiltzen delako. Gainera, erabilera berezi asko ditu, hainbatetan zentzu adierazkorrez.

### 1.2.3. *Ergatiboa* *-(e)k*<sup>105</sup>

#### 1.2.3.1. ALDERDI FORMALA

Ia esan beharrik ere ez dago Eibarko hizkeran ez dela ergatibo plurala eta nominatibo plurala bereizten kasu markaz behintzat. Beraz, paradigma osoa, nominatiboko formei —bai mugagabez bai mugatu singularrez— amaieran *-k* kasu marka erantsiz lortzen da; salbuespena, kontsonantez amaitzen diren forma mugagabeetan dago.

Kasu markak berak jasan ditzake aldaketak ingurumenaren eraginez<sup>106</sup>. Dena dela, aurkitutako aldaerak zehatz aurkeztuko ditugu:

<sup>105</sup> Diakronia ikuspegiz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001, 87-88).

<sup>106</sup> Ikus nominatiboko mugatzaile pluralari egin diogun iruzkina, zein soinu inguru duen kate mintzatuan, halako aldaera: kasu markako kontsonantea leherkari legez, hurbilkari legez, kontsonante leherkariak arrasto txikia duela, kontsonante leherkaria gutziz galdua, eta abar.



### 1.2.3.1.1. Mugagabea

#### Ergatibo mugagabea: eredurako

-a: <i>elixak, elixek</i>
-e: <i>etxek /etxerek</i>
-i: <i>txikik</i>
-o: <i>astok</i>
-u: <i>katuk</i>
-kontsonantea: <i>egurrek</i>

— Erroari *-re-k* gehigarria duen aldaeraz (“kalerek”) galdetu dugu baina lekukoek ez dute hori onartzen izen “arruntetarako”. *kgg*-ri jaso diogu, hala ere, “-rek” forma (“errirek, gaurek, kerek”), *kgg*-ren aldaera nagusia, ia erabatekoa, *-k* den arren; eta *f.a.*-ri “negurek” (*f.a.*-ren aldaera nagusia ere, ia erabatekoa, *-k* den arren). Bestalde, kasu nolabait “berezieta” (“lau” zenbatzailearen eta bokalez amaitutako besteenen kasu), *-rek* aldaera oso erabilia da.

— *-a* amaieradunetan “elixek” forma jaso diogu *naz*-ri, “elixak” aldaera nagsiaren ondoan.

— *-au* amaieradunak:

“Gau/gaba/gabe”-ren errealizazioak: “gauk” forma jaso diegu *kmz*-ri, *kgg*-ri eta *nme2*-ri; “gabak” berriz, *naz*-ri.

“Lau” hitza ere aldakorra da izen-izenondo den ala zenbatzaile den: lehenengo kasuan “lauk” egiten du sistematikoki eta bigarrenean “lauk/laurek”. Zenbatzaile denean “lauk” egiten dute *nme2*-k eta *naz*-k eta “laurek” *kmz*-k eta *kgg*-k (azken honek “lauk” ere badarabil baina “laurek” gehiago); txandaka darabiltza *razl*-ek, eta *naz*-k “laurek” forma ere onartzen du.

— Amaiera kontsonantikoa duten berbek *-e*- loturazko bokala hartzen dute. Ondorioz, hitzaren amaiera zein den sabaikarizazioak gerta daitezke: “ospelek; mutillek”, “gisonek, fiñek”, “aritzek, aitzek; aitzek”.

Dardarkarien sailean ez dira, bada, neutralizazioak gertatzen. Jaso ditugun adibide guztiak amaierako dardarkari anitza duten hitzen errealizazioak dira (“sagarrek, txakurrek”), baina “ur” (“agua”) ergatibo mugagabea jarriko bagenu “urek” genuke eta “hur” (“avellana”) Eibarren “urrek” litzateke. Bestelako adibideak aurki ditzakegu “nor” eta “zer”-en deklinabidean, baina “nor”-en ergatiboa “nok” da sistematikoki, eta “zer”-en kasuan “serek, sek” aldaerak jaso ditugu.

### 1.2.3.1.2. Mugatu singularrean

— *-a* eta *-e* amaieradun berbetan batu ditugun aldaerak (bakoitzaren erabilerak lekukoaren arabera nominatiboaren antzerakoa da): *-iak /-iek /-ik*. Azken honen adibide batzuk jarriko ditugu:

*nme2* sopfk irákin dau —*nae* °... baña a- andrik amar d'erdik aldin deittu-ben!, da torriko da!

—*au* amaieradunak.

“Gau/gaba/gabe”-ren errealizazioak: “gauak” forma jaso diegu *kmz*-ri eta *kgg*-ri; “gabiak” *razl*-i; eta “gabak” berriz, *kgg*-ri, *nme2*-ri, *naz*-ri.

“Lau” hitza ere zenbatzaile-izen denean<sup>107</sup> denek egiten dute “lauak” *razl*-ek izan ezik, “lauk” baitarabil. Hala ere, adibidean galdera egiten du eta baliteke zalantzazko forma izatea.

#### 1.2.3.1.3. Mugatu pluralean

Aurreko ataletan legez, “gau” eta “lau” hitzek dute zer-esanik:

“Gau/gaba/gabe”-ren errealizazioak: “gauak” forma jaso diegu *kmz*-ri eta *kgg*-ri; eta “gabak” *nme2*-ri eta *naz*-ri.

“Lau” hitza ere zenbatzaile-izenordain mugatu plurala denean denek egiten dute “laurak” *naz*-k izan ezik, “laurek” baitarabil (aldaketa fonetikoz azalduko litzateke forma hori); zenbatzaile-izena denean berriz, “lauak” forma jaso dugu nagusi (*naz*-k hurbileko mugatzailez osatutako forma eskaini digu: “lauok”).

#### 1.2.3.1.4. Kasuen arteko sinkretismoa

Fonetika sintaktikoa nominatiboko singularra eta plurala bereizteko erabil daiteke:

—Nominatiboan:

[“laguna” nominatibo singularrez] *kgg* ta neré lagúna be bai —*kmz* geró dátor Yon ... neré lagúna be- bé bai —*razl* -geró J- Juan dátor ... -neré lagúna be báí —*nme2* gero dátor · Yon ... -ta nere laguna be bai —*naz* -gero dator Íon ... -da nere laguna be bai

/[“lagunak”, nominatibo pluralaz: mugatzailearen amaierako kontsonante leherkaria ondoko soinuarekin asimilatu egiten da] *kmz* neré lagúna-pé bai —*razl* neré lagúna-pé baai, tórrí leikeess —*nme2* eta nere lagúna-pe bai —*naz* da nere laguna-pe bai.

Pluraleko forman leherkaria asimilatu gabeko adibideren bat ere jaso dugu:

*kgg* ta neré lagúna(k)-be bai

---

<sup>107</sup> I. LASPIUR-ek zenbatzaile zehaztuetan “Izenordain funziñua” eta “izen funziñua” bereizten du. «Bat zein *bi*, *hiru*, *lau*..., izenordain zeregiñaz gainera, izen hutsa be izan leike “bat zenbakixa” (...) Izen hutsa danian, edozein izenen moduan deklinatzen da (...)» (1999b, 99). Egiten duen bereizketa nagusiarekin bat gatoz baina ez funtzioak bereizterakoan, azken finean izenek eta izenordainek dituzten funtzioak bat direlako. Bereiztekotan, kategoriak-edo bereizi beharko lirateke: “lauak”-ren kasuan, izena litzateke (eta “laurak” plurala, izenordaina).

—Ergatiboan. Bereizketa deuseztu egiten da, bai ergatibo singularra/plurala bereizteko, bai ergatiboa/nominatibo plurala bereizteko ere:

[“laguna, aitzitxa” ergatibo singularrez] *kmz* -Yoné-kótxe barríxa dáka ... -neré lagúna-pe bai -*nme2* Yónek, kótxe barríxa dauká ... -á! neré lagúna-pe bai -*naz* -Juané-kótxe barri ba-dauká ... -nere lagúna-pe baai... —*rmz* °áitxitxaa... · saárra-Pé, · <eskuekin erakusten du> oo... · botílla txikí bat are-betí: meríendetára ta botílla txíkíxa beteta ...

Nominatibo pluralean gertatzen den bezala, joera nagusia amaierako konsonante leherkaria ondoko soinuari asimilatzea da (edo galtzea, besterik gabe), nahiz eta ez den beti hori gertatzen:

*kgg* neré lagúna(k) be bai —*razl* Juané-kótxe barríxa dáka ... -suré lagúna-bé [sic] báí! —*rmz* °óntxe!, Bitório-Be se, láautza pastoretziái ttá!

/[adibideak ergatibo pluralaz: kasu marka erantsitakoan singularreko forma bera hartzen duenez, emaitza ere bat da, deklinatutako izenean ezin igar daiteke mugatzailea singularra ala plurala den, eta bereizteko beste bidetara jo behar, adizki laguntzailerá, eta abar] *razl* suré lagúna-bé [sic] báí -*nme2* á! da báitta nere lagúna-pe -*naz* da nere lagúna-pe bai!

-*kag* °<<kokrodiloak?>>: bále!, baña <<koko- kok- kokodriloak eree>> bustánaa nárras daróye

-*kgg* °<<dordóka>>-pe báí!...

(...)

-*kag* °txakur batzu-pe báí!, eta- eske... <barrez>

Asimilazioa gertatu ez arren ere, emaitzek nahasteko bidea dakarte:

*kgg* neré lagúna(k) be bai -*kmz* neré lagúnak bé bai

### 1.2.3.2. ERABILERA

Erabilera arruntena objektua nominatibo kasuan eskatzen duten aditzekin<sup>108</sup> da. Jarraian beste erabilera batzuk<sup>109</sup> aipatuko dira:

---

<sup>108</sup> Ikuspegi teorikoz (morfosintaktikoz eta tipologikoz, besteak beste) hainbat egile hurbildu zaizkio gai horri; ikus adibidez: J. ABAITUA (1994, 852-853); X. ARTIAGOITIA (1995, 39-40); A. ELORDUI (1996, 713-751); J. FRANCO eta A. LANDA (in I. TÚRREZ, A. AREJITA, C. ISASI, 1998, 89-106); I. LAKA (in HUALDE, J.I.; ORTIZ DE URBINA, J., 1993, 21-70); E. MEJÍAS (1991, 469-486); J. ORMAZABAL eta J. ROMERO (1998, 415-433); J. ORTIZ DE URBINA (1989; 1-66, 143-204); B. OYHARÇABAL (in J.A. LAKARRA; J. ORTIZ DE URBINA; 1992, 309-342); G. REBUSCHI (1984; 89-107, 199-215, 217-221, 289-320, 351-399) (1986, 7-56 —1997an berriz argitaratua—) (1997; 1-29, 43-71, 73-99, 101-109); K. ROTAETXE (in I. TÚRREZ, A. AREJITA, C. ISASI, 1998, 210); P. SALABURU (in L. VILLASANTE, 1992, 417-433). Aipamen horiek beste kasu “gramatikal”-etarako ere baliagarriak dira. Orokorrean, bat gatoz M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k egiten duten “laburpenarekin”: “Dena den, ergatibotasun hau morfologiari bakarrik dago-kio, sintaxiko jokabideari begirata ezin baita esan euskara hizkuntza ergatiboa denik” (2001, 88 5. oh.).

<sup>109</sup> Gai hori orokorrean aditzaren komunztaduraren atalean jaso dugu. Bereziak dira ergatiboaren erabilera “pragmatikoak, psikologikoak”, adizki iragangaitz arruntan subjektutat. Ez dugu, baina, gai hori hemen jorratuko.

#### 1.2.3.2.1. Objekturik eskatzen ez duten aditzekin

Aditz horiek objektu gabeko aditz “iragankor”-tzat ere har daitezke. Hauek dira, besteak beste: “urten, irakin/irak ein, bardin izan, ardura izan, luak artu/lo-kartu/lo artu<sup>110</sup>”, eta abar.

Zein aditz den, eta aditzean isla duten zenbat osagai dauden perpausean, adizki laguntzailea *nor-nork* edo *nor-nori-nork* motakoa da.

— Subjektu bakarra denean, *nor-nork* adizkia eskatzen du gehienetan: “nik urten dot”, “urak irakin dau”. *kgg* da “urten” iragangaitz legez darabilen lekuko bakarra, “urten nais/jata” alegia.

— Subjektu bakarra izan arren adizkia *nor-nori-nork* erakoa onartzen dute “berdin/ardura/igual izan” lokuzioek. Adibidez:

*kmz* -sé nai dósu? -i- igual désta —*razl* -... sé nai dosúe? ... -... igual désta —*nme2* -se nai dosu? ... -é! igual utza [sic] —*naz* -se nai dosú? ... -igual dustá

Lokuzio horiek *nor* eta *nor-nori* erako adizkiak ere onartzen dituzte, guztiarekin ere.

— Esaldian “subjektu” bi daudenean ere *nor-nori-nork* adizkia hartzen dute goiko lokuzioek batzuetan (bestela *nor-nori* erakoa hartzen dute), bata ergatibo kasuan eta bestea datiboan. Adibidez:

*kmz* o-o-orrék neri estésta-ardúra —*nme2* nerí orrék ... estésta importa —*naz* óri [sic] estusta neri ardúra

Ergatiboaren lekuan motibatiboa ere erabiltzen da:

*f.a.* neri orreáitxik estesta ardura —*razl* neri estésta impórta orreáitxik //surí estétzu · e impórta · orreáitxik

— Lokuzio berezia osatzen du “galdetzailea + adizkia-*nor-nori-nork*” egiturak, axola eza adierazteko; lekukoengan egitura ezaguna da, *kgg*-rengan izan ezik, guk zuzenean galdetu arte “entzun” ere ez baitzuen egin. Adibide batzuk:

*kmz* nerí ser désta? —*razl* nerí ser désta bá? —*nme2* nerí se-ésta bá? —*naz* neri ser dusta ba?

#### 1.2.3.2.2. Data adierazteko

Ergatiboz osatutako egitura berezia erabiltzen da: “illak zemat (egun) euki”:

*razl* °ba, ba Sanjuana-bátos, gáñian dakáus! (...) *razl* °séma-da, illák séma-dakas gaur? · sáspi?, pééntzaisu ba! ... —*nme2* illák séma-daukas gaur? //nme2 illá-séma-dakas gaur? —*naz* illá-gaur sémat e se-egun, sémat ee daukass,-se-eun dauka?

---

<sup>110</sup> Aditz honek hainbat aldaera ditu. Ikus I. LASPIUR-en azalpen semantiko-kulturala ere (1999, 44-45).

### 1.2.3.2.3. Ergatiboa zergatia adierazteko

*naz* Máite, otzák dardarás dao

### 1.2.3.2.4. Singularraren erabilera “bitxiak”

— Izen bereziak mugatzailez, esaterako:

*kmz* °Aisgorríxa[k] · alturá-aundixa-aka

— Azalpenetan, batena azaldu denena azaltzeko; adibidez:

*naz* °baai, laúnekiñ “f”, bai! ... anai-arrebekiñ “f” · jeneralak, · da “su” baa... perso-  
naa sérauekiñ ero estaki-pa s’ésangot..., eee... errespéto geixaoko naus-, bueno!,  
komparasiñuan gas- nausi batek “f”-ittutzan, está?, baña..., gu-betí ba emen “sú”  
geixao ero usau dou ta bueno!: laúnekiñ “f” bi-itten [sic] dot, e?, bañá...!, <barrez>,  
etxien estot iñoi be itten <barrez>: surí se ittuzue gurasuek?

### 1.2.3.3. ONDORIOAK

Forma aldetik, ergatibo formek nominatiboko formen traza handia dute, bai mugagabeen bai singularrean *-k* kasu marka eranstea nahikoa baita ergatibo formok sortzeko. Esan beharrik ere ez dago ergatibo plurala eta nominatibo plurala erabat berdinak direla. Ergatiboaren ezaugarri bereziena, nominatiboarekin alderatuz, kontsonantez amaitutako berben deklinabide mugagabeen dago, loturazko *-e-* bokala txertatzen baita kasu markaren aurretik. *-re-* loturazko marka ere erabiltzen da noizik behin amaiera bokalikoa duten berbetan, baina oso bizitasun murrizta du “lau” berban izan ezik.

Erabilera aldetik, euskara osoan arrunta den erabilera da besteen gainetik, aditz iragankorrekin erabiltzea alegia. Baina sistematikoa da objekturik bako aditz batzuek ere ergatibo formak eskatzea (adizkiak ere aldatu egin daitezke zein aditz den eta esaldian nola datorren). Subjektu funtzioan ez eze, zergatia adierazteko ere erabiltzen da eta jakineko egituretan ere bai.

## 1.2.4. *Datiboa* (-(e)(r)i)<sup>111</sup>

### 1.2.4.1. FORMA

Mugagabeen eta mugatu singularrean kasu marka nominatiboko oinarrieti txertatzen zaie; mugatu pluralean berriz, ergatibo kasuan ez bezala, mugatzaileak bestelako forma hartzen du, *-e-(r)i* eginez. Pluraleko *-e-* ezaugarri hau beste

---

<sup>111</sup> Kasu honen azterketaren ikuspegi diakronikoaren berri dakarte M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001, 89).

kasu marketan ere ageri da, nominatiboan, partitiboan, ergatiboan eta prolatiboan izan ezik.

Kasu markako *-r-* dardarkari bakuna bokal artean geratzen denean batzuetan galdu egiten da, partitiboan gertatzen den moduan. Galera horren ondorioa, singularrean, hiatoak edo beherunzko diptongoak sortzea da amaieran bokal soila denean; hiato-diptongo amaieretan hiru bokaletako elkarketak sortzen dira, eta hiru bokaletako amaieretan lau bokaletako sekuentziak. Emaitzetan eta amaieretan, noski, bokal sekuentzietan bokalak nahiz glideak dira elkartutakoak.

Ikus ditzagun aldaera batzuk:

#### 1.2.4.1.1. Mugagabea

##### Datibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan: <i>alabari /alabai /alabei; etxeri /etxei; txikiri; astori /astoi; katuri /katui; kouri /kouri</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutilli /mutilleri; egurri /egurreri; fiñi /fiñeri</i>
---

—*a* amaieradun berbetan aurkitu ditugun aldaerak: *-ari /-ai /-ei*. Kasu markako kontsonante dardarkariari dagokionez, aldaera fonetikoek partitiboan aipatutako profilak gordetzen dituzte: kontsonante dardarkaria gehienek aho-katzen dute, *kgg*-k beti, salbuespenik gabe, eta beste lekukoek alternantziak kontsonante gabeko aldaerarekin; *nme2*-k eta *naz*-k joera handiagoa dute kontsonante dardarkari gabeko aldaera erabiltzeko dardarkariduna baino (mugagabea eta mugatua kontuan hartuta). Beste aldaera *nmz*-ri jaso diogu: “aitei”<sup>112</sup>.

—*e*, *-o* eta *-u* amaieradun berbetan alternantzia dago aldaera dardarkari-dunaren eta gabekoaren artean (*-eri/-ei*, *-ori/-oi*, *-uri/ui*): lekuko gehienek darabilte kontsonante dardarkaria; dardarkari gabeko aldaera darabilte besteak beste *nme2*-k, *naz*-k eta *kaz3*-k.

—*i* bokal zein glide amaieradun berbetan, denek darabilte kasu markako kontsonante dardarkaria (*-iri*, *-airi*, *-eri*, *-oiri*, *-uiri*). *raz1*-i beste forma bitxi bat jaso diogu, forma arruntenen ondoan, “-ixeri” amaierakoa: kontsonantedun amaierako formen kurutzaketaz osatutakoa dirudi, loturazko *-e* bokalari erreparatuz gero; bokal sabaikaria beste loturazko bokal horri lotzerakoan kontsonante sabaikaria tartekatatu du lekukoak, mugatzailea hartutakoan bezala. Adibideak hauexek dira:

*raz1* seim-beiXERI emoétzat bédarrá? //raz1 émom-bedárra · eroseñi e kúiXERI

<sup>112</sup> Ikusten denez, atal honetan deklinabide bereziko berbak ere aintzat hartu ditugu, hainbat adibide eta aldaera jaso ditugunez: “ama, aita” eta antzerakoak alegia.

—*-au* diptongoz amaitutako berbetan ere lekuko guztiek darabilte dardarkaridun kasu marka osoa.

—Kontsonante amaieradun berbetan bi eredu dira nagusi. Batetik, *-i* kasu marka soila kontsonanteari zuzenenean eranstea; eta bestea, dardarkaridun kasu marka erabiltzea *-e-* loturazko bokalaren laguntzaz.

Lekuko gehienek lehen aukera darabilte; beste batzuek ostera, bigarrena. Bigarren talde horretan dago *kmz* lekukoa: *-eri* aldaera gehien darabilen lekukoa da, nahiz eta adibide batzuetan forma soilena ere badarabilen: adibidez, “ospeleri, mutillari, gisoneri” zalantza gabe darabiltza, “mutilli” zuzenean galdetutakoan onartzen duela; baina “sagarreri” forma ez du onartzen eta “sagari” darabil bakarrik, eta “fiñi, aritzi” berbetan ere beste hainbeste gertatzen da. *naz* lekukoak ostera, komunzki kasu markako bokala kontsonanteari txertatzen dio, baina “fin” berban “fiñei” egiten du, bokal arteko dardarkaria ahoskatzeke.

Arraroa egiten zaigu *razl*-ek darabilen forma isolatua, “iru aritxari”, lekuko horrek beste adibideetan kasu markako bokala zuzenean kontsonanteari itsatsi baitio.

Kontsonante dardarkariz amaitutako berbetan, dardarkariaren izaera gorde egiten da: bakuna denean, bakun: *kmz3*-ren adibidea dugu: “seri”. Anitza denean, anitz, hainbaten erantzunez “sagari” (bereizketa hori mugatuan ere egiten da: “sera(r)i, ura(r)i /sagarra(r)i”; “sere(r)i, ure(r)i /sagarre(r)i”).

#### 1.2.4.1.2. Mugatu singularrean

##### Datibo mugatu singularra: eredurako

Amaiera bokalikoetan: <i>alabiari /alabiai; etxiari /etxiai; txikixari /txikixai; astuari /astuai; katuari /katuai; kuixari /kuixai</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillari /mutillai</i>
--

Orokorrean, datiboko formak nominatibo singularreko formei *-(r)i* kasu marka erantsita lortzen da. Aldaerak, nominatiboan aipatutakoak lirakeke bokalen elkarketaren ondorioz. Bokal arteko kasu markako kontsonante dardarkariaren galera alternatiboa da (ikus lekukoaren joera nagusiak mugagabearen atalean).

Bokalez amaitutako berbetan, bokal arteko kasu markako kontsonante dardarkaria ahoskatu ezean, emaitza hiru bokal-glidetako sekuentzia da; adibidez, *kmz*-ren “arrebai” forma, *kmz1*-en eta *kaz2*-ren “andriai”, *nme2*-ren eta *naz*-ren “elixiai”, eta beste adibide mordoia. Areago, hiatoz nahiz joera “berezi-ko” diptongoz amaitutakoetan sekuentzia lauoa ere izan daiteke; hiatoen adibidetzat *ñaz2*-rena dakargu: “serauai”; dipongoen adibidetzat hauek ditugu, esate baterako: *raz1*-en, *nme2*-ren eta *naz*-ren “anayai”, *nme2*-ren eta *naz*-ren

“jaboyai”, *nme2*-ren eta *naz*-ren “kristauai”, eta abar. Hiru bokalez amaituta-koetan bosteko sekuentzia eratzen da (bokalak eta glideak daudela, noski), adibidez “biaiai, kamioiai”. Forma eratorrietan ere (gehiagotasun kasu markaz eta antzerakoez, esaterako) gauza bera gertatuko litzateke, emaitzako sekuentzia luzatuz.

“Gau/gaba/gabe”-ri dagokionez, *kgg*-k eta *naz*-k “gaba(r)i” erantzun dute galdekizunean.

Kontsonantez amaitutakoetan ez dugu aparteko berezitasunik aurkitu.

#### 1.2.4.1.3. Mugatu pluralean

##### Datibo mugatu plurala: eredurako

Amaiera boka,ikoetan: <i>alaberi /alabei; etxieri /etxie; txikixeri /txikixei; astueri /astuei; katueri /katuei; kuxeiri /kuxei</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>muti,leri /mutillei; egurreri /egurrei; fiñeri /fiñei</i>
--

Singularrean ez bezala, lehen ere adierazi denez, pluralean *-e(r)i* kasu marka arnsten zaio mugagabeko oinarriari.

Bokal arteko kontsonantearen galera lekukoen arabera alternatiboa da, nahiz eta gure ustez pluraleko galera ezin daitekeen alderatu singularrekoarekin. Singularrean dardarkaria erabiltzea edo ez lekuko gehienengan alternantziak da; eta gure iritziz pluralean dardarkariaren erabilera ala ez sistematikoa da. Lekuko batzuek forma dardarkariduna hartzen dute kasu markatzat gehienetan, *kmz*-k, *kgg*-k, *raz1*-ek, *kaz3*-k, *ñaz1*-ek, *kaz1*-ek legez; eta beste batzuek dardarkari gabea, hala nola *nme2*-k, *naz*-k, *kmz3*-k, *rmz*-k. Hala ere, alternantziak ere gertatzen dira: *kgg*-ren, *raz1*-en, *raz*-ren, *rmz2*-ren, *rmz5*-en, *kaz2*-ren, *f.a.*-ren adibideetan<sup>113</sup>.

Bai mugagabean bai mugatu pluralean *-eri* kasu marka darabilten lekukoek azentua darabilte besteak beste forma biak bereizteko; eredu orokorrak hauek dira: “ospeléri” mugagabean eta “ospéleri” pluralean.

Bokalez amaitutako berbetan *-e(r)i* kasu marka eransterakoan berbek oinarrian plural formak dituzte, baina ez nominatibo forma soilak, kasu marka eransterakoan aldaketak gertatzen baitira. Banaka edo multzoka azalduko ditugu joerak, amaieraren arabera:

—*a* itsatsidun berbei pluraleko kasu marka eransterakoan azken emaitza *-e(r)i* da, *-aren* arrastorik gabe (“elixeri/elixei”).

<sup>113</sup> Izenaz landa beste kategoriak begiratzuz gero antzerako emaitzak daude: ikus erakusleen atalean, adibidez.



—*-e* amaierako berbei pluraleko kasu marka eransterakoan azken emaitza *-ie(r)i* da: \**semiak-e(r)i* > \**semia(g)-e(r)i* > \**semie(e)ri* > *semie(r)i*<sup>114</sup>.

—*-i* amaierako berbei pluraleko kasu marka eransterakoan azken emaitza *-ixe(r)i* da.

—Glide sabaikariz amaitutako berben emaitza bikoitza da<sup>115</sup>:

- *-ai, -ei, -oi, -ui* → *-aix(e)r(i), -eix(e)r(i), -oix(e)r(i), -uix(e)r(i)*
- *-ai, -oi* → *-aie(r)i/-aye(r)i, -oie(r)i/-oye(r)i*

—*-o, -u* bokalez amaitutako berbei pluraleko kasu marka eransterakoan azken emaitza *-ue(r)i* da.

—Glide belarez amaitutako berbei pluraleko kasu marka eransterakoan azken emaitza goikoa modukoa da, diptongoko bokalaz gain.

Singularrean bezala, bokalez amaitutako berben emaitza, *-a* itsatsidun amaierako berbetan izan ezik, hiru bokaletakoa izan daiteke; diptongo batzuen eta hiatoen emaitza lau bokaletakoa litzateke emaitza; eta abar (ikus singulararren atalean esan duguna).

—Kontsonantez amaitutako berbetan pluraleko kasu marka kontsonanteari zuzenean eransten zaio, beraz, azken emaitza “-kontsonante- + *-e(r)i*” da (“os-peleri/ospelei”). Aipatzekoa da *-a* itsatsidun amaierako berben joeran eta kontsonante bukaeradun berben joeran plural ezaugarria neutralizatu egiten dela (“*neske(r)i*”, “*mutille(r)i*”).

Orokorrean, emaitza horien plural ezaugarri orokorra beste kasu marka batzuen oinarriak ere gorde egiten da (*-e-, -ie-, -ye-, -ixe-, -ue-* alegia, berben amaieren arabera): edutezko genitiboan, soziationean, motibatiboan, destinatiboan eta leku-denborazko kasuetan. Beraz, kasu horietan ez ditugu berriz emaitzok errepikatuko, kasu marka berezi bakoitza eta bestelako ezaugarriren batzuk aldatu arren ere.

## 1.2.4.2. ERABILERA

### 1.2.4.2.1. Aditzarekin komunztadura gordeta

Bai *nor-nori* bai *nor-nori-nork* adizkien tauletan aurki daitezte era honetako nahi beste adibide. Kasuistika zabala da: subjektua, objektua eta datiboa esaldian eta aditzean izan daitezke; baina aditzean bakarrik ere bai, izen deklinaturik gabe (“*jausi jata*” esaldia, adibidez); edo esaldian bai baina aditzean ez (adibidez, “*zeri itxaitxen zagoz?*”). Batzuetan aditzean hiru pertsona morfema daude

---

<sup>114</sup> Hipotesi horretan ez dugu jasotzen hainbatetan irakurri dugun azpiegitureko \**-ag* amaiera plurala (adibidez: M. AZKARATE, P. ALTUNA; 2001, 46); gure ustez ez da beharrezko ezinbestean, espektrogrametan ikusi baitugu kontsonante leherkari belare ahoskabea ahostundu eta hurbilkarizatu ere egiten dela bokal artean; inguru horretan kontsonante hurbilkari ahostuna galtzea ere ez da batere arraroa Eibarren behintzat.

<sup>115</sup> Ikus azterketa honetako 1.2.0. atalean multzo nagusiak eta azalpena.

baina esaldian bi edo bat ere ez, aditzak horrela eskatzen duelako (“(-ri) begiratu, entzun”), eta abar. Ez dugu hemen gehiago zabalduko gai hori komunztaduraren alorrekoa delakoan. Aditz arazleek ere datiboaren erabileran eragina dute, aditz forma asko *nor-nori-nork* erako bihurtzen baitira, batzuetan subjektua datibo kasuan ezarririk.

#### 1.2.4.2.2. Postposizio eta lokuzio batzuen lehenengo atalean

Honelako egiturak erabiltzen dira, adibidez:

— *-(r)i esker(rak)/grasiak*. Adibide batzuk:

*kgg* tólduari eskér es gára bustí *-kmz* eskérra-tólduari es gára bustí *-razI* tólduari eskérrak es gára bustí *//razI* “tólduari eskérrak!” °orixe da polítxa!, orí o- fasíll esá-ten dá baña béste bátzuek?... *-nme2* tólduai eskérrak ...

*razI* °bénga! a- eskérrak arí bé!

— *-(r)i begira egon*. Adibidez:

*kgg* orí beira nao *-kmz* orrí beira nao *-razI* arí beira nao *-nme2* orrí bégira nao *-naz* orrítxi [sic] begira eo-naix

— *-(r)i emon(da egon)*. Zenbait adibide:

*f.a.* emonda dao danari/txurrutári *-kmz* danári emonda dao *//juérgeri!*, juérgeri, juergak eta erátiari txa danári *-razI* danári emónda dao! *//orí* danári emónda dao *-naz* da, danai emonda dao

— *-(r)i laga*. Adibidez:

*kmz3* °... baña-nik, oin jaixán da · danai láata naok, danari! · alako gausef, kompromiso ero serei... · bénetan siññistototarí... · oñ e...

#### 1.2.4.2.3. Egitura berezi batzuetan

*kmz* lau batí <bakoitzarentzat lau daudela esan nahi du>

*kmzI* °bai, kártetan geró: · bi birí kóntrá, an bos-dúro. Jóolin!...

Egitura horrek pilota jokoko egiturak ekartzen dizkigu gogora: “bi(k)-biri” eta antzerakoak<sup>116</sup>.

#### 1.2.4.3. ONDORIOAK

Partitiboan bezala, aldaerak sortzeko iturrietariko bata kasu markako kontsonante dardarkaria da. Mugagabeen eta singularrean erabili ala ez, ez da jakineko

<sup>116</sup> Oso hiztegi berezia denez ez da zeharo aztertu lan honetan.

eredurik betetzen baina pluralean banaketa sistematikoagoa dela dirudi: kaletarrek sarriago darabilte *-eri* aldaera eta baserritarrek berriz, *-ei*. Hala ere, singularrean ere polimorfismo ugari gertatzen da. Bestalde, pluralean *-e-* ezaugarriak hainbat aldaketa fonetiko sortarazten ditu berba bakoitzaren amaieran. Aipatze-koa ere bada *-eri* marka lekuko batzuek (kaletarrek batez ere) mugagaberako zein pluralerako darabilte (amaieraren arabera), sinkretismoa sortuz; nolana ere, azentua batzuetan bereizgarri gertatzen da.

Erabileraren alorrean datiboa oso kasu arrunta da kasu gramatikala den aldetik, baina aditzean isla izateak ez du esan nahi perpausean ezinbestean agertu behar duenik. Osterantzean, postposizio eta lokuzio batzuen aurrekarietan ere agertzen da kasu marka hori; baita jakineko egituretan ere.

### 1.2.5. *Edutezko genitiboa* *(-r)(e)n)*<sup>117</sup>

#### 1.2.5.1. ALDERDI FORMALA

Izenordainen eta erakusleen formak (“nire/nere, ire...; onen, orren, aren”) ez ditugu hemen aztertuko, deklinabide “arrunta” baino. Izenarekin doanean aurretik jartzen delako, izenlaguna da.

Fonetika sintaktikoaren eraginez kasu markako kontsonante sudurkariak bi aldaera izan ditzake: batetik, bokal sabaikariaren ondoren badao eta etena badu ondorik, edo amaiera absolutuan badago, edo hurrengo berba bokalez hasten bada, sabaikaritu egin daiteke; eta bestetik, edozein kasutan, kate mintzatuko hurrengo berba kontsonante ezpainkariz hasten bada, asimilazioa jasan eta *-m* ahoskatzen da. Kate mintzatuko hurrengo berba kontsonante beraz hasiz gero, batu eta soildu egin daiteke.

#### 1.2.5.1.1. Mugagabea

##### **Edutezko genitibo mugagabea: eredurako**

Amaiera bokalikoetan: <i>alaban /alabaren /alaben; etxen /etxeren; txikin /txikiren; aston /astoren; katun /katuren; gastaín /gastaien</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillen; egurren</i>
--

Nominatibo mugagabeko formei kasu marka eransten zaie zuzenean, datiboan moduan.

<sup>117</sup> Ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001, 93-97).

—Aldaera arruntak. Aldaera bi jaso ditugu bokalez amaitutako hitzetan: gehien erabiltzen dena, *-n* kasu marka; eta bestea batzu-batzuetan erabiltzen dena, *-ren* kasu marka<sup>118</sup>. Lehenengoa lekuko guztiak darabilte salbuespenik gabe; bigarrena noizbait darabiltenen artean lekuko hauek ditugu: *kmz* (“etxe-*ren*, lekuren, keren”), *f.a.* (“basarriren”), *kgg* (“erriren, mendiren”), *S.B.* Adierazgarria da azken honek eginiko iruzkina<sup>119</sup>:

*S.B.* “ori usañori erosein, erosein gastairena isan leike” ... “Gastairena”; “erosein gastaiña” bestela!?... J6e...: “gastairena”. Or batzuetan “-ren-, -re-” garbi erabiltzen dou e?: “norena da ori?”, “nona” esta erabiltzen”

“Lau” zenbatzaileak ere (izenordain denean) *-re-* hartzen du lekuko gehien ahotan, *nme2*-k izan ezik (lekuko horrek sekula ez darabil *-re-*dun aldaera, guk aztertu ditugun idiolektoetan bakarra).

—Aldaera berezia: *-en*. Batez ere *-a* itsatsia duten berbetan eta bereziki deklinatutako izena zenbatzailearen baten ondoan doanean badirudi “pluraltzat”-edo, hartzen dela<sup>120</sup>. *naz* lekukoarengandik jaso dugu:

*naz* artítut erregáluak iru alábenak <ziur dakigu “de tres hijas” esan gura duela, galdekizunaz lortutako erantzuna delako; ez “de las tres hijas”>

Hemen koka daiteke lekuko beraren beste errealizazio hau:

*naz* ... iru kampÁYEN · saatía <hau ere galdekizunez lortutakoa da, ez dugu zalan-tzarik esangura mugagabearen inguruan>

*raz1* lekukoak ere badarabil aldaera hori (bai “kampai” berban, bai “jaboi” berban), eta *kgg* lekukoak bere amari jaso zion “gastai” hitzarentzat. Hemen *kgg*-k egin zuen iruzkina forma hauetaz:

*kgg* “[amari galdetuta] “edosein gastaiéna da usañ ori” ... baña ori asko kosta jakon urtétzia, eséban áitzen e, érderas be eséban áitzen. Esáte-séban “edosein gastaiñ usaña da ori”, eta -«es amá!, “ese olor es de kualkier-, kualkiera de esos kesos”», eta askenían ólan esan séban, “edósein gastaiéna da”. Óso rárua eitzen da es? ...

—Beste berezitasun batzuk ere aurkitu ditugu, batez ere *-ai* amaierako berbetan. Ez dakigu fonetikoki errealizatzeko zaila delako, ala oso gutxi erabiltzen den forma delako, temati galdetu behar izan diegu lekukoei “kampain/kampairen” gisako formak lortu ahal izateko. *kmz*-k “kampain” zein “kampairen” darabiltza; *kgg*-k berriz, “kampain” ez du onartzen (nahiz eta oharkabean erabili) baina

---

<sup>118</sup> Hirugarren graduko erakusleak ere forma hori hartzen du: “aren”, lekuko guztiengan sistematikoki, *nme2*-rengan barne.

<sup>119</sup> Ikus “kampai” hitzaren inguruan behe-rago egin ditugun oharra; *S.B.*-renak han ere txerta daitezke.

<sup>120</sup> Gure zalantzak argitzeko mendebaldeko euskalkia egiten duen beste lekuko bati galdetu diegu itzulpen bidez eta banaketa bera egiten du: “erosein alabAna”, baina “iru alabEn erregaluak”.

“kampairena” bai; beste lekuko batzuek erabatera “kampain” eredia darabilte; eta *razl*-ek hirukotea darabil “kampain /kampairen /kampaien-kampayen”; *naz*-k hiru horietatik lehena eta azkena darabiltza, eta *kgg*-k bere amari jaso zion “kampaien” forma hori. *razl*-ek beste hitz batzuetan ere aldaera hori darabil: “jaboien”; eta *naz*-k “gastaen” forma darabil, guretzat guztiz bitxia. Ohar guzti hauek “gastai, jai” eta antzerako hitzentzat ere balio dute.

Erreduplikazio adibide bat ere aurkitu dugu, *f.a.* lekukoarena: *f.a.* “orí usañoi seiñ gastaiñana da?”; baita alderantzizkoa ere, silaba osoaren sinkopa (ka-kofoniaz, noski): *naz* “seiñ aná [sic] da ori alkondarioi?”.

— “Gau/gabe/baga” hitzak ere errealizazio bat baino gehiago du: *f.a.*-k “gaun” darabil, *kgg*-k “gauren”, eta *nme2*-k “gaban”.

— Kontsonante amaieradun hitzetan kasu marka eransteko *-e-* loturazko bokalaren bitartez egiten da. Sistematikoki eta salbuespen barik kasu marka *-n* da lekuko guztien ahotan.

#### 1.2.5.1.2. Mugatu singularrean

##### **Edutezko genitibo mugatu singularra: eredurako**

Amaiera bokalikoetan: <i>alabian /alabien; etxian; txikixan; astuan; katuan; gastaian</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillan, egurran</i>
--

Orokorrean, nominatibo singularreko formei *-n* kasu marka erantsita lortzen da, sistematikoki lekuko guztiengan<sup>121</sup>. Aldaerak, nominatiboan aipatutakoak liriateke bokalen elkarketaren ondorioz (ikus lekukoaren joera nagusiak mugagabearen atalean). Eredu nagusia *-a* itsatsidun berbetan adibidez, *-ian* da, baina besterik ere aurki daiteke: *-ien* (askoz ere gutxiago), adibidez:

*rmz* °ori estao ee-eskólien gáñien!

“Gau/gabe/baga” hitzak ere errealizazio bat baino gehiago du, arrunta denez: *kgg*-k “gauan” darabil; *nme2*-k “gaban”, eta *S.B.*-k “gauan, gaban, gabian”.

Aipatua dugu jada forma bitxi bat, guztiz lexikalizatua jakina, eta otoitz-esaeren multzokoa: “Aitxiaren” otoi-tza hain zuzen. Otoi-tz horretan hiru edutezko

<sup>121</sup> Dena dela, alfabetizazioaren ondorioz zalantza gabe, *S.B.*-k batez ere eta *kgg*-k noiz edo noiz, *-ren* aldaera darabilte batzuetan. Gure ustez hori ez da Eibarko euskara “jatorraren” ondare izan lekuko zahar eta gazteengan, berrikuntza moduan egun sartzen dagoena baino. Edozelan ere, birritako erakusleak lantzerakoan adibide bakanak jaso dizkiogu *naz* lekukoari aldaera hori dutela, 3. graduko adibideetan beti: *naz* “da, arén · elixíarem-bentána-pé apurtuta daos” // *naz* “etaa, iñ ero es eiñ, · arén · alabíaren gáñian dao” // *naz* “aren mendixáren árbola-pé, aunndíxa-dia”; baliteke erakuslearen analogiaz horrela egitea.

genitibo marka daude eta hiruetan erabiltzen da *-ren* kasu marka (nahiz eta *razl*-ek “Santuan” darabilen jaso dizkiogun adibide bietan). Kasu horretan “aita” izena arrunta balitz legez deklinatzen da<sup>122</sup>. J.A. URIARTE-k Fruizerako dioenez, “Balio beza adibide honek eleizako hizkerak —abadeenak— herriko hizkeran izan dezakeen eraginaz ohartzeko” (1995, 365).

### 1.2.5.1.3. Mugatu pluralean

#### **Edutezko genitibo mugatu plurala: eredurako**

Amaiera bokalikoetan: <i>alaben; etxien; txikixen; astuen; katuen; gastaien</i>
Kontsonante amaieretan: <i>mutillen, egurren</i>

Azaldu dugu datibo pluralaren atalean nola osatzen den ezaugarri plurala, *-e-*, *-ie-*, *-ye-*, *-ixe-*, *-ue-* aldaerez alegia, berben amaieren arabera. Edutezko genitiboaren kasu marka zuzenean eranstean zaie plural ezaugarri horiei, *-n* soila.

Salbuespen moduan “lau” zenbatzailearen formak jar daitezke: izenordaina denean “lauren<sup>123</sup>” erantzuna jaso dugu sistematikoki; izena denean berriz, “lauen” forma jaso dugu aho batez.

### 1.2.5.1.4. Hurrenkera

—*Izenlaguna + izena*, hurrenkera arruntena.

—*Izena + izenlaguna*. Gehienbat “gure” izenordainarekin osatutako egituratan erabiltzen da hurrenkera hori baina solasaldiak hala eskatuta beste izenordainak ere ager daitezke. Agian semantika aldetik duen ñabardurak laguntzen du egitura honetarako. Ikus adibide batzuk:

*raz* °... éuren Balentín be · formál-formála daa · gisóna!, báá!, réto-réto-réto bá-dá!, beti mendíxan da betí séra...

*kmz1* °baña esán gura júa- esán gura júat, éuskería guría, ba ya ba béste- béste-... gástatzen eró, améngúa ...

*ñaz5* “... Oñi Aitta Guria dakit bakarrik eta lehen dotriña, dana e! ...”

Dena dela, “Jose guria” zein “gure Jose” erako egiturak, biak erabiltzen dira (bigarrena gehiago). “Aitxa guria” otoitzaren “izena” ere, “Gure Aita” ere bada *kgg*-ren eta *nme2*-ren esanetan (*izena + izlag*. hurrenkera gehiagotan darabilten arren, *nme2*-k bereziki); beste lekuko guztiek “Aitxa guria” darabilte.

<sup>122</sup> Ikus azteketa honetako 1.2.0. atalean egin dugun azalpena.

<sup>123</sup> Gradu hurbileko mugatzailez “lauron” forma ere bai.

### 1.2.5.2. ERABILERA

Solasaldi askean barrena konturatzeko erabiltzen da kasu hau, baina galdekizunaz lortzeko lekukoek aitortzen dute “zaila” dela, asko pentsatu behar dela eta emaitzak gogoetaren ondorio direla. Forma batzuk, izan ere, oso naturalki eta erraz lortu ditugu, baina beste batzuk ez hainbeste (gogoan izan “kampai” hitzaren deklinabidean esan duguna). Esplizituki lekuko batek adierazi digu edutezko genitiboz osatutako formez, orokorrean, uste duena:

*kgg* °sállak dira ónek, e? ... pentzau eim bia-dira

#### 1.2.5.2.1. Edutezko genitiboa - leku-denborazko genitiboa nahaste<sup>124</sup>

Hainbat eta hainbat adibidetan aurkitu dugu edutezko genitiboa eta leku-denborazkoa nahaste erabilia; badirudi ez dagoela guztiz argi, kasu batzuetan behintzat, zein kasu marka erabili. Guk “gaika” antolatu ditugu zenbait adibide hemen erakusteko (adibide ereduak jarriko ditugu).

a) Pertsona nahiz animalia adierazten duten izenek, lehenik eta behin, ez dute leku-denborazko genitiboa onartzen eta ez dago nahastatzerik: “alabian kotxia”, “aitxitxan sapatillak”; “[txuletak] saldixanak”, “idixen mantia”, “beixan esnia”.

b) “Arazoa” bizigabeek dute batez ere, erakunde-entitate-gauza bizigabea, edo landarea adierazten duten izenek esaterako: eraikin izenek dute nahaste handia, adibidez. Izenlagunaren ondoko izena zein den ere badu eraginik:

—Izenlagunaren ondoko izenak bizidunek kulturalki dituzten ezaugarriren batzuk direnean, adibidez, nahikoa “zuzen” erabiltzen da edutezko genitiboa (“isena”, esaterako): “elixian izena”, “jaixen posa/atxikixia”; nahiz eta lekuko batzuei adibide hauek jaso dizkiegun: “erriko izena”; “jaixetako posa”, eta abar:

*kmz* orí-isenóri · sé kaletákua da? // *kmz* irú kalekoó · iséna kámbixau dabe — *kgg* sé kaletákua da isén ori?

—Izenlagunaren ondoko izenek edutea, jabea adierazten dutenetan ere bai: “basarrixan terrenuak”, “katuan jatekua” (destinatiboa ere adierazten du adibide honek), “jaboian presiua”, “jaboian kajia”, “soñeko fiñan botoia”, “tela fiñan

---

<sup>124</sup> Ikus besteak beste gramatika batzuetan nola azaltzen duten gai hau: EUSKALTZAINDIA (1993, 151-155); J.C. ODRIOZOLA, I. ZABALA (1992, 16-20); G. REBUSCHI (1984, 114-118). K. ROTAETXE-k ere aztertu zuen gai hau Ondarroako hizkera azaltzerakoan, baina atzizki bakoitzaren banaketaz eta funtzioez gehiago arduratu zen nahasketaz baino —izan ere, nahasketa itxurazkoa dela dio, esangura aldetik bat ez direlakoan; gu ez gaude horretaz hain ziur— (1978, 395-407). Ikuspegi diakroniko-ko M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k aurkezten dute (2001, 93-95). Bestalde, adibide-ereduak atal honetantxe pilatu ditugu eta leku-denborazko genitiboaren atalean ez dira ezarriko.

arixak”, “etxian jabia”; nahiz eta “errixan mendixa /erriko mendixa”, “mendixan terrenua /mendiko terrenua”, “kotxian giltzak /kotxeko giltzak”, “ill onen irua /ill onetako irua”<sup>125</sup>.

— Postposizio batzuekin ere genitiboa erabiltzekotan edutezkoa erabiltzen da nagusiki<sup>126</sup>; esate baterako: “eskolian gañian” (inesiboa adierazteko, ardura esanguraz), “unibersidadian atzerañok”, “etxian parian”.

— Izenlagunaren ondoko izenek berezko ezaugarriak adierazten dutenean ere bai: “arrautzian gustua”, “oian anakak”, “mendixan ertza”, “mendixan alturia”, “motuan burpilla”, “paguan orbela/adarrak”, “katuan lorrotzak”, “kampanian zaratia”, “gastaian usaña”, “gauan illuntasuna”, “gauan zati bat”, “ospelari askuria”, “sagarran asala”, “aritzan egurra”; nahiz eta osterantzekoak ere jaso ditugun, adibidez: “kaleko ertza”, “kaleko azeria”, “gabeko illuntasuna”, “gabeko zati bat”, “egunan orduak /eguneko orduak”, “oeko isarak”.

— Izenlagunaren ondoko izenak ezaugarri “fisikoagoak” direnean (altura, neurria, eta abar) nahastu egiten dira genitibo biak. Esate baterako, “elixian planuak /elixako planuak”, “elixian kampaia /elixako kampaia”, “kartian diresifua; kartian sellua /kartako letria”; “etxian tellatua /etxeko tellatua, etxian sukaldia /etxeko sukaldia”; “buruan neurrira/pixua”; “jaixan ondarrak /jaiko ondarrak”; “ostalan erretratua /ostaleko erretratua”, “ostalan komedora /ostaleko komedora”.

— Adibide bakanak, solasaldi askekoak, sistematikoki nola jokatuko ote zuten ez dakigunak: “kobruan eguna”, “kantuen liburua”.

— Batez ere solasaldi asketik hartu ditugun leku-denborazko genitiboaren adibideak, edutea edo beste ezaugarriren bat adierazten dutenak<sup>127</sup>: “lau egunetako lua”.

Ez dugu desberdintasun nabarmenik antzeman egin ditugun lagin soziolinguistikoetan, eta aipatzekotan, alfabetizatua den *kgg*-ren gogoetak aipatuko genituzke, nolabaiteko zalantzak sortzen baitzaizkio zein kasu marka erabili gaia-  
ren arabera.

#### 1.2.5.2.2. Perpauseko kasu marka ondoko izenari edo izenlagunari txertatuta

Izenlagunaren ondoko izena deklinatu egin daiteke; baina izen hori isildu edo esaldian beste lekuren baten dagoenean bere kasu marka izenlagunak jaso egiten du. Esate baterako:

*kgg* kríston juergak eitxe-sitxúen –*kmz* kríston juerga[k] —*rmz* °... kríston estasiñua jeuan orduán! ·· Bitorixako trená, Donostíakua taa Bílbokua ba... · irúrak órtxe!, kruse- krúse itxe-juen! ...

<sup>125</sup> Eredu hauen zenbait adibide leku-denborazko genitiboaren atalean ipiniko ditugu.

<sup>126</sup> Oso kasu gutxitan baina leku-denborazkoa ere erabiltzen da.

<sup>127</sup> Eredu honetako adibideak leku-denborazko genitiboaren atalean ezarriko ditugu, kasu marka horren erabileraren erakusgarri.



*/kgg* krístonak ein sitxúen *-kmz* krístonak ein sitxúen · ándik urtétzeko *-raz1* bai!, krístoná-bá! *-naz* krístonak in sittuen —*nme4* °baña órrek...; · aurten e, alambriakiñ ixten krístonak in sittuen da...

Nominatiboaz gain, beste kasu markak ere har ditzake ondoko izena isilduta: “Korriuanekua”, “Gandiaganera”, eta abar. Adibide gehiago:

*kgg* eséisu neré platerera etára, suréra etáraisu *-kmz* eséisu etára neré plateréra, etáraisu seuréra *-nme2* eseisu nere platerera etara, etaraisu seurera *-naz* éseisu etara nere platerera, etaraisu seuréra

*kmz* estakisu esébe? asidéntiana? —*nme2* estakisu asidéntianik esébe-ero...? —*naz* éstakisu esebe asidéntianik? (*kgg*-k aitortzen du partitiboa erantsita, adibidez, ez duela erabiltzen)

Kasu marka errekurtsiboa da, bestalde, eta teorian nahi beste genitibozko izenlagun jar daitezke elkarren jarraian. Solasaldi askeetan ez da bide hori asko erabiltzen, senitarte harremanak eta antzerakoak azaltzen ez bada. Elipsiak ere gerta daitezke, edutezko genitibo kasu markak izenlagun bakarrean pilatuz: “amanana, alabianana, zuriana” lirateke Eibarren adibidez “noren anaiarena?” balizko galderaren erantzunak.

#### 1.2.5.2.3. Norbaiten etxe, leku, talde... esanguraz

Goiko atalean aipatu dugun elipsiaren bideak jakineko esangura duten egiturak sortzen ditu, norbaiten etxea, taberna, denda, lekua, nahiz taldea-senitartea adierazteko, “etxe” edo dena delako leku edo entitatea isilduz. Horrelakoak leku-denborazko kasu markaz erabiltzen dira, eta *-(e)n-* markaren gainean ezartzen da deklinabide atzizkia, beste edozein berba legez deklinatuz.

Oinarrian pertsona izenordainak, izenordain legez erabilitako erakusleak, gatzizenak, izen bereziak, abizenak, senitarteen izenak, toponimia “txikiko” leku izenak *-etxe*, taberna, baserri, denda, lantegi eta abar- har ditzake. Adibide batzuk, argigarri: “zuenara jua da”; “orretxenian”, “Unzetanian”; “Pilarrenian”; “Gimonenerañok”.

Sarritan, dena delako entitatearen aurrean (entitatea ere azalduz) zein orde, leku-denborazko genitiboa hartzen du edutezko genitiboz osatutako egiturak. Adibidez, entitatea isilduta: “Benitonekua, Arikixanekua”, “Juana Gorbeanekua”, *nme2* “... guré · Pámponeko será eroo, tio Balentiñenekoo... · Ainóa! e, Bálén d’Ainóa ta... ..” eta abar. Entitatea ere ageri dela: “Kiputxaneko zinia, zueneko etxeko kuixa, Trokaolaneko zubixa, doña Petraneko eskolia”, eta abar eta abar.

Ikus baliabide hau erabiliz nola jartzen zaion senitarte osoari gatzizena benetako adibidez:

*-raz5* °solía bajar a por kartas, porke akí solía-abe-rreparto de kartas!: i por-eso llamaban “Korreúa”, Gárate-Anitua, no sabes?

-f.a. °baaai-baai...  
 -raz5 °Korriuanekua!  
 -f.a. °Korriuanékua”...  
 -raz5 °...  
 -f.a. °... aa!: Eibárkuak ártze-sitxuan amén, e?!, Korriúak, ee...?  
 -raz5 °...  
 -f.a. °da ise- iséna orreaitxik ipinitxa Korriuanekua...

*kmz8* “... nere ámandria ... zán, panadería ta errotarixa, da, á zan Simona ... da, orregaitxik gu gará Símonanekua. Eibarren bákizu, lén dana zan gatzizena ... Onek e zian, Gorostixanekua...”

Baliabide hori oso aberatsa eta emankorra izan da orain arte behintzat eibartar petoen hizkeran.

#### 1.2.5.2.4. Jabego-erlazioa adierazten ez duten erabilerak

Salneurria, gastua edo kopurua adierazteko erabiltzen da adibidez. “Milla pesetan gasolina”, “bosteun pesetan ogixa” erako adibideak ditugu horrelakoak<sup>128</sup>.

#### 1.2.5.2.5. Data adierazteko

“Hilaren izena / “ill/ille”- + genitibo kasu marka + zenbakia inesibo mugatuan” egitura erabiltzen da. Adibidez:

*kaz2* °... mil nobecientas diez! · jáixo sa-nere aistia · agostuan sortzixan · da, sortzítxik amaseira · eun gitxi dauu-umiakin juatekó...

*kmz* °illán saspíxan juam-biot · Donostíra · Donostíara [medikuarengana]

*naz* °[auzoko andra batek] óntxe!, ill onen · ogeixan daukés · eún da bat [urte]!

#### 1.2.5.2.6. Esakune batzuetan, errepikapenez

Eskuarki errepikatzen den osagaia izena da baina izenondoa eta aditz partizipioa ere —azken hau gutxiagotan— izan daitezke. Lehen osagaia edutezko genitibo kasu markaz jartzen da eta bigarrena sozietiboz —gehienetan—, zein instrumentalez —gutxiagotan— eta oso gutxitan ergatiboz edo inesiboz (adibiderako: “otzan otzak; ibilixan ibilixan”).

Goi maila adierazten du, askotasuna. “Posan posakin, sarran sarrakin, miñan miñakin” eta pareko “sarran sarres, arruan arros, posan poses, ibilixan ibilixas”

<sup>128</sup> Gure ustez horrelakoetan “pesetan” berbak genitibo marka du, mugagabez. Ez dugu uste erlaziorik duenik beste euskalki batzuetako “lautan-ogei, (h)irutan-ogei” erako egiturekin.

tankerako egiturak dira. Lehen osagaiaren errepikapena indar enfatikoaren araberaren gehitu egin daiteke:

*rae* °... ke neu-p'eneba-nai-iseten eskola júteik!: · es e ni kastigatze-niñuelako billurrám-billurrám-billurrákiñ! · porke-es kastigua!, jent- bestee gustia-bárre-eitxenben! búrla itxe-ben! ·· etaa ésam-politxa iseten

#### 1.2.5.2.7. Esangura zehaztugabez, *-(r)(e)n bat* egitura

“Zenbait”, “bat edo beste”, “bat edo bat” adierazteko erabiltzen da:

—Izenordain gisa, “norbait” esanguraz: “baten bat” egitura. Aldaera ugari ditu: “batem-bat /batom-bat /baterom-bat /batamat /batambat /bateom-bat /bateomat /batobat /batomat /batemat /atabat”. Deklina egin daiteke; eta forma plurala ere badu. Pluralerako jaso ditugun aldaerak hauek dira: “batembatzu(e)k /batombatzu(e) /batamatzu(e)k /batomatzu(e)k”.

—Zalantzazko, menturazko balioa du “izena/izen sintagma + *-(r)(e)n bat*” egiturak, hitzunaren hipotesia adierazten du subjektua-objektua-predikatua zer edo nor den, nolakoa. Adibide gutxi batzuk doaz, besteen erakusgarri:

*razl* °ígual no- nóbixo morukom-bátek eo ígual e, e bátomatek e ...

*raz* °... oin · Júlion daa umía ondo etórriko eté dan ero és ero-olakótxem-bat

*raz* °... iséngo san ba ordúan edaa- ordúan épokan piskát · liberáltxom-bát-eró ...

*kmz* °... dómeketan, derríor juan biarra, lékurem-bátera báskaitxara! ...

Gogoan izan behar da formaren atalean *-ren* aldaeraz esan dena. Lekuko batzuek egitura honetan dardarkaridun aldaera sarriagotan darabilte hitzaren deklinabide arruntean baino. Edonola ere, deklinatu egin daiteke:

*kazl* °esss... ··· ni-neuk ess...: akáso beste isenem-batekin...

Plurala ere onartzen du, adibidez:

*naz* gaur arte béti euki dou eunem-bátzu jai!

—Aditz sintagma jokatuak ere osa dezake egitura hori, perpaus erlatiboa sortuz<sup>129</sup>, orainaldian zein iraganaldian:

---

<sup>129</sup> J.A. URIARTE-k honela dio Fruizko erabileraz: «elkarren ondoko edute genitibo biren gainean egiten diren erlatibozko perpaus txertatuak ere aipatu beharko lirateke (...) Kontutan hartu behar da “dxoan san bat” eta “dxoan sanan bat” ez direla gauza bera. Bigarren forma, zehazgabeagoa da, zalantzazkoagoa» (1995, 366). Guk ez dakigu zehatz Fruizko hizkeraren berri, baina lehen formak gaztelaniako “uno que fue” delako itxura osoa du, egileak aipatzen duen “alguno que fue”-ren lekuan. Horrekin esan nahi dugu ez dugula argi ikusten “san bat” horretan genitibo kasurik dagoenik; bigarren forman ez dago zalantzarik edutezko genitiboa txertatu zaiola adizkiari eta mentura zentzua duela.

*kgg* °... léngunian be · kontúrau nítzan · oiñ así dala esaten, · jendíak oiñ · “-xa” esaten dabela: ésto-gogóratzen oin sé- se- sé san! · olako bestee ... “-ía”-amaitzen daben bat ··· fix!, tákitx! <kakofoniaz edo, ez du “dabenen” egiten>  
*razl* °... San Antónioko-óbria morokom-bat espáda baintzát!; ero bestéla Madríllen eom-bi-dau <konjetura> sékula-amaitzestanam-bat eta báá!-amaittuko da orí: áu amáittukou baintzát!

*kgg* juan sánen bat isángo san —*kmz* juan san-en bat isango san [<“juan san bat” eta “juan sanen bat” alderatuz> bai, bardíña ba!] —*nme2* bátomat, ará jun-tzanem-bat iséngoo san —*naz* bátamat isengo san, ara- arus juen sánem-bát! // *naz* bátamat, · juen sanem-batena eró...

Edutezko genitiboaren lekuan leku-denborazkoa ere erabil daiteke, menturazko balioa galtzeke:

*kgg* juan sanetáko bat isángo san // *kgg* juan diranetako bat isángo san

#### 1.2.5.2.8. Zergatizko balioz

Batzuetan horrela erabiltzen da:

-*kmz* °gabás argixakin eotiana da-ala?

-t e?

-*kmz* °argixakin eotiana?

-t es, katarruana

*kmz* °<besoko orbanaz> sirkúlasíñuana ei dá-au... da sirkulasíñuan kóntra ··· ero, <tabakoa> áuxe! ·· Áá!, ·· sígarro txarrixok! ...

#### 1.2.5.2.9. Jabetza adierazten ez diren erabilerak

Besteak beste, edukina, ezaugarriak adierazteko adibidez. Adibide batzuk jarriko ditugu:

*kaz2* °... ni koskondu nitzanian euan dénda bat ·· érropena! ...

*kaz2* °urté bi: sartu nitzan ·· Érreen euna pásauta! ...

*kaz3* °... an kámposantuan ... ákordatze-ata beik [sic] a- an ee... entérradori euan da, ··· e es- ese-están amak ese -“selako leku ederra” ómbre! araxe nai! -“au geurie da-ama?” · da-arek e lórekin da, kámpuan da, · -“baai” esaetzan [sic] · ta ni-gero entérradoriai -“au geurie daa”: “au geuria”... <barrez> úmien gáusak, sú! ...

*kmz3* °... armérua-sitxuan áre-bañá-armeruak ·· fusillának eta ·· órrek amatrálladoanak eta ...

*kmz3* °... konkurso bat! · ártistena eon suan Donostian · da · lélengu etara juan ·· daa ...

*kmz11* °... Ha karrerria ez zan hau, profesionala, afizionauena zan ...”

*kmz3* °... da jan da eran iñ bésteik estakasu serian! · geurekiñ! · omenajia: or e, Lukas Alberdiñ omenaje ba-dao ta · aetxéaitxik ...

*kmz3* °... bérsua-berris, kanta... · kantak ero bérsuen e · liburuak eta nékase-nik e · bersolárixenak eta ...

*kmz3* °... gastetan a- álxax ibiltze-iñuasen gu! ba, kántau ta gitárta eo, geró plaen-txiatarren kántuak eta ...

*kmz13* “... famelixak etortzen jakozen eta. Zelan famia ekan gizon onana, danak beragana joten eben ...”

*rmz5* °a!, béste gausa bat etxuau esán! idixená!: gaur eunian estok ee sertzem-baña lengo gausak ee ipiñi bier (¿)eskeok, néurrira be · itxe-suan · idixa: · gerríxan · se neurri ekan...

#### 1.2.5.2.10. Edutezko genitibo marka beste kasu marka batzuetan barrena

Ez ditugu hemen azalduko adibideak; kasu bakoitzaren aldaeretan azalduko dugu edutezko genitiboa azaltzen den ala ez, hala nola sozietatiboan, motibatiboan, destinatiboan, eta bizidunen leku-denborazko kasu batzuetan: inesiboan, ablatiboan, adlatiboan, adlatibo bukatuzkoan eta adlatibo bide zuzenezkoan.

#### 1.2.5.3. ONDORIOAK

Alderdi formalean kasu marka nagusia *-n* soila da bai mugagabeen eta bai singularrean, askoz ere gutxiago erabiltzen den *-ren* aldaeraren ondoan. Azken aldaera hori lekuko alfabetatuek<sup>130</sup> darabilte hitz arruntetan, eta egitura berezietan beste lekuko batzuetara ere hedatzen da, “-(re)n bat” egituran eta erakusle mailan esate baterako. Agian, erabilera maiztasun txikiak argituko lituzke mugagabeko “gastaien” erako aldaera bitxiak. Semantikak argituko lituzke “alaben” erako forma mugagabeak, bestalde. Pluralerako *-en* marka erabatekoa da.

Hurrenkerari dagokionez, “izenlaguna + izena” da arruntena, alderantzizkoa ere erabili egiten den arren.

Kategoriaz izenlaguna denez, izena isildutakoan horri dagokion kasu marka har dezake, eta batzuetan esangura berezia hartzen du, “etxea, taldea”... hain zuzen. Berdeklinabiderako erraztasun handia du. Horrez gain, genitibo marka beste kasu marka batzuen baitan ager daitezke, batzuetan sistematikoki (destinatiboan kasu) eta bestetan txandaka (motibatiboan adibidez).

Kasu marka errekurtsiboa denez, izenlagunak pilatu egin daitezke; edonola ere, ahozko jardunean bide horrek ez du emankortasun handirik.

Erabilerari dagokionez, aipatzekoa da leku-denborazko genitibo markarekin nahasian erabiltzen dela bizigabeen kasu batzuetan. Osterantzean jabego-erlazio

---

<sup>130</sup> Euskaraz alfabetatua esan gura dugu.

esangura du bereziki, baina osterantzekoak ere bai: salneurria, data, zergatia, edukina, ezaugarriak. Egitura berezi batzuetan ere erabiltzen da.

Erabilera mailan ez dugu banaketa soziolinguistiko garbirik antzeman orokorrean.

### 1.2.6. *Leku-denborazko genitiboa* (-(e)(ta)ko/go)<sup>131</sup>

#### 1.2.6.0. LEKU-DENBORAZKO KASUEZ ZENBAIT OHAR

Leku-denborazko kasuak hauek dira: leku-denborazko genitiboa, inesiboa, ablatiboa, adlatiboa, adlatibo bukatuzkoa eta adlatibo bide zuzenezkoa; euskal deklinabidean horrek dituen “ondorio” edo ezaugarriekin. Hainbat eta hainbat egile arduratu dira jatorrizko formak berreraikitzen eta bilakaerarako azalpen burutsuak egiten ezaugarri anitz azaldu ahal izateko. Badirudi forma zaharra kasu marka hitzari zuzenean lotzean zetzala, baina hainbat aldaketak eta osagai berrik egungo emaitzak ekarri dituzte<sup>132</sup>. Gaur egungo euskarak dituen ezaugarri nabariena hauexek dira, kasu bakoitzaren ezaugarri bereziak aipatzeke (Eibarko ezaugarri ere badira orokorrean, salbuespenak salbuespen):

— Forma mugagabea eta pluralean *-ta-* artizkia azaltzea.

— Inesiboak beste kasuek ez bezala eratzea mugatu singularra, bai bokalez amaitutako berbetan, bai kontsonantez amaitutakoetan.

— Izen bizidunak eta bizigabeak bereiztea deklinatzerakoan<sup>133</sup>, leku-denborazko genitiboaren kasuan izan ezik.

#### 1.2.6.1. ALDERDI FORMALA

Arestian aipatu denez, hainbat teoria eta hipotesi landu dira jatorrizko alegiazko formak berreraikitzeke egungo emaitzak azaldu ahal izateko. Gu ez gara alor horretan sartuko, eta Eibarko emaitza nagusiak azaltzen saiatuko gara. Lehenengotik jarriko dugun muga da ez duela bizidunen<sup>134</sup> formarik onartzen, bario banakariz erabiltzen denean izan ezik.

<sup>131</sup> Ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001; 93-95, 97-101).

<sup>132</sup> M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k ikuspegi diakronikoz aurkezten dute gai hau, hainbat ezaugarri eta bilakaera azalduaz (2001, 112-120). Badira gai hori landu duten egile gehiago ere: ikus adibidez O. IBARRA-k egiten duen aurkezpen orokorra, bai teoria batzuen, bai bere proposamenarena (1995, 387-392).

<sup>133</sup> Ikus, baina, horien arteko nahasketaren zenbait kasu eta adibide inesiboaren atalean bilduta.

<sup>134</sup> EUSKALTZAINDIAKOEK bizidunekin erabiltzekotan “-en baitako” forma proposatzen dute (1993, 162). Eibarren ez da forma hori erabiltzen, eta erabiltzekotan beste postposizio batzuetara jo behar: “-(r)(e)n barruko” gisakoak.

Kasu marka honen forma azaltzeko “jatorria” inesiboan jarri izan diote hainbat ikertzailek; *Euskal gramatika...*<sup>135</sup> osatu dutenek, berriz, maila berean jartzen dute *-ko* atzizkiaren aurretik zein kasu marka dagoen, inesiboa, ablatiboa nahiz adlatiboa. Aurrekoak balio du izenlagun denerako; adizlagunak osatzerakoan kasu marka zuzenean hitzari, edo inesiboari nahiz adlatiboari txertatzen zaio<sup>136</sup>. Honela diote:

“Gramatiketan, hala ere, *nongo* galderari dagokionak bakarrik hartu izan du lekua deklinabideko zerrendetan, lekua eta denbora adierazten duten kasuetan hain zuzen ere. Galdera hori (...) *non*-en gainean eraikitako izenlaguna da (...) *norako* eta *nondiko* (edo *nondikako*) *nora* eta *nondik*-enak diren bezalaxe, eta hainbestez bi horiek baino eskubide handiago ez luke *nongo* honek kasutzat hartua izateko (...) Kontua da, ordea, *etxeango* eta *mendiango* (*non-nongo* erlazioa zuzenean adieraziko luketenak) bezalako formak euskara bizian aski bazterrekoak eta noizean behingoak izan direla, horien ordez *etxe*, *mendi* e.a. erabili baitira. Hori dela eta, *non* eta *nongo* kasuen arteko ahaidetasunaren edo erlazioaren kontzientzia galdu du hiztunak eta kasu desberdintzat ditu biak. Bestetik, gramatikariak benetako kasutzat onartua du aspalditik *nongo* delako kasu hori, *norako* eta *nondikako* kasuekin gertatzen den bezala”<sup>137</sup>.

Geure egiten dugu ondoko ebaspena ere: “tradizioari eutsiz, *nongo* kasua hartuko dugu kontuan”<sup>138</sup> formari dagokionez batez ere; erabileran, beste kasuetan oinarritutakoak ere kontuan hartuko ditugu.

Beste gramatika batzuetan “*norako*” forma kasu beregaintzat hartzen da, *Euskal G. O.*-n kasu: “Adlatibo destinatiboa” izena ipini diote egileek<sup>139</sup>. Gure ustez hori eginez gero “*nondiko*”, “*zerezko*” eta abarri ere maila bera eman beharko litzaieke, erabilera modu eta maiztasun aldetik alde den arren.

#### 1.2.6.1.1. Mugagabea

##### Leku-denborazko genitibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan: <i>elixatako</i> / <i>elixetako</i> // <i>elixako</i> ; <i>etxetako</i> / <i>etxe</i> ; <i>menditxako</i> / <i>mendittako</i> // <i>mendiko</i> ; <i>solotako</i> / <i>soloko</i> ; <i>lekutako</i> / <i>lekuteko</i> // <i>lekuko</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>lurretako</i> // <i>lurreko</i>
--

<sup>135</sup> EUSKALZAINDIA (1993).

<sup>136</sup> *Aip. lib.*, 493-498.

<sup>137</sup> *Aip. lib.*, 167-168.

<sup>138</sup> *Aip. lib.*, 168.

<sup>139</sup> I. eta E. ZUBIRI (1995, 365-368).

Gramatikalariek diotenez, mugagabeen gaur egun forma arrunta *-ta-* artizkia txertatuta osatzen da, eta historikoki ezaugarri “berria” litzateke<sup>140</sup>. Eibarren artizki hori ez da beti erabiltzen: ez dakigu ezaugarri zaharrari eutsi zaion, ala berriki sartzen joan den beste berrikuntzaren bat den.

*-ta-* artizkiz zein artizkirik gabe, kasu marka zuzenean txertatzen zaio deklinatutako hitzari amaiera bokalikoa badu; amaiera kontsonantikoa badu, loturazko *-e-* bokal epentetikoaren bidez txertatzen zaio.

Jo dezagun *-ta-* artizkiaren erabilera piskat azaltzera: lekuko batzuek badi-rudi joera handiagoa dutela ez erabiltzeko: *kmz-k*, esate baterako, ez du “ankat-ako” forma onartzen, baina “elixat-ako” eta beste adibide asko darabiltza artizki-az. Beste lekuko batzuek gehienetan erabiltzeko joera dute, *kgg* kasu. Lekuko horrek ez du “ankako” forma onartzen baina “elixako, kaleko” formak ez ditu baztertzeko; areago, “ortutako” ez darabil baina bai “ortuko”, *idem* “maitxako /maiko”. Bestalde, *nme2-k* gehiagotan darabil artizki hori *kgg-k* baino, artizki bako adibide bakanen bat jaso diogu bakarrik lekuko horri. Beste lekuko batzuek batzuetan bai darabilte eta bestetan ez: *-ta-* artizkia gutxien darabilen lekukoa *naz* da; txandaka darabilte *razl-ek* eta *kmz-k*, baina beti ere orokorrean artizkidun aldaera da nagusi. Ez dugu uste alternantzia eta polimorfismo idiolektal hutsa denik, sistemaren ezaugarria da *-ta-* artizkia erabili ala ez aukeran jartzea; izan ere, adibideak ez dizkiogu lekuko bakar bati jaso, gutxienez bost lekukori baino, eta sarritan adibide bana baino gehiago.

Ez dakigu ziur zein baldintzak azal edo gordarazten duen artizkia, mugagabea lortzeko egituretan (galdetzaileen ondoan, zenbatzaileen ondoan...) joera bikoitza baitu; ez dugu irizpide tinkorik aurkitu forma bata eta bestea azaltzeko, oinarrian beti mugagabea dagoelako. *Euskal gramatika...* egin zutenek zerbaitez konturatu ziren eta hau zioten:

“ZENBATZAILEA + IZENA + (IZENONDOA) ere agertzen ahal zaizki-gu: *hiru mila pezetako zapata-parea, hiru kilometroko bidea* (...) Esan dezagun, bide batez eta ohar gisa, *-ko, -tako* eta *-etako* aldaeren arteko desberdintasuna izen sintagma mugagabea, mugatu singularra eta mugatu plurala izatetik sortzen dela. Beraz, *gure herriko* (...), *zenbait menditako* (...) eta *Donostiako kaleetako* (...). Arrazoi beragatik *bi hankako mahai*a esaten da (“bi hanka + *-ko*”), *mila eta berrehun kiloko* (“mila eta berrehun kilo + *-ko*”), nahiz hemen salbuespenak badiren ere badiren literaturan. Dena dela, salbuespen hauek ez dira zenbatzaileak ageri direneko sintagmetara bakarrik mugatzen” (EUSKALTZAINDIA, 1993, 165).

Guk literaturaren eremua ahozko erabilera zabalduko genuke, beraz. Dena dela, “bi hankako”-ren oinarria “bi hanka” bada, “zenbait menditako”-ren

---

<sup>140</sup> O. IBARRA (1995, 389 27. oh.).



oinarria ere “zenbait mendi” litzateke; ala ezinbestean “\*zenbait menditan” suposatu behar al da? Edozein modutan ere, Eibarren “se ankako asurra?” dugu adibidez, “ankatako”-ren ondoan, eta oinarrian “\*ankatan” beharko luke edozein modutan. Baina Eibarren gramatika arautua jarraitzen ez denez (edo gramatika hori egiteko Eibarko ahozko forma biziak erabili ez direnez), gogoan izan behar da inesibo mugagabeen ere *-ta-* artizkia batzuetan erabiltzen dela eta beste batzuetan ez; baina horrek ere ez luke zeharo argituko zergatik “iru mendiko egurra”, inesiboan “\*iru mendiñ” Eibarren esaten ez denez<sup>141</sup>. Salbuespenak, horrenbestez, salbuespen baino gehiago direla uste dugu.

Artizki horren aldaera fonetikoak aurkitu ditugu: bokal sabaikariz amaitutako berbari erantsitakoan bi aldaera nagusi ditu eta sabaikarizazioa<sup>142</sup> bi mailatan gertatzen da: lehenengoa, leherkari sabaikari bihurtzea da *-(i)tta-* (*raz1*, *nme2* eta *naz* dira aldaera hori gehien darabiltenak); bigarrena, afrikari sabaikari bihurtzea da *-(i)txa-* (*kmz-k* eta *kkg-k* beti darabilte aldaera hori). Artizkiko erdiko bokala aurreko silabako bokal itxiaren eraginez *-e-* bihur daiteke: *nme2-k* “lekutekua” darabil esate baterako (edonola ere, lekuko horrek “lekutako” aldaera birritan darabil, eta “ortutako” ere bai). Aldaeren erabilera-banaketa beste leku-denborazko kasuetan ere bete egiten da.

Dena den, aurkitu ditugu bestelako aldaera batzuk. *-a* amaieradun berbetan lekuko guztiek *-a* darabilte *nme2-k* barne, baina lekuko horri “iru elixetako” ere jaso diogu (galdekizunez lortutako erantzuna denez, zalantza gabe dakigu “de tres iglesias” esan gura duela eta ez “de las tres iglesias”; gainera, beste adibideetako azentuzioa gorde egiten du) “elixetako” eta “elixako”-ren ondoan.

Plural forma gogorarazten digu *naz*-ren beste aldaera batek: *naz* “seim-be-gixetakua ...?” bistan den arren mugagabea dela. Horrelakorik horixe jaso dugu bakarrik.

“Gau/gabe/gaba” hitzak hainbat aldaera ditu, arrunta denez: “gautako /gabeko /gabeko”.

“Lau” zenbatzaileak beste kasuetan ezaugarri bereziak ditu, eta oraingoan ere bai: “laukua” da lortu dugun forma erabat, bai galdekizunez bai solasaldi askez. Izenaren ondoan erabiliz gero, izenak har dezake *-ta-* artizkia: “lau atetakua” *kkg* lekukoari jaso diogu.

Kontsonantez amaitutako berbei kasu marka eransterakoan loturazko bokalaren bitartez egiten dela aipatu dugu. Izena izan ala izenondoa izan ez du

---

<sup>141</sup> EUSKALTZAINDIA-k oraintsuago ere jorratu du gai hori, “Hiru kiloko haurra, lau hankako ma-haia” lanean (1998, 34. atala), eta besteak beste “Izen multzoa + *-ko*” taldea bereizten du, esanaz horrelakoetan literatur tradizioan “-tako” oso-oso gutxitan erabili izan dela. Talde horretan kokatzen dituzte “Zenbatzailea + izena (+ izenondoa)” erako egiturak adibidez. Nolanahi ere, eta egile gehienek “-ko” hutsa darabilte badiote ere, ez dute azaltzen zergatik gertatzen den hori.

<sup>142</sup> Ez dugu aurkitu kontsonantea sabaikaritu gabeko adibiderik.

eraginik gramatikalariek diotenez, baina bai izena-izenondoa izan ala aditzondoa izan, aditzondoek ez dutelako loturazko bokal hori hartzen, eta “eguneko /egungo” adibidea dakarte *Euskal gramatika...*-ren egileek<sup>143</sup>. Eibarren bikote hori ez da egiten, esanguraz “egun” era bitara erabili arren, eta beti “eguneko” forma erabiltzen da, bai “egun” orokorrean adierazteko, bai “gaur” adierazteko ere (“eguneko ogixa, eguneko periodikua”, adibidez). Kontsonantez amaitutako aditzondoek Eibarren ere kasu marka batzuetan zuzenean eta bestetan loturazko bokalaren bitartez hartzen dute: “gaurko, orduango/orduko<sup>144</sup>”, baina “urriñeko” eta ez “urringo”<sup>145</sup>. Balio erakuslea duten adberbio kategoriako formek ere zuzenean hartzen dute kasu marka: “amengo/emengo //ameko; orko/orgo”.

Leku izenek zuzenean hartzen dute *-ko/-go* kasu marka; batzuetan loturazko bokalez, bestetan ez. Bokalez amaitutakoek *-ko* aldaera hartzen dute; kontsonantez amaitutakoek aldaera biak hartzen dute kontsonantea zein den edo loturazko bokala hartzen duen ala ez, edo dena delako toponimoaren zein aldaera darabilen lekukoak:

— Toponimo batzuen izenak oso polimorfikoak dira, endemas kasu marka gehituta: “Madrikua /Madrigua /Madrilgua”. Lehen aldaera *kgg*-k eta *f.a.*-k darabilte; bigarrena *raz1*-ek eta *naz*-k; hirugarrena *nme2*-k eta *raz5*-ek.

— Kontsonante albokariz<sup>146</sup> amaitutakoek joera bikoitza dute. Lekuko gehienek zuzenean hartzen dute *-go/-ko* kasu marka, eta beste batzuek loturazko bokala erantsirik *-eko* aldaera darabilte. Adibidez, “Usurbilgo, Larraulgo /Portugalko //Errebaleko, Terueleko, Portugaleko” (kontsonante leherkari ahoskabedun aldaera darabilena *kmz* lekukoa da; *-e*- epentetikoa gehien tartekatzen duena, berriz, *kgg* lekukoa).

— Kontsonante dardarkariz<sup>147</sup> amaitutakoek *-ko* kasu marka hartzen dute gehienetan: “Eibarko, Saldibarko, Elgoibarko”, eta abar. Baina *rmz* lekukoari “Santandergo” aldaera ere jaso diogu.

— Kontsonante sudurkariz amaitutakoek *-go* kasu marka hartzen dute gehienetan: “Irungo, Milango, Asitxaingo”; baina “Asitxaiñeko”.

— Kontsonante frikari txistukariz amaitutakoek joera bikoitza dute. Lekuko batzuek zuzenean hartzen dute *-ko* kasu marka, eta beste batzuek loturazko

---

<sup>143</sup> EUSKALTZAINDIA (1993, 166-167).

<sup>144</sup> Kasu honetan, oinarrian legoke kaka: forma mugagabea hartu ala inesibokoa hartu. Esanguraz ez dute alderik.

<sup>145</sup> Ikus “urrindik/urriñetik” bikotea, berriz, ablatiboaren atalean.

<sup>146</sup> Erkatzeke ere, partizipioei erantsiz gero “ilgo” nahiz “ilko” lortu dugu, gehien-gehienek aldaera ahostuna badarabilte ere.

<sup>147</sup> Erkatzeke ere, balio erakuslea duten adberbio kategoriako “or” formari erantsita: “orko /orgo” lortu dugu, baina gehienek aldaera ahoskabea darabilte. Aldaera ahostuna noizbait darabilten artean *raz5*, *f.a.*, *kmz* eta *rmz* lekukoak ditugu.

bokala erantsirik *-eko* aldaera darabilte. Esate baterako: “Miraballesko, Sanandresko, Nantesko, Parisko, Arraosko, Berrisko, Sarausko /Miraballeseko, Kor-te-ingleseko, Pariseko”, zuzenean ezarritako aldaera erabiliagoa dela gure leku-koen ahotan. “Miraballes” leku izenak beste aldaera bat ere badu Eibarren, amaierako kontsonante gabekoa: “Miraballeko”, bi lekukori jaso.

#### 1.2.6.1.2. Mugatu singularrean

##### **Leku-denborazko genitibo mugatu singularra: eredurako**

Amaiera bokalikoetan: <i>elixako; etxeko; mendiko; soloko; lekuko</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>lurreko</i>
--

Bokalez amaitutako berbetan, *-ko* kasu marka zuzenean eransten zaio forma mugagabeari. Kontsonantez amaitutako berbetan, *-ko* kasu marka forma mugagabeari *-e-* loturazko bokalaren bitartez eransten zaio.

Bestelako aldaerak fonetika sintaktikoaren eta aldaketa fonetikoaren bidetik datoz. Adibidez:

*nme*ʒ ʔ[zaldiak] a e, etxéKU-Ittu arék! —*naz* kámbixaisus órrek isérok oékuek...

“Gau/gabe/gaba”-k oraingoan forma bakarra du errealizazioa jaso diegun lekuko guztiengan: “gabeko”.

#### 1.2.6.1.3. Mugatu pluralean

##### **Leku-denborazko genitibo mugatu plurala: eredurako**

Amaiera bokalikoetan: <i>elixetako; etxietako; mendixetako; soluetako; lekuetako</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>lurretako; bostetako /bostako</i>
--

*-ko* kasu markaren aurretik *-ta-* artizkia hartzen du, eta hitzen ezaugarri pluralei<sup>148</sup> eransten zaie. Forma aldetik ez dugu aparteko berezitasunik aurkitu; baina aipatzekotan, orokortzat hartzen diren kasuetan singularra egiteko joera dagoela aipatu behar: “elixetako bentanak politxak iseten dia /elixako bentanak politxak iseten dia; mendixetako bidiak /mendiko bidiak; ataixetako lorak /ateiko lorak” erako adibideak. Bikote horiek arruntak dira eibartarren ahotan, agian gazteengan gutxiago.

<sup>148</sup> Datiboan azaldu dira amaiera bakoitzari dagozkion aldaerak.

Gertakari fonetikoaz azalduko litzateke errealizazio hau, bokal elkarketaren soilketaz, hain zuzen:

*nme2* básutako [sic] ura eran dau

Soilketa nabarmenagoak ere jaso ditugu, dena dela: *razl*-ek “bostako” egi-ten du, adibidez, \**bostetako* adierazterakoan. Ez da adibide isolatua<sup>149</sup>, inesiborako ere “bostan/bosten” jaso baitiogu (“bostetan” esanguraz, jakina).

“Gau/gabe/gaba”-k aldaera hauek ditu guk jasotako adibideetan: “gaueta-ko, gabetako”.

“Lau” zenbatzailea izenordain denean “lauretako” forma hartzen du nagusiki, baina *kgg* lekukoak “lautakuak” eta “laukuak” erantzun du horren lekuan.

Leku-denborazko formez orokorrean har daiteke *kgg*-k egin zuen iruzkina galdekizuna erantzuterakoan<sup>150</sup>:

*kgg* °galdéra sálla-dakásus gaur e?, jõe!

#### 1.2.6.1.4. Hurrenkera

Ez da beti bat: erabilera arruntena *izenlaguna* + *izena* da. Alderantzizko hurrenkeran (*izena* + *izlag.*), erabilera arruntean, biak amaieran kasu marka edo mugatzaile beraz agertu daitezke (aposizio itxura hartzen du: “atia elixakua”, adibidez), edo izena mugagabea eta esaldi barruan sintagmari dagokion kasu marka izenlagunari txertatuta (“ate elixakua”, esaterako). Adibide askotan izenlaguna jakineko leku izenen bati lotuta doa eta horrelakoetan pertsonaren-gauzaren jatorria-etxea adierazteko osatutako egituretan erabiltzen da:

—*Izenlaguna* + *izena*. Adibidez:

*razl* °da Mandióla, ItxasóKO BALENTÍNA, Mandiólán ee konsejal dauan b’ésta-  
kitx, da MARÍA BarrenétxeKO antxe (?)... baai... ArráteKO AMÁ, Arráteko gáu-  
sa-dákiras, lárrei dakíras ... —*raz5* °léngo batem-preuntau ey-eban “Maltzako Je-  
susa bisi da?” ... —*rmz* °... lau bat íllebetekua ero geixaokua ekarri!: bátian ·  
Lésetako Inasio taa béstia-nik, · txándaka —*rae* °... Muitzakoo Mari-Kármén etxea  
bieldu, · da ... —*kmz* °... Bisente iguál-iguala sara!, · Mendigóitxiko Bixéntena! ...  
—*rmz2* °... ta · Markiñáko Leóya ta será ta ... —*ñaz2* °... Isasíkuá séla esate-  
etzem-ba?! · Lusio-Párrrenengo Lusio-jakingo dau, e? —*kmz10* “Hárek guk euske-  
raz gaizki egitten genduala, hill egitten genduala, asesinau egitten genduala Eibarko  
euskeriagaz euskera benetakua ...”

<sup>149</sup> *razl* lekukoak soilketarako joera nabarmena du. Inesiboko beste adibide baten ere silaba osoaren murrizketaz errealizazio bat jaso dugu, eta espektrograman islatu: “asiseiñ” dio “Asitai-ñen” adierazteko.

<sup>150</sup> Iruzkín hori erantzun hau zela-eta egin zuen: *kgg* “péntzatze-giñúan lékuetako e jendía etórrí san”.

—*Izena + izenlaguna*. Egitura honetan ere izen sintagma sarritan bi izen bereziz osatuta aurkituko dugu, bata izena eta bestea izenlaguna (izenlaguna ia beti toponimoa da). Kasuistika honakoa izan daiteke: izena eta izenlaguna biak mugatzaile gabe agertea: “Juana Ubeiko”; izen berezia mugagabe eta izenlaguna mugatzailez (edo behar den kasu markaz): “Juana Ubeikua”.

Izen arrunten kasuan ez dago semantika aldeko muga “geografikorik”, baina kasuistika ez da asko aldatzen. Izena mugatuan edo mugagabean izan daiteke, eta izenlaguna esaldian dagokion kasu markaz<sup>151</sup>. Adibide batzuk ipiniko ditugu erakusgarri:

*raz1*°... Ama Bírjiña-ArrátekUAk · arpeixa diferéntia dáka, e?: nik Ama Bírjiña-Arrátekua esautu dot oo- o- onétxe-morúan!: polí-polí-polítixa, barres-bárres-bárrres-bárres... —*raz5* °Maria Barrenetxekua esta isan... .. —*nme2* °O- Ormatxékuak [sic]!: Paulfiñaá!, Paulfiña Ormetxékuá! —*naz* °... Ágeda Mendibílguaa, esautzen dosu suk! —*rmz* °hm!, ni bai bintzet! · Samartiñem-berá!, · da Elbíra Samartíngua ta bíxok! —*rae* °bueeno baña, esan dosú · Kiñarra-ballekua-“bátzuk”!: · Migelmárii... Loixólakua beintzát Maltzára! —*raz* °... da Pépe Lésetakúa ta be gurékin ... —*kmz* °... Justínaa, Ondaméndikúa, ... arrebia, Txená! ... Txé famosúa! —*nme1* °nik i- gisom-próban e, séra ikusítixa dákat, ee, Márkos! e Sumendíxakua!

*raz1* °... géro e e e, géro María BarrenétxekO -bakísu está? —*nme2* °... Julié-nan... · Julié-nan tía bat <<ee>> bai!, Juaná Ubéiko!, · neská-sa(?)... —*naz* °... iii- Juaníta-Ariméndikok e, · emerézi o éuki-ingottu iual!, eske... banekixan ingurukua, baña!... .. —*rae* °... bixkorrem-bixkorrena Juanita Ertzálgo! buá! —*raz* °... kami-óia!: aberíxau daá! ta béste sar bat ekarri artían”... .. María-ArikítxakÓ-pe-esángotzú orí! —*ñaz1* °gáñea sónan e, María Makalarroko sonan gáñerá!, ónen e oinn Marikármén ero sein don orí?

*kaz3* °bai, kantuaa... · ákordau itxe-nai · kantUA orduangUA ... —*kaz12* “Án topau zitxuen eskriturak berreun urtekuak ero” —*kmz6* “... poltsilluak fraketakuak etara kánpora forrua ...”

*rmz* °jo-ka-tu?! ··· ari-jokuan jokatu!, oixe!: es aamar milloi baña, · e, bi-iru milla pestA lengUAk ee... o aa... ero, ero-ogeí dúro ero dana-dalakua, berroi duro eo bosteum-peseta eró... —*raz5* °da, sertú iyeban da esan ei-tzan, -“bueno!, úrren-goo · sapatu férixakuan · tórrí saítxie bíxok!” ... —*raz* °... da Jabiérrri!, sapáta urakúak ekásen bai! txa kartóia -orduan e ka- kartóiskuák!- · eta · sapatá gustía sólte! ... —*kmz* °sardiña latákuak! —*kmz1* °bueno!, erréka bastarrían!, baña erréka bastarra mendíxan eongok, está?, · kalían estáo! · gausaa alakórikan! [sic] —*kmz7* “... Iñasio botikarixuari kendu probeta kristalezkuak ee, zérian, laboratorixuan ...” —*kaz3* °bai!, tókau sa-ni kantu antxiñakua kántatzen ... —*kmz3* °... áre-préuntautzen itxuria · estaban e, ia · dakíxan e · eskopetaa · kategorixakoik eta... · báyetz! ...

<sup>151</sup> Gai hau ikuspegi diakronikoz M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k ere aurkezten dute (2001, 63-64).

### 1.2.6.2. ERABILERA<sup>152</sup>

Solasaldi askean barrena konturatzeko erabiltzen da kasu hau, baina galdekizunaz lortzeko lekukoek aitortzen dute “zaila” dela, asko pentsatu behar dela eta emaitzak gogoetaren ondorio direla. Forma batzuk, izan ere, oso naturalki eta erraz lortu ditugu, baina beste batzuk ez hainbeste<sup>153</sup>; esplizituki lekuko batek adierazi digu edutezko genitiboz osatutako formez, orokorrean, uste duena:

*kgg* °sállak dira ónek, e? ... pentzau eim bia-dira

Nolanahi ere, batzuetan izenlagun funtzioa du eta bestetan adizlagunarena.

#### 1.2.6.2.1. Edutezko genitiboa - leku-denborazko genitiboa nahaste<sup>154</sup>

Hemen jarriko ditugu batez ere solasaldi asketik hartu ditugun leku-denborazko genitiboaren eta edutezkoaren adibide batzuk, edutea edo beste ezaugarriren bat adierazten dutenak, kasu marka honen erabileraren erakusgarri:

—Leku-denborazko genitiboz:

*f.a.* °Mendigóitxiko eskriturak esaten dabe “kamino karretil” <nahiz eta eskriturak etxearen gainekoak izan, ez etxean daudenak>

*raz5* °... topau dau párrokuoi!, esplíkau etza!, · da, -“sékula estot entzún: nik neuk elixakoo · legiák eta baai!, askó estuixau dot baña, · óne-gausok...”

*raz* °baái!, esaétzat orí, kamióikua... <“kamioiaren inguruko ipuina”>

*f.a.* °baaai!, Iñarreko solúa euan or! <nahiz eta Iñarre baserria urruti izan: Iñarrekoen soloa>

*rmz* °eméndi-Maltzáa goisela paéta ortxe dao! Barrundiko se- selaixan aspixan!, pae- paeta!: ormia ei-eindda! ... <*idem*>

*ñaz1* °bai, baña-Arístiburúa san ·· Ermúko partía, e?-Eibarko partía barík, e?, Arístiburuá...

*ñaz2* °Arrúeta!: orí ee..., ·· Arrúetanekea será, e, o- Otólakua-sian órrek: Mariálui-xanak esián?... ... <lurren jabegoaz dihardu>

*ñmz* °Muníkola b'Élgetakua...: Eibarkua es beintzát!

*kaz1* °... a terrénua isates · san · ee... Ótolerdiko propiedadia: Otolardiko básarriko propiedadia oim-be báda, baña ...

*nme2* ori terrenuoi, Úrkiri pertenesitze-ako · -ero- Úrkikua da —*kmz* Úrkikua-ok orí · terrénuori

---

<sup>152</sup> Ikus ikuspegi morfo-semanticok orokorrean M. AZKARATE-ren eta P. ALTUNA-ren “-ko/-dun atzizkiez” artikulua (in L. VILLASANTE, 1992, 91-112) eta R.P.G. DE RIJK-en “Basque Hospitality and the Suffix -ko” (in HUALDE, J.I.; ORTIZ DE URBINA, J., 1993, 145-162).

<sup>153</sup> Gogoan izan, adibidez, “kampai” hitzaz edutezko genitiboz deklinatzerakoan esan duguna.

<sup>154</sup> Adibide-eredu gehienak edutezko genitiboaren atalean pilatu ditugunez ez dugu dena berriro hemen errepikatuko.

*kmz* °bai!, eulíra! .... ordúan e, ikúsiko dau e programia, telébisiñokúa (...) “Jara i sedal”

*kmz* °sárrri eim-biako dau orí! · pásekoo usuee-tára bádoya!

*kmz* °... gaur gáñera e, partidó-ona dao, Real-Sociedá-Madrí (...) Real-Madrí: Uéfa-kua da, e?

*kmz* °[gaitzizena] famélixakúa!: · Pepe Kérido, Bisente Kéridoo, · Juli Kéridoo, Mártina Kéridoo...

*kmz* °jóéér! nnn- nun dao á kollária? ... erakutzikotzut egunen batén! .. I así tiene, Euskadikoo eskúdua! (?)...

*kmz* 1 °es “Erri Batasúnekua”-bíxak!: oiñ, kámbixau bara etxakíxat

*kmz* °Álfako kalía <kalea ez da Alfa-n dagoena, Alfa bera dagoena baino>

*kmz* °kontribu- kontríbusiñokúa · fotokópixia; gero e · notaríxan eim-biar dabe *kae* °béstia-días! (?)... Sostóakúa dá de orrórr, neská!, ori... Bañá, badákisu, dá “di-séño Balenciaga” etá, diseño Balenciaga sélan dán ba ... <abesbatzaren uniformeaz dihardu>

*kmz* 3 °... gue kuadrillia jua-giñuan da, kuadrillia... · kantoria-giñuasen, e? · o an e, · Orfeoiko kantua-pee · “Goixeko isar” ero t””Illunabarra” taa o- órre-kantu mordua! ...

— Edutezko genitiboz ere bai:

*raz* 5 °i, · -“baai, neurí laa éstesen aitxák eta-ámak! .. anáya juan san da...” -“baai, ba oixe ba!”, da, -“kontratua!-aren kontratua [baserri eta lurrena] ... bisíri-dao-on-diokan?, bijente?” · da ...

*f.a.* °ombree..., a- bakisu se terrenaje!?, iru básarriren · lúrrak · dakas...

*kmz* °... Lambret- Lambrétian plánuak · ártzen: .. geró · árekin plánuekin emen-neuk e · desa- desarrollau

*kmz* °súrrut!! arétxek (?)jesan seban. ... Kíóskua bádao ba? períódiukuena? Úntzaan?

*rmz* 2 °... da géro agíñak etá be, trontzán agíñak etá be ba obeto etárata ta ...

*ñaz* 2 °Untzámaa... óixee...: Aístisabála...: Aístisabala isango da orí gure partia esta orí Aístisabala: len esan dosu Aísti-sabála?

*ñmz* °orí da · Úrki-guenan eee... · solúa

*kmz* Úrkiña-ok · orí terrénuori

— Leku-denborazko genitibo marka “zuzen” erabilia<sup>155</sup>:

*rmz* °Itxúrrisarreko ura bétí!: · igual e juango suan aitxá ta iual juango suan amá ta igual ee umem-bat eroo áitxitxa eró...

### 1.2.6.2.2. Izenlaguna izenari dagokion kasu markaz

Izenlaguna izanda, ondoko izena deklinatu egin daiteke; areago, izen hori isildu egin daiteke edo esaldian beste lekuren baten egon daiteke. Bere kasu

<sup>155</sup> Ikus aurreratxoago “nongo” izenlagun arruntaren atalean ere.

marka izenlagunak jaso egiten du. Esate baterako: “etxeko lagunekin /etxekuekin”; benetako adibidez:

*rmz2* °... da-ásko akordaukoitxuk oiñ, au entzúnda be, ordúan, Muniósguren · da KortagúrenGO · IDÍXA TA ÍXKUA sitxúan · famá-aundíkuak, da-áretxek etara juen lélengo prémixua, da bigarrena ElórretaKUAK ...

*kmz* °kámpokuendako

*rmz* °burkajía bat!, burkara-aundíxa, béstia karákétxia, txikíxa!; · au bedárrondotákuau... · da burdí-mótza...

*rmz2* °... alkondára surixákiñ dda, fraká maúneskúekiñ dda ...

Kasu marka errekurtsiboa da, bestalde, eta teorian nahi beste genitibozko izenlagun jar daitezke jarraian. Kasu markadun izenlagunak teorian isil daitezke, baina solasaldi askeetan ez da bide hori asko erabiltzen, guk behintzat ez dugu adibide askorik jaso (horrek ez du esan nahi norbaitek sarriagotan erabiltzen ez duenik).

— Bi izenlagun elkarren jarraian:

*raz1* nungó errikúa sáraá? <adibide honetan erredundantzia ere gertatzen da> —*kmz* °or, Maltzakó serrerixakúa ... —*rmz2* °... esán doun Kortína, Agiñán a- asíxa baña, baintzat Eibárko kalekúa! // *rmz2* °... Donóstiako · Párte Sarréko Restauránte-Joxe-Mári-pe aarí asko ta ... —*ñaz2* °oingó gasólinerakua... —*naz* °ee, <aitita> amam-parteko baa...: ·amam-partekua!, bertá-Múitzabarrikua, da béstia san, Élgoibarkue san, Élgoibarko ee... · -sus!, oñ esángot?, ee... · bai! -súsmariétajose!- · e, Beláusteikua, · Beláusteikua, bai...

*kaz1* °... Isasíko Markesko etxien jardíñetan · euan · Jardíñéruan-etxía ... <adibide honetan hiru izenlagun daude guztira elkarren jarraian> // *kaz1* °... a eskondu san Élgetako Kámpasar ondoko básarriko batekin · Arróta básarrikuakin ... <idem> // *kaz1* °... árek eee etara eben an arrí askó ... Oñatíko unibersidadeko kláustrorako... ... <idem>

— Bigarren izenlagunaren ondoko izena isildutakoan bi leku-denborazko kasu marka elkarren jarraian<sup>156</sup>. Adibide bakarraz konturatu gara:

*nme2* °bai! xémeikua-axe isengo san, · se... · e, · txa- txakur-txikixai... · bo-séntimokuai, “bo- bo- bo-xémeiko” esate-akon!; da gero txakurraundíxa-“amar xémeikokua” ...

“Erdikokua” baserri izena ere hemen koka daiteke baina lexikalizaturik dagoenez ez dugu aintzat hartuko.

---

<sup>156</sup> Ez dakigu gramatikalariek ontzat joko ote luketen. Guretzat guztiz zilegi da erabilera hau, ahozko jardunean asko erabiltzen ez den arren: “Nahiz eta lexikalizaturik egon, idazleek arbiuatu izan dute hau, aģian kakofoniagatik (...) Mitxelenak berak ere espreski galarazten ditu halakoak” (EUSKALTZINDIA, 1993, 164).



### 1.2.6.2.3. “Nungo galdetzailea + izena deklinatuta / -ko izenlaguna” egitura

Egitura berezia da. Kasu honetan galdetzailea determinatzailetzat har daiteke.

—*Nungo* galdetzailea + izena deklinatuta. Adibide batzuk:

*raz1* lórak e nungó áitaitxik ekarri dosus? —*f.a.* nungó mendíra juan sára? —*ñaz5* “... ez dakit nungo puntan egon zan! ...”

—*Nungo* galdetzailea + izenlaguna (-*ko* bidez). Adibide batzuk:

*raz1* nungó errikúa sáraá? —*naz* atzoo ekarri senduem-pañélua nungóo jaikua san ...?

### 1.2.6.2.4. Esanahiaren araberako formak oinarritzat

Ikusi dugu nola eratzen den formalki mugagabeen eta mugatu singularrean; baina erabili, singularreko forma zentzu biekkin erabiltzen da batzuetan.

Egin daitezkeen galderak hauek dira, besteak beste:

—“Nungo”:

*kgg* nungúa da óri? —*kmz* nungúa da orí? —*raz1* orí nungúa dá? —*nme2* nungúa da orí? —*naz* nungúa da orí? —*nme2* súa-nungue-sára?

—“Noisko/noixko”:

*kgg* noiskúa da óri? —*kmz* noixkúa da orí? —*armz* noiskúa dá? —*raz1* noixkúa da orí? —*nme2* óri noixkúa da? —*naz* da noixkúa da orí?

—“Setarako/setako/sertako/sertarako”<sup>157</sup>:

*kgg* setáko etórrí sára? —*kmz* setarako etorri sara? //setako etorri sara? [es t- t- “pa ké as benido?”] —*raz1* setaáko- setáko etórrí da orí? —*nme2* sertako? //sertaráko erun dosú? —*naz* setáko eruen dosú?

—“Selako”. Galdetzaile-izenlagun honen ondoan izena erabiltzea oso arrunta da<sup>158</sup>; areago, superlatibo sortzeko, goi maila adierazteko izenondo-aditzondoak ere har ditzake ondoan. Hemen doaz adibide batzuk:

*kgg* selakúa da soñekúa? —*kmz* selakúa da-á? —*raz1* á selakúa dá? —*nme2* selakúa da [“kómo es”: bai...] —*naz* a selakua da?

*kgg* selakó soñekúa erósi dósu? —*kmz* selakoó kótxia erosi dósu? —*raz1* selakó soñekua erosi dósu? //seláko soñekúa erósi dósu? —*nme2* selakó kótxia erosi dosu? —*naz* da seláko soñekúa...?

*kgg* selakó aundíxa dan a! —*kmz* selakó aundíxa! —*raz1* seláko aundíxa dán á, e? —*nme2* selako aundíxa da-á!

<sup>157</sup> “Zertara”-k ere antzerako esangura du batzuetan.

<sup>158</sup> Beste galdetzaile-izenlagunak ez dira hain erraz izena ondoan dutela erabiltzen, baina ikus goraxeagoko “*nungo* + izena” egitura.

— Osa daitezkeen beste galdetzaile-izenlagun batzuk (batzuetan arruntagoa da dagozkien erantzunak erabiltzea galdetzailea baino): “seresko, sereko, norako, (¿)nundiko, (¿)norusko”...

#### 1.2.6.2.5. “Nongo (norako)” galderari erantzunak

a) Izenlaguna. Esangura ez du beti garbia. Parafraseatuz, gramatikalariei jarraiki, “hitza inesiboan + *egon* + izena” esangura da arruntena (“etxeko” = “etxean dagoen”), baina ñabardurak ez ditu falta. Ondoko izena “bide” edo antzerakoa denean izenlagunaren oinarrian inesiboa zein adlatiboa egon daiteke; baina inesiboa dagoenean ere, esangura bikoitza du, “Arrateko bidea” ez baita bakarrik Arraten dagoen bidea, Arratera doan bidea ere bada. Areago, oinarrian adlatiboa duen egiturak norabide zuzenezko esangura du batez ere.

— Esangurak nahasirik. Adibideetan denetarik jaso dugu:

*kgg* óri da etxeRÁko bidía//etxéko bidía -*kmz* áu etxekó biría da //etxeráko bidía [báái ... “para kasa” ...] -*razl* oríxe da bidía etxe- etxeráko //etxéko bidía [daná bá-tá orí!] //etxeráko bidía [dána bat iséngo da óri] -*nm2* oixe da etxeráko bidía -*naz* oixé da etxerako bidía

*kazl* °... taa · géro · óññ · seraa · Élgetako kamiñuan gáñian · gáñian · euán · Ugártek [sic] · básarrixa ... <ez du esan nahi Elgetan dagoen bidea, Eibartik Elgetara doana baino>

*kazl* °... ortúak · da béstia-sián jardíñ- e · palásioko jardíñak · ba Élgetakoo kamiñórañok! ... <*idem*: Eibarko kaleko Isasi jauregiko lurrak nondik norakoak ziren azaltzen baitihardu>

*kazl* °... Bilbokoo kamiñúan · e?, Donostiaako satosen kamiñuan

*rmz* °Élgoibarrea be!: Txánkakora!, oñ eee Samielgo rotóndia-antxe!, antxe kantóyen! perratókixa! ... <hemen ere ez du esan nahi San Migelen dagoen errotonda, Elgoibarko kalean baitago; San Migelera joateko hartu behar den errotonda baino>

*kmz* °peskaan?: emen errekan, da Bariñáko bidean [sic]!

*rmz* °... kríston estasiñua jéuan orduán! · Bitorixako trená, Donostiákua taa BÍlbokua ba... · irúrak órtxe!, kruse- krúse itxe-juen! ...

*kaz2* °... ni koskondu nitzanian euan déndá bat · éropena!: mekánikuaak... · dána san e biarreko errophia ... <beharrean erabiltzen den errophia, baina beharrerakoa ere bai>

— “Nongo” esangura garbiaz adibide batzuk (ñabardurak ñabardura):

*nme2* °daa, órii, · ee, ori Bitorio Selayan-da etxía · Mandiola-balleKÚA da, · da bidía pasatzen da bittartian, da beste aldiam-ba Nayorbeko etxía, · Goósta-ballékUA <gaztelaniazko “pertenezer” ñabardura ere badu erabilera honek>

*rmz2* °... próba-gaur? ... Gipúskuako erríxa- itxúik e próbak eitxe-yana [sic] ba Déba!, · Askóitxi · da-Áya! ...

*rmz* °Maltzá-sar! · Áretako... Áretako andrian etxia! —*raz* °... da esátestá -“sú nungúa sára?”, -“ní?”, Arrate-Ballekúa” ... da, -“ni Arrate-”, -“Arráte-Ballekúa nungúa

sára bá?”, -“ní, m- Mendigoitxi basarrikua” -ni or beian da bera-an góixan-, · -“Mendigoitxi basarrikúa sára? · ba Mendigóitxixan sure tía san · bérsuak!...” ... —*kmz* °álantxe san! · Jabier Potolúa: · -“estáki ala sein?, Paséo San Andrésko · Jabier Potolúa!” —*rae* °... kaleko ándren ee sérak!, iñusentekerixák!, ómbre! Bueno! —*rmz* °errix- erriko-idixa, pirénaikua dok emén!, pirenáiko! · Pais-baskokua... · <etxeokak seinalatuz> o- ónetxe-itxuk · léngo rasia, ónetxek, pirenaikos...: órren umia ba íxkua ba-así, kapáu ta, · i- idíxa!... —*rmz2* °... da-ásko akordaukoitxuk oiñ, au entzúnda be, ordúan, Muniósguren · da Kortagúrengo · idíxa ta íxkua sitxúan · famá-aundíkuak, da-áretxek etara juen lélengo prémixua, da bígarrena Elórretakuak ...

*rmz* °geure aitxa-sának i-bán! Arrateko kaltzadía! —*raz* °bai!, “biétza”-pe bai; guk Eibárren-ní-neu-es- esében [sic] esáten, baña bá!, “ánketako biátzak”, bai, áskok esátetze “ánketako biétzak” —*raz* °gúú-betí esan dou e “aría”; oiñ esaten dabe “on-dárra” baña guk esan dou “pláyako aría” ... “aré gitxí” //*raz* °... txarri eemiári séose kenduú, e matrisékoo séoser kendú o sán · “iréndu” ... —*kmz* °bái! bai!... éuskeras estakixálako!: estakixálako éuskeras, Eibárko éuskería! —*kgg* °<barrez, S.B.-z> eta géro esáten dau ní-Bergaráko éuskería dakátela? —*kmz* neré aitxá Ermukúa ok, érmutarra ok —*rmz2* °... Atxúletako etxabúruan! sárntu an betí-góra! otátzan góra! ... —*ñaz2* °ee... · Txáltxanekoo · béraoko péor- á tabernía sélan da?, · kafetérixia?... · antxe goixan lélengo písuan! —*ñmz* °geró baa, · Úmbekoo erre- erreka prinsípala, kámpo-fubolaan · aspíxean [sic] tápauta badao ba érrékia?: kámpo-fúbola-Úmbe?... —*kaz3* °... oim-“Portale” isatetze [sic] ori ayuntamentua dan ori!, “Portália”!: ori esam-Portália, Portália góraokua san! ...

*kaz1* °... árek eee etara eben an arrí askó · e Berrísko kombenturako, kláustrorako · ee Onátiko unibersidadeko kláustrorako... · ta Patrísio Etxeberrian txaléttarako... · daa... órretarako ta gero baa... · séra, Eibarkooo... kámposanturako be bai!; órrek eeta · Mendaráko [sic] mójendako be bai!, kláustruetarako, · da ... —*kmz7* °... orduentxe asi sian abare itxen íbartarrak ... aurrás, · Eibarko abaré gustiak · siam-ba · eeo Billarokuaq ero Seanurikuak ero Mutrikukuá · ero · Arráte-ballekua ...

*kaz2* °... [argazkia] Arrátekua da-au · konfundíduta sartu dot ... <argazkia, noski, Arraten ateratakoa da>

*kmz* °baai!, ... Ondaméndiko gibéla, ñó!, edérra! <honek ere badu ñabardura berezia: ez da Ondamendin dagoen gibela, han prestatzen dutena baino>

*kmz* °áiba-pa [sic], áiba Yókin!, · Yókíññ!, · emengó urá!: · itxurríko úra!, jé! <nolakotasuna ere adierazten du> —*kmz1* °ero- erósitxa! Gau- órre-gránjakúok e... galiperrak! <*idem*> —*kaz11* “Baña honek danok giñan eskuela publikokuak, da Labor-danekuak eta monjetakuak zian. Gero distinziño haundixa euan, eh! ...” <*idem*>

*kmz* °gerra démporan! · bá! Kánsakoo · presidéntia is- (?)... ise-san <ez du lekua bakarrik adierazten, aginte-eragin eremua baino> —*rmz2* °... da géro! · ba, así sitxúan bísten, ba basárriko alkátiaq orr ásko baljó júek ... <*idem*> —*rmz2* °... da Berrítxuko alkatíari · orrék · errégalau · nai jútzan · eiñ arrixóri. Baña Berrítxúko alkatía Ermukúa baño lístuaq ta esa-etzan ... <*idem*> —*ñmz* °... ni e, mutikua nítzana, da, konsejála ero ayuntamentukua · isán! ... <*idem*>

*kmz* °Kórte-Inglesékua be bai!, tarjétia...

*kmz* °... Prieto béstia!, · Rialtoko e, sínia botatze-sébana! · foballísta-amorratua! Á be komadántia!

*kmz3* °... Lukas Alberdi!, gure kuadrillakua suan! ...

*kaz2* °... eruante-nebanian ee, ba- finálisteen · báskaitxakoo · síarro-purua?, ú! ... <denbora ñabardura ere badu>

b) Destinatibo zentzu garbiz, adlatiboaren marka izan ala ez (“norako”<sup>159</sup>). Adibide batzuk:

*kgg* DonostíaRAKO bidían e topáu giñúan —*kmz* tópaú gendúan e DonostíaKO birían //DonostíaRAKO birían —*raz1* Donostíako · bidían · topau dábe Pátxi //Donostíako bidían tópaú dábe Pátxi —*armz* Pátxi, Donostíko birían tópaú dábe [“le an enkontrao en kamino a San Sebastián”] —*nme2* Donostíako bidían · topau génduan <norabidezko zentzuz>

Hori adierazteko beste aukera bat “-(e)ra bidian” postposizio egitura ere bada.

*raz1* °basurdía!: guk euki gendusena-baai, polítixa-día, ausoráko! ...

*ñaz2* °[zubia] da béstia, amentxe... · séra, Errástin kanterárakua; ... da bésteik?

*kaz1* °... árek eee etara eben an arrí askó · e Berrísko kombenturako, kláustrorako · ee Oñatíko unibersidadeko kláustrorako... · ta Patrísio Etxeberrian txalétetarako... · daa... órretarako ta gero baa... · séra, Eibarkoo... kámposanturako be bai!; órrek eeta · Mendaráko [sic] mójendako be bai!, kláustruetarako, · da ...

*kmz3* °... etxeako-ordua b’etorri suan! ordu batak aldi ero ...

*kmz6* “... Ba, guk frenterako eitxe itxú: txirikillák. Frenterako, frentiandako, da tronpa puntak lixua eta tartakiñak, eh! frenterako ...”

*raz5* °... da itxe-basen · ármaixuak, sukáldeKO ármaixuak, da bankétaak, da ... <sukalderakoak, jakina>

*kmz* °... da, norbéra-jántzii · erromérixarako morokó erropía ta... <“zertarako” ñabardura ere badu> —*kaz3* °... Eskól’armerirako be diru asko emo-éban ... <*idem*> —*raz5* °baai, gausá-askó ta, ebíllen txopo bílla!, txopúa da bigúna!, da fasílla biarrérako! ... <*idem*>

c) Kantitatea adieraziz:

*naz* °<patatak> bueno baña, sakú ba-sartzen dou, e?: sue-morun estou guk itten, etxerákua!

#### 1.2.6.2.6. Gorputzeko atalei erantsita, nonbaiteko “mina” edo gaixotasuna adierazteko

Hainbat izeni gehi dakioke kasu marka. Singularra eta plurala nahastu egi-ten dira batzuetan, aipatzen den gorputz atala bakarria izatean anbiguetaterik sortzeko biderik ematen ez duenean izan ezik.

<sup>159</sup> Ikus, baina, bestelako ñabardurak destinatiboaren atalean ere.

Batetik, gorputzean mintzagai dena atal edo osagai bat baino gehiago direnean singularra nahiz plurala onartzen du, batzuetan nahasketak ere diren arren; “begi, agin, tripa, belarri, anka” eta abar lirateke atal honetakoak. Esangura-forma “nahasketaren” adibiderako “begi”-ren kasua jarriko dugu: *kmz*-rentzat «“beikó-miña” es “dolor de oi- dee- · de ojos”», baina *nme2*-rentzat “begikó-miña” da «“en el ojo” ... báten!»; nahiz eta begi bakarerrako forma singularra ere lortu dugun, eta begi bietarako plurala, jakina. Aipatutako nahasketa gehienetan gertatzen da: “belarriko miña” belarri bietako mina da lekuko guztientzat, “belarrietako miña” ere jaso dugun arren. “Anka” hitzaren kasuan, banaketa garbia jaso dugu singularraren eta pluralaren artean; hanka bakarra denean, “ankako miña”, eta hanka biak direnean, “hanketako miña”. Pluraleko forma lexikalizaturik dago jakineko gaixotasun bat adierazteko; izan ere, “anketakua” azkenaldian hain famatu egin den ganaduen “fiebre aftosa” delakoa da. “Tripa” hitzak berezitasuna du, ez dakigu sabela barkartzat hartzen den ala ez, kontuan izanda urdaila, hesteak eta abar barne dituela; “tripako miña”-ren eta “tripetako miña”-ren ondoan (*kmz*-k ez du azken forma hau onartzen, hala ere) “tripako-miñAK” aldaera ere jaso baitugu: min bat baino gehiago izaten al dugu?...

Edonola ere, leku-denborazko genitiboaren lekuan “nonbaiten min izan/euki” ere erabiltzen da, inesiboaren bitartez.

Bestetik, min ematen duen atala bakarra denean singularrez erabiltzen da: “buru, gerri, biskar, lepo, ao, istarri, bare”... Horiekin sortzen diren formak “buruko miña, buruko tontua”, “istarriko miña; istarriko katarrua” gisa-koak dira. Izen orokorrageok ere hartzen dute kasu marka: “alboko miña”, esaterako.

Mina edo dena delakoa gaixotasun bihurtutakoan lexikalizaturik gelditzen da, nahiz singularrez nahiz pluralaz. Ikus lehentxoago aipatutako “anketakua” eta ondoko adibideak, erakusgarri:

*razl* °bai! tt’arí be itxúria guntzurrunetakua séose-torri akó  
*nme2* sémbat aótan ikúsittusu ee... · “kárries” e, aa... · órtzetako gaixua-ero..., agi-ñetako gaix- aññ ustélak-ero...  
*kmz* °<“edateari utzi” *item*-aren inguruko txantxa> gibelékua ékan ala?

Areago lexikalizaturik, kasu marka erator atzizkia dela ere erabiltzen da. Bai aurreko atalean aipatutako “miñ” esanguraz sortutako formek, bai osterantzekoek, jatorrizko esanguratik aparteko berri eta berezia hartzen dute hainbat hitzek. Orain atal honetako hitz eratorri batera mugatuko gara<sup>160</sup>:

*razl* <“arazoak”> orrek estetzu ekarriko burukómiñik —*nme2* °baai, báitta!: e, “burukómiña edarra ekarri usku orrék”!, ero “burukomiñ edarra daukou orrékiñ” ero...

<sup>160</sup> Ikus aurreragoko ataletan forma eta adibide gehiago.

#### 1.2.6.2.7. Jakineko egituretan: “-ko seme/alaba (...)”

Egitura horrek gaztelaniako “natural de” esangura du, jaiolekua, jatorria. Adibidez:

*nme2* “Eibarren jaixua” edo “Eibárko semía” –*naz* “Eibarko alabía naix” °bai! bai-bai-bai, óixe!, da égixa da gáñera! <barrez>  
*raz1* °... béste bá-pe ise-san an Mendigóitxikoo semía-an!  
*ñmz* °aren andria da · bertako alabía, Takillángoko alabia...  
*raz1* °... sú! ta... ori rekonositzeko e..., · kastillanuak estau rekonosiduko-orí, e?, · éés-es-es-es-es-es: orí ameko semém-bat iséngo dá ... Ónek e, euskaldun purú-purúak d’asko dakixának · au rekonosidu bie-dau! ... <“euskalduna” esan gura du>  
*nme2* °seu b’eranda eongo sá, · basárrixak?: basárriko umiak orí...!  
*rmz2* °... baña gaur · Eibarren kaléko semía-dauás!, kaléko semíak!, <<erri-kiró-lian>> ondó itxen dábenak ...  
*rmz* °errix- erriko-idixa, pirénaikua dok emén!, pirenáiko! · Pais-baskokua... ... <“autóctono” esan gura du>  
*kaz3* °... Kándido erriko semia san daa! · ee... óndo! óndo pórtatze-sam!-bestela ee... ... <“eibartarra” esan gura du>

#### 1.2.6.2.8. Jakineko egituretan: “lekutakua”

Superlatiboa adierazteko erabiltzen da, bai lekuzkoa, bai denborazkoa: “oso urrutikoa”, “oso antzinakoa”. Denbora adierazteko “sasoitxako” ere erabiltzen da; J.A. URIARTE-k “Sasoneko lorie” egitura dakar antzerako esanguraz, denborazkoa bereziki<sup>161</sup>. Eibarren adibidez:

*raz1* “ernéau”: °orí normála! sasoittáko ipóñak!

Forma lexikalizatua da, eta formaz mugagabea izan arren esangura hori galdua du “lekutákua da orí!” tankerako erabileran. Besterik da “sé lekutakúa da?” erabilera arrunta.

#### 1.2.6.2.9. “Noizko” galderari erantzuna

Denborazko esanahia du:

*kmz* °<“Boga-boga” kantua> noiskúa!?, · jáseus! gure jauná-pe kántatzen seban da, gure amama-be bai txa... —*kmz1* °gerr’áurrekuak ero isángoixtuk órrek eró!, ero noiskúa etéixtuk órrek? <barrez>

##### a) Izenlaguna

Esangurak berak baldintzatuta, oinarrian izena, izenondoak eta aditzondoak izan ditzake:

---

<sup>161</sup> (1995, 367 30. oh.).

—Aditzondoetan kasu marka zuzenean itsasten zaie oinarriei; eta bestela singularrean da erabilera arruntena:

*nme2* léngoko periodikua · irakurtzen eo-nais ... “léngokua”, “léngokua”... orrék estauka... “léngo egunékua” ba...: gaurkúia isen esík, ero atzokua isen esí-ba bés-tiak ya “lengoku- l- léngokua”-dia

*rmz* °[trena] Donostiákua órtxe!, da BÍlbotik etorrena ee... · órtxe paradía beti!: · goixeko beátziak eró ta éguardikoo-ordu bateterdietan da ílluntziko sáspi tx’erdie-tan; da Bitoríxati-be tréna etortze-suan or góorá!: · iru tren!

*raz* °... Da neré amaá · goixéko-ordu bi tx’erdíetan-irúretán! sukáldian euán! ...

*raz* °... d’eurí... udáko euri sápparrada bat ein dau! ... <nolakotasuna ere adierazten du>

*raz* °... es erromérixárik eta lélengo dómekía: lélengoo- Karnabáletakoo domekía bákar-bákarrik! da geró geixao eséuan ...

*kmz* °ííí! · ííí! · torri ári onáá! ... Gerr’áurreko- gerra-aurreko ka- e e nóbela-dítxuk ónek alá?

*naz* °pítxár aundi bat!, lenaoko..., lurrésko bat! ...

*raz1* lénako íllían esteskúe págau

*nme2* léngoko periodikua · irakurtzen eo-nais ... “léngokua”, “léngokua”... orrék estauka... “léngo egunékua” ba...: gaurkúia isen esík, ero atzokua isen esí-ba bés-tiak ya “lengoku- l- léngokua”-dia

*kmz3* °... oñ eitxen dianak ee... · lénguneko andriori or asesinau ese ...

*rmz* °lengúak!, onén aurrekuak!

*raz* °áá! “Oporrak” oingoo · euskera batúa...

*ñaz1* °ori ongoxia [sic] da bañá, e?, antxiñákua bárik!

*raz1* °... oin! dakixám-baté... · éuskeras, baña nik e antíguamentekua dákit et a esébes!

*kmz* °txarto esan dot áurrerakua

*kag* °pandérua báí!, pandérua · dá · betikúa!

*kaz2* °[erreatoak] ordukotxiak... · eum-batekuk [sic] órrek!

—Mugagabez ere bai:

*nme2* °á bai! á Pedrobalentíñen txikítteko erretrátue garbíxa! <“txikitan zeneko” pa-rafraseatu daite>

*kmz* °sélán entzúngosú ba! txikítzakoo gausía da-ta

*kmz12* “... neri umetako gauzak akordatzen jataz primero de mayo aittatu ezkerik ...”

—Forma eta egitura batzuk ihartuta daude:

- “*Ju(a/e)ndaneko* + (zenbatzailea) + izena deklinatuta” egituraz sortzen direnak formaz esaldi erlatiboak dira, baina “aurreko, lehengo” esangura dute orokorrean. Ondoko izena singularrean nahiz pluralean deklina daiteke baina esangura nahitaez plurala izan behar du. Hiru adibide jarriko ditugu eredu legez:

*kmz* juándaneko egúnetati-gáre-emén <zenbatzailerik gabe>

*/kmz* °... oñ esébe-estau eraten: bueno!, juandaneko-ogetamar urtíetan! Baña, gastétan?, puhí!, · “Sopas”...

//kmz °probáu bés! ... juandaneke-ogétamar urtían e... <ondoko izena singularrean dela>

- Bestelako esapideak, esangura lexikalizatuta dutenak; adibidez: “gero gerokuak, urte askotarako, lengunian (<\*lengo-egunian)” eta antzerakoak (ikus gainera “lekutako, sasoi txako”-ren erabilera eta esangura goraxeago):

*raz1* °geróko es lága gausárik, geró gerokúa iséten dá! A tiempo sáre ta-ále! bén-ga!, amen dákau naikúa-ta...

*rmz3* °<zorionak ematerakoan> urté askotárako-ordúan!

*kaz1* °isa-séikien...: arék esa-netzu-nik lénguniam-bé, lélengo isena Otóla ekála ...

- Osterantzeko ezaugarriak adierazteko (adizlaguna litzateke):

*nme3* °ba, irú-urterako arék asko dáki, e? <“hiru urte ditu eta (nere ustez) asko daki duen adinerako” esan gura du>

*kmz* °péntzaixú, guré umiak urte bírako... [eskolara]

- Atal honetan aditz izenetako *-terakuan/-tzerakuan* forma ere aipatuko dugu, denbora nahikoa zehatza adierazten baitu.

#### b) Destinatiboa, “noizko(rako)” esanguraz<sup>162</sup>.

Destinatibo esangura izenlagunarenarekin kurutzatu egin daiteke, bai oinarrian izena hartzen badu, bai aditzondoa hartzen badu. Esate baterako, “bixarko pastelak” bihar jango diren gozokiak izan daitezke (izenlaguna), baina beste era batera ere uler daiteke: bihar da denbora muga gozokiak egiteko, bihar eginik egon behar dute (“noizko, noizkorako” esangura destinatiboa du). Batzuetan hurrenkera aldatu egiten da (lehenengo kasuak beti eskatzen du *izlag.* + *iz.* hurrenkera, edo *iz.* + *izlag.*, biak mugatzailez; bigarren kasuan hurrenkera askeagoa da), baina hori ez da zentzua argitzeko erabateko bidea, ezagutza pragmatikoa beharrezkoa da. Esate baterako, “bixarko pastelak ein biarko dira” bietara uler daiteke. Adibide horretako aditzondoaren lekuan izena ere jar daiteke: “domekarako erropak”, adibidez).

Guk denbora destinatibo zentzua duten adibide batzuk ipiniko ditugu jarraian, erabileraren berri izateko:

*nme2* °ee... ee! e, askenakoo... enróllau itten da óri! <alegiatzko jatorrizko forma \**askenerako* litzateke, kasu markaren aurreko *-a-* bokalak erakusten duenez> —*kmz* °jésus!, orduráko operáuta nao! //*kmz* °(?)... nik orrén e · sasoiráko e, muéstriaikiñ eítxenaban! //*kmz* °geróko seáitxik lága biar da bá?, oiñ iñ i- eiñ ein baléike!

*naz* °<eguraldia iragartzen duenaz> are-berak ee, euneTARAKUa gáñera emoten dau sarríften, e?, bueno!: bixarKO, etzikoo... ta, e? ...

<sup>162</sup> Ikus adlatiboaren atalean ere, “norako, noizkorako” galderei erantzunak; destinatiboaren atalean ere aipatu dugu.



*rmz* °bai! bai!, ekitzem-bautzak [berbetan] akabo ba!, i- iru bat eunekua... <“hiru bat egunerako jarduna” duela esan gura du>

*rmz* °luseroko dosu ala?

*rmz6* “... gero zer egiñ esten? Bat egiñ eben danak eta ni kastigau ninduen hiru hillebeterako ...” <iraupena adierazten du> —*nme2* yáke-torri garám-ba eun gustiko [sic] geatuko gara <*idem*>

*rmz* °ástero!: sápatuetan, · asté gustirak’ogixa...: labako-sua, ta-artúa be bai!

*raz4* °... enééé!, · nere-errixan, an, dáának! dának · beatzietako etxéa! ... —*nme2* arkondara gorri bat erosi dot, · °Karnabáletako alá?...

*rmz* °“número diez” daa · am-ba, an · diesa emot- ipintzekó, a, a ikustespada estao diesik!: ekárrí eroo billáu eoo · úrrengo uneako!, an s- mataderuan estao íltxeik! · gíxan espadoya · beree séra! · númeroa

*raz* °... orí éstaa-aiñ oná jenerasiño báteti-bésterá!: óiñ! isen básian su bigárrena sará ta beste- irugárrengo jenerasiñoráko isen básan orí buéltióri!, baña jenerasiño- a sé? ogéi urtían orí kámbixuorí? ...

*kmz10* “... Amaittuta be oindiokan huelgia, hamen segidu zeбен eta mordo bat geldittu ziran betiko ...”

*raz1* juan saítxe betíko! —*naz* juun saítte betíko!, ba... beíñ o beíñ!

*kaz2* °... lélengo kinsénia-artu nebán · ándik urte birá · Gabónetan! · ee... · amábost eun ero fáлта dirálaa · urte birako! ... <muga adierazten du, denbora kopurua: “urte bi betetzeko”>

*raz5* °Eujénia...; · da esa-netzan —“ara Eujénia! · ní · nai bosu etorri, nik ifinikotzut amen kuartua, baña es illétarako ta, · ill artéko!” <muga adierazten du>

#### 1.2.6.2.10. “Noiz” esanguraz

Iruzkina egin beharrean gaude, izan ere “noiz” esangura ñabardura inesibo kasu markak ere erants baitiezaioké sintagma osoari<sup>163</sup>:

*nme2* LÉNGUAN eskían ikusi nebán —*naz* lénguan ikusi neban eskían —*nme3* °lénguan esa-nutzen abér e, orí tta... —*nme4* °bedárra oixe jan esindda...: esa-nutzan lénguan (?)Felisí, altzau... —*nae* °es-es... Eee, · léngun ikusi neban suen txiki-xee... —*kmz3* °... lénguan e, · alabía [sic] eskatu éstan · da ...

*naz* °baai, bera-pee... bai!; da, · sekula estot euki tta, anemiaa piska-sú!, LENA-KUEN: nik estaki-pa sek ittusten orí!, · sósek, está?...

*kmz5* “... Etarazten diardu ... Eitxe ezta zerak olaxen da: «Ointxe esaik leenakuan esa eztaná»”

*rmel* °enarak? milla-millak eon situasian lenakuan...

*kaz10* °bate-preuntau sestan Sarausen LENGÓ BATÉN, · ee Sarausen eote-gara udan aspaldixan da... ...

*kgg* °seguru áurrekuan da óinguan jhe... da- dának <<esbérdiñ>> ein situasela [sic]

<sup>163</sup> Ikus inesiboaren atalean ere.

### 1.2.6.2.11. “Zertarako”, helburuzko zentzua

Izenlagunaren ondoan izena badoa kasu markak aldaera bi ditu orokorrean (ez dugu mugagabea eta plurala kontuan hartuko), *-ko /-rako*; baina izenlaguna-adizlaguna bakarrik badoa *-ra-* adlatibo marka nahitaez tartekatzen da, osorik edo murrizketa fonetikoko aldaeraz. Eredu legez “dibujo(ra)ko maixa” eta “maixa, dibujorako” ipiniko dugu. Lekukoan adibide batzuek argiago erakutsiko digute:

*kmz* °ori-ixotuta setáko dakásu?

*rmz*2 °... básarrixetan eote-siala, · básarri bakotxían bost-ta · sei páre idíxa-ta “kóño! setáráko idí orrék?” ...

Besteak beste, aditz izenek ere sarri hartzen dute kasu marka hau helburua, eginkizuna adierazteko:

*kgg* etórri ónek ikústekúa-díra ta *-kmz* ónek ikústeko gáusa-día, e? —*razl* óne-gáusok ikústekúa-día, e? —*nme2* ónek ikústeko gausa-día, e? —*naz* óne-gausok ikústekue-día, e? <“ikustea merezi” ñabardura ere badu>

*rmz*2 °... barríro desafíxua ta posturía ta...; béste batzu-pe ! etxéra!, baskáltzeko-ordúan ...

*rmz* °... gurian jóTERAko ikutua euki dabena-mordua idixak eon dia! .. tentasíñua... · euki dábenak! ...

Aditzondo ez diren beste hitzek mugagabean zein mugatuan har dezakete kasu marka:

—Mugagabez:

*kgg* es naix esetáráko gai *-kmz* es nais esetáko kapás *-razl* énaix kapás esetáráko bé *-nme2* enaix esetáko be gausá *-naz* énaix esetáráko [sic]

*rmz* °len seaitxik · es-tau diar iñ?, báskaitxako dempoán!?

*rmz* °burkajía bat!, burkara-aundíxa, béstia karáketxia, txikíxa!; .. au bedárrondoTÁKUUAU... · da burdi-mótza...

*rmz* °bai ba!, nábuva ta ekartzeko taa... s- símaurkeTAAKO tá...: burkajía, daa j- kajía!, da oolako burdixa baña kajikiñ!; da béste ba-burdi-mótza, trongoTÁRAKO!

*naz* °<eguraldiaz> au, ortuek urtetzeko ta oná, e?: · orretarako?!, buenó! Suenin ortu edarrak eongo-ya!

*rmz* °orríxa ganauei emón daa, ee, e béstia sutarako tá; fárrak ein dda itxekó

*f.a.* °... órrek len sutaráko usátze-sian, da órrei esate-ako... ...

*kmz* °tabakootarako (?)... dakáten ikúsi!

—Mugatu singularrez:

*rmz* °gero udabárrixam-patatia eráñ!, · d’artorako préparau: goldátu eró, símaurrak etara ta... .. laixátu eró...

*kmz* °baai!, ofisíña-aundíxa ... <estul egiten du>: bakotxa bere mái aundixákin!; · dibújoko máixa taa ostiángo · pupítria

*kmz1* °da igual e, arek ekartzen bitxu txúletak igual arétxek e · kompintxérago...: étxaixat, e?, isángo-ran eró!...

*kaz1* °... oetaaamasei milla métro kendu éstese-nerí · Unibérsidadeako, ta béstee aimbeste inguru · sereráko! · autopístarakó! ...

*kaz3* °... bos · ikusgárrixa ekan · koruráko ta ...

*ñaz3* “... Etxera etorri da eskolarako astirik ez ...”

*kmz5* “... Da, Aputxiano zan, estoo totalekoo fuertia ta danerakua eztá, danerakua, burrukarako be bai, burrukan eitxekua be bai ...”

*kmz6* “... guk mendiko afiziño orrekín, Eibarko San Juan jaixetán beti aldetze genduan”

*naz* orí da eee, perretxíkuak · afisíñua, perretxiku bátzerakua daukéna

*f.a.* °... paguak bi klasetakua-daos: batzuk olákuak, sutarako, ta beste batzuk arboláundixak eta gero mostuta materixalerako ...

*naz* ba emén estao bápe be, estaaa... · muéstrakoi-pess!

—Mugatu pluralez:

*rmz2* °... prepárasíñua · (?)gausá-batzutarakú [sic] aldé aundíxauak; oim!-béste leku batzuetarako es, e?! ...

*rmz6* “... fan eta ordu laren bat edo hogeí miñutu aizkoran. Eta neretzako, besuetarako eta eskuetarako aizkora kertena baiño hoberik pelotarixandako ez dago ...”

*kmz* °dánetarakuak <nolakotasuna adierazten du>

#### 1.2.6.2.12. Aditz izenetan oinarrituta, izenak sor daitezke

Horrela kasu marka eratorbide bihurtzen da. Batzuetan esangura bereziko berbak sortzen dira, eta beste batzuetan izen berriek tresna edo aditzak adierazten duen ekintzaren inguruko gauza izendatzen dute.

—Esangura bereziko izen batzuk: “jateko, es-usteko” eta abar. Adibidez:

*kgg* jateko asko séuan –*kmz* jateko asko seuan –*raz1* jateko askó eón sán –*nme2* jateko asko séuan –*naz* jateko askk’euén <“comida”>

*nme2* es-ústeko bat emouskuen //es-ústekua –*naz* emouskuenn esústeko bat <“sorpresa”>

—Errepikapenez ere lortzen dira esanahi bereziak, enfatikoak: “demasa, itzela” adierazten dute, eta normalean pluralez egiten da “esatekuak esan, ikus-tekuak ikusi, entzutekuak entzun”. Errepikapena ez da ezinbestekoa.

—Tresna edo gauza adierazten duten adibide batzuk (bide hau emankorra da izenak sortzeko):

*naz* sémat e, · erropa-garbitzeko! <“lavadora”>

*naz* ekarrisu ee idástekua esniandako <“colador”>

*kmz1* °:“árria” ta “emía” ba-akixas-seintzu-diasen ee, arek ebátekúak...

*raz1* °es! eskábadoría es!, sapáltzekúa ... <“apisonadora”>

### 1.2.6.2.13. “Zelako”/“zenbateko” galderei erantzuna

-*dun* atzizkiak duen esanahiaren parekoa du<sup>164</sup>.

—Ezaugarri “fisikoak”, objektiboak adierazteko sarri ere sarri erabiltzen da. Jaso ditugun adibide esanguratsuenak ipiniko ditugu jarraian, erabilera gehienak ezagutu ahal izateko (forma, kolorea, tamaina, kopurua, neurria, pisua, adina, balioa, iraupena, zaporea, eta abar):

*naz* - ... selako sápatak erosittesu? -baa olakotxe formákuaak!

*naz* pra- frák gorrixetakua-Ánton isen da ... -nik estot esautu! —*naz* sémat ee, kolore txarreko erroa <“ropas amarillas” galdetutakoan> —*nme2* °bueno! ee... · mosólue kláse ba-da “gaberdíkuá” · esáte-akóna!: · mosóluek ee · amén iru kláse-ero ibiltten dia, · da txikí-txikí ba-da ta políttena, ee urré koloreko ser ba-daa, <eskuekin erakusten du> o- ónek · suríxak, eta urre koloreko ba-daa e gaberdiko moso-lua esate-akona txikíxena

*rmz5* °Pédroo... Néberaa... indar askoko mutilla ok!

*kmz* orí ge- gerrí fiñekúa ok —*naz* ni su baño anká txikixauakua naix

*kgg* iru ankáko máixak dákaus etxían —*kmz* irú ankakoo · máixa-dáre guré-etxían —*raz1* guré-etxían mes- máixa dao irú at- irú ankakúa —*nme2* °bai, bai: irúkotxa bedár ba-da, iru púnta eukitzettuna, · da se- bee- sekula-bedarrak <<erece>>, · “trébol”!, eukitzettú irú orrí. · E, ní laukúa be ikusitxa nao, baña orrí... —*ñaz1* °Otóla: bai ba!, bísitza bikúa san a, e?

*kmz3* °... “medidas juanson” situáan · bóla-pe bai: asi kompasíño bateako e, amar millímetrokua, amabikua, amalaukua, oekua, ótamarrekua... · dana sentésimaa · indda, esta? ... —*rmz* °áitxitxa idi-sále aundixa!, pro- probara áitxitxa e, juango suam-beiñ o beñ...: o bueo! numbáitten, ontzáko urría b’ekarritxa jeuan a!

*nme2* °bai! xémeikua-axe isengo san, · se... · e, · txa- txakur-txikixai... · bo-séntimokuai, “bo- bo-xémeiko” esate-akon!; da gero txakurraundixa-“amar xémeikokua”. Nik, · e, korritzen ik- esáututtu e séra, tx- bai txakur-txikíxa be bai, · ta baiii txakúraundixa, amar séntimokua, · ee, úsuan esaututtu-nik! —*nme2* °<euroak> mm! baña oiññ aundíxak!, dirú- balixó askókuak! <barrez> —*kaz2* °eskólia bagénkan guk, esta? · ayúntamentukua, duakua ... báááña geuk afisiñorik es! ...

*kgg* lau urtéko umía séuan an —*kmz* láu-urtéko umía seuan —*raz1* umé bat euan láu-urtekúa —*nme2* bost urteko ume ba-seuan —*naz* umé bat euam-bost urtekuá

*rmz2* °... prémixua-p’eún batekúak eró -emén Ermúan be bai eun batekuak, Mallábixan be bai ...

<sup>164</sup> Ikus ikuspegi morfo-semantiko orokorreaz M. AZKARATE-ren eta P. ALTUNA-ren “ko/-dun atzizkiez” artikulua (in L. VILLASANTE, 1992, 91-112).

*raz1* °saso- sasoiko néskak, e?

*nme2* pelikuli ... bi ordúku-isen da —*kaz2* °... ordúan eunian e, · iru euneko biarra i-neba-nik! orduan domekan! ... —*kaz2* °... náusiña il sanian, · iru illabeteko lútua! ...

*raz5* °... erriala kostatze-sam-bixigua!, kíloko bixigua...

*nme1* °... geró ba estákit: · e, a- arri klásia, sémat arri kláse, see... mm, t-tx!, e, bueno!, pixutákua baño géixao see-, · see formatákua ta ...

*kmz6* “... gero egoten da, ba, konkursua [¿], ba, amabi mendikua eta, eztá, da eun mendikua etá [...] Zuen aitzitxak ..., ba, árek ein zitxuan bi bidar eró eún mendikuak ...”

*kmz12* “... Bibliotekia be, 2000 bolumenekua ekan.”

*raz* °nai dosuu Lárak e, · geró ser?, yogúrta? · txokolátekua-ala...? es!, txokolátia jaten diardusu!, áibe! de fresa...

*kmz* °sardiña latákuak!

*kmz6* °... am-beste bat, bisikleta bat e, kárreretakua ...

*naz* °ála!, · au jarritta ittekue da ta... <barrezka>

*rae* °Txíngotei! · mádre mía!: ixé · garbítzeko lékua! ...

*kmz* °<haragia> seseñia eitxekua

*kmz* °<puzkerra boatzen du> káguen la · már seréna! ... egúnero témakúa!, káguen txóss!...

*kmz1* °... ta béste nausíxak ára juaten días. Da-ám ba, errebótekúa-mordúa! ...

*kmz3* °... da gáñea-am-be, · armeríxako · ofisiua · selan · ekaun gu-déklarauta íbar-tarrok ...

*kag* °...txalapártia jótian modokúa —*kgg* °nik askótan estákitx á esáte-oten ero é, osea, tárteko gausá bat esáten dot, estákitx náitxa, librátziarren ero... —*kaz5* “[txorro-morro jokoaz galdetuta] Horren trazakua eitxe genduan guk, halan jarri bat da bestia hamen jarri ta burua ipiñi hamen da beste danak halan bueltan biskarrian jo ...”

*kaz1* °baai!, Otaola-bastarra san geuria!, baña-arem-ber- bēnetako isena san · “Otó-la”: · “Otaóla” san! ... —*kmz7* “... eskalafioan, nere bajúan euazen, da káro!, neri aintzerakuan, zeozé firmau biar baneban, ba, ezan ee, ezan léekua ...” —*rmz5* °áxe suam-bálekua ...

*rmz7* °... auentau geixaokua san garixá!: lastua gitxiao bai-iguel, baña burua ee... beti por-estilo!

*rmz5* °... len isete-sitxuam-probak on- · plasá gitxiaokuak, ultzé gitxiaokuak

*kaz1* °... da, órrek · bisi sian · Parísen!; · da ontxee · óetaamar bat urté · etorri sian · euren j- euren e jatórriko etxia ikustea ...

*f.a.* ill ero bisíko operasíñua aindú-tze —*kgg* il ala bisíko... [ikasi (e)in dot] —*nme2* íll ero bisíko-operasíñua ítze —*naz* eitze operasiño bat, ill ero bisíkua

*kmz7* “... Fama txárria ekan eh! Kánpuan emote zan, emote etsen famía, Eibarko neskák asuntokua-ziala ...” <“emagalduek”>

*raz1* °... <lengo plantxatzeko era> amaitxu san á be ta bakía! buá! · Amáika-alperriko biar · ein dabe sárak, amáika-alperriko biar...<subjektibitatea ere bada leku-koaren iritzian>

*naz* súde-errixak, fama onekua da [sic] ... <oso baxu> entzute onekua...: °obéto, “entzute onekua”... · bai! obéto <subjektibitatea dago esaeran>

*rmz* °baai! Lésetabeletxen segiru juen geruao bé!: · neu-jote-nitxuum-betí anngo garíxa-betí · ni mákiñiain [sic] joten!, · beti jakiñeko bierra! <idem>

*kmz3* °... lenguan aldian oñ e, · beste itxua batekua ok · itxúria! ... <idem>

*kmz7* “... an Amorebietan, ba, pixkat kategorixako puestua nekan ...” <idem>

*f.a.* edukasiño aundíko umiak etórri sían —*S.B.* edukasiño oneko umiak estabe ori esaten <idem>

—Pertsonaren nolakotasun subjektiboa adieraziz. Izenlaguna bakarrik zein izenondoaren ondoan izan daiteke:

*raz1* persóna bá-dá · berbakúa —*nme2* berbako · personia da, e? —*naz* persóna ba-dá · erresóska: esaten dabena iñ itten dau ... berbakúa

*naz* bueno! eee ogittara jutia nere kóntukue da, e?

*kmz* °eleméntua suré tía da!, · kéian · kóntrakúa!

*raz1* esán-gaistokúa da orí //orí esán-gaistóko persónia da —*nme2* esán-gaistokua —*naz* esan gaistokua da

*kaz2* °da, mángutziik, pélotan gastiekiñ... -“es gero esan amári, e?” ta nik -“éss!”... .. aítxám-bei-onekua nitzan da ...

*S.B.* °“aó satarékua” da berbá, berbá txarto eitzen dabéna, e? Maldesíñoka!, maldesíñoka, ta, buá! berbá satárrak esánes, da, “aó satarékua da” esáten da

*S.B.* a bétí dao umoré onéko, témple onéko

-*kgg* °... okerrak isango síñasien, es?

-*kaz3* °<erdi barrez> danerákuak eongo giñan orduam-be! · danerakuak eongo iñan... · Enéé!, to- ta- bátzu-bai · diábruak!

#### 1.2.6.2.14. “Zereko” galderari erantzuna

Gaia, mamia adierazten da horrela; adibidez:

*rmz2* °... berrógeigárren urtía (?)olantxe-pentze-ó-léngo apostúa ikusi nebla -ero posturía- aixkórakúa ...

*kaz2* °... ni nitzan madrínia! bódakua!

*kaz3* °... nai ében · ba · ametxe Gipúskuam-b’eon dellá, estaisú? loteixako bille-tiak? ...

*kmz3* °... tallarrian jeken serian! · Donostian éurak! · sótano baten tallárraa · trokelájeko · tallarra...

*kmz8* “... Profesoria zan dibujokua”

*kmz12* “... politikako liburuak beti euki dittut nere almuhada onduan”

*S.B.* músikako síntxa bat erósi dot

### 1.2.6.2.15. Kasu marka erator atzizki legez<sup>165</sup>

a) Gorputzaren atalen izenetan oinarrituta, beste izen batzuk sortzen dira. Izen batzuen multzo nahikoa mugatua da: “belarritxako, oñetako, gerriko, murretako” eta abar. Izen batzuk, lexikalizaturik ere, elkartuak dira: “samako kattia, buruko pañelua” eta abar. Komunikazioa geroago eta garatuago den gizarte honetarako balioko hitza ere jaso dugu: “eskukua, eskuko telefonua” alde bate-tik bestera eraman daitezkeen haririk gabeko telefonoak izendatzeko:

*naz* °... eske, derrepente-esatutzu, e?: igual joko neban okér, e?... Ba, éuki dot <telefono “inalanbrikoa”> eskukua... ..

*naz* °(?)... len euko dot! -aii... gure Kóntxik- · erregalausten e, ori eskukúa!, ta, itxúria gástau ero estaki-sé in jakon e será! bateríxi eró, estusta funsionatzen: á edérra!, e, artú ta...

Jatorriz goiko forma gehienek “norako” galdekariari erantzungo zioten agian, adibide hau kontuan hartuz gero:

*nme2* °estáitt espánETAKO pinttura erosteko-o setáko isengo séban! ... bañá, ástero erriela kobrázte-seban arék! ... <ez litzateke “ezpainetan dagoen pintura”, ezpainetarakoa baino>

b) Izenondoei eta aditzondoei ere eransten zaie, beste izen bat sortuz; adibidez:

*nme2* °bai, saspíxa ero saspítti-berakua dienien, · “énaix baltzekora lleatzen”. .. Bué! érderas “figúras” esátutze... · órrei, “fiúras”; · da, éuskeras “baltzékuak”  
*kmz* batéko urriak · urte-éstak

*naz* <“secreto”> ixilíko gausa ba-daukat —*S.B.* orrek beti diardue isillekuetan

*S.B.* okerreko lékura jo dau *-kgg* okerreko lékura *-kmz* ekíbokautako le- lékura juan dok //ookerreko lékura juan dok *-razI* okerreko lékura juan dá *-nme2* okerreko lékura jun da *-naz* okerreko lékura juen da

*ñaz5* “... bidian urten egingo eskuela bai, eta erreka-zulotik. Okerreko bidietatik. Bueno! ...”

c) Izen batzuek ere hartzen dute bestelako izenak sortzeko. Esaterako:

*kmz* lapíkokua<sup>166</sup> jan dou gaur *-razI* gaur jan dou egosítzakua //bai!, “lapíkokúa” da orí, e?, “kosido” “lapíkokúa” da, e?, · “kasuelakua” ésta, e? //gaur lapíkokúa jan dou *-naz* jan dou lapíkokua

*naz* es- da eskeko asko dao <aditza-postposizioa litzateke oinarria>

*rmz* °ástero!: sápatuetan, · asté gustirak’ogixa...: labako-sua, ta-artúa be bai!

<sup>165</sup> Ikus aurretik azaldu ditugun eratorbideko beste kasuak.

<sup>166</sup> Ikus J.A. URIARTE-k eginiko iruzkina: hipotesi gisa hauxe dio «Beraz, “lapiko” hitzaren -KO hau, ez ote da fosilizaturik geldituriko leku-denborazko genitibo atzizkia? Litekeena da (...)) (1995, 368 33. oh.).

—Beste horrelako izen batzuk, oinarrian hainbat kategoriatako osagaiak hartuta: “bidetakua, sutako-autza, josteko makiñia, asumerdikua, ildakua, begikua, ama-besuetakua, aitxa-besuetakua, minpekua, Paskuakua, argitxakua, ariapekua<sup>167</sup>, iru-kantoikua” eta abar.

—Zenbaitetan izen berriaren esanahia ez da aldatzen, eranskin “hutsa” da. Adibidez: “esnebeserokua (“esnebeserua” esan gura du), polisiakua, Urkoko mendixa (= Urko mendixa), bixarkua, etzikua, estankokua, lauortzekua” eta abar.

—Batzuetan izenlagun kalifikatzaileak sortzen dira: “moroko, antzera-ko...”. Lekukoek esandako adibide batzuk ipiniko ditugu:

*kmz* °béste- béste selákua da-á...

d) Kolpea adierazten duten izenak sortzeko ere erabiltzen da:

—Onomatopeiei erantsita honelako hitzak ditugu: “takatekua, dambatekua, sartatekua, saplastekua/saplatekua<sup>168</sup>”.

Kasu markarik gabe honelako zerbait litzateke:

*raz* °... onek e -nn aitxári · arrebíari “agúr” esáetzálako saplatásua! · emoétzen!

—Gorputzaren atalen izenei erantsita honelakoak: “agiñetakua, belarrondokua /belarriondokua /belarrixan-ondokua, matrallekua/matrallakua, begi-ondokua/betondokua, okotzekua, muturrekua //musturretakua /muturretakua, arpeikua, burukua, atzekua”. Adibide bakarra jarriko dugu denen erakusgarri:

*rae* °[bilobari] nai dosu emotia atzeko bi?

—Osterantzeko izenen gainean; adibidez:

*kmz* 7 °makiñatxo bat koskorreko ta erida...

#### 1.2.6.2.16. Egitura superlatiboak sortzeko

—Tankera honetakoak sortzen dira: “sekulako, demaseko, egundoko, olako, alako, aimbesteko, atañoiko/artañoiko, puta-madreko, makaleko, kampeonatoko, totaleko” eta abar; perifrasietan ere aurki daiteke: “tamaño ortarañoiko, tamaño ortako”...

—Bereziak dira “zorixoneko/zorioneko //zoritxarreko”-rekin osatutako egiturak, nolabaiteko zentzu txarra egozten diolako ondoko izenari:

*razl* °... soríxoneko “kamíxia”! ... ne- ní-pósik eráktuziko niskísu ónek a-má- guré amá difúntian e kamíxa-póósik erakutziko niskixues...

<sup>167</sup> Berba hori I. LASPIUR-i jaso diogu (1999, 52), eta era berean berak T. Etxebarriari jaso dio besteak beste.

<sup>168</sup> Guk ez dugu jaso baina I. LASPIUR-ek “blastateko” —“blastadia” berbatik eratorrita— berba ere aurkezten du (1999, 64); baita “dangatekua” ere (*aip. lib.*, 65).



*nme2* sorioneko txakúrrok! · daná problémi-emotn [sic] dabe  
*naz* soríxoneko etxi-onék! · ardúrak emoteuskus bákarrík  
*naz* °estusta eser eitem-baña soríxoneko sama... · txarrixoigaittik...

*nme2* sorítzarreko · etxé onék · daná · problémia emóteusku  
*nme2* béti etxé augaittik... · sorion-txarréko etxé augáitti-diskusiñuan gabis

#### 1.2.6.2.17. Adberbio esapide batzuetan

Esate baterako: “oingo, beingos, esate baterako, esate(ra)ko, estako baten”... Adibide batzuk:

*kmz* °aesss! · Aitxák oingó sapatílla-jantzítza-ákas!

*S.B.* juan saítxe béíngos –*kgg* juan saítxe béíngos –*nme2* jun saítte beingos –*naz* jun saítte beingós <beste lekukoek bai baina *kmz*-k ez du onartzen Eibarko erabilera-tzat>

*kgg* ortúan esáte batérako porrúak eta kípulak artzen díra –*kmz* ortúan esáte batérakó · árzten dia · kípulak eta porrúak –*nme2* ortúan, esáte baterako árzten dia · porrúak eta kípulak

*nme2* aim-polítta esátetereko [sic] esta bañá... –*naz* ori polítta esateko, ésta!

*naz* gabian · estabill e kótxeik, e?: ya · ff... bápes! apénas bápe-esateko...

*naz* °bai ba!: ebateko modukue-daos da!, ebatekuek, e?! bedarrak esateko ta..., jéé-suss! ser dok au!?, · txárrí!

*kmz12* “... meritua daka exilixotik etorri edo karzelatik urten eta klandestinidadera segiduan, trenetik klandestinidadeko ofiziñara esateko baten ...”

#### 1.2.6.2.18. Deklinabide beste kasu markak har ditzake (berdeklinazioa)<sup>169</sup>

a) Aurretik. Aipatu dugu kasu markaren aurkezpenean edozein osagai har dezakeela aurretik: inesiboa, adlatiboa, adlatibo bukatuzkoa<sup>170</sup>, adlatibo bide zuzenezkoa<sup>171</sup>, ablatiboa<sup>172</sup>, partitiboa, edutezko genitiboa<sup>173</sup>, soziatiboa<sup>174</sup>, instrumental<sup>175</sup>.

— Inesibo kasu marka aurretik duela. Ikus leku-denborazko atal honetan berrera, batez ere “nongo”-ren erantzunen erabilera azaldu dugunean, baina han

---

<sup>169</sup> Ikus ikuspegi orokorrean esate baterako J.C. ODRIOZOLA-ren eta I. ZABALA-ren “Adizlagunak eta izenlagunak: Bi funtzio desberdin aurkezten duten kasuak” (1992, 52-66).

<sup>170</sup> Ikus kasu horri eskainitako atalean.

<sup>171</sup> Ikus atal horretan.

<sup>172</sup> Ikus ablatiboaren atalean.

<sup>173</sup> Ikus atal horretan, “etxea, entitatea” adierazteko egituretan batez ere.

<sup>174</sup> Ikus soziatiboaren atalean.

<sup>175</sup> Ikus instrumentalaren atalean adibide gehiago.

inesibo kasu marka agerian diren forma bakarrak galdetzaila, balio erakuslea duten adberbioak (“amengo, ango”) eta “orduango” aditzondoak dira. Jarraian guri bitxi egiten zaizkigun adibideak jarriko ditugu, baina jaso ditugunez bihoaz irakurlearentzat:

*dkmz* °Deban esate-san “gausetango baliua”, “balor material”, eta Eibarren be esango san...

*dkmz* °ni entzunda nao “gastetango kontuak, gastetango laguna”..., eta eskeletan be, “etxeanguak”, “etxequak” esateko...

*S.B.* “gastetako/gasteTANGO”: “gaste demporaKO alegrixarik estaka”

— Instrumental kasu marka aurretik duela:

*nme2* °bueno! éuskera-sintturíai bé “gerri- gerríkua” esate-ako: .. “narruskó gerríkua” ta “telásko gerríkua”, · bai... “sintxuría” érderas da

— Aditzondoak sortzeko atzizkiak aurretik dituela:

*nme2* “amaittu jittuasen”: °bai bañá, osea ori berbíoi ya-alperriko <<besela>> ikusten da ee... “amaittu jittuan” esan eskeo “amaittu jittuasen” · eee... b- b- ee... prátikamente bi ar- bi gausa esam-biarrik estaolako... <izatez, -ik- aditzondoak sortzeko atzizkia da kasu honetan (leku-denborazko marka ezarrita, izenondo bihurtzen du era berean)>

*raz1* °... amáika-alperriko biar · ein dabe sárrak, amáika-alperriko biar... <idem>

*naz* ori béti-isen da bákarrikua ... “bakártixa”, eo “bákarrikua” eró, bai... <idem>

— Mota, zatikiak adierazteko<sup>176</sup>. Adibidez:

*nme2* etorri deilla suetaiko bat <*nme2* da aldaera hori jaso diogun lekuko bakarra, beste guztiek -tako aldaera darabilte izenordainei erantsitakoan>

b) Atzetik. Ezaugarri hori izenlagunaren ondoko izena isiltzen den kasuetan gertatzen da batez ere<sup>177</sup>:

*naz* °a!, lengoik estao-oñ?!

*ñmz* °Ota-sálla, Úrkikuena...: orrén... · s- solo- solo báti! solo báti jako isená! · “Ota-sálla”!, “Ota-sálla”...

Baina prolatibo kasua hartzen duenean, esaterako, bestelako ñabardura du:

*kgg* etxekóztat dáke -*kmz* etxekóztat -*raz1* orí umfoi etxékotza-dáo, e? -*naz* etxekóztat. Forma horien ondoan “etxeko moruan, etxerako moruan” ere sarri erabiltzen dira.

*kgg* estot aintzakotzat artú -*nme2* -selako burlía itzún, ee? ... -nik estot olakóztat artú -*naz* nik estot ... atakóztat artú

<sup>176</sup> Ikus, dena den, -*tariko* ablatiboaren atalean ere.

<sup>177</sup> Lehenago ere jarri ditugu horren adibideak.

### 1.2.6.2.19. Balio banakariz

Horrelakoetan adizlaguna da. Bizidunei zuzenean kasu marka hau itsatsi dakieken modu bakarra da (ez du, guztiarekin ere, kasu marka edo ezaugarri berezirik):

*kgg* berréun peseta tokatzen dira burúko *-kmz* (persona bakoitzeko...) [baitxá] // (personako...) [baitxá] *-razl* berréun-peseta persona bakoitzeko *-nme2* persona bakoitzeko berréun peseta da *-naz* dia berr- berréun-peseta bakoitzeko, · persona bakoitzeko

*kmz* bi plater · tókaten dó- · tókateitxuk · kristau- kristáuko

*kgg* ogei dúro emóngotzúras pasteléko *-kmz* ogei dúroo · emongouk paste- pasteléko // ogei dúro · pasteléko · emóngotzut *-nme2* pastel bakoitzeko-ogei duro emongot<<isut>> // (pasteleko) [bai] *-naz* páaukutzut · ogei duró pastelaaa-ko, pastel bakoitzeko

*razl* °baai (...) Eibárren es!: <abadeak> Eibárren e bost eroo eongo día, elixáko bat! Da A- Arratek- Arrátera sein juaten da bá be- mesía emóterá? Jua- estáki-sein juaten dán!

*razl* °baa, ómbre bai ba!, bakoitzían amar einda-amar einda bé, amar- e amár amár · amár egúnekó · o- e- o- diez por die-cien!

*rmz* °euneko-onembesteko bat! · paatze-juen! · geixem-bat ee... · bañá... · Mendítxi-bajatze-sitxuan órrek etá, Urbasátik etá, ba erberéra etorri biar!, an ee... e- edurrían estao eoteik neúan!

*nme2* suk · bat itten dosum-bakoitzeko, nik lau ittettut <hemen, banakariaren aurrekaria perpaus erlatibo da>

Kasu marka izenari zuzenean lotuta jasotzeko solasaldi askera jo behar izan dugu batez ere, edo zuzenean galdetuta. Gehienetan izenaren ondoan “bakotxa” erabiltzen da eta perifrasiak hartzen du kasu marka, erredundante ere eginez.

### 1.2.6.2.20. *-kos/-gos* aldaera

Jakineko formetan erabiltzen da bakarrik<sup>178</sup>.

—“Lelengos, estreñakos” formetan:

*kgg* gaur ikúsi dot e lélengos

*S.B.* estreñákos ikústen dot nik orí *-f.a.* estreñakos ikusten dot ori *-kmz* gaur ikuste-juát ...estreñákos *-nme2* gaur ikusi do-... estreñekos *-naz* ori gaur entzun dot ... estreñakoss.

Kontsonante amaieradun kasu marka baino usuago erabiltzen da kasu marka soila “estreñako/estreñeko” erabiltzekotan. Egitura horren orde “estreñako/lelengo aldís” ere sarri erabiltzen da.

<sup>178</sup> Ikus instrumentalaren denbora esanguraren atalean antzerako adibideak.

— “Beingos” forma aipatu dugu erabilera adberbial berezien atalean.

— Antzinako testuetan ere ageri da forma hori, 1743-X-13ko Eibarko Udaleko saio baten herri hauteskunderen gaineko Ordenantza batzuk herriko euskarara aldatzeko agindu zelako. Izenburua honela zuten euskarazko Ordenantza horiek: “Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaracoz”<sup>179</sup>.

#### 1.2.6.2.21. Definizioetan

Horrelakoetan ere erabiltzen da leku-denborazko kasua; adibidez:

*nme2* °eee... ··· bernía da eee oo... · sétik, belaunetik · eta orkatilla-ártekua

*nme2* °ank- ankía ortatíllati-berakúa

#### 1.2.6.2.22. Postposizio batzuetan

Adibidez:

*kgg* gáltzeko soríxan egón san [“soríxan” ori nik úste-ot ikási ein dotéla]

*kmz* gáltzeko arriskúan · eon san *-nme2* gáltzeko sotxian [sic] eó, · gáltzeko arriskúan eon-tzan

*razl* eó-san ee gal- gál-ltzeko modúan

#### 1.2.6.2.23. Leku izenetan txertatuta

Jakineko leku izenek batzuetan hartzen dute eta bestetan ez. Ez dago esanahi aldaketarik aldaeren artean, eta ez dakigu ziur zergatik gertatuko ote den. Adibidez, “San Andresko parroikia” ez da San Andresen dagoen parroikia, San Andres bera baita parroikia, eta horrenbestez “San Andres parroikia”-k gauza bera esan gura du<sup>180</sup>. Horrelakoetan, bada, aposizio funtzioa du nagusiki.

Jaso ditugun bikote batzuk ipiniko ditugu: “Egoko erreikia/Ego erreikia, Iburko erreikia/Ibur erreikia, Urkoko mendixa/Urko mendixa, Kalamuako puntia/Kalamua puntia, Mogealeko librerixia/Mogel librerixia, Txokoko sosiedadia/Txoko sosiedadia, Untzagako sinia/Untzaga sinia/sine Untzaga, Otolako kanteria/Txaltxa kanteria, Untzagako plasia/Untzaga plasia, Arraguetako kalia/Arragueta kalia, Santaiñesko ermitxia/Santaiñes ermitxia”.

Kasu batzuetan bikoteak ez dira hain sendoak: “Eibarko errixa” sistematikoki jaso dugu baina ez “Eibar errixa”, “Eibar” soila baino. Kasu markadun egituran ez du adierazi nahi Eibar barruan dagoen aparteko herriren bat, Eibar osoa baino.

<sup>179</sup> G. DE MUJICA (1990, 464-467).

<sup>180</sup> Tesi honen defentsan, P. Goenaga doktoreak adierazi zuen egitura hauek azpiko ekuazio hau dutela, *subjektua* = *predikatua*: “parrokixia = San Andres”, eta abar, eta horrelakoetan ezar daitekeela *-ko* marka.

Beste kasu batzuetan, edutezko genitiboan adierazi dugunez, hirukoteak ere sor daitezke: “Kantabriako tabernia/Kantabria tabernia/Kantabrianeko tabernia”.

Beste batzuetan, aposizio funtzio horretan bakarrik leku-denborazko kasuz jaso dugu hainbat adibidetan, gehientzuak solasaldi askekoak; adibidez: “Olarriako bentia, Isasiko erroia, Santaiñesko etxia, Jauregiko palasua, Maltza-sariko basarrixa, Naiorbeko etxia, Kamiñoko basarrixa, Otolako basarrixa, Indianoko etxia” eta abar (eta ez “Indiano etxia”, esaterako). Egitura horretan izenlaguna ere mugatzailez aurkitu dugu: “Indianokua etxia, Altamira-goikua basarrixa”.

Aurreko adibide horiek izenaren ondokoak dira, baina hainbat leku, etxe eta abarren izenek zuzenean hartzen dute kasu marka etxea edo dena delako entitatea bakarrik adierazteko, izenlagun funtziorik gabe. Gauza bera gertatzen da edutezko genitiboaren kasu marka aurretik duela<sup>181</sup>, bai izenaren ondoan: “Kiputxaneko sinia, Mantxuaneko dendia, Munikolaneko kumbua”; zein bakarrik: “Gabilondonekua, Txomiñenekua” eta abar.

Baserri-etxe izenak eratzeko sarri-sarri erabiltzen da; adibidez: “Erdikokua, Sanjuangua, Selaikua, Otolerdikua, Txaltxakua, Kantoikua, Torrekua, Barrenengua, Isasi-barrenengua, Otolakamiñokua, Makalarrokua, Kakalardokua, Tutulukua, Olaldekoa, Txarakua, Katalangua, Takillangua, Markeskua, Indianokua” eta abar. Batzuetan kasu marka gabeko izena ere erabiltzen da, bikoteak sortuz:

*ñazl* °béste ba-Káxkarrengua...

*ñazl* °gu-Kaxkárren entzun isan dou baña...

Bestetan, bikotea kasu marka soila edo edutezko genitibo tartekatuz sortzen da: “Txaltxakaua/Txaltxanekua, Kakalardokua/Kakalarduanekua”, esate baterako. Inoiz, edutezko kasu markadun aldaera jaso dugu bakarrik: “Ferranekua, Ferranengua”.

#### 1.2.6.2.24. Data adierazterakoan

Lekua adierazten duten adibideetan ez eze, denbora-data adierazterakoan ere aurkitu dugu goikoan moduko bikoteak, aposizio funtzioz: “Arrateko eguna/Arrate eguna”.

#### 1.2.6.2.25. Osterantzeko titulu, aipamenetan

Adibidez:

*kazl* °bai! bai!: Usatégiko markésak... e, bai!

---

<sup>181</sup> Azaldu dugu atal hau edutezko genitiboaren atalean; hemen adibide bakan batzuk ipiniko ditugu bakarrik.

### 1.2.6.3. ONDORIOAK

Kasu markak berak aldaera fonetiko bi ditu, zein oinarriri eransten zaion, *-ko* ala *-go*, ingurune fonikoaren ondorioz. Bestalde, leku-denborazko beste kasuekin batera dituen ezaugarriekin lotuz, beti berba bizigabeei eransten zaie, horien ezaugarriak izaki. Mugagabeen *-ta-* artizkia ezarri ala ez alternantzia handia dago, bai orokorrean bai lekuko bakoitzaren baitan, eta ez dugu argitu ahal izan zergatik izango ote den edo zein banaketa duen. Artizki horrek berorek ere aldaera fonetikoak ditu zein berbari-amaierari txertatzen zaion.

Izenlagunaren eta izenaren arteko hurrenkeria ere anitza da. Arruntena *izlag. + iz.* da. Bestean, *iz. + izlag.* hurrenkeran aukera bi daude: izenak eta izenlagunak kasu marka edo mugatzaile berak izatea; edo izena mugagabez agertzea eta kasu markak izenlagunari itsatsita.

Erabilerrari dagokionez, batzuetan izenlaguna da eta beste batzuetan adizlaguna. Izan ere, kasu marka honek aurretik beste kasu marka batzuk izan ditzake, motibatiboa izan ezik besteak<sup>182</sup>. Batzuk erabiliagoak dira (inesiboa, adlatiboa edo instrumentala aurretik duten formak, esaterako) eta beste batzuk ez hainbeste (soziatiboa, prolatiboa aurretik dutenak, adibidez). Ondoko izena isilduta edo esaldiko beste lekuren baten dagoenean izenlagunak izen horren kasu marka har dezake. *-kos /-gos* aldaera hortxe kokatuko genuke.

Ondorioz, hainbat esangura ñabardura ditu erabilera arruntean: lekuzkoa, denborazkoa, destinatiboa, edutezkoa, helburuzkoa, moduzkoa eta abar.

Erabilera bereziak ere asko ditu: eratorbide legez (izenei erantsirik oso aberatsa da —gorputzeko atalen izenei erantsirik, mina edo gaisotasuna adieraz dezake, baita arropa eta gauzak ere, kolpeak ere adierazten dira—; aditz izenei ere eransten zaie; baita aditzondoei ere); jakineko egituretan; izenondo, aditzondo eta abarren mailakatzaile gisa; postposizioen aurrekari; leku izenentan txertatuta eta abar.

### 1.2.7. Instrumentala *-(e)s*<sup>183</sup>

#### 1.2.7.1. FORMA

Eibarren kasu hau ez da sarri erabiltzen, beste leku askotan gertatzen dan legez eta erabilera urritasun horrek bultzatu gaitu amaieraka antolatutako azterketarik ez egitera, izan ere, gehienetan jakineko egiturei lotuta erabiltzen da nahiz eta ez garen ausartzen klitxetuta daudenik esaten. Edonola ere, orokortasunak

---

<sup>182</sup> Partitiboa aditzondoetan hartzen du: “bakarrikua, alperrikua” eta antzerakoetan. Errekurtsitate delata eta, leku-denborazko markak ere errepikatu egin daitezke.

<sup>183</sup> Ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k kasu hau (2001, 101-103).

azaltzeko lagin adibide lortu dugu. Eibarren ia beti mugagabez eta mugatu singularrez<sup>184</sup> erabiltzen denez, forma horien azalpena egingo dugu bakarrik. Mugagabez, amaiera bokalikoa duten berbek kasu marka zuzenean hartzen dute; amaiera kontsonantikoa dutenek loturazko *-e-* bokala txertatuz hartzen dute. Mugatu singularrez, nominatibo singularreko formei txertatzen zaie *-s* kasu marka.

Egitura batzuetan “buruas bera, linguas gañera, atzekuas aurrera, aspikuas gora” lako adibideak jaso ditugu. Zalantza izan dugu instrumentalaren forma singularra ote den ala sozietiboaren aztarna; ez dakigu ziur erantzun zuzena zein den. Edonola ere, “atekos aurrera” forma ere jaso dugunez (*S.B.*-ren eta *kgg*-ren esanetan), instrumentala dela pentsa daiteke; baina “muturrekiñ aurrera” ere jaso diogu *raz1*-i, “anekin gora” *naz*-ri eta “auakin gora” *nme2*-ri adibidez, orokorrigo diren “muturres aurrera”, “ankas gora”, “aos gora”-ren ondoan. *f.a.*-ri berriz, “biarras gañera” jaso diogu “onegas/orregas gañera” formen ondoan.

Aditzei txertatutakoan (bai aditz izenei bai partizipioei) egitura batzuetan forma mugatua hartzen dute: “etortzias bat”, “gastatzias gañera”, “errekauak eiñas”, “naixas eiñ” eta abar; mugagabe egiturak ere aurki daitezkeen arren: “ise-tes”, “illundus juan” eta abar.

#### 1.2.7.2.1. “Zerez” galderari erantzuten

—Gorputzeko atalei erantsita, modua ere adierazten du: “eskus, burus, belarris” eta abar:

*rae* °bai!, ta illúntzixam-beixek e, beixek e jatxí! eskús!

*kaz3* °... eskus bórdatzen ...

*kaz2* °pélotan ... báterombat ikustem-baebam-pélotan, béra sartu bie-san! <*kag6* eta *kgg* barrez> .. éskus, e? ...

—Gaia, materia ere adierazten du osterantzeko izenetan “eiñ, sikindu, busti, bete” gisako aditzekin erabiltzen da batez ere (sozietiboa ere sarri erabiltzen den arren, baina hori aurrerago ikusiko dugu):

*nme2* karnaseixa baténn · normála da ... errópak odol- odoles eittia

*naz* karniserixa baten eee, erropak e odoles · mantxatzia · normala da

*naz* ebagí bat ein ddo-taa esku gustia odoles bete jata

*raz* °danáá sértu eitxen dósu-ta!... .. apúrres eitxen dósu ta bénga! · kalían! ála! · jan kalían!

*raz6* “... Hola pozutxo bat euan han Eluxko [¿] da jauzte naiz da nere soiñeko barrixori dana morteroz ...”

<sup>184</sup> “Buruas bera” egiturakoa instrumental singularizat hartzen badugu, noski. Ikus beheratxoagoko iruzkina.

*naz* daná · arítzes eindda dao

*naz* daná burdiñás indda dao

*kmz*3 “... ekan alkondaria dana sagardauaz e busti-busti eiñda, da, itxuran juatia-  
rren, beste alkondara bat, bateronbatek ekarri ...” <ez dakigu ziur instrumentaltzat  
hartu, ala soziationbotzat>

#### 1.2.7.2.2. “Zertaz” galderari erantzuten

Horren erantzun zuzenik, instrumental kasu markaz<sup>185</sup>, ez dugu jaso *kgg*-renak baino. Lekuko horren euskarazko alfabetizazio maila handiaren eragina lirateke “sétas diardúsu?”, “nitas”, “onetas, orretas, aretas”, “gisonas” eta antzerako adibideak, beti ere lekuko horren ahotan bakarrik jaso dugula kontuan izanda. Eibarko euskara jatorraren lekukoek beste bide batzuk darabiltzate hori adierazteko: motibatibo kasu marka, soziationboa, nominatibo, edo bestelako perfrasiak.

Salbuespen bakarra postposizio batzuetan aurkitu dugu, “-s gain<sup>186</sup> /gañera /gañetik”-ren kasuan lekuko batzuek “ones gañera; orresas gañera, orres gañera; ares gañera” darabiltelako. “Gañetik” aldaera lekuko batzuek darabilte; eta *naz*-ri “orren gañes” aldaera jaso diogu, adibide bakana. Horren ondoko aldaera “orre(g)as gañera” da, soziationbo kasu markaz garbi. Beste kasu bat “gero”-ren aurrekari legez litzateke, baina ia guztiz lexikalizaturiko formak dira: “oneskero, arreskero”.

#### 1.2.7.2.3. Postposizio batzuen aurreko osagaietan

Hauetan, besteak beste: “-s gora, -s bera, -s kanpo(ra), -s atze(ra), -s aurre(ra), -s bete, -s gañeska, -s josi(txa), -s erre(ta), -s kero -ia zeharo lexikalizaturik-, -s gain/gañera/gañetik”:

— Aurrekaria mugagabez:

*kgg* ankas góra dao dána –*kmz* dána-ankás góra dao –*raz*1 ankás gora daos dának //ánkas gorá daos dának –*nme*2 dana-ankas gora dao –*naz* dána-ánkas gora dao <egitura ihartua dugu, “nahastuta, anabasa” esan gura duela>

*kgg* ori or dao, búrus béra –*kmz* an dao, búrus béra, piñúa eitxen –*nme*2 or dao burus béra, piñua itten –*naz* or dao, burús berá-ankekin gora dauela!, · -ee, “pino” es-taki-sela esangotém-bañá- ankas góra!

---

<sup>185</sup> Gure ondorioak indartzera datoz I. LASPIUR-en berbak: «Nortazkua edo instrumentala deitzen dana, Eibaren ez dogu esaten “*herrixaz berbetan dihardugu*” eta halakorik (...) Baiña bai, esaten dittugu, “*herriz-herri ibilli*” edo “*herriz aspertuta nago eta mendira noia*” eta holakuak» (1999b, 36). Esan, jakina, ez da egiten adibideotan idatzitako moduan.

<sup>186</sup> Guk geuk ez dugu gure lekukoengandik jaso baina I. LASPIUR-ek “lehenaz gain” postposizio egitura aurkezten du (1999, 44).



*raz* °“uu! an baéuan bedarrétan!: lurr gustía bedárres josítxa éuan!” ... “lurrá betían euan bedárra” ... bíxetara: órre-bíxok ondo esanda daos  
*rmz2* °... Eibárko sesén-plasía, · ikusítxa-dáka-ní-gáñexka jentés, · Urtáñek · da Jústto Gallástegi [sic] arrí-jasotzen jokatu ebeníam-bé!, baña gáñeska jentía betéta! ...  
*kmz* °kaprítxos e erreta gaos: álan esaten dau · tíak: “kaprítxos erreta saos!” · Gaur be-eskatu-etzat e ...

—Aurrekaria singularrean. Horrela gutxiago erabiltzen da, baina ez dira egitura arraroak nahikoa arruntak eta erabiliak baino. Adibidez:

*raz1* or dao, burúAS berá  
*raz1* orí ... esátestasu lengúAS gáñetik? —*naz* tallerreko biarras gáñeti-laun- ee anayai lagundutzat

*raz1* orí esaten (?)da... lengúas gáñera? //f.a. tallarreko biarras gáñera, bere anaiari be lagúntze-tza —*nme2* ikesíxas gáñera, ónndo pasaukosu //nme2 gastátzias gáñera, irebasi be asko itten dau —*nme2* inglésas gáñera, béste idioma batzu-be badákis S.B. tallarreko biarras aparte, bere anaiari be lagutzen detza

*raz1* isardíxas blái einda dao bá!

f.a. orrek beti eitxeítxu gausak alrebes, atzekuas aurrera

f.a. dana ipurdías gora ipini dabe //f.a. aspikuas gora, buelta emoutze

*ñaz5* “Dotriñia zererako be, komuniorako be euskeraz ikasi genduan guk. Atzekuaz aurrera. Eta atzekuaz aurrera, baiña dotriñia, haxe erakutsi ondo! ... eta lehen dotriñia, dana e! Hasi atzekuaz aurrera eta aurrekuaz atzera. Eta oiñ ezer be ez ...”

*nme2* °“arnasÁs betéta etorri da” · esa- esan oi da!; da... · “Iléno dee respiración” eóó... · séa!, · arnasá-artu esínda daonian, ba (?)...-nien, “arnasEs · betéta ao”; ero bat! persóna bat ee, · agoníxan daonian e arnasá most--te-jakonían esaten da, -“ñó! arnasía béte in jako ta esta ontxe luserórako”... Baai, “arnasía béte i-jako”-osea · ee...

—Aurrekaria pluralean. Hau are eta gutxiago erabiltzen den forma da; hauek dira jaso ditugun adibideak:

*kgg* betikúes gáñera gaur beste batzuk etórriko dira baskaltzera —*nme2* betikues gáñera, gaur beste bátzuek etorriko dia —f.a. betikues gáñera beste batzu-be bada-tos gaur

—Aurrekaria erakuslea denean:

*kgg* Gabónetan eon giñan alkarrekin eta árreskero éstot e géixao ikúsi —*kmz* Gabónetan alkarrekin eon giñúan, · árreskereo- árreskero · etxúat ikusi —*raz1* árreskero estósu ikúsi ta · kítxo! —*nme2* Gabónetan alkarrekiñ eon giñán, · árreskero estot ikusi geixao —*naz* Gabonetan eon giñan alkarrekim-baña ... árreskero estot ikusi geixao

*lnaz* orrésas gáñera, daukat béste gausa bat esateko

*lnaz* ones gáñera esam-biot béste gausa bat —*naz* da orres gáñera esangouskue béste gausa bat //orres gáñeti-gáñera biarrea jueten da —*nme2* da orres gáñera, bierrea jueten da —*naz* ares gáñera esautzue-m-béste bat —*nme2* arés gañerá, béste batzuk etorri sian —*naz* da ónes gáñera badaos beste batzuk <plurala>

#### 1.2.7.2.4. “-(r)(e)n/-gaitxik *preguntas*<sup>187</sup> *ibili/egon/jardun*” erako egituran

Jakineko esangura du, frekuentatiboa hain zuzen. Adibidez:

*kmz* iré *pregúntes* eon dok //António iré *pregúntes* eon dok —*razl* suré *preúntes* eon dá —*nme2* suregátti-*pregúntes* ibili da //suré *preguntas* ibil- ibili da —*naz* sugátti-*pregúntes* egon da

*f.a.* goi one(g)áitxik *preguntas* eon dia len

#### 1.2.7.2.5. Zergatia adierazteko

Ez da usuena, baina kasu batzuetan oraindik bizirik da modu hau. Motibatiboa edo sozietiboa erabiltzen dira beste aukera moduan. Adibide batzuk:

*kmz* négar ein juen emosiños

*S.B.* sure kulpas —*f.a.* suen kulpas —*kmz* ire kúlpas e llégau nok beránu —*razl* seu-re kúlpas e léau dá beránu —*nme2* sure kúlpas -ero- sure-errús, · berandu alleau dia *naz* billurres akabatze-nao, e?

*naz* gaur tokau jaku etortzia kasualidades

*kmz11* “... Eta, ene! Negarra. Egixa da hau e! Negarra, malkua, penaz ...”

#### 1.2.7.2.6. Frekuentatiboa adierazteko

Ekintzaren bat denbora tarteren baten sarri edo etengabe egindakoa erabiltzen da batez ere; esaterako:

*razl* orí betí kejés- kéjas dao —*nme2* betí · kejás dao

*kmz* “arrantza bat” ... “néarra”: · a- arrantza, arrántzaka, mmm!, “e e, betí arrántzas dao!”

*S.B.* sure *preguntas* ibilli nais —*f.a.* suré *preguntas* ibili da —*kmz* iré *pregúntes* eon dok —*razl* sureáitti-*pregúntes* ibili dia or

*nme2* eún gustía *preúntes* pa- pasau seban

*nme2* astúak arrántzas pasa dau gau gustía

#### 1.2.7.2.7. “Zertan”, ekintza adierazteko

Ñabardura frekuentatiboa ere badu baina ez ezinbestez; “asi, ekin” aditzek erakusten dute ez duela zertan errepikakorra eta jarraikorra izan. Edonola ere, “egon, ibili” eta bestelako aditzak ere erabiltzen dira. Zenbait adibide:

*kmz* umía e · arrántzas ekí-sán —*nme2* umía · s- saátas así san —*naz* umia-asi da saátas

---

<sup>187</sup> Edonola ere, ez gaude ziur “preguntas” horren oinarriko kategoria zein den: “pregunta” ize-na balitz, -a itsatsiduna denez forma mugagabea “preguntas” litzateke; aditza balitz, ez dugu asmatzerik zein forma den, eta azken finean, beste era batera esatekotan “preguntatzen” aditz forma erabiliko litzateke.

*nme2* sua ikusi sebanian saátas así san —*razl* súa ikusi ebanian e, díarres- díarres así san  
*razl* diáárres ekíttetzau!  
*nme2* bi ordúan eon san kejátzen, · -ero- · illétas

#### 1.2.7.2.8. Adberbio eta lokuzio adberbialak sortuz

a) “Zelan”, modua adieraziz. Galderari nahiz erantzunari erants dakioko kasu marka esanahi hori lortzeko:

—Galderari erantsirik:

*nme2* sé, ser modús? —*naz* se modúss? —*kmz* °... Juanítoo! ser modúus? —*kag* °sé modús, áu? <beste idazlan batez>

—Galdera horren erantzunek osatzen dute instrumentalaren erabileraren esparru handienetarikoa bizitasunez zein frekuentziaz. Adibide batzuk ipiniko ditugu, baina testuinguru barik (errealizazio pilo handia lortu dugu baina antzua litzateke hemen denak jartzea); testuinguruak eta argitasunak zerbait bitxia aurkitu dugunean ipiniko ditugu. Forma arruntak dira: “ankas, oñes, tatarres, naras, sosius, amorrus, kontus, negarres, barres, biotzes, kasualidades, erdis-por-erdis, billurres, auspes, trabes, aldrebes, nekes, osta-ostas, kontentus, ganoras, saratas, orruas, dardaras, patxaras, logures, altus, meseres, beres, mendis, kamiños”. Badirudi aditz partizipioak forma mugatua eskatzen duela: “naixas” adibidez. Dena den, adibide ugari batu ditugun arren, bestelako bideak ere erabiltzen dira: perifrasiak, inesibo kasu marka, soziationo kasu marka, eta abar.

Aipatu berri dugun “oñes” formaren ondoan “oñas” aldaera ere jaso diogu *kaz2* lekukoari bi adibidetan eta ez dugu uste ahoskatzeko uneko “errata” denik. Ez dirudi forma singularra denik ere; loturazko bokalaren aldaera da gure ustez hipotesi zuzenena. Bestalde, berba-egitura hori nolabait ihartua dugu “oñes ikesi” moduko erabileretan: ikasitakoa oinez ibiltzea da, eta ez oinez joaterakoan beste zerbait ikasi.

Horrelako aldaera bikote gehiago ere aurkitu ditugu: “tatarres/tatarras”, lekuko batek esaldi berean forma biak ere bai<sup>188</sup>. Adibide batzuk:

*kaz2* °... Ondárruara ta!, · etxétik oñéss! · baai!, etxeti-taparra-taparra-taparra-taparra! oñes! ...

*/kaz2* °... aixe bat euuaann Ixúan! · aixé bat! · Ixúráño lélengo juan oñas ...

*naz* marraskílluak ibiltten diaa ... tatárras! tatárres!... <barrez>

“Meseres/mesedes” forma erabilera batzuetan ihartuta dago baina bestetan ez guztiz:

---

<sup>188</sup> Ikus antzerako adibide gehiago atal honetako c) ataltxoan.

*kmz3* °... eskatu éstan · da · galdu (?)iñ xakola ta mesedes eingo netzán · Lukas Alberdiñ alabíak eta ...

Izenlagun eta guztidun sintagma izan daiteke kasu marka hartzailea:

*nme2* orren errúkis bisi da <bi erataru uler daiteke. Norbaitek besteren bati errukia diola, batetik; edo norbait besteren batek dion errukiagarentik bizi dela> —*naz* uran fáltas gaos —*naz* nik estot eitten eee... esen kámbixus biarrrik, e? —*kmz6* °... d'are-sate-ban e, · éstala bardiña mendira juatia... · noberam-borondates juan da noberan afisiño sera ...

b) Hizkuntza adierazteko:

— Instrumentalez, “euskeras” eta “erderas” batez ere. Aditz askok har dezakete instrumental kasu hori osagarri legez: “eiñ, jakin, ikesi, berba eiñ, jardun, esan, preguntau, deitxu, isen, eskribidu, kantau, ipini” besteak beste. Beste aditz batzuekin ere bai:

*naz* °baña or ser daukasu érderas? —*kmz10* “Ni ez naiz lotsatzen, hamen nabill erdi euskeraz, erdi erderaz, baiña ez naiz lotsatzen”

— Bestetan nominatiboaren lekuan ere erabiltzen da:

*kaz2* °éuskeras ástu ta érderas ikasi es!

— Inesiboa adierazteko ere erabiltzen da:

*kmz1* °bai ba!: “atómikua” ta béstia ta órretxe- e ésos antes no esistán! · en kastellano! Ta berbá mordúa ba · an disionárixuan · ta éuskeras be iguala pásatzen dá! ... <“euskararen kasuan” esan gura du>

— Lekuko zaharrenek, euskara jatorrez, nominatiboa darabilte beste hizkuntza gehienetako jarduna adierazteko: “frantzes berbetan, franses be bada-kitx, franses esan estan, franses irakutsi eskuen; ingles berbetan jardun; esperanto eskribitzen, eibartar esan” esate baterako. Adibide bi ipiniko ditugu:

*kmz1* °... len pásatze-sána, lén éuskera-éuskera-éuskeras mas- errémintxei deitze-tzén. Geró etorri san ori báta-kastilláno ta béstiak e fransés da béstiak inglés da gero ákabo!, nas- nástau! ...

*kmz1* °í!, éibartár “birbíkixa” esáten dok!, eé?: ánditxik etarátakua itángok [sic] orí bé!

— Gazteek batez ere, edo euskaraz alfabetatutakoek Eibarren tradizioz erabili ez den eran darabilte; hizkuntza adierazteko, “-era” erroari erantsita sarritan, “euskera” eta “erdera” ez diren hizkuntzetarako:

*kag* °... igual · e “narrástia” igual bákarrik érdera [sic] esaten da “reptil”, porke rep-ta. Igual e finlandieras, · suomieras, · e suájilis, · dánieras · etaa · estákit, ee séltas-ass-séltas es!-, eee · estaki-sé-<<iskúntza>> rárotan esáten... ..

*kag* °orregáitxik ba ni alegindu eitze-nais .. Eske <<irudítze>>-játa, ni juatia-améndik · *jan-ju-ju-ju-ju*, estákitx! ... Naikúa eitzen dot <<batúeras>> erakústia...  
*kmz9* "... Hemeretzi urteraiñok <<antzerki>> guztiak euskeraz egitten genduazen. Gipuzkuaeraz, e! Baiña... .."  
*kkg* °ní-dákitx e, ingléses ólan dá, eta badákitx bárdin da...

c) "Noiz", denbora adierazteko:

Moduzkoekin egin dugun legez, zerrenda ekarriko dugu hona eta adibidete-gian aurki daitezke errealizazioak: "gabas/gabes, egunes, egun-argis, sasois, demporas, aures, -*go/-(e)n/-garren* aldís, -garrenes" eta abar.

Kasu marka hartzailea izen soila baino sintagma handiagoa izan daiteke:

*naz* °... Baa, Sanisídros ee, bétí jueten ga, sáno-on eskeriok, e, báskaldu ta..., pff... antxe, eúna pasau ta bueno!

"Gau/gabe/gaba" hitzari dagokionez, "gabes" eta "gabas" aldaerak aurkitu ditugu, -*a*-dun aldaera sarriago bestea baino. Aurreko atalean legez, honakoan ere bikoteak aurkitu ditugu agian loturazko bokalaren tinbre alternantziak era-ginik: "egunes/egunas, aures/aurras" eta abar.

d) Konparaketetan "*askos* + izenondo-aditzondo -*ago*" erabiltzen da, baina instrumental kasu marka bako aldaera ere bai: "askos aundixau /asko aundi-xau".

#### 1.2.7.2.9. Aditzari txertatuta

—Aditz izenei. Batzuetan egitura mugagabeak sortzen dira, "*isetes* ... izan" egituran ugarien; adibide bakarra aurkitu dugu "*isetes*" horren lekuan beste aditz bat dela "*esates* ... *da*", *nme2*-ren ahotan:

*nme2* °es!: · oiñ! ee, esátés "negúrrixa" da, · bañá · ee... "-gu-" esta ibiltzen: "néu-rrixa"

Beste egitura batzuek forma mugatua sortzen dute; postposizioetan adibi-dez "gastatzias gañera" lako ereduak sortzen dira. Beste egitura jator bat "-*s bat*" da, denbora kutsuduna: "etortzias bat" gisakoak sortzen dira. Egitura ho-rrek aldaerak ditu: "-*s bat /batian /batera*"...

—Partizipioei. Azaldu ditugu jada modua adierazteko adibideetan barrena "naixas" erako forma mugatuak adibidez. Beste adibide batzuk moduzko men-peko perpausen atalean aurki daitezke: "errekauak eiñas" eta abar; denboraz-koetan ere bai. Hori forma mugatuei dagokienean. Mugagabez ere deklinatzen dira partizipioak, gerundioa adierazteko esaterako: -*s juan*, baina forma muga-tua ere onartzen du egitura honek:

*naz* illúndus doya  
*lnme2* ugeríttuas dóya

#### 1.2.7.2.10. Egitura berezi batzuetan

— Errepikapenetan:  $-(e)n \dots -(e)s$ <sup>189</sup>. “Sarran sarres, arruan arros, otzan otzes, posan poses” erako egiturak sortzen dira. Lekuko bati, *razl*-i, “sarran sarras” aldaera jaso diogu, instrumental singularrez. Aditzek ere onartzen dute egitura hori, oso adibide gutxi jaso ditugun arren, eta eurak *S.B.*-rengandik bakarrik:

*S.B.* ibilixan ibilixas, apurtu ingo da

Egitura horren pare-parekoa “sarran sarrakin” sozietibo kasu markaduna da, eta lekukoek sarriago darabilte gainera<sup>190</sup>; aldaera gehiago ere onartzen ditu, ergatibo markaz eta inesibo markaz, adibidez:

*nme2* aríxa, ibilíxan-ibilíxak, · aaskenían apurtu in da // *nme2* txoríxak, · otzákiñ i...  
· otzan ótzak · il sittuan  
*naz* ibilixan-ibilixan<sup>191</sup> apurtu in dda

— Goikoaren tankerakoa da bibliografian aurkitu dugun adibide bat, Eibarco eserak erakusterakoan: “*Ataraizu dirua, bestela gorde biarran gordez, galduko duzu* [sic]” (J.A. ARGOITIA/N. AZKARATE/X. GEZURAGA, 1996, 65). Neure senak eta pareko adibideek beste forma bat ere iradokitzen dute: “gorde biarran gorde biarras”, baina lekukoengandik antzerako adibide bakarra jaso dugu:

*S.B.* jan biarran jan biarras, kontrako estarrira jun jakon

— Izena errepikatzen denean, lehenengoa instrumental kasu markaz eta bigarrena nominatibo mugagabez: “etxes etxe, ates ate, erris erri, mendis mendi, aures aurre” eta abar. Izen biak instrumental kasu markaz ere jaso ditugu:

*razl* Arrátetik Ondárroara mendis-méndis juate-gara  
*kmz* aurrés aurrés júntau giñúan atzó

Instrumentalaren lekuan ablatiboz ere osa daitezke pare-pareko egiturak, “etxerik etxe” erakoak<sup>192</sup>.

*naz* °iual da!: “etxes etxe” o “etxeik etxe”

Lekuko guztiek ezagutu eta erabiltzen dituzte instrumental markadun formak baina ablatibo markadunak ugariago jaso ditugu. Gainera, adibide bakarra jaso dugu inesiboa errepikatuz:

*kmz* jaixan-jáixan ibiltzeitxuk e gastíak ...

---

<sup>189</sup> Ikus edutezko genitiboaren atalean ere.

<sup>190</sup> Ikus sozietiboaren atalean.

<sup>191</sup> Zein kasu markatu ote diren ez da erraza asmatzea: lehenengo osagaiarena, analogiaz, edutezko genitiboaren marka litzateke baina ez dugu inesiboa denik zeharo baztertzan; bigarrenarena, berriz, inesiboa dela uste dugu.

<sup>192</sup> Ikus ablatiboaren atalean.

— “-s + izenondoa/aditzondoa + aditza” egitura. Adibidez:

*kmz* txapás exkaxa ok ori kotxiori -*nme2* ori kótxioi txapás, txárra, e? ... txárra ur-  
ten dau

*naz* Úntzagá, politta da, · lékus polítta

— Predikatu funtzioan adibide bakar bat aurkitu dugu:

*naz* Jesukristok ura · ardaos biurtu ebán

#### 1.2.7.2.11. Bestelako erabilerak, iritzia edo ustea adierazteko

— Batetik, “izenlaguna (pertsonazkoa) + *ustes/penzamentus/iritxis*” egitura osatutakoak. Adibidez:

*raz1* -eurixa ekim-bia-dau? eurixa im-bia-dau? ... -nere penzamentus bai //nere us-  
tes bai

— Perpausetan ere erabiltzen da: “ustes e ...”, “uste se /uste ese ...”<sup>193</sup>.

*kaz2* °... Txarláson euan · árbola bat! · arrixa daná! · árbolia, e?, ustes e arbo- · pa- ee  
pagu- pago-árbolia dalá, esta?: ba, san arriskua ...

#### 1.2.7.2.12. Instrumentalari leku-denborazko genitiboaren marka erantsirik (-*ska*)

Materiala adierazten duten izenlagunak sortzen dira. Bide hau ere oso emankorra da; honelakoak sortzen dira:

— Material objektiboa adierazirik: “egurresko, arrisko, burdiñasko, urresko, kobresko, narrusko, telasko, txokolatesko, argi-indarresko, gasolinasko, koloresko, pinturasko” eta abar luzea. Batzuetan “material” hori abstraktuagoa da eta bestelako ezaugarriak adierazten ditu: “euskerasko, gabesko, egunesko, ganorasko, premiñasko, eskusko, legesko, milagrosko” eta abar laburragoa. Adibide bat ipiniko dugu argigarri:

*naz* gaurko gastia, · gabá dauké-egunéskorako, da eguna · gabaskórako

Esaretan ere aurki ditzakegu era honetako formak:

*raz1* °... <“aberastuta”> “urré gorríska txítzak éinda dao-orf”

*nme2* °<“an be txakurrak ortotzik” galdetutakoan> bai... bai! bai-bai-bai!: bai!,  
“txorísosko katéyekin” · be bai, esan oi daa...: · “án! an... · txakúrrak, txorísosko  
katéyekinn” · béstie-...; da, “an txorísosko katéyekin da gurían · burdiñáskuak eta  
ugertúta”. Eta... baña gero béste bat e ámm-be seose txarrá esam-bidanian “ám be  
txakúrrak órtotzi-daos, e?!”

---

<sup>193</sup> Guk ez dakigu ziur nola interpretatu, aurkeztutako hiru moduak zilegi baitira.

Adibide baten edutezko genitiboarekin txandaka aurkitu dugu:

*razl* °<oheak> ... gastañÁSKUA...: · e, fásillen-fásillen apúrtzia dá · -da gatxá dá, e?- · e keix- keixIÁNA! ...

—Pertsonen ezaugarri subjektiboak adierazteko ere erabiltzen da, adibidez:

*naz* persóna ba-dá · erresóskua: esaten dabena iñ itten dau ... berbakúa —*nme1* °bai! béres! bereskúa biár!

-*kaz8* “Eta mendirako zaletasuna noiz sartu jatsun?”

-*kmz7* “óri berezku da eibartarretan ...”

—Lexikalizaturik, “andrasko” eta “gisonesco” berbetan bereziki, “emaku-meá, gizasemeá” adierazteko.

#### 1.2.7.2.13. -*ska(s)* atzizkian

Gure iritziz -*s* kasu instrumentalaren markari -*ka* atzizki frekuentatiboa erantsi zaio egitura horretan. Ere mu nahikoa mugatua du bide honek, nahiz eta sarri erabili.

Osatzen diren formak honakoak dira besteak beste: “urriskas, barreska, txintxiliska —eta aldaerak—”. Bokal sabaikariaren ondoan sabaikaritu ere sarri egiten da. “Urriskas”-en kasuan badirudi instrumental kasu marka birritan eza- rri zaiola, baina Eibarren erabiltzekotan horrela erabiltzen da.

#### 1.2.7.3. INSTRUMENTALA ORDEZKATZEKO BIDEAK

Ikusi dugu bidenabar hainbat puntutan ordezkoko bideak zeintzuk diren baina jarraian banaka aipatuko ditugu adibide batzuk ipiniaz:

##### 1.2.7.3.1. Nominatiboa

Adibidez:

*kgg* iru ordú eon gíñan berári beíra

*nme2* ásko aundíxaú

*kmz* °... orí Arjentinara juan sán, · (?)...bajatu san, · malétia-artú ta · buelta!; · daa · arjentino berbétan “txéee”... “txé” itxen!, da “Txé” ipini etzén ...

##### 1.2.7.3.2. Postposizio batzuen bitartez

Adibidez: -*n gañian/gaiñ*, -*n inguruan*, -*n goraberan*, -*n barri*, esate baterako:

*kmz* iñók e iñók etxó-nai · berba eitxia orren gáñian —*nme2* iñók estauu orren gáñiam-berbaik ítia nai —*f.a.* arén etxíam gáñian diardue bérbetan



*kmz* onén elixíonen e gaiñ · bérbetan · jardun juek · -jardun dabe  
*razl* onén asúntuam- · bárri- barrí bádakisúe? //onén asúntuom-barrí bádakasúe?  
*naz* badaki-íñok seosé ... orrén ingúruan?

### 1.2.7.3.3. Inesiboa

—Denbora oro har, eta iraupena adierazteko batez ere: bai zenbatzailez “bost urtían, bost urtetan” moduko egituretan, bai izen soilaz:

*ñaz5* “... Poliziak edozer ordutan, eta GABIAN be igual eta EGUNEZ be igual, eta ha estutzen zan ...”

—Modua adierazteko:

*kmz* °“má-raskílluak” ... narrían  
*kaz3* °bórdatzen eskuan ikasten Mákatxenian! · Isasíxan ...

—“Zertaz” adierazteko:

*kmz1* °erremíntxa-asúntuan...

—Erabilitako garraio mota adierazteko (modua ere adierazten da). Atal honetan bereizketa egin behar da, batetik, berezko instrumentala dagoelako, “trenez etorri<sup>194</sup>” adibidez. Instrumentalaren erabilera hau *kgg*-k egiten du ia beti (“bisikletas, autobuses” eta abar), baina gure ustez alfabetizazioaren eragin zuzenez da, osterantzeko lekukoengandik ez baitugu horrelakorik jaso. *kmz*-k espreski alboratzen du forma hori, eta *naz*-k onartu egiten du baina zuzenean galdetutakoan. Horrenbestez, “trenian” da erabateko Eibarko forma, eta adibide gehiago jartzeko: “autobusian, bisikletan/bisikleta gañian, motuan, kotxian, astuan/asto gañian, kaballuan/kaballo gañian” eta abar. Zehaztuz gero ere, inesi-boan: “illuntziko trenian”.

Bestetik, hori ez da nahastu behar inesi-boaren berezko esanahiarekin, garraio mota horretan gertatzen denarekin, alegia:

*kgg* gaur ló-in dot autobúsián –*kmz* gaur ló artu júat autobúsián –*razl* autobúsián  
loin dót –*nme2* autobúsián ló in dot, · lúak artu nau –*naz* o, autobúsién ló in ddot  
*raz* °... da nik ee Jabiér esáutu neban trenían ...

### 1.2.7.3.4. Soziatiboa

—Lan edo ekintza baterako erabiltzen den tresnari itsasten zaio. Zerrenda luzeetarikoa osa daiteke jaso ditugun adibide guztiak ipiniz gero; oraingoz, izen

---

<sup>194</sup> Gogoan izan behar da gramatiketan egiten duten oharra: “izenlagun horiek zehazten baditugu, modu edo dena delako horren ezaugarriak agerian jarriaz, ez da instrumentala erabiltzen (...) (82) *hamarretako trenean* itzuliko naiz” (EUSKALTZAINDIA, 1993, 485).

batzuk aipatuko ditugu: “eskobariakin, segiakin, sardiakin, mallukiakin, limiakin, kollariakin, tenedorakin, kutxilluakin, makiñiakin”. Adibide batzuk:

*kmz* bedarra e bätzen dok e eskobariákin *-razl* eskobariakim-bátzen da ... *-nme2* bedarra, eskobáriakim-bátzen da *-naz* bedarra, eskobáriakim-bátzen da *nme2* °ba txórtabarrak... · ii-biltze-sien. · Da orduan, lastúa! · fárdua, · alambriakin lotuta eote-san, · etorte-san! · -gítxi eroste-san lastua, e? · baña-arek alambrie-gordeste-sittuen · ba, ero bestela sokáá-txuekiñ, edo · báitta bigurrákiñ!: bigúrrea...

*rae* °[asaoak nola lotu] da, <eskuekin erakusten du zein keinu egiten den> rí-rra!, sirixákiñ!

*rae* °... béste-eum-batén, arríxak artu giñúsen!, arri-saparráriak!, da mántiakin tapauta · ge- <t-ri> su txikíxa siñála!, sú · titixákiñ eta · idíxen mántiakin tapauta -esaixosu Irénei!-, idíxen mántiakin tapauta ní!, <barrez> da esaten dau -“idíxak e, ártu biko ban da, idi batak artu biko ban... · sa-parrária” porke ní · idi-mántiakin tapauta · erroiaki es artzekó, su txikíxa siñéla! ...

*rae* °regliakim-bai jotuskuen guri baña lÍburuekiñ...?!

*kmz* °<sarboa> eskálluan tamáñokúa!, baña, bigótiakin. ...da dzá! tenedorakin!

*rmz* °a eoten do-katiekin lotuta-arrixai

*-rmz* °egúrra mendítzik e... ekartze-san! · paúen adárrak! · da pao-búruak!: · áre-txikítxu! · aixkóriakiñ!

*-t* ...

*-rmz* °daa trontziakiñ! Núndik?, e, mendítzik!

*-rae* °basótik!

*-t* baña etxeko basotik, es?

*-rmz* °óixe!, idíxekiñ!

*kmz* °... medálla batétik -mendíko medallak, emóteskúes bá, finalísteri!- alakó batétik etaráta, *taka-taka*... · e- eáárto, e?, kutxillo puntiakiñ einda

*rmz* °[kirtanak] tornúan! · sepílluakiñ!: eskusko sepílluakin ra-rra-rra-rra!

*razl* °... gu-plantxia itte-genduan! da ni gastia nitzanian e serákiñ! · ar- iketzákiñ!... A e, a- á plantxía ta enéé!...

—Beste proposizio batzuetan<sup>195</sup>: “-kin akordau, enamorau, gustau, astu...” erabiltzen da batez ere, edo beste bideren bat, Eibarren.

—Postposizio batzuetan ere erabiltzen da:

*nme2* mostradóra, telá meiyekim-betéta seuan

—“Zerez” esanguraz; modua ere adierazten. Adibide batzuk ipiniko ditugu eredu gisa:

*kgg* ogíxa e urunákin eitzen da *-kmz* urunákin eitzen dok ogíxa *-razl* urunákiñ éitten da ogíxa, · ta lebá- lebaduría [sic] be bai! —*nme2* ogíxa, urunákiñ eitten da *-naz* ogíxa itten da urunákin

<sup>195</sup> Ikus goian, “zertaz/zeinetaz” atalean: 1.2.7.2.2..

*nme2* °... eroo léna ebanístak eroo sertze-siena [sic] · “surgíña” éuskeras esate-akon ... bai!, ta súraikiñ eindekua, · egurráikiñ eindekue bu- e, “burdíñiakiñ indakua” ta “súráikiñ eindakua”...

*rmz5* °baaa... pla- plasía · galtzarfáikiñ indda oten dok, arrixáikiñ ...

*f.a.* °ee..., xxxxx, (?)betik ee, trembiréko bagóya betétzen ariáikiñ! ...

*kmz* °eskutúan?, · mmakaléko almásena-dákas!, egurráikin!

*kmz3* °... alkondaria ta be · dana bustixa ekasen sardandei- sárdauakiñ... · da, bustítxa ta... ...

*kmz7* °... garbansua sarrí, baña bere o-kela satixakin da bere txoriso satixakin da úrdeixakiñ!, da úrdeixakin sua itxe-enduan

—Errepikapenezko egituretan: “sarran sarrakin” erakoak<sup>196</sup>.

### 1.2.7.3.5. Motibatiboa

Eibarren “nortaz berba egin” egituraren lekuan “señegaitxik berba egin” tankerako egiturak erabiltzen dira. “Berba egin”-en lekuan beste aditz batzuk ipin daitezke: “preguntau, jardun, esan” eta abar<sup>197</sup>.

Errua adierazteko ere erabiltzen da motibatiboa, baina lekuko zaharrenen ustez gazteen erabileraren ezaugarria litzateke; lekukoen iritzia ez da okerra, jaso ditugun erantzunek ere horixe erakusten baitute: *kgg*-k motibatiboa darabil bakarrik eta *kmz*-k zuzenean galdetutakoan onartzen du; *kmz*-k barne, beste lekuko guztiek instrumentala darabilte. Motibatiboaren izenak dioenez, zergatiak azaltzen ditu baina erruak itxuraz aparteko ñabardura hartzen du.

### 1.2.7.3.6. Edutezko genitiboz osatutako egiturak: “-n/re *preguntia eiñ*”

Adibiderako:

*kmz* suré preúntia in dabe *-raz1* neré pregúntia in dábe //suré pregúntia in ... dábe *-nme2* suré preuntia in dabe *-naz* sure preuntia in ddabé

### 1.2.7.3.7. Ablatiboa

Modua adierazteko. “Telefonotik” dugu adibide garbiena; ez dugu “telefonoz” formarik jaso. Beste adibide batzuk ere badira, jakina; adibidetzat:

*nme3* °... seure toi deitxu bi-tzá-teléfonotík! —*nae* °atzó eo-nitzen Kóntxikiñ! bueno! telefonotiik! —*raz5* °... daa, médikua biar bosú, telefonotik ótz ein dda, tórriko da! ... —*raz* °... da eon giñan ordu erdi-ingurúan telefonótík, bárriketán ...

*naz* esáteutzúit biotzétik orí, e? —*nme2* biotzétik ... esáteutzut

<sup>196</sup> Ikus goraxeago.

<sup>197</sup> Ikus, dena den, motibatiboaren atalean kasu horren erabilera.

#### 1.2.7.4. ONDORIOAK

Kasu hau batez ere mugagabez erabiltzen da, egitura eta adibide batzuetan singularra ere erabiltzen den arren. Pluralaren erabilera oso-oso urria da. Kasu markaren formak soziatiboko *-(g)as* kasu markarekin nahasteko bidea ematen du.

Ez da kasu oso erabilia baina jakineko esangurez sistematikoki hautatzen dira instrumental formak: “zerez” galderaren erantzunak eratzerakoan; modua, zergatia, errua, frekuentatiboa, ekintza, hizkuntza, denbora adierazterakoan besteak beste. Beste egitura batzuetan ere agertzen da: postposizioen aurrekarietan, jakineko egituretan (konparaketetan, errepikapenetan, ustea adierazteko perifrasietan eta abar), atzizki “konposatuetan” (*-sko*, *-ska(s)*) esate baterako.

Edonola ere, beste kasu eta egitura batzuk instrumentalaren lekua hartzen doaz: nominatiboa, inesiboa, soziatiboa, ablatiboa, motibatiboa; postposizio batzuk eta jakineko egitura batzuk beste bide batzuen artean.

Bestalde, alfabetizatuen eta gazteen bitartez orain arte ezagutu ez diren formak sartzen daude Eibarko euskarari.

#### 1.2.8. Soziatiboa *-(r)(e)kin /-(e)(g)as*

##### 1.2.8.1. ALDERDI FORMALA

Mendebaldeko euskalkiaren eremu handian soziatibo kasu marka bakarri *-gas/-kas* da; gipuzkeran, berriz, *-kin* bakarrik (aldaerak aldaera kasu bakoitzean, jakina)<sup>198</sup>. Eibarren berriz, bietatik da zerbait: *-kin* kasu markaren kasuan, “zerbait” baino gehiago sarrien erabiltzen dena delako alde nabarmenez; *-gas/-kas* bikoteari dagokionez, lehenengoa da bakarrik eibartar peto batzuen altxorrekoa, guk behintzat ez dugu pluralerako *-kas* aldaera hori jaso sistematikoki. Adibide bakarrean jaso diogu *f.a.* lekukoari “ónegas” forma plurala, baina berari ere piskat arrotza egiten zaio, “ónegas” ere jarraian baitio baina “ónekin” erabiliagotzat joaz. Horrekin adierazi nahi duguna hauxe da, lekuko guztiek darabiltela *-kin* marka, baina horietatik batzuek bakarrik *-gas* marka.

Erabilera aldetik mugatuagoa denez, oraingoan *-gas* kasu marka darabilten lekuko profila aipatuko dugu. Guk jaso ditugun erabiltzaileen artean lekuko hauek ditugu<sup>199</sup>: *kmz*, *raz1*, *nme2*, *nme3*, *kmz3*, *kaz5*, *ñaz4*, *kmz7*, *f.a.* Denetatik,

---

<sup>198</sup> Gai hau ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001; 103-105, 105-107).

<sup>199</sup> Azterketa lana amaitutakoan lortu dugu Udaletik beste transkribaketa txorta bat baina ez ditugu guztiak sistematikoki aztertu. Gure lekukotzat hartu behar bagenu, *kmz15* litzateke Angel Albizuri, 80 urte inguruko kaletarra. Bada lekuko horrek ere sarri darabil *-(g)as* kasu marka soziatiborako, *-kin* baino asko ere sarriago. Horrek garbiago erakusten du kasu marka hori bereziki lekuko zaharrek darabiltela, eta batez ere kalekoek, gizezkoek.

*kmz* da sarrien darabilena kasu marka hori kategoria gramatikal gehienetan txertatuta: izenetan, izenordainetan, erakusleetan, birritako erakusleetan, zenbatzaileetan...; *kmz7*-k ere sarri darabil kasu marka hori, guk gehientsuak pluraleko adibideetan jaso dizkiogun arren. “Onegas/orregas/aregas gañera” postposizio egituran oso errotuta dago marka hori, marka horren bestelako adibiderik jaso ez dizkiegun lekukoek ere eskuarki baitarabilte (*f.a.*-k eta *nme2*-k, esaterako).

Aipatu berri ditugun kasu marka biek dituzte aldaerak:

— *-kin* kasu markaren hurrengo soinua zein den aldaera ezberdinak izango ditu. Kate mintzatuko amaiera-amaieran bada, edo etena badu, edo ondoko berbaren hasierako soinua bokalikoa bada, kontsonantea sabaikaritu egiten da gehienetan; kontsonante ezpainkariaren aurrean asimilatuz *-n* > *-m* bihurtzen da automatikoki.

Gure lekukoen esanetan nahikoa sarri jaso dugun beste aldaera bat ere bada, bokal artean gelditutako kontsonante hurbilkaria galdurik, hain zuzen, emaitza “-bokala + *in*” egitura dela (“bisikletiaín” adibidez). Lehenengo pausoa bokal artean kontsonante leherkaria ahostuntzea litzateke, hurrengoa hurbilkari-zatzea eta azkenengoa, galtzea; ondorioz, bokal elkarketek emaitza anitz izan ditzakete. *raz1*-ek eta *nme2*-k sarri darabilte forma hori, beste lekuko batzuen ahotan ere jaso dugun arren (*rmz*, *rmz5*, *kaz3*, *kmz6*).

Lekuko batzuei amaierako kontsonanterik gabeko aldaera ere jaso diegu (*-ki*): “gureki” izenordaina *raz* lekukoari, “ireki” izenordaina *nme2*-ri, “bateki” zenbakia *rmz*-ri. Adibidez:

*raz* °... da Maltzáraño etortze-sian tren batían guréki ta gero ... —*nme2* iréki jum-biko juou [sic] —*rmz* °dááno-maistra bateki!

Horiek dira gure ustez aldaera nabarmenenak, ahoskatzerakoan aldaera fonetikoak errealizazio beste diren arren, noski.

— *-gas* kasu markak, berriz, bere hasieran du aldaera nabarmenen iturri nagusia. Beti bokal artean gertatzen denez, kontsonante ahostuna galtzeko joera ia erabatekoa da; areago, deklinatutako hitzaren amaierako bokala eta kasu markakoak elkartutakoan asimilazioak eta soilketak gertatzen direnez ia erabat erabiltzen den aldaera nagusia *-(a)s* da, *-gas* osoa ere jaso dugun arren. Horretan datza hainbeste egilek aipatzen duten instrumental kasu markaren eta soziati-boarenaren arteko formazko neutralizazio edo berdinketa.

Mugagabeen eta mugatu singularrean kasu marka nominatiboko oinarriei txertatzen zaie, kontsonantez amaitutako berbetan mugagabeen loturazko bokala tartean dela. Mugatu pluralean berriz, mugatzaileak bestelako forma hartzen du, *-e-kin* *l-e(g)as*<sup>200</sup> eginez.

---

<sup>200</sup> Pluraleko ezaugarriak datiboaren atalean azaldutakoak dira.

Soziatiboa eratzeko izenordainetan batez ere edutezko genitiboaren kasu marka txertatzen da aurretik. Deklinabide arruntean oso-oso gutxitan aurkitu ditugu horrelako adibideak, baina hurrengo atalean aipatuko dugu zehatz.

#### 1.2.8.1.1. Mugagabea

##### Soziatibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan: <i>alabakin //alabaas; etxekin //etxeas; txikikin //txikias; astokin //astoas; katukin //katuas; gastaikin //gastaias</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillekin //mutilleas; egurrekin //egurreas</i>
---

Jaso dugun forma bitxiena “kuixekin” izan da, *razl* lekukoari. Galdekizunaz lortutako erantzuna denez, ziur dakigu “con ocho conejos de indias” esan gura duela eta forma mugagabea eman zigula (eta ez “con los ocho conejos de indias”).

“Gau/gabe/gaba” berbari dagozkion aldaerak hauek dira: “gaukin /gabakin”.

Edutezko genitiboaren marka txertatuta dutela aurkitu ditugun adibideak (izenordainak aparte) zenbatzaileenak dira, baina zenbatzaile zehaztuak deklinabide mugagabea zehazki: “laurekin, birekin”. Ez dira baina, forma bakarrak: “laukin” eta “bikin /bias” ere antzera baten erabiltzen dira maiztasunez. “Lau”-ren kasuan lekuko gehienek “laukin” darabilten artean “bi”-ren kasuan “birekin” da aldaera erabiliena.

Kontsonantez amaitutako berbek *-e-* loturazko bokalaren bitartez hartzen dute kasu marka: “ospelekin, mutillekin, sagarrekin /ollaorreas”. Formaz, itxuraz mugatu pluralarekin neutralizatu egiten da, sinkretismoz, baina azentua lekuz aldatzen da; eredu haxe da: “ospelékín, sagarrékin” mugagabez eta “ospélekin, sagárrekin” mugatu pluralez. Beti ez dira azentuazio eredu horiek betetzen eta inguruak eta pragmatikak argitu behar dute zein forma den. Azentuz bereizketa ezaren adibidetzat:

*naz* edoseim-persona fñnekin gústora biarra itten da (mugagaberako)

*naz* ori dao téla fñnekiñ eindda (mugatu pluralerako)

Loturazko bokalaren baitan aurkitu dugu aldaera bat, *-e-/a-* alternantzia dela bide: “lau aritxakin”, *razl* lekukoaren ahotan<sup>201</sup>.

*-gas* aldaera darabiltenen eredurako oharra egin beharrean gaude. Kontsonantez amaitutako berbek loturazko bokala hartu egiten dute, eta *\*-rre(g)as > -rreas* da, adibidez, emaitza. Harritu egiten gaitu emaitzan hiaton dauden bokalen artean disimilaziorik ez gertatzea (“oneas > \*onias” ez egitea, alegia), *\*atea > atia*-n gertatzen den bezala, edo “*ia* (kom. “ea”)), *paseatzera/pasiatzera*” modukoak

<sup>201</sup> Ikus instrumentalaren atalean “oñes/oñas” bikoteaz esan dena.

ikusirik. Ziurrenik jatorri fonetiko-lexiko ezberdinarengatik ez dute berdin jotzen: forma bata kasu marka den artean (-*ega*-tik sortutakoa) bestea lexiko mailakoa da. Dena den, lexikoan disimilazio hori ez da erabatekoa, “paseatze-ra” ere esan egiten delako, baina deklinabidean salbuespena da horrelako erreallizazioa. Hemen eginiko oharrak pluralerako ere balio du, formak neutralizatu egiten baitira loturazko bokala eta plural ezaugarria tinbre batekoak izatera.

### 1.2.8.1.2. Mugatu singularrean

#### Soziatibo mugatu singularra: eredurako

Amaiera bokalikoetan: <i>alabiakin //alabia(a)s; etxiakin //etxia(a)s; txikixakin //txikixa(a)s; astuakin //astua(a)s; katuakin //katua(a)s; gastaiaquin //gastaia(a)s</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillakin //mutilla(a)s; egurrakin //egurra(a)s</i>
---

Orokorrean, goian aipatutako bidetik sortutako formak jaso ditugu, edozein aldaera erabilia ere: “astuakin”, “paluz”. Bitxikeriarik ez da falta izan hala ere; “sure alabakiñ” jaso diogu *nme2* lekukoari, baina ez dugu uste Eibarko forma jatorizat jo daitekeenik, kanpoko eraginez sortutakoa baino (bilobaren eskolako ikasketak eta abar); gainera, lekuko horri jarraian “neskiakin” forma jaso diogu. Antzerako aldaera da *kmz*-ren “arrautzaas” (“arrautzias” espero zitekeen), baina hemen ahoskatzeko uneko aldaera dirudi: “uruNA ta arrautzaas” da ingurunea.

“Gau/gabe/gaba” berbari dagozkion aldaerak hauek dira: “gauakin /gabakin”.

### 1.2.8.1.3. Mugatu pluralean

#### Soziatibo mugatu plurala: eredurako

Amaiera bokalikoetan: <i>alabekin //alabeas; etxiekin //etxieas; txikixekin //txikixeas; astuekin //astueas; katuekin //katueas; gastaiekin //gastaieas</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillekin //mutilleas; egurrekin //egurreas</i>
---

Datiboaren atalean azaldutako plural ezaugarrien aldaera guztiak jaso ditugun adibideetan bete egiten dira. Zerbait aipatzekotan, kasu marka bikotearen inguruan egin behar, oinarriari txertatzeko modua bat den arren, jakina. Adibide bat ipiniko dugu eredu bien erakusgarri:

*kmz7* “... nésken etxéra juate zian gure gurasuak, NOBIXUEKIN ez, eh!, LAGU-NEAZ ...”

“Gau/gabe/gaba” berbaren adibide plural bakarra jaso dugu: “gábekin”, *kgg*-ren ahotan.

“Lau” zenbakia ere aldatu egiten da izenordaina den ala izena den. Lehenengo kasuan “laurekin” da forma nagusia eta bigarreanean “lauekin”.

### 1.2.8.2. ERABILERA

Aipatu ditugu jada berezitasun batzuk instrumentalaren atalean batez ere. Jarraian beste batzuk ipiniko ditugu:

#### 1.2.8.2.1. Kidetasuna adierazteko

Hauxe da sozietiboaren erabilera arruntena; adibidez:

*razl* °... oiñ! be- ántxitxiketan kalera be juam-biar astuakiñ! áálako baten, *tíngili* ta *tángala!*, kantinflora-*tírrin-tárran-tírri-tárta* buéltaka ta... ..

*nme2* °Ma- Maridolóres!: · Maitere Santágedakiñ! <santaren irudia ekartzan>: néujum-bikot e, an ipinttekó!

#### 1.2.8.2.2. Zergatia adierazteko

Ez dirudi motibatibo kasu marka beti jar daitekeenik bere lekuan, baina kausazko esangura garbia du hainbat adibidetan. Zergatia fisikoa zein abstraktua izan daiteke: zaratak, tenperatura, eguraldia, gaixotasunak-gaitzak, kolpeak, erabilera, ezaugarri fisiologikoak, pisua, indarra; arazoak, pertsonen izaera ezaugarriak, giza joerak, jarrerak, zaletasunak, esanak, eta abar. Ikus adibide batzuk:

*nme2* esnatu nais txakur-SÁUNKIAKIÑ -ero- tx- txakúrta-saunka in dabeLAKO

*nme2* egósi biot! · beruakiñ

*nme2* txoríxak, otzákiñ akabau sien

*naz* umé bat il dda e, menijítisakiñ

*naz* moskórran-moskorrákiñ esin san iblí <barrez>

*rmz* °[enkortxadora] ibillixan-ibillixakin, puntakua lijertu biarrian trabau im-bier ete da ba?

*kmz* °... potolía bá! · ura báseka e, itxóta urtengo séban umiak! aimbéste urékin!

*kaz2* °irúgarren katía! · ekam-pixuakin katiak apurtu itxe-sestasen ...

*razl* dának negar éiben · emosíñuakin -*nme2* emosíñuakin dána-négar inn-tzében -*naz* dána-negar ei-ben eee... · posákiñ! -*S.B.* emosíñuakin negar batian asi sian

danak -*kgg* emosíñuakin e négarres asi síran

*naz* súde-saran gaistuekíñ, ési-leike iñora be juen

*razl* orrékin dakau burukomiñáá...!

*rae* °... ke neu-p’eneba-nai-iseten eskola júteik!: · es e ni kastigatze-niñuelako billurrám-billurrám-billurrákiñ! · porke-es kastigua!, jent- bestee gustia-bárre-eitxe-ben! búrla itxe-ben! · etaa ésam-politxa iseten!

*f.a.* orí askó sufritzen dao gausa orrékin, estakitx e bueltarik emóngotzan orrék



### 1.2.8.2.3. Modua adierazteko: “zelan”

Goiko atalean moduan, adieraz daitekeena ugaria da, bai konkretua bai subjektiboa; egoerak zein jarrerak zein ezaugarri fisiko eta pertsonalak adieraz daitezke kasu maka hau erabiliz. Adibide batzuk ipiniko ditugu zein tankerako egiturak diren jakiteko:

*raz1* °... -“mutúrrekin daok, e? -mutúllak- í! nóbixia mutúrrekin daok, e?”...  
*nme2* etórteko aixiakiñ eon di bañá, esti asaldú  
*naz* olan ikusi ttaa, umore txarrakin jarte-naix, · jénixo txarrakin jarte-naix  
*raz1* °es! eskábadoría es!, sapáltzekúa. Úi! eún gustían (?)eiaj!: burúko tóntuakiñ  
eote-naix orrékiñ!, buenóóó!  
*nme2* Máiteree · otz- otzíkierikin dao  
*naz* °... gáñea makaláldixaki-nabill, estaki-seatti-nabíllen, makaláldixaki-nabil neu,  
bai!  
*kmz* °... dirétaménte: “aspikúekin es nabill”, ero “min- minpeko- mínpekuak · etxi-  
txúat esáten, · nik e · égixak esátetzus [sic]”  
*kmz3* °... o- ólaxen dálakuan!, · dakan importansiakiñ! keixapian! umiekin dda,  
árrautzekiñ!, árrautzeekin dda, txorixak eta... ..

*naz* “orí da · Samigélgo elixía: Agínakooo [sic] Samigélgo elixía”: · °óndo dao-orre-  
kiñ? <“horrela” esan gura du, noski>  
*kmz12* “... Baekan zelan bizi dendiakin ...”  
*nme2* °“onék etxionek” ero, · “etxe onék” · “onétxek etxione”-pañó létra gitxiaokiñ  
esan dot ee..., · sinifikaua berdiña dauká  
*nme2* °... léénnao ... ee ordúan jaboirik étzan! · etzanían, sutako-autzakiñ · etaa ..  
ee, koipiakiñ! ero seakiñ! sébuakiñ! Da géro! sutéko-autzákin da geró erremúa!:  
erremú-orríxak eta... · erropía ...  
*naz* °nai dosu esniákiñ?: epéla! ála!, naikua berotzeko ...  
*raz4* °... sopak <barrez>, bi!, sópak eta..., gáñera · a- bátzutan irugárrena bé, · baa  
arrósa!, <barrez> a- arros- arrosa ipiñí, txorixuakin daa... (?)salda gosuakin, da  
géro, ollua ta geroo · geroo... .. esto arráña be baai! ...  
*rmz* °[garia] arrotzákim-baña gero a mákiñiakin garbitze-san!: mákiñia-garbitze-jo-géro!  
· aixiakiñ, ri-ri-ri txa ...  
*raz* °óíbaa! beirátu gaur séma-sortijakin datórren guré neskía! ... éénebá!  
*kmz* °baai!, ofisiña-aundíxa ...: bakotxa bere máí aundixákin!; · dibújoko máixa taa  
ostiángo · pupítria  
*kmz* °<baloia> ... *iiiiiiúp!*, · efétuakiñ!  
*rmz2* °... “Érmu” · isenakin jokatzé-juan da ...  
*kaz1* °... iyében ... betí kondesfñuakin · amábi · néska · sartu seixtiala · mónja · ee  
doté barik, bañá · korúkuak ...

*raz1* °órrek e barrúan, kárselan eondakúa-día pená-de-muértiakin-dá!...  
*raz5* °... -“Bítor!, bajatu saítxe · burdixakiñ”: se llebó tóda-las patatas ... <ez dugu  
uste gurdia kide edo laguntzat har daitekeenik, nahiz eta subjektua eta gurdia batera  
joango ziren>  
*f.a.* °ee, an ee, kárrí Riojatik oná-ardaua e, kaballuekin da...

*rmz2* °... ákordatze-atak · Donósti aldéra juate-sitxúan órrek · apostúak eta eiñ dda,  
 · óllarrékiñ ...  
*rmz* °... -“ántxe-eom-bá páre bat ee... ordúan ero, · neuk esan arté” ó, ta-á-ántxe! ·  
 líburuakiñ eo séosekiñ: Amáya bai! ...  
*kmz* °... baña kásia be politxa da · dauan lékuan, e? · Esskopétiakin juan da · esko-  
 petiakin buelta...  
*kmz* °gabás argixakin eotiana da-ala?  
*kmz1* °gaixóri-be bai! · da-aspirínekin bolsílluan da (?)... <barrez>  
*kgg* °orii g- gaur ikási dot suree- · suree nótekin <barrez> “kale-ósteria” eró? ...  
*kaz2* °... áre-pe afaltzen euasen Txómiñenian. Da-árek euasen filarmónikiakiñ... ...  
*rmz5* °... átzea buelta-artu ta · pásau im-biok á, átziakim-pásau!

#### 1.2.8.2.4. Nolakotasuna adierazteko, “zelako”-ren galderei erantzun zuzenak

“Zelan” esanguraz baino gutxiagotan erabiltzen da. Zenbait adibide:

-t sarbua selakua da?

-*kmz* °eskálluan tamáñokúa!, baña, bigótiakin. ...

*raz5* °“...d’antxe dao súndako moduko · iru kuártotxokin dda sukáldia ta, · polí-  
 txa!” ...

*rae* °siríxa espesiala isete-san, ee?, <atzamarrarekin erakusten du> kee- kakútxua-  
 kiñ olan!, kl!, kakutxuakiñ!: arek artuu-tze-ban an garixa ta tak! ...

*rmz* °áskaua- áska-pa serráuak!: tapiain [sic] serrauta!, tapía sabaldu ta, beíxa!

*kmz* °gú-gastétan, dibújuan · ontxe- oontxé bestakitx eingo neukían!, · súbi sar bat  
 eta basárrixakin da bátakin da... · sómbreauta gáñera!

*nme2* °... erriéla, · sulodúna san oingóó · bosdúrokuann... · bañó aundíxaua · bas-  
 tante: oingóó · dúruan tamáño ingurukúa, erdíxan suluakiñ erriéla!

*rmz2* °... Eibár esáutu najúam-ba nik e sei ba-mílla-abitántekiñ ...

*kaz6* “... Orduan Eibarrera bildurra zeken etortzeko (...) buztanekin ziala ta adarre-  
 kin, Eibarkuak ... da bentanatik eta: «Ene ba! Baiña eztake adarrak eta buztanik be  
 eztake! ... “

*kaz3* °polítxaa-Arrasolaa!: politxa! básarrixa ta · péora-aunndí bat! kolumpiue-  
 kiñ! ...

#### 1.2.8.2.5. Denbora adierazteko

Eibarren sozietiboa ez da erabiltzen beste hizkera batzuetarako aipatzen den denbora esanguraz orokorrean, “*ostegunarekin ezkondu zen*” (EUSKAL-TZAINDIA, 1993, 482) gisakorik ez baitugu arrunki jaso. Adibide bakarra jaso diogu *rae* lekukoari:

*rae* °egunokin asko asi dia piparrak

Denbora alderdiak sozietibo kasu markaz Eibarren beste ñabardura batzuk hartzen ditu guk jasotako adibideetan. “Noiz” galderaren erantzunak izan dai-

tezke baina zehaztasuna adinaren aldetik, eguraldi fenomenoen aldetik eta abar dator. Adibiderako:

*raz* °... amalau-urtéKIN orduAN umiak gñian ... —*raz* *I* “esa-jeskue [sic] ík · eu-dakixala”: ... °fa! orrek e seose ikesi-itten dot!, · laroetabost u- larotabost urtékiñ!, je-je-je-jéééé <barrez> enééé... —*naz* °<barrez> neu... neu ontxé!, laróei urtékiñ!, <barre algarak> eskolan, je-je... jésu... —*rmz* °saspí urtekiñ ekñ... · juan giñuasen gu · eskólaa... —*kaz*2 °... amasapi-illebetekim-berba itxe-ban · gaur neuk itxen dotem-baño-obeto ··· berbá!, amasaspi-illebetekiñ, e? ...

*naz* Pédro-gau gustia ... surrúnkan -°sus! asmaukou démporiakiñ!- <“denboraren joanean”> —*rmz*5 °... démporiakiñ íñ igual ingoitue órre-gausok átzera e? ...

*nme*2 °Uxúe, barrún eoti orduan aiixé aundixakiñ obé-estáá? —*kmz* °ké ba! beruákin be ondo- ondo- ondo- ondó urtetzen dau! <eguraldiaz dihardu>

#### 1.2.8.2.6. Berdeklinazioa

Leku-denborazko genitiboaren marka erants dakioke. Solasaldi askez nahiz galdekizunez bapatean ez dugu lortu horrelakorik orokorrean: *nme*2-ri “gurekingua” forma jaso diogu eta *naz*-k zuzenean galdetutakoan onartzen du. Beste lekuko batzuek ez dute onartu ere egiten, *kmz*-k kasu. Bibliografian aurkitu ditugu horrelako forma batzuk, Eibarkoak:

“*Basatzia eta lokatzia dira lur edo bustiñakinguak: kakatzia usteltzerako gauzenkingua [sic]*”<sup>202</sup>, “*Emoixozu bizixo-bedarrekingo ura*” (J.A. ARGOTIA/N. AZKARATE/X. GEZURAGA; 1996, 63), “*Aren errebezkadia, askon esku-miakingua baño obia*” (T. ETXEBARRIA, 1986, 327).

#### 1.2.8.2.7. Komuntaduraz

Aditz batzuek soziation kasua eskatzen dute, sarritan instrumental kasu markaren zein inesiboaren lekuan<sup>203</sup>. Era honetako egiturak dira: “-kin akordau, -kin astu, -kin enamorau/tontotu/txoratu/gustau... —*kin enamorauta egon* aldaera da gehien erabiltzen dena -, -kin eiñ, -kin txokau, -kin arduratu, -kin interesau, -kin enterau/argitxu/aklarau, -kin sustau, -kin + *aditzondo* + ibili/egon, -kin + *izenondo* + isen, -kin pentzau, -kin akostumbrau, -kin konformau, -kin kontu euki, -kin entendidu, -kin trasia euki, -kin kumplidu, -kin ekin, -kin komprometidu, -kin konfundidu, -kin aspertu/aburridu” eta abar. Zenbait adibide:

*kaz*2 °... ensegida! luak artu eban, · ákordau bes · amakiñ! ...

*kmz* Juan e enamorauta dao · Maríakin —*raz* *I* Juan dao enámorauta Maríakiñ —*nme*2 Juan, Maríaki-<<maiteminduta>> dao —*naz* Juan · gustauta dao Maríakiñ

<sup>202</sup> Adibidea T. ETXEBARRIA-rengandik jasotakoa da (1986, 220).

<sup>203</sup> Ikus instrumentalaren eta inesiboaren atalean ere.

*kmz* orrí olixúakiñ ixósu –*raz1* orixúakiñ eixósu –*nme2* orixúakiñ igúrtzisu orí –*naz* orí, igúrtzísú · olixúakiñ  
*kmz3* °... mordo bat · txókauta geatu sitxuan gure biarreas! ...

Goiko adibideotan instrumentalaren ordeaz erabilita dago baina Eibarren sistematikoki egiten da sozietate kasu markaz. Beste kasuren bat erabiltzekotan, motibatiboa litzateke ordezkari nagusia: *naz* “ni enaiz origatti-txokátzen”.

Aditaz batzuekin, gure ustez, egitura eta esangura bitxiak lortzen dira: “-kin jua, -kin aldatu, -kin arrimau, -kin markau, -kin amaitxu, -kin + *predikatua* + izan, -kin + *objektua* + euki, -kin + *objektua* + eĩn, -kin segidu, -kin dibididu” eta antzekoak.

Berezia da “-kin jo” egitura. Zein osagaik zein kasu marka hartu, lekukoek ere era batera baino gehiagotara darabilte esangura bakarrarekin:

*nme2* seékin jo dosu burua? //*nme2* buruakin ser jo dosu?

Lekukoaren azalpena hau da: *nme2* “<sup>o</sup>baai, eske, bai! ee... · paréta badao gel-dí ba, · parétak esaittu jo buruan!: buruakin jo dosu paréta, or e... <erdi barrez>”.

*raz1* buruakin se jo dosu? /*raz1* burua sékin jo dosu?

*nme2* lurrákim-burúa jo séban //*nme2* buruákin lúrra jo seban

*naz* °és-es-es-es, “buruakim-béya”... <barrez>: “beyákim-burua” esi-leike...

*kaz3* °... péora-aunndí bat! kolumpiuekiñ! · d’an kolumpiuan amaika e..., noix buruakiñ! · goixa jo ibiltze-nitza-ni an...

Bestelakoak:

*nme2* °... [Eibarko euskara] bein Saldibar aldera eskero eroo, Etxebárrira jutem-basá bé, · ee, aldáke- aldáketa-aunndixa itten dau ... ba! Ermúam-ba, Ermuakiññ antzéren aretxékiñ! ...

*nme2* °bai! Markíñan ee... · Markíñem-be ba... p- ee...: Markíñen sé- sé diferentzia i-tten dabe ba gurekiñ?! bérbetan!? ... a, ori askeneko lussioi! joteutze órre-Bískai-xam-betí orí askenaa lussétu pixkát!, baai... bañá, es e, dife- g- améñdi-Markiñá es-tao-orrembeste diferéntzia!

*naz* orre-se pentzatzen dau, · bera dan · ton- majadéruakin ser dalá?!

*nme4* °<ganaduez> lapúrrem-bat, ese órrek alambrok e...: · gaña aurten eitzesen ittittúrekiñ!? ...

#### 1.2.8.2.8. Jakineko egitura batzuetan

Esakerak, klitxeak, adibidez, “-kin kontus, -kin alperrik isen, -kin ibili” eta antzerakoak. Konnotazioak dira egitura berezi egiten dutenak. Esate baterako:

*raz1* °... óne-GISIONESKUOIÑ ALPERRI-DA, e?; óntxe-esatetzut, e? · nóbixua baka-su-bái! tta gg- kóntus, e?, gisioneskua da-a be-e?: · one-beti a-, beti fálda dau seoser! ero galtzía ero pañélua ero trájia ero prakía! beti fálda juek one-seoser! · (?)ñot ÓNAXEÑOK EOTE-NAI-SARRÍTTAN GISIONESKUEKIÑ!: bos gisionekiñ eonda nao ní, e?

*razl* °... gioneskuein [sic] kóntus! kóntuss!... · gisonak e ondó-ondo esám-baña · éurena im-biar! laatzem-baakue! ...

*rmz5* °ba ori kalekúori ójo! · orrekiñ, e?: orrek · kapasidadee bastante akak... bastante!

*razl* °... ené! se gerrá txakurrákiñ!

*razl* °... atíau sabáli-da dána sabáli-dakasúes alá?: óoooo...!, óoa... súekim-be jai dao! ...

*naz* °es, estao, estao iñor, Inés, e?, estao: es-es-es!, tránkil-tránkil!, estao iñor, e?; · es-es..., <txakurretaz> órrek es, orrékiñ esi-leike... <barrez>, sorúa da orí... ..

### 1.2.8.2.9. Inesiboaren ordeaz

— Kasu batzuetan aditzak eskatzen duen erregimena da, “-kin konfiansia/esperansia/segurantzia euki, -kin fijau, -kin fedia euki” eta antzerako egituretan. Lekuko denek darabilte bide hau, *kgg*-k gutxien (gure ustez, alfabetizazioaz gain, gaztelaniaren eragina legoke ez-erabiltze horretan):

*kmz* °nik aitzákin e, nekán konfiánsia

*rmz6* “... Segurantzia nekan nere gorputzakin, bai. Eta, bueno ...”

*f.a.* sékin fijau sára?

— Beste batzuetan inesiboa adierazteko modua da. Honelakoak aurkitzea piskat harritu egin gaitu, baina ez dira adibide isolatuak, lekuko bik nahikoa komunzki darabiltena baino, *f.a.*-k eta *naz*-k hain zuzen. Jarraian ipiniko ditugun adibide guztiak inesiboa lortzeko eginiko galderen erantzunak dira. Beheko forma batzuk inesiboaren kasu marka bizidunaren erabilera ezaren ondorio izan daitezke, baina beste kasuek bestelako arrazoiak behar dituzte:

*naz* <“en aquello”> d’arekim-pásau dou átzalde gustia ... [“aretan” barik] “arékiñ” obéto; nik uste dot “arekiñ” obeto, bai...

*f.a.* amén gáusekin erresoia dakasu <“en estas cosas” galdetutakoan>

*naz* ori eñ ero es eñ ... sure alabakin dao <“en tu hija” galdetutakoan>

*f.a.* ori ikusi seinke sure alabIAKIN

*f.a.* ori normala da nere alabiaKIN

### 1.2.8.2.10. Esanahi bereziak: hizketagaia adierazteko

Era honetako egiturak jaso ditugu: “-kin berba eñ, -kin berbetan egon, -kin diskutidu, -kin ibili/jardun, -kin preguntau” eta abar. Esate baterako:

-*naz* °<jarlekuak> artu! artu!: “Joxemari”... ontxe obíspuekin yaos [sic] bérbetan da... jarri! <“zerbaitez berba egin”>

-*anaz* °ee?

-*naz* °obíspuekim-bérbetan ontxé! <barrez>

*f.a.* se tela meekin preguntau dau?

### 1.2.8.2.11. Bestelako egitura eta erabileretan

Postposizioen aurrekari gisa; soziationoa errepikapenetan (“sarran sarrakin” erakoak<sup>204</sup>).

### 1.2.8.3. ONDORIOAK

Alderdi formalari dagokionez, kasu marka bikotea aipatu beharrekoa da. Batetik, *-kin* kasu marka da erabiliena, lekuko guztiek baitarabilte. Bestetik, *-(e)(g)as* kasu marka lekuko batzuek darabilte bakarrik, zaharrenek hain zuzen; horien artean, kaletarrek baserritarrek baino gehiago darabilte. Hala ere, egitura batzuetan (postposizioen aurrekari gisa esaterako) *-(g)as* markaren erabilera sistematikoa da.

Aldaerei dagokienean, batzuk fonetika sintaktikoz azal daitezke; beste batzuk, berba barruko gertakariz. *-kin* kasu markaren *-in* aldaeran ahostuntze-hurbilkarizatzegaltze bidea gertatu da itxuraz; *-ki* aldaera oso-oso gutxi erabilia da baina lekuko batek baino gehiagok darabilte. *-(g)as* kasu markan berriz, bokal arteko kontsonantea galtzea da gertakari arruntena, eta ondorioz bokal elkarretetan disimilazioak, murrizketak eta abar gertatzen dira.

Kontsonantez amaitutako berben forma mugagabeak eta pluralak berdinak dira, batzuetan azentuak ezberdintzeko balio duen arren.

Soziationo kasu markaren aurretik deklinabide arruntan ez da edutezko genitibo markarik erabiltzen, izenordainetan gertatzen ez den moduan.

Berdeklinazioa duten formak (*-kingo*) ez dira asko erabiltzen Eibarren, eta iturri idatzietan jaso dugunez, badirudi erabat galtze bidean dela.

Erabileraren alderdiari erreparatuz gero, esangura arruntenak hauek dira: kideasuna, zergatia, modua, nolakotasuna, denbora. Hainbat aditzez osatzen diren egituren erabilerak bereziagoak dira, soziationo instrumentalaren eta inebiboaren lekuan erabilia, adibidez. Esaeretan eta postposizioen aurrekarietan ere erabiltzen da.

### 1.2.9. *Motibatiboa* $(-(re^{205}/n)(g)a(i)txik/(g)a(i)ttik(an))^{206}$

#### 1.2.9.1. FORMA

Eibarren erabiltzen den aldaera nagusia *-gaitxik/-gaittik* da. Beste aldaera batzuk ere baditu, eta zenbaitetan kasu markaren zati bat dago jokoan, amaierako *-an* gehigarria izan ala ez. Eredu nagusia gehigarri hori gabekoa da erabat<sup>207</sup>;

<sup>204</sup> Ikus edutezko genitiboaren eta instrumentalaren ataletan.

<sup>205</sup> Izenordain eta erakusleen ezaugarria. Ikus azken hauei eskainitako atalean.

<sup>206</sup> Kasu hau ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001, 107-110).

<sup>207</sup> Ikus partitiboaren atalean ere, han esandakoak hemen ere balio du.

noizbait darabilten lekukoak *kmz* eta *kmz1* dira, baina adibide banatan bakarrik.

Aditzaren arloan, aditz izenek hain zuzen, kasu marka horren ondoan *-arren* ere hartzen dute, baina oraingoan ez dugu aditzaren deklinabidea zeharo jorratu.

Beste motibatibo markako aukerazko zati bat aurreko edutezko genitiboaren kasu marka litzateke. Izenordainak, erakusleak eta zenbatzaileak kontuan hartzeke (horien berri dagozkien ataletan emango baitugu), marka hori agertu egin daiteke bai mugagabeen bai mugatuen, baina erabilera nagusia genitibo kasu marka bakoa da, lekuko guztiek baitarabilte salbuespenik gabe. Izenen deklinabide arruntean guk jaso ditugun adibide guztietan genitibo marka *kgg*-k darabil bakarrik, eta genitibo markarik gabeko aldaerarekin txandaka darabil.

Beste aldaerak aldaketa fonetikoek azalduko lituzkete. Genitibo kasu markarik erabili ezean, amaiera bokalikoa duten berba guztietan eta amaiera kontsonantikoa izanez gero loturazko bokalik tartekatu ezean motibatibo kasu markako kontsonante leherkari ahostunak bokal artean gertatu eta hurbilkarizatu ondoren galtzeko joera handia du, erabatekoa ia. Ondorioz sortutako bokal el-karketek ere asimilazio-disimilazio-soilketak jasaten dituzte.

Amaierako kontsonante leherkariak zein aldaera izan ditzaken aipatu dugu bestetan ere<sup>208</sup>. Kasu marka barruko kontsonantearen inguruan ere badira aldaerak. Bokal-glide sabaikaria aurretik duenez, bustidura hiru mailatan gerta daiteke: batetik, kontsonante leherkari sabaikari izatea (*-gaittik*: *nme2* eta *naz* dira aldaera hau bereziki eta sistematikoki darabiltenak *-naz*-ri birritan jaso diogu bakarrik afrikaridun aldaera-, eta *raz1*-ek txandaka darabil beste aldaerarekin); bestetik, kontsonante afrikari sabaikari izatea (*-gaitxik*: *raz1*, *kmz*, *kgg*, *f.a.*, *kaz1*, *raz* lekukoak ditugu multzo honetan); hirugarrenik, glide sabaikaria glide legez agertu daiteke, edo bere arrastoa kontsonante sabaikarian duen eragina izan daiteke bakarrik (*-(g)attik*, *-(g)atxik*). Adibide bat jaso dugu kontsonante leherkaria sabaikaritu gabe, *naz*-ren “kaliagatik” forma baina ez da sistematikoa, ahoskatzerakoan gertatutako aldaeratzat hartu behar dela deritzogu.

Beste kasu batzuetan gertatzen den legez, kasu marka nominatiboko oinarriei txertatzen zaie mugagabeen eta mugatu singularrean, kontsonantez amaitutako berbetan mugagabeen batzuetan loturazko bokala tartean dela. Mugatu pluralean berriz, mugatzaileak bestelako forma hartzen du, *-e-gaitxik/gaittik* eginez<sup>209</sup>. Dena dela, lekuko batek, *nme2*-k, forma hau darabil ez beti baina bai zenbaitetan: *izena + mugatzaile plurala osorik + kasu marka*<sup>210</sup>. Adibidez:

---

<sup>208</sup> Ikus nominatibo pluralaren atalean adibidez.

<sup>209</sup> Amaiera bakoitzeko pluraleko ezaugarriak datiboaren atalean azaldutakoak dira.

<sup>210</sup> Gure iritziz, harremana izan dezakeen arren, ez da pentsatu behar eredu arautuaren ezagutzak bultzatu duenik lekukoa aldaera hori erabiltzera, ez baita euskaraz alfabetatua. Eibarko aldaera arruntena ere badarabil, eta ez da sekula genitibo markaduna.

*nme2* terrénuak-gáittik asarretu dia //nme2 etxeko gatuek-gaittik //nme2 or dabisen arrátóyak · gaittik · sustáu da //nme2 láuak--gáittik · etórri bier isén do-gaur //nme2 etxéko txakúrak-gáittik //nme2 preuntau dou · atzoko telá fiñak-gaittik

Ez dakigu nola interpretatu. Azpiko forma agerian dugu?, izan ere, ez dirudi berba egiterakoan eginiko zuzenketaren-osaketaren emaitza denik. Idatziz kontzienteki horrela idatzi balu argiago legoke azpiko forma dela, baina ahoz-kotasunak ez digu horrelakorik bermatzen. Singularrarekiko forma analogikoa ote da? Zelanahi dela, egitura seitan errepikatu izanak zer pentsatu ematen du; gainera, sarritan eten eta guzti egin du.

### 1.2.9.1.1. Mugagabea

#### Motibatibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alaba(g)(a)it(x/t)ik(an)</i> ( <i>alabagaitxik /alabaaitxik /alabaitxik /alaba(g)atxik //alabagaittik ...</i> )
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutille(g)a(i)txik(an) /mutilga(i)txik</i>
---

Amaiera bokalikoa duten berbetan kasu marka zuzenean itsasten zaio hizari. Arestian aipatu ditugun soilketek-murritzetek honelako formak sortzen dituzte:

*razl* sé katuátti-diskutitzen jardun dabe?

“Gau/gabe/gaba” berbari dagokion aldaera bakarra jaso diegu *kgg*-ri eta *nme2*-ri: “gaugaitxik/-gaittik”.

Kontsonantez amaitutako berbek kasu marka bi eratara hartzen dute:

—*-e-* loturazko bokalaren bitartez, adibidez: “mutillegaitxik”. Bide hau beti darabilte *kgg*-k eta *razl*-ek; *kmz*-k ere aldaera hau darabil gehienetan.

Formaz, itxuraz mugatu pluralarekin neutralizatu egiten da, sinkretismoz, baina bereizteko azentua lekuz aldatu egiten da batzuetan. Eredua hau da: “mutillégaixik” mugagabez eta “mutillégaixik” mugatu pluralez. Beti ez da eredu hori betetzen eta inguruak eta pragmatikak argitu behar dute zein forma den.

—Zuzenean hizari itsatsita, adibidez: “mutilgaittik”. Forma hau *nme2* eta *naz* lekukoek sistematikoki darabilte, beti; *kmz*-k noizbait darabil, beste aldaera baino gutxiago.

Mugagabe arruntaren ondoan beste forma bat lortu dugu: “seim beixágaitti-préuntau dábe?”, *razl* lekukoaren ahotan. Kasu honetan ez litzateke loturazko bokalik behar kasu marka eransterakoan, baina lekukoaren idiolektoan ere forma bitxia da, antzerakoa den “jaboi” berba “jaboigaitxik” egiten baitu.



### 1.2.9.1.2. Mugatu singularrean

#### Motibatibo mugatu singularra: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabia(g)(a)it(x/t)ik</i> ( <i>alabiagaitxik /alabiaaitxik /alabaiatxik /alabia(g)atxik //alabiagaittik ...</i> )
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillagaitxik /(...)</i>
--

Soziatiboan ere gertatzen den antzera, *nme2*-ren erantzun-formetariko bat sistematik aldentuta aurkitu dugu, “alabagaittik” hain zuzen, baina ez dugu uste Eibarko forma jatortzat jo daitekeenik, kanpoko eraginez sortutakoa baino; gainera, lekuko horrek “elisiagaittik” forma ere erabiltzen du.

Arestian aipatu ditugun aldaera fonetikoek lekuko baten ahotan forma oso ezberdinak jar ditzakete; esate baterako, *naz*-ren “alabaiatitik”, ia ezin murriztagoa, eta “elixiagaittik”, forma osoa. Tartekoa da “alabiaaitxik” forma. Bestelako aldaerak ere badira, esate baterako, “katúegaittik”, “anayegaittik” *naz*-ren ahotan, “mutíllegaittik” *nme2*-ren ahotan (plural formekin guztiz berdinduta).

“Gau/gabe/gaba” berbaren aldaera hauek aurkitu ditugu: “gauagaitxik /gabagaitxik”. Bigarrena da aldaera erabiliena; lehena *kgg*-ri jaso diogu bakarrik. Bien tarteko forma bitxia (zalantzaren eraginez, noski) ere aurkitu dugu, sistemaz kanpokoa jakina: “gauabagaitxik”, *kgg*-ren esanetan.

### 1.2.9.1.3. Mugatu pluralean

#### Soziatibo mugatu plurala: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabe(g)(a)it(x/t)ik</i> ( <i>alabegaitxik /alabeaitxik /alabe(g)atxik //alabegaittik ...</i> )
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillegaitxik /(...)</i>
--

Lehentxoago aipatu dugu plural ezaugarria orokorrean *-e-* dela batzuetan; eta hala da ia kasu guztietan, baina bi lekukok sistematikoki beste aldaera bat ere badarabilte, *-a-*duna. Lekuko horiek *naz* eta *nme2* dira. Adibide bat ipiniko dugu errealizazioa ezagutzeko (galdekizunez lortutako erantzunak direnez, ziur dakigu plural formak direla; azentuzioak ere hori indartu egiten du):

*naz* ni etorri naix neure alábagaittik

Lekuko horri jaso dizkiogu beste hauek: “jáixagaittik, fññagáitxik, láuraga-ttik —zenbatzailea izenordain legez—, gisónagatxik, egúnagattik”. Azken hiru formak *nme2*-k ere berdin-berdin darabiltza (“gisónagattik” egiten duen arren)

eta beste bat ere jaso diogu: “aítzagaittik”. Ezin pentsa, bada, ezaugarri arrotza denik.

Osterantzean ez dago aparteko aldaerarik (ikus, salbuespena, *-ak gaittik* aldaera motibatibo markaren formaren sarreran). Lehen aipatutako soilketa-murizketen bidetik honelakoak lortu ditugu beste aldaeren ondoan:

*nme2* ángo etxéittik asarretu dia

“Gau/gabe/gaba” hitzaren aldaera hauek aurkitu ditugu: “gaue(g)aitxik /gabengaitxik”, lehena *kmz*-ren ahotan eta bestea *kgg*-renean.

“Lau” zenbatzailea izenordaina denean “laure(n)(g)aitxik /lauragaittik” forma du; izena denean berriz, “laue(n)(g)aitxik /lauak-gaittik”.

### 1.2.9.2. ERABILERA

#### 1.2.9.2.1. Zergatiaz galdetzeko galdetzaileak eta egiturak

Batetik, galdetzaile zuzena, motibatibo kasu markaduna erabiltzen da, baina beste egitura batek leku handia jaten dio: “zer ba” formari dagokionak hain zuzen. Beste aukera bat ere badago, “zela(n)” galdetzailez egitea. Adibide batzuk ipiniko ditugu, baina erreparatu galdetzeko era bi esaldi baten bertan dagoen adibidearekin:

*-kmz1* °eske, ké-?... Bai ba!, etxátan gustáu porkee...

*-kmz* °“porke *seáitxik*”?

*-kmz1* °uaaa...

*-kmz* °“*seáitxiik*”?

*raz5* °-“SE BA, Floren?, · se ba, Floren?, SEÁTXI-PÁ?” ta, -“áste-gaittuk, geure démpora gusstiam-biarrian jóó-ta-ké!, · jáixotze-aranetik áste-gara · pitxarrakiñ uretara ero bésti ero, an, ántxintxika-además, lengo sárrak esiam-(?)pagatze-benak...”

*raz5* °... Oikínara sóyan!, da, -“i Pedró! -esan i-etzan- irékim-berba im-biarri-naok”, da, -“nerekiñ?!” da -“bai” dda, · -“se ba?, árbolen kontuak?”, · da, · -“árbolenn · a batzues- baai!, txopuak!” ...

*kmz3* °... -“Eibarren e, ontxe-esautu aitxuk · sein sein garán” -“se ba?” ta -“se ba”?!: len Larrarte-ermanos, bestia ... famósuak! famósuak!: órrek amen sartu itxuaua ... ta... · sero! · létra bat étxaixek! ...

“Se ba?” egiturak, dena den, balio gehiago ere baditu: aurkaritzakoa, indar-tzailea, esaterako; edo lagunarteko hitz-jokoak eratzeko. Adibide batzuk:

*rmz* °biéko iñ!, seai-? se ba?!

*kmz* °... gaur be-eskatu-etzat e · okelía etara dau: -“okelia?, ekarrísu e · konéjua!, saltzán ipí- [sic]”, · -“beh! su-pe, betí kaprítxuak!”: kaprítxuak...!, sé ba?, konejua está játékua-alá? · Konéjua játeko gogúa!...

*S.B.* -se ba? -a ba...

Bestelako bideak, “zela(n)” erabiliz adibidez<sup>211</sup>:

*kmz3* °... oixe · bérsuoi bóta juan · ía ssee- SÉLA ekarri dabem-beá · alako bersolá-  
rixa bertan éukitxa!, da ... <ez du moduaz galdetzen, zergatiaz baino>

#### 1.2.9.2.2. Zergatia adierazteko

Horixe da da erabilera ugariena:

*raz* °... nóbixua e-Eibárkua ei ékan-bái?, da lága ebálako nóbixua · nóbixua lága  
ebálako estáki-sé béste batéaitxik-eró, bérsuak etára! ...

*kaz10* “Bai, da tunikak, horixak gaiñera, horixkak. Grabadoriari kalian igertze ja-  
kon koloriagaitxik.”

Baina badira zergatia adierazteko beste bide batzuk ere, “ba”-ren bitartez  
esaterako:

*kaz2* °... bere andriai esa-netzan -“bixarr... es nais etorriko!” barixakuan... <*kag6*  
barrez> · -“<oso zorrotz> ééss? ser baa?” da -“BA, aistia eskontzen da ta madrínia  
nais da Donostíara noya · éurekiñ” da ...

#### 1.2.9.2.3. Zentzu kontzesiboz

Adibide bat jaso dugu, era honetara Eibarren asko erabili ez arren. Izan ere,  
adibideko esangura “eskolara beñ ero beñ igual es giñan juaten, baña jenera-  
lian biarra ein biar arren juaten giñuasen” parafraseatu daiteke:

*rmz* °báh!, [eskolara] beñ ero béñ igual bañá, jeneráliem-biarragaittik e... · j- jua-  
te-giñuasen!

#### 1.2.9.2.4. Hizketagaia adierazteko<sup>212</sup>

Honelakoak erabiltzen dira: “berbetan jardun/egon/ibili, berba egin, jardun,  
esan, motibatiboa + objektua/osagarria + esaten jardun, preguntau, pentzau” eta  
abar. Adibidez:

*kaz2* °... -“ori dala Estebanen alabia?! · txikixa?! · bal-txatxar ba-sónam-barren á!”  
nereáitxik, esta? ... <aditza isildurik>

#### 1.2.9.2.5. Jarrerak adierazteko

Inoiz subjektiboak izan daitezke:

---

<sup>211</sup> Adibide gehiago sintaxiaren atalean jaso dira, zergatizko perpausai dagokien atalean.

<sup>212</sup> Ikus instrumentalari eskainitako atalean ere.

*kmz* nereáitxi-pástela-jái! //nereáitxi-pastélak e... *-razl* nereaitxi-pastéla-líbre daos  
*-nme2* nígatti-pastéla-líbre daos *-naz* nígátti-pasténa[sic]-líbre daos  
*naz* °aurrera-aurréra! Estutza, estutza..., esta- origáttik estaukau billúrrik, <barrez>  
a-jái!, ori... trákill origáitxik, · trákill...

#### 1.2.9.2.6. Beste kasu marka batzuen lekuan<sup>213</sup>. Kurutzaketak

Hauek kurutzaketaz edo azaldu beharko lirateke. Ez dirudi guztiz sistemati-  
koa denik, baina idiolektal hutsa ere ez da, lekuko bati baino gehiagori jasotako  
adibideak baititugu:

a) Ablatiboaren ordez. Kasu honetan, *Euskal G. O.*-ean dakartzaten adibi-  
deez gaindi dago, han “Zuregandik egin dut” gisako adibideak baitituzte baka-  
rrik (I. eta E. ZUBIRI, 1995, 384), baina Eibarren besterakoak ere baditugu.  
Ematen duten azalpena, forma aldetik kasu markak antzekoak direla da (“no-  
rengatik” eta “noregandik” alegia). Eibarren honela egiten da:

— Motibatiboa ablatiboaren ordez. Adibidez:

*f.a.* ikesisu mutillagaitxik <“aprende del chico” galdetutakoan> —*naz* persona  
fimm-bagaittik ikesi leike gausá-asko  
*S.B.* bixagaitxik asitxa  
*razl* geurégatik ekíngo dabe, ero “ekíngotze”

— Ablatiboa motibatiboaren ordez. Batzuetan, bizidunen forma bizigabeei  
ezarrita erabiltzen da motibatiboa adierazteko (arrunki nahasten ez diren arren),  
bestetan, bizigabe forma zuzenean (kasu horretan homofonismoz eginiko azal-  
penak ez du balio). Adibide batzuk:

*nme2* mai orrengandik [sic], · bos milla peseta eskiñiskues —*naz* Asítxaingandik  
[sic] eon dia bérbetan

*rmz2* °... geró txínga dának berák, txíngok ártu bíxok, · *dá! dá! dá!* lélengúan da bí-  
garrenan rékorra batídu, · d'autóridádieri, *bráu!* mái gañéra botá txíngak; da geró  
bos dúro ero dúro bi eró múlta kéndu etzen. Da-ÁNDI-kabréau súan, · da, esa-júan  
· berá · Euskádin daon · bi anáiri jokátzeko prés daóla, bi anáiri, · txíngá-eruatén ...  
<jatorri ñabardura ere badu>

— Kasu bien arteko zalantzaren erakusgarri adibide hau:

*naz* ikési seinkee gausá-asko edoseim-persona fim-bat- · gándik, · -gáittik

b) Prolatiboaren lekuan. Adibidez:

*f.a.* askok artzen dabe Usarsa Santa Krusegaitxik

<sup>213</sup> Instrumentalaren ordezko erabilera ikus han.

*kaz1* °bai! ... Ba- ori · bätzuek, E- Egítza, Egíxa, egíxan eualako, estakisu? egíxan eualako · esátetzen; baña · á · géixenak esautzen dabe Otólako-kanteriaitxik

c) Beste egitura batzuen orde (postposizioak), edo aditzak eskatzen duelako:

*rmz2* °... -“e!..., baña í e, súperra-aix béstieaitxik, eta..., ik ési-eike partisipau” -“<gogor eta indarrez berba eginez> a!, ordúan súperra naixéla ta ní fuerá?!: ordúan súperrik esta biar emén?” ... <konparazioa adierazten du>

*kmz3* °... ee “Madrilgo alkatia naisela taa... au semia: onetxéndako eskopeta ba-nai <<deu>> alako ta olako ta..., · súdeaitxik e · rekómendau-uskue Madrilgo armeruak eta...” ...

#### 1.2.9.2.7. Modua adierazteko

Zenbait adibide:

*rae* °... baña bixkorren kargau burdixa geuk!, da ori Lésetakuk lau bat ibiltze-sien da gu... íru!: lau-bost, eta bésperan kargauta ta ero batúta ta itxeskuesan áurria-artzeko baña, guri ésiñ artu áurreik eseitxi-pe... <barrez> ...

#### 1.2.9.2.8. Denbora adierazteko

Adibidez:

-t ... laga itzasu erretziai?

-*kmz* °gaurkúaaaitxi-bai!

#### 1.2.9.2.9. Osterantzeko erabilerak

Ipini dugun adibidea egile batzuek gaztelenariaren eraginez azalduko lukete:

*kmz7* °... asko saltzeko, onek aristokrasiak · erosi sitxuan órre-terrénuok · utzáitxik erosi sitxuan!

#### 1.2.9.3. ONDORIOAK

Alderdi formalean kasu marka bakarra dela aipatu behar da, baina aldaera anitzekoa. Batetik, amaieran *-an* gehigarria har dezake baina hori oso-oso gutxi erabilia da, gizonetako kaletar zaharren ahotan jaso dugu bakarrik. Bestalde, kasu markaren aurretik edutezko genitibo marka ager daiteke: sistematikoa da kategoria batzuetan (izenordainetan, esate baterako), baina izenen deklinabide arruntean bigarren mailako ezaugarria da, lekuko bakar baten ahotan jaso baitugu batez ere. Aditz izenen alorrean *-arren* forma ere hartzen du.

Aldaera fonetikoak ere kontuan hartzekoak dira. Bokal arteko kontsonante galerak beste hainbat gertakarirentzat bidea lagatzen du, *-attik/-atxik* dela aldaera murrizena. Bustidura ere lau mailatan gertatzen da: sabaikarizazio eza (ja-

sotako adibide bakarrak aldaera hori sistematik at uzten du), glide sabaikaria gehi kontsonante leherkari sabaikaria (Aginagakoen edota baserrihar zaharrenen ahotan batez ere), glidea gehi afrikari sabaikaria (aldaera erabiliena), eta glide-rik gabeko guztizko sabaikarizazioa.

Bestalde, zein oinarri txertatzen zaion banaketa garbia sortzen da. Aginagakoek darabilte kasu marka loturazko ezaugarririk gabe: mugagabea, kontsonantez amaitutako berbetan zuzenean hitzari lotuta; pluralean, nominatibo pluralari zuzenean lotuta. Beste lekukoek loturazko ezaugarriak darabiltzate bai mugagabea (-e- loturazko bokala) bai pluralean (plural ezaugarrien bitartez).

Kontsonantez amaitutako berbak kasu marka hartzerakoan itxuraz berdinu egiten dira mugagabea eta mugatu pluralean, kasu marka loturazko bokalaren edo plural ezaugarrien bitartez txertatzen denean. Batzuetan azentuak bereizteko balio izaten du.

Erabilera aldetik “se(r)(g)aitxik” da galdera egiteko era arruntena baina “se(r) ba” ere oso erabilia da. Erantzunen alorrean ere beste hainbeste gertatzen da, “ba”-k hartzen du batzuetan -*gaitxik* kasu markaren balioa. “Zela(n)” ere beste bide bat da.

Zergatia adieraztea da esangura nagusia baina baditu beste batzuk ere: kontzesiboa, hizketagaia adieraztea, jarrerak adieraztea, modua, denbora, helburua.

Kurutzaketaz edo, beste kasu batzuen formekin nahastatzen da, ablatiboarekin eta prolatiboarekin batez ere. Instrumentalaren ordeaz sarri erabiltzen da. Adituz batzuek kasu hori har dezakete osagarri legez.

## 1.2.10. *Destinatiboa*<sup>214</sup> (-r)(e)ndako/-retako // -ntzat/-retzat // -ntzako/- (re)tzako)

### 1.2.10.1. FORMA

Aldaeren zerrenda ipintzerakoan pertsona izenordainen formak ere kontuan hartu dira, besteak beste. Izen arrunten deklinabidean erabiltzen direnak bikote bakoitzeko lehenengo aldaera da.

Eibarren erabiltzen den aldaera nagusia -*ndako/-retako* da baina beste aldaerak ere bizirik daude eta gutxiagotan erabili arren ezin dira baztertu azalpen honetatik. Izan ere, aldaera nagusi hori destinatiboa jaso diegun ia lekuko guztiak darabilte (hogei lekukok), *nmz*-k, *kmz14*-k —baina hori ez da esanguratsua, bakoitzari adibide bana jaso zaienez— eta *raz*-k izan ezik —lekuko horri denera hamar adibide inguru jaso zaizkio—. Edonola ere, idiolektoka aldaeren erabile

---

<sup>214</sup> Guk erabat bereizi ditugu xedezko destinatiboa, prolatiboa eta leku-denborazko genitiboaren marka hartuz sortzen diren beste formak (EUSKALTZAINDIA, 1993, 488-498). Atal honetan xedezko destinatibotzat ezagutzen dena azalduko da. Ikus beste erabilerak bai atal honetan bertan kurutzaketaz sortzen diren formak azaldu ditugulako, bai beste kasuei dagozkien ataletan ere. Ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k kasu hau (2001, 111).

ra-banaketa aldatu egiten da. *-dakol-tako* amaiera duen kasu marka gehien darabiltenen artean lekuko hauek ditugu: *kmz*, *nme2* eta *naz*. Horietatik, era berean, aldaera hori gehien darabilena *naz* da nahikoa alde handiz.

Hurrengo erabiliena den aldaera *-tzako*<sup>215</sup> amaieraduna da. Aldaera horren erabilizaile nabarmenenak *raz* eta *razl* dira, ia besterik ez baitarabilte. Honako lekuko hauek ere sarri darabilte: *nme2*-k sarri, *kmz*-k, eta *naz*-k batzuetan.

Gutxien erabiltzen den aldaera, horrenbestez, *-tzat* amaieraduna da (guk jaso ditugun adibideak kontuan izanik, bederen). Horrek ez du esan nahi erabiltzen ez denik: *kgg*-k ia beti darabil aldaera hori bakarrik. Aldaera hori darabilten beste lekukoen artean, *kmz*-k darabil gehien, eta *nme2*-k, *raz*-k, *naz*-k eta *f.a.*-k adibide bakanak eskaini dizkigute.

Beste destinatibo markako aldaera bikote batek aurreko edutezko genitiboaren kasu markan datza. Bai mugagabeen bai mugatuen, denek hartzen dute genitibo marka aurretik, baina batzuek *-n*- aldaera eta beste batzuek *-re(n)*- aldaera<sup>216</sup>. Izenordainak —“suendako” izan ezik—, erakusleak —“onendako” izan ezik—, zenbatzaileak eta galdetzaileak kontuan hartzeke horien berri dagozkien ataletan emango baitugu, genitibo marka hori *-n*- forman egiten dute lekuko gehienek. Beste aldaera oso-oso gutxitan jaso dugu eta hiru lekukori bakarrik, mugagabe forman: *kgg* da aldaera hori gehien darabilen lekukoa (alfabetizazioaren eragina dela uste dugu), eta *kmz*-k eta *razl*-ek inoiz erabili dute. Lekuko baikoitzaren adibide bana ipiniko dugu:

*kgg* eurixa óna da edosein mendiréntzat  
*kmz* sé anairéndako ekárrí dosu meriéndia?  
*razl* seim-beftntzak- seim · beiréntzako ekarri dos- ekárrí dó-bedárra? <adibide honetan, dena den, lehenengo “ahaleginean” “beintzako” forma suposa daiteke zalan-tzarik barik. Zuzentzerakoan forma osoagoa erabili du>

Orokorrean, kasu marka nola itsasten zaion oinarriari, bai mugagabeen bai mugatuen, edutezko genitiboaren atalean azaldutakoaren arabera da. Jarraian, bestelako ezaugarri aipagarriak eta salbuespenak aipatuko ditugu:

#### 1.2.10.1.1. Mugagabeen

##### Destinatibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabandako</i> / <i>alabantzat</i> / <i>alabantzako</i> ; <i>anaindako</i> / <i>anaintzat</i> / <i>anaintzako</i> // <i>anaienzako</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillendako</i> / <i>mutillandako</i>
---

<sup>215</sup> Forma hori destinatibo garbia adierazteko agertzen den adibideei gagozkie oraingoan. Bestetik da izenlagun funtzioa duen destinatibo kasu markadun izena. Hori behe-rago ikusiko dugu.

<sup>216</sup> Ikus edutezko genitiboaren mugagabe formen atalean ere.

Forma bitxi batzuk jaso ditugu. *razl*-i jaso diogu “anayéntzako” forma, baina horrek edutezko genitiboko “gastaiena” eta antzerakoak dakarzkigu gogora eta sistemaren baitakoa litzateke, bada, ezaugarri hau. Lekuko horri “kuixentzako” ere jaso diogu. Baliteke, aldaera fonetikoak aldaera, gertakari bera izatea<sup>217</sup>.

Beste honako adibide hau sistemaz kanpokoa da gure iritziz, *kmz*-ren adibide bat leku-denborazko *-ta-* mugagabe artizkia duela hain zuzen:

*kmz* ... eroseñ erritxándako

“Lau” zenbatzailearen kasuan, izenordain legez, “laurentzat/laurentzako” dira forma hedatuena, baina *nme2*-ri “laundako” jaso diogu. Banaketa hori ez da pluralean gertatzen, izenordaina-izena bereizterakoan.

Kontsonantez amaitutako berbek loturazko bokalaren bitartez hartzen dute kasu marka. Bestetan gertatzen denez, bokal hori gehienetan *-e-* da, baina alternantziak *-a-* hiru forma ere jaso dizkiogu *kmz* lekukoari eta bat *razl*-i hain zuzen<sup>218</sup>: “erosein-mutillándako” da *kmz*-ren adibideetarikoa bat.

#### 1.2.10.1.2. Mugatu singularrean

##### **Destinatibo mugatu singularra: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabiandako /alabiantzat /alabiantzako; anaiandako /anaiantzat /anaiantzako</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillandako</i>
---

Ez dugu ohiz kanpoko nabarmenik jaso. Bestetan egiten dihardugunez, “gau/gabe/gaba” hitzari dagozkion aldaerak aipatuko ditugu; hauek aurkitu ditugu: “gabiantzat/gabandako”, lehena *kgg*-ren ahotan eta bestea *nme2*-renean.

#### 1.2.10.1.3. Mugatu pluralean

##### **Destinatibo mugatu plurala: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabendako /alabentzat /alabentzako; anaiendako /anaientzat /anaientzako</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillendako</i>
---

<sup>217</sup> Ikus gainera, *razl* lekuko horrek sozietibo mugagaberako egiten duen “kuixekin”; motibatiboko “beixagatti[k]” ere antzerakoa da, guztiz berdina ez izan arren.

<sup>218</sup> Ikus esate baterako instrumental eta sozietibo kasuetan antzerako adibideak.



Formaz ezer aipatzekotan, “lau” zenbatzailearen errealizazioak aipatuko genituzke. Izenordaina denean “laurentzat /laurentzako /laurendako /laurondako” formak jaso ditugu —azken forma gradu hurbileko mugatzailez—; izena denean berriz, “laurentzat/lauendako”.

Beste kasu batzuetan egiten denez, formaz mugagabea eta plurala bat egiten dira itxura baten baina azentuak lagundu egin dezake zenbaitetan formak bereizterakoan: “txakurréndako/-tzako/-tzat” litzateke mugagaberako eredia eta “txakúrréndako” pluralerakoa. Hala eta guztiz, ez da beti betetzen, *kgg*-ri adibidez “*kgg kollár onek edosein txakúrréntza-balío dau*” adibidea jaso baitiogu, eta ez da adibide bakarra, tankera horretako gehiago ere jaso baitiogu.

## 1.2.10.2. ERABILERA

### 1.2.10.2.1. Destinatiboko subjektuaren arabera. Kurutzaketak

Deklinatutako berba pertsonazkoa edo biziduna denean ez dugu arazorik aurkitu kasu marka erabiltzerakoan, baina subjektua gauza fisikoa edo denbora zein leku gisako eremuak direnean salbuespenak eta bestelako bideak jarraitzea da arruntena, adlatibo gehi leku-denborazko markadun formak erabilia (*-rako*), destinatibo kasua ere batzuetan onartu arren.

Horren froga garbiena galdetzaileetan bertan aurki dezakegu. Pertsonaz galdetutakoan “no(re)ndako /no(re)ntzako /no(re)ntzat” nahiz “señendako /señentzako /señentzat” oso arrunki erabiltzen dira. Ohar batzuk egin behar dira baina, aurrera egin baino lehen; lehenengo galdetzailearen erabilera —dagokion atalean ikusiko denez— oso murrizta da, ezagutu lekuko guztiak ezagutzen duten arren. Bigarren galdetzailea ostera, erabili denek darabilte baina zentzu bikoitza izan dezake: batetik, pertsonaz galdetzeko, eta bestetik, gauzez galdetzeko. Galdetzaile bietan destinatibo kasu marka eransteke eta erabiltzeko ez dago arazorik, “señi” galdetzailearen kasuan gauzez galdetutakoan izan ezik. Beste galdetzaile orokorra (“zer”), berriz, izenordain denean beti gauzei dagokie, eta ez dugu jaso destinatibo kasu markadun erabilerarik, salbuespen bakarra izan ezik, *naz* lekukoaren adibide bat: *naz* “ori seréndako da?” <“¿para qué es?” galdetutakoan>. Lekuko berak eta beste guztiak komunzki darabilte “seta(ra)ko”.

a) Destino-subjektua pertsona denean edo biziduntzat hartzen denean, erabilera arrunta da. Ez dugu hemen adibiderik ipiniko. Forma horiek ez dute sekula *-rako* marka onartzen. Salbuespena landareak, zuhaitzak eta horrelakoak lirateke: “aritzandako” lortu dugu baina uste dugu “aritzerako” ere onar daitekeela beste testuinguru baten (“haritzerako, haritzean ipintzeko” litzateke, parafraseatuz).

b) Destino-subjektua gauza denean edo bizigabetzat hartzen denean, “nora-ko, noisko(ra)ko” leku-denborazko genitiboaren erabilera da destinatibo marka ordezkatzeko duen egitura nagusia.

—Bietarikoak ere jaso ditugu zenbait kasutan. Eredutzat: “elixandako /eli-xa(ta)rako, elixendako /elixetarako; kalendako /kaletarako, kaliandako /kalera-ko, etxiendako /etxetarako; errindako /erritxarako, mendixandako /mendirako, mendixendako /mendi(xeta)rako; begixandako /begirako; buruandako /burura-ko<sup>219</sup>”, galdekizuneko *item* bat bera erabiliaz<sup>220</sup>. Egitura eta esangura batzuek destinatiboaren erabilera erraztu egiten dute; “erregalua ein” erabilita, adibidez, mugatuan “elixiandako” eta “errixandako” ia erabat lortu dugu mugatuan, mugagabearen alternantzia izan arren.

Nahasketaren adibide batzuk:

*kmz* umedádia txarra da eroseiñ e etx- etxendáko  
*/raz1* umedádia eskása dá eroseiñ etxera- ... etxetárako

*kmz* umedádia txárra da etx- etxiándako  
*/naz* umedádia, etxeráko da txarrá

*raz1* orí begi- beiráko-oná dá //naz ori oná da begiráko  
*/nme2* orí begixándako-oná dá //naz ori oná da ... begixándako <azken adibide hau zuzenean galdetuta lortu genuen>

Leku izen berezietan ere alternantzia aurkitu dugu, destinatiboa ere sarri erabiltzen den arren<sup>221</sup>. Esanguratsua da lekuko batek destinatiboa leku izenetan erabiltzeaz zioena:

*f.a.* “Arratendako”? °Ufff... Arrate... Arratei estutza ardura e, ona iñ txarra iñ. Arek e, los ke no se mueben están... no les importa

Forma biak bata bestearen ondoan ere jaso ditugu:

*kmz6* “... Ba, guk frenterako eitxe itxú: txirikillák. Frenterako, frentiandako, da tronpa puntak lixua eta tartakiñak, eh! frenterako ...”  
*naz* Eibárko-ónena beti Untzágantzako, Untzágarako da

—Destinatiboa bizigabeetan ere erabiltzen da, edonola ere: “urdeixandako, ankendako, loixandako, ospelendako, erreumendako, txuletendako, pañueluandako, jaboianandako, sagarrandako, simaurrandako, tela fiñandako” eta abar. Adibide hauek lortu ditugu ez dutelako ez leku ez denbora ñabardurarik horien esangura orokorrean (nahiz eta “ankan”, esaterako, forma arrunta den, baina ez da hain arrunta “urdeixan” edo “erreuman” adibidez). Destinatiboaren “aldeko neutralizazioak” ere jaso ditugu: “para la tela fina” zein “para tela fina” galdetutakoan, lekuko guztiek “tela fiñandako” ereduaren aldaerak eman dizkigute erantzuntzat.

<sup>219</sup> Ikus *kgg*-k eginiko iruzkina beheeratxoago.

<sup>220</sup> Eibarren ez da beti betetzen gramatiketan azaltzen eta beste leku batzuetan gertatzen dena: “kasu hau (...) ez da nahasten -**rako** atzizkidun formekin, bakoitzak bere esangura duelarik” (J.A. URIARTE, 1995, 374) alegia. Batzuetan bai bereizten da argi eta garbi, baina ez beti.

<sup>221</sup> Ikus zehaztasunez dagozkien ataletan.

Badirudi kolektiboak eta entitate orokorrak pertsonatzat hartzen direla, “ejesituandako, Unibersidadiandako, Karitasendako” formak ere jaso baititugu.

—Leku-denborazko kasu markadun formak bakarrik ere jaso ditugu, nolahi ere. Adibidez, zaila egin zaigu (ezinezkoa, jaso ditugun errealizazioei bagozkie) destinatiboarentzat adibide bat topatzea “egun” hitzarekin. Izan ere, usuena “egune(ta)rako” edo antzerako forma baita. Hala eta guztiz, zeharo ezberdinak dira teorian “egunendako/egunentzat/egunentzako” eta “egunetarako”, lehenengoa baita destinatibo garbia, bigarrenak denbora zentzua duen bitartean. Adierazi dugunez, baina, ez dugu destinatibo kasu markaz adibiderik jaso; destinatibo zentzu nahikoa garbia du adibide honek: “*kgg* ori gaurko egunerako ona da” baina ez dugu destinatibo markarik lortu. Destinatiboa lortu ezin izan dugun beste adibide batzuk: “belarrirako, belarrixetarako”. “Gau/gabe/gaba”-ren erabilera nagusia ere leku-denborazko kasu markaduna da, destinatibo errealizazio batzuk jaso ditugun arren.

c) Lekukoen iritziak. Gogoeta handiena *kgg*-rengandik jaso dugu, eta abstraktutasuna, espiritualtasuna edo esangura konnotatiboak azpimarratzen ditu lekuko horrek destinatiboa erabiltzekotan; leku-denborazko genitiboak ekintzamuga-helburu praktikoago eta fisikoagoak adierazten ditu. Jaso dizkiogun iritziak hemen daude:

*kgg* “kalíendako”: “eske según se dan, es?”. Beste aukera: *kgg* “órrek fárolok polítxa-día gure kalíetarako // *kgg* séose biako da guré kalíetarako”.

Beste adibide baten: *kgg* «“buruántzat”: “ero “burúa” gausa espiritual ero... es?»», esaterako: *kgg* “buruantzat ba, irakúrtzia ero ikastia ona da buruantzat”. Beste aukera: *kgg* “sé da ona burúrako?: “kámpoti-bada // jaboia bururáko da // *kgg* peluka ori e kopiñán bururáko da”. Dena dela, aurrekoa erlatiboa da zergatik eze *kmz*-k destinatibo forma darabil *kgg*-k legez baina *nme2*-k eta *naz*-k “bururako” aukera darabilte “irekortia/leitzia” ekintzarentzat ere.

Bestalde, *kgg* «“gabiántzat”: “gabía” séose isángo bálitz, berántzat ona isángo litzáke, es? ... es jatan okurritzen gábak personalidádia euki leikianik ... “gabía” báterombat isango bálitza ero figura literario bat, es?».

#### 1.2.10.2.2. Destinatiboaren eta *-rako* markadun adibideen esangura banaketa

Goian jarri dira nahasketa gertatzen den adibide batzuk (“etxiandako/etxerako” gisakoak). Jarraian, esangura ezberdinak dituzten adibideak ipiniko ditugu, “zuzen” erabilia. Esate baterako, *kmz* “órre-kuadrúo-polítxa-día etxerako” era-koak aho batez jaso dizkiegu galdetutako lekuko guztiei, bakoitzaren idiolektoaren arabera aldatuta, jakina; eta beste esanguraz, destinatiboz, *kmz* “sú bajúa ona da · etxiándako” ere, lekuko guztiek darabilte *raz1*-ek izan ezik. Gaztelerazko “para casa” eta “para la casa”-ren banaketaren parekoa litzateke gutxi gorabehera.

Adibidez, “begixendako/begixetarako” (dena dela, bikote hori nahastean erabilia ere jaso dugu, gorago aipatu denez):

*kmz* sanaórixa-játia oná da ... beixendako  
↑ *kgg* beixetarako líkidua erosi dot

Esapideetan “leku” esangurako formak ihartuta daude:

*kgg* su bai etxerako modokúa! //su etxeráko! *-kmz* sú-bai balío dósu! · etxeráko  
*-razl* su sára etxerako morukúa [baai, óixe-esáte-san lén!] *-nme2* á etxeráko modu-  
kúa da! *-naz* su bai sará etxerako morua [sic], e?, “morukua”, e?

Goikoak leku zentzudunak dira. Berdin gertatzen da, teoriar, denborazko zentzudunekin, baina horrelakoetan destinatiboarentzat adibide egokiak aurkitzea da zailena: “egunandako” (eguna bera litzateke ekintzaren-izatearen helburu-xede), baina ez dugu adibiderik jaso, eta “egunerako” (eguna erreferente kronologikoa baino ez litzateke, hortxe legoke muga).

#### 1.2.10.2.3. Adizlaguna den ala izenlaguna den ere, nahastea sor daiteke

— Izenlaguna erabili behar denean, beti erabiltzen da *-ko*-dun forma, izenaren aurretik nahiz atzetik (baina atzetik izatekotan, izenlagun honi dagokion atalean azaldu genuen eran —aposizio itxura hartuta, “erropak aitzandakuak” litzateke, adibiderako—). Adizlaguna denean ia beti *-ntzat* aldaera darabilen *kgg*-k ere bide hau darabil, jakina:

*kgg* nun dáre aitzándako prákak? //nun dáre aitzántzako frákak? —*kmz* nun dáre aitzándako frákak? —*razl* nun dáos aitzántzako frákak? —*nme2* nun daos aittándako prákak?

— Adizlaguna erabili beharrekotan sortzen da nahastea:

*razl* orí ekárrí dot aitzántzako  
*/kmz* ekárrí dot orí aitzándako *-nme2* orí ekárrí dot aittándako  
*/naz* órí ekarri dot aitzántzat

#### 1.2.10.3. ONDORIOAK

Kasu markak berak hiru aldaera ditu izen arrunten deklinabidean, *-ndako* / *-ntzat* / *-ntzako*. Orokorrean erabiliena lehena da; erabilera frekuentzia handia du *-ntzako* aldaerak ere, eta gutxien erabiltzen dena *-ntzat* aldaera da. Izen arruntetan genitibo markaren forma nagusia *-n-* da, *-ren*-dun adibide batzuk jaso diren arren. Azken aldaera hori gehien darabilen lekukoa *kgg* denez, alfabetizazioaren ondorioz izan daitekeela dirudi lekuko horren kasuan; aldaera hori jaso zaïen beste lekuko biak zaharrak direnez, bestelako azalpena behar du. Erabileran jasotako bestelako aldaera gehienak salbuespentzat jo beharrekoak dira, aldaera fonetikoak direla eta, edo bestelako ezaugarri bitxiगतिक.

Kontsonantez amaitutako berben formak mugagabeen eta mugatu pluralean itxuraz berdinak dira baina batzuetan azentua erabiltzen da bata eta bestea bereizteko, behin betiko bidea ez den arren.

Kasu markaren erabilerari dagokionez, bizidunekin erabilera arrunta du. Arazoa bizigabeekin edo bizigabetzat hartzen direnekin sortzen da. Horrelakoe-tan destinatiboak erabili erabiltzen da baina beste forma batek lekua kentzen dio, adlatibo eta leku-denborazko markadun *-rako* formak hain zuzen. Edonola ere, forma bien alternantzia ere jaso dugu, bikoteak sortuz. Berba batzuek ez dute destinatibo kasu marka onartu ere egiten, baina, “belarri”-k, adibidez; denbora adierazten duten berbek ere orokorrean ez dute destinatibo markarik onartzen.

Badirudi, bada, *-rako*-k leku edo denbora helburuzko esangura garbiagoa duela, eta destinatiboak zehazki mintzagai den “subjektua” du xede. Lekukoen iritiz, destinatiboak bizigabeekin erabiltzekotan bizidunen ezaugarriren bat ego-tzita izan behar du.

### 1.2.11. *Prolatiboa* (-tzat/-tzako)

#### 1.2.11.1. FORMA

##### **Prolatiboa: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixatzat; etxetzat; menditzat; astotzat; katutzat; gastaitzat</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>fintzat /fjñetzat; aristzat</i>
--

Guk deklinabide kasutzat hartu dugu baina zenbaiten ustez ez da maila ho-rrerara iristen, eta aditzondoan bidetik uler daiteke, batetik, era honetara sortu-tako sintagmek ez dutelako mugatzailerik onartzen; bestetik, aditzondoei ere erants dakielako, eta azkenik, kasu marka era berezian txertatzen zaiolako oina-rriar<sup>222</sup>.

Nola txertatzen zaio bada?: zuzenean oinarriari, amaiera bokalikoaren zein kontsonantikoa badu ere. Berbarean amaieran kontsonante afrikaria badago fri-kari bihurtzen da normalean: “aristzat” adibidez.

Gainera, bai forma bai erabilera mugagabeen du soilik. Agian gutxi erabil-zen delako, batzuetan lekukoek zailtasunak izan dituzte kasu markadun adibi-deak ahoskatzerakoan. Adibidez:

---

<sup>222</sup> Informazio hori EUSKALTZAINDIA-ri hartu diogu (1993, 491). Dena dela, guk geuk ere “adi-tzondoei” ipini dugu, baina agian iturriko errata bat izan daiteke. Honela diote: “Eta harrigarriago gerta daitekeena, aditzondo soilen ere erants dakieke” (*ib.*); izan ere, izenak eta izenondo soilak age-ri dira jarri dituzten adibide guztietan, eta edonorentzat arraroak dira “ondotzat” erako formak.

*kmz* Amaña errítx- errís- errísta- ... errítzat dáuke —*naz* nik Otzintxu [sic] béti euki dot eee · erri- · errix-, errítzat

*nme2* dána-dauke María...-andrá fiñántz- · fíntzát —*kmz* ... andrá ... fiñétzat [sic] ... “fíntzát”

“Gau/gabe/gaba”-rentzat aldaera hauek aurkitu ditugu: “gautzat”, *kgg*-ren esanetan; eta “gabastzat”, *nme2*-ren esanetan.

Oinarrian, esan dugunez, izenaz-izenondoaz landako osagaiak egon daitezke, aditza ere bai:

*nme2* ni betí · artá orí · aitzá dalakotzat eo- euki dot

Kasu markaren amaierak fonetika sintaktikoz aldaera fonetikoak izan ditza-ke<sup>223</sup>.

Prolatibo markaren beste aldaera bat ere hemen aurkeztuko dugu, nahiz eta izen arrunten deklinabidean ez dugun horrelakorik jaso; aurretik edutezko genitibo marka duen aldaera hain zuzen<sup>224</sup>.

#### 1.2.11.1.1. Formaren bestelako aldaerak

Erabileran aipatuko dugu hiru balio nagusi dituela, xedezko ñabarduraduna bata, ustezkoduna beste bat eta azalpen tinkoak egiteko bestea. Jasotako adibideek erakusten dutenez, xedezko ñabardura duten formek beste prolatibo aldaera bat izan dezakete, bai *-tzat* bai *-tzako*. Ez da, baina, azken hori erabiliena. Honelakoak jaso ditugu, besteak beste:

*raz1* alabátzako · ártu dábe

*raz1* aré-gekan ee berán umetzako morúan

*nme2* amén muéstratzako b'estao aléi-pe

*raz1* morroitzako artu //“morroitzáko artú” “bai, ori álxaxé dá!

#### 1.2.11.2. ERABILERA

##### 1.2.11.2.1. Erabilera arrunta

Aditz batzuekin osatzen den predikatu osagarria: “euki, eon, artu, jo, esautu” dira guk jaso ditugun egituren ardatzak. Esaldi berezi bat ere aurkitu dugu, ez dakigu zenbaterainoko arrunta edo erabilia izan daitekeen:

*kmz* káletár-ra-pentzau dabe · betí e · txalá · béítzat

<sup>223</sup> Ikus nominatibo pluralaren atalean eginiko oharrak.

<sup>224</sup> Ikus zehazki leku izen berezien deklinabidean, erakusleen atalean eta “batzuk”-en deklinabidean. Aldaera hori ez da, baina, Eibarko berezia; ikus J. ARRETXE-k Basaurirako dakartzan “nontzat, nontzako, sentzat, sentzako” formak (1994; 93, 96 12. oh.), “Pedrontzat, Pedrontzako” formak (*aip. lib.*, 104 38. oh.) adibidez.

### 1.2.11.2.2. Prolatiboaren balioak, esangurak

— Batetik, xedezko ñabardura du, “zertarako, norako” gisakoa:

*naz* artu dabé seméztat, ésta beran semía bañá, seméztat  
*nme2* °... da imíñia, ímillauna, ° erráldiá, ° eta... ° erráldia t'arrúia, bai! ° Da, ° da ontzía!, ° ontzíaa ° ee, ° pixúztat e, ° ibíflten san lénao. ° Da nik estot esautu bañá, ° pixu móduam-be ibílte-san

— Bestetik, hizlariaren ustea, kontsiderazioa, iritzia adieraz dezake. Adibidez:

*kaz3* °... esan etzan ólantxe berak -“enéé! nerí ipini ji- -“í” sate-sam-betí- niri-ipini jestan arek arpeixa! ° itxúria! ° peligrósotza-neuana-ni!” ...

— Ustea baino esangura tinkoagoa ere badu:

*kaz1* °... Élgetako kamiñuan gáñian · gáñian · euán · Ugártek [sic] · básarrixa: “Ugartek” sera, baña Káxkarrengotzat esautze- <izen ezagun arrunta “Kaxkarren-go” zela esan nahi du>

-*kmg* °[Ipurua baserria] ta beste isem-batekiñ ero es dosu esautu?

-*kaz1* °ess! · ní-betí-Ipurúatztat esa-...

### 1.2.11.2.3. Zein beste bidez ordezkutzen den

a) Postposizioz: “izena/izenondoa/aditzondoa + *moruan* + prolatiboari dagozkion aditz “bereziak””. Adibidez: “elixa moruan, erri moruan”:

*kaz3* °e ásmu [sic] eben e séra! · kantú edér ba-berán ° iseníaan · berari da berari kántau entzan Úntzagan ° da e se kantu áundi ba-moruan dakat... —*raz1* umía txikíxa-artú ben ... etxeráko morúan //raz1 txikítxan artu ébem-ba etxe- etxéko umía morúan

b) Bestelako perifrasiaren bitartez. Perifrasiok mila modutara egin daitezke; hemen bide batzuk:

*raz1* etxerako artu ben <“alabatzat” forma lortu nahi genuen>

— “... -*la pentzau/uste isen*” eta antzerako kompletibak:

*f.a.* olua san, baña ni-pentzatzeneban garixa sala

— “Prolatibo kasu marka hartuko lukeen osagaia+mugatzailera + *dalakuan/salakuan eon/euki...*” erako egiturak:

*raz1* káletarrak ee áuki dabela · txalá bei- beixa dalakúan

*kmz* neská bát gekáun · eskólan · mutílla salakúan

*raz1* Pátxi auki dou ... moskorra · sálakuan

— Prolatibo marka aditzari txertatuz:

*nme2* nik, bisítza gustían euki díttut kúixak arratoia- ... dielakotzat

—Destinatiboz eraturako egituretan:

*kgg* Amaña erríxa da bátzuentzat

*kgg* María dánentza-da andrá fíña

c) Instrumentalaren bitartez:

*kmz* oingó gasteríxia dáka · gaua... gáua egúnas da egúnas gauás [sic]

*razl* oingó gastía-daké baa e e gabá egúnes, da egúna gábasss, · ló itten dabe bápo tá!

*naz* gaurko gastiak, · gabá dauké-egunéskorako, da eguna · gabaskórako

—Deklinatzerakoan ere horren arrastoak aurkitu ditugu:

*nme2* gaurkó gasteríxiak, · egúna GABÁS-TZA-dauká ta, · gabá egunntzat [sic]

### 1.2.11.3. ONDORIOAK

Formari dagokionez *-tzat* da aldaera bakarra, fonetika sintaktikoz gerta daitezkeenak kontuan hartzeke. Beti mugagabeen eratu eta erabiltzen da. Oinarriari zuzenean txertatzen zaio, kontsonantez amaitutakoetan loturazko bokalik gabe.

Hiru esangura nagusi ditu: xedezko ñabarduraduna, ustezkoduna eta azalpen tinkoak egitekoa. Xedezko zentzuz erabiltzen denean leku-denborazko marka har dezake amaieran, *-tzako*, baina aldaera hori ez da asko erabiltzen.

Aditz batzuekin arrunki erabiltzen da, baina kasu marka honen erabilera gutxitzen doa. Ordezkatze bide asko daude, bai postposizio bitartez, bai hainbat perifrasiaren bitartez bai instrumentalaren bitartez ere.

### 1.2.12. *Inesiboa* $-(e)(ta)n$ ; $-(e)gan$ // $-(e)n/-re(n)$ gain)<sup>225</sup>

#### 1.2.12.1. ALDERDI FORMALA

Aipatuta dago jada leku-denborazko genitiboaren atalean zeintzuk diren leku-denborazko kasuen ezaugarri orokorrak eta ez ditugu, bada, berriz errepikatuko. Han agertu denez, hainbat teoria eta hipotesi landu dira jatorrizko alegiazko formak berreraikitzeke egungo emaitzak azaldu ahal izateko. Eibarko hizkerak dituen ezaugarriak erakusten saiatuko gara. Kasu markak hauek dira:  $-(e)n^{226}/-(e)tan$  bizi-gabeentzako, oro har; eta  $-(e)(g)an$  atzizkia eta  $-n/-re(n)$  *gaiñ* postposizio egitura bizidunentzako, kurutzaketak izan daitezkeen arren.

<sup>225</sup> Ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001, 121-122).

<sup>226</sup> Kontsonante sudurkaririk gabeko errealizazioen bat ere aurkitu dugu baina ez dugu arruntzat jotzen.



### 1.2.12.1.1. Bizidunak-bizigabeak, deklinabidea

Deklinatzerakoan izen bizidunak eta bizigabeak formalki bereiztea —zein ez bereiztea, dagokionez—, leku-denborazko kasu guztietan gertatzen da, genitiboarenean izan ezik (teorian behintzat, adlatibo bukatuzkoan eta bide zuzenezkoan ere bai, errealitateak erabilera franko mugatzen duen arren), nahiz eta bitarteko formak ere sortzen diren. Lehenengo bai inesiboko bai beste kasueta-ko kurutzaketak aipatuko ditugu orokortasunei dagokienean<sup>227</sup>; eta ondoren inesiboaren bizidun-bizigabe ezaugarriak azalduko ditugu.

A) Bizidunen eta bizigabeen deklinabideko kurutzaketak leku-denborazko kasuetan.

Jarraian azalduko ditugu leku-denborazko kasu guztietako ereduak, berriz ez errepikatzeke, egiturak antzekoak direlako denetan<sup>228</sup>. Adibideak bai galdeki-zunaren bidez bai solasaldi asketik jaso ditugu, erabilera oso arruntak direnez:

a) Bizidunak bizigabe gisa deklinatuta:

—Forma mugagabeak.

Deklinabide arruntean bizigabeen ezaugarri den *-ta-* artizkia<sup>229</sup> ere sarri aurki dezakegu adibideetan:

*kmz* sé alabátan dáka-konfiánsia?

Adibide hauen parekoak darabiltzate besteak beste *kgg*-k, *razl*-ek, *f.a.*-k, *nme2*-k eta *naz*-k; ia lekuko nagusi guztiek, alegia:

*kmz* orí-ikusí eike ... erosein · semétan —*kgg* edósein anáitxan tópaú seinke konfiánsia

*kgg* sé ikúste-osu olako neska baténgan? —*kmz* sé ikusten dok alakó neská batén? —*nme2* se ikusten dosu .. olako neska báten? —*naz* se ikusten dosú olako neska baten?

*razl* seiñ anáittik ikési dosu orí? —*nme2* orí seiñ anaittétik ikesi dosu?

*razl* irú seméti-bát etorri jata

*naz* sein sorotátik ikesi dosu orí? //*naz* séñ anátatik ikesi dosu orí? //*naz* séin · kristautátik ikesi dosu orí? //*naz* sein moskorrétatik ikési dosu orí?

*naz* séñ alabátara jun sara ba?

*naz* séin léngusutaraño laúndutzue?

*naz* déndakooooo... kólia Maríaraño lleatze-san!

---

<sup>227</sup> Kasu marka bakoitzaren formazko nahiz erabilerako berezitasunak dagokien kasuaren atalean zehaztuko ditugu.

<sup>228</sup> Adibideen hurrenker a hau izango da: inesibokoak lehenengo, ablatibokoak hurrengo, adlatiboetakoak, ondorik.

<sup>229</sup> Artizki horren aldaerak zeintzuk diren jakiteko leku-denborazko genitiboaren atalean ikus daiteke. Beste ezaugarri batzuen artean, batzuetan bai eta bestetan ez erabiltzea ere aipatu dugu han.

Egitura lexikalizatueta, ondokoek “ligatu” moduko esangura dute. “Mutiletan eñ” era daitekeen arren, gure lekukoek ez dute erabiltzen:

*S.B.* andrátan eñ/ibilli/jardun/eon

*S.B.* neskátan eñ —*kmz* neskátan eixia béste gausá bá-da ...: “neskatan” e... <keinu bat egiten du, larrua jotekoa> —*raz1* mutílla-neskátan

— Forma singularrak.

Erreparatu egin behar da inesibo adibideetan “alaban” eta “alabian” formak jaso ditugula; guri arraro egiten zaizkigu, batez ere *-a* itsatsia ez balute legez deklinatutako formak. Inesiboa orokorrean hartuta guztiz asistematikoa litzateke, baina lekuko batek baino gehiagok darabiltenez agian bestera pentsatu beharra dago<sup>230</sup>. Beste adibide batzuk:

*kmz* neré alabán [sic] · konfiánsia dákat // *kmz* orí normála dok neree a- alabé- alabán [sic] // *kmz* alabían —*nme2* óri nere alabán · normála da —*naz* nere alabían oríttia, normála da

*kmz* emén sorúan, sé ikuste-dosú? —*naz* emen sorúan, se ikusten dosú?

*naz* eñ ero es eñ, emén alabianin [sic] · dao

*raz1* orrégandi-mutillátik [sic] askó ikási dot // *raz1* orreándi-neskátik urten dau

*naz* asi díá gísór orr- [sic] orréttatik

*naz* eta-asi dia ... annn... gísónetik

Singularrean da bizidun eta bizigabe formen arteko kurutzaketa gutxien gertatzen dena.

— Forma pluralak. Adibidez:

*kmz* eure sémietan daok · ori éitxia —*nme2* orí · su- e, eñ ero es eñ, suré alábetan dao —*naz* ori eñ ero es eñ, sure alábetan dao

*f.a.* ori normala da nere lengusuetan

*kmz* lagúntza iré anáietan topau éike —*nme2* sure anáyetan a- · topau seinke lagúntzia —*naz* topau seinke lagúntza [sic] seuré anáyetan —*f.a.* nere anaietan

*raz1* °baai, personia bai... -“í! orre-jakan sartaria!”... nésketan orí segurua! mutílle-gaitxik, bué...! ... —*kmz3* °... Eibar e formála isan dok · gastíetam-bintzát · f- formála! ...

*raz1* lagúnetatik —*kmz* irú semíetatik bat etorri dok —*raz1* áretxe-nésketatik urten dau —*nme2* nik órretatik asko ikesi dot —*naz* ikesi dot atzoko moskórretatik

*raz5* °... Kurúta eskondu sanian Elórretara, · esín dirúri-topau!, paríentietara t’ausuetara ta jua d’amen dánetan da, ess ba!, diruik esean dirúrik! —*raz* °... “ní-nai-xao dót amén! -pelikulak eote-sian- pelikulia ikúsi txa geroo lagúnetara urtéztia” ta ní arén fabóre betí! ... —*kmz7* “... euskeraz eñ da, ba, rusuak giñalá. Da, nun tokau akún benetan rúsuetara juatia ...” —*nme2* atzóko gisónetara jun sáitte —*raz1* aráxe nésketara góyas —*naz* ee, berán semíetara dóyas

<sup>230</sup> Hemen diogunak 1.2.12.1.3. atalerako ere balio du.

*nme2* “órretxetara” be bai tta “órrengana” be bai  
*raz1* etorri dia onáxe nésketarañok etorri da-ia [sic] —*naz* lagúndukotzú-seure alá-  
be-tarañok —*naz* suá, éuretaraño lleau da  
*naz* txakúrra, úmietarutz · juen da

Esangura bereziak dituzten egiturak, dena delako izen arrunta entitatetzat  
edo instituziotzat hartzen delako batez ere. Esate baterako:

*kmz7* “... Gerra ostian be, oindiók, neskak ein zian maestra Eibarren, mójetan ...”  
<forma hau “jator” erabiltzen da Eibarren, eta pertsona baino, entitatea adierazten  
du: “mo(n)jenian” forma litzateke beste aukera bat> —*ñaz5* “... Pixkat zahartuta  
dago baiña oiñ. Eta mojetan dago! ...”

*kmz8* “... ugezabak esan estan: “Poliziakuetatik zera dagok, deixa dagok”. Bueno,  
juan nintzan eta poliziakuetan genguazela ...”

*kmz* °káñak!, káñak lapurrétara!, · mójjetára!

*kmz7* “... Baiña, frailliak etorri zianian, Isasíra, orduan ... kále bakoitxetikan jua gi-  
ñan, zererá, Isasiko frailiatara ...”

—Tarteko formak, edo bietarakoak. Esaterako:

*raz1* SEÑÉN esperánsaTAN sáre?

*nme2* “ónetatik” eta · “ónegandik”... e, bérdiñ esa-leike //*nme2* áretatik ikesikosu  
askó -ero- árengandik, ikésikosue //*nme2* °esan leike “ónengana” be bai tta “ónetxe-  
tara” be bai ... “ónetxegana” be bai

*nme2* “ónengana” esaten dosunn létz ba, “ónen- ónetxen-tángana [sic] etorri nais”  
be bai esa-leike

—Animaliak, bietara deklinatzen dira. Lekuko batzuek bizidunen marka  
darabiltzate, *kgg*-k esate baterako. Beste lekuko batzuek, berriz, bizigabe legez  
deklinatzen dituzte, edo bietara:

*kgg* ori edosein kuírengan da normála

*nme2* sein kuígana jun-tzára?

*kgg* ori nere kuíxangan óso normála da

*naz* e txarrixannndik e geixen gustatze-atana pernilla da

*nme2* ní neuré kuíxagana nóya —*naz* ni noya neure kui- neure kuíxagana //*naz* ni  
noya neure beixágana

*kmz3* °... sartu suam-piñarira daka-daka-daka... · bajóyan ollaórraana! ...

//*kmz* orí normála dok erosein kuitxán —*nme2* orí, normala da edosein ku- edosein  
kuittán

*naz* sein kuittara jun sa játen emótera?

*nme2* kúirañok [sic] lleau da urá

*nme2* se ikusten dosu kuíxetan?

*rmz* °nárdaxa dok · idixetatik · arríra dóyana

*nme2* ní neuré kuixetara nóya —*naz* ni noyá · neure kuixetara //*naz* da, ni noyá neu-  
re béixetara —*f.a.* nere kúixETARA

—Landareak. Joera hedatuena bizigabe legez deklinatzea da, baina beste-lako adibide bat ere aurkitu dugu:

*naz* dána-joyesen árbolam-batzu- árbola bátz-uengána

—Agian lanbideek badute bizigabe legez hartzeko joera, “medikora/medikura juan” forma hedatua ikusi baino ez dago, adibidez. Bai mugagabeen bai mugatuen erabiltzen da gainera:

*nme2* á médiku ass-kótan ibili da

*naz* orí médiku asskotara juen dá

*kgg* médikORA nóya

*kgg* sé beígáitxi-juan sara médikura?

*kgg* sé kuígaitxik e juan sara beterinárixora?

*S.B.* “juesera eruan” esaten da “llebar a juicio” esateko... <bestarik litzateke epai-learengana joatea>

- Tarteko formak. Adibidez:

*f.a.* sein medikoTAGANA?

- “Medikua” bizidun legez ere jaso dugu, dena dela. Esaterako:

*kmz* datórren astían médiko- médikuana juan biakok *-razl* datórren astían-médi-kuana juam-biekosú *-naz* datórren astien médikuana juem-biekosú

—Osterantzekoak:

*kmz14* “... hórrek hartu dittuelako detalle asko ebanjelixotik, Bibliatik, handik, handik... Komeni dan guztia hartu eta Jaungoikora heltzeko, gizona jasotzeko”

b) Bizigabeak bizidun gisa deklinatuta:

—Mugagabeen. Adibiderako:

*razl* número bitx- bigándik [sic] urten dábelá

*naz* dána-juen sien kótxe gorri baténnn-gana

—Singularrean. Adibidez:

*rmz* <sup>9</sup>[pertsonek bihurria izatea] ori estao ee-eskólien gáñien!

*kmz* estálpian ... tejabánia, · eurixándik e gordetzeko ...

*razl* eulí bá-juan da g- arén gastáyana [sic] —*naz* d'ará gastáyanna bé, txindúrri ba-dator

*naz* onén <ez du garbi ahoskatzen> atzamorrozkoleana etorren · tx-x- txindúrri bat

*naz* gastáyagana eulí ba-juen da

*naz* bólia doya · bix- bixángana

*naz* bólia doya bixánn aldérutz

Bereziki “aparte” postposizioaren aurrekaria “ori” erakusle-izenordaina de-  
nean, “orre(g)andik aparte” egitura oso erabilia da:

*kmz3* °... an emoteskuesan muestrak e · gitxi gora-bera e · iualtzu eitxe-endua-  
sen! Gero-orreandik aparte daok e noberak e ...

— Pluralean. Esate baterako:

*naz* gastáyegana euli asko jueten da

— Tarteko formak, edo bietarikoak:

*nme2* -señetátik asi sára? ... -presisamente · onetxéngandik

Nahiz eta lekuko horrek geroxeago hau azaldu:

*nme2* °kajá bat ero, trástia ártzera, “one-txétatik”

B) Bizidunen inesiboko formak

— Inesiboan bereziki, zaila egin zaigu *-(e)(n)gan* bizidunen kasu marka aurkitzea. *kgg* da forma hori sistematikoki darabilen lekuko bakarra, esateko moduz, eta hori alfabetizazioaren ondorio izango litzateke, gure ustez. *nme2* lekukoak ere badarabil, baina gipuzkerako ezaugarritzat jotzen du eta naturalki bestelako bideak darabilta inesiboa adierazteko; adibide gutxitan jaso diogu forma “etimologiko” hori: adibide banakak bai erakusleen deklinabidean, bai izen arruntak deklinatzerakoan, bai zenbatzaile zehaztugabeak lantzerakoan bai galdetzaileak eta pertsona izenordainak deklinatzerakoan. *f.a.* lekukoari eta *naz*-ri adibide bina bakarrik jaso dizkiegu forma hori erabiliz; horrek esan gura du ezagutu egiten dutela, baina erabilera galduta dagoela.

*kgg*-k txandaka darabil genitibo marka<sup>231</sup> izenak deklinatzerakoan, batzuetan bai bestetan ez; *nme2*-k, jaso dizkiogun izenen adibide bietan darabil marka hori, eta *f.a.*-k genitibo markarik gabe eratu du, baina adibideetako baten era nahasian; *naz*-k izenordainetan darabilenez, genitibo marka ia derrigorra du. *ñaz3*-k aditzari itsatsita darabil kasu marka hori. Zenbait adibide:

*nme2* “señétan? señÉGAN daukasu esperántzia?” <erreparatzekoa da ez dela hori lehenengo erantzuna izan, dena dela> // *nme2* “señéngan? señén gaiñ · dao · eit- ori eittia?”. Adibideok ikusita, badirudi ez duela nahikotzat jotzen forma bakar hori, adibide bietan beste galde-era baten ondoan baitakar.

*kgg* ori eñ ero es eñ suré alabíagan dao // *kgg* ori suré alábengan ikúsi séinke  
*nme2* súde alábengan · dao // *nme2* gáusori eittia · sure gisónan-gan dao // *nme2* nik askóngan estot · gausa espesialik ikusten

*f.a.* mutilláan beráan

*f.a.* beráN mutillaGAN, berAN GORABERAN dao ori <inesiboa eratzeko modu bi daude adibide honetan: *-gan* atzizkiduna bata, eta postposizio bidezkoa bestea>

---

<sup>231</sup> Edutezko genitiboaren markak zein aldaera dituen eta erabilera kasu horri dagokion atalean azaldu dugu; beste kasu batzuetan ere aipatu dugu eta aldaeren erabilera banaketa lekukoka eta kategoriaa gutxi gorabehera gorde egiten denez, ez dugu berriz azalduko. Adibide zehaztutan ez bada, beraz, genitibo marka “-n” jarriko dugu.

*naz* eĩñ ero es eĩñ, eurégan jaok orí // *naz* iñ ero es eĩñ, surégan- surégan dao-orí

*ñaz*³ "... Bedratzi urtekin honen kriada, honen ama zanagan ..." <"etxea" esan gura du, noski>

Beste adibide nahasi bat ere jaso dugu, ez dakigu hasierako ahaleginean "-gan" atzizkia ote dagoen, ala postposizioaren errealizazio bat den:

*kmz* orí éitxia ero es eitxia ... ire léngusuagan- gáin daok

— Beste lekukoek *-k* *gg*-k, *nme2*-k, *f.a.*-k eta *naz*-k ere bai, jakina- nola egi- ten dute bada pertsona-lokatiboa adierazteko?; bide bat postposizioen bitartez da. Kasu markaren jatorria izan litekeen "gain/gan" postposizioaren bitartez, besteak beste. Postposizio horren eta jaso ditugun beste postposizio guztien aurreko izenak edutezko genitibo marka du beti<sup>232</sup>, eta horixe da bizidunen inesiboa adierazteko modu zehatzena eta orokorra Eibarren (zenbaitetan, bizigabeen deklinabiderako ere lokatibo esangura eta funtzioa hartzen du).

"Gain" postposizio horrek forma gehiago har ditzake, eta sare semantiko zabala eratzen da inesiboa adierazten duten postposizioekin; esaterako "-n gáñian" postposizioa aurrekoaren errotik eratorritakoa da. Horiek dira bide erabili- lienak: *nme2*-k, *f.a.*-k, *kmz*-k, *naz*-k eta *razl*-ek darabilte, arrunki bakoitzak behin baino gehiagotan. *f.a.*-k "-n beian" postposizioa ere erabiltzen du, agian esangura paralelismoz. Egitura berezia jaso dugu "beian" horretaz osatuta:

*razl* °... da geró béste gausá bá-dao!: ni enaix kóntra... iñon kóntra bés pork'etxata tókaten d'ésto-nai (?)regañeorik neré konsiensiam-béyan; báaña! · dáo! · buena- méntiam-biarra eĩñ ero málamentiam-biarra iñ!

*razl* °... da "éuskeria!": éuskeria b- d- daónik eta ónena éuskeria da, onáko!; baña munduan ibiltzeko és! neré- neré! neréé konsiensiam-beyán es, e? ...

*razl* lekukoarengandik jaso dugu beste egitura "bitxi" bat, postposizioeko osagaia baina aditzondo legez. Adibidea:

*razl* °bai, baña betí sasóya b'estosu eukó ta nóbixua bés da beĩñ-o-beĩñ eskondu be im-biosu taa gausá-asko dakasu andrá! gáñian! ero neská! ...

Inesiboa adierazteko erabiltzen diren beste postposizio batzuk: "-n goraberan, -n esku, -n eskuan, -n eskuetan, -n kastan, -n inguruan" eta abar.

— Inesibo biziduna adierazteko postposizioena ez da, hala eta guztiz, bide bakarra. Adibide bat jaso dugu edutezko genitiboaren markan oinarrituta. Aipatu dugu lehen ere "etxea, entitatea" adierazteko genitiboak duen erabilera ugaria; bada kasu baten pertsonaren baitako entitatea, "barruko lekua" adierazteko ere jaso dugu:

---

<sup>232</sup> Salbuespenak ere aurkitu ditugu, inesibo formak aurretik direla: *naz* "biarra eĩñ ero es eĩñ, emen léngusuan gain ddao" // *naz* "biarra eĩñ ero es eĩñ, or léngusuan gáñian dao" // *naz* "biarra iñ ero es eĩñ, an léng- an léngusuan gáñian dao".

*naz* ori eiñ ero es eiñ, sure alabIANIAN dao <ez da, jakina, alabaren etxea edo lan-  
tegia edo dena delakoa: alabaren gogo, barrua, animoa, jarrera baino>  
*naz* eiñ ero es eiñ, emén alabianin · dao

— Bizidunen inesiboa adierazteko bizigabeen forma zuzenean ere erabil-  
tzen dute lekuko batzuek, baina hori geroxeago garatuko dugu, bizidun marken  
eta bizigabeenen arteko kurutzaketak azaltzerakoan.

— Beste bide batzuk soziationaren atalean azaldu ditugu, aditzak eskatzen  
duen erregimena gehienetan soziationa delako (beste hizkera batzuetan eta gaz-  
telaniaz inesiboa erabiltzen den lekuan) “-kin konfiansia/esperansia/segurantzia  
euki, -kin fijau, -kin fedia euki” eta antzerako egituretan, esate baterako. Bide  
hau bizidunentzat ez eze, bizigabeentzat ere bada, azken hauetan alternantzia  
gertatzen den arren.

Soziationa kasuak osterantzean ere ordezkatzeko du inesiboa; hemen adibide  
batzuk:

*razl* séure alabiakiñ ikusi biar ori —*f.a.* ori ikusi seinke sure alabiakin <“alabaren-  
gan” esan gura du>

*razl* nere anáyekin laguntásuna tópaú neike

*f.a.* nere anaiekin normala da ori

— Destinatiboak ere ordezkatzeko du zenbaitetan inesiboa. Esaterako:

*f.a.* orrendako ori eitxia normala da <ez du helbururik, xederik adierazten>

— Bestelako bideak: ergatibo egiturak, datibo egiturak, eta abar. Adibidez:

*f.a.* orrek eitxia ori normala da

*razl* sé ikústetzasu orri? // *f.a.* se ikustetzasu orri mutillorri?

— Lekukoan iritziak bizidunen inesibo deklinabidearen inguruan:

*razl* \*bátzuek e- estaos errésak, e?, es pentzáu, e?

— Bizidunentzako galdetzaileak deklinatzerakoan ere, ikusi dugunez, goi-  
ko bideak jorratzen dira. *nme2* da -*gan* atzizkidun forma darabilen lekuko baka-  
rra, *kgg*-rekin batera, noski. Beste lekukoek aipatutako beste bideak aukeratu  
dituzte: postposizio bitartez, soziationa markaz...

#### 1.2.12.1.2. Mugagabeen

##### **Bizigabeen inesibo mugagabea: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixatan /elixetan //elixan; etxetan; menditxan /men- dittan; solotan; lekutan; jaitxan /jaittan //jaitxetan</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>fiñetan //fiñian</i>
---

Ikusi dugu bizidunen inesibo marka nola ezartzen eta erabiltzen den orokorean. Beraz, jarraian bizigabean forma arruntak aipatuko ditugu bakarrik.

Amaiera bokalikoa duten berbek zuzenean hartzen dute kasu marka; amaiera kontsonantikoa dutenek berriz, loturazko bokalaren bitartez.

Beste kasu batzuetan aurkitu ditugun ezaugarri bitxiak honetan ere aurkitu ditugu: *kgg*-k “jaixetan” forma baitarabil “jaitxan” formarekin batera; eta lekukoak berak formazko harremana ezartzen du “gastaiena” eta antzerako aldaerekin:

*kgg* “sé jaixétan eon sara?”: “neré amán “gastaiena” isango da ori ... bardiña da: “gastaiéna”, “jaixétan” “gastaiéna”...

Baliteke lekukoak arrazoia izatea, eta “behar-ez-den” tartekatutako loturazko bokalaren ondorioak guztiaren azalpena izatea. Izan ere, ez da jaso dugun adibide bakarra; *razl*-ek ere “erosein maixetan” darabil, eta gertakari bera dela ez dugu ia zalantzarik egiten<sup>233</sup>.

Oinarrirei dagozkien aldaera fonetiko batzuk ere antzeman ditugu<sup>234</sup>, *-a* itsatsidun berbetan, esate baterako:

*nme2* se gausetan [sic] daukat erresóya? ... -ba ónetan // *nme2* -sein tabernétan [sic] eon-<<tzeate>>? · -ero- sein tabernátan eon sára? ... // *nme2* seiñ elixetan ...?

Kasu markaren amaierako kontsonante sudurkariak ere aldaerak izan ditzaie fonetika sintaktikoaren eraginez<sup>235</sup>.

“Gau/gaba/gabe” hitzarentzat aldaera hauek jaso ditugu: “gautan” eta “gabetan”; bi lekukok forma biak darabiltzate, *kmz*-k eta *nme2*-k.

Aldaerak sortzen dituen ezaugarri morfologiko orokorretariko bat *-ta*- artizkia da. Artizki horrek zein ingurutan dagoen dituen aldaerak azalduta daude leku-denborazko genitiboaren atalean, eta ez dugu berriz errepikatuko. Han beste ezaugarri bat ere aipatu da, ez dela beti nahitaez tartekatzen artizki hori; inesiboan ere hori gertatzen da, gehien-gehienetan artizkidun formak jaso ditugun arren. Artizki gabeko aldaerak darabiltzate besteak beste *razl*-ek, *kmz*-k eta *raz*-k. Jaso ditugun adibide batzuk ipiniko ditugu:

*razl* seiñ elixan-mesía emo- emon dábe?

*raz* sé-errotán?

*razl* sein gastáyan [sic] ikúsi dosu arrá?

*kmz* eskribidik · erosein papél fiñan

*kmz* sé arítxan [sic] tópa...? <lekuko horren “aritzétan” formaren ondoan>

Dena dela, lexikalizatutako egitura batzuk *-ta*- gabeko formaz eraikitzen dira. Gauza bat da “lau ankatan” zerbait egin/izan/gertatu..., eta besterik da

<sup>233</sup> Ikus, dena dela, adibidez destinatiboan aurkitu ditugun antzerako formak.

<sup>234</sup> Ikus 1.2.0. atalean batez ere.

<sup>235</sup> Ikus aldaerak edutezko genitiboaren atalean.



“lau ankan/oñian ibili/ikasi...”. Hala ere, *kgg*-k “lau ankatan” eta “lau oiñetan” formak darabiltza, sistema ez duelako ongi ezagutzen, gure iritziz.

Denbora adierazten duten izenek ere joera bikoitza-hirukoitza dute; eredurako, “iru urtetan” zein “iru urtian” jaso dugu. Gaztelaniara itzuliz gero, “en” preposizioa jarri ala ez dirudi dela banaketa orokorrena. Edozein modutan ere, pluraleko forma ere nahasirik jaso dugu, “askenengo bost urtietan” (jakineko urteak, beti ere) formaren ondoan “askenengo bost urtetan” mugagabea ere jaso baitugu, eta baita “juan dan bost urtian” forma singularra ere.

### 1.2.12.1.3. Mugatu singularrean

#### Bizigabeen inesibo singularra: eredurako

Amaiera bokalkoetan, adibidez: <i>elixan</i> ; <i>etxian</i> / <i>etxien</i> / <i>etxin</i> ; <i>mendixan</i> ; <i>soluan</i> / <i>soluen</i> / <i>solun</i> ; <i>lekuan</i> / <i>lekuen</i> / <i>leku</i> ; <i>jaixan</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>lurrian</i> / <i>lurrien</i> / <i>lurrin</i>
---

Egile gehienek azpimarratzen dute singularraren eraketa berben amaiera gogoan izanez gero:

—*a* itsatsidun berbek zuzenean hartzen dute kasu marka, mugatzailearen arrastorik gabe<sup>236</sup>. Salbuespena, bizidunak adierazteko hitzen bizigabe formaz deklinatutakoan lortu dugu: “alaban” bai, baina “alabian” ere bai. Dena dela, bizidunen deklinabidean bai ageri da mugatzailearen marka: “alabia(n)(g)an”. Forma arrunten adibideak: “elixan, errotan, ankan” eta abar.

—Bokalez amaitutako beste berba guztietan kasu marka forma mugatuari<sup>237</sup> ezartzen zaio: “urtian, errixan, auan, neguan, jaixan<sup>238</sup>, gastaian, atexian/ataixan, goixan, balkoian, lauan<sup>239</sup>” eta abar luzea.

<sup>236</sup> Baliteke inesibo zaharraren arrastoetariko bat izatea; edonola ere, beste amaiera guztietatik berezita dago kasu honetan. Beste leku denborazko kasuak kontuan hartzen baditugu, ostera, haien jokabidearekin bat dator *-a* itsatsidun berben jokaera.

<sup>237</sup> Forma-emaizta hauek itxuraz eta formaz edutezko genitiboko formekin bat egiten dira, sin-kretismoz; baina kasu bakoitzaren esangurak eta egitura sistemak ongi bereizten ditu bata eta bestea esaldietan kokatuz gero. Genitiboa izenlaguna denez, beti doa izenaren ondoan edo izenik gabe bada mugatzailez edo kasu markaz (“*etxiana*” ez da sekula inesiboa); inesiboa adizlaguna denez berak bakarrik osa dezake bere zatia (“*etxian da*”, ez da sekula izenlaguna). Edozein modutan ere, egile batzuek kasuok ongi ez bereizi ahal izateko ardura-edo erakutsi dute Eibarko euskararentzako “ortografia” zehazterakoan. Hauxe irakur dezakegu: «Beraz, Noren eta Non kasuak esaldixan kontestua bereziko ditu. Halan da be Noren eta Non kasuak ondo bereiztearren, bittarteko “**re**” hori idatzi egingo dogu: “**kalian** → **kaliaren**” (...)» (ZENBAITEK, 1997, 6), grafiarengatik ez balitz norbaitek bereiztuko ez lukeelakoan, itxuraz.

<sup>238</sup> Bi esangura ditu: bata ospakizun berezia adierazteko, eta bestea “igandea, domeka” adierazteko.

<sup>239</sup> Izena-izenondoa eta zenbatzailea-izena forma bakarrean neutralizatu, berdindu egiten dira.

Gogoan izan behar dira nominatiboaren atalean aipatu genituen aldaerak, *-e* bokalaz amaitutako berben aldaerak *-ian* ez eze, *-ien* ere arrunta baita, eta *-oz* zein *-uz* amaitutakoetan *-uan* ez ezik *-uen* ere sarri jaso baitugu. Gainera, elkar-keten errealizazioa diptongoa zein goranzko diptongoa izan daiteke. Hiato gisa *-ien* aldaeradun formak jaso dizkiegu lekuko hauei: *raz1*, *raz5*, *rmz*, *rae*, *ñaz1*, *kaz1*, *kaz3*, *rmz5*. Adibidez:

*rmz* °... -“mánda dosientos fárdos! o kuartosientos” da bál!, bénga! · Idíxekin juambiar!: bakotxIAN amabost-amasáspi fardo · ekartze-enduasen!: · amasaspi jenerá-IIEEn!, irú illára ta · bi gáñIEn...

Diptongo errealizazioz (*-jan*), hauei: *raz1*, *nme2*, *naz*, *rmz*, *ñaz2*, *nmg*, *kaz2*, *f.a.*, *ñmz*, *kmz3*; *-jen* goranzko diptongo gisa hauek egiten dute besteak beste: *raz1*, *nme2*, *nmg*, *rmz*. Aldaera askoko adibide bat ipiniko dugu:

*rmz* °... krúse itxe-juen! · goixIAN illúntzIN da gabIEN!, eoo goixIAN éuardIXAN da gabÍEN ...

*-uen* aldaeradun formak ere jaso ditugu; hiato gisa hauei: *raz1*, *nmz*, *ñaz1*, *kmz5*, *kmz7*. Goranzko diptongo gisa —*wan*— hauei: *nme2*, *naz*, *rmz*, *ñmz*, *kaz1*, *kaz2*, *kaz3*, *kmz3*, *kmz6*; beste aldaera —*wen*— ere jaso diegu lekuko batzuei: *nme2*, *rmz*, *naz* (azken honi pluraleko forman).

Murriztutako forma batzuk ere jaso ditugu: “eskritun, ordun, modun; illuntzin, gabin”... Adibidez:

*ñmz* °... “Úmbe-monte-seko”!: eskritun ifintzen dau! · báta dao Úmbe!

“Gau/gabe/gaba”-ren aldaera guztiak oinarritzko forma bakarrarenak dira: “gabian/gabien/gabin”.

—Kontsonantez amaitutako berba guztiak era bereziz hartzen dute kasu marka (gogoan izan bizigabe formez dihardugula). Eibarko gaur egungo emaitzak ikusirik, honela azal dezakegu: kasu marka mugatzailearekin batera txertatzen da, baina amaiera kontsonantikoak loturazko bokala hartzeko joerari eutsiz, bokal elkarketa genuke eta disimilazio arruntez tinbreak aldatu egiten dira<sup>240</sup>. Esate baterako: *\*ospel* + *-a* + *-n* > *\*ospel* + *-e* + *-an* > *\*ospelean* > *ospelian*.

Benetako jatorria zein den ez dakigula ere, kasu marka mugatzailez hartzen den beste kasuetatik ere berezita dago inesiboa, besteek ez baitute horrelakoetan loturazko bokala hartzen kasu marka mugatua hartzerakoan: ez da *\*ospeliari*, *\*ospeliandako*, *\*ospeliakin* moduko emaitzarik. Inesibo singularreko beste adibide batzuk: “lurrian<sup>241</sup>, edurrian, bastarran, egunian, trenian, illunian, fiñian<sup>242</sup>,

<sup>240</sup> Jatorri historikoari erreparatuz agian beste era batera formulatu beharko litzateke azalpena.

<sup>241</sup> Esangura bikoitza du: bata “lurra”, materia gisa hartuta, eta bestea behea, “suelo” adierazteko.

<sup>242</sup> “Fiñian ibili” egiturak ere esangura berezia du; lan asko egin baina gutxi gastatuz etaahal dena aurreratuz... da esangura orokorra.

mamiñian, aritzian”, aldaera fonetikoak aldaera. Zenbaitetan emaitzak neutralizatu egiten dira: “ordenadorian” adibidez, ez dakigu oinarriko mugagabe absolutua “ordenador” ala “ordenadore” den<sup>243</sup>.

#### 1.2.12.1.4. Mugatu pluralean

##### **Bizigabeen inesibo plurala: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixetan; etxietan /etxitan /etxetan; mendixetan; soluetan /solutan; lekuetan; jaixetan</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>fiñetan</i>
--

Singularrean ez bezala, inesiboak pluralean beste kasu guztien gisako ezauzgarriak ditu kasu marka eransterakoan, bai amaiera bokalikoak badu, bai kontsonantikoa badu ere. *-n* kasu markaren aurretik *-ta-* artizkia hartzen du, eta hitzen ezaugarri pluraleri eransten zaie<sup>244</sup>.

Forma aldetik aurkitu ditugu forma murriztu batzuk, dena dela. Adibidez:

*naz* Eibarko kálEtan, kótxe assko dabíll  
*kaz*3 °... errejístruak ébisen · ka- etxitan, takisú? ...  
*nme*2 Untzágako kioskutan [sic] etxaingo <<isut>>

Bestalde, kontsonantez amaitutako berbetan forma mugagabea eta plurala neutralizatu egiten dira, sinkretismoz, baina azentuak batzuetan bereizteko balio du. Mugagaberako eredu “ospelétan” da; mugatu pluralerakoa berriz, “ospéletan”. Eredu hori ez da beti betetzen: *kgg-k* adibidez, “sé egúnetan juan bie-sára?” egiten du mugagaberako eta “egúnetan siar bárdin jarraitzen dau” pluralerako.

Nolanahi ere, berba batzuek nekez hartzen dute plural marka: “edúrretan” adibidez, ez da ia erabiltzen.

“Gau/gabe/gaba”-k aldaera hauek ditu: “gauetan, gabetan”; bigarrena da lekuko gehienek darabiltena.

“Lau” zenbatzailea izenordain denean “lauretan” forma hartzen du nagusiki; izen denean, “lauetan” da dagokion forma nagusia (*naz-k* “lauretan” egiten duen arren).

#### 1.2.12.2. ERABILERA

Inesiboa lortzeko hainbat galdera egin daitezke. “Nun, se(r)tan, noix” dira galdera orokor eta zuzenenak; postposizio bidez eraturakoek ere berdin balio dute (batez ere bizidun formetarako):

<sup>243</sup> Gai hau 1.2.0. atalean ere aipatuta dago jada.

<sup>244</sup> Datiboaren atalean azaldu dira amaiera bakoitzari dagozkion aldaerak.

*rmz* °a esan kaltzadía: ba, -“próbak ipiñi bittuau ta baa, nun ipiñikottú?” ta ba -“ór-txe!” ipiñi..., markauta ee...

*f.a.* nun dakasu esperansia?

*/kgg* sértan dakásu itxáropena? —*kmz* setan dákasu esperánsia? —*nme2* setán daukasu esperantza orí? —*naz* setán daukasuu · esperántzia?

*kgg* señéngan dakásu esperánsia? —*nme2* señéтан? señÉGAN daukasu esperántzia?

*/kmz* esperánsia señén gáñian da- dakásu?

### 1.2.12.2.1. Animalia izenen deklinabidea

Animaliak biziduntzat hartzen ote ditugu? Oso zaila gertatzen da adibideak aurkitzea lekuzko kasuekin, baina egon badaude batzuk: alde batetik, deklinabide eta esangura arrunta dutenak<sup>245</sup>, eta bestetik, oso esanahi berezia duten adibideak. Jarraian ditugu batzuk:

— Animalia talde bat dagoen toki eta animalia multzoa adierazteko, pluraleraz: *kgg*-k ez darabil, baina beste lekukoek bai; “olluetan, ganauetan, konejuetan” eta abar. Oiloak dauden lekua, oilo artea adierazten du “olluetan” formak.

Adiera hori igaliekkin ere bada: “sagarretan”, adibidez. Kasu honetan *kgg*-k ere badarabil, baina oharra eginez:

*kgg* «“sagarretan e txoríxa-dábis”: “baña sagárrak tókixa díra eurak, baña ollúak nerétzat estíra tókixak». Beraz, ez dakigu ziur sagar aleak dituen gogoan, ala sagastia, sagarrak dauden lekua.

*kmz* sagárretan bátombaát dávik —*raz1* sagárretan e bátoma-dábíll —*nme2* sagárretam-bátomba-baabíll, e? —*naz* or sagárretam-bátama-badábíll <kasu hauetan argi dago “sagastia”-edo, dela>

— Modua adierazteko<sup>246</sup>, “astuan, kaballuan...”:

*kmz* astúan juan dok —*nme2* astúan jun da —*naz* astúen juen dá  
*raz5* °napárra! Da Jangoikua-daki nunn ser...: bueno!, juan san gure áitxa, kabálluan juan san! · ará! ...

Dena dela, postposizioz ere adierazten da leku-modu hori, “asto gañian, kaballo/saldí gañian”; esate baterako:

*kaz2* °da, eyében ... lau · gástenak · astó gañian! ... da, lau .. seme gástenak · asto gañian, · kabálluan onduan asto gañian, da béstíak e, kapótíekíñ! ...

*raz5* °... -“es, ba juan della; anaya juan da, par- e, ee, Elgoibarko párrokua, kaballo gañiam-berá be kaballo gañian, da gero ...

<sup>245</sup> Ikus gorago bizidun-bizigabe marken kurutzaketari eskainitako atalean.

<sup>246</sup> Instrumentalaren orde ez erabilia, ikus han ere.

*kaz2* °... áitxitxa · kabállo suri baten gáñian ...

*S.B.* saldi gañian –*kgg* saldi gáñian ibili nais gaur goixían –*kmz* goixian e saldi gáñian ibili nok

#### 1.2.12.2.2. Eguraldi eta hozbero fenomenoak

Mugagabez adierazten dira gehienetan. Hainbat adibide jaso ditugu: “edurretan, euritxan, euskitxan, keisatan /keispetan (*nme2*-k azken forma hau ez du onartzen), korrientetan<sup>247</sup>, otzetan, epeletan, berotan” eta abar. Adibidez:

*kmz* °kalfán otzétan ibiltzia baño-obé da etxian ...

*kaz3* °... da-antxe-epeletan edérto! ...

Baina horrek ez du esan nahi forma mugatua sekula erabiltzen ez denik (pluraleko adibiderik, zelanahi ere, ez dugu jaso “edúrretan” izan ezik, *kgg*-ren ahotan):

*rmz* °... mendítxi-bajatzé-sitxuan órrek etá, Urbasátik etá, ba erberéra etorri biar!, an ee... e- edurrían estao eoteik neúan!

*naz* °bai!, “keisátan” o “kéispian”, ígual da —*kmz* es! kerísan eo-áitxuk –*raz1* kéispian edérki eon gara –*nme2* keisán eon gára

*kgg* korriéntian –*kmz* es ári korróntian eón–*raz1* or korriéntian esáitxe-eon, e? —*nme2* esáitxe or korriéntian eón –*naz* or korriéntian esaitx’egón

Osterantzean bai singularrean bai pluralean erabiltzeko, oso egoera zehatzak izan behar dute: “eskuan dakaten edurrian” eta “leku epéletan” gisa-koak.

#### 1.2.12.2.2.a. Bestelako mugagabeak

—Likido, gas edo masa, zerbait konpakto modukoa denean, adibidez: “sardautan/sardaotan, uretan, ur + *izenondo* + *marka mugagabea*, esnetan, ke(e)tan, gatzetan, sutan, morterotan, bedarretan<sup>248</sup>, bedarrondotan”, eta abar. Lapikoan egosten diren jatekoek ere onartzen dute egitura hori:

*kmz* °“urebágixa” ... témplau, gorri- gorríxa, · gorri daonían, urétan sartú, ero-orixótan, da ss-se rája!, “urrebáixa”

*nme2* “urétan” ero “ura ekartzén”. O, “urétan”, · eon leike urétan sartúta..., urá ekártzen... .. eske “urétan”! urétan, urétan sartuta eon leike; ·· eta ura ekartzem-bada ... <adibide-azalpen honetan, forma bakarrak dituen esangura biak ageri dira>

<sup>247</sup> Erabilera nagusia forma mugatuan da, baina mugagabean ere bai. Mugagabe forma *kgg* lekukoak ez du onartzen.

<sup>248</sup> Ikus bestelako esangura “zertan” zentzua duenerako.

*kgg* kétan estao e osíjenorik // *kgg* txorí bat séuan kétan  
*razl* °... etárea dou garbansúori · játeko -dómekia san...- <oso gogor> da matxinsá-  
 áltua garbansútan! ...  
*razl* °... já- báskaitxan járri gára! ... oríxo-asák eta ga- garbansúa... · da oríxo-asá-  
 tan, · e séra!, es- baría!  
*rmz* °... átaixam-be bai, an esko- · elíxaurriam-berá be bai, mortérotam-berá be! ·  
 úrtero selebrau numbáitten! ...

Forma mugatuak ere jaso ditugu, guztiarekin ere, *kgg*-ren “sárdauan eulí bá-dau” adibidez eta *razl*-en pareko erantzuna. Azpimarratu beharra dago galdekizunaren bitartez guztira hiru mugatutako adibide jaso ditugula bakarrik, lekuko guztiek (*kgg*-k izan ezik) gehien darabilten forma mugagabea delako esangura bera adierazteko ere.

— Ekintza eta leku esanahia batzen duten egituretan: “mesetan, baska(r)itxan, afa(r)itxan...”. Esaterako:

*razl* °... já- báskaitxan járri gára! ... oríxo-asák eta ga- garbansúa... · da oríxo-asá-  
 tan, · e séra!, es- baría!

— Esangura abstraktuz, subjektiboz. Adibidez:

*razl* señén esperánsatan sáre?  
*razl* °lagúnan · esperánsatan

— Egitura adierazkorretan; lekua, denbora, zein esangura abstraktuagoa har dezake. Adibide batzuk ipiniko ditugu:

*kmz* °[Finlandia] lekútan dao!: · ixá eskímalak ikutzen eo-níntzan [sic] bárren! · El país de los lágos! <leku esanguraz>  
*kmz* °jósúús!, lekútan daok!: “lastér Na- Natíbitx-ate” <denbora zentzuz>  
*naz* lekútan sartu gara! <esangura abstraktuz: “¡en menudo lío!”>  
*razl* °... au estabe-esamiñauko, baai, lekutan dao!, ja-jáái!... esta kate- ka- ka-  
 kate- -ser día? katedrátikuak eo ser dia órrek?- áretxé-pés!, é katedrátiko ta ser!?  
 <esangura abstraktuz>

### 1.2.12.2.3. Inesiboa postposizioetan

Lekua, kideasuna eta abar adierazteko erabiltzen da.

#### a) Postposizioetan

— *-n ...-n*. Honelakoak: “-n gañian berba egin/jardun; jakiñian gañian eon; -n artian eon, -n artian eiñ, -n artian euki; -n aspixan”.

*razl* orí txakurroi e · betí e, jentían ártian

Esapideetan ere bai: “Jangoinkuan isenian”. Adibiderako:

*razl* guasen Jangoinkuan isenían améndik!

—*Ø* ...-n. Adibidez:

*kgg* txakur ori béti gison ártian dábil —*kmz* orí txakurróri gis- gison ártian dábil betí —*nme2* ori txakurroi beti jente ártian e, .. persóna-artían dabill —*naz* ori txakurróri, béti gison ártian dábill

*kgg* sé dakásu gordeta mai aspíxan? —*kmz* sér dáka-gordéta mai aspíxan? —*naz* ser daukasu or mai aspíxan?

b) “Kasu sistematik urten eta aditzondo bilakaturik” (J.A. URIARTE GARAI, 1995, 377): “albulan/aldamenian/onduan, aspíxan, gañian” eta abar. Esate bate-rako:

*razl* °an gáñiam-bistá-bistán eskérrekaldian!

#### 1.2.12.2.4. Denbora adierazteko<sup>249</sup>

a) Formari dagokionez<sup>250</sup>.

—Batzuetan forma mugatu singularraren bidez egiten da. Oso erabilera arrunta eta aberatsa du modu honek, bizi-bizi den ezaugarri. Izenei ez eze, beste kategoria batzuei ere txertatzen zaie kasu marka hau. Adibidez: “saartzaruan, txikiteuan, astian<sup>251</sup>, aste barruan, geixenian, -n/-re/-*Ø* denporan/sasoian, puntuan, aspaldian/aspaldixan, noixi-beiñian/noixi-peñian, besperan, bixamonian, urrenguan, lenguan/lenakuan/lengunian, oinguan”, eguneko zatiak, urteko aroak, eta abar luzea. Zenbait adibide:

*nme2* °bai! bai! .. ortáa baa, bos gisáldi dia orrek; .. eta bos gix- ee gisaldíxan-nik uste ot síglua isengo dala...: ésto-sékula-aklárau! .. bañá...

*naz* bai!, naikua dou biii jai · astian, e?

*razl* °sú! Arráte ballían erne- erné dia lekák? ... guríam-bígarrenian estia- · bígarrenian estia gurian erné! ...

*nme2* e, alakó baten etorri sá! //beingúan etorri sá!

*f.a.* °bai ba!, gastañía!: gastañía goixian, eguardixan da gabían!

*rae* °... lélengo patatia sartú! Geró udebarrixam-pa- e, garíxe · jorratu!; · geró, erró-malatxa eráñ!...

*rae* °artía · sikútian e ganáuei; lixarra...

• Datak, hileko egunak, asteko egunak, orduak<sup>252</sup> eta abar adierazterakoan:

<sup>249</sup> Ikus “noiz” galdekariaren alorrean ere, inesiboaren atal honetan bertan.

<sup>250</sup> Adibideak, bai mugagabean bai mugatuan “noiz” galderari erantzunak dira eta beheragoko atalean ez ditugu berriro errepikatuko.

<sup>251</sup> Esangura bat baino gehiago ditu: asteko denbora bitarte osoa, zein asteko lan-egunak, edo aste barruko edozein egun edo jakineko egunen bat.

<sup>252</sup> Orduak adierazterakoan nominatiboko egiturak gorde egiten dira arrunki: singularrean, pluralean ala bietara egiten den. Eredurako: “seirak eta bostian, \*seirak eta bostetan”, “seirak eta amarrían/seirak eta amarretan”, “sei txa erdí(x)etan, \*sei txa erdí(x)an” eta abar.

-ñmz °bentí- milnobecientasbentidósian: ni baño · urte bete gastáua  
(...)

-bñaz °mayatziam-bedrátzixan

raz1 °<dataz> bai! xemáten [sic] gaos?, amasáspixan-amasórtzixan-eró?

rmz °Andra-Mári béspera-nábu eraitxe-genduan gu-betí! · sati bátzuk eta beste  
sati bátzuk e Sam-Bartólome bueltan! ...

raz °... juañ giñan Santa Eufémian egunían ...

-rmz °órtxe! Sanándres ingurúan! garíxak eráñ!, daa... <denbora zentzua du, ez  
lekuzkoa>

-rae °eta kipúlia!, ori be órtxe-eraitxen da! (?)... Bueno! <denbora zentzua>

kgg datórren astían médikora juañ bieko-sú -kmz datórren astían médiko- médi-  
kuana juañ biakok -raz1 datórren astían-médikuana juam-biekosú -naz datórren  
astien médikuana juem-biekosú

raz1 °... es gara gu olan · txárrak, e? · Kéipo de Llanok esate-ban orí, e? rádixoti-  
gera demporan: “Éibar la ciudad fan- la ciudad fantasma!”

rmz2 °... ogétamasei milla pesta págau júen · frankísmuan ...

kaz1 °bai! “Polboriña”!, ta-á Karlistadan índdakua san! ...

kaz1 °baai!, bueno! áá · á · gerra-óstian índdako etxia da Makálarrokua!

kmz °báái, saldúta dao. · Éguenian e eim-biar ei-itxúe · notaríxakua-ta... · Bós-  
milloi ekártzia dákes, da · párra!

kmz3 °... baña-nik, oin jaixán da · danai láata naok, danari! ... <“domekan” esan  
gura du>

nme3 °ni-goixian e, · bóstak eta · ogeixan kámpuan eo-nais ta · bóstak ogei áu-  
retik [jaiki]!

kmz °bixárr alakó-ordúan, · ségi!

• Balio banakariz. Adibidez:

rmz °ta geroo, · garíxak ebai txa garixa-jo! · launduta!, eunian etxé bat!

ñaz5 “... Guk periodiko bi hartzen dittugu beheian ... Beti, egunian bi, beti-beti-beti”

rmz °da orbéla ekárrri! · órrendako! ... Astiam-burdiká bat eró, bóta ta-an orbel  
gáñian · loitxe-juen ardíxak!

kmz °baái!: igual astían bi bidár!

raz °... pláyara bee-e-eskíñan juáten!, · pláyara be urtían beñ ero-ólaxe juate-gi-  
ñan: oingó morúan e · pláyara beéss... ..

rmz2 °... Donóstiako · Párte Sarréko Restauránte-Joxe-Mári-pe aarí asko ta, ·  
aréx íxá · amábostíam-báten Eibárren ero Ermúan! ee apostúa · ero jokúa!

—Forma mugatu plurala ere erabiltzen da, jakineko uneak errepikatu egi-  
ten direnean, edo dena delako izena pluralean erabiltzen denean (santu-jaien in-  
guruko izenak, batez ere). Ordua adierazterakoan, batzuetan. Adibide batzuk:

rmz °geró bedárronduak íñ!, da bedárronduak ee · segiakiñ ebate-sien!, dómeke góí-  
xetan da, sápatuetan da... · goixian e jáiki e-egun-séntixan da



*rmz* °óixe!: geró, udá-askenian garú ekarri!: garúak ebai ontxe! Samieletan! ...  
*rmz* °Gabónetan es!, óntxe!, Andramaixetan...  
*kmz3* °... kuestiñua ok esé · eun artan Dominu-santuetan · bost ollaor il naitxua-nik! ...  
*kmz* °nun Errégietan? e- émen! ... <galderak lekuzkoa dirudien arren denbora adierazten du>  
*kmz7* “... Untzágan dantzan eiñ ... Jaixetan, ba, Debára, da án baiñua artu ...”  
*kgg* °... bátzuetan esángotzut “ólan esá-etzut baña nik géixenetan estot ólan esáten”  
*kmz* °goixían!: · amáika ta erdíetan eró alako bat (?)... · Karméntxuk eruango nau!  
*kmz7* “... léelengo denporetán, auskálo zelan ibiltze giñán, batian batak aintzea, bestian juate giñan, etortze giñan ...”

—Bestetan, forma mugagabearen bidez:

- Forma mugagabeak agertzen diren egituretan:

*kag6* °se urtetan isango san au ba?

*kmz3* °... se ordutan?: · la im-bitzak?

*rmz2* °... da, torri nitzuan illúntzian · béstetam-baño lénao bíárrai lagáta ...

- Aldi osoak adierazteko batez ere: “umetan, txikitxan, gastetan, nobixotan, solteratan /solterotan, txabalitatan /txabalitotan, barritxan” erako formak. Adibide batzuk:

*kmz3* °... gastetan a- álxaxe ibiltze-iñuasen gu! ba, kántau ta gitárta eo, geró plaen-txiatarren kántuak eta ...

*kmz3* °... orduan e, jo... · txabalítotan: e! éseuan orduan malísiaik! ...

—Nominatiboz ere adieraz daiteke, esaterako:

*kmz* °bai, ... úrrengo konturatuko naix!

b) Denbora esangura ñabardurak:

—“Noiz” galdekariari dagokiona, denbora “zehatza” adierazteko (unekoa, zein aldi osokoa). Erantzunak mila izan daitezke<sup>253</sup>; adibiderako:

*kmz* °noix eukiko ete dot nik nere artzaldía líbre?

—Zenbat denboran, iraupena adierazteko. Forma mugagabeak zein mugatuak eratzten dira. Mugatuan jaso ditugu adibide gehienak baina atalka ikusiko ditugu:

- Mugagabea. Inesiboaren forma mugagabea orokorrean azaldu dugunean mugagabe-mugatu nahastea aipatu dugu. Esanahi honetan kokatzen da nahasteetariko bat: “bost urtian/bost urtetan, iru orduan/iru ordutan”. Adibidez:

*raz* °a- amengó mendíxak e · se- eún mendí · sémat urtétan ein sitxúan?

<sup>253</sup> Ikus lehentxoago aipatu ditugun forma mugatu eta mugagabeak, adiera honetakoak baitira.

*nme2* eutzidesu jertzixai · p̄xkaten -ero- sáti baten  
*naz* emen eo-leike ordu asskotan  
*lnaz* °eon da bastante démporan, ee? ... <determinatzailea duenez, mugagabea dela pentsatu behar, baina erabilera nagusiak forma mugatua dela erakusten du>  
*kmz1* °[euskara] núndi-dátok orí?; da núndik o sémát urtían ero...?

• Mugatu singularrean, adibidez:

*raz1* séma-démporan eon sara saíñ? // *naz* séma-démporan eon sara saíñ?  
*kmz1* °ní-bai!, ospélaak ee jóódé!: éukitxuá-ník bisí gustían! (?)... “ospélaak”?...  
*rmz* °... ari esatem-bakon -“eon antxé!”, á-ántxe ordu bíxam-be!... .. -“ántxe-eom-bá páre bat ee... ordúan ero, · neuk esan arté” ...  
*nme2* ordu bi eskasian eon giñan // *naz* lau ordu pásauan eon sien  
*kmz* °probáu bés! ... juandaneko-ogétamar urtían e...  
*raz1* °... ta geró, oiñ irugarrena, utza démporan: sei-illebetían irú! ...  
*nme2* °baai, eum-ba-p- eess...! eum-bíxan eo iruan eroo... · eukitze-i-sebem-baai! ...  
*rae* °... asté betian an eote-sam-pílluan! · oseakee...  
*rmz* °... béste batzui esanda osteraa...-akábo!: bos miñítuan eón da-ántxiketan etxea ta ...  
*armz* °... dempora geixauan ee, éustetza éro! aguentau...  
*nme2* orren átzetik -ero-orren óndorik ibili dia démpora-askúan

• Mugatu pluralean. Adibidez:

*kmz* °baai, “Sopas”. ... Se árrapatze-sitxuan... púf!, da oiñ esébe-estau eraten: bueno!, juandaneko-ogétamar URTÍETAN! ...  
*raz1* °<osagilea> Donostíakua ... bai, bétí! urtíetan dakau guk  
*kmz* °nik ess: · lélengo delíneante, · ÚRTETAN; · geró Méjíkora · an jéfe morúan, · diretóre morúan! <esangura plurala du>  
*kaz3* °... baña-baña biña-an úrtetan! · bertara báskaltzea jai gustietan ... <idem>  
*kaz2* °... bedrátzi egunien, e? · Errosarixua ...

Nominatiboa ere erabiltzen da “iraupen” esangura horrekin, esaterako:

*rmz* °bi urte-eo étxai-sémat i-nitxuan or...  
*rmz2* °... baña ník e, askénengo urtía-paa, askénengo berrógei urté Berrísen eítxuá-biárra ...  
*kmz* °heré-edadékuak. Órrek asté bi juan sian, · tore- tóriatzera! · D’an etorri sian apál-apál éinda, gosíak!  
*kaz3* °... Amerikan urte asko indakua san aítxá ...  
*rmz6* “... zortzi bat egun edo hamar bat egun gaixorik egon nintzan ...”  
 -*kgg* °ta se- semat urtian eon siñan an ee, Jasintonian?  
 -*kaz2* °amasáspi!

—Zenbatetan, zenbat bider adierazteko. Edo mugagabean edo pluralean osatzen dira adiera honetako egiturak gehienetan, baina mugatu singular formak ere jaso ditugu. Zenbakiekin erabiltzen da batez ere, forma irregularrak

barne, eta denbora aditzondoekin; honelakoak: “baten/beiñ, bitxan/birritxan, irutan...; askotan, gitxitxan, geixaotan, sarritxan”. Zenbait adibide:

*nme2* °... “bostían”... · ori-ise-leiké ... baai, baña “bos bidar” esátékó, · “bostían” esátem-baosu... ee isen leike · béstietan falláu es da bostíann fallátzia!

*rmz* °... urjentia eo básan eró, derríor im-bier basam-baa · Élgoibarrea jun, baten ero bixan ee jua-nitzua-ní!

*raz1* °... lélengo emosten · pastilla bátzuek eta, · artu nittuan da, · bajatu atasen askó; · da · geró bígarreniam-ba ... potentiauak emosten ... da geró irugarrenian · jua-nitzanian · -“a, ya no tienes nada”

*kaz3* °... rebolusiña b’etara eben da, · da sarritxan ibiltze-sian e, amén e ...

*lrmz5* °... sarrixan séla eoten dam-probia ta ...

Nominatiboz ere egiten da:

*kgg* °eske gerúao ta gitxiáo esátetzut éstotela séose-esáten ...

— Aditzondo bihurtuta, adibidez: “batzuetan, bi(t)xen-bitxartian, orduan, ontxe/orduan/gaur/(...) bertan, derrepentian, momentuan, segiruan, takian (da) potian, takian-takian, noixian beiñ, noixi-peñian/beiñian, lantzian beiñ, beiñ(er)o-beiñ”; gaztelaniazkoak euskarara moldatuta: “jeneralian, en-jeneralian, normalian”, eta abar.

— Tarte adierazteko, esaterako:

*naz* sékula · beram bisíxam-báten in ddau

*naz* °... <kafesneaz> eske ka-, e ka-, nik estaki:-ni nái-salía lárreixe-e? · Eunían sortzí bidar artuko neuke!: éstot artzen, ee?! ...

*rmz* °líburuak eta eee... ámak!, ee... esándakuak ekar- erósi txa kítxo!: an... an séa erósi...: -“auxe t’auxe erosisus” da, baa... · urtian e bat ero bi eró

*raz* °... orí éstaa-aíñ oná jenerasiño báteti-bésterá! ... sé? ogéi urtían orí kámbi-xuorí? ...

— Muga adierazteko, esate baterako:

*raz5* °... -“ess!, · nik améntxe!, ni améndik etáatzem-banabé, · Madrílgo-otélik ónenera eruenda bé, sortzí eunian · flgo nitzáke!”

*rmz* °sikiña e, páre bat eunian eo ekitzetza taa... sortzí bat eun eró... · da geró ta-pauta beste illebeta bat eró...

— Alditasuna adierazteko. Adibidez:

*raz1* °... ní-badákitt améntxe Arrátera juaten dan gisóm-bá-pe ... Arrátera juaten da ixá eunían-eunían ero juango dá-ero... · · · · · <“egunero”>

*kaz3* °Arrasolam-bertan eon giñan!: Arrásolaa juate-iñan jaixan-jaixam-báskaltzera ... <“jaiero, astero”>

*kaz3* °... aitxari gura isa-netzán! · enéé! ... <kanposantora> astian, úúrtetan jua-nitzan aitxána... · da, ge- gisónana be bai! ... <“astero”>

*raz5* °betí e urtían-urtian e, · errebañuakiñ etorritxa, ántxe!

#### 1.2.12.2.5. Jarduera adierazteko

“Zertan” galdekariari lotzen zaizkionak adibide batzuk:

*naz* °[kartetan] da sétan itten dosue?

*kmz* °bueno!, setán gabíxaak?

*kmz7* “... igual ba piskát berandutxuau eró: ... «Nun ego aiz?» «Éne! Bitorikin» «Zétan?» ...”

—Mugagabeen. Hemen ere badira hainbat adibide: “andratan, neskatan, bedarretan<sup>254</sup>, bedarrondotan, lurretan, uretan, nabotan, loiñatan, sosotan, birigarrotan, afaritxan, baskaritxan, lotan, lapurretan, sa(a)ketan, kargatan”, besteak beste. Esaterako:

*kmz* °da sétan eitxen dau? ollagórretan ala...? <ala mugatu plurala ote da?, azentuak ez digu laguntzen oraingoan “ollagorrétan” oso arraroa egiten zaigulako>

*rmz* °gurían sékula ee, bai!, iñoix bañá... · gú BEDARRETAN da-astuakin sékula bes, ni e... · beti gánau- idíxa-betí!; baña léku askótan!, ee... Léstabeletxeko Margári-pe bet- betí astuakin GANAJATEKOTAN: nábuua ee... · errém-!, betí!, beti astuakiñ! Guk, gurian es, gurian astua e, · kalera osteri-ñ eskeiok e, · betí-idíxak, burdixa...

*nme2* °“urétan” ero “ura ekartzen”. O, “urétan”, · eon leike urétan sartúta..., urá ekártzen...: “trayéndo agua”, · “uráá ekártzen” ... Bai, · eske “urétan”! urétan, urétan sartuta eon leike; · eta ura ekartzem-bada “uraa- · ura ekartzen”...

*nme2* °... da, kalétarrak e, · mákiña bat aldís esauskue gu · idie síkétu ta · etxea ekártzen, está? ta, -“sé? ide-bérdetan sabisi alá?”... · oláko séra-paai baña... · órrek ee, éstaukes... · órre-sustansia bakoo · bérba-dia! ... bai! bai!: “idá-bérdétan”!...

*rmz2* °... oiñ esi-léixo-pa emén e · esetan ekim-baña ...

Ondorioz, hitz eratorpena egitura horren gainean egin izan da inoiz: “ureta-larixa, susatarlarixa, perretxikutalarixa, erbitxalarixa, ollagorretalarixa”...:

*kmz3* °... ni erbitxalarixakin jua-nitzuam-básarri bátea loitxea ...

*kmz3* °... dana dalá! a pase-lékuan éuan! · nik esan dotenoi, kasarixa suam-bera be, ollaorretalarixa gañea ...

Baita berdeklinazioa ere<sup>255</sup>:

*rmz* °bai ba!, nábuua ta ekartzeko taa... s- símaurkeTAAKO tá...: burkajía, daa j- kajía!, da oolako burdixa baña kajiakiñ!; da béste ba-burdi-mótza, trongoTÁRAKO!

— Singularrean. Oinarrian hainbat eta hainbat berba har ditzake: “biarrian, jokuan, karta-jokuan, pelota-jokuan, pelotan, bi-bixan, foballian/fubolian, musian, kulapian, kantuan, golferixan, drogan, jolasian, fiestan, txingor-gañian, soka-

<sup>254</sup> Honelako formek esangura bat baino gehiago izan dezakete: “belarra batzen ibiltzea”, “belartzan etzinda, jarrita edo belar artean ibiltzea”... Lehenengoak du ekintza, “zertan” esangura; besteak “edurretan” formaren antzeko esanahia du, masa-multzo gisakoa.

<sup>255</sup> Ikus leku-denborazko genitiboaren atalean ere.

salutan, gerran, obran, arotze(r)ixan, negosian, jorran, goldan, eskolan, burrukan, demandan, dantzan, trikitixan, kosiñan, dibujan, estudixuan, pasiuhan, peskan, agorrian, liman, pistolan<sup>256</sup>, eskopetan, txikiteuan, deportian, proban, gison-proban, aixkoran, segan, trontzan, boseuan, sokatiran, tokian, billarrian, txirikillan, igarixan, ardisaiñan, txurrutian” eta beste hainbat. Adibide batzuk:

*nme2* bătian eo bėstian, · bėti topatzen dau biarra  
*naz* °báaaai... .. emen gábis ontxé, ontxe-eskólan Inés!: eskólan, Inés! <barrez>  
*kmz7* “... Gu Txontakuok etá, Matadero ta Barakaldokúak, péskan giñan gógorrak ...”

—Pluralean. Adibidez: “kartetan”. Kasu horretan ziur dakigu forma plurala dela mugagabeen balitz “kartatan” litzatekeelako. Beste pluraleko adibide batzuk: “seixetan, txistueta, aitzikixetan, txirikilletan, kaniketan, berbetan, komisiñuetan, txakilletan, laixetan, sokatiretan, obretan, gausetan, bersuetan, ajustajetan, mañetan, tontokerixetan” eta abar. Adibiderako:

*kmz* °<gelditzen ziren galdekizuneko galderez> gatxák? ... gátxetan bá nais ní espė-sialistia!  
*kaz3* °... arduria dakát · seatxik esé-entzun dot · sélan dabisen errejístruetan ...

Forma batzuetan zalantza dugu forma mugagabeak diren ala pluralekoak diren:

*kmz* °da sétan eitxen dau? ollagórretan ala...?  
*kmz3* °... alkarrekiñ, · ollaórretam-béira... ta, · es ei juen tópatzen da, ta-tá!, nee tí-rua goi-goixan ...  
*kmz* °báái!, estáu ba íngo!?... · amorráñetan da... · a- agórra, agórra!

—Aditz izenekin/nominalizazioekin: “-ten/-tzen ibili/eon/jardun...”

*kmz* estók lotzátu orí esáten? —*raz1* esta lotzatu ori esaten? —*naz* da esta lotzatu ori esaten?  
*rmz* °an etxeuam-béste · sérik! <rae barrez> · ibíltzeko lékuik!, bi- bidían síar árus da ónutz! · ero sáltoka eo éskutatzen eo... ..

—Bestelakoak. Ekintza adierazten duten *-ketan* formadunak, esaterako: “pintxaketan, garbiketean, araketan, goldaketan, plantxaketan, antxitxiketean, ariñeketan, barriketan, afariketean, eztulketan”.

#### 1.2.12.2.6. Helburuzko esanguraz

“Zertara” galderari erantzunak ditugu sail honetan. Ez ditugu adibide asko jaso baina batzuk bai: “afarixan/baskarixan //afaltzen/baskaltzen geratu, etortzeko ustietan egon, eskian etorri<sup>257</sup>, bakasiñuetan juan, uretan juan”. Adibide batzuk:

<sup>256</sup> “Pistolagintzan”, jakina.

<sup>257</sup> Gure ustez ongi bereizirik dago “eskian ibili” tankerako egituretatik: “etorri” aditzak berak suposatzen du helburuzko zentzua.

*naz* °es, baña-amen “eskékuek”, e?: ibílte-sien lén!, ataira etortze-sien, suk estakisu baña erresau taa... Aitta-gura bat erresau taa bi- esk- eskien etortze-sien! Bai-bai-bai-bai!, oixe!

*rmz* °lem-béti gu-URETÁ orrá!, · éuardixan da gabian!: ero umia eo sarrá ero gastia!, Léstakua, Samartingua da gú, · amábixak ero amabi tx’erditan, · dának URÉ-TAN!, · kantíña eo pitxárra ero...

#### 1.2.12.2.7. Modua adierazteko

“Nola” galdekariari erantzuten dioten formak<sup>258</sup>:

*naz* se formátan ein ddozu orí?

*naz* sélan in ddozu orí?

*kgg* °... estáki-SÉLAN esáteitxurasen órrek, eta ordúan urtétze-játa géixenetan modú BARDÍÑIAN ...

—Mugagabez. Era honetako adibide mordoa jaso ditugu baina ez singularean beste: “isardítzan, sutan<sup>259</sup>, ke(e)tan, arduratan, billurretan, benetan<sup>260</sup>, odoletan” eta abar. Zenbait adibide:

*nme2* “sutan séuan”; ° baña sután béti eom-bi-dau sartañiak eser ingo badau!, está?  
*nme2* °... su dutxau barik e, SIKIÑ USAIM-BATEN esi-seinkes jun ka- jun kalera!  
ta, · neu bákarrí-jungo naix”...

*naz* baa, · arduratan sengosem-bañaa-abíxau nutzun

—Singularrez. Oinarrian hainbat hitz eta osagai har ditzake kasu markak esangura honetarako: “eskian, janian, eranian, bakian, egan, egaran, egastaran, aidian, belosidarian, deskuiduan, narru-gorrixan, bistan, txandan, derrigorian, loran, sibillian, narrasian, narrian, justuan, lau-ankan, lau-oñian, fiestan, broman, filan, illaran, parrian, trotian, gañian, jornalán, pilluan, kanbixuan, segixan, sokan, trenian, normalian, faltan, biskarrian, bajuan, saltzan, (euskera) batuan, minpian, aopian, eskutuan, osuan, primeran, reliebian, martxan, jaleuan, moruan, ausixan, aldapan, jokuan, illunian, demasian, sallian, itxuran, baterakuan, barre itxuan, tarrasian/tatarrasian” eta abar; gaztelaniazko zenbait aditzondok ere har dezakete: “politikamentian, detalladamentian, buenamentian, malamentian, normalmentian” eta beste zenbait. Jakineko egitura batzuk ere sortzen dira: “objektua + aditza + *biarrian eon/euki*...”, “dana *biarrian*”, “-n/-re(n) isillian, -n/-re(n) posian”. Aurrekoen adibide batzuk:

<sup>258</sup> Instrumentalaren ordez ere erabiltzen da batzuetan esangura honekin.

<sup>259</sup> Esangura bat baino gehiago izan dezake: batetik, lehenago aipatu dugun “leku” mugagabea; eta bestetik, nolakotasuna, sua dariola-edo.

<sup>260</sup> Badirudi inesibo kasu marka dela, nahiz eta “bene” hutsa ez den erabiltzen: edozein modutan ere, Gipuzkoa aldean “egitan” esaten da, eta indartzerakoan errepikatuz gero “bene-benetan” da sortzen den forma.

*nme3* °(?)ádios-bá!, es gaistuak es, gaistúam-pásau! <nolakotasuna ere adierazten du>

*nme2* pixká-debfl nao ... ondo-esían

*nme2* etxea jun alesían [sic] eo-naix

*nme2* afáltzera etorri-ixaixan eon dia bañá, esti-etorri

*naz* eskérta-surí, lléau gá ordúan <“puntual”>

*naz* baa, ólaxek, orkotxeee · formán //naz gúri esauskuen · álan · eitte-sala, béste formán, ólan...

*naz* °<“ezezkotan”> ess!, lélengoo... ESÍEN asi san da geró-oim-baa... ff, akós-tumbrau in ddala ta... ..

*rmz* °Itxaspíxan a garíxa eom-basan · Ítxostían e artúa, da úrrengo urtían an ee · garíxa ta · béstían e...: ségíxan sékula bes · léku baten · beti kámbíxauta...

*raz* °... abárketa-gáldu bai! lokátz aldían [sic] · da guré-etxéra etóri san! ABARKÉ-TIA ESKÚAN! da oórtotzik! ...

*kmz* °[gutunak] ónek e, górde im-bitxuras. Neré isenían dao? ... ník estot aitzen ónek! ...

*kgg* °... osea, teoríxan bátu · álde darénak eta <<bultzátzeko>> pres-darénak eta · óri? ... <aldekoa izatea da “teoríxan”, noski>

*rmz2* °... da bustarrí-bakarrían bé ba, · ásko · ikúsítxua-ní-bustarrí bakarríam-bé, ónak! ásko eoteítxúk, da béste batzu-pa, eskástxuauak ám-be, baña bustarrí-bakarría... [sic], emén · sónan, gure sónan, Éibar-Ermúan-emén, Etxebárrin jokáteítxú-bustarrí-bakarrían probári-géixen, emén sónan, bai!, da geró Gípúskuan géítxuao!: bustarrí-bakarrían Gípúskuan géítxuao. Bai! ... <“zertan”, ekingta ere adierazten du nolabait>

*raz1* °... da geró béste gausá bá-dao!: ní enaix kóntra... iñon kóntra bés pork’etxata tókatzen d’éstó-nai (?)regañeorik neré konsíensíam-béyan; báaña! · dáo! · buenaméntíam-bíarra eíñ ero málamentíam-bíarra iñ!

*ñmz1* “... esnia euki ezkerro, esnia, eta ogíxa. Eta zera, *viva la Pepa*. Hango jentía alperra da, alperra, bai. Eta egunian bizi!”

*raz5* °... da, -“i Pedró! -esan i-etzan- irékím-berba im-bíarria-naok”, da, -“nerekiñ?” da -“bai” dda ...

*kaz4* “Igaríxan? Ospítal osteko errekatxuan bai. Bata zarrakin, ixílian, aman ixílian harrapau etxian [batia]”

*kmz6* “... Konkursua zan, ba, urtían atzenian ípíntze eben mailla bat da áren pozíán ...”

—Pluralean. Mugagabea gertatu zaigunez, adibideak jaso ditugu baina ez singularrean beste: “amesetan, brometan, obretan” eta abar. Esate baterako:

*nme2* saldía-artzen dau betí tráo txikíxetan

*kmz* °... baña oin txoriséruak estakásu sé-erósi!: · alakótxe pótiétan saltzen dabe ...

*raz* °... baña · á-áurretífk...!: ordúan eséuan autobúsík eta esébe!, kami- kamíoiétan! [sic] ...

—Dena dela, kasu markarik gabe ere adieraz daiteke; adibidez:

*nme2* °daa, · a garajía da itten íbili giñaníam-ba guk amárrak inguruam-bokadillua jate-genduan, está? · da, · andrían íxilík ekartzeskun · euníam-botílla bat ardao e serák ... baña-andrían íxflík, e?! ... <ikus *kaz4*-ren “aman ixílian” pareko forma>

#### 1.2.12.2.8. Kopurua adierazteko

“Zenbatzailea + objektua -n” egitura jaso diogu *razl* lekukoari:

*razl* °... Eibárren dáos mordúa elíxak, e?, .. Felís?: kantidádia dao Eibar elixáN, e?, elixank [sic], e?

*razl* °bai, bai!: bedrátzi!, bedrátzi daos elixáN, e?... .. baai, bedrátzi elixán daos, e? ...

#### 1.2.12.2.9. Zerbaiten balioa —salneurria— adierazteko

“Zenbatean” edo “zenbaten” galdekariei dagozkien erantzunak dira; formak bai mugatuan bai mugagabeen izan daitezke. Arrunki, salneurri unitatearen aurretik (“peseta, duro, errial, sentimo...”) zenbatzaile zehaztua du, baina bakarra izanez gero izena bakarrik erabil daiteke. Horrelakoetan, aditza “erosi, saldu, emon, eon, ipini, pagau”-ren tankerakoak dira, eta ez “kostau, bali(x)o isen” tanterakoak. Bestetan, salneurri-trukatze izen zehatzak daude: “duan, erregaluan...”. Ordainketa nola egiten den adierazteko forma mugagabeak erabiltzen dira: “dirutan, jatekotan, garitxan...”. Dena dela, badira egitura orokoragoak ere. Bakoitzetik adibide batzuk ipiniko ditugu:

*kgg* semátEn dáre antxoak? //sematÍAn? -*kmz* semáten dáuan ántxoak? —*razl* semáten dáos ántxoak? -*nme2* sematían <<daure>> antxóak? -*naz* semáten daos antxóak?

*razl* °sú! da patatía bos DURON estao ba sakúa-artzerá? · Pílarrenian?: bos DÚRUAN estao bá?!...

*razl* dúruam-be karúa dá!

*kazl* °... rentéruak baa... · pagátze-ebem-baa .. sea-garítxan ero artotán eroo... será erréntia!: granéro andixak euasen ...

*kmz10* “... Eske eze hamen egíttén zebeñ patrono batzuek *en especies*, salarixua dirutan emon biharian, jatekotan emon ...”

*kmz7* °dának!: · órrek utzían erosi sitxuen · será ...

*nme2* °erre- erretrátua-rebélatzia oiñ ee, oim-berrógei urté, .. ontxétx- ontxék- oingótxe presio b- bardiñian

*raz5* °-“axé salduko neskixo-onétxembestian...” ...

#### 1.2.12.2.10. Inesibo kasu marka beste kategoria batzuei ezarririk

Ikusi denez, izen-izenondoei ez eze, beste kategoria batzuei ere ezar dakieke. Batzuetan, formak ia lexikalizaturik daudenez beti singularrez eratzen dira, beste batzuk, singularrez nahi mugagabez: “baietxian (eon), esetzian (eon), pis-



katen /piskatian, justuan, oñesian, gitxixan /gitxitxan, askuan /askotan, urrian, urriñian, segiruan, goratxuauan, urriñian<sup>261</sup>”. Dena den, kasu markarik gabe esangura ez da nabarmen aldatzen:

-*naz* °bai, <barrez> ségi píxkaten... e?: píxkaten ségi...

(...)

-*naz* °a, bueno! iguel da! bueno!; béste pixka-ségi tta-ála!

*ñaz*5 “... Eibarrerako ura Plaentxiatik. Plaentxiatik ekarri eben, baña ez dakit zenbat metruan, e! Metro askuan azpittik”

*ñmz* °“Irabásixa” baai!: ... kámpo-fuboletikan góratxuauan

### 1.2.12.2.11. Askotasuna edo ugaritasuna adierazteko

Mugagabez eraturiko egituretan<sup>262</sup>; ingurumenak eta egiturak asko izan daitezke. Batzuetan, jakineko egiturak dira: “-(*e*)tan + aditza (*eon, ibili, etorri, euki, bota, esan, ein, gastau...*)” —tarteetan bestelako osagaiak ere txerta daitezke eta hurrenkera ere ez da estua—, “erakuslea + *isen* aditza jokatuta + -(*e*)tan” —honek aldaerak ere baditu: erakuslearen lekuan, balio erakuslea duten adverbio kategoriak txertatuta; aditza ere alda daiteke—. Adibide batzuk bakarrik ipiniko ditugu erakusgarri, baina oso bizirik dago zaharrenen ahotan. Dena den, gazteenen erabileratik at dagoela pentsa daiteke, ez baitizkiogu lekuko gazteeni horrelakorik jaso, erabili agian badarabilten arren:

*raz*1 °... súen aitxá-daka piñútan!! · énéééé-ené-ené-ené! ené-ené-ené!... —*kmz* °ospitxálian eon gáitxuk!: · an jéuan oná! púúf! sarrétan! —*naz* esaten dau gusurré-tann!: berbá bakotxéko bat! · berbá bakotxéko! —*rae* °loratan baeuan kamiokara bat, kantidadia! —*kaz*2 °amengo gisonak ekan isena · Pantáleon: <erdi barrez> burlátan itxe-gentzáun! ha-ha-háii! ...

*kmz* á-ok koipétan! //á-ok! gantzétan! —*raz* °au da mimotan!

*raz*1 séma-perníll! ... °len órrek, antxíña, sártu sukáldian da -“jésus neská! · orí dom-perníllétan!”: baña oiñ estao! ...

*kmz* “jóéé, or dao sapítxan!” · “Betí sa- sapíx [sic] · jo- e josítxa daok orí etxióri” —*raz*1 an euán e bedárretáan!

<sup>261</sup> Kasu marka eranstea ez da derrigorrezkoa, hori gabe ere antzerako esangura baitu: “urriñ”-ek berez du lokatibo esangura.

<sup>262</sup> Beste leku batzuetan ere antzerako erabilera arrunta da, besteak beste Fruizen eta Ondarroan. Ikus: J.A. URIARTE (1995, 380), K. ROTAETXE (1978, 519). J.A. URIARTE-k egitura-perpasu labur horiek “esamolde”-tzat jotzen dituen artean K. ROTAETXE-k -*ta*- artizkiaren esanguretariko bat legez azaltzen du: «Tenemos en el corpus frases que parecen permiten atribuir a esta [sic] infijo no sólo un valor de indeterminación sino también un significado próximo a “cantidad, abundancia indeterminada”: /arrañétan jan dau/ “ha comido cantidad de pescado” (en cantidad de pescado...) (...) un infijo que denota “cantidad” interpretada como “masa”» (1978, 519).

#### 1.2.12.2.12. Inesiboa bestelako esapideetan

Besteak beste, “aotan erabili/ibili/artu”, “sorixonian”, “beruan bero” lakoak erabiltzen dira. Adibide zenbait:

*raz1* arék aótan artú: óixe txarrá! //arék aótan artu nau ní

*nme2* °... “aótan ibili” leiké, · ondó berba ítteko be bai tta gaiskí be ii- berba ítteko be bai

*raz1* °... amén os- óstu itxen da; da úrrengo, úrrengo berúao ta... au etxiau e, · otzían otzá da ta berúam-berúa da-au!

*raz1* °estáo! · Básarríkúa isén ba soríxonían!: kalekiák!?!... éné! Eskérrak seu otórrri sarána, bestéla!, ff... úf! <zentzu onez, baikorrez>

*raz1* °saltzía eom-ba, saltzía ba soríxoniam-ba! <etsipenez dio hori, zentzu despektiboz ez baina onez ere ez>

Bestetan, itxuraz ez da inesiboa behar, edo perifrasi oso luzea beharko litzateke adierazitakoa elipsiz-edo azaltzeko; adibidez:

*nme2* °... baña · nik esa-nai dotena dá, lékuen lékuko-orí éuskerian tóke orí, · e, gáldu ingo dala! <“leku bakoitzeko” esan gura du>

*raz5* °... da -“bueno!, ba, eskritxurak, sérak, kontratúa · éitxen da · sortzí eun ero amabost eum-barruan · da juan saítxe · notárixuaGANA, ÉLGOIBARREN, da es-plíkaixosu!” · da papéltxo bat serían, da, · papelóri! · emón i-étzan da ...

#### 1.2.12.2.13. Errepikapenetan

Hitza errepika daiteke zerbait jarraikorra, mailakakoa bada: “egunian-egunian, astian-astian, urtian-urtian, berban-berban, filan-filan”. Adibidez:

*f.a.* egunian egunian ... orduak, beti igual

*raz1* °bai bá! oixe bai-“itzela”! · léngo sárrak esate-ben “itzéla”, buénoo! berbám-berbán ...

#### 1.2.12.2.14. Toponimoetan

Leku izenek orokorrean atal berezia merezi dute, baina gu ez gara horretan lar sartuko, beste ikerketa monografiko bat beharko litzatekeelako:

— Askotan mugatzaile singularra hartzen dute, batez ere etxe, baserri, eraikin, kale eta abarren izenetan. Baserri izenetan, adibidez (ez dute zertan Eibarko base-riak izan): “Mendigotxixan, Barrundixan, Aranian, Orbian<sup>263</sup>, Arimendixan,

---

<sup>263</sup> Eibarko Orbe baserri bientzat jaso dugu forma hau: batetik, Gorosta auzokoarentzat, *raz1*-en ahotik; eta bestetik, Aginaga auzoko Orbe(-Soraen) baserrirako, *enaé*-ren eta *naz*-ren ahotan.

Ubeixan, Irunabarrixan, Iñarrian, Lesetabeletxian, Guenetxian” besteak beste; kale izenak, esaterako: “Isasixan, Kalbetoian, Jeneralisimuan, Dos-de-mayuan, Errebalian”; denda, eskola eta antzerako “entitateak”: “Eroskixan, Korte-inglesian, Seatian, sine Ikusixan; Aldatzian; Duesuan; Itxurri-sarrian”; bestelako leku izen batzuk: “Euskadixan, Estretxo de Jibraltarrian, Pirineuan” eta abar. Oso erabilera zabaldua da, baina ez bakarra, mugatzailerik gabe ere jaso baititugu pareko adibideak.

Gainera, baserri, etxe edo dena delakoaren izenak leku denborazko zein edutezko genitibo kasu marka hartzen badu ere berdin jokatzen du (forma mugatuak eta “mugagabeak” sortuz, alegia): “Erdikokuan, Agiña(ga)ñekuan, Sesterokuan, Sanjuanguan; Narrunian” eta abar.

*naz* Aiñeñekuen [sic] daos <“Agiñagañe”>

—Goiko adibideetariko batzuk mugagabez, gutxixeago erabiltzen diren arren:

*kmz* Mendigóitxiñ isa-(g)áitxuk  
*kgg* Barrúndin eon gara-*kmz* Barrúndiñ eoáitxuk  
*kgg* Ariméndin eon gára -*razl* Ariméndiñ eo-naix —*naz* da eon gá-Ariméndim-be bai  
*razl* °Aixkorrín! bai! púntatxua, Urbíxam-bai! púntatxua  
*kmz* séose pasau dok Erdíkon  
*kmz* Nárrun be-eo-gáitxuk  
*kgg* len Guenetxen eon gara -*kmz* Guenétxen isa-áitxuk -*razl* Guenétxen eon gára

Zenbaitetan, forma mugagabea jaso dugu bakarrik, batez ere -*az* amaituta-ko leku izenetan eta kontsonantez amaitutakoetan:

*nme2* °... oiñ Askónabitten daos or frute kláse askó!  
*enaé* °baai, Mendibíllen est’aberixau ee, or <<eré>>! · edúrtzian <<eré>>!  
*nme2* °es, baña “Errépal”!: · baai, amen Otérren e sam-bat etaa ...  
*rmz* °... geo I- Iñarriam-be idixa-beti ... da-Argíñaon!: Argíñaomm-be bai!

—Bestetan, pluraleraz eratzten dira:

*f.a.* °Amériketan?  
*kmz* °bakísu nun sáltzeitxuen?: · or e eee · Gra- Grabadóresetan!, · io- iótzeruskúan...  
 <eta ez mugagabez litzatekeen “Grabadores-en”>

#### 1.2.12.2.15. Inesiboaren galdetzailea determinatzaile legez

Horrela erabilita adibide batzuk jaso ditugu:

*razl* num-basóti-sátos?  
*rmz3* num-basotáti-sátós? // *rmz3* “num-basóti-sátos?”: “de ké boske”

### 1.2.12.3. ONDORIOAK

Alderdi formalari dagokionez leku-denborazko kasuetako bereizketa egin behar da lehenengotik: bizidunen deklinabidea alde batetik eta bizigabeena bestetik.

—Inesiboaren atalean jorratu dugu orokorrean beste kasuetan ere gertatzen diren deklinatzeko era bi horien arteko kurutzaketak. Batetik, erabilera arruntean batzuetan bizidunak bizigabe gisa deklinatzen dira, batez ere mugagabeen eta pluralean. Alfabetatu gabeko lekukoen ezaugarria da batez ere baina alfabetatutakoek ere badarabiltzate horrelakoak; ezaugarri orokorra da hemen aztertu diren lekukoen ahotan. Egitura ihartuetan ere horrelakoak arruntak dira, “neskatan egin” adibidez. Izen bizidun arruntak, esanguraz banakoak, kolektibotzat hartzerakoan ere arrunta da bizigabe legez deklinatzea, “monjetan” adibidez. Lanbide batzuetako izenak ere bizigabe legez erabiltzen dira batzuetan, esangurak bereizi gabe zein bereiztuz.

Ondorior, bikoteak ere erabiltzen dira perpaus baten barruan, edo tarteko forma bitxiak sortzen dira, “medikotagana” adibidez (asistematikoa, noski). Animalien izenak deklinatzerakoan joera bikoitza dago, baita landare izenak deklinatzerakoan ere, baina azken hauetan joera nagusia bizigabe legez deklinatzea da.

Beste alde batetik, bizigabeek bizidunen kasu markak hartzen dituzte. Gainera, joera honek askoz bizitasun txikiagoa du bizidunak bizigabe gisa egiteak baino. Nolanahi ere, bizigabeak bizidun legez deklinatuta batez ere lekuko zaharren ahotan jaso dugunez, ezin da joera hori sistematik kanpo utzi. Zaharrengan bereziki erabat sistematikoa da “orre(g)andik aparte” postposizio egitura, erakuslearen erreferentea bizigabe dela, noski. Perpaus berean forma bikoteak egitea ere arrunta da.

—Bizidunen inesibo marka eratzerakoan bide bat baino gehiago erabiltzen da Eibarren. *-(e)(n)gan* kasu markak oso bizitasun murrizta du eta lekukoan ezagutzan oraindik ere bizi dela dirudi baina ez erabileran. Horren erakusgarri dira lekuko zahar batzuei eta Aginagako adin ertainekoari jasotako adibide bakanak; kaleko lekuko gazteak kasu marka hori erabiltzea alfabetizazioaren ondorioz datorkio ziurrenik.

Izan ere, inesiboa Eibarren postposizioen bitartez eratzen da nagusiki, lekuko guztiek darabilten bidea baita. Postposizio erabilienak “gain” eta “gañian” dira. Beste bide batzuk ere erabiltzen dira: edutezko genitiboz, biziduna bera “entitate”-tzat hartuz; sozilatiboz; destinatiboz; ergatibo egiturez eta datibo egiturez, besteak beste. Aipatu berri den bizigabeen kasu marka hartzea ere beste aukera bat da.

—Bizigabeen formak. Mugagabeen amaiera bokalikoa duten berbek zuzenean hartzen dute kasu marka; amaiera kontsonantikoa dutenek berriz, loturaz-

ko bokalaren bitartez. Aldaera fonetikoez gain, *-ta-* artizkiaren erabilera edo erabilera-eza aipagarria da. Adibide gehienetan artizki hori agertu egiten da baina lekuko zahar batzuek artizki gabeko aldaerak ere badarabiltzatenez, “seiñ elixan” erakoak ez dira kasu bakanak. Gainera, “lau ankan ikesi/ibili” erako egituran ere hori nabarmen ageri da, esanguraz “lau ankatan”-ekin guztiz desberdintzen baita. Denbora adierazten duten berba batzuek ere joera anitz dituzte deklinatzerakoan, pareko esanguraz mugagabeko, singularreko eta pluraleko formak jaso baititugu.

Mugatu singularrean *-a* itsatsidun berbak beste kasuetatik guztiz bereizten dira, kasu marka zuzenean mugagabeko formari txertatzen zaionetik. Bokalez amaitutako beste berbetan nominatibo singularreko formei txertatzen zaie kasu marka. Kontsonantez amaitutako berbetan ere kasu marka txertatu osteko emaitza berezia da, bokalez amaitutako moduan deklinatzen baita, loturazko bokala balego legez. Hainbat aldaera fonetiko gertatzen dira kasu marka hartze horretan, asimilazio-disimilazioak ez eze goranzko diptongoak eta murrizketak ere sortzen baitira. Gainera, gertakari fonetiko guzti horiek ez dirudi berriak direnik, lekuko zaharrenen ahotan ere bizirik baitira. Murrizketak baserritarren ahotan arruntagoak dira, bestalde.

Mugagabeen eta singularrean ez bezala, mugatu pluralean inesiboak beste kasuen ezaugarriak betetzen ditu; *-ta-* artizkia beti txertatzen da ezaugarri pluralen ondoan. Aldaera fonetikoak jaso ditugu plural ezaugarrietan, murrizketak hain zuzen, beste kasuetan orokorki gertatzen ez diren arren. Aginagakoak eta kaleko zaharrenak dira lekuko murriztaileenak —besteak beste, nominatiboan eta inesibo singularrean ere jaso ditugu murrizketak, esana denez—.

Kontsonantez amaitutako *-ta-* artizkidun forma mugagabeak pluralekoekin neutralizatu egiten dira; batzuetan azentua erabiltzen da bereizteko, beti balio ez duen arren.

Erabilerari dagokionez, forma mugagabe batzuk esangura bereziz erabiltzen dira; esate baterako, animalia edo landareak dauden tokia adierazteko, eguraldi fenomenoak adierazteko, masa edo multzoak adierazteko, ekintzak, ugaritasuna eta abar. Batzuetan forma mugatuak ere erabil daitezke mugagabeen lekuan.

Inesibo kasu marka hainbat postposiziotan erabiltzen da; eta sarri aditzondo bihurtuta ere bai. Izan ere, oinarrian izen sintagmaz landa hainbat osagai har ditzake.

Inesiboak lekuzko esanguraz gain beste asko ere baditu: denborazkoa, ñabardura anitzez; jarduera adierazteko; helburuzko esangura; modua, kopurua, salneurria, ugaritasuna adierazteko besteak beste. Inesiboko galdetzailea determinatzaile legez ere erabiltzen da.

Egitura berezietan ere erabiltzen da, aditz lokuzioetan, esaeretan eta errepikapenetan besteak beste. Leku izen berezietan forma mugagabeak ez ezik singularrak eta pluralak ere eratzen dira.

### 1.2.13. *Ablatiboa* *-(e)(ta)tik* *//-(r)(e)(n)(g)andik*<sup>264</sup>

#### 1.2.13.1. FORMA

Goian ikus daiteke kasu markak zeintzuk diren: *-(e)tik*/*-(e)tatik* bizigabeentzat, oro har; eta *-(r)(e)(n)(g)andik* bizidunentzat. Inesiboaren atalean aurkeztu dira bizidunen eta bizigabeen arteko deklinabide kurutzaketak nolakoak izan daitezkeen orokorrean (formak, zein aldaera hartzen duten, joera nagusiaren arabera sortzen dira: “semetatik, semetik” eta abar); jarraian, kasu honetako ezaugarriak eta berezitasunak aipatuko dira. Inesiboan ez bezala, banan-banan aipatuko ditugu bizidunen eta bizigabeen marka ezaugarriak.

Kasu markak berak aldaera fonetikoak izan ditzake ingurumenaren eraginez. Bizigabeen kasu marka txertatzen den oinarria bokal edo glide sabaikariz amaitzen bada, *-tik* kasu markako kontsonante leherkari horzkaria sabaikaritu egin daiteke (aldaerak mugagabeko *-ta-* artizkiarenak bezalakoak dira, esate baterako). Bestalde, leku izenak deklinatzerakoan batez ere, aldaera ahostuna eta ahoskabea jaso ditugu, bustidura mailak ere badirela (*-tik* */-ttik* *//-dik* */-ddik*). Amaierako kontsonante belareak ere aldaerak<sup>265</sup> izan ditzake.

Bizidunen kasu markan berriz, amaierako kontsonanteari dagokionez bizigabeen markaren ezaugarri berdinak ditu. Barruko kontsonante leherkari belare ahostunak izan ditzake aldaerak eta motibatibo kasu marka har dezakegu erduztat izan daitezkeen aldaerak ezagutzeko: bokal artean kokatuta kontsonante horren galera gertatuz gero, bokal elkarketetan ondorioz gertatzen diren tinbre aldaketak, berdinketak eta murrizketak.

Jakineko denborazko aditzondo batzuentzat beste aldaera bat jaso dugu, goikoetatik berezia: *-danik* */-danetik*<sup>266</sup>.

Ikerlariek *-rik* aldaera ablatibo marka zaharraren aztarnatzat hartzen dute, guk ere horrela jokatu dugu<sup>267</sup>. Egitura gutxitan jaso dugu aldaera hori. Alde batetik, errepikapenean ageri da, “aterik ate, etxerik etxe” moduko egitura duten adibide urrietan hain zuzen; beste alde batetik, *-tarik* forma lexikalizatuan; eta azkenik, bestelako egitura batzuetan ere jaso dugu, “aldenik alden, bandarik-banda” modukoetan<sup>268</sup>.

<sup>264</sup> Ikuspegi diakronikoz aurkezten dute M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k (2001, 125-135).

<sup>265</sup> Ikus nominatibo pluralaren atalean zer gerta dakioken orokorrean.

<sup>266</sup> Ikus mugagabearen atalean beheaxeago.

<sup>267</sup> Ikus adibidez nola aurkezten dituen R.P.G. DE RIJK-ek *-(r)ik*-en erabilera eremu nagusi bi, nahiz eta bie “partitive” izena ipini; bata kasu marka moduan, eta bestea determinatzaile moduan, nominatiboaren “pare” edo. Erabilera eremu guztien jatorrian bere iritiz ablatibo kasu marka dago (1996, 145-158). M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k ere partitiboaren atalean aurkezten dute, ikuspegi diakronikoz, forma hori (2001, 93), baina baita ablatiboarenean ere (*aip. lib.*; 125-126, 127, 134-135).

<sup>268</sup> Ez dugu uste horiek “etxerik etxe”-ko egituraren parekoak direnik, ez behintzat esanguraz. Formaz traza handia dute elkarrekin, “aldenik” forma azaltzea zaila egiten zaigun arren. Horien berrir erabileraren atalean ere emango dugu.

Beste hitz baten zalantzak ditugu zein kasu marka ote duen itsatsita, partitiboa (horixe identifikatzen baita aditzondoak sortzeko atzizki legez lan gehiengotan), ala ablatiboa, *-rik* aldaera litzatekeelarik, eta *-rian* marka zaharrena ondoan (“-rean”-en Eibarko errealizazio legez)<sup>269</sup>. Eibarren erabiltzen diren “ondorik” eta “ondorian” formez dihardugu, postposizioen sailean. Forma hedatuena lehengoa da, baina bigarrena ere erabiltzen da “aman ondorian<sup>270</sup>” gisako egituretan. Guk ez dugu uste *-an* gehigarridun forma denik (“\*ondorikan” litzateke emaitza teorian), forma hori darabilten lekukoek beti *-rian* egiten baitute, *raz2-k*, *kmz3-k*, *kmz14-k* eta *rmz6-k* besteak beste.

Partitiboa ere aipatu genuen aldaeretakoa beste bide bat, amaieran *-an* eranskina izan ala ez. Joera nagusia ez jartzekoa da, baina aurkitu ditugu horrelako adibide batzuk gure lekukoen ahotan: *kmz* da aldaera hori gehien darabilen lekukoa; eta aztertutako solasaldi kopurua kontuan izanda, *ñmz-k* ere oso joera handia du horrelako formak erabiltzeko. Noizbait aldaera hori darabilten lekukoak hauek dira: *nme2*, *kaz*, *kmz1*, *kaz9*, *kmz7*, *kaz1*, *kmz3*. Hala ere, lekuko batzuek ez dituzte *-andun* formak<sup>271</sup> eibartartzat jotzen, *raz-k* esaterako.

Dena dela, aditzondo-postposizioetan ere txerta daiteke gehigarri hori: “ondiokan” forma da erabiliena horien artean, bestelako kasu markei erantsita erabiltzen ez dutenek ere baitarabilte, *f.a.-k* eta *raz-k* adibidez. Horrela osatutako beste forma batzuk: “barikan, bakarrikan, orraitxiokan...” baina frekuentzia asko txikiagoz erabiltzen dira forma soilak baino.

### 1.2.13.1.1. Mugagabea

—Bizidunen kasu marka

#### Bizidunen ablatibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alaba(g)andik /alabaandik /alabandik //alabangandik</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillegandik /mutilleandik //mutilgandik</i>
--

Deklinabide kasu batzuetan gertatzen denez, edutezko genitiboaren marka<sup>272</sup> aukerakoa da, batzuetan azaltzen da eta beste batzuetan ez. Lekukoen idiolektoek joerak dituzte, eta batzuek genitibo marka gehiagotan tartekatzen dute beste batzuek baino, edo beti tartekatzen dute, edo sekula ere ez. Genitibo marka darabiltenen artean *naz* eta *kgg* lekukoak ditugu. Genitibo markarik gabeko

<sup>269</sup> Ikus M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k egiten duten aurkezpen diakronikoa (2001; 127,128).

<sup>270</sup> “Amaren atzetik” esan gura du.

<sup>271</sup> Gogoan izan *f.a.-k* ere partitiboari erantsitako formak gaitzetsi egiten dituela, “diru(r)ikan” modukoak hain zuzen.

<sup>272</sup> Ikus izan ditzakeen aldaerak edutezko genitiboaren atalean.

adibideak jaso dizkiegu lekuko hauei: *kmz*, *kgg*, *raz1*, *nme2*, *naz*, *S.B.* (ezaugarri hauek ez dagozkie erakusleei eta izenordainei).

Kontsonantez amaitutako berbetan, joera hirukoitza ere izan daiteke kasu marka eransterakoan: genitiboa marka hartu ala ez, eta kasu marka txertatzerakoan loturazko bokala hartu ala ez: “mutilgandik, gisongandik, fingandik” jaso diogu *kgg*-ri; “mutillegandik, moskorre(g)andik” erako formak *nme2*-ri, *kmz*-ri, *kgg*-ri eta *naz*-ri; eta “moskorrengandik” *kgg*-ri. Agian loturazko bokalaren tinbre alternantzia, “gisonaandik” forma mugagabea jaso diogu *raz1*-i.

—Bizigabeen kasu markak eta ezaugarriak

### Bizigabeen ablatibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixatetik /elixatik; jaittatik /jaittetik /jaitxetik /jaitxik /jaitxetik</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>egunetarik /egunetik</i>
---

Leku-denborazko genitiboan gertatzen den legez, ablatiboan ere txandaketa handia dago *-ta-* artizkia<sup>273</sup> erabili ala ez, lekuko gehienen esanetan. Izenak ondoan determinatzailea (galdetzailea, izenordain zehaztugabea nahiz zenbatzailea) izan, ala bestelako egituran izan, ez dirudi garrantzirik duenik mugagabeo *-ta-* ezaugarria txertatzerakoan: “sein elixatik, erosein elixatik, iru elixatik” da forma hedatuena; areago, *kgg* lekukoak “elixatetik” forma ez du onartzen. Guk jasotako adibideei bagagozkie, artizki hori gutxien darabilen lekukoa *kgg* da; bestalde, artizkia gehien darabilen lekukoa *nme2* da. Joera horren haritik, “maixik/maittik” aldaera lekuko guztiek darabilte, *nme2*-k “maittetik” ere badarabilen arren. Baliteke *-a* itsatsidun berbek artizkirik gabeko formak osatzeko joera handiagoa izatea.

Baina “etxetatik, kaletatik; erritxatik” ostera, sistematikoki lekuko guztiei jaso diegu, “etxetik, kaletik; erritxik” formen ondoan (azken hauek *kmz*-ri, *kgg*-ri eta *S.B.*-ri jaso dizkiegu bakarrik). Aldaera biak alternantzia darabiltzate lekuko gehienek, joera nagusia artizkia gordetzekoa dela dirudien arren. “Sein/se/nun basotik” *naz*, *raz1*, *kgg*, *kmz* eta *rmz3* lekukoei ere jaso diegu, adibidez; beste forma ere, “basotatik<sup>274</sup>”, arrunta da. Horrelako bikote gehiago ere jaso ditugu: “ataitxatik /ataitxik, balkoixatik /balkoixik, lautatik /lautik”, esaterako.

<sup>273</sup> Aipatuak ditugu artizki horrek dituen aldaerak ingurumenaren arabera. Leku-denborazko kasu guztietan berdintsu jokatzeko du. Erabilera aldetik, inesiboan askoz gehiago gordetzen da marka hori forma mugagabeetan beste kasuetan baino.

<sup>274</sup> Azentuak bereiz ditzake dituen zentzu biak, “basotátik” (basoa, ohiana) eta “básotatik” (edantzia).



Glide sabaikariz amaitutako berba baten jaso ditugu aldaera gehien: “jaitxik, jaitxetik, jaittetik, jaittatik; jaixetik”. Azken forma hau inesiboko “jaixetan” mugagabearen bidetik sortutakoa da, noski<sup>275</sup>; *kgg*-ren ahotik jaso dugu.

Bokalez amaitutako berbetan kasu marka zuzenean txertatzen zaio oinarriari, ikusi ditugun adibideek ia erabat erakusten dutenez. Aldaera fonetiko arruntak aurkitu ditugu; adibidez:

*nme2* -sein kajetatik [sic] asi sára? ...

“Gau/gaba/gabe” hitzarentzat forma hauek jaso ditugu: “gautatik, gabetatik /gabetik, gabatik”.

Kontsonantez amaitutako berba arruntek loturazko bokala hartzen dute kasu markaren aurretik: “egunetik /egunetik”, eredurako.

Leku izenek, berriz, joera bikoitza dute loturazko bokala hartu ala ez, bokalik ez tartekatzeke joera nagusi den arren. Amaieraka sailkatuko ditugu. Kontsonante albokariz amaitutako izenak, “Madriltxik /Madritxik/Madririk /Madririk /Madrildik<sup>276</sup>, Usurbildik/Usurbildik /Usurbilitik”. Kontsonante dardarkariz amaitutakoetan “Eibartik” erdua erabatekoa da, salbuespenak jaso ditugun arren: “Saldibarretik”, *kaz2*-ren ahotan, “Lasturretik” *raz1*-enean, eta “Lasturdik” *naz*-renean. Kontsonante sudurkariz amaitutakoek erabat aldarea ahostuna hartzen dute, “Irundikan /Irundik”, arrunta denez, salbuespenak diren arren: “Andoaiñetik, Leonetik” *kgg*-ren ahotan (*naz*-k ere zalantzaz eratu du forma hori, “Leondik” guztiz onartuz). Kontsonante frikari txistukariz amaitutakoek bitara egiten dute, joera nagusia loturazko bokalik gabe egitea bada ere (kasu markarko leherkari horzkaria beti ahoskabe egiten da): “Miraflorestik(an) /Mirafloresetik” izan bedi eredu, baina beti “Paristik, Sarastik<sup>277</sup>”. Bokalez amaitutakoek ez dute txandaketarik orokorrean: “Bilbotik”, adibidez.

Oinarrian beste kategoriaren bat dagoenean, adberbioak-aditzondoak esate baterako, ez dira leku izenetako joerak nahitaez betetzen. Kontsonantez amaitutakoetan loturazko bokala batzuetan hartzen da eta bestetan ez<sup>278</sup>. Adibidez, “arañeundik /arañeuntik /arañeunetik; urrindik /urriñetik” formak jaso ditugu. Bestetan, bai betetzen da joera orokorra: “amendik /ametik, andik, le(e)ndik; ortik, gaurtik, bixartik”, esaterako. Aditzondo batzuetan badirudi oinarrian forma bat baino gehiago hartzen dela: “orduandik /ordutik<sup>279</sup>”. Lehenengo forma *kmz*-k eta *kgg*-k darabilte baina *nme2*-k ez du ontzat ere jotzen; beste forma *kgg*-k,

---

<sup>275</sup> Ikus han.

<sup>276</sup> Ikus leku-denborazko genitiboaren atalean ere nolako formak dituen toponimo horrek.

<sup>277</sup> Salbuespen bakarra *kgg*-ri jaso diogu, “Sarautzetik” forma bestearen ondoan. Agian herri horretan aldi luzeak egiten duelako izan daiteke.

<sup>278</sup> Leku-denborazko kasuaren joera betetzen da.

<sup>279</sup> Ikus leku-denborazko atalean formazko bikote bera.

*raz1*-ek eta *nme2*-k darabilte. Forma batzuek ez dute kasu marka guztiz onarzen: “\*oindik<sup>280</sup>” baina “oinditxik” forma indartuan, adibidez.

Bokalez amaitutakoetan ez da formazko aldaketarik ablatibo kasu marka onarzen duten aditzondoetan, zuzenean hartzen baitute. Adibidez: “atzotik, lengunetik<sup>281</sup>, aurretik<sup>282</sup>, atzetik”.

Denborazko aditzondo batzuentzat beste aldaera bat ere aurkitu dugu, “-*danik /-danetik*”, lehenengoa “beti” aditzondoari txertatuta bakar-bakarrik: “betidanik” darabil *kgg*-k eta “betikodanik” *nme2*-k. Beste lekukoek ablatibo kasu marka eranstekotan “beti(txi)k” forma egiten dute baina inork ez du guztiz ontzat hartzen eta forma arruntena “beti” forma soila da (“noiztik” galderaren erantzuna barne). Beste forma *nme2*-rengandik jaso dugu, “ontxedanetik”. *nme2*-ren erabilerek jatorrak dirudite, baina *kgg*-renek alfabetizazioaren eragina dutela pentsa dezakegu, lekukoak etxean ikasitakoa duela aitortu arren.

*nme2* ori árboloi betiKODANI-dao-or

*nme2* asi saitte · kontatzen ... eménditxik, -eroo- ontxedánetik

Leku-denborazko aldi esangurako “gastetan, txikitxan” erako formak “gastetatik, txikitxatik” eta abar dira ablatiboan deklinatuz gero, eta ez “\*gastetik, \*txikitxik”.

#### 1.2.13.1.2. Mugatu singularrean

—Bizidunen kasu markak eta ezaugarriak

##### **Bizidunen ablatibo singularra: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabiagandik /alabiaandik /alabianidik //alabiangandik</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillagandik /mutillaandik /mutillandik //mutillangandik</i>
--

Mugagabeen jada aipatu dugunez, edutezko genitiboaren marka aukerakoa da baina joera nagusia ez erabiltzekoa da; lekukoaren idiolektoen joerak mugagabearen antzerakoak dira. Genitibo marka *kgg* lekukoak darabil bakarrik; genitibo markarik gabeko adibideak beste lekukoei eta *kgg*-ri berari ere jaso dizkiegu: *kmz*, *raz1*, *kgg*, *nme2*, *naz*, *S.B.* (ezaugarri hauek ez dagozkie erakusleei eta ize-nordainei). Bestalde, bizigabeetan ez bezala, kasu marka forma mugatuei txertatzen zaie, bai bokalez amaitutako berbetan bai kontsonantez amaitutakoetan ere.

<sup>280</sup> Esaldirik gabe jaso diogu *kmz*-ri “oindikan” forma, lekuko denetan salbuespena. Forma arruntan “oiñ, ontxe” erabiltzea da, abiapuntua adierazteko barne.

<sup>281</sup> Forma ezagun erabiliena “lengunian” da: nominatiboan, adibidez, ez da erabiltzen “\*lenguna”, baina bai “lengo eguna”, kontzeptu bi diren arren.

<sup>282</sup> Esangura hirukoitza izan dezake: ablatibo garbia, “nondik”; “non zehar”, eta “lehenago”. Gauza bera gertatzen da “atzetik” forman ere.

Murritzeta mailak ere jaso ditugu; adibide batzuk ditugu jarraian, osoenetik murritzenera:

*kgg* ikasísu sure semíangandik  
*naz* ikésísu seure semíagandik  
*kmz* sé-espero súan · atzóko sorúai- sorúáandik?  
*kmz* ikasík iré semíandik // *kmz* ikásik ire anáindi- ana- anaiándik [sic] // *kmz* íkasik mutillándik

—Bizigabeen kasu markak eta ezaugarriak

#### **Bizigabeen ablatibo singularra: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixatik</i> ; <i>jaitxik</i> / <i>jaittik</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>egunetik</i> (/egundik)
--

Bokalez amaitutako berbetan kasu marka zuzenean oinarriari txertatzen zaio, mugatzailearen arrastorik gabe. Beraz, mugagabeen *-ta-* artizkia tartekatzen ez diren formekin neutralizatu egiten dira, sinkretismoz, baina esaldiko ingurumenak gehienetan argitzen du esangura. Aldaera fonetikoak, beste kasuetan legez, ez dira falta; adibidez:

*nme2* °elixétik [sic] urten áliam-bakótxa bere-etxéra ta, · bíxkor!, báí...!

“Gau/gabe/gaba”-ren aldaerak “gabetik /gabetikan” dira, beste kasu batzuetan ez duen bateratasunez.

Kontsonantez amaitutako berbetan joera bikoitza jaso dugu. Gehienetan loturazko bokala eransten da “sabaletik” erako formak eratuz, baina adibide banaka batzuk jaso ditugu kasu marka bokal hori gabe txertatuta, zuzenean oinarriari: *ñmz*-ren jardunean jaso ditugu forma biak bata bestearen ondoan esaldi baten:

*ñmz* °... orí be, · kámpo-fúboldik!, kámpo-fuoletikan ee, eskumára!

#### 1.2.13.1.3. Mugatu pluralean

—Bizidunen kasu markak eta ezaugarriak

#### **Bizidunen ablatibo plurala: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabe(g)andik</i> // <i>alabengandik</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutille(g)andik</i> / <i>mutillengandik</i>
--

Edutezko genitiboaren markari dagokionez, singularreko joera gorde egiten da baina pluralean genitibo marka tartekatzejoera handitxoagoa antzeman dugu. Genitibo markaz eratzen dutenen artean hauek ditugu, *kgg*-k sarri askotan, ia beti, eta adibideren bat hauei jaso diegu: *kmz*, *S.B.*, *nme2*; genitibo mar-

karik gabe hauek egiten dute: *nme2*, *naz*, *kmz*, *raz*, *razI*. Edonola ere, bizigabe kasu markak leku handia kentzen dio bizidunentzakoari.

Beste adibide batzuk ez dakigu nola interpretatu, ahoskatzerakoan zalan-zaren eraginez sortuak diruditelako:

*kmz* iré aláben-ándik ikésik // *kmz* anáien-a-ándik [sic]

*naz* lekukoari “gisonagandik” forma jaso diogu pluralerako. Fonetikak azalduko luke ebakera hori gure ustez, ez baita kasu honetako ezaugarri morfologiko arrunta.

—Bizigabeen kasu markak eta ezaugarriak

### Bizigabeen ablatibo plurala: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixetatik</i> ; <i>etxietatik</i> / <i>etxetatik</i> / <i>etxitatik</i> ; <i>soluetatik</i> / <i>solutatik</i> ; <i>lekuetatik</i> / <i>lekutatik</i> ; <i>jaixetatik</i> ; <i>balkoietatik</i> / <i>balkoitatik</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>egunetatik</i>
---

Kasu marka, bai bokalez amaitutako berbetan bai kontsonantez amaitutakoetan, datiboan aurkeztu diren pluraleko ezaugarriei txertatzen zaie, eta salbuespenik gabe *-ta-* artizkia tartean dela.

Dena dela, beste leku-denborazko kasuetan aipatu dugunez, forma fonetiko koki murriztuak ere jaso ditugu, hala nola:

*nme2* Eibárko káletatik · pasau gára  
*nme2* suen lékutatik es <<mobítu>>, e?  
*nme2* ori etxeko balkóitatik óndo ikusten da

Ez da pentsatu behar horiek forma mugagabeak direnik. Galdekizunez lortutako esaldiak direnez, ziur dakigu plural formak direla, eta esaldiko egiturak eta esanahiak ere horixe azpimarratzen du.

“Gau/gabe/gaba”-ren aldaera nagusia “gabetatik” da baina *nme2*-k “gauetatik” egiten du.

## 1.2.13.2. ERABILERA

### 1.2.13.2.1. Bizidunen formak osatzeko ordezeko bideak

Motibatiboa erabiliz<sup>283</sup>, ergatiboz osatutako egiturak erabiliz, edutezko genitiboz osatutakoak erabiliz, soziationaren bidez... Zenbait adibide:

*f.a.* ikesisu mutillagaitxik —*naz* persona fimm-bagaittik ikesi leike gausá-asko  
*S.B.* sein sorok erakutzi-tzu ori? —*f.a.* seiñ anaik erakutzi-tzu ori?

<sup>283</sup> Ikus atal horretan.

*naz* artítut erregáluak iru alábenak //naz ikési seinke-edosein mutíllen gausak  
*razl* mutíllakiñ ikási! //razl gisónekiñ gausá- eroser- eróser ikési léikiala //razl  
roseiñ e persona fñeikiñ ikási séinkiala ...

### 1.2.13.2.2. Berdeklinazioa

Ablatiboa leku-denborazko genitiboaren aurretik:

— *-tiko/-diko*. “Nondiko” galderari erantzuna litzateke, era honetara sortu-  
tako formak nahikoa ihartuta dauden arren. “Arratetiko” izena “eibartarra”  
adierazteko den erabilera galdua dela dirudi, gure lekukoengandik ez baitugu  
horrelakorik jaso, T. ETXEBARRIA-k<sup>284</sup> izen kutuna zuen arren<sup>285</sup>, eta izen arrunt  
ez eze, “Arratetiko bat” bere ezizen moduan ere erabiltzen zuen.

Bestalde, erabilera aldetik bizi-bizirik dauden formak adberbio kategoriako  
formei lotutakoak direla azpimarra daiteke. Balio erakuslea duten “amendi-  
ko/emendiko //ametiko/emetiko, ortiko, andiko” dira forma erabilienak, esaldian  
komeni den legez deklinatuta. Izenaren ondoan erabiltzen dira (“ortiko partia,  
andiko kuartua”), edo postposizioekin batera lexikalizazio bidean ere aurki ditzake-  
gu (“amendikaldia, ortikaldia, andikaldia”), bakarrik zein izenaren ondoan: “an-  
dikaldeko kuartua”. “Aurretikua” forma ere ahozko jardunean oso aberatsa da eta  
bi esangura ditu, denborazkoa bata “lehenagokoa” adierazten duela; eta bestea  
abstraktuagoa, subjektiboagoa, “garrantzitsuagoa”-edo esan nahi duela. Adibidez:

*razl* °... ogixari oixe bai mun itte-akola! ... asi aurréti-mun eiñ!, · da k- kurutzía  
im-be bai! ... oiñ áurretikua-dáre! órre-baño...

Izenei itsatsita ere jaso dugu adibide bakanen bat:

*razl* orí da e, eskerrá-aldetikua ta béstia eskumákaldekua  
*rae* °or óstetikoaldetik órítixik!, da geróo · mendíxak?!: o- Umáixo-ondúa, · Mál-  
deii, Basobáltzaa ...

— *-tariko*. Ez dakigu galdera zein litzatekeen Eibarren ez baita erabiltzen;  
“zeintzuetariko” izan zitekeen, esaterako. Erantzunetan ere, oso erabilera mu-  
rritza du forma honek. Ikusi dugu leku-denborazko genitiboaren atalean “sue-  
taiko” adibidea *nme2*-ren ahotan bakarrik; *-tako* forma laburragoa<sup>286</sup> hedatuagoa  
da lekuko gehien erabileran; horren ondoan ablatibo garbiak diren *-tatik* eta

---

<sup>284</sup> (1986).

<sup>285</sup> Gogoan izan behar da egin zuen lexiko lan mardulari “Arrate`tikuen izketia” azpi-izenburua jarri ziola.

<sup>286</sup> Baliteke adibidez “suetako” formaren jatorria \**sueta(r)iko* > \**suetaiko* > *suetako* izatea; bai-  
na edonola ere, oinarriko forma ez da bizidunen deklinabide ezaugarrikoa, *-ta-* artizkiak erakusten  
duenez. Orduan, leku-denborazko genitiboak bizidun formarik ez duenez, baliteke kasu horretako  
forma izatea, besterik gabe. Oinarrian ablatibo forma balego ere, bizigabeen markaz eraikitakoa li-  
tzateke (Fruiz-en ere antzera egin da (J.A. URIARTE, 1995, 381)).

-(g)andik ere jaso ditugu. -ta(r)iko-ren erabilera aberatsena, mota adierazteko, izenordain legez erabilitako erakusleen alorrean aurkitu dugu; “orretaikua, ortaikua” formak *nme2*-k eta *nme*-k darabiltzate. Beraz, pentsa daiteke Aginaga auzoan duela bizitasuna handiena, nonbait izatekotan. Solasaldi askeko adibi-deak ipiniko ditugu horren erakusgarri:

*nme2* “pitxiá” ero “kop-” ee... · “kopíña” °oo... ·· órtaikua  
*nme2* °... eta pristíxaak, “pristíxa-dábis or” ba, b’askotan suntu da ori: ba basakátua ero-ortaike aisérixá ero serten danien da, “pristíxak”...

Aukerako beste forma batzuk lehen aipaturako leku-denborazko genitiboz zein ablatiboz bakarrik osaturakoak lirateke; baina nominatibo soila ere erabiltzen dute batzuek:

*naz* -sein lékutik artúkot? ... -ónetxek artúkoitxut <“leku”-k kasu honetan, mota adierazten du>

### 1.2.13.2.3. Erabilera edo esangura nagusiak

Erabilera nagusiak hiru galdera edo nozioen erantzunetan datza:

—“Nondik”, lekua adierazteko. Leku fisikoa zein abstraktua izan daiteke, eta biziduna zein bizigabea. Adibide mordoa atal honetakoak dira:

*kmz* núndik átor?  
*rmz* °táki-pá!, núndik ekingutzaun! <hizketa-gaiari nola hasiera eman du zalantzan>  
*kmz* biotzétik óperau juek <“zertatik”-en erantzuna ere izan daiteke>

—“Noiztik”, denbora adierazteko, beti forma bizigabeak. Izenekin eta abar erabil daiteke, baina batez ere aditzondoekin da oparoa; bestelako bideak ere badira hori adierazteko, jakina. Galdetzaileak “noistik” ez ezik, “nundik” erara formulatuta ere jaso dugu:

*kmz* noistik éoaix itxaitzen?  
 -*rae* °ba lélengoo patatia sartú, · u, ee, lélengo biarra urtian; geró...  
 -*rmz* °baña núndik ekíndda? <denborazko zentzuz>

—“Zertatik”, ekintza adierazteko. Adibidez:

*kmz* °éss!, gastíak es!; sárra-pés: sárrak errétirauta dáre txikitéotik!  
*kmz8* “... Gerra ostian ór ipini ... Naparruan e, fabrikatxua ta, ba, ándixik bizi garaz ...”

### 1.2.13.2.4. Ablatiboaz eta adlatiboaz osaturako egiturak

Horien bidez “bitartea”, luzera, neurria, iraupena, muga... adieraz daiteke. Sarritan *eta* erabiltzen da tartean<sup>287</sup>. Asko ere asko erabiltzen da, ñabardurak ere ugari direla; guk adibide batzuk baino ez ditugu ipiniko:

<sup>287</sup> Ikus adlatiboaren atalean ere.

— Adlatibo soilaz:

*raz1* °... maixa e ... bá! <eskuekin erakusten du> a- améndik eta orra béste bai!

*raz1* °burdiñásko-oyak! · gure básarrixan! ... alakótxe óya!, sémat?, a- órtik eta ona béste bai beintzát!, ero aundíxaua iguál! ...

*raz1* °... ámamam-básarritxik urrian dao-ori ume bixak itxó siana Naparruan? ... améndik eta-ará moruan eró?

*lrmz6* °... arrixa iruate-juen ee, améndik ara béste! .. guk es! ...

*nme2* °eee... .. bernía da eee oo... · sétik, belaunetik · eta orkatilla-ártekua  
*naz* arek alde bateti-bésteráá, ogei ba-metro eukasen

-*kgg* °irakúrri dósu?

(...)

-*kag* °“Ajeak”? baáai!, goóitxi-béra! <“osorik” esan gura du>

-*kgg* °góitxi-béra?

-*kag* °(...)

-*kgg* °ní-góitxi-béra es

*kaz1* °[zubia] bat, lélengoo daona, · Bidébarrixatatik e · sérak, Grabadores parera daona

*kaz3* °bai, akordatze-jata · balkóya ekala · púnta-ateti-béstera etxiak ...

*rae* °bastár-: bastar dánetan eta ee... · ólan e bos métroti-bos métrora illária!

*rmz2* °<<embórren>>-néurrixa baa, géixenetan, .. kampeónatuétan · daa ... géixe-nak .. berróetabost ontzátik .. irurógei ontzarákua, órtxe! ...

*kaz2* °... péntzatze-neban .. au korridiau · éyebela ... el dieciseis de agosto! · baña esin leike isán! .... mil nobecientas diez! · jáixo sa-nere aistia · agostuan sortzíxan .. da, sortzítxik amaseira · eun gitxi dauu-umiakin juatekó...

*rmz2* °... da jó-ta probálekúá jó-ta galipóta botá gabéti-goixéra ta-arríxa desapáresi-du?” ...

*nme2* <txofer izatea> °sárta baai! ogei urtetik onakúá!

*raz1* °da geró jee- oin dala illebete- illébetee ikusi neba-nik etaa játeko gogorik esekala da esaestan daa... · ándik oná e, ándik oná gausaonik es, · kutxáuak...

*rmz* °estaki-nik!, [eskolan] an gastia-bee ibiltze-sian da g- ee... gure-edadekua-pe bai txa... · baña órtxe!, saspítxik ee amáirura eró!, ortx- ortxe tamáñokua-dá-nak!

*raz* °... oseake, jenera-asíño báteti-béstera orí diferéntziori diferénsia-aundíxa dá! ...

*kaz2* °urté bi: sartu nitzan .. Érreen euna pásauta! .. el día .. siete d’enero! .. grabatzen ikastera... .. Da lélengo kinsénia-artu nebán .. ándik urte birá · Gabóne-tan! ...

Ekintza-gertakari jarraikorretarako, “egunetik egunera, gisalditxik gisaldira” erakoak erabiltzen dira:

*naz* ori lorioi, eunétik eunera-asten da

— Adlatibo bukatuzkoaz:

*ñaz2* °e, Txáltxaneti-geró gue- Kiputzánera-árte · iséngo san, estaki-nik! ...

*kaz1* °... “Otaóla” san! Arétxek emotetzam · ballera gustiari · isená: ballería baa, bakísul: Bískaitxik **etaa** · s- e, e, Elgoibarkó · mugárañok · ta, errékatik · górutz · da betí ee Otol- ee Otaolaa · Ballía

*nme2* °oiñ eméndik ee, martxorartee amém-bée...

— Bide zuzenezko adlatiboarekin bestelako ñabardura mugagabeagoa har-  
tzen du, ez baitu dena delakoaren amaiera edo kokapen zehatza mugatzen:

*kaz1* °... Bískaitxik etaa · s- e, e, Elgoibarkó · mugárañok · ta, errékatik · górutz · da betí ee Otol- ee Otaolaa · Ballía <“andik” aurrerako guztia Otaola da>  
*ñaz2* °Ipuruatik arús baa · Tútulukua! <baserria tarte horretan dago>

— Nominatiboa ere har dezake ondokoak:

-*ermg* °... idixa-sema-demporarako eukitzen dias e, idi-próbetarako, jeneralien? ...  
-*rmz* °sei urtéтик e amár eró amábi eró, e see... se se- sasoi daukán!, bátzu- akao!,  
geatzem-bada-amar- amarrekiñ akabo bañá... · doséna bat...

— “Nondik nora” egiturari erantzuna, ibilbidea adieraziz:

*rmz2* °... ní-baakíxa-núndi-nora juañ san- Millaflóssera [sic] ...

*kmz* °“tximistía”, lañóтик la- lañoora doyañ txispia da; da, “oñastúa”, lurréra etortze-  
dana!, “oñastúa”!

*rmz2* °... -“ess!, aré-juam-biaok · Eibárko estasíñuan úrten, · da, · sentraléra, ·  
Matxári gañeko sentraléra. Sentraléтик, berám-básarri ondóti-pásau súan ál!” ní-baa-  
kíxa-núndi-nora juañ san- Millaflóssera [sic]; Milláflorestik · juañ suañ · Arrájola-  
ra; Arrájolatik “Amásabale-i errékara” esáte-akóna; Amasabalei errékatik · Atxúle-  
tára; Atxúletako etxabúruan! sártru an bétí-góra! otátzan góra! ...

*rmz* °nándaixa dok · idixetatik · arríra dóyana

*kmz7* °... béstiañ ee Kálamuara taa... · se- sé-esana ipiniko ete-eben eró, sea ta, ·  
ba, · tenientetikan-nere burua kábora bajatu nebán! <barrez> <“zertatik zertara” li-  
tzateke>

#### 1.2.13.2.5. Denbora puntuala, “noiz”, adierazteko

Esate baterako, “goixetik” erabiltzea “goixian” adierazteko oso arrunta da, eta bakarrik nahiz izenaren ondoan egon daiteke. Osterantzean ez da zentzu honekin sarri erabiltzen, baina batzuetan bai:

*nme4* °aurreko domeka goixetik, Orei áldin da ibili san!

*kmz1* °... -“ta ítxem-bok e tártia?” ta, (...) -“goixéтик eingéuat”, eta-aláxen goixéтик in júat...

*ñaz2* °baña gerrá-aurreti-pe índa! · orí!



### 1.2.13.2.6. Leku zehatza, “non”, adierazteko

“Egon, izen” erako aditzekin erabiltzen da. Adibidez:

*raz5* °... eta, ei sian amáika t’erdiak ero amábixak ingurua ta, · -“Kaitáno-ortidao?” ta, · -“es!, baña urriñ esta!, en- an etxian eongo da ganauakiñ! ...

*ñmz* °Artáxueta da · Úmbera bagóyas bá?, Úmbera dao · eskúmatikan: or Umbee... eskúmatikan mendíxa! Ártatxueta! arro- arrobixa be, · órtxe!, eskúmatikan... Úmben: gure basúa rao Úmben!

*ñmz* °táitx ee..., · eséuan e, · karretérian e, eskumáti-barik eskerréra... · Élgetara góyesela eskerréra, Bustíngorri! ...

*f.a.* danen gáñetik euan

### 1.2.13.2.7. “Non zehar” adierazteko, prosekutiboa

Mugimenduzko aditzekin erabiltzen da batez ere (“juan, pasau...”). Zenbait adibide:

*rmz2* °... aldapárik áundiña euan lékutik, lékuik txárren-txárreneti-juan súan baña úrrenetik, e? ...

*ñaz2* °ee. gasa- gasána pixkat arúztatxuaoti-pasau ta geo: gasanátik onútzao, e?

*kaz1* °... len errekia joyan · basúan e, e, séra, · seran óstetik, sentralan óstetik ...

### 1.2.13.2.8. “Nola”, modua adierazteko

Erabilera hau ere aberatsa da; adibide batzuk erakusgarri:

*kaz3* °... iñúndik iñóra esi-san jirau! erroparik itxeko, e? iñúndik iñóra be!: esseb’esseb’eseuan iñúm-be · erropárik eitxia nai basan, ta berári · jáusi akon títia, sikindu akon túnikióri da gáñera bastanta- sarra ékan · da núúndik ingo daben da núúndik ingo dabén... · da... · sera-al- bat- bijante bat ibiltze-an ámen ee... ... <ez du lekua adierazten>

*kmz* °... mímpekúa da e · gusúrra e a! as- aspítzik · esáten séose báterombáteaitzik... *nme2* euríxa, gogótik itte-seban, ássko!

*kmz* °sursílluétatik éuk játen dó-dánaaa!: ensaládia ta · paéllia ta dá-...

*kgg* °bidé- bidé txarrétik esára juango bañá?...

### 1.2.13.2.9. Ablatibo kasu marka lexikoan

—Forma ihartuetan: “orraitxiok(an) (be), ondiok<sup>288</sup>(an)”.

—Bestelako lexiko arruntean: “burutik-berakua” gaixotasunaren izena kasu.

---

<sup>288</sup> Ikus adlatibo bukatuzkoan egiten dugun aipamena.

— Aditz perifrasieta. Egitura batzuek aldaera mordua dituzte, oso erabiliak diren seinale; esate baterako, “burutik/kaskotik/kasketetik/ganbaratik einda eon, burutik (jota) eon, burutik ondo es eon”, nahikoa ihartuta daude. Bestelakoak ere badira: “-tik + moduzko aditzondoa + eon/ibili...”; gaixotasuna adierazteko, korputzaren atalari eransten zaio: “-tik eon”, adibidez:

*kmz6* “... gero ándik, urtietara, ba, ori gure lagun Gojenola egon zán, bularretikán ...”

*kaz8* “Bai petxutik egon zan”

— Postposizioetan, aurrekariei erantsirik, *-tik siar*, *-tik gora*, *-tik be(e)ra* eta antzerakoetan.

— Herriko toponimian badira ablatiboa gogorarazten duten izenak: “Mendigoitxi” —“Mendigoitia” antzinako dokumentuetan—, “Garagoitxi”, “Urgoitxi”, besteak beste.

#### 1.2.13.2.10. Jatorria, sorrera adierazteko

Abiapuntua baino areagoko esangura dute ondokoek:

*-kmz1* °[euskara] núndi-dátok orí?; da núndik o sémat urtían ero...?

*-kmz* °a!, dinosáuruenn démporátik!

*-kmz1* °óixe ba! Ba guk axé gúk- gúk e guré- guré atxá ta · guré-...

*-kmz* °élgoibartarra

*-kmz1* °ta-áre-béstia-béste, ta ánditxi-dátor guría!

(...)

*-kmz1* °kláaro!; bai; ánditxi-gatúas gú!, esáte-júa-pá!

*rmz2* °... gaur itxen ditxúe-pa segádorekim-bedárrak ebái txa idíak eta dának ·· ero garúak eta... ba · órtitxi-galdú dó-segía géixen-nerétako ...

*kmz* ifarráixia dávik ... °Urkotiik. ·· Béstia égua da, égo-aixía

#### 1.2.13.2.11. Mota adierazteko

Aukera zentzua ere badu. Adibidez:

*nme2* séintzuetatik ekarrittusu?

— Izen sintagmari txertatuta:

*naz* °<entsaladarik ez baina okela gustatzearren> ené, fiñétik orduen?!...

*rmz* °[txerria hiltzea] áundiñetik!: áunditxuaua lélengo eró, makáltxuaua eró, ánke-tatik eó · txartuao ero baebim[sic]-ba, á lélengo!

— Adizkiek ere har dezakete:

*nme2* eskatu dosunetik amen estao es báta ta es béstia

#### 1.2.13.2.12. Aditzondo batzuetan

Beste kasu marka batzuk sarriago agertzen diren lekuan ablatiboa ere ager daiteke; adibidez:

*kmz* óri esátesta-gáñetik? —*razl* orí ... esátestasu lengúas gáñetik? //lén-naikúa sé-regin da geró-ori · <barrez> gáñetik! —*naz* óri esatustasu gáñetik?  
*naz* segúrutik ónuskeo etxien dao

#### 1.2.13.2.13. Atzizkien kurutzaketaz

Ablatiboa motibatiboaren lekuan, eta alderantziz, arrunki nahasten ez diren arren<sup>289</sup>.

#### 1.2.13.2.14. Aldi osoak adierazteko

Honelakoak erabiltzen dira: “gastetatik, txikitxatik, nobixotatik”... Inesiboko “gastetan, txikitxan” formen pare-parekoak dira<sup>290</sup>.

#### 1.2.13.2.15. Proporzioak, zatikiak adierazteko

Bi bide nagusi jaso ditugu:

—Zenbatzailez eraturako egituren bidez, “lautik bi /lautik bikua” erduen arabera<sup>291</sup>. Ereduan ikus daitekeenez, bigarren zenbakiak leku-denborazko genitiboaren marka izan dezake ala ez; kopuru zehatzak-absolutuak ematerakoan (“irutik bi”) ez du onartzen genitibo marka, baina osotasuneko proporzioa (kopuru erlatiboa) adierazterakoan aukerakoa<sup>292</sup> da eta esangura aldetik ez du alderik. Adibideak ikusiko ditugu:

*kkg* irútik bík suspendidu ein dabe <kopuru zehatzak ematen dira>

*razl* irúti-bat einda dao <kopuru erlatiboa, “arena” da horren parekoa>  
*lme2* irútik · batekúa inda dao

Egitura sintetiko horren forma osoagoa ere jaso diogu *naz* lekukoari:

*naz* iruu partétatik bat einda dao

—*-tariko-z* eraturakoa<sup>293</sup>.

---

<sup>289</sup> Ikus adibideak motibatiboaren atalean.

<sup>290</sup> Ikus atal horretan.

<sup>291</sup> Osterantzeko bideak ere badira, jakina, hori adierazteko, hitz zehatzez (“erdixa, arena, larena...”), zein “iru parte, irugarren partia” lako egiturez.

<sup>292</sup> Genitibo markadun aldaera *kkg*-k ez du onartzen eta *kmz*-ri jaso ez diogun arren, beste lekukoek bai darabilte arazorik gabe.

<sup>293</sup> Ikus lehentxoago egin den azalpena.

### 1.2.13.2.16. Errepikapenezko egituretan

—“Aterik ate” erako adibideetan. “Nondik nora”<sup>294</sup>-ren erantzunaren parekoa da, baina beti leku berbera errepikatzen denean erabiltzen da (beti ateak, beti etxeak, beti mendiak..., baina sekula ez da ate, etxe, mendi... bakarra). *kgg* eta *S.B.* lekukoek gehienetan darabiltzate “ates ate, etxes etxe” instrumental markadun formak ablatibokoaren ordeztuz (agian euskararen eredu estandarrean erabiliagoa delako eta horren eraginez); besteek “aterik ate, etxerik etxe, erririk erri, eskurik esku, jairik jai, arkuperik arkupe, kalerik kale, erromerixarik erromerixa” erako ablatibodun formak arrunki darabiltzate instrumental kasu markadun egituraren ondoan. Adibidez:

*ñaz5* “... Oin juango gaittuk, ba, erreka-zulorik erreka-zulo ...”

Gainera, *ablatiboa* + *adlatiboa* egituraz ere jaso dugu (-*rik* atzizkiaren balio ablatiboa indartu egiten du):

*naz* betí dabíl etxéтик etxéra // *naz* etxéik etxéra —*nme2* ori be- betí moskorréti-moskorrera dabill

—Tarte osoa adierazteko ere, hasieratik muturrerainokoa, antzerako egitura erabiltzen da guk jaso ditugun adibide bakar bietan (“nondik nora”-ren erantzunetarikoa bat izan liteke): “aldenik alden” eta “banda(r)ik banda”. *nme2* lekukoaren azalpenak argi uzten du lehen osagaiko kasu markaren balio<sup>295</sup> ablatiboa:

*nme2* °... baña “aldénik aldén” esaten da geixao ba, · gausá bat e, · éitten danian “aldénik aldén ei-gendúan” ero “aldénik alden juen giñan” ero... Baña, néurri · fñjo ba-danian ero séra esaten daniam-baa, “arek, aldérdi bateti-béstera, púnta bateti-béstera -eró- · onembéste séukan”...

*rmz* °bai ba!; <eskuekin erakusten du> baña... amem-pasíllua! · aldénik-aldén!, eméndik e, · béstekaldeañ

*naz* báí!, bándai-banda-artu-ben ósoik

### 1.2.13.3. ONDORIOAK

#### 1.2.13.3.1. Formari dagokiona

Kasu markari -*an* gehigarria erants dakioke baina joera nagusia ez eransteakoa da. Badirudi gehigarria txertatzeko ezaugarri hori bereziki kaletarrena dela, *nme2*-k ere noizbait erabili arren. Arrate auzokoek ez dituzte forma “eibartar”-tzat

<sup>294</sup> *Item* berbererako hiru forma ere jaso ditugu; eredurako: “eskus esku; eskurik esku; eskutik eskura”. Guztiz balioideak dirudite, beraz.

<sup>295</sup> Balioa argi dago; “aldenik”-en forma osterak ez da hain gardena kasu marka kontsonante sudurkariari txertatuta baitago markaren kontsonante dardarkariaren arrastorik gabe. Bestalde, egitura ihartua da, “alden” berba hutsik ez baita erabiltzen Eibarren.

ere hartzen<sup>296</sup>. Baina adberbioetan *-an* ezaugarri hori arruntagoa da, batez ere “on(d)diokan” forman, lekuko gehienen ahotan jaso baitugu.

—Bizigabeen deklinabidean kasu markak forma anitz ditu. Arruntena *-tik* da, ingurunearen eraginez dituen aldaera fonetikoek gain (kontsonante horzkariaren ahostuntzea edo/eta sabaikarizazioak, amaierako kontsonante leherkariaren galera eta abar). Denborazko aditzondo batzuetan beste aldaera bat erabiltzen da, *-danik/-danetik* baina oso bizitasun murrizta du. Gainera, erabiltzaileetarikoa bat alfabetatua denez faktore horren eragina izan dezake; aldaera hori darabilen beste lekukoa Aginagakoa da eta ez dugu uste kasu honetan alfabetizazioaren eraginez sortutakoa denik. Beste auzoetako baserritar batzuek ez dute forma hori ezagutu ere egiten.

*-rik* kasu marka oso egitura berezietan erabiltzen da, errepikapenetan eta *-ta(r)iko* atzizki konposatuan. “Ondorik” postposizioetako atzizkia ere ablatibokoa izan daiteke, eta agian “ondorian”-eko *-rian* atzizkia ablatibo zaharrenaren arrastoa izan daiteke. Azken aldaera hori lekuko gutxik darabilte, denak zaharrak.

Deklinabide arruntari lotuz, mugagabeen *-ta-* artizkirik gabeko aldaerak du indar handiena gaur egun Eibarren, *-a* itsatsidun berbetan behintzat. Beste amaieretan alternantzia da nagusi. Mugatu singularrean kasu marka izenari txertatzen zaio zuzenean, mugatzailearen arrastorik barik. Kontsonantez amaitutako berbetan loturazko bokala txertatzea da joera nagusia baina Kinarragako lekuko batek bokal hori gabe ere egiten du. Mugatu pluralean kasu marka plural ezaugarri gehi *-ta-* artizkiari txertatzen zaie. Edonola ere, aldaera bitxiak bokal murrizketaz sortutakoak dira, Aginagakoen ahotan batez ere.

Leku izen bereziek kasu marka zuzenean hartzen dute, *-ta-* artizkirik gabe mugagabez deklinatu arren ere. Bokalez amaitutakoek zuzenean hartzen dute kasu marka eta kontsonantez amaitutakoek joera bi dituzte. Bata, usuena, kasu marka zuzenean txertatzea da. Horrelakoetan izenaren amaieran zein kontsonante den, kasu markako kontsonante horzkariak aldaera ahoskabea edo ahostuna hartzen du, sabaikaria ala ez. Beste joera loturazko bokala eranstea da eta batez ere *kgg* lekukoak egiten du horrela, *kaz2*-ri eta *raz1*-i ere adibide batzuk jaso zaizkion arren. Aditzondoan sailean ere kasu marka hartzerakoan joera bi-koitz hori gordetzen da kontsonantez amaitutakoetan.

—Bizidunen deklinabidea. Bizidunentzako kasu markan aldaera gehienak fonetikoak dira. Amaierako kontsonanteak jasan ditzake aldaketa batzuk eta barruko kontsonante leherkari belare ahostunak ere izan ditzake aldaerak; bokal artean kokatuta kontsonante horren galera gertatuz gero, bokal elkarketetan ondorioz gertatzen dira tinbre aldaketak, berdinketak eta murrizketak.

---

<sup>296</sup> Izatez Arrate auzoko den *f.a.*-k partitiboko *-an* baztertu egiten du; eta *raz*-k ablatibokoa.

Orokorrean, edutezko genitibo marka izan ala ez ere aldaerak sortzen dira. Genitibo markadun aldaerak gutxiago erabiltzen dira marka bakoak baino. Mugagabeen, lehenengo kasuan *naz* eta *kgg* dira erabiltzaile nagusiak; pluralen genitibo marka erabiltzeko joera handixeagoa izan arren erabiltzaile nagusia *kgg* da, beste lekuko batzuei adibide bakanak jaso baitzaizkie.

Mugagabeen, kontsonantez amaitutako berbetan loturazko bokala txertatzea ere aukerakoa da. Ondorioz, hiru aldaera eredu daude: “mutilgandik, mutillgandik, mutillengandik”. Erdikoa da erabiliena, lehenengo eta azkena batez ere *kgg*-k baitarabiltza bakarrik.

Bizitasun aldetik, bizidunen kasu marka bizigabekoen markaren menpe dago, azken hau bizidunen eremuan asko erabiltzen baita. Gainera, beste bide batzuk ere erabiltzen dira: motibatiboa; eta ergatiboz, edutezko genitiboz edota sozietiboz osatutako egiturak, esate baterako.

#### 1.2.13.3.2. Erabilerari dagokiona

Ablatiboa berdeklinazioan leku-denborazko genitiboaren aurretik ager daiteke bi eratara. *-tiko/-diko* forma oso bizirik dago balio erakuslea duten adberbio kategoriako formetan eta “aurretiko” berban; osterantzera, galduta dagoela esan daiteke. *-ta(r)iko* formaren bizitasuna eta erabilera ere oso murrizta da, Aginagakoen ahotik jaso baitugu bakar-bakarrik.

Ablatiboaren esangurak edo balioak asko dira: lekuzko abiapuntua, denbora abiapuntua, baztertutako ekintza; leku zehatza, “non zehar” lekuzko esangura, denbora puntuala, modua, jatorria-sorrera, mota, aldi osoak, besteak beste.

Ablatiboz osatutako egiturak ere oso ugari eta erabiliak dira, esanguraz ñabardura asko izaki. Emankorrenetarikoa errepikapeneta da, *ablatiboa + adlatiboak/nominatiboa*. Zatikiak adierazteko “lautik bi/bikua” ereduak erabiltzen da beste bide batzuen artean.

Kasu marka hori lexikoan ere ihartuta dago, bai lexiko arruntean bai toponimian; adberbioen eta aditzen eremuan ere erabiltzen da.

#### 1.2.14. *Adlatiboa* *-(e)(ta)ra //-(e)(n)(g)ana*<sup>297</sup>

##### 1.2.14.1. FORMA

Kasu markak hauek dira: *-(e)ral-(e)tara* atzizkia bizigabeentzat, oro har; eta *-(r)(e)(n)(g)ana* bizidunentzat. Inesiboaren atalean ikusi ditugu bizidunen

---

<sup>297</sup> Ikuspegi diakronikoz aurkezten dituzte M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k kasu hau eta honetatik eratorritakoak (2001, 122-125).

eta bizigabeen arteko deklinabide kurutzaketak<sup>298</sup> nolakoak izan daitezkeen orokorrean (formak, zein aldaera hartzen duten, joera nagusiaren arabekoak sortzen dira: “semietara” eta abar); jarraian, kasu honetako ezaugarriak eta berezitasunak aipatuko ditugu. Ablatiboan egin dugun moduan, banan-banan aipatuko ditugu bizidunen eta bizigabeen marka ezaugarriak.

Kasu markak berak aldaera fonetikoak izan ditzake ingurumenaren eraginez. Batetik, bizigabeentzako atzizkiko kontsonante dardarkari<sup>299</sup> bakuna bokal artean gal egin daiteke, eta ondorioz bokal elkarketetan berdinketak-disimilazioak gertatu ostean, murrizketak ere gertatzen dira.

Beste leku askotan legez, Eibarko bizigabeentzako kasu marka nagusia dardarkariduna da (diakronikoki, analogikoa), eta beste aldaki batzuetan gertatzen denez, “ona” eta “orra” adberbioetan gordetzen da bakarrik *-a* kasu marka zaharra<sup>300</sup>. Dena den, aipatu berri ditugun murrizketek ere emaitza foniko horietara garamatzate batzuetan, forma biak (analogikoa eta etimologikoa) itxuraz neutralizatuz edo berdinduz:

*kaz2* °... juam-pelukérixaa ta ebági!

*kaz2* °... “ba!... áimbeste gastaña?: bé!, énojaya-geixa-...” .. etxéa! ...

*kaz3* °... áber etorte-jatasen tallerrá ... <forma osoan “tallerrera” da, hori ere bizi-bizirik Eibarren>

Ez da, baina, marka zaharraren erabilera, murrizketen emaitza baino. Izan ere, “nora” dardarkari etimologikodun berba ere “noa” egiten baitute lekuko batzuek, murrizketa mailak gertatzen baitira. Ahozko solasaldi askean, guk jaso dugunez, oso arruntak dira soilketa horiek. Adibide batzuk ipiniko ditugu aldaera osoenetatik murriztenetara:

*ñmz* °erreka jenerala: ÚbitxAA datorren errékia!, ÚbitxARA!, · Úbitxara...

*kaz2* °... Mañarítxi-geró · -“nóa juango aitxun gaur? ...

*rmz* °lastua gána- gánauei emón, erúan gámbaraa tá, · neuan!

*kaz2* °bueno! ba, Fróntoi-sarrea · da, ... pélotan an! ...

*rmz* °ta géro errotá eruan!: errotátik ee... <“errotara”>

*ñmz* °béstekaldá! <“bestekaldera”>

*kaz3* °... áber etorte-jatasen tallerrá ... <“tallerrera”>

Aldaeren beste iturri nagusia batez ere bizidunen kasu markaren baitan dago. Barruko kontsonante belare ahostunak eragin ditzake aldaera nagusiak

---

<sup>298</sup> Bat egiten dugu J.A. URIARTE-ren iritziarekin, bizidunen deklinabidean adlatibo kasu marka erabiliena dela alegia: “Beste guztiak murriztuz doazen une honetan, honek bizi-bizirik eta indartsu dirau” (1995, 385).

<sup>299</sup> Ikus, alderatzeko, partitibo kasu marka amaiera bokalikoa duten berbei txertatzerakoan di- ren emaitzak.

<sup>300</sup> Ikus adibidez M. AZKARATE eta P. ALTUNA-ren aurkezpena (2001, 122-124).

—motibatibo kasu marka har dezakegu eredutzat izan daitezkeen aldaerak eza-  
gutzeko—: bokal arteko kontsonante horren galera gertatuz gero, bokal elkar-  
ketetan ondorioz gertatzen diren tinbre aldaketak-berdinketak eta murrizketak.  
Fonetika sintaktikoak ere eragina du amaierako bokalari dagokionez.

#### 1.2.14.1.1. Mugagabeen

—Bizidunen kasu marka

##### **Bizidunen adlatibo mugagabea: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabagana /alabaana /alabana //alabangana //anaieana</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>mutillegana /mutilleana //mutillengana</i>
---

Beste deklinabide kasu batzuetan gertatzen denez, edutezko genitiboaren marka<sup>301</sup> aukerakoa da, batzuetan azaltzen da eta beste batzuetan ez. Lekukoen idiolektok joerak dituzte, eta batzuek genitibo marka tartekatzen dute beste batzuek egiten ez duten artean. Genitibo marka darabiltenen artean *nme2* eta *kgg* lekukoak ditugu. Genitibo markarik gabeko adibideak jaso dizkiegu lekuko hauei: *kmz*, *kaz3*, *nme2*, *naz* (ezaugarri hauek ez dagozkie erakusleei eta izenordainei).

Edutezko genitiboaren atalean aipatu genituen “gastaiena, kanpaiena” formen parekoak jaso ditugu kasu honetan ere: “anai(n)(g)ana” forma hedatuena izan arren, “anayeana” jaso diogu *naz* lekukoari.

Genitibo markarik gabeko formak, zein murrizketa maila duten, edutezko genitiboko<sup>302</sup> adibide mugagabeekin neutralizatu egiten dira, sinkretismoz. Adibidez:

*kmz* sé alábana jua sára? —*kaz3* °... astian, úrtetan jua-nitzan aítxána ...

Neutralizazioa formazkoa da bakarrik, esangura aldetik aldea garbia eta anbiguetate gutxikoa izaten baita. Hau da, aurreko adibidea eibartar jatorrek ez lukete estandarrean itzultzerakoan “zein alabarena joan zara?” sekula egingo, “alaba(ren)gana” baino; eta alderantziz, “se alabana da?” esaldi hipotetiko inork ez luke “zein alaba(ren)gana da?” berridatziko. Gainera, kategoria

<sup>301</sup> Ikus izan ditzakeen aldaerak edutezko genitiboaren atalean.

<sup>302</sup> Genitibo formekin sinkretismoa gerta daiteke, baina ondoko izena isilduta eta mugatzaile singularra dutenekin bakarrik. Benetako neutralizazioa edo zalantza aditzik gabeko esaldietan gertatuko litzateke, “se alabana?”, “se semena?” bitara uler baitaitezke: “zein alabarena/semerena?” eta “zein alaba(ren)gana/seme(ren)gana?”. Kasu horietan solasaldiko gaiak izango luke anbiguetatea hausteko gakoa. Kasuistika hau mugatu singularreko amaiera guztietara zabal daiteke: “alabiana, nobixiana, txakurrana” gisako forma adlatibo mugatuak jaso baititugu. Pluraleko adlatibo forma murriztu batzuek ere horretarako bidea eman dezakete: “medikuen, anaiena” formek, adibidez; mugatzaile singularra duten genitibo pluralekin berdinduz.



gramatikal ezberdinak izatera (bata izenlaguna eta bestea adizlaguna), alde hori nabarmenago da.

Aldaera fonetiko batzuen adibideak ipiniko ditugu, forma osoenetatik murriztenetara:

*nme2* seiñ alabángana · juañ sára?  
*naz* jun saítte-edoseiñ alabángana  
*kmz* sé seméana óya · gaur?  
*kmz* sé alábana juañ sára?

Aldaera bitxi bat ere jaso dugu, itxuraz forma mugatua determinatzailearen ondoan; baina gure ustez ez da ezaugarri sistematikoa, aldaera fonikoa baino. Baliteke bokal arteko kontsonante belarearen galeraren eraginez izatea; areago, nork daki beheko adibideko oinarri mugagabea “soru” ez ote duen?:

*naz* “sein sorúana [sic] jun sará?”. Azalpena bi bidetatik egin daiteke: *\*soro(g)ana* > *\*soroana* > *soruana*; *\*soru(g)ana* > *soruana*.

Kontsonantez amaitutako berbetan, joera hirukoitza izan daiteke kasu marka eransterakoan: genitibo marka hartu ala ez, eta kasu marka txertatzerakoan loturazko bokala hartu ala ez. “Mutilgana, moskorgana” erako adibideak jaso dizkiogu *kgg*-ri, *naz*-ri, *rag*-ri eta *nme2*-ri, “mutille(g)ana” erako formak *nme2*-ri, *kmz*-ri eta *naz*-ri, eta “moskorrengana” *kgg*-ri eta *nme2*-ri.

—Bizigabeen kasu markak eta ezaugarriak

### Bizigabeen adlatibo mugagabea: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixatara /elixataa /elixara /elixaa /elixá</i>
Kontsonante amaieretan: <i>sabaletara /sabalera</i>

Beste kasuetan gertatzen den antzera, adlatiboan ere txandaketa dago *-ta*-artizkia<sup>303</sup> erabili ala ez, baina artizki hori gorde-erabiltzeko joera nagusia dela dirudi. Adibidez, ablatiboan ez bezala, lekuko guztiek “elixatara, etxetara” forma darabilte, murrizketak murrizketa eta aldaerak aldaera. Artizki hori noizbait ez darabiltenen artean lekuko hauek ditugu: *f.a.*, *razl*, *kgg* (baina horiek ere artizkidun aldaerak darabiltzate gehienetan). Dena dela, denborazko izenetan ez dugu *-ta*-artizkidun formarik jaso behin baino (*kgg* “andik bi egunétara”), eta “amar urtera, iru illabetera, bos minutura, bi egunera” sistematikoak dira.

Amaiera bokalikoa duten berbetan kasu marka zuzenean txertatzen zaio oinarriari; amaiera kontsonantikoa dutenetan, loturazko bokalaren bitartez. Azken

<sup>303</sup> Aipatuak ditugu artizki horrek dituen aldaerak ingurumenaren arabera. Leku-denborazko kasuetan berdintsu jokatzen du.

hauen forma pluralekoarekin berdindu egiten da, sinkretismoz, eta azentua bide bat izan daiteke formak bereizterakoan; eredia honakoa litzateke: “sabalétara” mugagaberako eta “sabáletara” mugaturako. Dena den, ez da beti betetzen: *naz*-k, adibidez, “sabáletara” egiten baitu mugagaberako:

*naz* órtik urtetzen da · lau k- bidé sabáletara <galdekizunez lortutako erantzuna de-  
nez, ziur dakigu esangura mugagabea duela>

Leku izen bereziek izen arrunten joerak betetzen dituzte. Bokalez amaitutakoek zuzenean hartzen dute kasu marka; eta kontsonantez amaitutakoek loturazko bokala tartean dela, “Bilbora” eta “Burgosera” ipiniko ditugu eredurako<sup>304</sup>. Murrizketak ez dira falta, eta “Bergarara” formaren ondoan “Bergará” jaso dugu *nme2*-ren ahotan, kakofonia hautsiz; eta “Plénsia [sic] juan día”, lekuko berorren ahotan —horrelako adibide gehiago ere jaso ditugu—. Murrizketa “txikiagoen” adibideak:

*naz* bixár Madridea goyas  
*nme2* Arronáa [sic] juan día

#### 1.2.14.1.2. Mugatu singularrean

—Bizidunen kasu markak eta ezaugarriak

##### **Biziduneen adlatibo singularra: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabiagana /alabiaana /alabiana //alabiangana</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillagana /mutillaana /mutillana //mutillangana</i>
--

Adlatiboan ere, beste leku-denborazko kasuetan legez, edutezko genitiboaren marka aukerakoa da baina joera nagusia ez erabiltzekoa da. Lekuko idiolektoen joerak mugagabeak antzerakoak dira. Genitibo marka *kgg* eta *nme2* lekukoek darabilte bakarrik, orain arte ikusi ditugun leku-denborazko beste kasuetan baino ugariago; genitibo markarik gabeko adibideak lekuko hauei jaso dizkiegu: *kmz*, *raz*, *raz1*, *kgg*, *raz5*, *kaz2*, *kaz3*, *kmz7*, *nme2*, *naz*, *S.B.* (ezaugarri hauek ez dagozkie erakusleei eta izenordainei). Bestalde, bizigabeetan ez bezala, kasu marka forma mugatuei txertatzen zaie, bai bokalez amaitutako berbetan bai kontsonantez amaitutakoetan ere.

Aldaera fonetikoaren iturri diren murrizketa mailak ere jaso ditugu; adibide batzuk ditugu jarraian, forma osoenetik murriztena:

*kgg* len e neré léngusuangana jua-naix  
*naz* juen da beran alabíagana  
*nme2* ni txakurrána urreratu nais

<sup>304</sup> Ikus leku izenen atalean ere, baita dudako leku izenen atalean ere.

*kaz2* °... gero jua sam-ba nóbixiana · da ... // *kaz2* °... amábi urtekiñ erua-ninduan ... Olábek! · béste máixuana, Mugérsaana! ... —*kmz* °“enééé!, átzó jua bia-nitzúan! · médikuaa!” ... —*raz1* neré · anaiána nóya —*nme2* su-urreratu sa txakurrána?

Guk ez genuke kasu markaren aldaeratzat joko, baina bai aukerako beste bidez; adlatiboa *-(e)nera* formaren bidez egitea. Inesiboan ere jaso genuen horrelako adibide bat, beraz, ezin da sistematik kanporatu; gainera, adlatiboan lekuko bati baino gehiagori jaso diogu: *naz*-ri, *kmz*-ri eta *nme2*-ri hain zuzen. Adibidetzat:

*naz* txakúr ba-juen da sure alabíannéra <ez du “alabaren etxera”-edo esan nahi, “alabarengana” baino>

—Bizigabeen kasu markak eta ezaugarriak

### Bizigabeen adlatibo singularra: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixara /elixaa /elixá; etxera /etxea /etxá</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>taillarrera /taillarrea /taillarrá</i>
---

Bokalez amaitutako berbetan kasu marka zuzenean oinarriari txertatzen zaio, mugatzailearen arrastorik gabe. Beraz, mugagabeen *-ta-* artizkia tartekatzen ez diren formekin neutralizatu egiten dira, sinkretismoz, baina esaldiko ingurumenak argitzen du esangura. Aldaera fonetikoak, kontsonante galeraz eta bokal elkarketa-murrizketaz, beste kasuetan legez, ez dira falta; adibidez:

*naz* elixára juen dia

*rmz* °saspí urtekiñ ekíñ... · jua giñuasen gu · eskóláa... —*kaz3* °... eske, kalea- kalea pasíora · da ...

*rmz* °ta géro errotá eruan!: errotátik ee... —*rae* °... ke neu-p’eneba-nai-iseten eskola jú-teik! ... —*nme2* guasem-béste taberná —*rmz* °... da illuntzian etxá!, illuntzi-aldeako...

Kontsonantez amaitutako berbek loturazko bokalaren bitartez hartzen dute kasu marka, baina murrizketak direla medio “desitxuratu” ere egiten dira forma batzuk. Murrizketa mailen adibide batzuk ipiniko ditugu:

*nme2* ór tik, atzoko · bidé sabalÉRA urtetzen dá

*kaz3* °... áber etorte-jatasen tallerrÁ ...

#### 1.2.14.1.3. Mugatu pluralean

—Bizidunen kasu markak eta ezaugarriak

### Biziduneeen adlatibo plurala: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>alabegana /alabeana /alabena //alabengana</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>mutillegana /mutilleana /mutillena //mutillengana</i>
--

Edutezko genitiboaren markari dagokionez, singularreko joera gorde egiten da, baina pluralean genitibo marka tartekatzeke joera handitxoagoa antzeman dugu bi lekukorengan. Genitibo markaz eratzen dutenak hauek ditugu: *kgg*-k ia beti eta *nme2*-k ere sarri; genitibo markarik gabe hauek egiten dute: *kmz*, *raz*, *raz1*, *kgg*, *nme2*, *naz*. Dena dela, bizigabe markak leku handia kentzen dio bizi-dunentzakoari, singularrean bizidun marka askoz gehiago erabiltzen den arren. Aldaerak fonetikoak, murrizketadunak batez ere, beste formetan legez, ugari jaso ditugu. Adibide bakarra ipiniko dugu:

*naz* ospittálrekoo [sic] médikuena jum-biot éurekim-berba im-biot eta

Singularrean aipatu dugunez, *-enera* beste aukerako bidea da. Besteak beste, *kmz*-ri jaso diogu:

*kmz* éuren sémien- sémienera juan dia

—Bizigabeen kasu markak eta ezaugarriak

### Bizigabeen adlatibo plurala: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixetara</i> / <i>elixetaa</i> / <i>elixeta</i> ; <i>etxietara</i> / <i>etxietaa</i> / <i>etxietara</i> / <i>etxitara</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>lurretara</i> / <i>lurretaa</i> / <i>lurreta</i>
---

Kasu marka, bai bokalez amaitutako berbetan bai kontsonantez amaitutakoetan, datiboaren atalean aurkeztutako pluralleko ezaugarriei txertatzen zaie, eta salbuespenik gabe *-ta*- artizkia tartean dela.

Dena dela, beste leku-denborazko kasuetan aipatu dugunez, forma murriztuak eta aldaera fonetikoak ere jaso ditugu, bai ezaugarri pluralari dagokionez, bai kasu markako dardarkaridun silabari dagokionez, hala nola:

*nme2* an ándiko etxítara [sic] juan dia <“etxietara”>

*raz1* orrék e begíxetaa kálte itxen dau <“begixetara”>

*kmz3* °... torri situasen · asken órduan áre-kafieta torri situasen ... <“kafietara”>

## 1.2.14.2. ERABILERA

### 1.2.14.2.1. Adlatiboa erator bide legez

—Izenki adberbializatueta zati. Sarri erabiltzen dira “gañera, albora, aldemenera, ondora” erako formak. Beste atzizki batzuen aurretik ere bai: “aurre-raka, atzeraka” eta abar. Adibidetzat:

*rae* °... geró bere-ee sárdau berú eran da moskortuta! · átzeraka itxe-genduan da ixé · bueno!, au etxiau baño aldapa-aundixaotik ixa jausi gñan da... ..

—Aditz bihurturik: “oeratu, lotaratu, atzeratu, aurreratu” erakoak.

—Zenbait hitz eratorritan, lexikalizaturik: “berakua, burutik-berakua, gorakaria, be(e)rakaria, aurrerakaria” erakoak. Adibidez:

*naz* biárrak aurrerakara-aundixa in ddaú, e?

#### 1.2.14.2.2. Ekintzaren denbora tartea adierazteko

Sarritan ablatiboazko sintagmaren ondoan *doa*<sup>305</sup>, baina besterik ere izan daiteke; gainera, *eta* aukerakoa da. Adibideekin erakutsiko dugu:

*kgg* améndik áurrera etxían geldítxuko gara beti  
*naz* ási goixían da gabéra ésta biarrian geatzen  
*nme2* ospittáletik, s- séigarren egunera ekarri seben

#### 1.2.14.2.3. Leku tartea adierazteko

Adibidez:

*rmz* °Kaitanon eeee... e- etxian aspi- e-e- be- .. ogei métroaa eós- jéuasen órre-be-bíxok, Kaitánona taa · Maltzá-sar!  
*kmz* °baai!, baai: ták! “neríaa-árta batéra gerátu dok!”

#### 1.2.14.2.4. Inesiboaren edo instrumentalaren “ordez”

Esangura ezberdina duen arren, denborazkoa hain zuzen. Adlatiboak ez du denborazko galdekaririk, eta erabilera hau ez da denborari/denborara zuzendutako zentzuzkoa, denboraren joanean gertatzekoa baino. Adibidez:

*raz1* °gurían katamíxarra e or ... or, béti!: or béti katamíxarra, baai... .. es, oiñ es!, oiñ ee... otúbrian ero, · nobiémbrían eró, buenóó! Oiñ estao-oiñ esebes; géro!, ne-negúra! negurútzian!, bai... enéé!, <txakurrekin> se gerrá!  
*kmz* °... bai-bai-bai, juátia dáka!... .. Sártzarara es-e-este- estésku ba! · jokuári emón!  
*nme2* °... da · gab- gabér’artzen dau-umoré bat!: · gabéra-artzen dau-umoré bat!!

#### 1.2.14.2.5. Modua adierazteko

“Nola” galdekaritari dagozkion forma mugagabeak eta mugatuak. Bizi-bizi dago bide hau; oinarrian osagai anitz har ditzakeenez: izenak, izenondoak, ize-nordain zehaztugabeak, erakusleak, zenbatzaileak, aditzondoak, postposizioak, aditzak... Adibide batzuk ipiniko ditugu erakusgarri:

—Mugagabez:

*raz1* sé formatára in dosu orí? –*nme2* sé formatara in dosu orí?

---

<sup>305</sup> Ikus ablatiboaren atalean.

*raz* °Nik esángo neuké “neree suégrua” ta “nere suégria”, · nik estót esán bestee formatára

*kmz* °baitxa: bati [sic] bátera esán béstera esán iguál-iguál da

*nme2* séoetara · im-bie-da, iguél da —*naž* baa, séoetará, eiñ im-bieko dá!

*S.B.* onetara es, bestera ein biosu

*kmz* °ái amá!... · · · órtara bá!: · artán ortán bagabíllas... <moduzko “horrela”-ren zentzua du>

*kmz3* °... kansíñuak eta... · órre-baña, · “duan selan kómpontzen dousen” da órtaraxe suan ori Kaldereruen · kantziñuok ...

*naž* au, esín dda ebai, e?, esetara b'estaa... esi-leike-ebagi, e?

*kmz* °bátzuetan karrerak eta beste batzuetan bajatu ta beste batzuetan ee... bi batéra ta...

*rmz* °bai, era batera garbitzeko... <“zeharo, guztiz, erabat”>

— Singularrez:

*raz1* °“seláko mutfl jatórra!” esáte-san. Béstekaldera geixao berbá itxen da bañá “jatórra”, ombréé...!

*nme2* °bai! E- Eibarko érrara, bai!-ingou, abér!

*nme2* °baai, baai!, ba, bueno!: · aa, txalák e, sáltzen dosu ta ba ... baña léenn! begíra sáltze-sam-bisittáráko ta sáltze-sanian da... · · ·

*rmz5* °a!, béste gausa bat etxuau esán! idixená!: [probarako] ... néurrira be · itxesuan · idixa: · gerríxan · se neurri ekan...

*kmz* °<peskan> bai!, eulíra! · · · · ordúan e, ikúsiko dau e programia, telébisíñokúa (...) “Jara i sedal”

*kmz7* °trásara etara juat sein dan...

*kmz1* °eu be gústora eote-aix álá? ...

*rmz2* °... Kóba, ta Patxí Aóntza ... jokatu ebeníam-bé, iru mílla kíloko arrixákiñ, e?!,

ídik bárik, e?!, éurak! máno-a-mano gísóna-bákarrik, Eibárko · sesém-plasia tópera! ...

*f.a.* urriñéra ikúsitxú elefántiak

*S.B.* °ba, iritxira! <“al tuntún, a voleo”>

— Pluralez:

*raz* “musua” ... “arpeíxa” ... °bai, bíxetara

*nme2* nii, neure káseta ondo bisi nais

#### 1.2.14.2.6. Leku zehatza adierazteko

“Non” galdekariari dagozkion forma mugagabeak eta mugatuak eratzen dira. Batzuetan alternantziatz ere jaso dugu, “eskumatara eon /eskumara eon; eskerretara eon /eskerrera eon” adibidez. Erreparatzekoa da sarritan inesiboaren ondoan doala. Edozein modutan ere, ez da “juan” aditzaz osatutako egiturekin nahasten, esangura guztiz bestelakoa baita. Adibide batzuk ipiniko ditugu, “inesibo” zentzuz:

-ñmz °[Bustingorri baserria] Élgetara bagoyas ba karretéria?!

-kag5 °bai!

-ñmz °eskúmatara! ... ortxé inguruan da! Bustingórrri!  
/ñmz °Artátxueta len esan dou!, améndikam-beiratuta ori Untxíam-basuori?!, óixe!:  
orí be, · kámpo-fúboldik!, kámpo-fuoletikan ee, eskumára!

kag5 °ba num-bañá ee se aldetará?  
kmz °úrrengo péoría!, · trésa, irúa, lélengo písua, eskerrétara · jaixo nitzan  
ñmz °ba, antxee... · eskérretara!  
/ñmz °táitx ee..., · eséuan e, · karretérian e, eskumáti-barik eskerréra... · Élgetara  
góyesela eskerréra, Bustíngórrri! · ástuta neka-neu-pe!  
ñmz °er-skérretara: Únsagara goyasela bajatu, bajatu! elixára! parrókiara bajátu,  
parrókiara, da geró, eskerréra, Kalbetóyan, Kátilluneko tabernia-antxe san!

ñmz °Pagárixá ee, ori dao e serian! · Txóntati-goora!  
ñaz5 “Bai, lehen zeria bizi giñan, Arrazolan, Salbadorretik behera beste aldera.  
Txontatik juan eta beste aldera”

kmz “bristaría”: °éuskixak e · befíxetara eitzen dabena da bristaría

#### 1.2.14.2.7. Kokapen edo leku aldaketa adierazteko

Ñabardura berezia du horrelakoetan; adibidez:

-nme2 °Aralárren daa, · Urbixán d'°éuskixa dauela esan dau! · Orráa...  
-t ...  
-nme2 °orráa · Aláb'aldéra orrá e, (?)... ee itxúriaa · an garbítzen eró, garbíxaua  
eró...; kostán e, sikiñauá  
naz °bueno!, orrí, eee... emen... · Doností aldéra esatutze “kaikua” ba, iual · ardixa  
jastekoo... · ontzi ser báti, “káikua”...

#### 1.2.14.2.8. “Zertara” adierazteko

Forma mugagabeak eta mugatuak erabiltzen dira. Era askotako ekintzak adieraz daitezke: lana, denbora-pasa, jokia... Gauzak eta egoerak ere adieraz daitezke era honetara; oinarrian izenak ez ezik beste osagai batzuk ere har baititzake, aditza, adibidez:

kaz2 °... batén etorri san · Alkalá Zamora · Eibarrera, ayúntamentura ··· táki-setara  
etorri san, nik · estakitx · setara ...

rmz °áitxitxaa... · saárra-pé, · <eskuekin erakusten du> oo... · botílla txikí bat are-  
betí: meriendétára ta botílla txikixa beteta, ála! ··· o botilla txikitxo bat!...

S.B. naixao dot nik lotára etxéra etortzia

raz5 °esa-nutzan “baña géro ésteisela etorri órre-dánok oná-ar- bisítxara! ...

rmz °idixa-danian eosan len!, len eséuan etxeik idík eseuenik! emen... · Bá..., bia-  
rreako danían!, órtxe Samartíñen es-txitxua-nik esautu!: errentero etxia ta etxe ·  
txikixa tá...; · bañá, garotia sániam-ba beti ee eee... Mendioitxikuak eró, · laun-  
tzea ta, ero Léseta ero Loixóla eró..., etaik?, bei- beixak eosan lekuan -“kóño! geu

etorriko aittuk ee garotá”, eroo · arto-eraitxea ee... · eum-báten eo ta bá, · ólan e manejatze-sitxuan ónek!: gero éuro-biarrea etorri!, · idixekin juate-baitzam-ba gero baa... · béste bi-iru eun ee gari-ebatera ero berá ta bá!, · ólan! · ostian danian idíxak! ... —*kmz* °eéés!, áitxaa!, biarréra juan san Bankobílkora —*S.B.* °“juesera eruan” esaten da “llebar a juicio” esateko... <bestetik litzateke epailearengana joatea> —*kmz* °bai; da bixár jokóra!, arratzalde gustían ántxe!, · iñuséntia morúan!... · Bai-bai-bai, juátia dáka!... .. //*kmz* °tókara jokátzia nai dósu?  
*kmz* kóstau eitxe-ata saratara-akostumbratzia —*razl* nékes akóstumbratze-naix · saratára —*nme2* saratára oitzia kostátze-ata, e? —*naz* esí-naix eee, saratára-akóstumbrau

*nme2* aurtén · banoya bakasiñuetá, a- bésteik esien Debára!

#### 1.2.14.2.9. “Nora” eta “zertara, zeren bila, zer ekartzera” adierazteko

Galdekari horiei dagozkien erabilera mugagabe batzuk oso arruntak dira<sup>306</sup>. Batzuetan, alternantzia gertatzen da forma mugatuekin lekua adierazterakoan: “eskumatara juan /eskumara juan; eskerretara juan /eskerrera juan; okerretara juan /okerrera juan”, denetarik jaso baitugu. Bestetan, forma mugagabeek esangura bikoitza dute, “nora joan” eta “zertara joan, zeren bila joan”, hain zuzen; hori da “uretara, esnetara” formatan gertatzen dena.

Beste zenbaitetan, nahiz eta batzuetan formazko homofonismoa izan, azen-tuak lagundu egiten du forma mugagabeak eta mugatu pluralak bereizterakoan. Horrelako bikoteetan forma mugagabeak “zertara, zeren bila” adierazten du, eta forma pluralak lekua; adibidez, “sagarrétara ↑ sagárretara”, baina batzuetan ongi bereizten dira kasu marka hutsez ere, “ganautara” eta “ganauetara”. Jarraian, beste adibide batzuk ipiniko ditugu:

a) “Zertara, zeren bila” adierazteko:

—Forma mugagabeak honelakoak izan daitezke, gauza fisikoak zein onura abstraktuak: “bedarretara, bedarrondotara, garotara, iretara, gastañatara, patatatara, letxugatarara, ongotara, egurretarara, ogitxara, erropatarara; konsejutara” eta abar luzea:

*S.B.* su okelátara soyasen ártian, ni ogitxara noya

*f.a.* eskolara juan biot e umetára <“umeen bila”>

*kmz* °“txiri-txiri txara-txara txoritxára txarará!” <herriko hitz-joko ezaguna, aldaera asko ditu>

—Pluralez ere jaso dugu:

*kaz3* °... Arrasólati-juate-san · Élgetara j- · Gregoria, esta?, árrautzATARA ta, gausETARÁ! juate-san · Élgetara... ..

<sup>306</sup> Gogoan izan inesiboko “uretara, bedarretara” erako egiturak, antzekoak baitira.



*kmz* °sárrí eim-biako dau orí! · pásekoo usuee-tára bádoya!  
*kmz3* °... da txakurrakiñ, da ni- ni ollaórretara... · eo-ollaórreta eó, lo ke sea! bai ba! ...

b) Lekua adierazteko adibideak:

—Mugagabez, “mesetara, afaitxara, baskaitxara sutara” erako formak:

*kmz1* °... ímbitau-éstak afaitxára!, e? ...

—Pluralez:

*rae* °txakurra pipárretara ta tomátietara jun da ta danak iribiskaitxu

—Esamoldeetan, “pikutara juan, kakatara juan” erakoak:

*nme2* gúre biarrak · jun die · pikutá -ero- jun di kakatá!

#### 1.2.14.2.10. Egitura berezi batzuetan

—*-ra barik* egituran. “Oera barik, biarrera barik, mendira barik, elixara barik” erako formak ditugu (tarteko “juan” aditzaren elipsis sortua ziurrenik, baina egitura tinkoa da). Adibidez:

*kmz12* “... gaztiendako Elixikiakñ enfrontauta egotia, hor aspektuan, ez da izan problema! *En cambio* elixara barik ezkontzen diranak mordua dira gaurko gaztiak be! ...”

—Adlatibodun izenak gidari funtzioa duela:

*nme2* °[dunba] ardi-errebañua bidé s- lussién ero erum-bi-danien ero, está?, · ba, arék ee, arénn ardíxek ee... arénn saratára ero ánn · sértzeko iseten da · orí

—Aditz perifrasieta: “(ganauak) jotera eiñ; esniak gora eiñ” erako formak. I. LASPIUR-ek “hari harira egon” ere aurkezten du (1999, 43).

—Adberbio esapideetan: “kasu baterako, esate baterako, kasurako, esaterako” adibidez.

—Postposizioetan: “-tik *be(e)ra*<sup>307</sup>, -tik gora”, adibidez. Beste egitura bat ere jaso dugu: *-ra bidian eon/juan...* Esate baterako:

*raz1* °... he! séoser! Nere laúna, bi dakáras bákarrí-béste danak or dia serúra bidían juanda!

*raz1* karteria galdu neban etxera nóyala · -ero- etxera bidían

#### 1.2.14.2.11. Ekintza adierazteko

“Zertan” galderari erantzuna. Esate baterako:

---

<sup>307</sup> “Goitik-be(e)ra” postposizio egitura beste era batera ere erabiltzen da, guztiz lexikalizaturik: “goitxibera” berba; Eibarren ez ezik beste leku batzuetan ere oso ezaguna eta erabilia da.

*f.a.* séixetara jokutzen gaos *-nme2* séixetara jokutzen gabis  
*kmz5* "... Tórtolose tara eitze genduanian, eurak tortoloxak igual ekartze zitxún, por ejemplo, bata sei ero bestiak pe ..."  
*rmz2* °... inddártzuak ongoitxú-pañaa, es aixkoran dabíllenik eta · es arri-jáso-tzen... Len eon sitxuan Íxkuak, bíxetara eitze-juen a- Íxkuak eárto! ...

#### 1.2.14.2.12. "Noren traza, antza" adierazteko

Gurasoengandik jasotako ezaugarriak kontuan hartuta batez ere: "aitxanera, aitxan aldera, aitxagana, aitxatara; amanera, aman aldera, amagana, aman erara, amatara" formak jaso ditugu. "Jo, urten" aditzekin jaso dugu.

#### 1.2.14.2.13. "Norenganako"<sup>308</sup> galdekariari dagozkion formak

Liburuetan ez eze, ahozko jardunean ere jaso dugu:

"*Ze berbaera dok ori nausixago batekin ganako?*" (J.A. ARGOITIA/N. AZKARATE/X. GEZURAGA, 1996, 62) <kasu honetan berdeklinazioa oso bitxia da, adlatiboaren aurretik sozietibo marka ere duela>

*naz* órrek ·· amorrua dauké bata-béstiaganako

#### 1.2.14.2.14. Adlatiboa bestelako egituretan

Komunztaduraz azal daiteke, aditzak eskatzen duen kasua delako; era horretakoak dira "-ra eskondu, -ra sartu; -ra afisiñua euki, -ra itxua isen" eta abar. Adibide batzuk ipiniko ditugu:

*raz5* °... Kurúta eskondu sanian Elórretara, · esín dirúri-topau! ... —*naz* eskondu dia Ermúra, ee · mutillann gurasuetara

*kmz7* "... da, ekarri niñuen 'ALFA'ra. Baiña, eneban nai 'ÁLFA'ra sartzía!"

*kmz3* °... are-gañea-afesiñua ekan · séstara! pélotá séstara-a am-be aprendis ebixan da... ..

*kmz3* "... Amen ee tirotea ta bonbardeuari iesi, da, an be nik e, kázara, eztá, naiz ni itxúa, kázara ee, pasau. Pasau baiñá, fanático izan naiz baiña, txakurrak eta danak, eh! Ni izan naiz ee, erreixatik pasautakua ..."

*raz6* "Bai, jokua hamar tantora ero boatera ero, guk eitte genduan, ero xameikua ero txakur haundixa ero"

---

<sup>308</sup> Adlatibo gehi leku-denborazko genitibo markak elkarren ondoan bizidun formaz atal honetan eskaintzen ditugun adibideak bakarrik aurkitu ditugunez, adlatiboaren atalean azaltzea erabaki dugu. Ikus bizigabe formak leku-denborazko genitiboaren atalean, "norako" erako formen alorrean. Edozein modutan ere, I. LASPIUR-ek bizidunen deklinabide eredu guztietan aurkezten du: izen soiletan, pertsona izenordainetan, eta abar; baina oharra egiten du "gítxi" erabiltzen delako Eibarren (1999b, 65 14. oh.).

#### 1.2.14.2.15. Adlatiboaren beste erabilera batzuk

Ondorengoak ez ditugu atal honetan errepikatuko lehendik ere azaldu direlako edo gero azalduko direlako: “nondik nora” egituraren erabilerak, ikus ablatiboaren atalean<sup>309</sup>; “norako, noizkorako, zertarako”-ri dagozkien formak eta ñabardurak leku-denborazko genitiboaren atalean aurki daitezke; adlatibo soila adlatibo bukatuzkoa adierazteko eta adlatibo bide zuzenezkoa adierazteko erabilia, ikus atal horietan.

#### 1.2.14.3. ONDORIOAK

##### 1.2.14.3.1. Formari dagokiona

—Bizigabeen deklinabidean kasu markak aldaera bi ditu: dardarkariduna (-*ra*), arrunta, analogikoa; eta bokal soila (-*a*), kasu marka zaharra, etimologikoa. Azken hau balio erakuslea duten adberbio kategoria formetan erabiltzen da bakarrik (“ona, orra”).

Kasu marka arruntak hainbat aldaera fonetiko ditu bokal artean gertatutako kontsonante dardarkariaren galera gertatuz gero. Ondorioz gertatzen diren bokal elkarketetan ez da disimilaziorik egiten baina bai luzapenak (tinbre bereko bokalak elkartzuz gero) eta murrizketak (tinbre bereko zein tinbre ezberdineko bokalen elkarketetan ere gertatzen dira). Aldaera murriztena (-*a*) kasu marka zaharrenarekin itxuraz berdindu egiten da.

Dardarkariaren galera eta ondoriozko gertakariak ez dira berrikuntzak, lekuko zaharrenen ahotan jaso baititugu, bai kaletar bai auzo guztietako baserri-tar; adin ertaineko lekukoen ahotan ere gertatzen dira horrelakoak, eta baliteke alfabetizazioaren eraginez edo, *kgg* lekuko gazteak ez du horrelakorik egiten kasik. Nolanahi ere, polimorfismo idiolektala gertatzen da orokorrean, forma osoenen ondoan forma murriztenak ere aurki baitaitezke.

Mugagabez, -*ta*- artizkia erabiltzeko joera orokorra da, nahiz eta lekuko zahar eta gaztek artizki gabe ere eraten dituzten formak. Denborazko izenek dute muga handiena artizki hori erabiltzeko, “bi egunetara” erakoak *kgg* lekuko gaztearen ahotan jaso baitugu bakarrik. Leku izen bereziek kasu marka artizkirik barik hartzen dute, kontsonantez amaitutakoek loturazko bokalaren bitartez.

Mugatu singularrez kasu marka zuzenean txertatzen zaie bokalez amaitutako berbei (mugagabeen artizkirik barik eratutakoekin sinkretismoa gertatzen da, baina batzuetan azentua bereizgarri gertatzen da); kontsonantez amaitutakoetan loturazko bokalaren bitartez.

Mugatu plural bezala beti txertatzen da -*ta*- artizkia plural ezaugarrien gainean.

---

<sup>309</sup> 1.2.13.2.4. atalean hain zuzen ere.

—Bizidunen deklinabidean aldaeren iturrietariko bat kasu markaren aurreik edutezko genitibo marka agertu ala ez da. Izenordainen eta erakusleen deklinabidea kanpoan utzita, izen-izenondo arrunten deklinabidean lekuko zaharrenek genitibo marka ez erabiltzeko joera dute; darabiltenak *nme2* eta *kgg* dira, beste leku-denborazko kasuetan baino ugariago gainera. Ez dakigu nola azaldu bi lekuko horien ezaugarri hori; baliteke lekuko gazteak alfabetizazioaren eraginez horrela egitea, aldaera hori gehienetan baitarabil salbuespen gutxirekin; Aginagako lekukoak sarriago darabil genitibo markarik gabeko aldaera.

Edonola ere, aldaera gehienak fonetikoak dira, batez ere bokal artean kokatutako leherkari belarearen galera gertatuz gero. Murrizketaz sortutako forma batzuk, genitibo markarik bakoak, izenlagunekin itxuraz berdindu egiten dira, “alabana” forma mugagabea edo “medikuena” forma plurala adibidez.

Mugagabez, kontsonantez amaitutako berbetan kasu marka txertatzerakoan loturazko bokala eranstea aukerakoa da.

Adlatiboaren kasu markaren bizitasunari dagokionez, singularrean oso erabilera aberatsa du, eta mugagabeen ere bai neurri batez; baina batez ere pluralean bizigabeen formek sarri ordezkutzen dute. Berezko kasu markaren lekuan beste bide batzuk ere erabiltzen dira bizidunentzat, genitibo markadun *-(e)nera* adibidez.

#### 1.2.14.3.2. Erabilerari dagokiona

Adlatiboak norabide esangura ez eze beste batzuk ere baditu: denbora tartea; leku tartea; “noiz” esangura; modua; leku zehatza, zein leku aldaketazko ñabarduraz; ekintza “zertan”; ekintza helburua “zertara”; “zeren bila”; traza, antza, besteak beste.

Deklinabide arruntaz gain, bestelako egituretan ere agertzen da: eratorbidean, esapideetan, aditz perifrasiatan, postposizioetan, komunztaduraz aditzak eskatzen duenean, besteak beste. Beste kasu batzuetan agertutako erabilerak ere aipatu daitezke: “norako, noizkorako, zertarako” helburuzkoak; “nondik nora” erako egiturak; adlatibo bukatuzkoaren eta bide zuzenezkoaren ordezkariak, esate baterako.

*-(n)ganako* forma konposatua jaso egin dugu baina oso erabilera eta bizitasun txikia du. Galzorian dagoela esan daiteke, lekuko zahar baten ahotan jaso baitugu bakar-bakarrik.

#### 1.2.15. *Adlatibo bukatuzkoa* *-(e)ra(i)ño(k)* *l-(e)rarte* *//(-e)(n)gana(i)ño(k)*

##### 1.2.15.1. ALDERDI FORMALA

Kasu markak hauek dira: *-(e)raño(k)* *l-(e)taraño(k)* bizigabeentzat, oro har; eta *-(r)(e)(n)(g)anaño(k)* bizidunentzat. Inesiboaren atalean ikusi ditugu bizidunen eta bizigabeen arteko deklinabide kurutzaketak nolakoak izan daitezkeen

orokorrean (formak, zein aldaera hartzen duten, joera nagusiaren arabera) sortzen dira: “alabeteraño” eta abar). Beste kasuetan egin den moduan, banatuta aipatuko ditugu bizidunen eta bizigabeen marka ezaugarriak.

#### A) Bizigabeen kasu marka

Kasu markak berak aldaera fonetikoak izan ditzake ingurumenen eraginez. Batetik, *-raño*k markako kontsonante dardarkari<sup>310</sup> bakuna bokal artean galdu egin daiteke, eta ondorioz bokal elkarketetan berdinketak eta disimilazioak gertatu osten, murrizketak ere gerta daitezke. Osagai sabaikaria ere beti dagoen arren, batzuetan glidea ere ager daiteke, edo guztiz soilduta kontsonante sudurkari sabaikarian. Amaierako kontsonante belarea errealizazio batzuetan agertzen da eta beste batzuetan ez. Horretarako, baina, fonetika sintaktikoa ere go-goan izan behar da, ondoan kontsonantez hasitako berba badu soinu belare hori ez ahoskatzeko joera nagusia delako (kontsonante belare ahoskabea agertu, agertu daitekeen arren). Horrenbestez, amaierako kontsonante hori nork darabilen eta nork ez jakiteko gehienbat esaldi amaiera-amaierako posizioan dauden adibideak, etenaren aurrekoak, edo bokal artean daudenak begiratu behar dira. Adibidez: “are-noraño eruango ete gaitxu?”, “noraño eltzen da ori?”; “noraño leau siñan?”. *kgg*-k sistematikoki darabil amaierako kontsonante belare gabeko aldaera (beti, salbuespenik gabe, *-raño*); aldaera hori *raz*-k ere badarabil, eta horrelako adibide bakarra jaso diogu *naz*-ri. *kgg*-k izan ezik, beste lekuko guztiek *raz*-k eta *naz*-k barne, *-raño*k aldaera darabilte aipatutako ingurunetan. Lekuko nagusiez gain, solasaldi askea jaso dizkiegun lekuko hauek ere horrela egiten dute: *kmz*9, *ñaz*1, *ñaz*2, *kaz*1, *kaz*2, *kmz*3.

Bizigabeentzako beste kasu marka bat ere jaso dugu, *-arte* hain zuzen (diakronia mailan bestea baino berriagoa da baina ez dugu horretan erreparatu). Horri dagokionez ere hainbat aipamen egin behar ditugu, batetik, formazko aldaerei dagokienez, eta bestetik, *-raño(k)* kasu markarekin duen osagarritasuna-alternantzia azaltzeko.

—Formazko aldaerak. *-arte* forma “trinkoa” da erabiliena lekuko guztien ahotan —aldara fonetikoak gerta daitezke, “egunearte” sortuz bokal arteko dardarkariaren galeraz, esaterako—, baina *-ra arte* forma berezia ere jaso diegu *nme*2 eta *kmz* lekukoei, postposizio legez:

*nme*2 nóra-árte?

*kmz* etxeko arítzera-árte // *kmz* an daosen arítze-tara- árte [sic]

Galdera generikoena egiterakoan, denbora zentzuzkoan ez da *-ra-* adlatibo marka txertatzen, “noix arte” baita forma orokorra (eta ez “\*noixera arte”). Galdera zehatzagoak egiterakoan besterik jaso dugu; forma arruntena “señ

---

<sup>310</sup> Ikus partitiboaren atalean kasu marka amaiera bokalikoa duten berbei txertatzerakoan diren emaitzak.

egunerarte” da, baina “seiñ egun arte” ere jaso diogu *naz*-ri. Egitura horiek erantzunetan ere islatzen dira; izenak deklinatzerakoan, *kmz*-k mugagabeko erantzun baten “gauarte” egiten du, beste lekukoek erabat “gaberarte” egiten duten artean; singularrean, “gaberarte” da erabateko forma. Pluralean berriro azaltzen da polimorfismoa, “gabeararte, gáberarte, gabak arte” jaso baitiegu *kgg*-ri, *naz*-ri eta *nme2*-ri, hurrenkera horretan. Bai mugagabeen bai singularrean forma arruntena adlatibo markaduna da baina egiturak ez dira beti garbiak, adibidez:

*nme2* illúntzi arte · etxáingou –*naz* geldítuko gá illúntzi arte

Adibide horietan “illuntzi arte” forma adlatiborik gabekoa da zuzenean? (guk horrela interpretatu dugu transkribatzerakoan), ala marka horretako konsonante dardarkari gabea?: \**illuntzi(r)a-arte* > \**illuntzia-arte* > *illuntziarte*? Gauza bera gertatzen da beste adibide batzuetan ere; “astelenarte” forman “astelen arte”? ala “\*astelenera-arte > \*astelenea-arte > \*astelenearte > astelenarte”? Gauza bera gertatzen da “orkatilla-artekua”-n:

*raz1* °e, ástelenarte, bále!

*nme2* °eee... · bernía da eee oo... · sétik, belaunetik · eta orkatilla-ártekua

Pluralean bietarik aurki dezakegu, “egunetararte” ereduko formak, zein “Karnabal egunak arte” eredukoak. Kasu marka aditzondoek hartuz gero, “bixar arte, gaur arte, oiñ arte, le(e)n arte” eredu erabatekoa da, “\*bixarrerarte” modurik ez da osatzen. Orduak adierazterakoan ere gauza bera gertatzen da: “bostak arte” da eredu erabiliena, “bostetararte” ere onar daitekeen arren. Aurretik aditza denean ere ez da adlatibo markarik ageri: “etorri arte”, adibidetzat.

— Erabilera: *-rarte /-raño(k)* osagarritasuna-alternantzia. Lekua adierazten duten berbetarako *-raño(k)* da marka erabiliena, lekuko guztiek baitarabilte salbuespenik gabe; eta denbora adierazteko *-rarte* da marka erabiliena, eta hau ere lekuko guztiek darabilte salbuespenik gabe.

Baina beste barietate batzuetan gertatzen denez, kurutzaketak ere badira, *-rarte* lekua adierazteko erabiltzea oso arrunta baita Eibarren. Jarraian lekuko erabilera profilar hurbilduko gatazka; *kmz*-k “norarte” galdera legez ez du onartzen, baina horren erantzunak erabili erabiltzen ditu erreparo handirik gabe; bai *kmz*-k bai beste lekuko nagusiek darabilte *-rarte* leku zentzuarekin. Solasaldi askean, bai lekuko nagusiei bai besteei ere jaso dizkiegu horren errealizazioak. Adibide bakan batzuk ipiniko ditugu:

*raz1* °... bueno!, ni neuk [sic] nao beitzát iguinduta, buenóó!, nao eee · estáki-nó-rarte bé!

*raz1* “bérrarte jáusi da txoríxa” ... “bérañok” ... °ní-pentzatze-bíxak [sic] igual diála... · néu-péntzau! estákitx, e?

*kmz* sé basoo- basorárte llégau súan suá? —*kgg* sé elíxararte eldú san úra?

*ñaz1* °bai!, Ermúko panareixarartekua ori danori! · san! Solosabal

*kmz7* °... Gero ba or gabisen, bátian ee-Eibarrerarte, Kálamuara ...

Adibide baten jaso dugu lekuzko forma baina denborazko esangura duena:

*raz5* °... -“bueno!, oñ · Josepéteko Selairá-arte! · bixar urtengot · mója...” ... <“hil arte” esan gura baitu>

Beste aldera eginez gero, *-raño(k)* denbora zentzuarekin erabiltzea ez dago hain zabaldua, eta adibide bakan batzuk jaso ditugu bakarrik: *kkg*-ren, *kmz*-ren, *kmz9*-ren, *raz1*-en eta *nme2*-ren ahotan hain zuzen. *nme2* lekukoaren adibidea, hala ere, ez dirudi kontuan hartu beharrekoa, “gaberaño” baitio lehenengoan, baina bakarrik “gaberarte” onesten du jarraian, “gaberaño” forma ukatuz. Beste adibide batzuk:

*kmz9* “... hemeretzi urte nekazen nik gerria urten ebanian. Hemeretzi urteraiñok <<antzerki>> guztiak euskeraz egitten genduazten ...” —*kmz* gaberaño gerátu sitxúan *raz1* seín egunétaraño geatze-sára?

*kkg* “San Juan egúneraño geldítxuko gara”. Lekukoak ez du forma hori ontzat hartzen nahiz eta bapatean sortutako forma izan: “<sup>o</sup>ori urten jata baña...”

Guk ez dakigu adibidez Fruizko “eguno” eta “oniño” adlatibo bukatuzko kasu markadun formen parekoak diren Eibarko “egundo<sup>311</sup>” eta “ondiok<sup>312</sup>” formek adlatibo honen kasu markaren arrastorik duten, ala bestelako osagaiak diren amaiera horietan daudenak.

—Bizidunen kasu marka

Forma aniztasunaren beste iturri nagusia batez ere bizidunen kasu marka-  
ren baitan dago, *-ganaño(k)*<sup>313</sup> oso-oso gutxi erabiltzen baita. *kkg* lekukoak darabil gehien, ia beti; eta beste lekuko batzuek adibideren batzuetan, *nme2*-k eta *naz*-k kasu.

Izan ere, bizidunentzako galdera bera ere, lekuko bakar batek formulatu du adlatibo bukatuzko kasu markaz, *nme2*-k hain zuzen, beste lekuko batzuek forma hori oso garbi ukatzen duten artean, *kmz*-k (baina ez beti, “lengusuaño” forma zuzenean galdetutakoa onartzen baitu, lekukoak berak hori esan egin ez arren), eta *raz1*-ek esate baterako. Erralizazioaren adibide batzuk:

*nme2* señéganá--ño juen sára?

*kkg* lengó mutíllagánaño eldu gara

---

<sup>311</sup> Ikus solasaldi askeko errerealizazio bat: *raz5* “<sup>o</sup>egundo estot nik umeik jo; saratak demasak etara bai, ori bai; baña jo, sekula bes, egundo...”.

<sup>312</sup> Ikus solasaldi askeko errerealizazio bat: *raz5* «<sup>o</sup>... -“kontratua!-aren kontratua ... bisíri-dao-ondio-kan?, bijente?” · da ...».

<sup>313</sup> Guk ezin dugu J.A. URIARTE-k dioena esan, ez duela aztertutako herriko hizkeran inoiz entzun, alegia. Guk entzun egin dugu, baina erabilera eta bizitasun aldetik bat egiten dugu egile horren esanekin: “norbaitek ezagutu edo erabiliko balu ere, ez diot irauteko modurik ikusten, euskalduntze edo alfabetatze prozesuak berrindartzen ez badu behintzat” (1995, 389). Izan ere, adibide gehien jaso diogun lekukoak, *kkg*, euskaraz oso ongi alfabetizatutakoa da, adibideak eibartar eran eratzen dituen arren.

*kmz* “ire léngusuan-e-áñaño”: “añaño-ño”-eee...

*naz* ba órreganaño jum-biosú // *naz* da-áregana-ño jum-biosú — *nme2* áreganaño jum-bi-da

Forma horretan aldaera morfologikoak sor daitezke edutezko genitibo marka aurretik hartu ala ez. *kgg*-k genitibo markarik gabeko formak egiteko joera du (beste leku-denborazko kasuetan ez bezala), eta *nme2*-k bietarikoak egiten ditu.

Nola eratu bada bizidunen forma?: gehien-gehienetan adlatibo soilaren bidez<sup>314</sup> eta forma bizigabeen bitartez. Baina bada beste bide bat adlatibo bukatuzkoa bizidunentzat eratzeko, *-neraño(k)* edutezko genitiboz osatutako formaren bidez, hain zuzen<sup>315</sup>. Lekuko hauek darabiltzate horrelakoak: *kmz*-k eta *naz*-k. Adibidez:

*naz* lagúndukotzút sure alabíanerañok // *naz* lagúndukutzut súde semian--nerañok

Jarraian, goian aipatu ez ditugun forma berezitasunak jorratuko ditugu, bizigabeentzako formei dagokienean batez ere. Gogoan izan behar da adlatibo soilaren moduan txertatzen zaiola oinarriari, eta horregatik ez dugu berriro ezaugarri hori errepikatuko.

#### 1.2.15.1.1. Mugagabeen

##### **Bizigabeen bukatuzko adlatibo mugagabea: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixataraño(k) / elixetaraño(k) / elixaraño(k) // elixartarte / elixararte; menditaraño(k) / mendiraño(k) / mendixetaraño(k) // (...)</i>
--

Kontsonante amaieretan: <i>sabaletaraño(k) / sabaletaño(k) // sabaletararte / sabalerarte // astelen arte - astelenarte</i>
---

Leku-denborazko beste kasuetan gertatzen denez, honetan ere *-ta-* artizkia aukerakoa da: “elixaraño(k), elixararte; etxeraño, etxerarte; basorarte, aritze(r)arte; sabaleraño; egunerarte<sup>316</sup>” jaso ditugu “elixetarañok; etxetarañok; basotarañok, basotararte; sabaletarañok; egunetararte, aritxeta(ra)ñok” formen ondoan, esaterako.

Kasu marka itsatsita aldaera fonetikoak ere jaso ditugu, arrunta denez, “elixetarañok”, “egunararte”, “aritzearte”, “arixetaraño” adibidez.

<sup>314</sup> Erabileraren atalean gehiago garatuko dugu gai hau.

<sup>315</sup> Ikus pareko formak inesiboaren eta adlatiboaren atalean ere.

<sup>316</sup> Forma hauek, sinkretismoz, singularrekoekin berdindu egiten dira. Esaldiko egiturak eta pragmatikak argitzen dute esangura zehatza.



Amaiera bokalikoa duten adibide batzuetan loturazko bokala txertatuta balute legezko formak jaso ditugu: “mendixetaraño” eta “errixetaañok”, lehena *f.a.*-ren ahotan eta bigarrena *nme2*-renean. *naz* lekukoari jasotako “méyetaaraño” formak ere hori gogorazten du, emaitza konplexuagoa den arren<sup>317</sup>. Forma hauek inesiboko “jaixetan” mugagabearen bidetik sortutakoak dirudite<sup>318</sup>.

I-datiz gero, kontsonantez amaitutako berba mugagabeak pluralekin nahas daitezke, baina ahoskatzerakoan azentuak bereizten lagun dezake; mugagabera-ko eredia “sabalétaraño” da, eta pluralerakoa “sabáletaraño”.

### 1.2.15.1.2. Mugatu singularrean

#### Bizigabeen bukatuzko adlatibo singularra: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixaraño(k) /elixeraño(k) /elixaaño(k) /elixaño(k) //elixararte /elixara arte</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>sabaleraño(k) //sabaletararte /sabalerarte</i>
---

Aipatzekotan, aldaera fonetikoak aipatuko genituzke, eta osoenetik murritzenera adibide batzuk ipiniko ditugu:

*kaz1* °... angó bere terrenuak · lleatze-sián · Iburr errékarañok ... —*naz* lagúndukotzut áteireñok

*ñaz1* °bai!, Ermúko panareixarartekua ori danori! · san! Solosabal

*kmz* etxeko arítzera-árte

*kaz2* °... gastañátara · kapásuakin da, erdiañok betetakuan ... erdiaño-betakuan [sic] “ba!... áimbeste gastaña?: bé!, énajoya-geixa-...” ... —*kmz3* °... askenian e, nee ondoañok etorri suan txakurra! ...

*naz* Sanjuán egúneárte

*nme2* San Andrésko parrókixañok alleau san

### 1.2.15.1.3. Mugatu pluralean

#### Bizigabeen bukatuzko adlatibo plurala: eredurako

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixetaraño(k) /elixetaaño(k) /elixetaño(k) //elixetararte /elixetara-arte</i>
---

Kontsonante amaieretan: <i>sabaletaraño(k) /sabaletaño //sabaletararte /sabaletararte /sabaletara-arte</i>
--

<sup>317</sup> Ikus bestelako amaiera duten berben deklinabidean.

<sup>318</sup> Ikus atal horretan.

Singularrean egin dugun antzera, berezitasun fonetikoak aipatuko genituzke batez ere, osterantzeko ezaugarri deigarrienak gorago azaldu baititugu. Adibidez:

*kmz* an daosen arítze-tara- -árte [sic]  
*nme2* an ándiko arítzetaño-lagúnduko <<isut>>

#### 1.2.15.2. ERABILERA

Kasu honen aurkezpenean aipatu ditugu marka bakoitzaren erabilera nagusiak eta horrenbestez ez ditugu hemen berriro ipiniko —lekua ala denbora adierazi, halako marka, nahiz eta kurutzaketak izan—. Azaldu gabeko beste ezaugarri batzuk aipatuko ditugu:

##### 1.2.15.2.1. Eskatzen dituen aditzak

Leku zein denbora muga adierazten duenez, adlatibo bukatuzkoa “(a)llegau, lagundu, juan/etorri” mugimendu aditzekin erabiltzen da lekua adierazten denean, baina “isen, eon” erakoak ere onartzen ditu; denbora adierazten denean, “eon, geratu/gelditxu, itxaiñ...” tankerako aditzak erabiltzen dira, harreman semantiko konplexuagoak ere sor daitezkeen arren.

##### 1.2.15.2.2. Kasu markari leku-denborazko genitiboa gehituta, izenlagun bihurtuta

Adibide batzuk ipiniko ditugu:

*kmz7* “Bai, lurrerañoko trajia, neskak. Gu foballeko frakeaz ...”  
*razl* leiru dau e · lburuan erdfrañokua ero géitxuao

*razl* °... <eskuarekin egiten du> ónaxeñoko urak, e?  
*rmz* °bost urte? bost urtekiñ onaxeñokua isem-biaok! <ilobari, txantxetan>

##### 1.2.15.2.3. Esapideetan

Gaztelerazko esapide batzuen kalkoetan ere erabiltzen da, euskarazko esapide legez: “kokoterañok euki/eon”, keinuz lagunduta “onañok euki/eon”...

*razl* °... bueno!, ni neuk [sic] nao beitzát iguinduta, buenóó!, nao eee · estáki-nórarte bé!

##### 1.2.15.2.4. Zein beste bidez ordezkutzen den

Bizidun-bizigabe kurutzaketez gain, kasu marken arteko ordezkaketak daude:

a) Bizigabeetan, adlatiboa erabiltzea da bide arruntena. Adibidez:

*kmz* sé-elixátara llégau suan urá?  
*kmz* úra llégau suan angó elíxetara

## b) Bizidunetan:

—Adlatibo kasu markaz. Hasi galdera egiteko eratik eta erantzunetan ere, joera nagusia adlatibo soila erabiltzekoa da: “señegana/seingana; alabiagana, lengusuagana, semiegana...”. Esate baterako:

*kmz* juári! eroseñ alabána!

*nme2* sure aleba- alábenn-ganá · lagúndukutzút

—Bestelako perifrasiak erabiliaz. Adibidez, “-(e)n etxera(ñok)”, edo egitura erlatiboak: “izena + *dauan/daosen* + izena -*raño(k)/-rarte*”.

### 1.2.15.3. ONDORIOAK

#### 1.2.15.3.1. Formari dagokiona

—Bizigabeen deklinabidean bi kasu marka erabiltzen dira, -*raño(k)* eta -*rarte* (azken hau, postposizio egitura da jatorriz).

Lehenengo markak (-*raño(k)*) hainbat aldaera fonetiko izan ditzake; -*ra-* zatiari dagokionez adlatiboaren atalean aurkeztutakoak kasu honetan ere balio du. Kontsonante sudurkariak aurretik glide sabaikaria izan dezake, edo bustidura osokoa izan daiteke, glidea kontsonantean murrizturik. Amaierako kontsonante belarea aukerakoa da, baina joera orokorra erabiltzekoa da, lekuko nagusi guztiek baitarabilte *kgg-*k izan ezik; solasaldi askea jaso diegun hainbat lekukok ere leherkari belaredun aldaera darabilte. Orokorrean, lekua adierazterakoan erabiltzen da, eta oso-oso gutxitan denbora adierazterakoan (adibide bakan batzuk jaso direnez bakarrik, guttiz sistematikoa ez dela esatera ausartzen gara).

Beste markak aldaera morfologikoak eta fonetikoak, bietarikoak ditu. Postposizio egitura denez, -*arte-*ren aurreko adlatibo markaren ordeztu forma nominatiboak erabil daitezke, batez ere jakineko egituretan: forma pluraletan, zenbatzaileen ondoan, aditzondoan ondoan, aditz partizipioen ondoan, besteak beste. Izen arrunten deklinabidean adlatibo marka arrunta da, kasu batzuetan murrizketek interpretatzeko zalantzak sortzen dituzten arren. Orokorrean, denbora adierazteko beti erabiltzen da; eta lekua adierazteko ere oso sarri, beste kasu markari lekua kenduz. Gainera, leku zentzuz lekuko nagusi guztiek eta solasaldi askea jaso diegun beste askok ere badarabilte, erabilera horren hedaduraren adierazgarri.

Marka biek dituzte aldaera fonetiko orokorrak, bokal arteko dardarkariaren galeraz gertatzen diren murrizketa mailak, esate baterako.

Mugagabeen, -*ta-* artizkia aukerakoa da. Loturazko bokala txertatzerakoan ere aldaerak sortzen dira.

—Bizidunen deklinabidean kasu marka -(*n*)*ganaño(k)* da baina oso erabile-  
ra eta bizitasun murrizta ditu. Kasu marka hori darabilten lekuko en profila ikusi

besterik ez dago. Aginagako lekuko nagusi biek noizbait darabiltzate horrelako formak, nolabaiteko bizitasuntxoak erakutsiz; baina Eibarko beste lekuetan galdua da zeharo (Arrateko lekuko batek eta kaleko beste batek gutziz bazterten dituzte horrelako formak). Marka hori darabilen lekuko gazteak alfabetizazioak lagunduta eraten ditu horrelako formak, gure iritziz, kaleko lekuko zaharrek ezpaitarabilte horrelakorik.

Dena dela, kasu marka hori deklinabidean erabiltzerakoan beste aldaera morfologiko bat sortzen da, genitibo marka aurretik txertatu ala ez. Beste lekudenborazko kasuetan ez bezala, *kgg* lekukoak ez du genitibo marka hori erabiltzen, ezta *naz*-k ere, eta beste kasuetan ere erabiltzaile den *nme2*-k txandaka.

Bizidunen formak eratzeko, beraz, beste bide batzuk erabiltzen dira: adlatiboaren bizidunen marka, adlatibo bukatuzko bizigabeen marka, edutezko genitiboz sortutako *-neraño(k)* kasu marka eta osterantzeko perifrasiak.

#### 1.2.15.3.2. Erabilerari dagokiona

Muga adieraztea, lekuzkoa zein denborazkoa, da esangura arruntena, horregatik erabiltzen da mugimenduzko aditzekin batez ere. Esapideetan ere erabiltzen da.

Leku denborazko genitibo marka onartzen du amaieran, eta gainera oso bizirik den forma da, lekuko zaharren ahotan behintzat.

Orokorrean, gainbehera doan kasu marka da, batez ere adlatiboaren “onura”rako; osterantzeran, perifrasiak erabiltzen dira “norbaiten etxea” erakoak, edo egitura erlatiboak.

#### 1.2.16. *Adlatibo bide zuzenezkoa* $-(e)ru(n)tz / -(e)(n)gan(ar)utz)$

##### 1.2.16.1. FORMA

Eibarko kasu marka  $-(e)ru(n)tz / -(e)taru(n)tz$  da bizigabeentzat, oro har; eta  $-(r)(e)(n)(g)an(ar)utz$  bizidunentzat. Kasu marka hau hain gutxi erabiltzen da eze —eta bizidunentzat are eta gutxiago—, ez dugu bizidunen forma adierazteko bizigabe formarik ere jaso; eta bizigabeen deklinabidean lekuko batzuek ez dituzte forma guztiak onartzen. Adibidez, *kmz*-k “elixatarutz” forma ez du onartzen nahiz eta “elixarutz, errekarutz” oso normal erabili. Beste kasuetan egin dugun moduan, banatuta aipatuko ditugu bizidunen eta bizigabeen marka ezaugarriak.

—Bizigabeen kasu marka

Kasu markak berak aldaera fonetikoak izan ditzake, bai barnekoak bai ingurunearen eraginez. Kasu markaren baitako aldaera nagusien iturria kontsonante sudurkaria izan ala ez da. Joera nagusia kontsonante sudurkari gabeko

forma da, *-(e)ruz*, baina *nme2* lekukoari sudurkaridun adibide batzuk jaso dizkiogu (bai mugagabeen bai mugatuena) eta ezin utz ditzakegu aipatzeko (lekuko honek gehien darabilen aldaera *-ruz* da, beste lekukoaren moduan); *kgg*-ri ere adibide bakanak jaso dizkiogu. Ez dakigu gertakari fonetiko hutsa den, ala ezaugarri arruntzat hartu behar den<sup>319</sup>:

*nme2* seim-bide sabalétaruntz · jun-tzáa · jun saríe?  
*nme2* bere aldéruntz // *nme2* bólia, bixána- birá- bíruntz -ero- bixán aldéra doya  
*nme2* oiñ, · ándiko bide sabaletaruntz góyas  
*nme2* oná bertóruntz  
*nme2* Eibarréruntz jun dia  
*kgg* Urkusúruntz juan dira psiatzera // *kgg* lengó bóstetáruntz e juan gára

Ingurunearen eraginez kasu markako amaierako kontsonante afrikariak hainbat aldaketa jasan ditzake. Amaiera-amaierako posizioan edo etenaren aurretik edo bokal artean dagoenean, bere horretan gordetzea da joera nagusia. Ondoko berba kontsonantez hasten bada, disimilazioz-edo, kasu markako kontsonante afrikaria frikari txistukari bihur daiteke; ondoko berba frikari txistukariz hasten bada, gustuz asimilatu eta soilketa ere gerta daiteke. Zenbait adibide:

*kmz* nóruz óya?  
*nme2* nórus juan sára?  
*kgg* nóru-soyas?

Ablatiboan ere denborazko berba batzuetarako kasu marka guztiz ihartua jaso genuen legez, adlatibo bide zuzenezkoan ere denborazko forma bat zeharo ihartuta dugu: “aurrerantzian /aurreruntzian”. Forma biak jaso ditugu gure leku-koengandik, lehenengoak *-rantz(a)* mendebaldeko kasu marka gogorarazten du. *kmz*-k ez du ez forma bata ez bestea onartzen, eta “emendik aurrera” perifrasisa jotzen du; *kgg*-k lehenengo forma bakarrik onartzen du, eta beste lekukoek forma biak onartzen dituzte.

—Bizidunen kasu marka. Ia-ia ez dela ere esan dezakegu. Jaso ditugun formak, *kgg*-ren ahotan, oso zalantzazkoak dira lekukoaren senarentzat ere, ongi alfabetatua izan arren:

*kgg* °ori séla isango san, “alabáganarutz”? <barrez> ... “alabáganutz”? ori badao?; bueno, eon eongo da baña esáten da-éro?... ... “-ganaño” neri úrten eitxe-jata baña “-ganarutz”?!, eske osea, sekulako esfuersua eim-biot ori etaratzeko

Dena dela, beste leku-denborazko kasuetan gertatzen denez, edutezko genitiboz osatutako kasu marka da lekukoek marka bereziren bat erabiltzekotan darabiltena; horrela egiten dute *naz*-k eta *nme2*-k. Adibidez:

*naz* txakúr ba-juen da sure ... alabíanerutz

---

<sup>319</sup> Ikus beheratxoago “aurrerantzian/aurreruntzian” forma.

Beraz, formazko ondorengo ohar eta ezaugarriak izen bizigabeei dagokie; gainera, kasu marka hau oinarriari adlatiboaren antzera txertatzen zaionez ez dugu berriro horren inguruko zehaztasunik egingo.

1.2.16.1.1. Mugagabeen

**Bizigabeen adlatibo bide zuzenezko mugagabea: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixatarutz /elixarutz</i>
Kontsonante amaieretan: <i>sabaletarutz /sabalerutz</i>

Beste kasuetako joera gordetzen da kasu honetan ere; *-ta-* artizkia aukerakoa da, eta “*elixatarutz, etxetarutz, basotarutz, sabaletaruntz, uretarutz*” formen ondoan “*etxerutz, kotxerutz, errirutz, basorutz, mairutz, balkoirutz, aritzerutz*”<sup>320</sup> formak ere jaso ditugu. Lekukoek zalantzak ere badituzte zuzenean galdetutakoan, adibidez:

*nme2* “seim-balkoittárutz?” ... °bai, “balkoittárutz” esám-biko da baña...

Kontsonantez amaitutako berbak *-ta-* artizkia hartuz gero itxuraz forma plura- lekin neutralizatu daitezke. Azentuak batzuetan bereizteko lagun egin dezake; mugagaberako eredia “*sabalétarutz*” litzateke eta pluralerakoa “*sabáletarutz*”.

1.2.16.1.2. Mugatu singularrean

**Bizigabeen adlatibo bide zuzenezko singularra: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixarutz; etxerutz; mendirutz; solorutz; lekurutz</i>
Kontsonante amaieretan: <i>sabalerutz</i>

Ez dugu aparteko ezaugarririk jaso; gehien erabiltzen den forma da, egoera pragmatikoen eraginik ziurrenez:

*nme2* “etxérus” bat bákarra danían ondó erooo... · ondó dator baña “etxién-ta- rutz”... · orí yaa... orí e, ésta...

1.2.16.1.3. Mugatu pluralean

**Bizigabeen adlatibo bide zuzenezko plurala: eredurako**

Amaiera bokalikoetan, adibidez: <i>elixetarutz; etxietarutz; mendixetarutz; soluetarutz; lekuetarutz</i>
Kontsonante amaieretan: <i>sabaletarutz</i>

<sup>320</sup> Forma hauek singularrekoen berdinak dira, sinkretismoz.

Singularreko formak dira erabilienak, aipatuenez, eta plurala erabili egiten da baina ez singularrean besteko tinkotasunez; lekukoan iruzkinak erakusten ditute hori:

*nme2* “erríxetarutz” °bai ... bai! óla esam-biko dá!

### 1.2.16.2. ERABILERA

Lekuzko zentzua du guk jaso ditugun adibide gehienetan, denborazko xedearen kontzeptua izan ere oso zaila baita. “Leku” hori biziduna denean ere ia ezinezkoa egin zaigu adibiderik lortzea. Jarraian ñabardura batzuk aipatuko ditugu:

#### 1.2.16.2.1. Leku zehatza adierazteko

Lekua adierazterakoan, norabide zuzenezko esangura ez ezik lokatibo-ine-siboaren ordezkua ere badu, “non” adierazteko. Adibide batzuk ipiniko ditugu; adibidez:

*nme2* °aménn... · amén “atzámarrak” esaten da!, · da, · an · Bískai aldérus “atzáparrak”

*naz* nere-etxie dao · iturríxan · eskerrérutz

*naz* Úrkom-beste partérutz Eibar dao

*kaz1* °ándikan onús baa, · on- onn dao · bueno! geró ándik o-onutz · euan · errotía, e?: errot- ee... errotá bat

*kaz1* °baña-Amaña parterutz · lénao eom-bie-san · ee, oñ · ospitxála daon lékuan s- a Residencia Sanandrés daon lékuan, Amaña básarrixa ...

*kaz1* °ní-neuk · betí Títulukua entzun dot. Gero bakisu se pasatzen dan?: órrek ya piskat onus daos... · da ...

*kaz3* °... Estasiño kalian euan-buen- dénda bat: b- komestíbliena, axe pasau ta, · ósterutz, e trembidéra urtén da trembidían euan

*kmz3* °... éuren e · ortuak eta gausak ékesen gañea gáñekaldea... Jardíñetara: oñ Jardíñetarus dana etxia daok an gáñiam-be ta, ésebes! ...

#### 1.2.16.2.2. Lekuaz gaindiko kontzeptuak adierazteko

Esate baterako:

-*kag* °...kétxueran esáten daa ee estákit, <“narraztiak” izendatzeko> e · “animales berdes” ... marroixka-día?, está?

-*kgg* °bueno! · berdérutz dána-dáke-es?, subilándarak, muskérra...

#### 1.2.16.2.3. Denbora zehaztugabea adierazteko

Adibidez:

*kmz* éguardirus-lléau- lléauko aitzuk

*kaz2* °... orii Alkala Samora pxx · etorri san · el año treintayuno · estakitt etorri san · · agostuan askenerutz ero setiémbrían · etorri san ...

#### 1.2.16.2.4. Leku-denborazko genitiboaren kasu marka erantsita

Izenlagunak sortzen direnez, izenaren ondoan zein bakarrik ager daiteke:

— Izenaren ondoan. Esate baterako: “berusko bidia, etxerusko bidian”.

— Bakarrik; normalki inesibo kasu marka hartzen du. Esaterako: “etxeruskuan beruskuan; goruskuan” eta abar... Izenek ez ezik, aditzek ere onartzen dute horrelako deklinabidea: “igotzeruskuan”; adberbioek ere onartzen dute: “onuskuan, orruskuan, aruskuan”. Lekuzko zentzua denborazkoarekin batera du:

*kmz* juáteruskuan basuría etaraik

*kmz* aruskúan · gorántziak

#### 1.2.16.2.5. Inesibo marka gehituta

Oinarrian izenak ez ezik adberbioak ere egon daitezke; aditzik ez, ostera. Honelako formak sortzen dira: “gorutzian, berutzian, etxerutzian, kalerutzian; onutzian, arutzian”. *kgg* da forma hau onartzen ez duen lekuko bakarra, agian ez duelako sistema osoaren ezagutza nahikoa sendoa. Forma hauek leku-denborazko markadunen pare-parekoak dira, lekukoek forma biak nahasian baitarabiltzate. Lekuzko zentzua denborazkoarekin batera du aipatutako adibideetan; ondorengoan denborazkoa du bakarrik:

*razl* °[katagorriak] es, oiñ es!, oiñ ee... otúbrian ero, · nobiémbrían eró, buenóó! Oiñ estao-oiñ esebes; géro!, ne- negúra! negurútzian!, bai... enéé!, [txakurrekin] se gerrá!

Denborazko zentzua du lexikalizatutako forma honek ere: “aurrerantzian/aurreruntzian”.

#### 1.2.16.2.6. Zein beste bidez ordezkutzen den

Kasu marka hau erabilera urrikoa denez ordezkaketa bideak ugari daude:

*nme2* °bai, “balkoittáruz” esám-biko da baña... <zuzenean galdetutakoan>

— Adlatiboan, bai egitura arruntetan eta batez ere deklinatutako hitza bizidun legez deklinatzen denean:

*razl* °bá ígual! ... “mairutz” ero “maira”, ígual txamar isengo da óri. Báta baño bestia berbá elegántiaua bai!, or bai!

Bai ihartutako egituretan:

-*razl* °es-ess! au- au esta susénduko mundúa mundu dan arte bé... .. Jesukristo ill eskerokuan-beti ola da- dabil mundú gustía!: bátian a- gerría, béstian gerría, dana gerría ta...

-*armz* °áurrera be bai!

-*razl* °áurrera ola isengo d'áu, e? <“aurrerantzian/aurreruntzian” esan gura du>



—Postposizioak, adlatibo bide zuzenezko kasu marka duela edo adlatibo soilaz, bai forma bizigabeak bai bizidunak ordezkatzeko. “Alde, inguru, bide, ondo...” dira erabilienak:

*nme2* seiñ etxe áldera jun día?

*nme2* á jun da etxéruz, · etxe áldera: · “etxéruz” ero “etxe áldera” // *nme2* sukáldeko balkoi áldera jun da

*nme2* seim-basoot-oo... -tárako bidían jun día?

*nme2* umía, sukáldeko balkói e ee · ingúrura-ero jun dá // *nme2* jun saítte · orrá aritzéera ingúrura // *nme2* bólia, · bixenn · ingúrura -ero- bixen aldéra juen da

*raz1* eruaisu-síllak · mesá ondóra ... mái ondóra

// *nme2* jun sáítte · eroseiñ alaban aldéra · -ero- alabángana

*nme2* txakúr ba-jun dá, · sure <<alabánn>> ingúrura

*nme2* baso-álderus jun gára · pasiuán —*f.a.* ará etxe álderus-doyas —*naz* dána-joyesen Untzág' aldéruz

// *naz* dána-beráana, bere álderus jóyesen

— Osterantzeko egiturak:

*nme2* se baso-bíde-erun dabéé · kabálluak?

*S.B.* illundus joyak

*kgg* katúa kuixen- kuíxa-dáren tókira juan da

*kgg* kuíxa-dáren tókíruz juan da

### 1.2.16.3. ONDORIOAK

Kasu marka hau leku-denborazkoetan gutxien erabiltzen dena da, bai bizigabeen forman eta bizidunetan bereziki.

Bizidunentzako kasu markak aldaera fonetikoak ditu. Barruko kontsonante sudurkaria izan ala ez aukerakoa da baina joera orokorra, ia erabatekoa, sudurkari gabeko aldaera erabiltzea da. *kgg*-k eta *nme2*-k darabilte bakar-bakarrik sudurkaridun aldaera, baina lekuko horiengan ere arruntagoa da sudurkari gabekoa. Amaierako kontsonante afrikariak aldaerak izan ditzake fonetika sintaktikoaren eraginez.

Ihartutako kasu marka jaso dugu guztiz lexikalizatuta dagoen “aurrerantzian/aurreruntzian” berban. Lekuko nagusi guztiek onartzen dituzte forma biak, *kmz*-k izan ezik. Horrek esan gura du erabilera arrunta duela herrian, orokorrean. Berba horietan inesibo kasu marka txertatuta duen arren, *-rantzian* aldaerak mendebaldeko *-rantza* kasu marka gogorazten du.

Mugagabeen *-ta-* artizkia aukerakoa da. Artizkirik gabeko formak, bada, singularrekoen berdinak dira, sinkretismoz. Eta kontsonantez amaitutakoek mugagabeen *-ta-* artizkia hartuz gero, loturazko bokala tartean dela, pluraleko formen berdinak dira, sinkretismoz. Mugagabe eta plural horiek, hala ere, azentuaren bitartez bereiz daitezke.

Bizidunen forma ez da erabiltzen, ezta lekuko alfabetizatuen ahotan ere. *kgg*-k argi bereizten du forma teorikoa eta benetako erabilera, bigarren hau ukatuz.

Edonola ere, bizitasun murrizta dela eta, ordezkatzeko bideak ugari dira. Adlatibo soila erabiltzea da bide orokorra; postposizio bitartez ere sarri adierazten da norabidea, batez ere bizidunen alorrean; baina bestelako egiturak ere erabiltzen dira.

Erabilerari dagokionez, esangura orokorra lekuzkoa da, kasuaren izenak erakusten duenez. Norabide amaitugabea adierazten du gehienetan, baina leku zehatz ñabardura ere hartzen du egitura batzuetan. Denborazko esangura ez da norabidezkoa, zehaztugabea baino. Horiez gainera kontzeptuak ere adieraz daitezke kasu marka honen bitartez, kolore ñabardurak adibidez.

Erabilera eta forma lotuz, kasu hau aberatsa da beste kasu marka batzuk harterakoan. Izan ere, leku-denborazko genitibo markadun zein inesibo markadun formak, bai izen sintagma bai aditz sintagma, oso arruntak dira Eibarren.

### 1.2.17. *Bokatiboa*

Atal honetako aurkezpenean adierazi den bezala, bokatiiboak ez du berezko kasu markarik, erabilera-funtzio bat delako izatez, norbaiti egiten zaion deia hain zuzen. Bokatiibo legez erabiltzen den izenak, izenordainak edo dena dela-koak teoriarik behintzat edozein kasu marka har dezake (partitiboa eta prolatiboa izan ezik) eta forma mugatuak zein mugagabeak onartzen ditu. Bokatiiboak beste gramatika, monografia eta eskuliburutan ez du atal berezirik baina guk aparteko saioa eskaini egin diogu<sup>321</sup>. Batez ere alderdi formalari erreparatuko zaio.

#### 1.2.17.1. MUGATZAILEZ EDOTA DETERMINATZAILEZ

##### 1. eta 2. graduako mugatzailez, singularra

1. graduaz	2. graduaz
<i>lupuau, lupuonek, lupuoni, lupuonen, lupuonekiñ, lupuone(g)aitxik, lupuonendako</i>	<i>lupuo(r)i, lupuorrek, lupuorri, lupuorren, lupuorreakiñ, lupuorre(g)aitxik, lupuorrendako</i>
<i>politxau, politxonek, politxoni, politxonen, politxonekiñ, politxone(g)aitxik, politxonendako</i>	<i>politxo(r)i, politxorrek, politxorri, politxorren, politxorreakiñ, politxorre(g)aitxik, politxorrendako</i>

<sup>321</sup> M. AZKARATE-k eta P. ALTUNA-k ere azpiataltxo bat eskaintzen diote, batez ere diakronia lantzen badute ere (2001, 77-79).

## 1. eta 2. gradu mugatzailez, plurala (gradu biak berdinak dira)

*lupuok, lupuok, lupuoi, lupuon, lupuokiñ, lupuo(g)aitxik, lupuondako*

*politxok, politxok, politxoi, politxon, politxokiñ, politxo(g)aitxik, politxondako*

Edozein gradutako artikulua mugatutako sintagma bete dezake bokatio funtzio hori; osterantzeko determinatzaileak ere onartzen ditu. Edozein izenek har dezake, baina bokatioko subjektua normalki pertsona edo biziduna da; ez bata ez bestea ez denean, horien ezaugarriak egozten zaizkie bestelako gauzei ere. Izen batzuk joera handia dute bokatioko erabiltzeko, eta kalifikatu egiten dute izena izan zein izenondoa izan: “lupu, madarikatu, (infarnuko) demonio, arraixo, tonto, majo, majadero, mosolo, txarri<sup>322</sup>, artaburu, salau, gandul, ganorabako, oker, gaisto, politx, txiki, maitxe” eta abar. Gainera, batzuetan izen-izenondo bat baino gehiago erabiltzen dira elkarren jarraian. Ondoren nominatioko adibide batzuk ipiniko ditugu (singularrekoak eta pluraleko batzuk):

— Lehenengo gradu artikulua:

*kgg* gogorra dao au, madarikatua!  
*naz* lupua!

— Bigarren gradu artikulua:

*kgg* etorri saizte tóntuori! —*razl* “arráixuori! ordua eban etortzeko!”  
*kmz7* °... -“a, seátxik emom-bia-etze?” -“a! majadéruok!, kendú setzeláko!” ...

— Hirugarren gradu artikulua. “Mutillak” eta “gastiak” bokatio hutsaz gain, interjekzio legez ere erabiltzen dira. Zenbait adibide:

*kmz* °txarrí demoníua! —*rae* °Juliantxoi ee, eum-bider eraitxutzen orí!, .. gixájua eiñ esínda...: neu be-ei! einda nao! Juliantxoi, · e kastigua!, séma-bidér! Gisájua! ésan ee geldi oten da, ixili-pe-es da... .. —*nme2* surékiñ, · nóra jungo gara bá?, txikíxa! —*rmz* °sarrák ee oi- oi esauskuan guri or e ... -derríor bittuela idixa-derríor bittuela! ...”, Loixóla-p’esate- -“ekárrixosa-gisóna!, ártu páre ba milloi txá!, olako gústua bádukek...” da ... —*razl* °... “jíkaria”... -“umía! ekárrí jíkaria!” —*kmz* °baai, eskérrikasko maitxía! //*kmz* °bueno!, agúr biótza, ondó juán!, óndo, e? —*razl* xápi katúa!

*nme2* e! .. politták! etórrí! //*nme2* súennganá .. etórrí leike-e? .. polittak!?

*naz* °... badáo e, nun erosixa!, mú-ti-llak! —*kmz* jséuus, mutillák! .. naikúa juau!: .. sártzara · eskolan, e!, au dó-baltza-au! .. Estión?  
*razl* sémat ulééé!, °ené! gastíak!

<sup>322</sup> Izen hori bokatioko erabilitakoan (beste erabilera batzuetan ere bai) oso zentzu despektiboa hartzen du, gaizkilearena kasik.

—Erakuslez, gehienetan birritako erakusleak, edozein gradutakoak:

*nme2* au demoníuau! -ero...- gogorra dao // *nme2* au tóntuau! ésta-aklarátzen e?, ésta esékiñ argítzen —*kgg* au madarikátuau, e selakúa ei-éstan!

*raz1* °... “orí · umé madarikatuori!”, gisonak...

—Balio erakuslea duten adberbio kategoriako formez, gehi mugatzai-lea/determinatzaila, hiru graduetan: “olakua, alakua”<sup>323</sup>:

*raz1* au majadéro alakúau!

*nme2* s’ésaten sábis, tóntuoi alakui?

*f.a.* lupúa alakúa! —*nme2* a tóntu-alakúa! · esín da ixílik eón dá! —*raz1* °... baña gisóna sorúa-alakúa! elgoibartarra isem-biar soríxonian!, níkatxis [sic]!... jéxus...! ... Óne-gisónok!?: óne-gisonokiñ alperri-dok eta...

*nme2* demóniuok alakúok! —*S.B.* auxe ekarri dou, majuok alakuok! // *S.B.* suena da, ésta?, majuok alakuok? // *S.B.* suondako da au, majuok alakuok! // *S.B.* suengana, majuok alakuok, gustora etorri leike!

*nme2* árek arraixo alakuak ordua da etorri deisen!

—Nominatiboa beste kasu marka batzuen “ordez” erabiltzen da sarri. Izan ere, beste edozein kasuren ordez erabil daiteke:

*kgg* sé nai dosu politxóri?

*naz* gisájua, se pasau jatzú? —*nme2* óndo pasau atzu, e? tóntu-alakúa!

*kgg* au suría da, es, politxóri?

*nme2* surékiñ, · nóra jungo gara bá?, txikíxa!

*kgg* suregáitxik etorri gara barren politxóri! —*nme2* suregáittik etorri gá, políttá!

*nme2* karaméluak, surétzako dia, políttá! —*S.B.* karameluak suretako dia baña, maitxia!

*naz* surégana etorri gaa, guapitó!

*kmz* au ekárrí etzueu séueri, · polítxok!

*kgg* au súontza-da e polítxok! —*S.B.* suondako da au, majuok alakuok!

*S.B.* suengana, majuok alakuok, gustora etorri leike!

*nme2* au súuna [sic] da, está? · políttak!?

*nme2* súennganá · etórri leike-e? · políttak!?

### 1.2.17.2. MUGAGABEZ

Forma hau sarri erabiltzen da. Senitarte harremanak izendatzen dituzten izenak, izen bereziak, eta izenordainak beti mugagabean erabiltzen dira bokati-boan; beste izen batzuk bai mugagabean bai mugatuan (mugagabez, izen “berezi” legez funtzionatzen dute), eta izenondoekin ere beste hainbeste gertatzen

<sup>323</sup> Deklinatu ere egin daiteke; ikus beste kasuen adibideak hurrengo atalean.

da: “ama, aítxa, amama, aítxitxa, seme, tia, tio; gison, andra, neska, mutil, ume, gaste” eta abar. “Txo, txotxo” ere hemen sartuko genuke. Adibide batzuk erakusgarri:

— Izenak eta izenondoak:

*raz1* °séma-gáusa!, enéé!, oin [sic] andrá! noi- nes- · neská! nóixko-orí beté?!, ené-ené-ené-ene!

*raz5* °áitxitxak! Da, -“ené mutíll!, orí · uésabak nai bajók, ni-pai!”, da, uésabak a-urru- tx- tx-...

*raz1* °... -“amamátxo! amamátxo! amák asarre-eiesta ta... .. amak ipurdixan emoes-ta ta...” ...

*raz* °... -“amá! basóyas básarrira? ... Juan gíñan, da esa-netzan -“aítxá, gaur Júlio etorri da nerékin! ...” ...

*kmz* °tiáá! · abér loibíak ser díñuan!

*kmz* í gasté! etorri ari ona! -*raz1* etorri oná gasté! -*nme2* e mutíll! etorri... //e muti-ko! etorri ai...

*kaz* °jólin! aixía?!: áintzen dau! · umé!

*raz1* °... -“bai-bai, or dakasu, jan, or gisón!, jan! · éran!”

*naz* ori suria da, ee?, · guapisimó!

*kgg* nora jua bia-gara surekin txikítxo?

*kaz* °a- arék eskólia daka, e? · txotxó?! —*kmz* “txotxó!, tórrí ári!”: °“txotxó” e, · gure gaste-démporan esáte-súan...

*kmz* °<bi urteko bilobak laztana ematerakoan bien buruak elkar joteraoan> púpu áitxitxarii? (...) buruáundi!

*kmz* °<bi urteko bilobari> amámari!? ... amámari pá! ... agúrrr! ... agúrr! txíki! ... adióxx!

*kmz* °<bi urteko bilobaz, erdi barrez> auán etxáko bárren kabítzen!: · ao-txíki!

— Izen bereziekin eratutako adibide batzuk. Banaka batzuk aukeratu dira honako, jaso asko eta asko egin diren arren; izenak, abizenak, etxe-baserri-jatorriko leku izenak, gaitzizenak eta abar izan daitezke:

*naz* °... emen gábis ontxé, ontxe-eskólan Inés!: eskólan, Inés! <barrez>

*raz5* °-“se ba, Floren?, · se ba, Floren?, seátxi-pá?” ta ...

*rmz2* °... ta esa-etzan -“es! · es pentzáu Ermú! · betí guk ainddúkoúnik ...

*raz5* °seme móduen! · Da, · esan ei-tzan Madalénak: -“ará! Ambrosió!: ortxé kantíñia ipini dabe ta biar asko itxen dabe! ...

*raz5* °... Oikínara sóyan!, da, -“i Pedró! -esan i-etzan- irékim-berba im-biarri-naok”, da ...

*f.a.* °<katuari> se biok?, pastela bión, alaa?, · áibe!, · míxiñ!

— Izenordainak. Bakarrik joan daitezke zein izenaren ondoan. “Su!” edo “i!”-ren bokatibo balioaz gaindi, norbaiti zerbait galdetu edo eskatzeko erabil-tzen da, beste aldaki batzuetako “aizu!, aizak!, aizan!”-en pare. Adibide bakan batzuk ipiniko ditugu bakarrik, oso-oso erabiliak diren arren:

*raz1* °sú!, elegánte ipinitxa dakásu-séuk!, · estakasu iñóm-prémiñarik, e?

*nme2* í! etorri ári éu!

*nme2* ... °goixíam-badá-“alkate jauna”, geróó, átzaldiam-badá, ya... <barrez> · norberák baloría pixka-sertutakuan “alkatía” ta, <erdi barrez> · gabíam-pixkát · béste trago batzu-jotakuan “í! pallasuoi!”! igual... <barrez>

*kmz* °... Oñatin taberna bat... -“sú!, dútxarik e m-dakasúe?” ta -“bai! badágo” ...

### 1.2.17.3. DEKLINABIDE KASU MARKAZ

Mugatzailea edo determinatzailea edozein izanik ere, deklinabide kasu markak har ditzake. Guk geuk ez ditugu kasu guztietako adibideak jaso, erabilerarik izatearren galdekizunean batzuk ez ditugulako ipini, edo leku-koen erantzunetan ez ditugulako aurkitu. Kasu arruntenak nominatiboa —denetan erabiliena eta aberatsena— eta ergatiboa dira, baina beste formak ere egin eta erabil daitezke. Mugatzailea berriz, arruntena bigarren mailakoa da alde handiz.

Nominatiboko formak eta zenbait adibide aurkeztu dira jada. Beste kasuetakoak ipiniko ditugu jarraian:

#### a) Singularrez

—Ergatiboan. Lekuko batzuek bereziki darabilte ergatibo kasua “behar” ez denean ere (*kmz*-k batez ere, baina beste batzuek ere bai, *nme2*-k kasu), agian bokatibo ergatiboaren lexikalizazio moduan edo. Osterantzean, ergatiboa erabiltzekotan perpauseko aditzarekin komunztadura gordetzearen egiten da<sup>324</sup>. Adibiderako:

*kmz* etórrí saítxe oná! salauórrek! // *kmz* ixíldu ari! to- to- tóntuorrek! // *kmz* ixílik eon ésin leikek, tontu- tóntuorrek!

*kmz* sé pasau ak-kutxauórrek?

*kmz* au suría da, está? politxórrek? —*nme2* au suría da está, · polittórrek?

*kmz* nóra góyas ba surékin? politxórrek?

*nme2* sé nai dok, politxórrek? —*naz* demoníorrek, aberíxa edárta istá! // *naz* majadero · demoníorrek, baña segáttik estosu abixau? —*f.a.* infarnuko diabruorrek e, se-istak?

*kmz* gisón kotxáuak!, suerte txárta eukí dabéna!

*kmz* oné-tóntuonek! e · esébe-etxákik! —*f.a.* orrek tonto sarrorrek! abixau be estesta eiñ —*naz* orrek · lupuorrek! edárta istá, e?

*naz* se in ddotu majadero ala-kuórrek? —*kmz* edárta eíesta tx- txarrix- txarri alakúak! —*nme2* esebam-béste · meési béste gauséik! tóntu-alakúak! // *nme2* are-sakárrak alakúak · samátik eldústen da, · lurrera bota nínnduan

<sup>324</sup> Ikus baina, nominatiboa ere beste kasu batzuen “ordez” erabilia aurreko atalean.

— Datiboan:

*razl* sé pasau jatzu gixájorri? —*nme2* ójala ésetz esango bálutze, alperróri!  
*razl* óndo pásau ak tónto aa-lakúorri!

— Soziatiboan:

*naz* su txikixórrekiñ, nóraño juango ga ba? —*nme2* surékin moskórtxuorrekiñ, s- sé ingou bá!? ... —*naz* surékin moskórtxíñorrekiñ, ser eingou ba?

— Motibatiboan:

*naz* sugáittik etorri ga oná, su guapuoigaittik!

— Destinatiboan:

*razl* suréztako día e karaméluak, politxórrantzako!

— Adlatiboan:

*razl* seurén · politxórregána etórri gará!

b) Pluralez<sup>325</sup>:

— Ergatiboan. Singularrean legez, lekuko batzuek ergatiboa darabilte beste kasu batzuen parean; “behar” denean ere bai, jakina:

*kgg* au súena da es?, politxórrek?

*kag* °... “bueno neska-mutillók! · aparkáisue apúrtxo bat · óri, · eta ... —*kmz* súek e gaistúok e, estosúe meresi karamélorik!

*f.a.* okerrok alakuok!, estosue meresi baña!

— Soziatiboan:

*kmz* súekin polítxokin e éo-leike! —*razl* súekiñ májuokiñ eo- éon léike! —*nme2* súekiñ okérrokiñ, esi-leike jun iñóra bé!

*kgg* súekin májúekin e eon leike

— Motibatiboan:

*kgg* súe-polítxogaitxi-gáre amen —*naz* súe-polítogaitti-gaos gu emén, e?

— Destinatiboan:

*razl* óne-karaméluok ekárrittut séuentzako políttorrentzáko // *razl* au séuentzako májuontzako dá! —*naz* au, súentzako ekarri dou, sún májuontzako ekarri dou

— Adlatiboan:

*kmz* súeana e · simpátikueana etorri- etórri leike! —*kgg* súengana e polítxongana etorri leike

---

<sup>325</sup> Ikus nominatiboko formak eta adibideak aurreko ataletan.

#### 1.2.17.4. ONDORIOAK

Berezko kasu markarik ez izan arren formazko hainbat ezaugarri ditu bokatibo funtzioa betetzen duen sintagmak. Batetik, era mugatuz osa daitekeelako, gradu guztietako artikulua, zein erakuslez, zein balio erakuslea duten adberbio kategoriako formez (azken hauek lekuko zaharren eta adin ertainekoen ahotik jaso dira, Eibarko alde guztietako lekukoen ahotik esateko moduz; gazteek egitura hori ez darabiltenez galtze bidean daudela esan daiteke). Forma mugatu singularrak zein pluralak izan daitezke. Forma mugatu horiek, gainera, edozein deklinabide kasu marka onartzen dute, erabilienak nominatiboa eta ergatiboa diren arren, baita beste kasuen ordez ere.

Forma mugagabeak ere sarri erabiltzen dira, batez ere jakineko izen eta izenondo arrunt batzuekin, izen berezi guztiekin eta izenordain pertsonalekin. Horrela sortutako forma batzuk lexikalizazio bidean daude edo erabat lexikalizatu-ta, “Txotxo” adibidez. Mugagabe formek nominatiboa onartzen dute bakarrik, beste kasu markarik ez baitute hartzen.

### 1.3. Bestelako bukaera batzuen deklinabidea: *-e(e)-ren* eredia

Amaieran bokal luzea duten berbentzat, edo deklinatzerakoan luze gisa aldatzen direnentzat eratu dugu atal berezi hau. Hala ere, luzapen foniko hutsa, deklinatzerakoan ondorio fonetiko sistematikorik ez duena, funtzio indartzailez nahiz zalantza unetan solasaldirako laguntzaile legez erabiltzen dena ez dugu kontuan hartu atal honetan. Batez ere *-e(e)* amaieradun berbak aztertu ditugu, “be(e), ke(e), me(e)”, hain zuzen ere; adibideak lortu ditugunean, “se(e)” berba ere gogoan hartu dugu. Beste amaieraz “arra(a), so(o)” genituzke.

Gai hau beste egile batzuek ere jorratu dute, bakoitzak bere ikuspegitik. K. MITXELENA-ri jatorri diakronikoak ardura dio gehien<sup>326</sup>, eta “be(e), me(e)”-ren kasuan alegiazko *\*-ene* forma suposa daitekeela uste du (1990, 143). Ez dugu aurkitu “ke(e)”-ren azalpenik antzerako deklinabidea izan dezan, horrelako kasuetarako “ciertas alternancias” (1990, 110) izenburua baitu; berba horren deklinabidea agian analogiaren eraginez izan daiteke. K. ROTAETXE-k berriz, hainbat erregela morfofonologiko eman zituen Ondarroako emaitzak azaltzeko<sup>327</sup>. Gure ustez Eibarkoak azaltzeko beste ñabardura batzuk ezarri beharko litzaizkieke. R.M. AZKUE ere konturatu zen berba hauen deklinabide “bereziak”, honela baitio:

«KE (...) Es una de las varias palabras en que muchos intercalan la vocal I antes del artículo, tal vez por permutación de una segunda E que hoy en alguna

<sup>326</sup> K. MITXELENA (1990; 110-111, 146).

<sup>327</sup> (1978, 258-268).



de ellas no se conoce: KEA (B), KEEA (B, arc), KEYA (B-l-m, ..., L, R), KIA (B-mu, ..., BN, G, S), “el humo;” como MEA, MEHEA, MEYA, MIA, “lo delgado;” ZEA, ZEHEA, ZEYA, ZIA, “lo menudo;” BEA, BEHEA, BEYA, BIA, “la parte baja;” TEA, TEYA, TIA, “el té”... etc.» (1984, 632).

Atal berezi osoa eskaintzeko arrazoi nagusia hauxe izan da: sarritan, mugagabe formetan amaierako bokal bakar legez egiten dutela lekuko guztiek, batzuetan luze legez ere egin arren. Ez dakigu luzapen etimologikoa den ala fonetiko hutsa. Baina mugatuan deklinatzerakoan jokaera guztiz bestelakoa da itxuraz “behar” baino bokal gehiago agertzen direlako, jatorriko amaiera geminatuaren ondorio, noski. Hau da, “semat ke” izanik, singularrean “\*kia” espero daiteke, eta pluralean “\*kiak”, “kale, kalia, kaliak” ereduari jarraituz, ez baitugu “\*kaleia, \*kaleiak” erako formarik. Horrek erabat frogatzen du noizbait mugagabeen amaiera luzea sistematikoki egiten zela, edo tarteko kontsonantez —dena den, alegiazko kontsonante horren arrastorik ez dugu jaso—, gaur egun lekuko guztiek deklinabide mugatua antzera egiten baitute aipatutako ereduaren ildotik.

Edonola ere, hitz horien jatorriko *-e(e)* amaiera itxuraz aldaketa bidean da, lekuko batzuegan behintzat. *kgg*-k elkarrizketa grabatu bako baten adierazi zizun “bee” hitzarekin adibidez, “semat bee” izan beharrean “semat bei” —amaierako beheranzko diptongoz— edo antzerako egituretan ere “bei” dudarik gabe onartuko lukeela (“semat bei”, esaterako); areago, ez zaiola batere arrotza egiten horrelakorik ez entzuterik ez esaterik. Berrikuntza hauetatik at, Eibarko ohiko deklinabide jatorra azaltzen saiatuko gara.

Deklinabideko kasu bakoitzeko markak, aldaerak, erabilerak eta abar goian azaldu direnez, ez gara horrelakoetan geldituko; jarraian, bada, era honetako hitzen berezitasunei erreparatuko zaie batez ere. Kasu batzuetako adibideak lortzea zaila edo ezinezkoa egin zaigu, esaterako, leku-denborazko genitibo mugagabea, “me(e)” hitzaren adlatibo mugagabea, eta adlatibo bide zuzenezko mugagabea orokorrean. Hiru berbok galdekizunaren bitartez bizigabe legez deklinarazi ditugu, eta solasaldi askean ere horrelakoak jaso ditugu.

### 1.3.1. *Forma mugagabeak*

#### **Eredurako, “be(e)” mugagabez (kom. “behe”)**

<i>be(e), be(e)rik, be(e)k, be(e)ri, be(e)n, be(e)ko, be(e)s, be(e)kin, be(e)(g)aitxik, be(e)ndako, be(e)tzat, be(e)tan, be(e)tatik, be(e)tara, be(e)taraño(k), be(e)tarutz</i>
---

Amaieran bokal bakarra, laburra, azaltzea da arruntena, luzatuak ere jaso ditugun arren; forma bikoteak sarri jaso ditugu, bietarikoak:

— Amaiera luzez eraturako formak. Kasu guztietan jaso dugu horrelako amaiera-oinarria hiru hitzentzat, baina salbuespenak ere badira. “Ke” hitzaren-tzak ez dugu “keek” ergatibo adibiderik jaso, lekuko guztiek “kek” egiten baitute; instrumentalean ere, “mees” formarik ez dugu jaso, “mes” baino. Amaiera luzea gehien darabilten lekukoak *raz1*, *nme2* eta *naz* dira. Nominatiboko adibide batzuk ipiniko ditugu:

*naz* orí bee-beyan dao //*naz* séma-telaa · méé! —*nme2* sé beétzu-pinttaittusue?  
*raz1* séma-keé daon amén! —*naz* séma-kee dao emén!  
*rmz* °arríí séra!, arrí see balastrua!

— Amaieran bokal laburra edo soila duten formak lekuko guztien ahotan jaso ditugu. Kasu guztietan jaso ditugu, hitz guztietan salbuespenik barik, nahiz eta lekuko batzuek amaiera luzez ere egiten duten edo alternantziak. Nominatiboko adibide batzuk ipiniko ditugu:

*naz* sértzu-bé píntaittusue?  
*nme2* ó! séma-téla mé!  
*nme2* séma ké dauén emén! —*naz* ké gitxi dááo!

### 1.3.2. Forma mugatu singularrak

#### Eredurako, “be(e)” singularrez (kom. “behe”)

*beya* /*beye*, *beyak* /*beyek*, *beya(r)i* /*beye(r)i*, *beyan* /*beyen*, *be(e)ko*, *beyakin* /*beyekin*, *beya(g)aitxik* /*beye(g)aitxik*, *beyandako* /*beyendako*, *beyan* /*beyen*, *be(e)tik*, *be(e)ra*, *be(e)raño(k)*, *be(e)rutz*

Kasu guzti-guztietan —leku-denborazko genitiboan, ablatiboan, eta hiru adlatiboetan izan ezik, horien jokaera bestelakoa baita— mugatzailea edo kasu marka txertatutakoan amaierako -eren aurretik beste -e- bat balego legezko emaitzak jaso dira. Ondorioz, hiru bokaletako sekuentzia sortzen da (-*eia* / disimilazioz edo armonizazioz, -*ie*), eta erdiko bokal sabaikariaren errealizazioa bokal legez zein glide legez izan daiteke. Gehienetan goranzko diptongo legez antzeman dugu, erdi kontsonantizatuta eta -y- idazkera hautatu dugu horretarako (-*eya* /-*eye*). Kasu marketako bokal arteko kontsonanteak galduz gero, bokal elkarketak lauokak ere izan daitezke; datiboan adibidez “beyai, meyai, keyai” jaso ditugu *naz*-ren eta *nme2*-ren errealizazioetan. Bost bokaletako elkarteak ere sortzen dira, “beyaaitxik, meiaaitxik, keiaaitxik” formetan esate baterako; *raz1*-i eta *kmz*-ri jaso dizkiegu horrelako formak. Zenbait adibide:

*nme2* orrék emprésiorrek · e béya jo dau —*raz1* °sú! oin sílla bistán-néskak-eta, aai... Beya- b- beya estabe-erakustem-pork'es feo!

*kmz* °<sei urteko bilobari, egin duen marrazkiaz txantxetan> samá-meia: .. enééé!,  
burúa jáusi ingo-ako! ...

*rmz* °éstaá olan <egungo fardoeteko lastoaz dio> lasta-séya!, len e ásaan san!, lotúta!  
*naz* lágaisu s- béyan <“abajo” ez ezik, “lurrean” ere esan nahi du> —*ñmz* °be-be-  
bé-be-béyan!: bé-béyan! <luzapena enfatikoa da>

*naz* keyék urtetze-ebán iru etxetátik // *ñaz* keyé-kálte itxustá

*ñaz1* °... orí e, Otólako · kantería san orí; da geró béste ba-dao béyan —*ñaz2* °txalé-  
tan aspíxan, an seríam-béyan!

*naz* etzín dda, koltxó méyan

Arestian aipatutako leku-denborazko kasuetan kasu marka forma mugaga-  
beari txertatzen zaionez, mugagabeko alternantziak bizirik dirau mugatu singu-  
larrean ere; “beko /beeko, meko /meeko; betik /betik, ketik /keetik; bera /bee-  
ra, mera/meera, kera/keera; mera-arte/merañok //merañok, keraño /keeraño;  
berutz /beerutz” bikoteak jaso dira. Lekuko guztien ahotan *-e-* forma laburra  
bakarrik hauetan jaso dugu: ablatiboan, “metik”; adlatibo bukatuzkoan “bera-  
ño(k), berarte”; adlatibo bide zuzenezkoan “merutz, kerutz” —azken hau kasu  
markaren erabilera urriaren emaitza litzateke—. Horrek esan gura du amaiera  
luzea duten formak urriago erabiltzen direla besteak baino. Adibide batzuk ipi-  
niko ditugu:

*rmz* °beko kuartuan...

*/raz* °... da mesía-an beéko kámpan, sú! · Da geró, bératxuaó erromérixia

*naz* bánoya berá

*ñaz* txistuik eséisu beera bota

*kmz* parét métik etára dau orí arrixóri

### 1.3.3. Forma mugatu pluralak

#### Eredurako, “be(e)” pluralak (kom. “behe”)

*beyak /beyek, beyak /beyek, beye(r)i, beyen, beyetako, beyekin, beye(g)aitxik, beyendako,  
beyetan, beyetatik, beyetara, beyetaraño(k), beyetarutz*

Singularrean egin dugun oharrak pluralerako ere balio du aldaketak aldaketa;  
kasu guzti-guztietan (leku-denborazkoak barne) mugatzailea edo kasu marka  
txertatutakoan amaierako *-eren* aurretik beste *-e-* bat balego legezko emaitzak  
jaso dira. Ondorioz, hiru bokaletako sekuentzia sortzen da (*-eia-* /*-eie-*), eta erdi-  
ko bokal sabaikariaren errealizazioa bokal legez zein glide legez izan daiteke.  
Gehienetan goranzko diptongo legez antzeman dugu, erdi kontsonantizatuta, sin-  
gularrean legez. Kasu marketako bokal arteko kontsonanteak galduz gero, elkar-  
ketak laukoak ere izan daitezke, datiboan adibidez “beyei, meyei, keyei” jaso di-

tugu *naz*-ren eta *nme2*-ren errealizazioetan; edo bostekoak, “meieaitxik, keieaitxik” formetan esate baterako *-kmz*-ri jaso dizkiogu forma horiek-.

Pluraleko mugak ez dira gramatikalak, batez ere pragmatikoak baino; “beietako, meietako, keietako” lortzeko adibidez, egitura bortxatuak dirudite eta lekukoek bestelako egitura eta perifrasiatarara jotzen dute. “Keietan, keietara” esaterako, jaso ere ez dugu egin, ezta adlatibo bukatuzko eta bide zuzenezko formarik ere “be(e)” eta “ke(e)” berbei dagokienez.

*raz1* “*õñak*”: *õñak e béya-dia, está?* —*naz* *õná, õne-mendíxe-dia: súenak eta para-je beyak ...*

*naz* *depósittu-apurtu da · txapá méyek eukesélako —rmz5* *°... iri bátzuk, lussía-sia-nak, lusíak ... irí lussíak eta gerrí meyak sittuan ...*

*naz* *tellérretakoooo... kéyek, estíe onák*

#### 1.3.4. *Ondorioak*

Forma mugagabeetan alternantzia da nagusi, *-ee-* luzatua egin ala *-e-* soila egin. Forma luzatuen erabiltzaile nagusiak Aginagako lekukoak eta orokorrean Eibarko zaharrak dira, adin ertaineko *nme2* ere tartean den arren. Edonola ere, forma hedatuena amaieran bokal soila egitea da, multzo horretan adibideak jaso zaizkien lekuko guztiak baitaude, salbuespenik gabe. Nolanahi ere, mugagabe-ko amaiera luzatua gaur egun aldatze bidean dago, *-eeren* ordez *-ei* diptongoa erabilia (bilakaera analogikoa litzateke); gure lekuko nagusi gazteenaren esanek horixe erakusten dute behintzat.

Mugatu singularreko formen emaitzetan, ostera, ez da mugagabe-ko alternantzia ageri leku-denborazko kasu batzuetan izan ezik (inesiboa da horietako salbuespena). Alternantziarik ageri ez den kasuetan kasu marka amaiera geminatuari txertatutako moduko emaitzak sistematikoak dira, salbuespenik barik. Sortzen diren aldaerak fonetikoak dira. Alternantzia ageri den leku-denborazko kasuetan joera nagusia bokal soila erabiltzea da, bikoteak sarri jaso badira ere.

Mugatu pluraleko formen emaitzetan sistematikoa da mugagabe-ko alternantziarik ez agertzea, salbuespenik gabe. Erabatekoa da emaitzak amaiera geminatuen formenak izatea. Bestalde, plural formen muga nagusia gramatikoa baino pragmatikoa da.

#### 1.4. **Kasu arraro batzuen deklinabidea: metahizkuntza, mailegu batzuk, eta abar**

Atal honetan eredu tinkorik gabeko formak aztertu dira. Metahizkuntza alorrean, kontsonanteen izenak nominatibo singular-mugagabeen jaso ditugu eta bokalak inesibo singular-mugagabeen.

Bestalde, metahizkuntzarekin harremanik ez duten mailegatutako hitz batzuk ere aztertu ditugu, nola deklinatu garbi ez dauden berba batzuk. Adibidez, gatzelaniako “té, sofá, idea, cadena, arena” hartu dira kontuan; gehiago ere bada, noski. “Ke(e)” erakoak ere hemen kokatzen dira.

#### 1.4.1. Metahizkuntzazko forma batzuk

##### 1.4.1.1. KONTSONANTE IZENAK

Adierazi den moduan, nominatiboa galdetu eta jaso dugu lekukoengandik. Gatzeleraz letra bakoitzaren aurretik mugatzailea duela galdetu dugu (“la *be*” adibidez) baina erantzunak bi eratakoak izan dira gehienetan, mugagabe soila, eta mugatu singularra<sup>328</sup>. Solasaldi askez beste kasu bakan batzuk ere jaso ditugu.

Esaterako, bikoteak jaso ditugu: “*beia*<sup>329</sup> /*be*, *deia* /*de*, *jeia* /*je*, *atxia*<sup>330</sup> /*atxe*, *elia* /*ele*, *ellia* //*elle/eye*, *enia*<sup>331</sup> /*ene*, *eñia* /*eñe*, *peia* /*pe*, *erria* /*erre*, *esia*<sup>332</sup> /*ese*, *teia* /*te*, *ubia/lube*; *jotia* /*jota*, (¿) *kaia* /*ka*, *i-griegia* /*i-griega*, *setia* //*seta/ceta*, *kua* /*ku*, *ekitza/ekisa* //*ekis*”; edo eredu bakarreko formak: “*efia*, *emia*, *txeia*”. Joera nagusia forma mugatuak eratzea da.

Formaz, mugatu singular horietariko batzuk bitxiak dira:

—*e* bokalez amaitutako batzuk amaiera luzeak legez eratzen dira; “*beia*, *deia*, *jeia*, *peia*, *teia*” egiten da adibidez, “\**bia*, \**dia*” eta abarren lekuan. Bali-teke berba monosilabikoak izatearren<sup>333</sup> gertatzea hori, silaba gehiagokoek *-e* amaieradun deklinabide arrunta betetzen baitute: “*atxia*, *elia*, *ellia*, *enia*, *eñia*, *erria*, *esia*, *ubia*” eta ez “\**atxeia*” eta abar.

—*a* bokalaz amaitutakoetan beste hainbeste gertatzen da. “\**Kaia*” forma legoke batetik —nahiz eta lekukoek ez onartu, singularrean eratzekotan horrela egingo litzateke; denek erabatera “*ka*” egiten dute—, eta “*jotia*, *setia*” bestetik.

---

<sup>328</sup> Bi bokal baino gehiago batzen direnez, emaitza amaiera luzeen erakoa izan daiteke, tarteko bokal sabaikaria beheranzko glide dela edo erdi-kontsonante dela.

<sup>329</sup> Aurreko atalean aztertu dugun “*be(e)*”-ren mugatu singularrarekin itxuraz neutralizatu egiten da, baina pragmatikak ez luke zalantzentzat lekurik utzi behar.

<sup>330</sup> Forma hau da lekuko denek darabiltena; beste forma mugagabea *S.B.*-k bakarrik egin du, esaldian txertatzeke.

<sup>331</sup> Forma mugatu hau da erabiliene alde handiz, baita solasaldi askean ere.

<sup>332</sup> Forma mugatu hau ere erabat erabiltzen dena da, bai galdekizunez lortutako erantzunetan bai solasaldi askean; *S.B.*-ri jaso diogu bakarrik “*ese*” mugagabea eta perpausan txertatzeke.

<sup>333</sup> Harrigarria da “*be(e)*, *me(e)*, *ke(e)*”-ren eredu fonikoa bete izatea. Etimorik ezagutuko ez bagenu, forma horiek silaba bakarreko berbak izatearren izan zitezkeela pentsatuko genuke —“*ke(e)*”-ren kasuan, analogia dirudi azalpen burutsuena, euskarazko beste hitzen eredua betetzen baitu; baina kasu isolatua balitz, silaba bakarreko berba delako arrazoia ezin izango genuke baztertu—.

## Zenbait adibide:

*nme2* *dee*-yá estosu ondo iñ

*S.B.* *kua* estao ondo einda, *jéia* dirudi

*razl* °... <aditz tauletako formak lantzerakoan> esán leike-sé ingles diarduula gas-tíak!: dan- daná *és- ésia* da daná · *átxia* da daná...! *dána*... ...

*razl* °e- e- *éñiari* be bai!

*razl* °diferénte berba itxen dou! persónaak!: detálliekin! bátzue-baa e- *ésia* ta bátzue-ba *txéia* ta...

*lnaz* estosu iñ ondó *jóta*, · “*jótia*”, “*jótia*”!

*lkgg* °... bañaá órre-dúdok, ff! · sú-dakasúsen-modúan-nik eukíkoitxút, osea · ía *jee* ero *dee* · esaten doten, éstoten esáteen ...

*S.B.* °“Igertu”?; “igártu” nik: “igártu ein día lórak”. Ta “igártu” barík, “iártu” be bai ... Estakísu *-jé-* esáten dosún ala es. Uf!, or, gausá illún bat ...

*kkg* “mesede-ingotzu”: °bai ... “*de*”kin *llkgg* °“*ibiyi*”, “*ibili*”: °bixak; segurasko gei-xao “*ele*”kin “*eye*”kin baño, baña... *llkgg* °estotena esáten daa “*ipiñi*” ta, *eñe* óri, es?

### 1.4.1.2. BOKAL IZENAK

Galdekizunez, inesiboko formak jaso ditugu batez ere, “poner acento en ...” galdetuta, baina erantzunetan denetarik dago. Solasaldi askez bestelako adibi-deak ere jaso dira.

Inesiboari dagokionez, aurreko atalean kontsonantez esan dugunak hemen ere balio du, forma mugagabeak zein mugatuak jaso ditugula perpaus egitura berean, eta horrenbestez, bikoteak eta hirukoteak ere sortzen direla. Hemen jaso ditugunak: “*aian* /*an*, *ixan* /*ian* /*iñ*, *ouan* /*oian*<sup>334</sup> /*on*, *uan* /*uian*<sup>335</sup> /*un*”. Forma mugatuak bakarrik ere jaso dira, “*eian* /*eien*”. Mugatzailea hartzerakoan kontsonanteentzat esan duguna bokalentzat ere onargarria da, bestela nola azaldu “*aian*, *eian*, *ouan* /*oian*, *uian*” erako formak? Besterik da bokal belareek mugatzailea *-ian* erara hartzea, beste bokalen analogiaz-edo, arruntena bokal belareen eredu orokorrena betetzea denean, “*ouan*” alegia.

Bestelako kasuetan ere, alternantzia da nagusi; lekuko batzuek mugagabe legez erabiltzeko joera dute, eta beste batzuek mugatuan. Adibide batzuk:

*razl* °*áiari* gáñian aséntua?: °*ixari* bai baña-*áiari* estáki-pá! Ipíntze-ako?

*nme2* *íixa* estosu ondo eiñ

*lkgg* [“igetargixa” berbaz] °eta suk *-e*-kin gáñera! ... ombre, kláro!, · *dána* esáte-ósu ekin suk! <erdi barrez> ... nik *-a-* esáte-oten bakotxían suk *-e-* esáte-ósu!

*S.B.* asentua daka *e-k*

*rmz* °[eskolako zigorra] ta etxian eitxeko seosé! · berroi bidar “*a*” ero “*bé*”-eró!

<sup>334</sup> Kaletar gizonak darabilte forma hori, *kmz*-k eta *S.B.*-k alegia; Aginagako baseritarrek ez dute inolaz onartzen, *nme2*-k eta *naz*-k alegia, baina kaletar gazteak ere ez, *kkg*-k.

<sup>335</sup> Forma hau *kmz*-rengandik jaso dugu bakarrik, perpausentzat.

### 1.4.2. *Mailegatutako hitz batzuen deklinabidea*

Deklinabide orokorraren ereduak garbi betetzen ez duten berba batzuen formak jaso dira. “Idea; cadena, arena”-ren berri 1.2.0. atalean ere emana dago jada. Denak ere, jatorriari begiratuta *-a* itsatsidun berbak dira, baina alternantziak ere jokatzeko dute. Beste berba batzuk ez ditugu oraindik aipatu ere egin, “té, sofá” erakoak alegia.

#### 1.4.2.1. *-a* ITSATSIA DUTEN BERBAK

Berba batzuk beti deklinatzen dira *a* itsatsidun legez, “idea” ereduak; baina badira deklinatzerakoan alternantziak egiten dutenak ere, “cadena, arena” ereduak.

— Jatorriko hizkuntzako amaieran hiatoa dutenak: “idea”.

Orokorrean, *-az* amaitutako beste edozein berbaren antzera deklinatzen da. Mugatzaile singularra hartzerakoan hiru bokaletako elkarketa gertatzen denez hainbat errealizazio fonetikorako bide ematen du. Singularrean ez dugu apartekorik aurkitu baina bai pluralean; nominatibo kasua “ideak” zein “ideiak” izan baitaitezke. Nola azaldu azken forma hori?, analogiaz “\*idei” forma oinarritzat hartuta?, ala “\*ideia” oinarritzat hartuta? “Kateyak” forma pluralarekin ere gauza bera gertatzen da. Korapiloa sendotu egiten da mugagabeen ez “idei” ez “ideia” ez delako, “idea, idia” baino. Birritako erakuslez ere forma horri eusten zaio: “au ideiau /idiau /ideau; ori ideio(r)i; a ideia” egiten da singularrean, eta pluralean ostera “orrek ideok”.

— Jatorriko hizkuntzatik euskarara *-e(a)* eran mailegatutako berbak: latineko “catena(m)”.

Lekuko batzuek beti “kate” oinarritzko forma deklinatzen duten artean, beste batzuek *-a* itsatsidun formekin txandaka darabiltzate horrelakoak. Nominatibo singularrean bai “katia” bai “kateia /kateya” formak erabiltzen dira Eibarren, biak ere oso hedatuak; pluralean ere “katiak /kateyak” bikotea jaso dugu —oinarrian “\*kateia” suposatu behar da *-a* itsatsidun formatzat hartuz gero; osterantzean, “\*katei” oinarria suposatu beharko litzateke, baina mugagabeen ez dugu ez bata eta ez bestea—. Bestelako determinatzaileekin ere eredu biak jaso dira, “au katiu /au kateyu; ori kateyoi”.

#### 1.4.2.2. BESTELAKO MAILEGUAK: “TÉ, SOFÁ”

— “Té” gaztelaniatik jasotako hitza Eibarren. Deklinatzerakoan, mugatzailez, arestian aipatutako bokalen eta kontsonanteen moduan jokatzeko du, nominatiboan “teia /teya //te” jaso baitugu, eta ez “\*tia”, *-e* amaierako beste berba arrunten moduan, agian silaba bakarrekoa delako. Nominatibo singularrean

oinarritutako beste kasuek ere forma horiek gordetzen dituzte: “teiak /teyak, teian /teyan”; eta birritako erakuslez osatutako egituretan ere bai: “au teiau /teyau”. Forma mugagabeetan ez dugu bokal luzedun formarik jaso, “te” bakar-bakarrik.

—“Sofá” gaztelaniazko hitza. Mugagaberako ez da zalantzarik *-a* itsatsidun legez erabiltzeko, baina mugatzaile eta kasu marka singularrak hartzerakoan sortzen dira berezitasunak. Lekuko gehienek “sofa” darabilte singularrean eta “sofia” bi lekukori bakarrik jaso diegu, *kgg*-ri eta *f.a.*-ri; ostera, *kmz*-k forma hori garbi ukatzen du, eta *nme2*-k ere bai baina zalantzaz. Edutezko genitiboan ere forma biak jaso dira, lekukoen joeren arabera: *kmz*-k eta *nme2*-k “sofan” egiten dute eta *kgg*-k eta *f.a.*-k “sofian”. Leku-denborazko kasuetan ez dugu igarri ezer nabarmenik, “sofako, sofan” baitira forma orokorrak. Birritako erakuslez ere lehengo “arazoa” sortzen da, “au sofiau” darabil *f.a.*-k baina *kmz*-k “ori sofiori” lakorik ez du inolaz ere onartzen.

### 1.4.3. Ondorioak

Izen arrunt gehienen joerak betetzen ez dituzten hainbat berba daude sisteman txertatuta. Horietariko batzuk metahizkuntzazkoak dira. Ez dago adostasunik egitura berdinsuetan forma mugagabeak ala mugatuak erabiltzeko, bietarikoak jaso baitira, baina galdekizunez behintzat forma mugatuak sarriago jaso dira; solasaldi askez, ostera, lekuko alfabetizatuek gehiago darabiltzate forma mugagabeak eta alfabetizatu gabeek mugatuak. Nolanahi ere, polimorfismo hori idiolektala ere bada. Forma singularrei dagokienez, ez dago deklinatzeko eredu bakarra, bereziki silaba bakarrekoak amaiera geminatua balute legez deklinatzen baitira, besteak izen arrunten moduan deklinatzen diren artean. Hori gertatzen da bai kontsonante izenetan bai bokal izenetan.

Azkenik, maileguko hitz batzuek ere deklinatzeko era berezia dute. Guk ez dugu eremu hori guztiz jorratu eta hurbilketa gisakoa baino ez dugu egin. Multzo bat amaieran *-a* itsatsia alternantziak balute legez deklinatzen direnek osatzen dute. Beste multzo baten mailegatutako hizkuntzako berba oxitono batzuk daude. Azken hauen deklinatzeko jokaerak kontsonante eta bokal izen monosilabikoen joerak gogorarazten dituzte.

## 1.5. Mugagabea. Singularra eta plurala

Orokorrean, galdekizunean forma mugagabeak lortzeko determinatzaile zehaztugabez eta zenbakiez baliatu gara batez ere, edo horietatik eratorritako egiturez (“edozein, edozer” eta abar); izenari izenondoa zein postposizio batzuk



gehituta ere batzuetan emaitza hori lortu izan dugu; eta solasaldi askean batez ere arruntak dira “olako, alako”-z osatutako egitura mugagabeak<sup>336</sup>.

### 1.5.1. -tzu(k) atzizki pluralgilea egitura mugagabeetan

Badirudi “mugagabea”z dihardugunean berdin diola unitatea den ala gauza anitzen taldea den<sup>337</sup>. Dena dela, mugagabeen badago aniztasuna markatzeko ezaugarri bat “-tzu” atzizkia hain zuzen ere<sup>338</sup>. Badirudi —solasaldi askean sortutako formak ditugu orain hizketagai— hiztunaren aurre-suposizioak laguntzen duela horrelako formak eratzerakoan, bat baino gehiago dela dakielako edo suposatzen duelako. Bestalde, galdekizunarekin lan egiterakoan forma mugagabeak lortzeko batzuetan gaztelaniaz ere pluraleko formak formulatzen genituen, eta horrek ere erantzunetan eragina izan du, baina erantzuterakoan lekuko hizkuntz sistemako ezaugarri bat azaldu da, ez da guk asmatutakoa izan. Batzuetan aniztasun ezaugarri semantiko hori ezinezkoa da “denporatzuk” berban esate baterako.

Zenbaitetan, gehienetan, atzizki pluralgilea izenari txertatuta doa baina bestetan galdetzaileari-determinatzaileari txertatuta: lehelengo bidea da arruntena. Gainera, horrela sortutako forma deklinatu egin daiteke kasu guztietan (partitibo eta instrumentalez izan ezik), leku-denborazko kasoetan “-ta-” artizkia ere baduela bizigabeentzat<sup>339</sup>. Aurkitu-jaso ditugun adibide batzuk aurkeztuko ditugu bakarrik:

— Atzizkia izenari txertatuta, hainbat kasu markaz:

*f.a.* °nai dot ikustia se letratzu daosen or

*kmz* jóéé!, sé gólfotzu dáuas mundúan! //*kmz* °pástillak?: .. se pastillatzuk?, espít [sic] etaa orrék?

*nme2* sé beétzu-pintaittusue?

*nme1* °estákit ee serr ee, ser gausátzu gerátze-akúsen ee aitzátzekó

*kmz3* °... onek eskuonek ser neurri-tzu-dakasen axe plantilli-im-bieban ...

*kmz9* “Hónek karlistok, han eguazen konzejalak eta, sekulakuak euskeraz kantau nebalako. Pentsau ze denporatzuk ziran ...”

*ñaz5* “... Bajatu giñan honaxe behera bai? Baiña bidian ze estuasuntzuk pasauta? ...”

*f.a.* se asmotzuEk dabisues suek?

---

<sup>336</sup> Ikus I. LASPIUR-ren aldarrikapena mugagabearen erabilera zuzenaren alde (1999b, 43-46). Bestalde, forma mugagabeen eta mugatuen arteko harremanak, erabilerak eta bilakaera diakronia mailan ezagutzeko M. AZKARATE-ren eta P. ALTUNA-ren lanera jo daiteke, batez ere “Euskal sintagma mugatua eta mugagabea: bilakaera” atalera (2001, 47-79). Aipamen honek hurrengo atalarako ere balio du.

<sup>337</sup> M. AZKARATE-ren eta P. ALTUNA-ren azalpena, adibidez, gogoan hartzekoa da (2001, 47-50).

<sup>338</sup> Ezaugarri hori bizkaiera osokoa da, dena den (M. AZKARATE, P. ALTUNA; 2001, 49).

<sup>339</sup> Ikus adibidetzako I. LASPIUR-ek eraturako paradigmatik (1999b, 46-47).

*kmz* sé-elixátzuk dáke orí-isenóri?

*kgg* se gausatzuri? // *kgg* sé libúrutzuri? —*S.B.* se gausaTZU<sup>ri</sup>

*ñmz1* “... pianuak dakana bentaja bat da ba solfeuan... eta filarmonikia joteko akordioak ezagutzeko ze notatzukin, ze akorde egitten dozun eta dana. Bentaja haundixa daka ...”

*f.a.* se asmotzukin sabisie? —*kmz* sé intens-tensiño-tzukin sa- sabisie?

*kgg* sé-elixatzutan e eon sarie? —*kmz* °sé kajátzutan? .. tornílluak?

— Atzizkia galdetzaileari-determinatzaileari txertatuta:

*naz* órre-sér-tzuk elixa dia?

*nme2* seintzuk elisák dauke ba isen orí?

### 1.5.2. *Determinatzailearen ondoko forma mugatuak*

Atzizki pluraltzaileaz landa beste bide bat ere aurkitu dugu mugagabe plurala adierazterakoan. Adibidez:

*raz1* sé keyan e · usáña da-au? <izena mugatu singularrean dago>

*naz* ori dao · edoseim-bétako- · beeyántzako [sic] dao-ondó <*idem*>

*raz1* bilíxa bat akabau ein da <*idem*>

*naz* seim-béyei emoutzasue pintxuría? <izena mugatu pluralean dago>

### 1.5.3. *Mugagabearen eta mugatu singularraren arteko nahasketa*

Itxurazko nahasketa gertatzen da aurkeztu diren leku-denborazko kasuetan barrena —leku-denborazko genitiboan izan ezik—, mugagabeko aukerako *-ta-*artzikia dela eta ez dela. Dena den, gai hori deklinabideko kasuen ataletan nahikoa garatu delakoan, han ikus daitezke. Osterantzeko mugagabearen erabilerak ere, kasuka, han ikus daitezke.

### 1.5.4. *Ondorioak*

Mugagabe formak ez dira erabat bateratuak “mugagabe” gisa, hainbat ezaugarri mugagabetasunaren ikuspegi plurala edo singularra erakusten baitute. Agian auresuposizioek edo egoera pragmatikoaren ezagutzak lagunduta egiten da horrela. Plurala erakusteko bide nabarmenena *-tzu* atzizkiaren bitartez da; izenei zein galdetzaileei txertatzen zaie eta kasu marka gehienak har ditzake. Beste bide bat determinatzailearen ondoko izena forma mugatuan erabiltzea

da, bakarria suposatzen denean singular formaz, eta anitz suposatzen direnean plural formaz.

Forma mugagabeak eta mugatuak “nahasten” diren beste alor bat leku-denborazko kasu gehienen bizigabe deklinabide mugagabeen da, *-ta-* artizkia erabili ala ez.

## 1.6. Forma mugatuak: erabilera

### 1.6.1. Arrunki mugagabe erabiltzen diren egituretan

a) Egitura arruntak. Hain ezagunak diren egitura eta inguruneak (zenbatzaile eta determinatzaileen ondoan...) ez ditugu hemen berriz aipatuko<sup>340</sup>. Horietan ez da mugatzailea jartzen orokorrean, baina ikus salbuespen batzuk honen aurreko atalean.

b) Izen bereziak. Mugagabez erabiltzen dira gehienetan<sup>341</sup>; baina zenbaitean mugatzailea ere hartzen dute.

—Pertsona izenek ez dute beti egiten, baina mugatzailea har dezakete. Adibidez:

*f.a.* se aitxixan sapatillak ekarri dosus, aitxitxa Patxiñak ala Alpontzuanak? —*rmz*  
°Alpontzua beti jute-suan

—Leku izenek ere batzuetan deklinabide mugatua onartzen dute; esate baterako<sup>342</sup>:

*raz/l* Barrundíxa-aundíxa dá  
*raz* °... ordúan épokan-Mendigútxixa ta sian básarrii · óónak!, ordúan déstakau éitxe-sían órre-gáusokin! ...

—Izen berezi gisa deklinatzen diren izen arruntak gehienetan singularrean deklinatzerakoan kasu marka soila hartzen dute, mugatzailearen arrastorik gabe, baina batzuetan forma mugatuak onartzen dituzte:

- *ama // amia/txarri-amia*<sup>343</sup>
- *aita // Aitxiaren eiñ*<sup>344</sup>

---

<sup>340</sup> Ikus deklinabide kasuen tauletan hainbat eratako egitura eta adibideak.

<sup>341</sup> Ikus izen berezien deklinabideari eskainitako atalean; adibideak pertsona izenen eta leku izenen deklinabide tauletan daude.

<sup>342</sup> Ikus inesiboaren atalean batez ere, “Isasixan” eta antzerako adibideetan.

<sup>343</sup> Ikus nominatiboaren atalean.

<sup>344</sup> Ikus edutezko genitiboaren atalean.

## 1.6.2. *Singularraren erabilera*

Atal honetan aipamena egingo dugu batez ere eta adibide batzuk ipiniko ditugu, baina deklinabide orokorraren atalaren barrena hainbat bider jorratu dugu: ikus batez ere nominatiboaren alorrean, “singularraren erabilera bitxiak” atala eta inesiboko atalean.

—Solaldia askez lortutakoak. Nominatiboari eskainitako atalean ere aipatu denez, oso erabilera aberatsa du. Adibiderako:

*razl* °... gerrá ostían asko-obeto baña gerrá-aurrian...?!: gerráurrian · ÓLLASKUA JATE-BANA GRÁNDIA SAN! ...

*razl* txiprístiñAK onaxeño leau dia: °txiprístiñA urrin juaten da!, buéño! endemas gambioyana báda... Jóó-ta, e trájiok eta gáltzok eta dána-buri- txarritxúta lagá

*razl* °ámama Ermukúa ... serekúa ... Berdangíllokua ... Ermukúa dalá baña Saldibárkua isém-bie-dau!: angó difúntua · Saldibarrera eruten dabe beintzát ...

*nme3* °<babak...> báá! nii gustatze-ata-ásko, e?, ní-babía!?, jóé!

*nme2* °“éuretan” ee, · persónia daniam-bai baña tabernía danian ee... · ésta... “áretxetan”

*nme2* °ess!: ganaua, · “akabau” esaten da, ta persónia “ill”... Da erlía bé, · erlía!, “íl” esaten da: “una kolmena · se a muerto”: “ill ein dá”, erlía ill... erlía da-animalixa bákarra, “ill” esaten dana, béste ganau danai, éuskeras “akabau” esate-ako

*nme2* °“muérdagoo” orduen miuría da?! · sagárrak! sagárrak eukitzen dábena! // *nme2* °e, gixarria bai: persónia-daukéna-dána gixarria!, persóniak estauka úrdairik éta... —*razl* °aaa... óixe bá! po- as- órtxe fállau da daná: gastía-fállau in dau ta, · bakótxa-béra-péntzau bie-dau orí

*razl* °... pistútzeko gero fásill!; ero ámatauta eón! ... ixótzeko ... Óne-gastía-DIA! ónek e... · gastíAI bakían lága! ...

*rmz7* °Baai...: garixa · segurúaua san eitten artua bañó. Artuarii · goixa-laundu bítzan!, eurixa eró, auentau geixaokua san garixá!: lastua gitxiao bai-iguel, baña bu-rua ee... beti por-estilo! Ñaa... [sic] artua-fállu eukitze-bam-batzuetan!

*kmz7* “... da, oitxuria zan, néskekin, neskian etxera afaitxára ...”

*kmz10* “... Eta gaurko gaztiandako bastante bidiak gitxitzen doiaz eta mozten doiaz” —*rmz6* “... Eta neretzako, besuetarako eta eskuetarako aizkora kertena baiño hoberik pelotarixandako ez dago ...”

-*kmz1* °bai!, da bérrua dá!: bérrua badakísu ser dan, está?, bérruá?, MENDÍXAN eitzen dána?

-*kmz* °mendíxan es!: ERREKÁTXUAN!

-*kmz1* °bueno!, mendíxaan baña en-jéneral eitzen dá ba MENDÍXAN ba · ERRÉ-  
KA BASTÁRRETAN daa...

-kmz °e-e-e-e... báái!, orí bai!: mendixán es!, erréka bastár-...

-kmz1 °bueno!, ERRÉKA BASTARRÍAN!, baña erréka bastarra mendixan eongok, está?, · kalfán estáo! · gausaa alakórikan! [sic]

—Galdekizun bidez pluralaz galdetu eta singularren erantzundako erantzun batzuk dira hauek:

*nme2* sorítzarreko · etxe onék · daná · problémia emóteusku —*f.a.* gau gustia eon gara sure estula entzuten —*kgg* kendixósu burúA arráñERI

*f.a.* ik pentzatzén dok orí persóniai esátekua dalá?

*nme2* elisia-ka- · kampáya bétí eukitzen dau // *nme2* tabérnetako kéyak, moléstau itte-nau —*S.B.* keiak molestau itxesta —*kgg* tabernetako keiak traba eitxesta —*f.a.* aritzak ondo aguantatzen dau amengo temporalia

*nme2* telá fiñán e · aríxak, · érrés apurtzen dia —*naz* arítxan eee · egúrra, dána iseten da o- gogórra!

*nme2* tabérnetako keyákin gáiski-ibiltzen da

*nme2* ospelándako-otzá · txáarra da

*nme2* bide láuan, · érrés ibiltzen da // *nme2* papél fiñán · eskribítzia gustatze-ata —*kgg* Eibarko kalfán kótxe asko dao/dábil

### 1.6.3. Pluralaren erabilera

Gai hau hasi nominatiboan eta beste deklinabide kasuetan ere jorratu dugu nolabait<sup>345</sup>. Jarraian, solasaldi askez lortutako adibide batzuk ipiniko ditugu:

*raz1* erdíxak emoirasus —*nme2* itxúria, diru dana-jokuan galdu sittuan // *nme2* °... Markíñan ise-nais da gero etorritta, · pentzuek ustú te inda... —*f.a.* orí diruak eitxen dao

*kaz3* °... ekin saparradiak da, selako úúrak iyo ében! ...

*rmz* °orí eee · sarrói ásko ibiltzen da próbetan! —*rmz* °ori nóbixiakiñ ee eosein · próbeta juaten dok ee · ták!, kóño!

### 1.6.4. Ondorioak

Forma mugatuak erabilera arruntetan ez eze, mugagabea erabiltzen den hainbat egituratan ere erabiltzen dira, izen berezietan adibidez. Forma singularrak erabiltzeko joera handia dago, berdin dio izena zenbakarria den ala ez; baina plural formak ere erabiltzen dira, zenbagaitzak diren izenekin ere bai.

---

<sup>345</sup> Ikus nominatibo kasuko “pluralaren erabilera bitxiak” zatia bereziki, baita inesiboaren atalean, adibidez.

## 1.7. Artikulu gradu hurbilekoaz mugaturiko deklinabide ereduak

Forma eta erabileraren azterketa egin aurretik ohar batzuk egin behar dira; izan ere, norbaitek pentsa lezake hurbileko mugatzaileak erakusleekin nahas daitezkeela<sup>346</sup>. Egia esan, formaz oso antzerako egiturak sortzen dira, osagaiak banan-banan kontuan hartuz gero bereziki. Baina gure ustez nahasketa hori gertatzea ez da erraza, izan ere, gradu hurbileko mugatzailea hartzen duen izena edo dena delako osagaia aurrez ere aipatua-aurkeztua izan da, bai solasaldian barrena, bai egoera-inguru pragmatikoan; bai hizlariak bai entzuleak badaki besteak zertaz diharduen eta izena edo delako osagaiori ez da berri-berria komunikazio ekintzan.

Beste alde batetik, Eibarren erakuslea determinatzaile gisa erabili erabiltzen da, baina forma arrunt eta hedatua da birritako erakuslez egitea, eta horrelakoetan ezin da nahasterik sortu. Horrenbestez, determinatzaile den erakusle soilaren eta mugatzailearen artean sortuko litzateke nahasketa bakarrik, erakusleeren eremua nabarmen mugatuz. Adibidez, hori gertatu izan zaio determinatzaile gisa erakusle soila gehien darabilen lekukoari, *kgg*-ri hain zuzen —gure ustez, forma hori nagusiki erabiltzea alfabetizazioaren eraginaren ondorio da— sarritan zalantza izan baitu bere ekoizpenetako emaitzak erakusleak ziren ala beste zerbait; mugatzaile hauekin eratutako formek harridura ere sortzen dute lekuko horrengan, gainera.

Gure ustez *kgg*-ren arazo hori ez da beste lekukoaren jardunera iragazten orokorrean<sup>347</sup>, eta solasaldiak-pragmatikak eta erakusleeren formek ez ezik, beselako arrazoiek ere laguntzen dute horretarako. Gradu hurbileko mugatzaileak izenari edo deklinatutako osagaiari zeharo atxikitzen zaizkio, eta erroaren amaieran gertatzen diren aldaketa fonetikoak dira horren froga nagusiak,

---

<sup>346</sup> I. LASPIUR-ek adibidez, guk mugatzailetzat hartu ditugunak honela azaldu zituen: “**Erakusliak izenaren atzetik eta izenari lotuta** (...) Izenari 1. eta 2. gradu erakusliak (...) jartzen detsagu(n) atzetik izenari lotuta, hau singularrian badago. Asko be asko darabigu deklinabide moduan, baiña **singularrian bakarrik**. (...)” (1999b, 95). Gure ikuspegiz, adibide guztiak gradu hurbileko mugatzailez osatutakoak dira. Bestalde, singularrean bakarrik erabiltzen direla gure iritziz ez da zuzena, erakutsiko dugunez. Beste egile batzuek ere erakusletzat hartu izan dituzte guk mugatzailetzat hartu ditugun hauek; esate baterako, F. ARANBERRI-k, baina egile hori konturatu zen “erakusle hauek artikulua antz andia dutela” (1996, 49 57. oh.); horrela jokatzeko duen beste egile bat J. LARRAÑAGA da, baina forma horiek artikuluaekin izan dezaketen harremana aipatzeke (1998, 76). Edonola ere, gaia kokatzeko eta ikuspegi diakronikoa ezagutzeko interesgarria da M. AZKARATE-ren eta P. ALTUNA-ren “Erakusleak eta artikuluaen sorrera” atala (2001, 11-46). Aipamen hau lehen azaldu diren forma mugagabe eta mugatuetara, eta erakusleeren atalera ere heda daiteke, besteak beste.

<sup>347</sup> *nme2*-ren erantzun batzuk guk geuk ere ez dakigu ziur nola interpretatu. Erantzun asko mugatzailez eratutako erantzun legez ipini ditugu baina itxura osoa dute erakuslez osatutako egiturak izateko ere (adibidez: “txikí aугáitti-geatu sá etxífan?”). Galdekizunaren horrelako formak lortzeko zailtasunaren ondorio litzateke, forma hauen idiosinkrazia dela eta.

“etxiau, etxio(r)i” baititugu mugatzailez, gradu gabeko mugatzailea txertatutakoan diren antzerako emaitzak; baina “etxe au, etxe ori” erakuslez determinatutakoan. Areago, semantikak ere lagundu egiten du formak bereizterakoan; erakuslez sortutako egiturak nahikoa neutroak dira esatariaren jarrera islatzerakoan, baina gradu hurbileko mugatzailez eratutako egiturak jarrera subjektiboak ere azaltzen ditu, afektibitatea (“politxau, edarro(r)i”), amorrua (“eruan txakurrau, eruan txakurroi”) eta abar.

Guk, dena dela, ez ditugu izenen amaiera guztiak aztertu, eta galdekizunean amaiera bokalikoen eredurako *-i* bukaeradun “txiki” berba hautatu dugu eta amaiera kontsonantikoen eredurako *-r* bukaeradun “edar, txakur” berbak, adibideetan bestelakoak ere jaso diren arren. Arestian aipatutako arrazoiak direla medio, besteak beste, gradu hurbileko mugatzailez eratutako formak galdekizunez lortzea oso zaila egin zaigu; besteak beste, pragmatikak ez du laguntzen horrelako formak sortzen eta erakuslez edo birritako erakuslez eratutako egiturak jaso ditugu gehienetan. Solasaldi askean du bizitasun handiena alde nabarmenez. Gainera, graduen arteko kurutzaketak ere badira, pluralean formak guztiz berdintzen, neutralizatzen direlako, batetik, baina singularrean ere bietarakoak jaso ditugu elkarren ondoan.

Deklinatutako oinarriaren amaieran mugatzailea tartekatzerakoan gradu gabeko mugatzailea erantsitakoan gertatzen diren aldaketak gertatzen dira. Hau da, bokal disimilazioak: *-a -e*, *-o* amaieradunetan, > *-i-*, *-u-* eginez, baina salbuespena *-a* amaieradun berben pluraleko jokaera da, eta “ama” erako forma singularrak. Kontsonante frikari sabaikaria tartekatzea ere arrunta da, bokal edo glide sabaikariz amaitutako berbetan, “gastai” eta “balkoi” erakoetan izan ezik<sup>348</sup>.

Singularrean graduak bereizi egingo ditugu, bakoitzak bere formak dituelako; pluralean formak neutralizatu egiten direnez, sinkretismoz, pluraleko atalean gradu biak batera aurkeztuko ditugu.

Maila honetara heldu garenez gero, beste ohar bat ere egin nahi dugu kontsultatu ditugun beste monografia eta lan batzuk ikusirik; egile batzuek pluraleko formak aurkezten dituzte bakarrik edo batez ere. J.M. ETXEBARRIA-k<sup>349</sup> eta I. LASPIUR-ek<sup>350</sup> egiten dute horrela, adibidez; J.A. URIARTE-k<sup>351</sup> singularrerako inesibo formak aurkezten ditu bakar-bakarrik eta pluraleko paradigmak osorik beteta. Lan horietan pluraleko formak paradigma osorako aurkezten dituzte egileek, eta Eibarko ahozko erabileraren ikuspegitik harrigarri ere egiten zaigu; euskara biziko adibiderik, ordea, ez dugu aurkitu monografia horietan.

---

<sup>348</sup> Aurkeztuta dago jada bokatiiboaren atalean erabileretariko bat eta ez dugu, beraz, berriro errepikatuko. Adibideek erabilerarako ez ezik formen berri izateko ere balio dute eta atal horretara jo behar da adibide gehiagoren bila.

<sup>349</sup> (1991b, 119-121).

<sup>350</sup> (1999b; 21, 23, 25, 27, 34).

<sup>351</sup> (1995; 327, 330).

1.7.1. *Lehenengo graduko artikulua mugaturikoak: mugatu singularra (-au)*

1.7.1.1. ALDERDI FORMALA

**“Txiki, txakur”-en eredu, 1. graduko artikulua sing.**

*Txikixau, txikixonek, txikixoni /txikixoneri, txikixonen, txikixonetako, txikixonekin, txikixone(g)aitxik /txikixau(g)aitxik, txikixonentzat /txikixonendako /txikixonentzako; txikixonetan (/txikixon, berton), txikixonen gain; txikixonetatik, txikixone(n)(g)andik; txikixonetara, txikixone(n)(g)ana; txikixonetaraño(k); txikixonetarutz*

*Txakurrau, txakurronek, txakurroni /txakurroneri; txakurronen; txakurronekin; txakurrone(g)aitxik /txakurrau(g)aitxik; txakurronentzat /txakurronendako /txakurronentzako; etxe edarronetatik, ume edarronen gain; edarronetatik, edarrone(n)(g)andik; edarronetara, edarrone(n)(g)ana; edarronetaraño(k); edarronetarutz*

Formaz, mugatzaileak erakuslearen forma bera hartzen du<sup>352</sup>, baina goian aipatu dugun eran txertatzen zaio zuzenean izenari, izenen amaieretan aldaketa fonetikoak eraginez. Mugatzailearen forma, teoriarik bederen, hauxe da, kasuka: *-au, -onek, -oni/-oneri, -onen, -onetako, -onekin, -onegaitxik/-augaitxik; -onen-tzat /-onen-dako /-onen-tzako; -onetan /-on, -onen gain; -onetatik, -one(n)gandik; -onetara, -one(n)gana; -onetaraño(k); -onetarutz.*

Aipatu den bezala, nominatibo forma da erabiliena, eta beste forma batzuk ere jaso ditugun arren, ez ditugu kasu guztietako adibideak lortu. Leku-denborazko kasuko formarik, esaterako, ez dugu jaso, teoriarik behintzat era daitezkeen formak izan arren. Bakarrik “bertoko, berton<sup>353</sup>” erako balio erakuslea duten adberbio kategoriako formetan jaso dugu mugatzaile hurbila leku-denborazko kasuetan, *kgg*-ren ahotan, baina lekuko horrek horrelako formak batzuetan onartzen eta erabiltzen ditu eta beste batzuetan ez. Beste lekuko batzuek ere “berto-n” erako formak ez dituzte Eibarrerako onartzen, *kmz*-k, *raz1*-ek eta *nme2*-k kasu, nahiz eta azken honek konturatzeko noizbait erabili. Galdekizunez adibide gehien lortu dugun lekukoa *kmz* da, alde handiz. Esate baterako:

*kmz txakurráu erúa-ik eméndik!*

*kmz txikixónek*

*kmz ekárrixok urá! txikixóni*

*f.a. etxe txikixonen tellatua jausi eññian/biarrian dao*

*kmz í juari o- txikixo- txikixónekin //kmz txakúrronekin etórritxuk, .. étxakixat setarako · nai dabén*

*kmz ekárrí dó-játekúa? ... txikixónendako?*

<sup>352</sup> Ikus izenordain legez erabilitako erakusle arruntan atalean, beheerago.

<sup>353</sup> Kasu honetan hausten da erakuslearen paradigmako forma, *-on(e)tan* egin beharrean *-on* egiten baitu, mendebaldeko beste aldaki batzuetan legez; ikus eredu orokorrak in MENDEBALDE (2000, 13-17).



### 1.7.1.2. ERABILERA

Ezaguna eta hurbilekoa den zerbaitetaz mintzatzerakoan erabiltzen da<sup>354</sup>, aurrez ere horretaz mintzo izan delarik, edo mintzagaia hizlari-entzulearen bis-tan dela; baina galdekizunaren bitartez lortzea ez da batere erraza izan, ikusi dugunez. Sarri, birritako erakuslez osatutako sintagma edo erakusle-izenordain soila du aurretik solasaldian. Aurkezpenean adierazi dugunez, sarritan hizlaria-ren jarrera subjektiboa azaltzen da. Adibide batzuk:

-*nme2* °<telebistako albisteez> ombré! .. daná sobórnuu ta lapurrétia ta...

-t ...

-*nme2* °<telebistako pertsonaiatz> au da jéfiau!, (?)...-ól!

*razl* °bernía-auxé da <eskuekin erakusten du> ... au istárra! ... bernía-au!; da danÁU ankía! ... “orré-jakanas berná edérraak!” · esaten da géro, e? —*naz* auu in-gúruau danáú apurtu in ddabe

*naz* °buf! au samiau barris txarriXAU!, buf! estaa... · esin dobláu! au · kokotál-diau...!, ser d'áu!...

*kmz* jasésu!, etxiónek e próblema-bésterik etxáas! ... —*naz* soríxoneko etxi-onék! .. ardúrak emoteuskus bákarrik

*naz* se itten dosun órtotzik es- dauen otzonékiñ?

Birritako erakusleetan ere forma horiek erabiltzen dira orokorrean<sup>355</sup>.

## 1.7.2. Bigarren graduko artikulua mugaturikoak: mugatu singularra (-o(r)i)

### 1.7.2.1. FORMA

#### “Txiki, txakur”-en eredia, 2. graduko artikulua sing.

*Txikixo(r)i, txikixorrek, txikixorri /txikixorreri, txikixorren, txikixorretako, txikixorrekin, txikixorre(g)aitxik /txikixo(r)i(g)aitxik, txikixorrenzat /txikixorrendako /txikixorrenzako; txikixorretan (/txikixon, berton), txikixorren gain; txikixorretatik, txikixorre(n)(g)andik; txikixorretara, txikixorre(n)(g)ana; txikixorretaraño(k); txikixorretarutz*

*Txakurro(r)i, txakurrorrek, txakurrorri /txakurrorreri, txakurrorren; txakurrorrekin; txakurrorre(g)aitxik /txakurro(r)i(g)aitxik; txakurrorrenzat /txakurrorrendako /txakurrorrenzako; etxe edarror(re)tatik, ume edarrorren gaiñ; edarror(re)etatik, edarrorre(n)(g)andik; edarror(re)gara, edarrorre(n)(g)ana; edarror(re)garaño(k); edarror(re)etarutz*

<sup>354</sup> Horrela erabiltzen da baina erabilera ez da nahitaezkoa, aukerakoa baino; gradu gabeko artikulua mugatuta ere ondo legoke, eta adibideetan ere, gradu hurbileko mugatzailearen ondoan, ondoko sintagman edo hurrengoetan gradu gabekoak mugatutako formak dituzten adibideak jaso ditugu. Funtzio adierazgarriak eragina izan dezake zein mugatzaile hautatu erabakitzerakoan.

<sup>355</sup> Bokatiho funtzioa betetzeko ere sarri erabiltzen da, hainbatetan adierazi denez.

Mugatzaileak erakuslearen forma bera hartzen du<sup>356</sup>, baina goian aipatu dugun eran txertatzen zaio zuzenean izenari, aldaketa fonetikoak eraginez. Mugatzailearen forma, teorian bederen, hauxe da, kasuka: *-o(r)i*, *-orrek*, *-orri/-orreri*, *-orren*, *-orretako*, *-orrekín/-orregas*, *-orre(n)gaitxik/-o(r)igaitxik*, *-orrendako* /*-orrenztat* /*-orrenztako*; *-orretan*, *-orren gain*; *-orretatik*, *-orre(n)gandik*; *-orretara*, *-orre(n)gana*; *-orretaraño(k)*; *-orretarutz*.

Lehenengo graduko mugatzailearekin gertatzen denez, nominatibo forma da erabiliena, eta beste forma batzuk ere jaso ditugun arren, ez ditugu kasu guztietako adibideak lortu.

Lortu ditugun formak era honetakoak dira: “txikixo(r)i; txikixorrek, txakurrorrek; txikixorri, txakurrorri; txikixorrekín, txakurrorrekín; etxiorrengaitxik; politxorrenztako; politxorregana”. Leku-denborazko kasuetako forma bizigaberik ez dugu jaso, adibidez; eta bizidunetan ere, bokatiboaren atalean jasota dago adlatiboko adibidea.

Deklinabide arruntean, gradu gabeko artikulua txertatuta alegia, bereziak diren berba batzuk era honetara deklinatzerakoan ere era berezian egiten jarraitzen dute; esate baterako, “amori” dugu “ama”-ren hurbileko forma legez, pluraleko formatatik hurbilago —eta lortuko bagenitu, “aitxori, amamori, aitxitxori” lirateke deklinabide lagunak—. Izan ere, gradu hurbileko mugatzailea izen arruntei ez ezik bereziei eta bestelako osagaiei ere ezar dakieke, aditz izen eta adizkiei adibidez. Zenbait errealizazio:

*raz5* °da, .. sertu, ara jua n sianian .. ba, amori (?)asi-i-ser [sic], esnebéserekua · paau esindda · esnia be, · daa... .. -“¡, jua n díxun gure jentia!, au don trankflidadia! ...”  
*kmz3* °... Juaristi!, jectoria Juaristi! ... aen, a, Ayuntamientoan éuan! · da .. Juaristixori txaa ...

*kmz3* °... dana dalá! a pase-lékuan éuan! .. nik esan dotenoi, kasarixa suam-bera be, ollaorretalarixa gañea, baña pásian euan Trabakúan! ...

*kmz12* “... Eta periodikua dala, edo liburu bat dala edo *en fin*, beti geure problemekin, ba, haxe da nere zerori, denporia pasatziori”

### 1.7.2.1. ERABILERA

Lehenengo gradukoaren antzerako baldintzak betetzen ditu; ezaguna eta hurbilekoa —baina ez du zertan aurrean edo bistan egon— den zerbaitetaz mintzatzerakoan erabiltzen da, aurrez ere horretaz mintzo izan delarik. Mintzagaia sarritan erakusle-izenordainek izendatzen dute, edo birritako erakuslez osatutako sintagmek. Kasu honetan ere hizlariaren subjektibitatea azal daiteke, nahitaezkoa ez den arren; edozein modutan ere, bizitasun handia ematen dio solasaldiari, kidekotasuna eta konfidantza sortuz hizlari-entzulearen artean. Forma hau

<sup>356</sup> Ikus izenordain legez erabilitako erakusle arrunten atalean, beheiago.

askoz ere erabiliagoa da lehenengo gradukoa baino, nominatiboan batez ere. Adibide batzuk ipiniko ditugu:

-*rmz* °an etxeuam-béste · sérik! · ibíltzeko lékuik!, bi- bidían síar árus da ónutz! · ero sáltoka eo éskutatzen eo... · es frontói tta es krísto! ··· esébes!: ·· PÉLOTAN serian itxe-enduan ·· karretea jeneáleko paretén!, o- oim-be ortxe dao-paréta!, ántxe!

-t ...

-*rmz* °eméndi-Maltzáa goisela paéta ortxe dao! Barrundiko se- selaixan aspíxan!, pae- paeta!: ormia ei-eindda!, áá-ántxe! eitxe-sam-PÉLOTIOI!, bésteik e...

-*ñaz2* °és!, Firestone!: gasolineria barík, Firestóne

-*ñaz1* °Firiston- a!, gasólineria...: gasólineriori gure terrénuan i- in sán dá...

-*ñaz2* °oñ e ser ere-, polidéportibua daon inguruan eró? edo seróri ero...

*raz1* °iguál da ... orí bá-ta danóri, e? // *raz1* °álaxe da óri: danóri da bát óri!

*raz1* <narrugorri zegoen andra bati> ... baña euan e, áurria etxakon ikusten, prinsi-pálori ee esku- baña ipúrdixák! ...

*raz1* °... neu-pe txolotik [sic] eraten dot ura betí! · betí!: apurtzeko seri-pés, jáusi tta... txolota: an daka-nere txolotóri...! ...

*naz* °bai-bai-bai-bai-bai!-ipíni átzera trástioi <lehenago kendutako mikrofonoaz> tta... · enségida! ensegida ingou eskólioi!

*naz* °erresa do-pá!: <barrez> “semat asun!”. Es- ésiñ urtén!, danien dao asun sarroi!

*raz1* °énee, est- estáuka... jám-be gítxi eitxen dau ta estáka orré-gánorari-,gisájorek, es-es-ess

*kaz3* °... badóy`Asiendara ta emo- e, guárdixak eote-siaan! salbokondútuori begíratzeko!, da, artu éban e guardixiorre-salbokondutua ta ...

*raz* °... mutílla etórrí bia-san-neskíaána, · da suk espasendua-nai arékin · “meséres” esáte-san, da · “ess!”: ólan buelta ein da muturrak asáre ta... Béin batén Edúrnek ólaxen e -e Edúrne Pépen andríak, lagúna ta- · “es” esaetzálako ikútu ero eiétzan da *pladá!* · ma- e mutillórrí · saplatékua emoétzan! ...

*kaz2* °... da -“ba, aistia eskontzen da ta madrínia nais da Donostíara noya · éurekiñ” da -“<ahots finez> a bueno!” ... da, · padrínuak · san e koñatúorren e anáya ta · neu! ...

*kmz3* °... soldau naola-an · e, Bar Éstanko suam-ba! ... “guardabinos” esate-akuan e, pue- bee puestu ekan da rra! ... Da, á etorri suan! · batén da, entzutzen guri! · bertán · geure... · Estánkuorrem-páre-párian jékan e seroi puestua béak eta ...

-*kaz2* °da, ···· <zaratak> éibala · akábau sánian, oo aspertu sanian ero kántzau sanian · sesenak artu eban

-*kag6* °ene!

-*kgg* °a bai?

-*kaz2* °bai... · ta buelta batzuk emon sítxuan ee · itxuria lurrian! · sesenórrekiñ!, da ...

*naz* °estusta eser eitem-baña soríxoneko sama... · txarrixoigaittik...

Birritako erakusleetan ere forma horiek erabiltzen dira orokorrean<sup>357</sup>.

<sup>357</sup> Bokatibo funtzioa betetzeko ere sarri erabiltzen da, hainbatetan adierazi denez.

### 1.7.3. *Gradu hurbileko artikulua mugaturiko deklinabide ereduak: plurala*

#### 1.7.3.1. FORMA

##### **“Txiki, txakur”-en eredia, 1. eta 2. graduko artikulua plur.**

*Txikixok, txikixok, txikixoi, txikixon, txikixotako, txikixokin, txikixo(k)(g)aitxik, txikixontzat /txikixondako /txikixontzako; txikixotan, txikixon gain; txikixotatik, txikixo(n)(g)andik; txikixotara, txikixo(n)(g)ana; txikixotaraño(k); txikixotarutz*

*Txakurrok, txakurrok, txakurroi, txakurron; txakurrokin; txakurro(k)(g)aitxik; txakurron-tzat /txakurroundako /txakurrontzako; etxe (¿)edarrotan, ume edarron gaiñ; edarrotatik, edarro(n)(g)andik; edarrotara, edarro(n)(g)ana; edarrotaraño(k); edarrotarutz*

Lehenengo eta bigarren gradua formaz ez dira bereizten, eta singularrean ez bezala, ez dute izenordain funtzioa duten erakusleen forma hartzen, birritako erakusleetako izenek kasu bakoitzean hartzen dituztenak baino, besteak baino murrizagoak. Dena dela, forma biak bereizteko semantikara jo behar da, testuingurura, pragmatikara... Lan honetan erabili diren irizpideetariko batzuk hauek dira: lehenengo gradukotzat hartu ditugu “gu” edo “onek”-en ikuspegi inklusibotik osatutako formak; bigarren gradukotzat hartu ditugu “zuek” edo “orrek”-en ikuspegi eksklusibotik osatutakoak. Batzuetan “ikuspegi” hori solasaldian bertan aurki daiteke, adizkien eta inguruko izenordainen formetan, adibidez; eta beste batzuetan suposatu egin behar da.

Mugatzaile pluralok oinarriari zuzenean txertatzen zaizkie eta aldaketak orokorrean aipatu ditugunak dira; salbuespena *-a* amaieradun berben jokaera da, “\*elixok”-edo egin beharrean “elixok” eredia betetzen baitute. Mugatzaileen formak (bai 1. bai 2. gradukoena formaz bat direnez, behin bakarrik aipatuko ditugu) hauek dira kasuz kasu: *-ok, -ok, -o(r)i, -on, -otako, -okin /-ogas, -ogaitxik, -ontzat /-ondako /-ontzako; -otatik, -ongandik; -otan, -on gaiñ; -otara, -o(n)gana; -otaraño(k); -otarutz*. Horiek lirateke markak, baina ez ditugu denen errealizazioak jaso. Lekukoen ahotik bildu diren kasuetako forma batzuk hauek dira (jasotako kasu guztietako adibideak daude; ez daude, hala ere, adibide guztiak): “txikixok, danok, txakurrok; basarritxarrok, txakurrok; txarrixoi, txakurroi; txikixon; sestuokin; danondako, bixondako, txakurroundako”. Singularrean legez, ez dugu leku-denborazko kasuen adibiderik jaso.

#### 1.7.3.2. ERABILERA

Orokorrean, singularrean egin ditugun iruzkinak pluralerako ere baliagarri dira. Pluralak ere oso erabilera aberatsa du, bizi-bizirik dago hiztunen ahotan forma batzuetan behintzat, nominatiboan bereziki. Mugatzaile horiek izen eta osagai askok eta askok onartzen dute; erabilera oso aberatsa dute zenbatzaileek,

“bi(xok)”-ek eta “dan(ok)”-ek gehienbat, hiltuna zein hizlariaren taldea adierazterakoan. Adibiderako:

*kmz* °<besoko orbanaz> sirkulásiñuana ei dá-au... da sirkulásiñuan kóntra .. ero, <tabakoa> áuxe! .. Áá!, .. sígarro txarrixok! ...

*razl* °gú antigualok!... amén!... —*naz* °Oim-bárre!, len e, .. gu erremeixan da-alka-rrekiñ Usártzan da, <barrez> ba orduen e gerraostien mutfille-pe gitxi euesen da, geuk, néskok iuel bákarrik eta... ..

*S.B.* °... antxe ba, xemeikua sekan da, erosi eben naránjia, ta lagún bíxen artian “na-ránjia erdí bi eiñ, eta kitxo gure diruok”, naranjia jan da -“kitxo guré diruok!”

*ñaz2* °ées!, kóntau dous amen daosen etxiók!

*/kaz2* °... baña illúntziko trenien etorri!, da, · padrínuaq · san e koñatúorren e anáya ta · neu! · da, etorri giñam-ba padrínUOK!: béstIOK an gelditxu sien!, m eskom-bárrixOK! ... —*nme2* °súe-gastiok es baña gu sárrok... · gu sárrok! · kúkua entzundakuan saniatze-gá!

*/f.a.* or ba!, sure kóntuok!

*razl* °Pentzáisu!: · juate-giñan e, amá-lau-urté-eró... · Santa-Kurútzera!: · Kalbárixua-pá!, da básarriko batek emote-sitxuan e kalbárixuok e, · gisón sártxo baték, ór-txe básarriko baték eta...

*kmz* °frixkúá?: °súenían badáre ba melokotoi txikíxok? ... melókotoiak! ... ba- bai!, melokotoi txikíxak! ... frixxkúak!

*raz* °porke · éibartárok! e?, juergístak isén saríe, e?: gitárria ero jáixa ero béstia, éi-bartárra-jai!

*razl* °... órre-listua-días!, · es e, bátian kalian gorá ta kalam-bera trápu sar sikíñoki artúta!, · tíra-tíra-tíra! · da-álatxek arreglauko leuke mundúa! baai... ..

*rmz* °anai bíxak!: -“gure gastiak idixa- idixa-bietue, idixa-bittuela...” -“ba erósixosak idixok!” eta ekarrítxuek! · ikustera juáteko esa-ústan!

*razl* “atzáskala-sikíñak”: °gú-beti dákau-sikíña-básarritxarrok, amén · ortúan ibilitxa

*kmz* °dánok aka- akáu orí!: béstien lékuan · txarrá!

*kmz7* “Álemanak, karrera aundixa eéh! Da, guk ezin dogunok pa ee, zera, Eskola Armerixara. Da ezán gitxi”

*/naz* suek eee anáyok, estaukasue alkarren · trásaik

*kmz3* °... ddxá! jua-akuan áurrekaldea ... txa- txakurrá! · dxá!, ólaxe muturrian · álto iétzan! ... “bértan daok amen!” ... ango jaleua txakúrrok eta! ...

*nme1* °bái!, ee!, e, askenían e, e bu- burú ona dakasúenok eee, sértu im-biosúe, úrrengo · ee datosénentzako ba séoser gerátu deiñ, es? ...

*naz* °<pospoloei> eske ráspiaa, segiduen e, sertze-jakue!, · ee, gastatze-jakue!, txarrixoi!; da ...

*kaz2* °bíxon artian in génduen... ..

*/raz5* °óna!: gáñea éuron artian asítxa!

*raz5* °<Sanjuanetan> ... -“ifi- así jítxuek u- jee- etára gaitxue-dánok ái-dian geure sestuokiñ!, da, garbí-garbí ein dda, ya, así jítxuk ifintzen á be!, da jéntia befra dao ia, · gabian s’éongo ete dan, funsiñúa...” ...

*nme2* láurondako · toállak ekarrisus  
*lf.a.* orí bixondako lékua da

Birritako erakusleetan ere forma horiek erabiltzen dira orokorrean.

#### 1.7.4. *Ondorioak*

Ikerketa honetan gradu hurbileko mugatzailez hartu dira 1. eta 2. gradu formak. Forma horiek erakusleen forma eta funtzioetatik sortuak izan daitezke, baina mugatzaile funtzioan ezaugarri bereziak dituzte. Batetik, txertatzen diren izenen-osagaien amaieran aldaketa fonetikoak eragiten dituzte; bestetik, semantiko-pragmatikoki bistan egon behar du mintzagaiak, edo aurrez ere mintzagai izan behar izan du. Gainera, horrelako formek batzuetan hizlariaren jarrera islatzen dute eta funtzio adierazkorra nabarmena da.

Singularrean gradu biak ongi bereizten dira formaz, 1. gradu formak orokorrean gradu horretako erakusle arruntaren formak dira, leku-denborazko kasuetako *-o-* aldaera izan ezik (forma horrek ez du, baina, bizitasun handirik Eibarren; Aginaga aldean erabiltzen da noizbait); eta 2. graduak gradu horretako erakuslearenak. Baina pluralean erabat berdinak dira, sinkretismoz; gainera mugatzailearen formak ez dira erakusle arruntanak, murriztagoak baizik.

Horrelako formak lekuko gehienek darabiltzate, *kgg* gazteak izan ezik, agian alfabetizazioaren eraginez erakusletzat hartzen dituelako. *nme2* lekukoaren forma batzuek ere zalantza sortu digute azterketaren aldiaren baina orokorrean Eibar guztiko lekukoek bizi-bizirik dituzte horrelakoak batez ere eguneroko so-lasaldi askeetan. Leku-denborazko kasuetan, hala ere, ez dira ia erabiltzen.

#### 1.8. **Izen berezien deklinabidea**

Atal honetan izen berezizat pertsona izenak —adibide batzuetan abizenak eta ezizenak ere kontuan hartu dira— eta leku izenak —herri, herriko toki-auzo, mendi, erreka eta abarren izenak— hartu ditugu. Izen horiek mugagabez deklinatzen dira gehienetan baina batzuetan forma mugatuak ere onartzen dituzte<sup>358</sup>. Kasu marka guztiak har ditzakete, partitiboa, instrumentala eta prolatiboa barne. Kasu marken aldaera bai morfologikoak bai fonetikoak deklinabide arruntan aipatutako berberak dira.

---

<sup>358</sup> Ikus forma mugatuaren berri deklinabide kasuetan barrena, bereziki nominatiboan eta leku-denborazkoetan, eta forma mugatuei eskaini diegun atal berezian ere. Hori dela eta, ez ditugu forma eta erabilera horiek berriro aztertuko.

### 1.8.1. *Lagun izenak*

Leku-denborazko kasuetan bizidunentzako formez deklinatzen dira gehienetan, eta onartzen ez duten kasu bakarra leku-denborazko genitiboarena da, prolatibo erabilerarako ez bada behintzat.

#### 1.8.1.1. BOKALEZ AMAITATUTAKOAK

##### “Mari”-ren eredua

*Mari, Marik, Mari(ri)k, Mariri, Marin, Maris, Marikin, Mari(g)aitxik, Marintzat /Marindako /Marintzako, Maritzat, Marin gain, Mari(n)(g)andik, Mari(n)(g)ana; Mariganaño /Marineraño(k) /Marirano(k); Mariñerutz*

Kasu markak zuzenean izenei txertatzen zaizkie, eta amaieran zein bokal dagoen ez du eragin handirik, kasu markek antzerako aldaerak baitituzte. Bokal sabaikariz amaitutakoek kasu markako kontsonanteak sabaikaritu egin ditzakete beste baldintzak betez gero, “Patxiña”, adibidez. Kasu batzuetako adibideak ipiniko ditugu:

*kmz* déndia beteta seua- séuan Mátis

*raz1* Josépa-áuki dabe Máritzat

*kmz* orí eixia Márin gáñian daok —*raz1* ondo eñ ero txarto eñ · Márin gáñan- gáñian dao —*kgg* fedia euki seinke Márgan —*nme2* ori eñ ero es eñ, Máriañ gain dao —*naz* ori eñ ero es eñ, Máriaññ... gain ddao

*kaz2* °... amábi urtekiñ erua-ninduan ... Olábek! .. béste máixuana, Mugérsaana! .. geró, Mugérsandik .. pasau nitzan Olábeana ...

Partitiboan “Maririk” formaren ondoan “Marik” ere jaso dugu *nme2*-ren ahotan.

Adlatibo bukatuzkoan, izen arruntekin gertatzen den bezala, *-ganaño* atzizkia *kgg* lekukoak darabil bakarrik. Beste aukera, edutezko genitiboz osatutako marka erabiltzea askoz arruntagoa da, “Mari(a)neraño(k)” erako forma lekuko hauei jaso diegu, *kmz*-ri, *raz1*-i eta *nme2*-ri; bizigabeen formak darabiltzate *naz*-k eta *f.a.*-k, “Marirano” alegia. Antzera gertatzen da adlatibo bide zuzenezkoan; “Mariñerutz /Marianerutz” *raz1*-i, *nme2*-ri, *naz*-i jaso diegu.

#### 1.8.1.2. KONTSONANTEZ AMAITUTAKOAK

##### “Felis”-en eredua

*Felis, Felisek, Felisik, Felisi /Feliseri, Felisen, Felises, Felisekin, Felis(e)(n)(g)aitxik, Felisentzat /Felisendako /Felisentzat, Felisztat, Felisen gain, Felis(e)(n)(g)andik, Felis(e)(n)(g)ana; Felisenganaño /Feliserarte /Feliseraño(k); Mariñerutz*

Horrelako izenetan batzuetan kasu marka loturazko bokalaren bitartez tartekatzen da eta beste batzuetan zuzenean, amaieran edozein kontsonante dela ere. Nominatiboan berezko kasu markarik ez denez, izena osoan ezagutu daiteke. Loturazko bokalik gabe partitiboa, datiboa eta prolatiboa txertatzen dira; “Felisik”, “Felisi”, “Feliztat” dira erabateko formak.

Beste kasu batzuetan loturazko bokala beti tartekatzen da: ergatiboan —honetakoak egiten dira, “Felisek, Aitxiberrek, Karmenek, Serafiñek, Isaakek, Isabelek”, esaterako—, edutezko genitiboan, instrumentalean, soziationean, destinatiboan, inesiboan, adlatibo bukatuzkoan.

Beste kasu batzuek, ostera, bietara hartzen dute kasu marka. Motibatiboan *kgg* eta *raz1* lekukoek loturazko bokala txertatzen dute eta *nme2*-k eta *naz*-k ez. Ablatiboan, loturazko bokala txertatzen dute lekuko gehienek (*kmz*-k, *kgg*-k, *raz1*-ek eta *nme2*-k) baina *naz*-k “Felisgandik” egiten du; adlatiboan ere formen banaketa hori betetzen da.

Adlatibo bukatuzko forma konplexuagoa da bokalez amaitutako berbetan baino. “Felisenganaño” jaso diogu *kgg*-ri; *naz*-k bokalez amaitutako izenen jorra gordetzen du, baina loturazko bokalik ez du tartekatzen edutezko genitiboaren aurrean, “Felisneañok” forma sortuz. Beste lekukoek forma bizigabeak darabiltzate (*kmz*-k “Feliserarte”, *raz1*-ek eta *f.a.*-k “Feliseraño(k)”) eta *nme2*-ri zalantzazko forma jaso diogu:

*nme2* úra, Féლისená-განაიოკ ლეატე-სან

Adlatibo bukatuzkoan forma bakarra edutezko genitiboz osatutakoa da: “Felisenerutz /Pelisenerutz” (*kmz*-k, *raz1*-ek, *nme2*-k eta *naz*-k onartu eta darabilten forma); edo beste bidez ordezkatzan dute forma hori.

## 1.8.2. Leku izenak

Pertsona izenen antzerako deklinabidea dute, baina leku-denborazko kasuetan bizigabeen markak hartzen dituzte<sup>359</sup>. Hurbilketa deklinabide orokorreko leku-denborazko kasu batzuetan egina dugu, leku-denborazko genitiboaren eta ablatiboaren atalean, esaterako. Kasu marka guztiak onartzen dituzte baina edutezko genitiboa eta destinatiboa dira lortzeko formarik zailenak, galdekizunez behintzat; horrez gain, instrumentala ere izen arruntekin gutxi erabiltzen dela ikusi denez, leku izenetan ezaugarri hori gorde egiten da.

---

<sup>359</sup> Salbuespena ablatibo bizidun-motibatibo marken arteko nahasketaren ondorio da; ikus motibatiboaren atalean “Asitxaingandik” forma bere baitan duen adibidea, esate baterako.



### 1.8.2.1. BOKALEZ AMAITATUTAKOAK

#### “Urki”-ren eredia

*Urki, Urkik, Urki(ri)k, Urkiri, Urkiñ, Urkis, Urkikin, Urki(g)aitxik, Urkintzat /Urkindako /Urkintzako, Urkizat, Urkiñ, Urkira, Urkiraño(k), Urkirutz*

Talde honetan daude “Untzaga, Arrate, Urki, Urko, Moru<sup>360</sup>” erakoak.

Gu ez gara arduratuko leku izenak berak dituen aldaerez; “Untzaga, Unsaga, Untzaa, Untza; Maltzaga, Maaltza, Maltzaa, Maltza” adibidez, bestelako ikerketek beharko lukete gai aberats hori jorratu. Azterketa honetan kasu markak amaierari nola txertatzen zaien eta nola jokatzen duten begiratu dugu batez ere.

Kasu markak zuzenean izenei txertatzen zaizkie, eta amaieran zein bokal dagoen ez du eraginik handirik, kasu markak antzerako aldaerak baitituzte; bokal sabaikariz amaitutakoek kasu markako kontsonanteak sabaikaritu egin ditzakete beste baldintzak betez gero, “Urkiña; Urkittik /Urkixik”, adibidez. Izen batzuetako adibideak ipiniko ditugu, ez denak, alferrikoa litzatekeelako:

*rmz* °óixe!, da Sumarrára ta danéa! · Maltzá súan... e Maltzán ee... · irurórei launetik oétamar bat e, ferrobixaria-sitt- eskolam-bé! · or be...

*raz1* Elgoibarren estao Arráterik, óixe-és! —*nme2* Ermúan estao Úrkik

*kmz* pasóforako léku ask- léku ona · ákak Untzágak —*f.a.* konpondu bat artuko leuke Urkik

*nme2* Untzágai fálda itteutze [sic] óbraa · om-bátek —*nme2* ori terrenoi, Úrkiri pertenesitze-ako ...

*kgg* Arraten famía aundíxa da

*kmz* °or, Maltzakó serrerixakúa ... —*raz* °... -“Arráte-Ballekúa nungúa sára bá?” ... —*naz* Úrkokoo aixía otzá da

*kgg* Eibar gustia Untzagas beteta seuala ein dot ametzetan //kgg len <<Untzaga-TAS>> gogoratu naix

*kmz* ákordatzen eo-nok Untzágakiñ —*f.a.* batzuk Elgoibarko San Pedro konparatzen dabe Arratekin

*kmz* Untzágaitxik diskutitzen eoaitxuk

*naz* Eibárko-ónena beti Untzágantzako, Untzágarako da —*f.a.* “Arratendako”? Ufff... Arrate... Arratei estutza ardura e, ona iñ txarra iñ. Arek e, los ke no se muben están... no les importa

*kgg* bátzuk e Úrkotza-dake Kalamúa

*kmz* °Máltzan!: · Maltzáti-Plaentxiara bitxartian —*raz* °... da beste asko básarrikúapa kali- ee Maltzán! ...

<sup>360</sup> -u amaierakoa dirudien arren, “Urkizu” toponimoa aurreratuagorako utziko dugu, “Ermu(a)”-ren deklinabide ereduaren hurbil baitago. Jatorrian, ez dirudi harremanik dagoenik “urki-zu” eta “ermu” oinarrietan, baina deklinabidan antzera jokatzen dute izen biak.

*rmz* °Bitoríxatik!, idíxeikiñ etorri-im-bi-da, e?!: artu ixk- íxkuek ee sokán da! —*raz* °orí daao Karakátetik áurrera juanda, Irukurutzeta ... —*kmz* ifarráixia dábik ... °Urkotiik. · Béstia égua da, égo-aixía  
*kmz* °... gabán aundixákin juán! ... Maltzára ta · trikitríxan! —*rmz* °... órrek Arrá-tea dánok! —*raz* °... da Mendigóitxira sélan ióko na-... .. —*rmz* °áber séma!-Mendaróa séma-dauan! // *rmz* °... béti férixá! Élgoibarrea!; · da-Abadñora tá ...  
*raz* °... da Maltzáraño etortze-sian tren batían guréki ta gero ...  
*kmz* °géro · ieree, biría · Markiñarutz ...

### 1.8.2.2. KONTSONANTEZ AMAITUTAKOAK

#### “Eibar”-en ereduá

*Eibar, Eibarrek, Eibarrik, Eibarri /Eibarrerri, Eibarren, Eibarres, Eibarrekin, Eibar(re)(g)aitxik, Eibarrentzat /Eibarrendako /Eibarrentzako, Eibar(ren)tzat (prolati-boa), Eibarren, Eibarr(e)(r)a /Eibarra, Eibarre(r)añ(o)(k), Eibarrerutz*

Talde honetan “Azitain, Eibar, Santa Kurutz” erakoak daude.

Bokalez amaitutakoetan egin dugunez, ez ditugu aztertuko izenen euren al-daerak: “Asitaiñ, Asittaiñ, Asitxaiñ, Axitxaiñ”, “Santa Kurutz<sup>361</sup>, Santa Kurus, Santa Kuutz, Santa Kutz, Santa Krutz, Santa Krus”, “Eibar, Eiber, Ibar, Iber” eta abar.

Lagun izenetan moduan, kasu marka batzuen aurretik loturazko bokala txertatzen da eta beste batzuenetik ez. Nominatiboak berezko kasu markarik ez duenez, izena osoan ezagut daiteke forma horretara:

*naz* Asítxain dao Eibarkoo · sartúeran —*kmz*3 °... Eibar e formála isan dok · gastfé-tam-bintzát · f- formála! ... —*kaz*1 °... Ibur-errékiak · da- ee ebaten dau · ba · s- Gi-púsqua ta · Bískaixa · da · Eibár da Saldíbar, e? ... —*kmz*1 °Santa-Kúruz: baitxá!, or be baai! —*rae* °... da geróó · mendíxak?!: o- Umáixo-ondúa, · Máldeii, Basobál-tzaa<sup>362</sup> ... Krábeliñ, · buenóó! ...

Kasu marka batzuk zuzenean txertatzen zaizkie oinarriei, partitíboa adibi-dez. Eredurako: “Asitxaiñik, Santa Kurutzik, Eibarrik”. Prolatíboa ere horrela txertatzen da, baina fonetikoki “zaila” gertatzen delako edo, forma bitxiak ere jaso ditugu:

*nme*2 bátzuek Urkúsu, Asíttaiñentza-dauke

<sup>361</sup> Santa Kurutz ermita dagoen tokian, eliza aurreko harrizko inskripzioan “Santi Kurutz” dago idatzita; ez dakigu bertokoren batek horrela iradoki duelako den, ala beste nonbaiteko ereduari jarraitu zaion horretarako (“Santi Mamiñe”, esaterako). Inskripzioa joan den xx. mendeko azken hamar-urtekoa da.

<sup>362</sup> Ikus nominatíbo orokorraren atalean eskaini diogun oharra.

Aldaera horrek ez du inongo destinatibo zentzurik; zentzuz behintzat, prolatibo garbia da. Forma aldetik, prolatibo kasu marka aurretik genitibo kasu marka duela genuke<sup>363</sup>.

Beste kasu marka batzuek aurretik loturazko bokala beti hartzen dute; horrela da ergatiboan, edutezko genitiboan —adibide bakanen bat jaso dugu bakarririk—, instrumentalean, sozietiboan, destinatiboan, inesiboan, adlatiboan, adlatibo bukatuzkoan, adlatibo bide zuzenezkoan. Horrelakoetan bereiz daiteke izenen amaierako kontsonante dardarkaria bakun gisa ala anitz gisa egiten den:

*ñaz2* °gu-dakaus terrénuak · Eibárren! · Ermúan! · Saldíbarren! · da, Élgetan!  
*/rmz2* °... oin San-Sálbadore**m**-b'°eoteitxuk <<erri-kirolak>> eta jai edárrak ...

*ñmz* °Mertxéte! básarrixa!: Txóntati-góyasela! · Salbadórrera góyasela, es-... —*kaz3* °... .. asi giñan jueten Salbarr- Salbadórrera ...  
*/raz* °... nii, orráxee; béste bein Salbadórrera juan giñaan, Irúreraa · ta lén ólaxen! ...

Inesiboan salbuespen bat jaso dugu, *raz1*-en ahotan, ez baitu loturazko bokalik tartekatu. Ez dakigu zenbateraino gertaera hau erabilia den, agian fonetikak azaldu beharko luke:

*raz1* Ásítxaiñn eon gára

Adlatiboan, deklinabide arruntean gertatzen den legez, murrizketen ondorioz hainbat forma sortzen dira, “Eibarrera, Eibarrea” esate baterako. Baina silaba osoa galtzen denean zalatza dugu *-a* kasu marka soila txertatu ote den, ala murrizketa galanta gertatu den. Adibidez:

*raz* °... ordúan Saturrarána ta ordúan ya pláyara ta juate-giñan

Zer suposatu behar da?, “Saturraran + *-a*” dugula?, ala “\*Saturraran + *-e* + *-ra* > \*Saturrarane(r)a > \*Saturraran(e)a > Saturrarana”?...

Beste kasu marka batzuk bietara txertatzen zaizkie oinarri; datiboan, esaterako, joera nagusia zuzenean txertatzea da (*kmz*-k, *kgg*-k, *raz1*-ek, *nme2*-k, *naz*-k, *kaz3*-k, *kaz6*-k horrela egiten dute), baina *kmz*-ren, *kgg*-ren eta *kaz3*-ren ahotan “Eibarrerri” eta “Santa Kurutzeri” erakoak ere jaso ditugu. Leku denborazko genitibo marka ere bitara txertatzen da; gehienetan zuzenean oinarriari, *kmz*-k, *raz*-k, *kgg*-k, *raz1*-ek, *nme2*-k, *naz*-k, *rmz*-k, *kmz1*-ek egiten dute horrela; baina beste bi adibidetan loturazko bokalaren bitartez jaso dugu, *kgg*-k eta *kmz*-k horrela egin dutenez. Motibatiboa ere multzo honetan dago; lekuko gehienek loturazko bokala txertatzen duten artean (*kmz*-k, *kgg*-k, *raz1*-ek, *f.a.*-k), *nme2*-k eta *naz*-k zuzenean txertatzen dute kasu marka. Azken hauen emaitzak, “Santakurusgaittik, Asittaingaitti[k], Eibargaittik” formak dira. *kgg* lekukoak ere era horretako “Eibargaitxi[k]” forma eratu du behin (lekuko horren joera nagusia

<sup>363</sup> Prolatiboaren atalean egin dugu aldaera horren aurkezpena.

loturazko bokala txertatzea da), eta bere iritzia forma horren inguruan hau da: *kgg* “*rarua ein jata baña ori urten jata*”. Ablatibo formak ere itxura bi har ditzake; kasu marka oinarriari zuzeneta txertatzen diotenak lekuko hauek dira: *kmz*, *raz1*, *nme2*, *naz*, *raz*, *kaz3*, *kaz9*. Ablatibo kasu marka loturazko bokalaren ondoan lekuko hauek txertatzen dute: *kgg*-k, *f.a.*-k, *rmz*-k eta *ñaz5*-ek; forma gehienak kontsonante afrikariz amaitutako toponimoenak dira (“Santa Kurutzetik” eta “Basobaltzetik”) eta amaiera horrek loturazko bokala txertatzeko joera handiagoa duela dirudi, beste amaieretan horrelako adibideak oso bakanak direlako, *kgg*-ren eta *ñaz5*-en “Salbadorretik” forma jaso dugu bakarrik.

### 1.8.2.3. ZALANTZAZKO LEKU IZENAK

Talde honetan azpimultzoak egin ditzakegu; batetik, 1.2.0. atalean aurkeztutako *-ia* eta *-ua* amaierako leku izenak ditugu; bestetik, dena delako toponimoak Eibarren zein forma hartzen duen kontuan izanda beste batzuk ditugu, horrelakoetan toponimoaren beraren aldaerak ez ezik, amaierak ere alda baitaitezke (“Ondarroa, Ondarrua, Ondarru” adibidez). Beste multzo baten daude era batera baino gehiagotara egiten diren beste leku izen batzuk.

#### 1.8.2.3.1. Amaieran *-i(a)* edo *-u(a)* dutenak

—*i(a)* amaiera tankerakoak hauek dira adibidez: “Donosti(a), Mañari(xa), Mallabi(a), Plaentxi(a) /Plasensia /Plasentzia, Aspeitxi(xa), Sumai(x)a, Aules-ti(a)/Allustia, Bitorixa”. Aurkeztu da lehen ere leku izen hauen jokabide nagusia, gehienetan amaierako *-a* gordetzekoa<sup>364</sup>, bestelako adibideak ere jaso ditugun arren, esaterako:

*kmz* Plaentxi urrián dao —*nme2* Aspéitti etxata gustátzen //*nme2* Donósti, urrin dao  
*naz* Plaentxin eon gára —*kmz* Donostíñ eo-áitxuk  
*kmz* “Mañaríra?: “Mañarixara” es! “Mañaríra”!

—*u(a)* amaiera tankerakoak hauek dira, esate baterako: “Urkusu(a), Kalamu(a), Ermu(a)”.

Goiko izenen moduan, hauen aurkezpena ere 1.2.0. atalean egina dago. Orain adibide eta zehaztasun gehiagoz hornituko dugu han esandakoa, Eibarko bertako leku izenak ere kontuan hartuta.

Zehatzen batu duguna “Urkusu(a)” izena da; horrek beste pareko izen bat ere badu, baina gaztelaniaz berba egiterakoan erabiltzen da gehiago euskaraz baino, “Urkisu” hain zuzen. Azken forma hau euskaraz erabiltzerakoan ia sekula

<sup>364</sup> R.M. AZKUE-ren galdekizunean ere “Donostiako” da Eibarko erantzuna (in A.M. ECHAIDE; 1984, 300).

ez da amaierako *-arik* agertzen, eta horregatik ez dugu aurrerantzean kontuan hartuko. Lehenengo forman ostera, bai agertzen da amaierako *-a*, eta horixe da gainera joera nagusia, “Urkusua” forma erabiltzea, alegia. Ez dugu uste mugatzailetzat hartu behar denik bakarrik, nahikoa sistematikoki agertzen baita nominatiboaz besteko kasuetan ere: *ergatiboan*, *datiboan*, *edutezko genitiboan*, *leku-denborazko genitiboan*, *soziatiboan*, *motibatiboan*, *destinatiboan*. Ez dute lekuko guztiek horrela egiten kasu guztietan, baina kasu bakoitzean lekukoren batek edo batzuek bai. Partitiboan, prolatiboan, ablatiboan eta adlatiboetan beti hartzen du “Urkusu-” forma, *-a* gabekoa. Baina inesiboan, erabatekoa da “-uan” forma, bai “Urkusuan” bai “Ermuan” egiterakoan. Hemen dioguna “Ermu(a)” toponimoaz 1.2.0. atalean esan denarekin guztiz bat dator. Bestera erabiltzen den izen bat “Berritxu” da, ez baita Eibarren “\*Berritxua” gisako formarik.

Goikoaren tankerako eredia betetzen du “Kalamu(a)” mendi izenaren deklinabideak ere; kasu batzuetan *-a* agertzen da, “Kalamuati(k)”, adibidez, baina beste batzuetan ez, adlatiboan adibidez:

*naz* e, eurik ittespadau Kálamura juen geinke

#### 1.8.2.3.2. Forma anitz hartzen dituzten leku izenak

“Ondarroa” toponimoa dugu eredu garbia honelakoetan (“Ondarroa /Ondarrra /Ondarru”; goiko *-u(a)* amaieradun izenekin erka daiteke neurri batez), eta lekukoak ere konturatuta daude horretaz:

*kgg* °“Ondarru” sé da?, “Ondárru” da ero “Ondárroa” da ero...?

*kmz* °bai, ondo dao esanda “Ondarru” [baina Eibarren] eés!, ees!; ess!, ess... ... eés! “Ondarru” da uu- Ondarroakoo ... éurak [esaten dutena]!

Dena dela, lekuko zaharrenek gehien darabilten forma “Ondarrua” da, bai nominatiboan bai deklinatzerakoan; baina beste formak ere bizirik daude, bai zaharrengan bai gazteengan. Prolatiboan, esaterako, *raz1*-ek, *nme2*-k eta *naz*-k “Ondarruatzat”, *-adun* forma egiten dute.

Antzerako toponimoak dira “Naparrua, Gipuskua”, baina ez ditugu sistematikoki jaso lekukoan ahotan.

Amaieran alternantzia duen beste izenatariko bat “Motriko /Mutriko /Motriku (/Mutriku) /Mutrikua” da. Lekukoek ere egin dute gogoeta izen hau dela eta ez dela:

*raz* °... oiñ e ipinitze “Mu- Mutriku”: lén-“Motríko”!

*S.B.* “Motrikun eon gára”, °guk Mo-kin esáten dóu. “Motriku”, bai ... “Motrikon”?; eés, ñó!, orí, “Motrikon”, euskal gaisto

Aipatutako aldaera guztiak jaso ditugu, eta aldaeron arteko alternantzia lekuko bakoitzaren idiolektoan ere bada, baina Eibarko forma hedatuena “Motriko” eta “Motriku” direla dirudi. Beste kasuetan edonola dela ere, inesiboan lekuko guzti-guztiek erabat *-un* amaieraz egiten dute.

### 1.8.2.3.3. Euskarazko beste aldaki batzuetan ez bezala egiten diren beste leku izen batzuk

Hemen ere mota askotakoak biltzen dira: “Arrona, Oikina” erakoak —forma normalizatuak kontsonante sudurkaririk gabeak dira—; “Mondragoi /Mondrago”, “Lekeitxixo /Lekeittixo /Lekeitixo //Lekeitxio /Lekeittio /Lekeitio”, “Bergara /Berga” erakoak eta abar. Adibidez:

*nme2* °... bañá, Arronam-bisi da-aann e, · “Galbanisados Olaisola” eró, da-an Arro-nan e... · Arroná [sic] karretera jenerálian goyas eskumara e, · Oikináko · bidia-artz-en dan ondúan ...

### 1.8.2.4. LEKU IZENAK ESAPIDEETAN

“Tukumanera juan” jaso diogu *kmz*-ri, “pikutara joan” esanguraz:

*kmz* juári Tukumánera!

Esatera horren pare-parekoa da I. LASPIUR-ek aurkezten dituen “Pekiñera juan” eta “Tutuluko estratara juan” esapideak (1999, 47-48). Egile horrek inesi-boan ere onartzen ditu.

Urruntasun ia gehiegizkoa adierazteko —jaso dugun adibidean urruntasun subjektiboa da bakarrik, ez fisikoa— “Kadisen” ere erabiltzen da, *razl*-i jaso diogunez:

*razl* °<“orkatillia” zelan esaten den gogoratu ezinda> bai, burua se- Kádisen!, · Kádisen daka-ní-burua!, Kádisen... · gausá bat, gausa bat e, paper bá-láगतem-bot · geró neuk esin topau! · da neu-jakím-ba nun laga dotem-bá · da, errekestiau mesillia ta-“amen estao-pá!” ...

I. LASPIUR-ek aurkezten duen “Tutuluko estratan egon”-ek ere esangura berbera du (1999, 48).

### 1.8.3. Ondorioak

Izen bereziak arrunki mugagabez deklinatzen dira eta kasu marka guztiak onartzen dituzte. Batzuetan deklinabide mugatua ere onartzen dute baina atal honetan barrena batez ere mugabea jorratu da.

Pertsona izenak bokalez amaitzen direnean kasu markak zuzenean hartzen dira. Kontsonantez amaitutakoan aldaera fonetikoak sortzen dira loturazko bokala txertatu ala ez. Kasu marka batzuk sistematikoki loturazko bokalik gabe txertatzen diren artean, beste batzuek beti hartzen dute eta beste batzuek alternantziak. Aginagako ezaugarria da motibatiboan bokal hori ez txertatzea, bakarrik hango lekukoek egiten baitute horrela. Gainera, pertsona izenetan ezaugarri hori ablatibo eta adlatibo kasuetara ere hedatzen da.

Leku izenek ere kasu marka guztiak onartzen dituzte teorian baina zaila da edutezko genitiboz eta destinatiboz erabiltzea. Leku izenek eurek hainbat aldaera toponimiko-foniko dituzte, baina deklinabideari dagokionez bokalez amaitutakoetan ez dago aldaera askorik. Kontsonantez amaitutako izenek, ostera, pertsona izenen moduan, loturazko bokala txertatu ala ez da aldaeretakoa iturri nagusietarikoak, murrizketek ere aldaera nabarmenak sortzen dituzten arren. Loturazko bokalari dagokionez, deigarria da alternantzia gertatzea datiboan; kale-tarren ezaugarria dirudi bokal hori txertatzea, zaharren eta gazteen ahotan jaso baitugu. Kaletarren ezaugarria da leku-denborazko genitiboaren markaren aurretik ere bokal hori txertatzea. Orokorragoa da eibartarren artean bokal hori eranstea motibatibo kasu markaren aurretik; horretan bereziak Aginagakoak baitira, ez dutelako eransten, jakina. Ablatiboan ordea, bestelako profilak daude; batez ere baserritarrek txertatzen dute loturazko bokala izena kontsonante afrikariz amaitzen denean, eta osterantzeko joera orokorra kasu marka zuzenean izenari txertatzea da.

Bestalde, izenen aldaerek deklinatzerakoan eragina izan dezakete; adibidez, *-a* itsatsidun deklinatzen diren ala ez. Horrelakoetan joera nagusia *-a* gortetzea da baina alternantzia ere kontuan hartu beharrekoa da.

Leku izen bereziak hainbat esapidetan erabiltzen dira oso zentzu adierazkorrez.

## 1.9. Adizlagunak sortzeko galdetzaileetatik eratorritako egiturak

Beste kategoria batzuetara igaro baino lehen, deklinabide kasu batzuekin oso estu lotutako egitura batzuen berri eman behar dugu, adverbioen saileko forma batzuk baititugu orain azterketagai: aditzondo zehaztugabe konposatuak<sup>365</sup>. Galdetzaile batzuek egitura konplexuagoetan txertatzen dira bestelako esangura duten formak sortuz, horiek ere adverbio mailakoak.

Galdetzaileok sarritan adizlagunak ematen dituzte erantzun emaitzatat, baina aditzondoak ere jar daitezke adizlagun horien lekuan. Izan ere, galdetzaille horietariko batzuek deklinabideko kasu markak euren baitan dituzte, berezkoak —leku-denborazkoak kontuan hartuta— “nungo, nun, nundik, nora, noraño(k), norutz”;<sup>365</sup> baina beste galdetzaile batzuek ez, “noix, semat” erakoek. Atal honetan ez dira mota biak bereiztuko.

Adizlagun maila (beste kategoria batzuen artean) deklinabide kasuetan nahikoa garatu delakoan, zuzenean joko dugu osagai zehaztugabe konposatu horiek jorratzera. Denek dute esangura zehaztugabea, ez da leku, une, jatorri, norabide... zurririk adierazten. Hainbat bidez sortzen dira; eta hemen guk jasotakoak bakarrik ipiniko dira, balitekeelako egitura gehiago ere izatea:

---

<sup>365</sup> Adverbioen atalean ere koka zitezkeen.

### 1.9.1. Errepikapenez

—“Edo” osagaiaren aldaerak tartean direla edo ez; adibidez: “nora-nora, nora-o-nora”, “nun-ero-nun, nun-eo-nun, nun-o-nun”, “nun-ero-nundik, nun-eo-nundik, nun-o-nundik”, “noix-ero-noix”. Ez dira asko erabiltzen baina oraindik badute bizitasuna. Hemen adibide batzuk:

*razl* nóra-o-norá bágoyanas

*f.a.* aurten nora-nora bánajoyak bakasñuetan, aunke séa Maltzára

*f.a.* °len esan doúna-pe, or dfa nun-eró-nun, órre-pe estabe urtétzen, ta ba...

*rae* °nun-o-nun entzun dot...

*f.a.* nun-ero-nundik asálduko da

*naz* asálduko da nun-o-núndik

*bñaz* °Bustingórri básarrixa íual isango sa-noix eo noix...

—Errepikatutakoa galdetzailea ez baina kasu marka bera duen osagaia izan daiteke, balio erakuslea duen adberbioa, esaterako: “nun-ero-an, nundik-ero-andik, nora-ero-ara, sela(n)-ero-alan”. “Ero” osagaia aukerakoa da. Edonola ere, ez dira oso erabiliak “selan ero alan” egitura izan ezik. Adibide batzuk:

*razl* nun ero án eongo da, óri bai! —*naz* nun ero án, numbaitxen...

*f.a.* núndik ero ándik etorriko/asálduko da

*kgg* nora ero ara? —*razl* nóra-ará

*kmz* emén gabíxak... séla ero ála —*kmz* °... da, bersueta-afesiñokua-dianak · be-rai kóntestau! · séla ero alá · *ra-ra-ra-ra* ta, · *ra-ra* ta, gánorasko bersoláriik es baña ...

Egitura horiek galdetzailerik gabeko beste erabiliago hauek gogorazten dituzte, parekoak izanik, balio erakuslea duten adberbio formez osatuta “an-ero-emen, andik-ero-emendik, ara-ero-ona...”<sup>366</sup>:

*razl* ándik ero emétik etórriko dá <ez du zentzu disjuntiborik, zehaztugabea baino>

### 1.9.2. Galdetzaile bikoteez: “nundik-nora”

Goikoak ez bezala, egitura hau oso-oso erabilia da eta horrenbestez esangura ñabarduraz ere aberatsa da. Esangura objektiboena, lekuzkoa du; askoz ere erabilera subjektiboagoa du norbaiten bizimoduaz, ibilerez, zoriaz, erabiltzen denean, edo modua, bidea adierazterakoan. Aipatutako ñabarduretako adibide batzuk ipiniko ditugu:

---

<sup>366</sup> Ikus atal horretan.



*rmz2* °... ní-baakíxa-núndi-nora juan san- Millaflóssera [sic] ... <leku fisikoa>  
 —*kmz14* “... espiritualmente esaten dana, gizonaren problemia hori da: nundik  
 nora gabiz?, ondo gabiz? ...” <leku metafisikoa>  
*naz* °<egurdia iragartzen duenaz> are-berak ee, eunetarakua gáñera emoten dau  
 sarríten, e?, bueno!: bixarko, etzikoo... ta, e?, bañá!..., táki-pa!, ·núndi-nora dabi-  
 llen..., asspertu dan ero... <erdi barrez>  
*kmz7* “... oktubrian, karzelan sartu ninduenian, —ez dakit nundik nora enterau zi-  
 ran— guardia zibillak juan ziran gure etxera eta ...”

Erantzuna ere badu, “ablatibo adlatibo” egituraz<sup>367</sup>:

*kmz* °Frantziara llégau; · Frantziátik Béljikara · da · gero Béljikan ... geró A- · Álfa-  
 tik Méjikora; Méjikit-tik etorri nitzanian ...

Esangura lexikalizatuagoak ere baditu; bata harridurazkoa eta bestea bada-  
 ezpadako jatorriari lotua. Adibidez:

*kmz11* “... Lehelengo karreran, egiñ eben eta bastante karrera luzetxua zan: ez da-  
 kitt (...) 90 kilometrokua edo zan eta egin neban eta, nundik nora, nik karrera ira-  
 bazi! ...”  
*raz1* núndi-norakúa da orí?

### 1.9.3. *Galdetzaileei partikulak erantsirik*

#### 1.9.3.1. *-baitx-* ERANTSITA

Besteak beste, galdetzaile hauei txertatuta jaso dugu: “nun-”, “nora-”,  
 “noix-”. Egitura horiek deklinatu egin daitezke eta oso erabilera handikoak dira  
 ahozko hizkeran. Esangura aldetik zehaztugabeak dira baina “edonun, edonora”  
 erakoek baino eremu murriztagoa adierazten dute, “norabaitx bai, baina edono-  
 ra ez”. Deklinabide kasuak hainbat erataria har ditzakete:

—*-baitx-* partikulari txertatuta, “nunbaitxen, nunbaitxera, nunbaitxetik”  
 jaso ditugu<sup>368</sup>. Amaierako kasu markek ematen diote esangura zehatza forma  
 bakoitzari, oinarrian kasu horietan “nun-” inesiboa baita, forma neutro legez.  
 Ez da Eibarko era jatorrean “nunbaitx” formarik erabiltzen inesiboa adierazteko  
 —ez behinik behin guk jaso dugun lekukotzan—, eta areago, “\*nundikbaitx”  
 arrotza da edozein euskaldunentzat gure iritziz. Forma erabilienak dira. Aipatu-  
 takoak dira aldaera nagusiak, baina *raz1* lekukoari “numbaitxan” forma ere jaso  
 diogu behin baino gehiagotan. Forma bakoitzeko adibide bana ipiniko dugu:

<sup>367</sup> Ikus ablatiboari eskaintako atalean ere.

<sup>368</sup> I. LASPIUR-ek eskaintzen duen taulan ostera, inesiborako “nunbait”, eta beste kasuetako  
 “nunbaitteko, nunbaitteraiño, nunbaitteraiño, nunbaitterutz, nunbaitterako” formak ere aurkezten  
 ditu (1999b, 130).

*rmz* °[idi-probak] Agiñán ee, béti eongo san!: eón ee, · Agiñán esaututa nao ni-iru o lau ke- kalsaa · lékutam-be!: ... átaixam-be bai, an esko- · elíxaurriam-berá be bai, mortérotam-berá be! · úrtero selebrau numbáitten! daa, gaur emen iual daa bixar átaixan dá ...

*razl* ogíxa numbaitxétik ekárrí bieko dábe

*nme2* °... bañáá, e amén ee, oittura sarrá sa- a, serien e, · -“ba, · dómekan ee, f- fulánok eta garbantzu-euna jáukek éta” ba, baa numbaittea · kombidáutza soyese-nien...

*S.B.* noisbaitxen —*f.a.* beñ ero beñ etorriko sara gure etxéra, está? ... noisbáitxen

—“Norabaitx” eta “norabaitxera” formak, goikoekin alderatuz, bestelakoak dira. Galdetzaileak du bere baitan egituraren esanahiaren muina, eta “norabaitxera” forma erredundantea dela esan daiteke, lekukoek erabili sarri erabili arren<sup>369</sup>. Gazteenek, *kgg*-k esaterako, ez dute bide hau nahikoa ongi ezagutzen eta erabiltzen. Esanguraz, “norabaitx”, “norabaitxera” eta “nunbaitxera”, denak bat dira. Adibidez:

*razl* °ba posi-nao norabaitt urtétzeko

*razl* oingo u- udán, norabáittera bakasíñuetan góyas

### 1.9.3.2. *-nai* OSAGAIA ONDORIK ERANTSITA

Horrelako formarik “nun-nai” jaso dugu bakarrik *S.B.*-ren ahotan, teorian behintzat beste galdetzaile batzuekin ere osa daitekeen arren<sup>370</sup>. Esanguraren muina galdetzaileak dakar bere baitan. Eibarren, emaitzek erakusten dutenez, ez da bide hau kasik erabiltzen:

*S.B.* arasuak eta buruastiak, nunai

### 1.9.3.3. *edo-* PARTIKULA AURRETIK ERANTSITA

Besteak beste, galdetzaile hauei txertatuta jaso dugu: “-nun”, “-nora”; “-noix”, “-selan”, “-semat”. Teorikoki behintzat, kasu marka txertatuta duten galdetzaile guztiek har dezakete aurretik, bai izenordainen sailekoek —“edonor, edoser, edosein”— nahi beste deklinabide kasu marka amaieran erantsirik —“edoseñek, edoseñi, edoseñen, edoseñekin” eta abar—, bai leku-denborazko sailekoek

<sup>369</sup> I. LASPIUR-ek ez du aintzakotzat hartu forma hori, “norabaitt” aurkezten baitu bakarrik paradigma osoan (1999b, 130).

<sup>370</sup> Ez dugu biderik ez eskubiderik Eibarren lekuko jatorrek ez darabiltenik esateko, baina berriki alfabetizazioaren bidetik sartzen joan dela dirudi; ikus, bestela, I. LASPIUR-ek ere “nunahi” forma aurkezten duela (1999b, 14. oh.), nahiz eta eredu bereko “noranahi, noiznahi” jada klasikoa den T. Etxebarria-rengandik jaso duen. R.M. Azkue-ren *Erizkizundi*...-an ere “noranai” erantzuna eman zuen C. Careaga-k (in A.M.<sup>a</sup> ECHAIDE, 1984, 269).

ere; guk jasotako “edonun, edonora”-z gain, “\*edonungo, \*edonundik, \*edonoraño(k), \*edonorutz” ere sor daitezke<sup>371</sup>.

Atal honetan leku-denborazko galdetzaileak aztertzen dihardugu eta horrenbestez horietara mugatu behar gara. Galdetzaileek eurek kasu marka euren baitan txertatuta dutenez, ez dute beste markarik behar egitura hauek sortzeko; berdeklinazio adibiderik ez dugu jaso baina ez litzateke ezinezkoa<sup>372</sup>. Lekukoek forma hauek ezagutu egiten dituzte baina ez dituzte askotan erabiltzen. Esangura aldetik, “nunbaitxen, norabaitx” erakoek baino eremu zabala goa adierazten dute, aukeran diren posibilitate guzti-guztiak bere baitan hartzen ditu.

Honelako formak jaso ditugu: “e(d)onun; e(d)onora /eronora; edonoix<sup>373</sup>; edoselan /eroselan; edosemat /erosemat”. Adibide batzuk:

*razl* edónun eon leike  
*naz* edonóra jueteko! ... pres gaos, bai!  
*nme2* edónoix ei-leike  
*razl* °bai baña, erosémat klásetara esaten da óri txá! ·· Bá!, orí, modú askotára esá-  
ten da óri, e? //razl °aa... ... kinielia edárra da! nesk- neskía edosema-dao!, neskía  
eroséma-dao! kinielia gatxá da-asertatzia ta, oo... óne-mutil sarrok ónek!... ...

#### 1.9.3.4. “EZEZKO” FORMAK, *i*- OSAGAIA AURRETIK DUTELA

Aurreko beste guztiek ez bezala, esangura bikoitza dute. Esangura ezagunena erabateko ezeztapena dakarrena da, eta horrelakoetan ez da zehaztugabetasun ñabardurarik, ezeztapena orokorra baita. Ezezko perpausetan hartzen du esangura hori, baina ezeztapena “ez” osagaiaz landa, bestelako egituraz ere lor daiteke, jakina: “ezin, barik” eta abarren bidez. Beste esangurak ez du ezeztapenik adierazten eta zentzu zehaztugabea du; galdera perpausetan erabiltzen da sarritan baina ez derrigorrez (ikus “iñoix”-en adibideetan, esaterako).

Honelako formak jaso ditugu: “iñungo, iñun, iñundik, iñora; iñoix”. De-  
nentzat batu ditugu zentzu bietako adibideak:

—*Iñungo*:

*kmz8* “... Eibarko euskeriak gauza eder batzuek, jiro batzuek eta <<hitz>> batzuek dakazela beste iñungo lekutan ez dagozen modokuak ...”  
*/kaz2* °... d’esate-neban “au da baltzá!: neuk umerik ess... · iñungo umia ásten..., ·· da ·· nai ess · bér’etxera juaterik umiak ...

<sup>371</sup> I. LASPIUR-ek adlatibo bukatuzko forma ez, beste guztiak aurkezten ditu bere taulan (1999b, 129), nahiz eta denen adibiderik ez ipini.

<sup>372</sup> Ikus I. LASPIUR-ek eskaintzen dizkigun hainbat forma (1999b; 129, 131).

<sup>373</sup> Guk lekukotza jaso dugu, I. LASPIUR-ek Eibarren ez dela erabiltzen uste izan arren (1999b, 131 l. oh.).

— *Iñun*. Forma hau bakarrik ager daiteke baina sarrien “be” edo “be es /bes”-en ondoan agertzen da:

*kaz3* °... és eiñ · etxien da iñun kóntau gero au, e? ...

*raz5* °... dirua set-, iñúm-be tópaq esin dirúrik!; esan ei-tzan e · -“gabíam-be lorí-pess!” Ambrósiok! // *raz5* °-“estók isángo?!: á saráixa ta, iñón e, atzénik im-ba-rík?!”, -“bai-bai-bai! iñúm-be gerátu barik: artu ta da-da-da-dá-dá!” ...

*kmz* °iñúmbés

*lnaz* ikusi dosu alako gausaik iñúm-bé?

— *Iñundik*. Forma inesiboan legez, “be” edo “be es /bes”-en ondoan agerzea aukerakoa da. Adibidez:

*rmz2* °... da sémbat astártu doten au núndik ete datorren probá-asúntuau!?, da ésiñ iñúndik etára! ... <lekua baino, modu ezintasuna adierazten du>

*raz1* °... árrimauta jai dao, e? Árrimauta e, e..., nik oixe-esto-topatzen iñúndi-pe ondó! Nai dabenian iés eitxeko morúan e gisóna!? · d’andría!?!... <behin betiko iritzia adierazten du>

*lnaz* ikusi dosu txakurra iñúnn aldétik [sic] · iñundik?

— *Iñora*. Forma inesiboan eta ablatiboan legez, “be” zein “be es”-en ondoan agertzen da. Adibiderako:

*kmz* °... á!, · juan san dómekan esa-netzan -“es noya iñora be!”, gerátu in san ...

*kmz* °éss!, iñóra bés ní! · ess... ..

*lnaz* basoyas iñóra?

— *Iñundik-iñora (be (es))*. *Nundik-nora* egituraren parekoa da, baina beste-lako esangura ñabarduraz. Zenbait adibide:

*kmz* au esin leikek mobidu, iñúndik iñóra bé <modua adierazten du>

*kaz3* °... iñúndik iñóra esi-san jirau! erroparik itxeko, e? iñúndik iñora be!: esseb’esseb’eseuan iñúm-be · erropárik eixia nai basan ... <modua eta lekua adierazten ditu>

— *Iñoix*. Leku-denborazko kasuetan legez, “be” edo “be es /bes”-en ondoan agerzea aukerakoa da. Ezeztapen zentzuz, gaztelaniazko “nunca” aditzondoaren eragina nabarmena da batez ere gazteen ahotan. Esangura zehaztugabez erabilera ikaragarria du solasaldi askean. Adibidez:

*kgg* °... “burdiñía” páre bat aldís pásau da ta iñoix estákitx -akin dan ero -a bári-dán *kgg* °eske or “ondúan” es neukían esángo, uste-ot íxa iñoix [“inoiz ere ez” esan gura du] *nme2* iñois bestot entzún

*lnme2* iñoiss ikusi dosu s- seose olakoik?

*raz1* °... pásatze-ata iñoix gausá bá-gordé ta esin topáu! ...

*raz* °“solokótiña” iñoix esá-gendúan, baña “sótiña”, “sótiña”!

Bestelako egituretan txertatuta ere jaso dugu, adibidez:

*nme2* iñoix eo beñ etorriko sara guréra, e?

#### 1.9.4. *Bestelakoak*

*Nora-esta, nora-esian.* Norabide zehaztugabeaz gain, zalantzazkoa ere adierazten du. Esate baterako:

*f.a.* ikúsi juat nora-ésta  
*nme2* norá-esían

#### 1.9.5. *Ondorioak*

Alor honetan adberbioen eremuan kokatzen gara baina adizlagunak iturburu direla, hainbat kasu markadun galdetzaileak hain zuzen. Horiez gain, “noix, semat” erakoak ere kontuan hartzekoak dira. Forma konposatuak eta eratorriak eratzen dira eta gehienek esangura zehaztugabea dute, ñabardurak ñabardura; erabateko ezeztapena adierazten dituztenak ere sortzen dira.

Horrelako formak sortzeko bideak anitzak dira. Errepikapenez, galdetzai-lea errepikatu daiteke edo horren lekuan kasu marka bereko adberbio kategoriako formaren bat. Tartean beste osagaien bat har dezakete horrelako egiturek. Erabilera eta bizitasun aldetik, oso gorabehera handiak dira, “selan ero alan” adibidez oso arrunta den artean “nora(o)nora” oso gutxitan erabiltzen da Eibarren. Eratorpenez, artizkiak, atzizkiak zein aurrizkiak erabiltzen dira forma mugagabeak eratzeko. Bestelako egiturak ere erabiltzen dira. Batzuetan forma erredundanteak ere sortzen dira erabileraren erabileraz; baina beste forma batzuek oso emankortasun eta bizitasun txikia dute Eibarko hizkeran. Erabilera murrizteko adibide batzuk zaharren ahotan gordetzen dira bakarrik, eta beste batzuk, berrikuntza moduan, alfabetatuen ahotan. *I-* aurrizkiz osatutakoek esangura bikoitza dute, zehaztugabea eta erabateko ezeztapenarena, zein esalditan txertatuta dauden.

#### 1.10. **Erakusleak**

Bi maila bereiziko dira atal honetan: batetik, erakusleak izenordain funtzioan duten forma eta erabilera (arruntak eta indartuak); eta bestetik, erakusleak determinatzaile gisa. Erakusle determinatzaile soilen formak ez ditugu berriro errepikatuko izenaren ondoan jartzea nahikoa baita, baina erakuslez osatutako beste egiturak aztertuko ditugu batez ere, birritako erakusleak hain zuzen.

Erakusleek zerbait mugatua adierazten dutenez, beti jakineko zerbait —berdin dio fisikoa edo metafisikoa izan— dute erreferente legez, eta ez dute partitibo kasu marka onartzen; prolatiboa ordea onar dezakete baina hirugarren graduan batez ere. Birritako erakusleek ez dute prolatibo eta instrumental markarik ere onartzen. Edozein izenen —nahiz arrunta nahiz berezia— edo izen sintagmaren

ordez edo ondoan joan daitezke eta horrenbestez leku-denborazko kasuetan forma bizidunak zein bizigabeak dituzte.

Bestalde, balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak ere atal hone-tan azalduko dira.

### 1.10.1. *Izenordain legez erabilitako erakusleak*<sup>374</sup>

#### 1.10.1.1. ARRUNTAK

Ezaguna denez, erakusleek hiru gradu islatzen dituzte, hurrenetik urrunene-ra, “au, ori, a<sup>375</sup>”. Ez gara sartuko euskarazko mugatzaileak erakusleetatik era-torritakoak diren ala ez auzi horretan, baina forma batzuetan oso traza handia dutela edo bat direla, kasuan kasu, ezin du inork ukatu<sup>376</sup>.

##### 1.10.1.1.1. Forma singularrak

#### Erakusle arruntak, singularra

1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua
<i>au, onek, oni /oneri, onen, on(e)tako, ones /onus-; onekiñ /one(g)as; one(g)aitxik /augaitxik; onentzat /onendako /onentzako; on(e)tan, onen gaiñ; on(e)tatik, one(n)(g)andik; on(e)tara, one(n)(g)ana; on(e)taraño(k); on(e)tarutz</i>	<i>ori, orrek, orri /orreri, orren, or(re)tako, orres /orresas; orrekiñ /orre(g)as; orre(g)aitxik /ori(g)aitxik; orrentzat /orrendako /orrentzako; or(re)takotzat; or(re)tan, orren gaiñ; or(re)tatik, orre(n)(g)andik; or(re)tara, orre(n)(g)ana; or(re)taraño(k) /or(re)tararte; or(re)tarutz</i>	<i>a, a(r)ek, ari /areri, aren /ain-, ar(e)tako, ares /arres-; arekiñ /are(g)as; are(g)aitxik /a(g)aitxik; arentzat /arendako /arentzako; atzat /aretzat /arentzako /a(r)takotzat /aintzat /aintzakotzat (prolatiboa); ar(e)tan /atan, aren gaiñ; a(r)(e)tatik, are(n)(g)andik; a(r)(e)tara, are(n)(g)ana; a(r)(e)taraño(k); a(r)(e)tarutz</i>

<sup>374</sup> Beste gramatikari batzuentzat legez, guretzat ere erakusleak dira izatez, bai arruntak bai indartuak, baina horien forma osoa ongien ikusten den funtzioa izenordainarenean denez, zilegi begi-tandu zaigu funtzio horretan erreparatzea erakusleen formak eta aldaerak erakusteko (ikus esatera-ko EUSKALTZAINDIA, 1993, 75-76).

<sup>375</sup> I. LASPIUR-ek dioenez, Eibarren “3. personan ez dago persona-izenordain arruntik eta hónen ordeaz erakusle arruntok erabiltzen dira: **ha** eta **hárek** (...) [Eta] Taula honetan ditudun 3. persona izenordain indartuok [singularrekoak], erakuslietatik eratorritakoa dira, **ber-** aurrizkia aurretik jarriaz (...) 3. gradukoak dira gehixen darabiguzenak” (1999b, 68). Beraz, egile horrentzat 3. gradu-ko edozein erakuslek du 3. pertsona izenordain funtzioa. Guk, forma indartuen atalean ikusiko de-nez, “bera” eta horretatik eratorritakoak jo ditugu batez ere funtzio hori betetzen duten forma nagusitzat.

<sup>376</sup> Ikus aurrerago gradu hurbileko mugatzailez eratutako deklinabide ereduie eskainitako atala.

#### 1.10.1.1.1.1. *Kasuz kasuko ezaugarri orokorrak*

Kasu marken inguruko aldaerak nahikoa garatu dira deklinabide orokorrari eskaintako ataletan eta oraingoan erakusleen euren forman erreparatuko dugu batez ere, eta dagoenean, kasu marken aldaera berezietan<sup>377</sup>. Batzuetan hiru graduak batera azalduko ditugu eta bestetan banatuta.

Nominatiboko formak (“au, ori, a”) ez dira bere horretan agertzen beste kasu markak hartutakoan. Ergatiboan, adibidez, “onek, orrek, a(r)ek” formak erabiltzen dira, eta ergatibo kasu marka kenduz gero beste kasuetako oinarria lortzen da. Oinarritzat zer hartu?; gure ustez “on- orr- ar-” lirateke erakusleen oinarritzko forma oblikuoak eta kasu marka txertatzerakoan batzuetan loturazko bokala hartzen dute eta bestetan ez. Lehenengoa gertatzen da ikusi denez ergatiboan bertan eta kasu gehiagotan: edutezko genitiboan (“onen, orren, a(r)en”), instrumentalean, soziatiboan, destinatiboan, ablatiboan (bai bizigabeen bai bizidunean), adlatibo bizidunean eta adlatibo bukatuzko bizidunean.

Baina hori ez da beti betetzen, kasu batzuetan forma bat baino gehiago baititugu, beste monografia batzuetan aurkitu ditugun paradigma sistematiko eta “garbien” ereduak hautsiz. Kasu marka loturazko bokalez zein zuzenean txertatuta, bietara, kasu hauetan jaso dugu: datiboan, leku-denborazko genitiboan, motibatiboan, inesiboan, adlatibo bizigabeen, adlatibo bukatuzko bizigabeen eta adlatibo bukatuzko bizigabeen.

Jarraian, aipamen zehatzagoak merezi duten ezaugarriak jorratuko dira:

a) Datiboan, 1. graduan “oni” forma da hedatuena lekuko guztiengan baina “oneri” forma ere jaso dugu *kmzI*-en, *kgg*-ren, *raz*-ren eta *razI*-en ahotan.

*kgg* °... estot uste, e?, éstot uste, baña estáki-kálko modúan estáki-erakúsliekin ólan eitxen da es?, “onéri” ta “óneri”: “señéri”, “séñeri”

2. graduko forma orokorra, ostera, “orri” da; baina *kag*-ri jaso diogu “orre-ri” forma. 3. graduko forma orokorra ere “ari” da baina “areri” ere jaso diegu *kgg*-ri eta *razI*-i.

b) Edutezko genitibo forma da “onen- orren- ain-” erroa duten zenbatzaileen oinarria, “-beste” gehiturik. Horiei inesibo kasu marka gehituta (“onenbestian, orrenbestian, ainbestian”) salneurria adieraz dezakete adibidez; eta gainera moduzko adberbio lexikalizatuak ditugu, “ez ondoegi ez gaizkiegi” adierazteko. Forma indartuak har ditzakete gainera<sup>378</sup>, adibidez:

*raz5* °-“axé salduko neskixo-onétxembestian...” ...

<sup>377</sup> Ez ditugu hemen kasu bakoitzeko aldaera guztiak ipiniko.

<sup>378</sup> Ez dugu ezaugarri hau forma indartuen atalean berriz errepikatuko.

c) Instrumental markadun erakusleak aurkitzea ez da erraza solasaldi askean, ez bada instrumentala txertatutako lexikalizazioaren baten edo jakineko egituretan, postposizioekin adibidez. Kasu marka honi dagokionez, *kgg* da beste leku-koengandik bereizten den bakarra, oinarriari “-tas” forma itsasten baitio. Beste lekukoek kasu marka loturazko bokalaren bitartez txertatzen dute: “ones, orres, ares<sup>379</sup>”, eta eredu hori betetzen ez duen forma “orresas” da, *naz*-ren ahotan jasotakoa.

Aipatu dugun forma lexikalizatueta bestelako itxura hartzen dute: “oneskero, onuske(r)o, onuskeriok; arreskero”, esate baterako<sup>380</sup>.

d) Soziatibo kasu marka biak jaso ditugu, bai *-kin* bai *-gas*. Baina deklinabide orokorreko soziatiboaren atalean aipatu denez, *-gas* kasu marka bereziki lotuta dago “gañera, aparte” erako postposizioei (pluraleko formak ere bai), esandakoari zerbait eranstea nahi zaionerako. Bestalde, “\*orrekina gañera” ez dugu jaso eta hizkuntz senarentzat arrotza egiten da.

e) Motibatiboan argi dago Aginaga auzokoak besteengandik bereizten direla; 1. eta 2. graduetan *nme2*-k eta *naz*-k “augaittik, origaittik” erdua betetzen duten artean, beste guztiek “one(g)aitxik, orre(g)aitxik” egiten dute. 2. graduari dagokionez, *rae*-k ere “origaitxik” darabil baina kontuan izan behar da bere jaiotetxea eta gaztetako bizilekua Aginaga auzoan izan zuela. Erreparatzekoa da kasu marka zuzenean txertatutako forma horien oinarria ez dela *on- orr- ar-*, beste kasuetan gertatzen denez, nominatiboko formak baino.

Dena dela, *nme2*-k loturazko bokaldun aldaera ere badarabil, bestea baino gutxiagotan izan arren. 3. graduko formetan antzerako banaketa aurkitu dugu baina zehaztu egin behar da, Aginagakoek ez ezik *kmz*-k eta *kaz3*-k ere “a(g)aitxik” baitarabilte; eta *naz*-k “aregaitxik” ere bai.

f) Destinatioan, kasu markako hiru aldaerak jaso ditugu: *-ndako*, *-ntzat*, *-ntzako*.

g) Prolatiboan forma “bitxiak” jaso ditugu, erabilera (eta ezagupen) ezaren ondorio ziurrenik: “ontzat; atzat, aretzat, arentzako<sup>381</sup>” batetik (adibidez: *naz* “Juan · éuki dot ... aa-aréntzakua [sic], a dálakuan”); baina bestetik, forma eta erabilera jatorrak ere bai, “ortakotzat /orretakotzat, a(r)takotzat” formak (adibidez:

---

<sup>379</sup> I. LASPIUR-ek zalantza du “honez” erabiltzen ote den —Eibarko aldakian, ahozkoan, “ones”, jakina— (1999b, 87 7. oh.), baina guk “ones”-az gain “ares” ere jaso dugu, oso erabilera murrizta duen arren.

<sup>380</sup> Ikus beherago erabileraren atalean ere.

<sup>381</sup> Forma honek, edozein modutan ere, pluralean jaso ditugun “onentzat, arentzat”-en, eta ize-nordain legez funtzionatzen duen “eurentzat” formaren traza handia du; edutezko genitibo marka dute forma guztiek amankomunean. Lehenago ere adierazi denez, gure iritziz ez da destinatio kasu markaren erabileretariko bat, prolatiboaren aldaera baino.



*nme2* “ortakóztat estabe artú”, *naz* “ori estabe-euki ... atakóztat”). Horiek ez daude erakuslearen oinarrizko formaren gainean bakarrik eraikita, leku-denborazko genitiboaren markaren gainean baino; eta “aintzat, aintzakotzat” ere 3. graduko erakusletik eratorriko formaren gainean eraikiak dira<sup>382</sup>.

h) Leku-denborazko kasuek badituzte berezitasun orokorrak, forma bizigabeei dagokienean. Denek hartzen dute *-ta-* artizkia kasu markaren aurretik, eta esangura oso mugatua duten arren, forma mugagabeak dirudite:

—Leku-denborazko genitiboko formak orokorrean ez dira erabiltzen; arrotz egiten zaizkie “onetako, orretako, aretako” formak lekukoei, beste aldakiren bateko formatzat jotzen dituzte, edo formen “gramatikaltasuna” ere zailtzen jartzen dute. *kgg* da forma horiek arrunki darabiltzan lekukoa, alfabetizazioaren eraginez, noski. Formaz, lehenengo gradukoa loturazko bokalik gabe egiten du, “ontakua” eta bigarrena bokalorrekin, “orretakua”. *naz*-k formak gramatikalki onartu egiten ditu baina ez ditu erabiltzen; “aretakua” hirugarren gradukoa egiten zaio ezagunen. Lekukoek, *kgg*-k izan ezik, beraz, beste bide bat darabilte adiera hori aditzera emateko, pareko leku-denborazko genitibo markadun balio erakuslea duten adberbioak hain zuzen (“amengo, orko, ango”). Esapideetako formak hain lexikalizaturik daude itxuraz, lekukoek ez dituzte erakusletzat hartzen eta jator darabiltzate. *kmz*-k adibidez, lagunarteko “-setako? -a(r)tako!” hitz-jokoan konturatzeke darabil.

—Inesiboan, forma bizigabeak ez dira asko erabiltzen, formak ezagunak eta noizbait erabiliak izan arren. Gutxien erabiltzen dena leku fisiko zentzuz da (“non” esanguraz), “zertan” esanguraz adibide gehiago jaso baititugu. Ikus zer dioen lekuko batek erakusleen horrelako formez:

*f.a.* °akaso beñ ero beñ bai, baña orí gitxi, formá gitxitxan nik e entzún dot orí

1. graduan forma hedatuena loturazko bokala duena da, “onetan” alegia, zuzenean txertatutakoa ere jaso dugun arren. 2. gradukoan, lekukoen joerak bakoitzaren idiolektoaren arabera jokatzen dutela dirudi; loturazko bokala tartean duen aldaera darabilte *kgg*-k, *raz*-k, *raz1*-ek, *nme2*-k eta *naz*-k; zuzenean txertatutako forma darabilte batez ere *kmz*-k, *kmz1*-k, *nae*-k eta *f.a.*-k; batzuek bietarakoak egiten dituzte, noski, baina guk jokaera nagusiak aipatu ditugu. 3. gradurako hirugarren aldaera ere jaso diogu *raz1* lekukoari, “atan” alegia, baina lekuko gehienek ez dute ezagutzen edo ez dute erabiltzen —bai darabilte forma hori, ordea, esapideetan, *naz*-k eta *f.a.*-k esaterako—. Beste forma bien artean, 2. gradukoan aipatu dugun antzerako banaketa dugu, baina loturazko bokala duen forma hedatuago dela dirudi. Areago, lekuko batzuei harri-dura sortu die “artan” formak:

---

<sup>382</sup> Ikus beheiago ere, erabileraren atalean.

*razl* “arétan”: “artán” es, e? ... “artán” es, artía badakísu ser dán... <“arte” zuhaitzaz dio hori>

Edonola ere, esapideetan lekukoak ez dira konturatzen inesiboko formak direla, eta “se(r)tan (ero) a(r)tan, artan-or(re)tan, atan-onetan” erakoetan jator erabilita jaso dugu<sup>383</sup>. Inesibo forma eta erabilera arruntek, bada, ordezkaketa bide nagusia balio erakuslea duten adberbioetan dute, beste leku-denborazko kasu guztiek legez.

—Ablatiboan ere aurreko kasuetakoa jazotzen da; formak ezagutu bai baina erabili ez. Balio erakuslea duten adberbio kategoriako formek betetzen dute erakusleon lekua gehienetan. Lekukoan iritziak oso esanguratsuak dira:

*kmz* “[“onetatik” forma galdetutakoan] éé! ... bai-bai-bai... esán! e- eitzen da baña, está- esta úsatzen: guk es beintzát!

—Adlatiboan ere beste kasuetan antzera gertatzen da. Leku zentzuz ez dira asko erabiltzen balio erakuslea duten adberbioak erakusleen ordeze erabiltzen direlako; “zertara” ekintza-edo adierazterakoan sarriago erabiltzen dira erakusleak. Formari dagokionez, badirudi joera nagusia loturazko bokala tartekatzea dela, nahiz eta beste erako adibideak ere jaso ditugun, “ontara, ortara, artara” alegia. *f.a.*-k, esaterako, “aretara” ez du ontzat jotzen eta “artara” bakarrik onartzen du. *S.B.*-ri “atara” forma ere jaso diogu, baina adibide bakarra da.

—Adlatibo bukatuzkoan, loturazko bokala duten formak eta ez dutenak berdintsu erabiltzen dira kasu marka mota biek: “or(re)taraño, or(re)tararte”, adibidez. Batez ere leku zentzua duten formak balio erakuslea duten adberbio formek ordezkatzeko dituzte, baina bestelako esanguraz erabiltzen dira horrelako formak, 2. graduak batez ere:

*razl* ... “beróri”!: °baña gu orre-tarañoek es gara leau; gu e, jénte .. korriéntiakiñ ero básarritarrekiñ-eró ta-abér! básarrittien [sic] aldían estao-orí ...

—Adlatibo bide zuzenezkoa oso-oso gutxi erabiltzen denez orokorrean ere, horrek isla zuzena du erakusleetan; *kgg*-ren, *razl*-en eta *naz*-ren adibide bakan batzuk jaso ditugu bakarrik. Balio erakuslea duten adberbio kategoriako formek betetzen dute horien lekua. Erabileraz, *kmz*-k adibidez oso garbi adierazten du ez duela inolaz ere erabiltzen erakusleen horrelako formarik.

i) Leku-denborazko kasuetako forma bizidunak

Forma bizigabeetan ez bezala, forma aldaera anitz dituzte, deklinabide orokorrean azaldutakoen tankerakoak, eta erabilera ere aberatsa da kasu gehienetan, inesiboa barne. Lekuko gehienek postposizioak darabiltzate inesibo formak eratzerakoan, *kgg*-k izan ezik, *-gan* atzizkia baitarabil.

<sup>383</sup> Ikus beherago ere, erabileraren atalean.

—Ablatiboan forma eta erabilera arruntak jaso ditugu bizidunen deklinabiderako, eta lekuko guztiek aho batez edutezko genitibo markarik gabe hartzen dute kasu marka: “one(g)andik, orre(g)andik, are(g)andik”. Deklinabide orokorrean aipatu denez, postposizio batzuen aurretik bizidunak ez direnek ere forma hori hartzen dute: “orre(g)andik aparte” adibidez, oso forma hedatua da.

—Adlatiboan joera nagusia, ia erabatekoa, genitibo markarik ez tartekatzea da baina genitibo markaz adibide bakan batzuk jaso ditugu: *S.B.*-rengandik, *naz*-rengandik eta *nme2*-rengandik adibide bana jaso dugu.

—Adlatibo bukatuzkoan bizidunen forma *kgg*-ri jaso diogu bakar-bakarrik, alfabetizazioaren eraginez sortutako formak; bestelako bidez ordezkatzan baitute beste lekuko guztiek eta *kgg*-k berak ere bai.

—Adlatibo bide zuzenezkoan benetako adibiderik ez dugula jaso aipa daiteke, jaso ditugun forma bakarrak *kgg*-ren ahotakoak dira eta lekuko horrengan ere oso zalantza-zakoak.

#### 1.10.1.1.1.2. *Formazko orokortasunak*

Sarri aipatu izan da azentuak singularreko eta pluraleko formak bereizteko babilio duela. Hori egia da neurri batez, baina hori ez da bide bakarra, perpauseko eta solasaldiko beste osagaiek, eta egoera pragmatikoen ere argitzen baitute formen esangura<sup>384</sup>. Dena dela, adibide batzuk ipiniko ditugu. Bereizketaren erakusgarri, “onék; onéndako; orrétara /orretára” lirateke singularreko formak (beste kasuetara ere heda daiteke) eta “ónek, ónendako; órretarako” pluralekoak. Zenbait adibide:

*kgg* °... estot uste, e?, éstot uste, baña estáki-kálko modúan estáki-erakúsliekin ólan eitxen da es?, “onéri” ta “óneri”: “señéri”, “séñeri”

//*kgg* líburua onéna da

//*kgg* líburua ónena da

Baina besterakoak ere jaso ditugu:

*kmz* ónek eiók //*kmz* órrek eiók //*kmz* árek eiiók <erakusleak singularrak dira, aditzek erakusten dutenez>

//*kmz* ónek ein dabe //*kmz* órrek ein dabe //*kmz* árek ein dabe <erakusleak pluralak dira, aditzek erakusten dutenez>

*kgg* “ónetxegáitxik etórrí naix” ... “onétxegáitxik” ... °bai-bai, plurala bi modutára eitxen dot, es nais kontúrau oiñ árte ... bueno!, eske káro, ámen lau sílaba dáre, ya bos <<baldín>> badáre <<desberdña>> da... Bueno!, surétza-surétzat ... Suk esángostásu nik sé-itxe-óten. Nik esángot eta súk esángostásu <adibide biak plurala lekoak dira>

---

<sup>384</sup> I. LASPIUR-ek ustez Eibarko erakusleen intonazio ereduaz aurkezten ditu horien formak paradigmatan, baina oharra egin beharrean aurkitu da: “Halanda be, berbaldi bakoetako enfasi berezi batek aldatu eragin leike entonaziñua” (1999b, 87).

### 1.10.1.1.2. Forma pluralak

#### Erakusle arruntak, plurala

1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua
<i>onek, onek, onei /oneri, onen, onetako, ones; onekiñ /onekas; one(g)aitxik; onentzat /onendako /onentzako; onentzat (prolatiboa); onetan, onen gaiñ; onetatik, one(n)(g)andik; onetara, one(n)(g)ana; onetaraño(k); onetarutz</i>	<i>orrek, orrek, orrei /orreri, orren, orretako, orres; orrekiñ; orre(g)aitxik; orrentzat /orrendako /orrentzako; orretan, orren gaiñ; orretatik, orre(n)(g)andik; orretara, orre(n)(g)ana; orretaraño(k) /orretararte; orretarutz</i>	<i>arek, arek, arei /areri, aren, aretako, ares; arekiñ; are(g)aitxik; arentzat /arendako /arentzako; arentzat (prolatiboa); aretan, aren gaiñ; aretatik, are(n)(g)andik; aretara, are(n)(g)ana; aretaraño(k); aretarutz</i>

Nominatiboko formak dira beste kasuetako oinarriak, orokorrean: “onek, orrek, arek”. Singularrean legez, baliteke oinarria “on- orr- ar-” izatea, baina plural ezaugarriak txertatzerakoan eta pluralez deklinatzerakoan kasu guztiek<sup>385</sup> “one-, orre- are-” oinarrietan txertatzen dituzte kasu markak, *-e-* bokal hori pluraleko ezaugarri orokorra izanik.

Hori dela eta, singularrean baino askoz ere forma “batasun” handiagoa dugu pluraleko paradigmari. Ez ditugu forma guztiak hona iragaziko, alferrikako lana litzatekeelakoan; eta aipagarriak edo bereziak bakarrik ipiniko ditugu jarraian:

—Ergatibo forma singularrak eta pluralekoak guztiz neutralizatuta daude, sinkretismoz. Perpauseko adizkiak laguntzen du batez ere zein kasu marka den bereizten. Gauza bera gertatzen da edutezko genitiboan eta destinatiboan ere, besteak beste.

—Datiboan ere singularreko forma batzuekin neutralizatu egiten dira, sinkretismoz, singularrean loturazko bokalez egiten direnekin hain zuzen: “oneri, orreri, areri”. Ez dira nahasten, baina, pluraleko kasu markako dardarkeririk gabeko aldaerak, “onei, orrei, arei”.

—Instrumentaleko formak ozta-ozta jaso ditugu; *kgg*-k eredu arautuaren eraginez sortutako formak darabiltza, *-tas* markaz. Forma jatorria, betikoa *naz*-ri jaso diogu bakarrik 1. gradurako:

*naz* da ónes gáñera badaos beste batzuk

<sup>385</sup> Kasu marka bakoitzaren aldaerak ez ditugu errepikatuko.

—Soziatiborako ez dugu ezer berririk ekarriko, baina Eibarko sisteman deigarri egin zaigun forma jaso dugunez aipatu egingo dugu: *-kas* kasu marka plurala hain zuen, *f.a.*-ren ahotan<sup>386</sup>:

*f.a.* juan saitze ónekin -ero- ónekas

—Motibatiboan lekuko guztiek berdin edo antzera osatzen dituzte formak, singularrean ez bezala. Kasu honetan nabaria da arestian aipatu dugun “bata-sun” formala.

—Prolatiboan, singularrean legez, forma nolabait bitxiak jaso ditugu, oina-rrian genitibo markak dituztela: “onentzat, arentzat”, *naz*-ren eta *nme2*-ren ahotan:

*naz* áre-kartak eukittut ónennn-tzat  
*nme2* nik, árentzat .. eukittut

—Leku-denborazko kasuetan, forma bizigabeetan orokorrean, singularreko “arazoa” gertatzen da. Erakusleak leku esanguraz erabiltzen direnean, pluralta-sun zentzua gordetzeko egiten dela uste dugu. Balio erakuslea duten adberbio kategoriako formek plural horien lekua ere betetzen dute, nolanihi ere. Kasu marka guztien aurretik *-ta-* pluraleko artizkia dago.

—Leku-denborazko genitiboa mota adierazteko forman jaso dugu batez ere: “onetakuak, onetaikuak” ereduko formak, baina horrela ere ez dute lekuko guztiek onartzen, *kmz*-k eta *f.a.*-k kasu (ez dituzte onartzen ez 1. graduan ez 2.ean ere). 3. graduan are eta gutxiago erabiltzen da. Bigarren gradurako “orretakuak, orretaikuak” formen ondoan *nme2*-ri “ortaikua” jaso diogu. Guk plural-tzat hartu dugu formak singularra dirudien arren; aukera, erkaketa adierazten duenez osagai bat baino gehiago izan behar dute erreferentzia horretan. Balite-ke forma hori singularraren analogiaz sortzea, plural esanguraren zentzua gal-duta. Adibidea hauxe da:

*nme2* “pitxía” ero “kop-” ee... “kopíña” oo... .. órtaikua

—Ablatiboko formak postposizioen aurretik ere jaso ditugu, baina batez ere bizigabe formak, “gañera” eta “aparte” postposizioen ondoan, esaterako<sup>387</sup>.

Ablatiboko bizidunen forma hedatuenak edutezko genitibo markarik gabe-koak dira baina *kgg*-ri adibide baten genitibo markadun forma jaso diogu, “orregandik” hain zuzen.

—Adlatibo kasuan, bizidunen formek aldaera aniztasun handiagoa dute ablatiboan baino. Lekuko batzuek genitibo markarik gabe egiten dituzte hiru graduetako formak, *kmz*-k eta *razl*-k legez; baina beste batzuek genitibo mar-kadunak ere badarabiltzate horien ondoan, *kgg*-k, *nme2*-k, *naz*-k eta *f.a.*-k le-gez. Genitibo marka gehien darabilen lekukoa *kgg* da.

<sup>386</sup> Soziatiboari eskainitako atalean aipatua dugu jada ezaugarri hau.

<sup>387</sup> Gogoan izan behar da singularreko “orre(g)andik aparte” forma hedatua ere, bizidunen erakoa.

—Adlatibo bukatuzkoan forma arrunten ondoan *kmz*-ri “onen arte” forma jaso diogu, bizigabeentzakoa. Bizidunen formak *nme2*-ri eta *naz*-ri jaso dizkiegu: “onenganañok, orreganaño, arenganaño /areganaño”.

—Adlatibo bide zuzenezkoa gutxi erabiltzen den arren bizigabeentzako hiru graduetako formak jaso ditugu. Bizidunen formarik ez dugu jaso.

#### 1.10.1.1.3. Erakusle arrunten erabilera

Ahozko erabilera islatzen dituzten adibide ugari jaso dira. Semantika, pragmatika eta solasaldiaren gramatika aldetik azterketa sakona egin beharko litzateke erakusle gradu bakoitzaren erabilera ongi zehazteko. Kontuan hartu beharrekoak dira besteak beste aurrekaria/erreferentea non den, ahozkoa den ala gauza, zein alde-tarte dagoen (neurria, figuratiboa, denborazkoa...), solaskideen arteko eragina...; baina horrek bere-bereko lana eskatzen du. Hemen hurbilketa orokorra baino ez dugu egingo gai horretara.

##### 1.10.1.1.3.1. *Graduen arteko erabilera, bereizketa*<sup>388</sup>

a) Badirudi 1. gradua erabiltzen dela mintzagaia edo erreferentea bistan denean, aurrean, edo oso hurrean; solasaldian bada, mintzagaia erakuslea erabiltzen den inguru-inguruan denean. Bestela esanda, “ni” edo “gu” ikuspegi, edo hurreko fokalizazioz eginiko adierazpenetan erabiltzen da. Azalpenak-eta egite-rakoan ere usu erabiltzen da, baita estilo librean ere. Zenbait adibide:

*kmz* °<bilobaz> bai, áitxitxakiñ au!

*kmz* °bai!, drógia · baño txárraua da-áú! <tabakoa>

*kmz* °<ostra zabaltzeko> gorútz eixósu ... górutz!, górutz! ... oin sartu ... da oin, ra-rra! ebái barrúan ... beorrékin · <keinua egiten du> áú eiñ! ... óóólan! ... <ostra zabalik dagoelarik> aa, áú!, · áú da gausa edárra!

*kmz* °séin? báái!, Robérto!; · bai! txa béstiaa e órii, · il dok!, sélan dok e áú ee...?

*kmz* °ónetxe-día edárrak! · bábak! · Orlándo!: · au béroutu-taa · púúh!

*raz* °“orpúa” au! <eskuarekin erakusten du>: konkretamente au · átziau, “orpúa”, da · ankía ostían, “anká · áspixa”

*kmz* °geró es ipiñi án e · “Jabiér Etxeberríak esaésta”, e? <barrez> ... -“sé-euskaldún dok au?” · esángo dabe!

*kmz* °ta sélan eitxen dabe: “au nerétako, au surétako”?

*kmz1* °báña!, amák etá · bérba eingo súen báña!: -“au esáten da ólan, da béstia ólan”

*kmz3* °... da-“auxé daa · estai-ser · au da dolaria, au daa estai-ser...” · da ...

b) 2. gradua erabiltzerakoan, mintzagaia edo erreferentea ezaguna izanik, ez du zertan aurrean, ondoan, bistan egon; solasaldian ere mintzagaia lehenago

---

<sup>388</sup> Nahiz eta idatzizko esparrura mugatu, gai hori jorratzen du beste askoren artean J. GARZIA-k (1996, 81-112).

azal daiteke, tartean beste gairen bat ere dela. Nolabait adierazteko, “hi, zu, zuek” ikuspegiz eratutako adierazpenetan erabiltzen da, eta fokalizazioa hiztunarengandik urrutixeago dago. Adibiderako:

*kmz* °álan, *ra-ra!* jártzen día ta · norbérek eim biár · gorá! Bárre-itxen dosú?: orí égixa da, e?

*kmz* °Álfan! baña ... Álfak eitxe-seban · píesak · Lambrétanda- La- Lambrétiandako; da nik áretxek desárrollau, · motórra!: ... silíndrua éss!, orí Aréísagak eitxe-seban ...  
*kmz* *l* °... da báí ba!, estao sélan estaon biárrikan, ba beste urtébete eitxen baráu [eskolan] béste urtébete antxé-itxen dábe...! · Orí égixa da orí, e?

-*kmz* °... Da magéira, oríxe i-igualóri baña, · orríxan estáka · (?)... arantzárik (...)

-*kmz* °Méjikon dao, orí askó. · Órtixik etarutzen dabe-éraixa, tekila! ...

*kgg* °... lau ero bost áldis esa-ésta, “-óri Bergarákua da, óri amengúa ésta; óri Bergarákua da, óri amengúa ésta”: ba bueno! <*kgg*-ren idiolektoko ezaugarri batzuk>

c) 3. gradua mintzagai dena aurrean, bistan, ondoan ez dagoenean erabiltzen da batez ere; denboraz ere urruti dagoena adierazten du. Mintzagaia berriberria izan daiteke solasaldian. “Hura, haiek”, kanpotiko ikuspegizko adierazpenak dira. Adibidez:

*kmz* °aa! betí moskortúta séuan á!

*kmz* °bái!, á! a a á berá bé!: á etxían pijámia jántzitxa dao-oían!

*kmz* °jóéér! nnn- nun dao á kollária?, mekáguen diés! .. nun dákat · nik á?... ... Oiñ estákitx!, erakutzikotzut egunen batén! ...

*raz* °“Bentantxíllia” dáa · lén básarrixan baákisu- akórdatze-sara lengó atíak? an dekan [sic] a txikíxa?: a da mentantxíllia [sic], · axé da bentantxíllia

*rmz* °axe, a, axe goiko txikixa iual isengo da! <seinalatzen duena bistan dago, bitri-nako garaikurra>

*rae* °... geró bere-ee sárdau berú eran da moskortuta! · átzeraka itxe-genduan da ixé · bueno!, au etxiau baño aldapa-aundixaotik ixa jausi gññan da..., búúúú!, ser san ááá!?, se san á!? ...

d) Graduen arteko kurutzaketak:

Azaldu ditugu gutxi gorabehera gradu bakoitzaren erabilera nagusiak. Baina solasaldian graduak elkarren ondoan ere aurkitu ditugu. Graduak aintzat harterakoan balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak ere gogoan izan ditugu. Bestalde, egin beharreko oharra da beheko adibideok erakusle arruntez osatutako esaldiak direla, baina erakusle indartuz osatutakoak ere hainbat eta hainbat jaso ditugu.

— 1. eta 2. graduak nahastea. Adibidez:

*kaz* *2* °<argazkian> ama?: AU! · OR illunian daona...

*ñaz* *2* °... Ta or len-len gáñera kampo-fúbola eondakua, au!

*raz* °... áibalá!, “áu oixé da!” da báái! ...

*ñaz2* °da, au! Txaltxakúa bé, · see... · Otolaa---etxéberri esan orí be?

*kmz* °<ostrak> órrek? Galísiatik, · ónek, e? <ez ditu beste ostra batzuk aipatu, mul-tzo bakarra dago>

— 2. eta 3. graduak nahastea. Esaterako:

*ñaz1* °ori serién, tontór-tontorrian san á!

*ñaz1* °antxé-euana!, estái-selakua sam-be-e?, estaki-selakua sam-be, baña-antxé-euana orí..., · antxé san á

*ñaz1* °ori goítzik etorse[sic]-sam-bañá, áxe-esán!

*ñaz2* °Mantxíbar e, Sallabenten · orí!, Mantxíbar áxe!

*kaz2* °... -“ori dala Estebanen alabia?! · txikixa?! · bal-txatxar ba-sónam-barren á!” ...

*ñmz* °... oixe tontorróri ero ise-leike á!, San Lorenzo...

*kmz3* °... léku bátzutan e, · ésitu eukitze-genduan · sekiulako arma bárrí txáá!, órretan ee, óixe bésteik estao!-fusilla t’ametralladora taa · tírua ta e- alkar íltzia bes-teikan daa... · oixe dok á! ...

— Gradu guztiak nahaste. Adibiderako:

*ñaz2* °a! ÁIXE!, o- ontxe daóna, está?, AU etxee... lusiau! Baña ORI Larreátegi áur-retik · béste batek eíban, e?, osa, ee Alejandro-Ordóñok eyéban orí, da géro ein san jabé Larreátegi

#### 1.10.1.1.3.2. *Forma arrunten eta indartuen erabilerá*<sup>389</sup>

Forma indartuak esana bereziki indartzeko, mugatzeko dela esatea ez da berria<sup>390</sup>.

Baina balio indartzailer berezi gabeko hainbat eta hainbat adibide jaso ditugu; lekukoei batzuetan berdin die forma arrunta erabili edo indartua erabili. Sarritan forma biak bata bestearen ondoan jaso ditugu. Izan ere, erakusleek duten funtzioetariko bat inguruko zerbait zehatz seinalatzea denez, ez zaigu harrigarria irizten horrelako adibideak aurkitzea. Baliteke graduazio antzerako ñabarduraren bat egotea, baina zaila da argitzea. Adibide batzuk:

*kmz3* °... da-“auxé daa · estai-ser · au da dolaria, au daa estai-ser...” · da ...

*kmz3* °... aek · trásatze-juek: “ara!, ra-rra, auxe t’auxe ta ólaxen dok au” ...

-*kmz* °... Da magéira, oríxe i-igualóri baña, · orríxan estáka · (?)... arantzárik (...)

<sup>389</sup> Nahiz eta idatzizko esparrura mugatu, beste askoren artean gai hori jorratzen du J. GARZIA-k (1996, 81-112).

<sup>390</sup> Hor daude orain dela urte gutxiko E. BARRUTIA-ren artikulu bateko iritziak: “Euskaltzaindiak bere gramatikan ez dinosku ezer -xe formen erabilerearen ganean (...) Hemen bere ez dogu sintaxiari begira eginiko definiziorik emongo, semantikeari begira eginikoa baino. *Hauxe* erakuslea *hau* baino enfatikoagoa da eta gehiago azpimarratuten dau besteak baino noren ganean edo zeren ganean egiten dogun berba. Ezezko esaldietan bere topetan doguz batzuetan” (in MENDEBALDE, 1998, 155).



-kmz °Méjikon dao, orí askó. · Órtixik etaratzen dabe-éraixa, tekila! ...

kmz °báai, ba- oríxe bai!, báakíxau óri!...

rmz °nik orí, óixe dakixat!: · milla peseta ta kopia ta mántak!

ñaz2 °a! bai!, orii... óixe, “Íbur”!, “Íbur”!... Mariáluisak esangotzun orí, está?

kmz1 °daa, an bos-dúroo gáltzia ee, axé da ba seróri · ero..., · axé bos-dúrokuori: a bos-dúrokúa lágatzen dosu ba, (?)... kajaráko lágatzen dósu á! ...

raz °“Bentantxíllia” dáa · lén básarrixan baákisu- akórdatze-sara lengó atíak? an dekan [sic] a txikíxa?: a da mentantxíllia [sic], · axé da bentantxíllia

rmz °axe, a, axe goiko txikíxa iual isengo da!

kgg °“a”, “áxe”, bíxak bárdin

ñaz1 °ba, áre-pe ba, · gúre-basuen isenik estabe · jakíngo, ta estákisu? ÉURENAK e... geu-pe, gú-pe’s ÁRENIAK!

Lekukoak ere konturatu egiten dira nahasketa horretaz:

kgg °eske -“xe” orí ... bardin erabiltze-ot “ori” ero “oríxe”, estákitx, aldérik estao, es?, ero bádau? ... osea, lélenguan es neukían esángo “pásaidasu oríxe”, es, -“pásaidasu óri” -“sein, au?”, eta -“es, oríxe”, bai, kasu ortan isan leike...

#### 1.10.1.1.3.3. *Bestelako erabilera duten erakusleak*

Hainbat eratako egitura lexikalizatuetan jaso ditugu. Sarritan erakusleen forma desitxuratuta ere badago. Forma indartuak ere sartuko ditugu tartean<sup>391</sup>.

— Denbora zentzua duten “oneskero, arreskero” formak. Aldaera asko dituzte: “oneske(r)o, onuske(r)o; onesker(i)ok, oñeskeriok<sup>392</sup>, onuskeriok”, “arreske(r)o, arreskeriok, arreskerokuan”. 2. graduak osatutako formarik ez dugu jaso. Adibideak:

f.a. °se ordu dou?, ónuskeo (?)... saspírak aldia...

kmz °orrék?: óñeskériok e, · irurogetamaa... sáspi-sortzí bat [urte]

raz1 uésaba barríxa-dakáus da, árreskerokúan ondo gábis

— Leku-denborazko genitibo marka itsatsirik, goi maila, superlatiboak sortzeko egiturak ditugu, “a(r)ta(r)ñoko” adlatibo bukatuzko formaren eredukoak. Adibidez:

S.B. tamaño ortarañoeko golfua...

nmz2 séla ise-leike or atáñoeko, aimbésteko gólfua?

<sup>391</sup> Hementxe azalduko dira indartuen atalean egiturak berrito errepikatu beharrean.

<sup>392</sup> Bere baitan kontsonante sabaikaria duen forma horrek oinarrian “orain” osagaia dela suposarazi behar ote du? Gure iritziz, oinarrian erakuslea duten beste formen pare-parekoa da, bai egituraz bai esanguraz, eta ezaugarri fonetiko hori beste formaren baten kurutzaketaz azalduko litzateke. “Orain” osagaiak parafraseatuz gero “\*orainez gero” genuke, eta hitzez hitzeko esangura benetan duenaren alderantzizkoa da. Ez da betetzen J.A. URIARTE-k Fruizko “oñik” formarentzat egiten duen oharra: “erakuslearen gainean osatua balitz, ez bailuke bustidurarik jasango” (1995, 388 58. oh.).

Horiek baino erabiliagoak dira oinarrian erakusleetatik eratorritako zenbaitaile zehaztugabeak dituzten formak: “orrenbesteko, orrenbesterañoko” eta abar:

*razl* orrembésterañoko gólfua...  
*naz* orrembésteko ardúrabakua

—Prolatibo kasu markaz ere esangura bereziak sortzen dira; oinarrian erakusleen oinarriak ez, forma konplexuagoak daude.

Leku-denborazko formak izan daitezke: “or(re)takotzat, a(r)takotzat artu” egituran<sup>393</sup>. Prolatibo zentzu nahikoa garbia du. Adibidez:

*nme2* ortakótzat estabe artú // *nme2* guk órrek, tóntotzat et’alpértza-daukaus ... -banik <<estauskas>> o- orrétakotzat  
*f.a.* -guk órrek tóntotza-dakáus -nik estakáras ba, atakótzat  
*naz* ori estabe-euki ... atakótzat

Oinarrian erakusleetatik eratorritako “ain-” forma izan daiteke. Horrelakoe-tan prolatibo markak bestelako ñabardura hartzen du, “gogoan izan, arduratu, kontuan hartu”... gisakoa. Sortzen diren formak “aintzat” eta “aintzakotzat” dira eta ez dute alderik esanguran. Esate baterako:

*razl* °gausá bat esán da, aintzakótzat ártu és  
*naz* dánoi gustatze-akúú... .. ka- .. -hesús...!- aintz- aintzat ártzia

Adibide baten prolatibo zentzuz ere jaso dugu baina:

*razl* -orrék tóntotza-dakaus ... -nik estítxut órrek aintzakótzat ártzen

—Inesibo egiturek ustea, iritzia adierazten dute “egon” aditzaren ondoan: “orre(xe)tan (egon)”. Adibiderako:

*kmz* -etxúa-pentzatzen eurírik ingo dabénik -bá! neu be · ortá-naok

—Motibatiboak zergatizko balioa ez ezik, hizlariaren jarrera ere azal dezake. Adibidez:

*razl* aréaitxi-pastéla-líbre dáre -*naz* agaitti-pastéla estii- líbre daos

—Adlatiboak berak dituen balioez gain, “or(re)tara ba” egituran bestelako ñabardurak ditu; interjekzioa izan daiteke, edo ondoriozko ñabardura har. Esate baterako:

*kmz* °ái amá!... .. órtara bá!: · artán ortán bagabíllas...

*nme2* °daaa... por-ejémplo esáutittut ee... · Auám, Auákua-pé, · séra!, · komparasiño bassetzeko ba, · oin daosen óne-Pedro Mári tt’Albértó tá...? ... ba, · órren... · bisabuelo esautu nebán ... bai! bai! · ORTÁÁ BAA, bos gisáldi dia orrek; · eta bos gix- ee gisal-díxan-nik uste ot síglua isengo dala...: ésto-sékula-aklárau! · bañá... <gogoeta hori Eibarko “gisaldi” berbak “mende” ala “belaunaldi” esan gura duen argitze aldera egina da>

<sup>393</sup> I. LASPIUR-ek berriz, “egon, euki” aditzak dakartza (1999, 43).

#### 1.10.1.1.3.4. Egitura konplexuagoetako partaide

—Zenbait galdekariren ondoan: “setan (ero) a(r)tan” erako forma zehaztugabea. “Zerbaitetan”, jarduna adierazten du. Adibidez:

*kmz* setan ero ... ero artán, béti bíllatze-ó-biarra  
*f.a.* setán-atán, démporia pasau bie-da // *f.a.* setán ero átan

Egitura horren parekoak dira erakusle hutsez osatutakoak; “a(re)tan (ero) onetan”, “artan ortan”, “artan da orretan” dira gure ustez jatorrak. Adibiderako:

*f.a.* atán-onétan, goixétixa pasau-aku  
*raz1* arétan ero-onétan démporia émon eim-bia-da  
*kmz* artán ortán, · béti bíllatze-ó-biarra  
*kmz* °ái amá!... ··· órtara bá!: · artán ortán bagabíllas... <“nola edo hala” ere esan gura du>  
*rae* °eráitxeko prepárau barrío!, ta gero garixa eraíñ! Da bueno!, artan-ortan Gabónak!...  
*nme2* artan da orrétam-ba...

Forma zehaztugabe guzti horietan hurrenkera urrutieneko gradutik hurrenara doa; gaztelaniaz alderantziz egiten da —“en esto y en aquello” adibidez— eta egitura hori duten formak erdarakadatzat har ditzakegula uste dugu. Honelakoak hain zuzen:

*nme2* ontán e- ortán eo ártan, · béti topatzen dau biarra // órtan eo ártan  
*raz1* onétan da arétan, ge- go- goixétixa pásau in jáku

—Galdera-erantzun hitz-jokoetan; “-se ba? -a ba...” ereduak deklinatu egin daiteke. Adibidez:

*armz* °óri lagun ártian esaten dá ... -“sé bá?” ta-“á ba!”, · estakisú?, e? -“ke?” i -“ké!” éstakisú?, esáte-morúan, -“sé bá?” ta-“á ba” <barrez>  
*kmz* °... orí? o- sárrí!: kuádrillan, diskusiñua, -“setáko díñok au?” eta · -“atáko!”  
// *kmz* °-“setáko?” ta -“artáko!”  
*kmz* °-“seáitxik” eta -“aáitxik”

#### 1.10.1.1.3.5. Egitura adierazkorretan

Honakoak ditugu sail honetan adibidez:

a) “Erakuslea + *izan*/edo beste aditzen bat + *izena/izen* sintagma” egitura.

Perpaus erlatiboak ere onartzen du ondoan. Adierazkortasun handia lortzen da horrela. Ahozko hizkera bizian oso erabilera aberatsa du. Batzuetan adierazkortasuna, hizlariaren ikuspegi subjektiboaz azaltzen da bakarriz; baina bestetan ugaritasuna, askotasuna, handitasuna ere adieraz dezake. Erakusleak edozein gradutakoak izan daitezke eta singular zein plural formak erabil daitezke; teoriarik behintzat, erakusleak onartzen dituzten kasu markak har ditzakete. Lan ho-

netan batez ere nominatiboko eta ergatiboko adibideak jaso ditugu. Adibide batzuk ipiniko ditugu, lehenengo singularreko adibideak eta ondoren pluralekoak; kasu marken hurrenkera deklinabidean gorde duguna izango da:

*raz1* °... <oso baxu> á da saparráriaaaa... bentánia ístera noya! píffaa...! Au- au da xáxariáá! au da xáxaria egualdíxaná! Á! sú! Ber- Bergaráko fiéstetan lem-be · euri-xa itxe-ban, e?, gure démporan... ...

*kmz* °au edárra daona!

*naz* ori da mutilla indda dauena sure semía!

*naz* orí da in ddoún astokérixia!

*rmz2* °... á súan jentía!, ási Eibárren da or, ... serétik, Arrájolatik, · Atxúlietatik [sic] or mendíri-méndi sé jénte! ...

*naz* aíf, óne-tripakómiñak!

*raz1* °... Enéé!, órre-dia létrak-etá!, úuf!, bénga! ...

*raz* °... trumóia datorrénian esaten- [sic] “eneeé!, órre-dia ode-ádarra-daosénak!” ...

*kaz2* °... áre-sitxuan lapíkókak! ...

*lraz1* í! ... orre-akan silbóta!

*naz* árek in ddau surrutária!

*nme2* au da keyá!

*kmz* °orí da príxia!

*nae* °ááá da ume guápuee!

— Batzuetan, erakuslea errepikatu egin daiteke:

*raz5* °... -“eníí! o-ri, <barrez> ori-orí don trástia! ...” ...

*naz* °baai bañá, estakiu bá!, se kristó-bal, e?!, dauken!: txarri...!; jesús-marie-ta-josé! Baña, · sóbre ga- gausía, e?, · da, ori! ori lupukerixia!

*kaz2* °da, · “ké guapa estáás”, “ké joben estás” da... · <asko indartuz> aa-aa posá!, e?

— Erakuslea amaieran ere errepikatu daiteke:

*kmz* °áu da oná-au!

*nme2* °baai!, báitta!, bai -“orí do-káiku óri!”: séose · ee... itxúra bako gausá bat ero esaten dabenien ... esaten [sic] da ee...

*raz1* orre-daka tri- tripía orrék!

*kgg* árek esán sitxúan, árek

— Aditza isilduta:

*nme2* au berúa!

*raz1* °... esan dot “orí gánoria-andrakúmiana!”: laroei ba-kílo bai! ...

*raz1* °... <ospitalean> baña ján!?: ai ké riko! · *ptx*! árek ollas- árek... á tajadá edá-rra ne- legátzana!, aai, ké ri-...; á tortíllia! jamóya ta... jesús, áii... etxata sékula-ástuko. Bénga!

*kmz* °baái! · Goixeko-ordu bíxetan eró ta · o- orrén billúrra! etxéra juateko!...

*f.a.* °arem-posá!

b) “Erakuslea + ze/zelako galdetzailea + izena/izen sintagma” egitura.

Ondoko izenaren edo sintagmaren lekuan perpaus erlatiboa ere erabil daiteke. Egitura hau ere adierazkortasuna lortzeko erabiltzen da. 3. graduko erakuslea erabiltzen da. Adibiderako:

*razl* °... one-moruan gausak ingo balitxukie-elitzake · sárraparraik eongo. Baña, e, á se sarráparrák!

*razl* °a se sírkua dakasuen ume txikixakiñ! · datorrenakiñ!, · sírkua!

*nme2* á selakuak in sittuan arék!

*razl* a selákotxía-dían! a seláko néskak, betí asarretuta d- daos árekiñ! árek! asarretuta betí! · a selakótxiak...!

c) “Erakuslea + IZAN + izena- +inesibo mugagabe marka” egitura.

Aniztasuna edo kantitate handia adierazteko erabiltzen da<sup>394</sup>. Adibidez:

*razl* au d’autzétann!

*razl* séma-perníñll! ... °len órrek, antxíña, sártu sukáldian da -“jésus neská! · orí dom-perníñllétan!”: baña oiñ estao! ...

*kmz* jesús!, á-ó-kétan!

d) “Ori da!” egitura; baita pareko “ori!”, “ori ba!” eta “ori bai!” ere.

Baiezkotasuna, adostasuna adierazteko erabiltzen da baina indartuz. Ahozko lagunarteko solasaldian oso erabilera aberatsa du. Esate baterako::

-*raz5* °baai!, e, e, Sakábixa ta...

-*f.a.* °óóóri! ori da!

*kmz* °...bai!, óóri da!, písínia!, kúmbua!

— Aditza isil daiteke, eta erakusle soilak betetzen du funtzio baikor eta adierazkorra. Nahi beste bider errepika daiteke. Adibidez:

*ñazl* °óóri! bai, txaletam-béstekaldian an! · Bésterik esan eongo-or...

*kmz* °óri! óri!, · tirátu! tirátu!

*kmz* °<sei urteko bilobari, errezoia emanaz> óóri-óri-óri-óri!

— Goikoen antzerakoa litzateke zentzuz “ori ba!” egitura. Adibiderako:

*kmz* °o- óri bá! · “-“Naikúa jauu!” · -“atzó i- il génduan · erbí bat, · bos-li- bos-líbra sekáana!” · -“téa!-téa!-téa!-téa!... amábi bé!...” béstíak -“gítxi dok alá?””

— Goikoen antzerakoa litzateke “ori bai!” egitura ere. Esaterako:

-*kmz* °mendíxan es!: errekátxuan!

-*kmz*l °bueno!, mendíxaan baña en-jéneral eitxen dá ba mendíxan ba · erréka bastá-rretan daa...

-*kmz* °e-e-e-e... báái!, orí bai!: mendíxan es!, erréka bastár-...

---

<sup>394</sup> Ikus inesiboari eskainitako atalean ere, eta izenondo-aditzondoan mailakatzearan atalean ere jaso da.

Baina batzuetan, ordea, ñabardura aurkaria du:

*kag* °... baña eske <<ikásle>> óri!, el pobre!, lan- el póbre!, lána topáu dau ikásle orrék ... eta · nire <<táldian>> así da! ... Eta gaur euki dó-leléngo egúna, eta eus-kaltégi érdi seuán, -“sé modúus?”: pero ké pasa?, osea... esá-nebálako “a!, ba sé potxólua dán!”, ólan! ... Unaaa salséra, bueno!: · óri bai!, ni- euki seban afarixa éure-kin etaa · -“A!, espasara etorri biar afáirira enroyauko dó-béste batékin!”: osea, bueno!, nirékin?, bai ala es? ...

#### 1.10.1.1.3.6. *Galdera “erretorikoetan”*

Hizlariaren iritzia adierazten da, zerbait gehiegizkoa, neurritz kanpoko, menperatu ezina iruditakoan. Esate baterako:

*razl* orí sér dó-páá? · ori sér dó-pá béste bátzu-paño géixao...!?  
*razl* °baña... sutáko autzakin garbítzia!... enéé! andráá!... ser da-áá?!... Oim-bisí gará e, bueno! oim-bisi garáá · markése-morúan...  
*raz* °... ordúan egunían eieban euríxa desde luego, enééé!, sér san á! D’Eusébio-ór-totzik! ... abárketa-galdúta lokátz artían!  
*razl* °... <txakurrei errieta egiten> makilla saldía! ... ser dia ónek! ...

#### 1.10.1.1.3.7. *Zuzeneko estiloan*

Horrela eginiko azalpenetan, edo gertakarien kontaketen, isildutako osagaien ordez erabiltzen dira. Gainera, erakuslea errepikatu egin daiteke, edo beste erakusle edo osagai batzuk har ditzake ondoan, “bata, bestia” esaterako. Adibide batzuk:

*kmz* °... aitxá?, aitxá san organisadória: -“bueno!, oiñ e au, au-t’au-t’au... índakáus [sic], · alako lékutara jua- juángoaitxuk eta báta ta béstia...”  
*kmzI* °e!, bátzuitxú-baa..., más nobles, jártzen dias bérbetan ó jár-: arék es!, arék eskíllarak iyó, ta béstia ta á ta áu ta...  
*kazI* °... a eskondu san ... Arróta básarrikuakin, · ta géro, distingítzeko ·· báteko-Otolerdikuaa ta Otolá-au ta beste ta bestía, esatetz- Otóla---Arrúetanekua, · e? ...

#### 1.10.1.1.3.8. *Osterantzeko erabilerak: “aren baten, orrenbaten” egiturak*

Formaz, lehenengo osagaiak erakuslea dirudite, edutezko genitibo kasu markaz. Baina esangura adberbiala dute<sup>395</sup>:

*kazI* °Ma- Makálarrokua orixe isango san árem-báten!: bátzu-Kakálarrokua esatez-tem-béste bátzuek · Makálarrokua, nik estákitt e, orí e, dokuménto bat ikusi bari-see... isen...  
*km2* “Orrenbaten agertuko dok”

<sup>395</sup> I. LASPIUR-ek ere aipatzen du “esamolde” hori (1999, 41).

### 1.10.1.1.3.9. Erakusleak solasaldiko laguntzaile, komodin gisa

Adibideen arabera erakusleek ñabardurak hartzen dituzte. Erabilera hau oso-oso bizirik dago ahozko solasaldian eta jaso diren adibide pilo handiak hori zalantza barik erakusten du.

— Batzuetan ez du inongo izenen ez gauzaren ordez funtzionatzen, hizlariaren solasaldi jarioan zalantza, oroimen hutsunea, pentsatzeko astia eta abar betetzeko erabiltzen baita, besteak beste. Horrelakoetan ez du perpausean funtzio gramatikal nagusirik; beste era batera adierazirik, “zera”-ren funtzioa betetzen du, eta inoiz, elkarren ondoan ere aurkitu ditugu. Zenbait adibide:

*kmz* °<bere aititaz> Eibarkúa. Bañaa, orí san, ·· filántropúa!: biárrik es!  
*kmz1* °... len pásatze-sána, lén éuskera-éuskera-éuskera mas- errémintxei deitzet-  
zén. Geró etorri san ori báta-kastilláno ta béstiak e fransés da béstiak inglés da gero  
ákabo!, nas- nástau! ...  
*kmz1* °“baráutza” taa, órre!-“baráutza” taa... t-xí!, áu! e “birbíkixak” etaaa...  
*kmz1* °au e, amén itxúria-amén eskólarem-bá-séuan · da-á eskólia ...  
*raz5* °Txáro-ori será, Márión e, andría!  
*rmz* °... Bueno!, berá, berá ónddio (?)... jartzéka júuan!: séra ori ... oñ e se, Eibár-  
rren dao á! sanidadian dauana!  
*ñaz2* °Arrúeta!: orí ee..., ·· Arrúetanekua será, e, o- Otólakua-sian órrek: Mariálui-  
xanak esián?... ·· e?: Mariáluiak esáutzu?  
*rmz2* °... daa, · aixkólárika-pé baa, ·· ónak!: lem-be bai txa oim-be bai txa bañáá, ··  
óri! · óiñ...  
*kaz1* °e, Kátillunian eote-san e, Karrástiñeko au oñ e, oñ e séra-badaos ba grúas Ka-  
tíllu?, ba-an kanterá ba-san!, e? ...  
*nme2* -“bai-bai-bai! “txortía” bai! · óri, loriána txo- lorianaa “eskutada ba-lorá” es  
ee... “lore txórta bat” es- esaten dá! ...  
*nme2* óri, · Retégi · pelotari esaúnek · telebisiñuam-berba in dau

— Baina beste batzuetan dena delakoaren izena ez delako oroitzen edo ziurtasunez ez jakitearren erakusleak erabiltzen dira, aurrez ez aipatu izan arren edo hizlari-entzuleak biak mintzagaiaren jakinean egon barik. Esate baterako:

*kmz1* °órrek e · aíñekin ero dábil bá!: da ontxée · e astían · baa ontxé sortzí eró...  
—*kmz3* °... armérua-sitxuan áre-bañá-artermuak ·· fusillának eta ·· órrek amatrálla-  
doanak eta ...  
*raz5* °ee!, es, béstiori..., ori... nárra!  
*rmz2* °... postúrak etá-ásko ingo sitxúan (?)...ik eta séra-pe báí, kampeonátuak eta  
órrek, · da, aixkólárika-pa lén, · neré ustés obfák euásen, obfák! Oim-preparasiño-  
obía! ...  
*ñaz1* °órtxe inguruan san!: órtxe!, ortxee ínguruan san! ·· ori etxia! · Séra béste bat!,  
Kantoiko-ori béste bat ee, estákiñ? ee... ·· Isasíkua? ...  
*kaz1* °... isates bera len · e kuadrau bat san. Auu... Markeskuan da ee... antzerako etxia  
*rmz5* °lótu im-bittú-bustarríxan! ·· da geró · ipintze-akuesek ·· ori ee lotzen dana  
esatau “burtería”!

—Bestetan, determinatzaile itxura hartzen du baina ez da determinatzailea, jakineko subjektuak adierazten duten izen berezien zein arrunten ondoan doanean adibidez. Adibide batzuk:

*kmz3* °baaai... enééé! ni ·· ontxe be antxe akaas nik e, ·· Ustapíde, Bákxarri, au ee Laxarte... tt- de, etxai-sématen · liburuak! etxian! ...

*rmz* °Urbasátik etortze-suan ori Pantáleon!

*rmz2* °... Ormaetxea-anáyak! jokátuko léuskiolá, jokátuko liskiolá...!: jokátu árerí t'árerí be iguála!, txápo! orrék Abóntzak ...

*rmz2* °... arék Juanító-sé sufrídu bám-baña juán!, juán!, da, · bi ordú · pasáuan irúan sufrí-(?)...

*rmz* °da óne-Felipe Samártin dda be nerekiñ esitxuan íbflí!, lau-urte sárrao ba órrek e, · geu sar- gu sartu íñanian órrek e, kámpoa! —*kmz3* °... emote-juen, séa emote-juen e, óne-tórtillak eta gausaa... · rápiduak! ee... · nai dabenándako taa... ...

*rmz* °eunero es! géro apupillo · Maltzan éuan! ·· ferróbiarixuekiñ... ·· Dána kastillanua íxá! Maltzán!, fe- ferrobíarixo-órrek e kriston estasiñua jéuan orduán! ...

#### 1.10.1.1.4. Ondorioak

Formari dagokionez, singularreko hiru graduak kontuan hartuta, nominati-boa beste kasuetatik bereizirik dago, Aginagakoan motibatibo formetan izan ezik. Izan ere, beste kasu markak “on(e)-, orr(e)-, ar(e)-” oinarriei txertatzen zaizkie orokorrean, loturazko bokala aukerakoa izaki kasu batzuetan, datiboan eta inesiboan, esaterako; beste kasu batzuetan nahitaezkoa da, ergatiboan eta soziatiboan, adibiderako, besteak beste.

Aipagarria da instrumental kasu markaz dagoen forma bereizketa; batetik molde zaharreko formak daude, erabilera murriztekoak diren arren; eta bestetik alfabetizazioaren eraginez berriki erabiltzen hasi diren formak daude. Prolatibo kasua erakusleetan erabiltzen denean gehienbat “a(r)takotzat” eta “aintzat, aintzakotzat” formak erabiltzen dira; kasu marka erakusle soileri txertatuta ez dira hainbeste erabiltzen, galdekizunez forma batzuk lortu diren arren.

Leku-denborazko kasuetan bizigabeen forma guztiek *-ta-* artizkia hartzen dute, itxura mugagabea emanez baina esangura guztiz mugatuz. Erabilera alde-  
tik genitibo da gutxien erabiltzen dena, esapidetan adibidez, lekukoak kontu-  
ratzeke. Forma horiek gehien darabiltzan lekukoak, *kgg-k*, alfabetizazioaren  
ondorioz egiten duela uste dugu. Inesiboko forma bizigabeak erabiltzen dira  
ekintza adierazteko batez ere eta esapidetan, leku zentzuz ez baitira ia erabili  
ere egiten. Inesiboko formak gehienetan loturazko bokalez egiten dira. Ablati-  
boko formek ere erabilera murrizta dute ezagutza inork ukatzen ez duen arren.  
Adlatiboko formak ere lekua baino areago, ekintza adierazterakoan erabiltzen  
dira; aldaera erabilienak loturazko bokaldunak dira, forma murriztagoak ere le-  
kukoan ahotan bizi diren arren. Adlatibo bukatuzkoa ere erabiltzekotan leku  
zentzurik gabe erabiltzen da; eta adlatibo bide zuzenezkoa ia galduta dago era-



kusleen eremuan. Zer gertatzen da, horrenbestez, honelako erakusleak leku zentzuz ez erabiltzeko?: bada balio erakuslea duten adberbio kategoriako formek ordezkatzan dituztela (“amen, or, an” inesiborako, adibidez; eta horrela kasu guztietan).

Leku-denborazko kasuetan bizidunen formak oso erabiliak dira, forma bizigabeak ez bezala. Edutezko genitiboaren marka aukerakoa da kasu gehienetan, baina ablatiboan esaterako, ez da erabiltzen marka hori. Adlatiboan ostera, Aginagakoek eta kaletar zahar batek darabilte marka hori. Adlatibo bukatuzko eta bide zuzenezko forma “zaharrak” erabat galduta daudela esan daiteke; lekuko gaztearen ahotik jaso baitira bakarrik bukatuzko adibide bakan batzuk. Edo nola ere, gaur egungo molde berriek eta alfabetizazioak eraginik izango dela uste dugu.

Singularreko forma gehienak, nominatibokoak ezik esaterako, pluralekoekin neutralizatu egiten dira, sinkretismoz. Singularreko loturazko bokala, izan ere, ezaugarri pluralaren tinbre berekoa da, *-e-*. Batzuetan azentuak lagundu egiten du forma bata eta bestea bereizten, baina ez da erabateko bidea. Bestalde, singularrez loturazko bokala kasu batzuetan aukerakoa denez, loturazko bokalik bako formak ez dira pluralekoekin nahasten.

Pluraleko formak, beraz, singularrekoak baino bateratuagoak, trinkoagoak dira, plural ezaugarria kasu guztietan agertzen delako. Dena dela, instrumental kasu markadun forma zaharrak ia galduan daude, Aginagako lekuko zaharrari jaso baitzaizkio bakarrik; kaleko lekuko gazteak forma berriak darabiltza, eredu normalizatukoak.

Leku-denborazko bizigabeen formak plurala markatu nahi denean erabiltzen dira batez ere, eta *-ta-* artizkia kasu guztietan ageri da, jakina. Nolanahi ere, balio erakuslea duten adberbio kategoriako formek plural formak ere ordezkatzan dituzte, bakartasun-aniztasun ezaugarria guztiz ezabatuz.

Leku-denborazko bizidunen formetan genitibo marka txertatzea aukerakoa da. Alternantzia batzuetan kasuka da eta beste batzuetan kasu bakoitzaren barrena. Adibidez, ablatiboan genitibo marka hori darabilen lekuko bakarra kaleko gaztea da, agian alfabetizazioz; horrek esan gura du forma zaharra, jatorra, genitibo markarik gabea dela. Baina adlatiboan aldaera bakoitzak erabiltzaile gehiago ditu, ez da hain banaketa garbia egiten. Adlatibo bukatuzko formak Aginagan bizirik daudela dirudi, hango lekuko nagusi biei forma bakan batzuk jaso baitzaizkie, genitibo marka aukerakoa izaki. Adlatibo bide zuzenezko formak, ordea, guztiz galduta daude ahozko jardunetik.

Erabilerari dagokionez, erakusleen gradu bakoitzak eremu berezia du inguruko hainbat faktorek eraginik. Baina batzuetan graduak nahasirik ere erabiltzen dira, aurrekoa erlatibizatuz.

Erakusleen forma batzuek, erakusle soilenak baino forma konplexuagoek gehienetan, esangura lexikalizatuak dituzte, bai denborazkoa, bai mailakatzailerak, bai ustezkoa, bai jarrerak adierazteko, bai kantitatezkoa...

Sarritan agertzen dira egitura konplexuagoetan, esapide modukoetan, hitz-jo-koetan, harridurazko egituretan eta abar, oso-oso eremu aberatsa sortuz.

Bestalde, solasaldirako laguntzaile legez ere erabiltzen dira: zuzeneko esti-loko kontaketen, isildutako osagaien orde; edo komodin gisa, adibideen ara-bera hainbat esanahi ñabardura harturik.

#### 1.10.1.2. INDARTUAK

Atal honetan forma eta aldaera aniztasuna da nagusi lehenik eta behin indartzeko moduak ere ugari direlako. Lehenengo indartze formen inguruko azal-pentxoia egingo dugu eta ondorik kasu bakoitzeko formak eta aldaerak aztertu-ko ditugu.

Indartze moduak atzizkiz zein aurrizkiz izan daitezke, aldaera batzuetan artizki legez ere egiten dira; edo egitura konplexuagoz. Modu bakoitzari zenbakia ipiniko diogu eta atal honetan barrena zenbaki horiek erabiliko ditugu indartze modu bakoitza izendatzeko:

- **1.-** *-(t)xe* atzizkia (“*auxe, o(r)ixe, axe*”).
- **2.-** *a(u)-* aurrizkiz (“*aori*”).
- **3.-** *eu-* aurrizkiz (“*eurak*”).
- **4.-** *a- ... -xe,* aurrizkiz eta atzizkiz (“*aorixe*”).
- **5.-** *ber-* aurrizkiz (“*berau, bero(r)i, bera*”).
- **6.-** “*Erakusle arrunta + ber-* aurrizkiz indartutako gradu bereko erakus-lea” egitura. Kasu marka erakusle bietan itsatsi daiteke edo bigarreanean bakarrik (“*au berau, ori bero(r)i, a bera*”).
- **7.-** “*-(t)xe* atzizkiz indartutako erakuslea + *ber-* aurrizkiz indartutako erakuslea” egitura. Kasu marka erakusle bietan itsatsi daiteke edo baten bakarrik (“*auxe berau, o(r)ixe bero(r)i, axe bera*”).
- **8.-** *ber- ... + -(t)xe* (“*beronetxek, berorretxek*”).

Orokorrean, **1.-** atzizki bakarra da indartze modu nagusi eta erabilienetari-koa. **2.-** eta **3.-** aurrizkiak agian marka bakartzat hartu beharko lirateke. **4.-** modua Eibarren ez da erabiltzen adibide isolaturen baten ez bada. **5.-** modua forma gehiagori txertatzen zaio aurrekoa baino, askoz emankorragoa da. **6.-** modua, egitura konplexua izanagatik ere, erabilera aldetik aberatsa da lekuko gehienen ahotan; **7.-** modua ere oso erabilia da baina **6.-** baino gutxiago, konplexutasuna ere handiagoa baita. **8.-** modua ordea, ez dakigu sistematikotzat hartu ala ez, batez ere *kgg*-ri jaso dizkiogun formak direnez eta sarri txantxetan eraturakoak.

Formaz baliteke egitura batzuek indartze maila handiagoa dutela irudi iza-tea, baina ahozko solasaldian forma indartuek antzerako “indarra” dutela uste dugu. Izan ere, marka-morfema indartzaileen ondoan beste bide batzuk ere la-guntzaile baitira, bokal edo kontsonante luzapenak, errepikapenak, intonazioa, keinuak, eta abar.

Erakusle indartuon azterketari ekin baino lehenago ohar bi egingo ditugu, formaz hirugarren graduko erakusle indartuak direnek hirugarren pertsonako izenordain pertsonalen<sup>396</sup> funtzioa dutelako. “Bera” eta “eurak” dira hain zuzen forma horiek; singularreko forma *ber-* aurrizki indartzailez osatuta eta pluralekoa *eu-* aurrizkiak. Bi izenordain horien berri atal honetan bertan emango dugu baina beste erakusleengandik bereizirik.

Indartze modu bakoitzaren kasu guztietako forma denak banan-banan aztertzea lan luzea bezain alferrikakoa litzateke eta orokortasunak aipatuko dira; eta kasuren baten formazko aipagarririk balego horixe aipatuko da bereziki azterketa honetan.

### 1.10.1.2.1. Singularreko formak

#### 1.10.1.2.1.1. -(t)xe atzizkiak indartutako formak (**I.-** modua)

S. ALTUBE-k forma hauei “Demostrativos intensivos” izena ipini zien (1975, 71).

a) **I.-** moduaz indartutako nominatiboko formak “auxe, o(r)ixe, axe” dira, baina beste kasu markak hartzerakoan bestelako forma dute<sup>397</sup>; ergatiboko formak, esaterako, “onetxek, orretxek, a(r)etxek” dira.

Bi ondorio atera ditzakegu aurrekotik. Batetik, oinarria aldatu egiten dela, eta “kasu oblikuo” gehienetako oinarri-oinarria “one-<sup>398</sup>, orre-, a(r)e-” da, eta indartzailea gehituz gero “onetxe-, orretxe-, aretxe-”. Morfema indartzaileak, bestalde, bi aldaera nagusi ditu, kontsonante frikari txistukari sabaikariduna bata (-xe) eta kontsonante afrikariduna (-txe) bestea<sup>399</sup>.

Goiko kasu eta adibideetan ezin ikus daitekeen beste ezaugarri bat ere badute **I.-** moduaz indartutako formek; indartzailea kasuaren eta aldaeren arabera atzizki izan daiteke edo artizki<sup>400</sup>: “onetantxe /onetxetan”.

Oinarrian ere, aipatutako forma “oblikuoak” izan ditzake, edo erakusle arruntak, “onetantxe” forman ikusi dugunez.

Orokortasun horiek kasuka izpituko ditugu zerbait aipagarririk jaso denean. Eredurako **1.** graduko formak ipiniko dira bakarrik baina beste gradu bietara

<sup>396</sup> Forma horiek izenordainena ez eze, erakusle indartuen funtzioa ere bete dezakete.

<sup>397</sup> Erakusle arruntten joera gordetzen dute hauek ere.

<sup>398</sup> Jatorriz, -e- bokal hori loturazkoa izan daiteke.

<sup>399</sup> I. LASPIUR-ek honela antzeman zuen ezaugarri hori: “-xe / -txe atzizkixaren erabileria be ez dogu danok bardiñ egitten. Badiruri, jeneralian, bokalaren atzetik -xe eskatzen dabela eta konsonantiaren atzetik -txe. Baiña ez da hori beti kunplitzen” (1999b, 90 2. oh.).

<sup>400</sup> Hauxe da I. LASPIUR-en iritzia: “Ez dago araurik. Esan deigun, **gehixenetan kasu-markia-  
ren aurretik darabigula**, eta atzian jartzen dogunian leku-denborazko kasuetan jartzen dogula bi-  
zidunen deklinabidian baiño gehixago” (1999b, 90 1. oh.).

heda daitezke; beste graduetakoa aldaera edo ezaugarri bereziak jaso ditugunean berariaz aipatuko dira:

b) Datiboan, hainbat aldaera jaso ditugu. “Onetxi, onetxe(r)i, onexi” da eredu-  
dua gradu guztietarako baina forma hedatuena lehenengoa da (“onetxi, orretxi,  
aretxi” alegia). Bigarren forma ere hedatua da baina lekuko batzuek ez dute  
onartzen, *f.a.*-k adibidez. Hirugarren formaren adibide oso gutxi jaso ditugu, 1.  
eta 2. gradurako bakarrik.

c) Edutezko genitiboan erabateko aldaera “onetxen” ereduakoa da hiru gra-  
duetarako, eta salbuespen bakarra jaso dugu 3. graduko “arexen” forma *kaz4*-ren  
jardunean.

d) Instrumental kasu markaz ez dugu adibiderik jaso.

e) Sozietibo kasu markaz “onetxekin” da erabateko aldaera, “\*onekintxe”  
erako formak guztiz arbuiatzen baitituzte lekukoek.

f) Motibatibo kasuan hiru aldaera jaso ditugu. Aldaera nagusia eta ia eraba-  
tekoa “onetxe(g)aitxik” da, baina *raz1* lekukoari “onexegaitxik” ere jaso  
diogu 1. gradurako eta *naz*-ri “orrexaitti[k]” 2. gradurako. 2. graduko forman  
“ortxegaitxik” ere jaso diegu *raz1* eta *kaz1* lekukoei, *-e-* loturazko bokalik gabe.  
Beste ereduak forma arruntetakoak erakoa da, “auxega(i)ttik” hain zuzen,  
*nme2*-ren eta *naz*-ren ahotan 1. eta 2. gradurako, 3. graduan biek “aretxegai-  
ttik” egiten baitute.

g) Prolatibo formarik ez dugu jaso.

h) Leku-denborazko kasuetako forma bizigabeak. Denek hartzen dute kasu  
marka *-ta-* artizkiaren ondorik edo formaren zati dela behintzat, erakusle arrun-  
ten antzera; esangura mugatu-zehatzez erabiltzen diren forma mugagabeak sor-  
tzen dira, alegia.

Lehenago ere aipatu den bezala polimorfismo handia dute. Erakusle arrun-  
tetako “arazoa” —balio erakuslea duten adverbio kategoriako formek horien le-  
kua betetzen dutela (batez ere leku esangura dutenean), alegia— ez da berrito  
aipatuko azalpenen baten oso beharrezko izan ezik behintzat.

—Leku-denborazko genitiboan “onetxetako” eta “onetakotxe” ereduak  
jaso ditugu, baina lekukoek joerak dituzte: *kmz*-k eta *raz1*-ek ez dute bigarren  
forma onartzen baina *naz*-k lehenengo erantzun legez darabil; *kgg*-k oster, za-  
lantza du 2. forma horren inguruan.

—Inesiboan, arestian aipatutako eredu biak jaso ditugu, baina nagusia  
“onetxetan” erakoa da. Beste formak, “onetantxe” ereduakoa, *kmz*-k guztiz baz-  
tertzen ditu baina beste lekuko batzuek arrunki darabiltzate, *nme2*-k eta *naz*-k,  
adibidez; *kgg*-k ez darabiltza forma horiek baina baztertu ere ez ditu egiten.

Areago, *nme2*-rentzat “onetxetan, orretxetan” piskat bitxiak dira baina “aretxetan” ez. Dena dela, bai *nme2*-k eta *naz*-k bai beste lekuko batzuek badarabilte “a(r)(e)tantxe” forma, *kmz3*-k eta *ñaz4*-k adibidez. Oinarrian erakusle arrunta duten formek haien aldaerak gordetzen dituzte, “onetantxe /ontantxe” alegia, loturazko bokalez zein gabe.

—Ablatiboan forma hedatuen ondoan (“onetxetatik” eredukoak) bitxiak ere jaso ditugu, baina ez genituzke sistematikotzat joko:

*kmz* -“núndik artu dosu?” · -“onetxéétik”

*naz* -s- séé-tátik líbrau gara? ... -a! baa, onetxátiik, onetátxetik líbrau gará

—Adlatiboan ere polimorfismoa jaso da. “Onetxetara” ereduko formak dira hedatuenak baina beste kasuetan legez Aginagakoek batez ere (*nme2*-k eta *naz*-k) era bereziz egiten dituzte forma hauek: “on(e)ta(r)(a)(t)xe”. Forma hori diasistamarako berreraiki daitekeen osoena da, baina forma horixe da lekukoek ez darabiltena, “\*onetaratxe” alegia (ez *nme2*-k ez *naz*-k ez dute onaritzen 1. graduako forma hori baina bai 2.ekoa, “orretaratxe”; 3.eko “\*aretaratxe” ere ez dugu jaso). Horren aldaerak jaso ditugu lekukoan ahotan, “ontaraxe” eta “onetatxe” ere bai. Era horretakoak jaso dizkiegu beste lekuko batzuei ere beste graduetan: “ortaraxe” *kmz3*-ri eta *f.a.*-ri; “ortarakotxe” *rmz*-ri; “orretaraxe, ortaxe” *kmz5*-i; 3. graduako “artaraxe” eta “artaxe” jaso zaizkio *nme2*-ri (“artaraxe” *f.a.*-ri ere bai eta “ataraxe” *rmz*-ri).

—Adlatibo bukatuzko markadun formak ez dira asko erabiltzen baina erabiltzen den eredu nagusia “onetxetaraño(k)” da. Forma bitxi bat jaso diogu *kgg*-ri, “aretxeraño”. Ablatiboko *kmz*-ren eta *naz*-ren forma “bitxien” erakoa da, *-ta*-artizkirik gabea.

—Adlatibo bide zuzenezko formarik ia ez dugu jaso, baina jaso ditugunak “onetxetarutz” erakoak dira.

i) Leku-denborazko bizidunen formak:

—Inesiboan *-gan* kasu marka *kgg*-k darabil bakarrik; beste lekuko guztiek jada ezagunak diren postposizioen eta forma bizigabeen bidez egiten dituzte inesibo formak.

—Ablatiboan, izen arruntetan eta bestelako kategorietan legez, edutezko genitibo marka aukerakoa da. Lekuko gehienek genitibo markarik gabeko formak darabiltzate (“onetxe(g)andik” erakoak), baina genitibo markadunak ere jaso ditugu (“onetxengandik” erakoak), *nme2*-ren ahotan.

—Adlatiboan, ablatiboan legez, genitibo marka gabeko forma da orokorrean lekuko guztiengan baina genitibo markadun aldaera darabilte *nme2*-k eta *naz*-k bestearen ondoan.

—Adlatibo bukatuzko forma bakarra jaso dugu *kgg*-ren ahotik, “aretxeganaño”, horrelako formen ezagutza eta erabilera ezaren erakusgarri.

—Adlatibo bide zuzenezko formarik ez dugu bat bera ere jaso.

#### 1.10.1.2.1.2. a- *aurrizkiaz*<sup>401</sup> *indartutako formak (2.- modua)*

Erakusleak indartzeko era hau adibide bitan jaso dugu bakar-bakarrik, *ñmz*-ren eta *naz*-ren ahotan hain zuzen. Beste lekukoek ez dute onartzen edo ezagutzen horrelako formarik. Jaso ditugun adibideak hauek dira:

*ñmz* °seuramente... · aóri Arraós b'Élgetakua da  
*naz* aóri da nik esaten dotena

Indartze modu hori balio erakuslea duen adberbio kategoriako “aor” forman agertzen dena da eta bakarrik kasu bi horietan erabiltzen dela esan dezakegu. Lekukoen iritziak adierazgarriak dira:

*raz1* °es, e?!, “aónek” es, e?!, et-et ... estót entzúm-be sékula nik!

#### 1.10.1.2.1.3. eu- *aurrizkiaz*<sup>402</sup> *indartutako formak (3.- modua)*

**2.-** modua ez bezala, **3.-** modua emankorra eta erabilia da baina ez erakusleen alorrean bereziki, pertsona izenordain funtzioz baino, 3. pertsona plurala “eurak, eurek, eurok” baita Eibarren. Pluralekoa izanik ere, hementxe garatuko dugu. Beraz, atal honetan emango da izenordain horren<sup>403</sup> berri.

Nominatiboko forma nagusia “eurak” da; “eurek” aldaera fonetikotzat har daiteke, edo beste kasuetako formen analogiaz sortutakoa, “eure(r)i”-ren erara, adibidez. Aldaera murriztago bat ere jaso dugu, oso gutxi erabiltzen den arren, “erak”. Lekuko batzuek ez dute forma hori onartzen, *kmz*-k eta *kgg*-k kasu; *naz*-k ordea, bai, eta *kmz*-k berak teorian ez onartu arren beste kasu batzuetan badarabil aldaera hori, ergatiboan adibidez. Adibide gehienak Arrate inguruko lekukoengandik jaso ditugu (nahiz eta nominatiboz ez izan), *rag2*-ren, *rag*-ren, *raz4*-ren jardunetik. Nolanahi ere, beste formen deklinabidea du aldaera honek ere; adibidez:

*raz2* °etxia erena da

Edutezko genitibo kasu markaz “eurak” ereduko ez den forma bakarra jaso dugu, “beren” hain zuzen (“\*berak” forma plurala suposatu beharko litzateke nominatiboan forma horretan oinarrituta):

*ñaz4* “... Sua ta ura beren neurrixan”

Gradu hurbileko formak ere erraz erabiltzen dira izenordain honi atxikita. Adibidez:

---

<sup>401</sup> J.A. URIARTE-k aurrizki hori “au-” legez interpretatu du, baina “a-” izan daitekeela ere onartzen du (1995, 392). Lan berriagoetan “ha-” jartzen dute, A. AREJITA-ren eta beste zenbaiten lanean adibidez (2001, 62. or. eta hur.).

<sup>402</sup> Ikus aurrizki horren inguruan J.A. URIARTE-k eginiko iruzkina (1995, 392-393).

<sup>403</sup> Ikus S. ALTUBE-k “Pronombres demostrativos reproductivos” atalean barrena egiten dituen azalpenak, oharrak, iruzkinak eta abar, beste erakusleekin batera (1975, 76-93). Ataltxo berezia eskaintzen die gaztelaniazkoekin alderatuz 3. pertsona izenordainei (1975, 89-93).

*nme2* °Idóya estauenien da Maríje-estauenien órre-komedixa edáárrak eraittuskus gurí [bilobek] ·· éurok alkáte!

Gradu hurbileko formak ez ditugu gehiago sakonduko<sup>404</sup>; gradu gabekoak aztertuko dira jarraian. Badirudi forma horren oinarria “eur-” dela. Ergatiboko forma nominatiboarekin neutralizatu egiten da, sinkretismoz, baina bietan suposa daiteke *-ak* pluralaren marka dela (ergatiboan soilketaz \**-ak-k* > *-ak*). Beste kasu guztietan kasu markak “eure-” oinarriari txertatzen zaizkio, eta *-e-* loturazko bokaltzat zein plural markatzat har daiteke.

Instrumentalean adibide bakarra jaso dugu, *kgg*-ren ahotik eta euskarako eredu normalizatuaren eraginez osatutakoa, “euretas”.

Prolatiboan nahikoa forma koherenteak jaso ditugu: “euretzat” *kmz*-ren ahotan eta “eurentzat” *razl*-en, *naz*-ren eta *f.a.*-ren ahotan<sup>405</sup>.

Leku-denborazko kasuetan, pertsona izenordain funtzioa kontuan hartuz gero, bizidunen markak hartzen ditu orokorrean, batzuetan bizigabe markak ere jaso ditugun arren (“euretatik”, adibidez).

#### 1.10.1.2.1.4. a- ... -(t)xe *aurrizki-atzizkiz indartutako formak (4.- modua)*

Beste hizkera batzuetan erabiltzen dira horrelako formak baina Eibarren ez dira ezagunak. Beste hizkeretan legez, “auxe” 1. graduko forma horrela indartutako formatzat har daiteke, baina 2. graduko formarik ez dugunez jaso, nahikoa argi dago hori 1.- moduaz indartutako forma dela.

#### 1.10.1.2.1.5. ber- *aurrizkiz indartutako formak (5.- modua)*

##### a) Esangura eta funtzio ñabardurak

Era honetara sortutako formek bi funtzio nagusi dituzte, batetik, gauzak, bizigabeak izendatzeko izenordain legez egitea, erakusle izenordain funtzioa; eta bestetik, pertsona izenordain legez egitea. Beste erakusleek ere betetzen dute pertsonen ordezeko funtzioa, baina bi adarretan bana daiteke; erakusle izenordain gisa erabili, ala 3. pertsona izenordain gisa erabili, gaztelaniazko “él, ella”-ren parekoa hain zuzen.

Horrenbestez, lehenengo erakusle izenordaina aztertuko dugu eta ondorik 3. pertsona izenordaina den 3. graduko “bera<sup>406</sup>” forma. 2. graduko formak

<sup>404</sup> Ikus pluraleko formei eskainitako atalean.

<sup>405</sup> Gogoan izan behar dira erakusle arrunten ataleko “onentzat, arentzat” forma pluralak.

<sup>406</sup> 3. pertsonako izenordain funtzioa ez eze, erakusle izenordain funtzioa ere betetzen du batzuetan, eta horregatik bai erakusleen atalean bai 3. pertsonako izenordain legez, birritan aurkeztu ditugu forma batzuk. Bestalde, “Hura” eta “bera” pertsona izenordainak teorikoki ongi berezituta daude, J.K. ABAITUA-k erakusten duenez: “*Hura* hace las funciones de pronombre obviativo, es decir evita la referencia a un antecedente en el mismo ámbito oracional, mientras que *bera* tiene el efecto contrario” (1994, 863), eta azken hau logoforikotzat hartzen du (*aip. lib.*, 861-866).

ere 2. pertsona izenordain funtzioa betetzen du batzuetan, errespetuzkoa hain zuzen (mailaka “hi, zu, *berori*”, alegia).

Forma indartu hauek —S. ALTUBE-rentzat (1975) “Demostrativos reproductivos” diren hauek— batzuetan beste moduetakoen pare erabiltzen dira baina bestetan ezin daitezke bata eta bestea ordezkatu<sup>407</sup>; izan ere, **1.-** modua “objektiboagoa” da, erakusleagoa; **5.-** modu honek erakusle balioa ez eze bihurkari ñabardura ere hartzen du inoiz. S. ALTUBE-ren hitzetan:

“A los demostrativos que prefijan la sílaba **Ber** (o **Eur** en los plurales bizkainos) llamamos reproductivos porque su función primordial y específica es la de volver a referirse, señalando su identidad, a un objeto expresado ya en la misma oración o frase (...) A veces el pronombre reproductivo precede al reproducido” (1975, 90).

Adibide bi asmatuko ditugu, ez baita bat:

“inork esan barik, *auxe/orixe/axe* etorri da”

“inork esan barik, *berau/berori/bera* etorri da”

Bigarren adibidea da gure ustez **5.-** moduaren balio<sup>408</sup> horren erakusgarri garbiena, lehenengoa piskat arraroa ere egiten baita; adibideotan pertsonak izendatzen dira, noski. Solasaldi asketik adibide batzuk ipiniko ditugu goiko esangura horren eredu<sup>409</sup>:

*raz* °geró- geró iñoix aitzári e lága motxília, bígarren-motxília ta berau Maltzára ta · aitzáá...

*kaz2* °... auxe áitxitxau · esautu nebam-bákarrik · da berau · óyan! ...

*naz* °... gu be..., barruem-ba!: onek esausta-Arratem-berau be isen sala bañá, beonek es, baa guk e..., púf! Gu e ...

*raz* °... onék e atía itxí!: da beróri be juergistía isénda e?, neré morúan etxían eon ba(r)i-beroi be mákiñatxo bá-bidár · goixéko bóstetan ...

*raz1* °... ori pelukerixan dao berori tta!

*raz1* berbá gitxi-itten dau ta berá sikúa

*f.a.* °alabá ba-dáka · da, berá Kanáriasen...

Gauzak zein pertsonak izendatzerakoan, baina beste inguru baten, berriz, berdintsu erabiltzen dira:

---

<sup>407</sup> S. ALTUBE-ren ustez (1975) **1.-** moduko formak eta **5.-**ekoak bakarrik gaztelaniaz itzuliz gero nahas daitezke, “mismo” berba forma bietan erabiltzen delako. Dena dela, gaztelaniako hitz horrek balio bat baino gehiago du, eta forma bakar horrek itxurazko neutralizazioa sortzen du bakarrik. Gainera, S. ALTUBE-k eskaintzen dituen adibideak ez dira erakusleak, adberbio formenak baino; izan ere, forma horiek lekuzko erakusleak dira bere azalpenean.

<sup>408</sup> Ikus S. ALTUBE-k egiten duen forma horien azalpena, sailkapena, erabileraren inguruko iruzkinak, eta abar (1975, 76-93).

<sup>409</sup> Adibideak nominatibokoak dira, baina edozein kasu marka dituen formak ere jar zitezkeen.



“emoirazu auxe/orixe/axe [gauza]”, “auxe/orixe/axe [pertsona] etorri da lehelengo”

“emoirazu berau/berori/bera”, “berau/berori/bera etorri da lehelengo”

Adibide horietan ez dugu alderik igartzen, bietan erakusle balioa nabarmenagoa baita<sup>410</sup>. **5.-** moduz indartutako formek ere nahikoa erabilera bizia dute lekuko en solasaldietan.

b) Formazko aldaerak. Atal honetan 1. eta 2. gradua aztertuko dira, eta 3.ari atal berezia eskainiko zaio jarraian.

—Nominatiboan forma hauek jar daitezke eredutzat: “berau; bero(r)i /bedo(r)i /beori”.

—Ergatiboan “be(r)onek, “be(r/d)orrek” formak dira, eredurako. Beraz, erakusle arrunten *-on-* eta *-or-* oinarriak daude beste kasu markak hartzerakoan ere. Orokorrean kasu markak hartzerakoan forma arrunten gisara<sup>411</sup> egiten dutenez, ez ditugu kasu markok banan-banan aipatuko, han begiratzea nahikoa da formazko ezaugarri nagusiak ezagutzeko. Ondorik, atal horretan jaso ez direnak aipatuko ditugu bakarrik.

—Datiboan, “be(r)oni” ereduko formak jaso dira bakarrik, loturazko bokalik gabekoak lekuko guztien ahotan.

—Instrumental eta prolatibo formarik ez dugu jaso.

—Soziatiboan, 2. graduko aldaera biak jaso ditugu, loturazko bokala duena (“berorregaitxik”) eta zuzenean “beroi-” erakusleari txertatutakoa, *naz-*ren ahotan azken forma hau. 1. graduan loturazko bokala duen forma jaso dugu bakarrik lekuko guztien ahotan, baina “beraugaittik” Aginagan erabiltzen dela suposatzea zilegi zaigu, jaso ditugun formak galdekizunez zuzenean galdetutakoan jaso baititugu.

—Leku-denborazko bizigabe formak **5.-** modu honetaz indartuta lekuko batzuek onartzen dituzte eta beste batzuek ez, baina edonola ere, ez dira asko erabiltzen. Inesiboan, *razl-*ek onartu egiten ditu “beonetan” erakoak; *kmz-*k eta *nme2-*k ostera, ez. Ablatiboan, *kgg-*ren eta *razl-*en ahotan jaso ditugu bakarrik

---

<sup>410</sup> Horretan ere bat gatoz E. BARRUTIA-ren iritziekin, *-xe-z*, *ber-*ez** edo forma arrunten erabileraz diharduenean, beste egile batzuen teoriak eta azalpenak nolabait erlatibizatuz: “Askotan, neur eritxiz, semantikoa bere ez da desbardintasuna, herrien edo pertsonen ohitura desbardinak izan leitezke” (in MENDEBALDE, 1998, 164).

<sup>411</sup> 1. eta 2. graduan Eibarko sistema bat dator orokorrean J.A. URIARTE-k Fruiz-erako dioenarekin: “Erakusleen forma indartuekin jarraituz, Fruizen badira **ber-** aurritzidun formak ere. Dena den (...) erakusle arruntak bezala deklinatzen baitira” (1995, 392). Hala ere, 3. graduan ez da hori gertatzen, Eibarko paradigmak orokorrean hauek baitira: “*a /bera, arek /berak, ari /bera(r)i, aren //bere /beran, arekin /berakin //are(g)as /bera(g)as, arendako //beretako /berandako, are(g)an /bera(g)an, are(g)andik /bera(g)andik, are(n)(g)ana //bere(g)ana /bera(n)(g)ana, are(n)(g)anañok //bere(n)(g)anañok /bera(n)(g)anañok, are(g)anarutz //bere(g)anarutz /bera(n)(g)anarutz*”.

forma horiek, 1. graduako adibide bakarra jaso diogu *kgg*-ri eta bera zalantzazkoa; 2. graduako forma onargariago da itxuraz, bai *kgg*-k bai *razl*-ek biek ontzat jotzen baitute. Adlatiboetako adibiderik ez dugu jaso; adlatibo soileko 1. graduako “beonetara” jaso diogu *razl*-i adibide bakarrean, eta hori ere ez du ontzat jotzen.

—Leku-denborazko bizidunen formak, ostera, arrunki erabiltzen dituzte gure lekukoek. Formaz, ez dago alde handirik erakusle arrunten atalean esandakoarekin. Adlatibo bukatuzko forma bakarra *kgg*-ri jaso zaio, 2. graduakoa.

Lekuko batek, *kmz*-k, gai hau galdekizunarekin lantzerakoan zuzenean galdetutakoan zalantza du **5.-** moduaz indartutako forma horiek Eibarkoak ote diren, baina solasaldi askean erabiltzerakoan jator asko darabiltza forma guztiak. Beste lekuko batek ordea, ez ditu formok nahikoa ezagutzen eta zuzenean galdetutakoan zalantza du edo arrunki erabiltzen dituela dirudi, baina solasaldi askean ez ditu sekula erabiltzen (guk jasotako korpusean, jakina); *kgg* lekukoaz dihardugu.

#### 1.10.1.2.1.6. ber- aurrizkiz indartutako formak pertsona izenordain legez

Aurreko atalean adierazi denez, 3. eta 2. pertsona izenordain funtzioa betetzen dute “bera” eta “berori” formek bereziki; baina lehenago ere adierazia dugunez, forma hauek erakusle-izenordain zein pertsona izenordain direnez, hiru graduetako formek bete dezakete 3. pertsona izenordain singularraren funtzioa<sup>412</sup>. Horretan bat egiten dugu S. ALTUBE-ren iruzkinekin<sup>413</sup>, baina guk bereizirik aurkeztu ditugu 1. eta 2. graduako formak batetik, eta 3.ekoak bestetik.

#### 1.10.1.2.1.6.1. “BERA” 3. PERTSONA IZENORDAINA

##### “Bera” izenordaina

*bera, berak, bera(r)i; bere /beran; beres; berakin; beregaitxik /bera(n)(g)aitxik; berantzat /beretzat //berandako /beretako //berantzako /beretzako; beratzat /berantzat (prolatiboa); berian, beragan /beran gain /bere gain; bera(n)(g)andik /bere(g)andik; bera(n)(g)ana /bere(g)ana; beraganaño /beraganaño; beraganutz*

#### a) Izenordaina (erakuslea) bera

Gradu gabeko forma da hedatuena, baina aipatu denez, beste graduak ere har ditzake<sup>414</sup>.

<sup>412</sup> “Eurak”-en kasuan “eurok” forma hurbila ere erabiltzen den legez.

<sup>413</sup> Ikus S. ALTUBE-k “Pronombres demostrativos reproductivos” atalean barrena egiten dituen azalpenak, oharrak, iruzkinak eta abar, beste erakusleekin batera (1975, 76-93). Ataltxo berezia eskaintzen die gaztelaniazkoekin alderatuz 3. pertsona izenordainei (*aip. lib.*, 89-93).

<sup>414</sup> Horiek lehenago azaldu ditugunez, forma eta aldaerak ezagutzeko ikus goiko atalean.

Pertsona izenordain legez duen funtzioaren erakusgarri *kgg* lekukoaren iritzia ekarriko dugu hona:

*kgg* “berari” da “a él”, es? ... esta “a akél”, es?, “berári” ... da “a él” nerétzat

—“Be(r)a” da nominatiboko forma eta beste kasu marka gehienen oinarria. Horri txertatzen zaizkio besteak beste ergatiboa, datiboa, sozilatiboa, ablatiboa. Adibidez:

*kmzI* °erósi es!: béra-jóte-ok árek eáрто árek! · Berá-jóte-ok árek, eáрто arek! ...

—Edutezko genitiborako aldaera bi jaso ditugu, eta liburuetan bereizketa teoriko<sup>415</sup> garbiak aurki ditzakegun arren, Eibarko ahozko solasaldietan forma biak nahasian erabiltzen dira, lekukoen idiolektoen arabera forma bata ala bestea gehiago edo gutxiago. “Bere” eta “beran” dira forma horiek. “Bere” da aldaera erabiliena, lekuko guztiek baitarabilte gutxi edo asko. Baina “beran” forma ere lekuko guztiek ezagutzen dute eta baita erabili ere; *kgg*-k darabil gehien, “bere” forma baino askoz gehiago, hori erabiltzea arrotza ere egiten baitzaio; baina *razI*-ek eta *naz*-k ere sarri darabilte, bestea ere ezagutzen duten eta darabilten arren, jakina. *S.B.*-k erabilerarako beste eredu bat dakar; izenlagunak ondoan izena duenean “bere” onesten du. Hau da, “bere txamarria” ondo dago bere ustez baina ez “\*beran txamarria”. Bestalde, izenlagunaren ondoko izena isilduta dagoenean, “berana” aldaera hobesten du, “txamarria berana da” alegia. Gure ustez, banaketa hori sistematikoa izan daiteke baina idiolekto mailan, ez orokorra.

—Ondorioz, edutezko genitibo marka aurretik hartzen duten kasuetan aldaera bi jaso ditugu: “bere-” eta “beran-”. Hori gertatzen da destinatiboan esaterako. Kasu horretan *beran*-dun formak erabiliagoak dira jaso ditugun adibideetan.

---

<sup>415</sup> S. ALTUBE-k, adibidez, “beraren” funtzio reiteratiboan eta identitatiboan erabiltzen dela dio; funtzio errebertsibo edo bihurkarian, berriz, “bere” da erabiltzen dena. Ikus bere azalpenak adibidez horniturik (1975, 81-87). I. LASPIUR-ek ere antzerakoa dio baina adibideetan oinarrituta batez ere, honakoa dio, “Nik (haren) *beraren* semia ekarri dot autuan. Baiña: Harek *bere* semia ekarri dau autuan. [ezkerreko esaldixan *nik hirugarren baten (haren) semia* ekarri dot; eta eskumakuan *hirugarren batek (harek) bere seme propixua. Beraren* eta *bere* ez dira, ba, bardiñak” (1999b, 68 5. oh.). Gai hori ondoko orrialdeetan garatzen du, “haren, beraren, bere” forma bakoitzaren erabilera normatibo zuzena erakutsiz (ezkerretik eskuinera, forma arrunt, indartu eta bihurkarizat hartzen ditu); aitortu egiten du, hala eta guztiz ere, Eibarren ez dela bereizketarik egiten “bere, beraren” horien ahozko erabileran (1999b, 70-71). Nahasketa hori gramatikariek garbi gaitzesten dute (ikus adibidez EUSKALTZAINDIA, 1993, 73) baina gure iritziz ahozko mailan ez dago horrelako bereizketak zorrotzegi betetzerik; erakutsi dugunez, Eibarren behintzat ez dira inolaz ere betetzen. “Haren” eta “bere” bereizketaz ere idatzi izan da (bereizketa hori “hura” eta “bera”-ra ere iragaz daiteke); ikus adibidez: G. REBUSCHI (1997; 18-19, 56-59, 109-111, 175-218, 219-232, 233-250, 260-277, 279-300, 301-319), L. VILLASANTE (1972, 86-88), J. ORTIZ DE URBINA (1989, 116-120), J. MORALES (1995), J. GARZIA (1996).

Beste erakusle eta izenetan ere edutezko genitibo marka aukerakoa den kasuetan, areago, aldaera arruntak hiru izan daitezke, kasu marka erroari, oinarriari zuzenean txertatzen zaiona, batetik; eta bestetik, “bere-” aldaerari txertatzen zaiona, eta “beran-” aldaerari txertatzen zaiona. Horrelakoak jaso ditugu motibatiboan (“bera(g)aitxik” da aldaera hedatuena, dena dela); adlatiboan (“bera(g)ana, bere(g)ana, berangana” aldaerak jaso ditugu baina lehenengoa da hedatuena alde handiz); eta adlatibo bukatuzkoan (“beraganaño” jaso dugu *kgg*-ren eta *naz*-ren ahotan; “bereganaño” *kgg*-ren eta *nme2*-ren ahotan, eta “beraganaño” *nme2*-ren ahotan).

— Instrumental forma “beres” da, eta bi hipotesi ditugu forma hori azaltzeko; bata, edutezko genitibo formak hartzen duela kasu marka; eta bestea, *ber*-oinarriari txertatzen zaio, *-e-* loturazko bokalaren bitartez. Gure iritziz, beste instrumental formak ikusirik, bigarren aukera litzateke egokiena. Leku-denborazko genitibo marka txertaturik nahikoa esangura lexikalizatua du eta erabilera aberatsa du lekuoen ahotan. Ezaugarri “genetikoak” adierazteko erabiltzen da batez ere “bereko” hori.

— Prolatiboan, beste erakusleen ildotik, bi aldaera jaso dira, “beratzat” eta “berantzat”, azken hau *f.a.*-ren ahotan.

— Leku-denborazko kasuetan, bizigabe adibide bat baino ez dugu jaso *rmz*-ren ahotan, inesiboan bera:

*rmz* °baai, [probetan irabazita] ontzako urria ee-karri juañ áitxitxa sának!: igual bein juango suam-baña bérian! <denbora zentzua du>

— Leku-denborazko bizidunen formak dira kasu horietan nagusi. Kasu bakoitzeko aldaera nagusiak aipatu ditugu jada. Besterik aipatzekotan, inesiboan, kasu markadun “beragan” aldaera *kgg*-ren ahotan jaso dugu bakarrik (arrunta, denez kasu horretan); beste lekuko guztiek postposizio egiturak darabiltzate. Postposizioen aurrekaria edutezko genitibo marka duenez, aldaera biak jaso ditugu, kopuruz antzera erabilia: “bere gain/gañian/esku..., beran gain/gañian/esku...” alegia. Adlatibo bide zuzenezko forma bakarra jaso dugu *kgg*-ren ahotan.

b) Beste hizkera batzuetan egiten den erabilera bereizketa, dagokion formekin, “txakurra bera ↑ txakur bera<sup>416</sup>” alegia, ez da Eibarren egiten.

— Aipatutako adibideetako lehenengo egitura, “txakurra bera”, bai erabiltzen da Eibarren, sarri gainera, izenak eta izenordainak biak kasu marka bera dutela eta gaztelaniazko “propio” itzul daitekeela. Dena delako subjektua edo objektua bera azpimarratzen eta indartzen da. Izen arruntez zein bereziz osa daitezke. Forma pluralak “eurak” izenordainaren bidez egiten dira. Hurrenkerari

---

<sup>416</sup> Beste hizkuntza batzuetan ere egiten den bereizketa da, gaztelaniazko “propio” eta “mismo”, adibidez.

dagokionez, bi eredu jaso ditugu: “txakurra bera” erakoa bata eta “bera txakurra” erakoa bestea; ez dakigu ziur egitura biak funtsean bat diren ala esangura aldetik ñabarduraren bat ote duten. Ahozko solasaldian bizi-bizirik daude horrelakoak, adibidez:

*kmz* °...aimbéste bidár kántau juau esé, ensáyuaa berá ok · naikúa!

*raz* °... ni ordúan, amalau-amabost o bórdatze-nebíllen, da berá neskía be, sártxuao da, mundú gustía-kritikau éban! ...

*kmz10* “... Ondarruan behiñ itto ziran hamazazpi gizon. Eta Eibarrek lagundu zetsen háleri herri baten eta bestian dirua batu eta bialtzen. Gero, eurak ondarruatarrak be guri asko lagundu zeskuen, iñoiz hamen krisisak egon ziranian geuri bialtzen euren arraiñak ...”

Horrelakoak erakusleek onartzen dituzten edozein kasu markaz era daitezke, nahiz eta erabilienak nominatiboa eta ergatiboa diren (ez ditugu kasu guztietako adibideak jaso, baina suposa egin daiteke zilegi direla). Adibiderako:

*rmz* °txakoliña-béрак... · asálien · kápi-itxe-ok... masá moruan...

*rmz5* °da or sartzeituk · iri bakotxam-párian · tírak isaten dia ta..., iri-éuro-karreteruak ee irixeri eusteko eo (*i*)... tíra bi!

*raz5* °... da gure aitxák obéto ifini étzan óndiok amén torri sánian, -“baña obéto · Kayetánokim-berákim-básoyas!” da ...

*nme2* gáusori, · mutíllan gain dao, · berán mutíllan gain dao

*f.a.* nere alaben euren gain dao ori

Erakusle-izenordainekin ez ezik, balio erakuslea duten adberbio formekin ere osa daitezke horrelakoak, batez ere leku eta denbora esangura dutenean. Esaterako:

*nme3* °bueno, gú · bertá Uéska ordúko, · n- Jáka-aldéra, ni-(?)iru-ordutan Jákan eote-naix, e? ...

*kmz10* “...kontrarixuak mordua zeukazen Toribio Etxebarriak, bertan Alfa barruan be ...”

—Aipatutako bigarren egitura (“txakur bera”), ordea, ez dugu jaso Eibarko hizkera jatorrean erabilia ia kasu baten ere. Egitura hau noizbait darabilten lekuko bakarrak *kgg* eta *S.B.* dira, alfabetizazioaren eraginez, jakina. Adibide bakarra *nme2* lekukoari ere jaso diogu. Adibidez:

*S.B.* nik, arén moruan, gausá bera ingo neuke, bárdin ingo neuke neuk

*S.B.* arek juan sian gu eon giñan abade beragana

Areago, osterantzean Eibarren jaso ez dugun forma darabil *kgg* lekukoak, “berbera” hain zuzen; guk ez dugu egitura eibartar jatortzat hartzen:

*kgg* edade bérbera dake

Eibarren nola egiten da bada esangura hori lortzeko? Beste hizkera batzuetan gaztelaniazko formaren kalkotzat har daitekeen “bardiña”-ren bitartez egiten dute. Eibarko hiztun zaharren gehienek<sup>417</sup> ez dute hori onartzen, “\*txakur bardiñak” esatea alegia, lehen ere zerbait egin duen txakurra adierazteko. Leku-nagusi gazteenak ostera, bide hori noiznahi darabil; beste lekuko batzuek ere erabili egiten dute, dena dela; denetatik, *S.B.*-k, *kmg*-k, *nme1*-ek, *nme2*-k eta *rmz2*-k adibide batzuetan bakarrik, guk jaso dugunez. Esate baterako:

*kmg* °jo sé- séma-gausa, sélan, sémat <<aukera>> dáren e?, gausa bardiña esáteko.  
Es nais kontúrau oiñ arte  
*rmz2* °... lengó aixkolárixak óna-sitxúan-neurétako, e? ... da, .. urté bardiñetakuak isén basíam-ba... ..

Beste bide hedatuago bat hau da, esate baterako: izena bera mugatuta, gai determinatzaile edo izenlagunen baten ondoan, “lengo txakurak” erako egituretan, edo perifrasi luzeagoetan txertatuta, perpaus erlatiboetan esaterako. Adibidez:

*raz1* goixéko txakúrrak eyétzan orí  
*naz* ee goixiann etorri san txakúrrak ekarri ebán, está?

Beste aukera “bat” zenbatzailea erabiltzea da; edozein kasu marka hartuta. Adibiderako:

-*kmg* °... Kakalárrokua eta Makalárrokua berdíña-siala...  
-*kaz1* °nik uste ot · ak- baa... bat isango sala! ...

*naz* betí gausá bat esaten dao ... béin da barrído —*f.a.* kantzauta nao beti gausá bat entzuten

*kmz* “ónek! kristáu baték i- · eskribidítuk ónek líburu bíxok, kristáu baték”: “kris-tau bat” · da “bi líburu” · eskribidítú

*kaz2* °[errettratoak] ordukotxiak... · eum-batekuk órrek!

*kaz2* °bat bixí da Logróñon! · en- etxe bárru batem-bisi giñan da ... <“eraikin berean” esan gura du>

*kmz5* “... Errebal kalera etorri nitzán da án nere edade ingurukuak grúpua euan ezta, da pixkaka-pixkaka ... Gero eskolara be danok leku batera da ...”

Edonola ere, “bera” ere erabil daiteke baina ez eredu normalizatuaren araber, beste esanguraz erabilitako egitura erabiliz baino; *nme2* da bide hori darabilen lekukoa:

*nme2* óri, goixeko txakurra-béрак in dau  
*nme2* óne-líburuok, · berá-persona berak ess-kribídittu  
*nme2* au, lengó erríxa berá da

<sup>417</sup> Izan ere, *raz1*-ek dioenez «°persóna “bat” eta “bardiñak” estía igualak...». Antzerako iritzia du *kmz*-k ere.

Leku-denborazko kasuetan balio erakuslea duten adberbio kategoriako formez eratutako egiturak erabil daitezke; adibidez:

*kmz10* “...Gero hortik grupotik, hori ekin zetsenetik, formau zan UGTia eta al mismo tiempo bertan egunian, jarri zan bai Partido Sozialistia ...”  
*nme2* gausak, bertán egunían reklámau bi-yá

#### 1.10.1.2.1.6.2. “BERORI” 2. PERTSONA IZENORDAINA

Formazko ezaugarriak **5.-** moduaz indartutako erakusleen atalean erakutsi dira. Han ere aipatu da “berori” pertsona izenordaina errespetuzko 2. pertsonarako erabiltzen dela, bai nominatiboan bai beste kasuetan deklinaturik ere, singularrean zein pluralean. Hala ere, pluralerako “berorrek/bedorrek” ez da nominatiboko eredu bakarra. Izan ere, erakusle arrunten bideari jarraiki *naz*-k “eurok” egiten du “berori”-ren forma plurala, eta bitxia gertatu zaigu baina *nme2*-k “beroiek” forma darabil behin baino gehiagotan<sup>418</sup>.

Izenordainari dagokionez, forma nagusia izatez 2. graduko erakuslea dela garbi dago, baina beste graduetakook ere batzuetan errespetuzko formatzat hartzen dira. *kmz* lekukoa da zentzu hori gehien antzematen duena; adibidez, “beronentzato” “berori” tratamenduarekin lotzen du eta ez du erakusle zentzuz onartzen; lehenengo graduko “beonek” forma *raz1*-ek ere errespetuzko “berori”-ren pare darabil. Gauza bera gertatzen da “berak” nominatibo pluralarekin ere, *kmz*-k “abadeekin” berba egiterakoan erabiltzen dela baitio. Edonola ere, deigarria da pluralean “berorrek/bedorrek” moduak eratu izatea, singularreko formaren gainean; eta “eurak”, berriz, ez da tratamendu honen barruan antzematen itxuraz.

Nolanahi den ere, erabileran kasu kurutzaketak jaso ditugu batez ere *raz1*-en ahotan. Baliteke erabilera ezaren ondorio izatea. Adibidez:

*raz1* séla etorri siñam-beorri tta ku- laúnak? <nominatibo singularrerako>  
*raz1* bedórrek- bedorrékiñ nois dátos? <nominatibo pluralerako>

#### 1.10.1.2.1.7. Erakuslea errepikatzerakoan: “erakusle arrunta + ber- aurrizkiz indartutako gradu bereko erakuslea” (6.- modua)

Hurrenkera aldetik iruzkina merezi duen ezaugarri bat aipatuko dugu. Bi eredu jaso dira; “au berau, ori bero(r)i, a bera” da forma arrunt eta neutroena; baina beste eredu bat ere jaso da, forma indartua aurretik dela, eta forma arruntaren aurretik, erakusleen tartean osagaiak direla, aditzez osatutakoak gehiengotan. Adibidez:

---

<sup>418</sup> Errespetuzko aditzen forma alokutiboen adibideak, baita errespetuzko tratamendu hori nork noiz eta nola darabilen-erabiltzen zuen ere, behar diren-ziren egoera pragmatikoak eta abar, aditzen atalean landu dugu, gai horri eskainitako sailean.

*naz* °eguraldia iragartzen duenaz> are-berak ee, eunetarakua gáñera emoten dau sarríttén, e?, bueno!: bixarko, etzikoo... ta, e? ...

*rmz* °mutil-sarrá!, kuriosua gisona!, artistía biarrin!: · pérratokixa be berak itxe-juan arék ee, burdíxa be bai, eóser aék!

*kmzI* °erósi es!: béra-jóte-ok árek eáрто árek! · Berá-jóte-ok árek, eáarto arek! ...

Erakusle bien tartean osagaiaren bat agertzea *erakusle arrunta* + *indartua* hurrenkeran ere gerta daiteke:

*kmz3* °... áe-péntzau juen e · “gu-járdú-juau amem-bérbetan e · ingles baña one-baaki-beonek!” ...

**6.-** egiturako erakusleen formak azaldu ditugu jada: lehenengoa, erakusle arruntén atalean; bigarrena, honen aurreko atalean (**5.-** moduaz indartutakoak baitira). Beraz, atal honetan egitura honen ezaugarri bereziak aipatuko ditugu; lekuko nagusi guztiek darabilte indartze modu hau, eta galdekizunez gain, solasaldi askean ere jaso dugu. Kasu marka erakusle bietan itsas daiteke edo bigarrenean bakarrik.

Egitura hauen mugak bere osagaienak dira neurri batez; leku-denborazko bizidunen formarik adibide bakanen baten baino ez dugu jaso, adibidez. Kasu erabilienak nominatiboa, ergatiboa, datiboa eta edutezko genitiboa dira.

—Edutezko genitiboan joera nagusia izenlagunak ondoko izena isilduta mugatzailea hartzen badu, erakusle biek hartzea da; baina hori ez da beti betetzen, *f.a.*-ren ahotan adibide hau jaso baitugu:

*f.a.* fállua onén beonéna dok

—Kasu marka bakarrik forma indartuan itsatsirik, motibatibo eta destinatiboko adibideak jaso ditugu bakarrik. Esaterako:

*naz* á · berágaittik, ésto-nai juetia

*f.a.* errekaua onén beonéndako da //f.a errekaua orrén beorréndako da

Agian horren arrazoia formek hartzen duten luzera izan daiteke; ikus zer dioen *kgg* lekukoak “onegana beronegana” formaz:

*kgg* °bai e?, osea, e, es jatas oso- bápe ráruak eitxen baña, ori beti ya repetisiño ori ya trabalénguasa iruditze-jata piskat

Dena dela, “au bera” erako aldaerak ere jaso ditugu, besteak beste *f.a.* leku-koaren ahotan.

—Leku-denborazko bizidunen formetarako egitura nolabait berezia jaso dugu *kgg*-ren eta *razI*-en ahotan; *kgg*-k bapatean sortutako formak dira, eta *razI*-i galdekizuna lantzerakoan zuzenean galdetuta jaso dizkiogu horrelakoak. Egitura hauxe da: lehenengo erakuslea modu arruntean erabilia eta bigarren formarako erakuslea erabili beharrean “berta-” balio erakuslea duen adberbio



forma erabilia. Inesiboan, ablatiboan eta adlatiboan jaso ditugu horrelakoak. Adibiderako:

*k*gg su-itxen saren orrétan bértan  
*razl* onetáti-bertátik  
*k*gg aretára bertára

1.10.1.2.1.8. *Erakuslea errepikatzerakoan: “-(t)xe atzizkiz indartutako erakuslea + ber- aurrizkiz indartutako gradu bereko erakuslea” (7.- modua)*

Aurreko atalean gertatu den moduan, **7.-** egitura honetako osagaien formak lehenago aurkeztuta daude jada, lehenengo erakuslea **1.-** modua aztertzekoan eta bigarren erakuslea **5.-** modua aztertzekoan. Lekuko nagusi guztiek darabilte **7.-** indartze modu hau, baina erabilera mugak **6.-** moduaren tankerakoak dira. S. ALTUBE-ren ustez berak forma “reproductivo-intensivo”-tzat jotzen zuten forma sintetikoetatik eratorritako egitura analitikoak dira (1975, 97).

Kasu marka edo gradu marka erakusle bietan itsas daiteke edo baten baka-rrik; adibidez:

*nme2* artísu auxe berá // *nme2* artísu oixe berá  
*razl* onétxe-bérak ein dau // orretxékim-berákiñ · jungo sára!  
*razl* onétxe-berónek éitxu

1.10.1.2.1.9. *ber- aurrizkiz eta -(t)xe atzizkiz indartutako formak (8.- modua)*

Indartze modu hau *k*gg-ren ahotan jaso dugu batez ere eta adibide bakanen bat beste lekuko baten ahotan, *f.a.*-renean hain zuzen. S. ALTUBE-k “Demostrativos reproductivo-intensivos” (1975; 86, 94-95) izena ipini zien forma horiei. Eibarren ia salbuespentzat jo behar dira horrela indartutako formak; *kmz*-k adibidez, ez ditu inolaz onartzen; *razl*-ek eta *nme2*-k ere ez dituzte onartzen. Bil-du diren formen artean, beste modu guztien alderantziz, ez dugu nominatibokorik jaso (“\*berauxe, \*berorixe, \*beraxe”, alegia); bestalde, orokorrean oso gutxi erabilia ere, 3. graduko formarik ez dugu jaso eta **8.-** modu hori gehien darabilen *k*gg lekukoak ere ez du 3. graduko formarik onartzen. Jaso ditugun adibide batzuk ipiniko ditugu, lekukoek ontzat jotzen dituzten forma batzuk:

*f.a.* berorretxek ein dau  
*k*gg berónetxena // berórretxena da  
*k*gg beronetxekin dao

Goikoak onartu arren, *k*gg lekukoak txantxetan edo errealitatea islatzeko asmorik gabe eratutakoak dira hauek adibidez:

*k*gg berorretxekin  
*k*gg berórretxegan

—Forma horietaz osatutako egiturak ere eskaini dizkigu *kgg* lekukoak, **6.-** eta **7.-** moduen analogiaz. Batzuk arrunki sortu arren, adibidez:

*kgg* aregaitxi-beratxegaitxik ésto-nai...

beste forma batzuk txantxetan eta errealtatea islatzeko asmorik gabe sortutakoak dira, esaterako:

*kgg* onetxéri beronetxéri <barrez>

*kgg* onetxéganutz beronetxéganutz <barrez>

#### 1.10.1.2.2. Pluraleko formak

Orokorrean, indartze moduak singularrekoak dira baina pluraleko formek badituzte berezitasunak. Modu bakoitza banan-banan aipatuko dugu, modu zenbakiak erreferentziazat ipinita.

##### 1.10.1.2.2.1. **1.- modua**

—Nominatiboko formak “onetxek, orretxek, a(r)etxek” dira. Forma horien oinarriek (“onetxe-, orretxe-, aretxe-”) hartzen dituzte deklinabideko beste kasu marka guztiak. Kasu marka bakoitzaren aldaerak aurkeztu dira jada jada: morfema indartzailearen aldaera nagusi eta ia erabatekoa *-txe* da baina *-xedun* adibideren bat ere jaso dugu *raz1*-en eta *nme2*-ren ahotan<sup>419</sup>. Edonola ere, indartze modu erabiliena da lekuko guztien ahotan, salbuespenik gabe.

—Instrumental formak *kgg* lekukoari jaso dizkiogu bakarrik, alfabetizazioaren eraginez eraturakoak; “onetxetas” eredia betetzen dute.

—Motibatiboak *f.a.*-ri gogoeta hau eragin dio, “onetxegaitxik” forma zuzenean galdetutakoan hain zuzen, lekuko horrek “ónegaitxik” forma arruntaz erantzuten zuelako —forma indartuen eta arrunten kurutzaketaren erakusgarri—:

*f.a.* °esán leike ... baña orí- orí da lusétzia da e palábria ... baña e órre-dia baa líburuetan eskribitzeko sérak órrek dia órrek; berbá serían eitxen da e e más korto ii no sé yo ké sé esán be! ... bañá, baña len esán dotena, or e suk nai dosu e lusé amótia ta nik motz, errésao ta biskorrao ta igual entenitzen da. Oixé da prolemia oiñ

—Leku-denborazko bizigabe formak. Leku-denborazko genitibo formak ere aipatutako oinarri txertatuta jaso ditugu (“onetxetako” eredukoak), ez ditugu “\*onetakotxe” erako formak jaso, singularrean ez bezala. Gauza bera gertatzen da beste kasuetan ere, adlatiboetan adibidez.

Inesiboko formak jaso ditugu baina indartuetan **1.-** modu honetakoak batez ere.

---

<sup>419</sup> Ez ditugu kontuan hartu guk transkribatu ez ditugun formak; baliteke transkripzio fonikoa egin izatea kasu horietan (horrelako aldaerak aurkitu ditugun *kmz3*-ren eta *kmz5*-en jardunean, adibidez), baina zintak entzun ez ditugunez ezin dira hemen froga ziurtzat aurkeztu.

#### 1.10.1.2.2.2. 2.-, 4.- eta 5.- moduak

Pluralean ez dugu 2.- eta 4.- ereduko formarik jaso.

5.- moduari dagokionez, badirudi pluraleko formak erraz osa daitezkeela, baina ez dira erabiltzen Eibarren. J.A. URIARTE-rekin bat gatoz A. Irigoien-en azalpena geure giterakoan:

“Gure hizkeran, **berauek** eta **beraiek** bezalakoak adierazteko, “eurok” eta “eurek” genituzke. Irigoienek argi asko azaltzen digu arazo honen gakoa: Bizkaieraz, **ber-** duten formak singularrerako dira eta banaketa konplementarioz, **eur-** hasieradunak pluralerako” (1995, 393).

Edonola ere, *kgg* lekukoari jaso dizkiogu *ber-* aurrizkiz indartutako horrelako forma batzuk, bere ustez arruntak Eibarren, baina gureaz ez. Honelakoak egiten ditu:

*kgg* berónena da

Dena dela, pluralean erabiltzea singularrean baino zailago egiten zaiola airtortzen du lekuko horrek.

5.- modu horrek forma “jatorrak” sortuko baditu, errespetuzko 2. pertsona izenordain funtzioan izan behar du. Formetarako ez ezik, geroago murriztago den erabilerarako ere iturri da. Adibide batzuk, formen eta erabileraren erakusgarri:

*kmz* beórrek nois dátos?

*razl* °... “bedórri” bá-tá, bañá “bedórrek” béste bátzue-bádia, “bedorrékin-nois datos?” ... “usté”-esten dabe-moméntuti-“berórrii”!, ai! umé! i jénte de kategoría, áá...!

Singularrean egiten duenez, *kmz* lekukoak era horretara indartutako beste formak ere errespetuzkotzat hartzen ditu:

*kmz* “bérak etórriko díá” ... bai. “Béрак” e, “béрак” e, abádiak, e?, besté iñópes [sic], e? ... “ellos bendrán”

#### 1.10.1.2.2.3. 3.- modua

Singularraren atalean aurkeztu dugu “eurak” 3. pertsonako izenordain plurala. Oraingoan 1. eta 2. graduko formak aztertuko ditugu batez ere.

Gradu hurbileko mugatzailearekin gertatzen zenez, 1. eta 2. gradua itxuraz neutralizatu egiten dira, sinkretismoz, *-o-* ezaugarri orokorra dela eta<sup>420</sup>. Izan ere, nominatiboko forma “eurok” da hurbileko gradu bietan, eta kasu marka guztiak “euro-” oinarriari txertatzen zaizkio, leku-denborazko kasu markak ere bai.

---

<sup>420</sup> Ikus mugatzaile horiei eskainitako atalean aipatu diren bideak forma bakoitzean zein gradu den bereizteko.

#### 1.10.1.2.2.4. 6.- modua

Erakusle bakoitzaren formak aurkeztuta ditugula —2. erakuslea, indartutakoa, *eur-* eredukoa da, jakina, hiru graduetarako—, badirudi singularrekoak baino gutxiago erabiltzen direla. Hiru graduetak egiturak osa daitezke. *kmz* eta *kkg* dira ontzat hartzen eta erabiltzen ez dituztenetarikoko lekuko bi. *kmz*-ren arrazoi nagusia hauxe da:

*kmz* “órrek éurok” es: “órrek” esaten bada “éurok”-e s- · alpérri-da

Beste lekuko nagusiek, berriz, ez dute arazorik formak ezagutu eta erabiltzeko, *razl*-ek, *nme2*-k, *naz*-k, *f.a.*-k, alegia.

Leku-denborazko kasuetan ere erabiltzen dira horrelako formak, gutxitan izan arren. Esaterako:

*nme2* ónetan éurotan dao · eiñ ero es eiñ <bizigabe forma bizidun esanguraz>  
*//nme2* [jakineko leku fisikoak] órretan · éurotan eon gá

Singularrean ere adierazi ditugun ezaugarri batzuk pluralean ere badira. Esate baterako, kasu marka erakusle batek bakarrik har dezake (kasu marka erakusle bietan txertatuta askoz ere erabiliagoa da); gradua errepikatzea ere itxuraz ez da ezinbesteko; bestalde, edutezko genitiboan mugatzailea erakusle bietan ere ez da derrigorra. Horien adibiderako:

*naz* árek éurei —*razl* onek eürogaitxik etórrí naix —*nme2* ónek éürogatti-pe bai  
*//nme2* ni precisamente [sic] · éurok- órrek éürogáttik etorri nais *//nme2* árek éuregáttik etorri nais

*f.a.* fállua ónena éurena da

*nme2* órren éurona da fállua *//nme2* áretxen éurena da fállua —*naz* órren éurona da  
*//naz* aren éurena da

*kkg* lekukoari, sarri gertatu denez, bitxikeriak ere jaso dizkiogu, beste inork ez darabiltzan formak, erakusle indartua *ber-* aurrizkiz indartuta hain zuzen:

*kkg* artísus órre-berórrek  
*kkg* órrek berórrek ... ein dabe  
*kkg* árek bérak  
*kkg* ónekin berónekin ibfli nais

#### 1.10.1.2.2.5. 7.- modua

Egitura osatzen duten erakusle bakoitzaren formak aurkeztu ditugu gorago. 6.- moduko formekin gertatzen denez, badirudi erabilera eremua piskat murritzagoa dutela singularreko formek baino. *kmz* da ontzat hartzen eta erabiltzen ez dituenetarikoko lekuko bat. Beste lekuko nagusiek, berriz, naturaltasunez darabiltzate, *razl*-ek, *nme2*-k, *naz*-k, *f.a.*-k, alegia.

Dena den, jaso ditugu forma bitxi batzuk ere, adibidez:

*razl* éura-béрак in dábe

#### 1.10.1.2.2.6. 8.- modua

Pluralean ere *kgg* da horrelako formak jaso dizkiogun lekuko bakarra, aurrizki indartzailea *ber-* izaki gainera. Adibide batzuk:

*kgg* berónetxek ein dabe  
*kgg* berónetxéri // *kgg* berónetxi // *kgg* berónetxei // *kgg* berórretxeri

Analogiaz sortutako forma konposatua, baina errealitatea islatzeko asmorik gabe egin du honako hau:

*kgg* onetxéna beronetxéna

#### 1.10.1.2.3. Forma indartuen erabilera

##### 1.10.1.2.3.1. Forma arruntek betetzen dituzten moduko funtzioetan

—Azalpenetan, zuzeneko estiloan zein osterantzeko gertakarien kontaketan, isildutako hainbat osagairen orde. Adibidez:

*raz5* °-“bai!, eo-naix párrokuakin dd’auxé t’auxé t’auxé pásau ata ta ser da...”, -“xxé-kula estot entzun oixé! · pásau leikienik” ...

*rmz* °líburuak eta eee... ámak!, ee... esándakuak ekar- erósi txa kítxo!: an... an séa erósi...: -“auxe t’auxe erosisus” da, baa... · urtian e bat ero bi eró

*ñaz5* “... nere gizona gaixorik eguan bihotzetik eta ez jakon komeni holako gauzarik. Eta honek, nere semiak esplikau etsen, hauxe eta hauxe daguala aitta eta aitta ez daguanian mesedez etortzeko ...”

—Laguntzaile edo komodin gisa. Esate baterako:

*kaz3* °da gero axee, atxak eruate-nínduen! ...

—Esapide adierazkor batzuetan: “o(r)ixe ba!”, “(bai) o(r)ixe bai!<sup>421</sup>”. Bestera-ko hurrenkeraz ere bai: “bai o(r)ixe!”, “o(r)ixe!<sup>422</sup>”, “o(r)ixe da!”. Adibide batzuk:

*raz1* °... ogixari oixe bai mun itte-akola! ... asi aurréti-mun eñ!, · da k- kurutzía im-be bai! ...

*kmz* °biáai agér-! · biáákó!, · biáko-óixe bai! <erdi barrez> ...

*kmz* °báai, ba- oríxe bai!, báakíxau óri!...

*lnaz* -orre-badiardu erretzem-betiko moruen ... -bai oíxe!

*kmz* °é!, de-! ooríxe ba!, orretxeaitxik e- e- eitxe-tzen bá!, “Txé”! · Ansola serrerri-serreríxakua da, · san!

*naz* °oixe bá!, oixegátti-pá!, búff!

<sup>421</sup> Adibideetan ikus daitekeenez, egitura-esapide hori perpaus konpletibak sortzeko bidea ere bada. Areago, erakusleak kasu markak ere har ditzake. Izan ere, aldaera mordoia ditu egitura honek, erabili ere asko erabiltzen baita solasaldi askean.

<sup>422</sup> Forma honek ere beste osagai batzuk har ditzake ondoan: izena, izenondoa, aditza edo perpaus konpletiboak esate baterako, adibideetan ikus daitekeenez.

*naz* °séu etorrii!, baaai-bai-bai!, etorriko esá bá?!, óixeee! Bueno ba!, baai..., n-ontxe arte, baai..., bai!, etorri segidúen!, bai! ...

*nme4* °baai, ba, óixe-torriko dala baa, bueno!

-*rae* °bai ba! eskola-aurriam-bá!

-*rmz* °oixe!

-*rmz* °amábos urte arte-eró, · ibili nitzuan!

-t ta gero biarrera?

-*rmz* °géro! gei- óixe biarra!

*rmz* °... ser?! · maistria ee Donostiakua erdelduna e-euskáldun edárta oixe!, euskalduna?! · néska-sárta?!... ..

-*naz* °e- a- itxítako lékuti-jun dia!: ará!, ganau txarríxaorik mundúen!, da, bedarra jan esinnda...!

-*nme4* °bedárta oixe jan esinnda...: esa-nutzan lénguan Felisí, altzau...

*rmz* °ba!, e, e, ísen eim-bier!: óixe da!...

Esapide horietariko batzuek pareko egiturak dituzte ezezekoan:

*kmz* °ess!, oríxe báí és! Ipíni b'estau eitxen da!

*naz* °ésin dutxau!: es oixe!, ené! otzak ill! bueno!...

—“Erakusle indartua + *izan* + beste osagai bat” egitura adierazkorra, askotasuna, goi maila adierazteko. Adibidez:

*kmz* °auxé dok erré!, tóntua morúan!

—Lagunarteko hitz-jokoetan; galdera-erantzun erako: “-se ba? -a ba...” ereduak deklinaturik ere adibide bat jaso dugu:

*S.B.* -segaitxik? -aretxegaitxik

—Galdera “erretorikoetan”, hizlariaren iritzia adierazten da, zerbait gehiegizkoa, neurritz kanpokoak, menperatu ezina iruditakoan; forma indartuz, gainera, zentzu despektibo handia dute forma hauek. **5.-** moduaz indartutako formak erabiltzen dira, hiru graduetakoa:

*kmz* sér dó-pa berau?

*razl* ser dó-pa beróri!?

*razl* ser dó-pa berá?

1.10.1.2.3.2. *Forma indartuek bereziki betetzen dituzten funtzio eta erabilerak*

—“Izenondoa + (*zer*) + *izan* + *berau/berori/bera!*” egitura. Aldaerak ere baditu, galdetzaila aurretik dela. Goi maila, askotasuna, handitasuna adierazten da. Adibiderako:

*naz* majadérua ser da ba berá, bai!, majadérua... <barrez>

*kmz* sé iñusénte dó-pa berá!

*razl* “móskarana” ... °kuriósua da ba berá!

— Jakineko egituretan-esamoldeetan: “ikusi/entzun... zittuan beriak!”; “bakotxak/bakotxari beria”. Esaterako:

*raz1* °... ámama sárra guría ondo gobernatzetan, etórri akon gaixó bat eta kosta-akon ílttia!, jólín!... ikúsi sítuam-beriak, e? ... gure básarrixan esiñ ee kónserbau ta kalera eru-juan san, erú-ebén da kalfán: kos-tá san íl-tti-a, ené! enéé!... ..

*raz4* °... gure aitták bueno!, .. esan kábízen! · Mendigoitxiñ! <barrez>: esan kabí-zen, *úú!*: errégalua bátera ta erregalua béstera ta..., además · txikíxena nitza-ní, da ogei urté (?)... Bakotxai bería! ...

*raz4* °... Baña, .. -“bákotxa-beria”, da ... dana- danak ixiliik ...

— Gaztelaniazko “propio” eta “mismo” esangurak bereizterakoan<sup>423</sup>.

#### 1.10.1.2.4. Ondorioak

Formari dagokionez, orokorrean indartzeko zortzi modu daude, bakoitzak hainbat aldaera baditu ere. Modu nagusia, erabiliena eta emankorrena atzizkia da (forma batzuetan artizki itxuraz). Aurrizkiak ere erabiltzen dira indartzekoan; baita modu konposatuak ere, errepikapenez zein indartze moduen meta-ketaz. *Ber-* aurrizkiz eta errepikapenez sortutako formak ere asko erabiltzen dira Eibarren, aldaerak aldaera. **8.-** modutzat hartu duguna da gure iritziz sistema jatorretik ken daitekeen bakarra, batez ere kaleko lekuko nagusi gazteenari jaso zaizkion formak direnez eta sarri txantxetan eraturakoak. Moduen indartze maila antzerakoa da gure iritziz, orokorrean behintzat.

Forma indartuen aldaera eta ezaugarri batzuk forma arruntetan azalduta-koak dira: loturazko bokala aukerakoa izatea, leku-denborazko bizigabeen formen orde z balio erakuslea duten adberbio formak erabiltzea; leku-denborazko bizidunen formetan genitibo marka aukerakoa izatea eta abar. Ez ditugu, beraz, berriro errepikatuko.

— Singularreko formak kontuan izanda, **1.-** moduaz indartutakoetan, nominatibo formak, Aginagakoen motibatibo forma bereziekin batera, beste kasu guztietako formatatik aldentuta daude. Izan ere, beste kasuetako oinarrian “one(t)xe-, orre(t)xe-, are(t)xe-” daude. Bizigabeen inesiboan Aginagakoek batez ere egiten dute “onetantxe” eredu 1. eta 2. graduan, beste lekuko zahar biri ere horrelakoak jaso zaizkien arren, beste lekuko gehienek “onetxetan” baka-rrik onartzen duten artean. Profil hori bizigabeen adlatiboan ere betetzen da, “orretaratxe” Aginagakoen aldaera izaki, baita beste zahar batzuen ere, bai kalekoak bai Arrate ingurukoak; baina eredu hedatuena “orretxetara” da. Bizidu- nen adlatiboan Aginagako lekukoak besteengandik bereizi egiten dira, genitibo marka darabiltenak baitira.

<sup>423</sup> Ikus “bera” pertsona izenordainari eskaini zaion atalean.

Indartzeko **2.-** moduak eibartarren ahotan ez du bizitasunik, baserrietako lekuko zahar biren ahotan jaso baitugu bakarrik, nominatiboz. Beste lekukoek, zaharrek tartean, onartu ere ez dituzte egiten horrelakoak Eibarrerako. Baliteke Eibarko kanpoaldeko ezaugarria izatea.

Indartzeko **3.-** moduaren emaitza emankorra “eurak /eurek /eurok” 3. pertsona plural izenordain funtzioa betetzen duen forma da. Gradu hurbileko forma “onek, orrek”-en parekoa da baina 3. pertsona ere adieraz dezake. “Erak” aldaera murrizak Arrate inguruan du bizitasun handiena, kaletarren jardunea ia jaso ere ez baitugu egin; Aginagako lekuko nagusi zaharrenak ere badarabil aldaera hori, nolana ere.

Indartzeko **4.-** modua ez da Eibarko euskaran erabiltzen. Bai oster, **5.-** moduak indartutako formak. Balio erakuslea ez ezik bihurkari ñabardura ere hartzen dute batzuetan. Formak, orokorrean, izenordain arruntei *ber-* aurrizkia gehituta osatzen dira, aldaerak sortzen diren arren. Nolanahi ere, lekudenborazko bizigabeen formak ez dira modu honetara eratzten, *razl* lekukoak noizbait erabili arren. Bizidunen formak, oster, erabilera aldetik emankorrrak dira. Lekuko gazteen ezagutzan, edonola ere, modu hau ez dago nahikoa finkatuta.

**5.-** modu horren formetariko batzuk pertsona izenordain lege lexikalizatuturik daude. “Berori” errespetuzkoa bigarren pertsonarako eta “bera” hirugarrenerako. “Bera”-ren deklinabidean deigarriena da edutezko genitiboko forma; Eibarren “bere” eta “beran” batere bereizketarik gabe erabiltzen dira, “bere” forma hedatuagoa den arren. Horrek esan gura du genitibo marka hartzen duten beste kasu marketan ere aldaera bikote hori gorde egiten dela, destinatiboan eta adlatiboan adibidez. Erabilerari dagokionez, gaztelaniazko “propio” adierazteko erabiltzen da “bera” (“txakurra bera, bera txakurra”; pluralerako “eurak” erabiltzen da), baina ez “mismo” adierazterako, horretarako beste bide batzuk hautatzen baitira. Nolanahi ere, alfabetizazioaren eraginez kaleko lekuko batzuen ahotan “bera” bigarren esangura horrekin ere jaso dugu, baita “berbera” ere, baina ez dugu Eibarko sistema jatorkotzat hartzen.

Indartzeko **6.-** modua oso bizirik dago eibartarren ahotan baina kasu batzuetan bereziki. Erakusle bik osatutako egitura denez, kasuka deklinatzerakoan aldaerak sortzen dira kasu marka bera osagai biek hartu, ala bakar batek. Ezaguri horiexek betetzen dira, oro har, indartzeko **7.-** moduan ere.

Indartzeko **8.-** modua kaleko lekuko nagusi gazteak darabil batez ere eta adibide bakanen bat *f.a.*-k. Nolanahi ere, ez du bizitasunik orokorrean.

—Pluraleko formei dagokienez, indartze moduak singularrekoak dira baina **2.-** eta **4.-** moduko formarik ez da Eibarren erabiltzen. **5.-** modua ere erabili egiten da baina oso esparru murriztean, errespetuzko bigarren pertsona izenordain funtzioan hain zuzen, eta berori ere oso gutxitan. Izan ere, singula-



rreko *ber-* aurritzkiaren parean erabiltzen da *eu-* aurritzia pluraleko “eurok, eurak” formak sortuz —gradu gabeko forma lehen aipatu da, singularraren atalean—. **6.-** eta **7.-** moduen erabilera batez ere baserri eremuan oso bizirik dago.

Erakusle indartuen erabilera funtsean arrunten gisakoa da, esangura adierazkorragoz agian, baina egitura batzuetan forma indartuak erabiltzen dira bakarrik.

### 1.10.2. *Erakusleak determinatzaile gisa*

Erakusle determinatzaile soilen berri ez dugu ostera ere errepikatuko orain arte aurkeztutako formak izenaren ondoan jartzea nahikoa delako, baina erakuslez osatutako beste egiturak aztertuko ditugu batez ere, besteak beste birritako erakusleak hain zuzen<sup>424</sup>. Edonola ere, erakuslea determinatzaile gisa jaso ditugun egitura guztiak aipatuko ditugu, konbinatoria modukoa eginez; izan ere, esangura aldetik berdinak dira; egituren formak dira aldatzen direnak. Batez ere erakusle forma arruntetan erreparatuko da egiturak azaltzerakoan.

Kasuka aipatuko dira jasotako egiturak. Egitura bakoitzari zenbakia ipiniko diogu kodetzat eta ez ditugu egitura osoaren osagaiak eta abar berriz errepikatuko:

— **1.-** modua: “erakuslea kasu markaz + izena- + -erakuslearen graduari dagokion forma mugatzailea<sup>425</sup>, erakuslearen kasu markaz” (“au elixiau, ori elixio(r)i, a elixia” erako formak). Hauek dira hainbat lanetan “birritako erakusle” izenez aurkezten dituztenak. Eibarren erakuslea determinatzaile legez agertzen den egitura erabiliena da, oso alde handiz, lekuko nagusi guztien ahotan —salbuespena *kgg* lekukoa da multzo horretan, **3.-** modua baitarabil sarri, baina lekukoak berak ere aitortzen du euskarazko eredu normalizatuaren eragin handia duela horrelakoetan—, eta solasaldi askea jaso dizkiegun lekuko gehien-gehien ahotan ere, salbuespenak salbuespen. Horregatik, kasuka aztertzerakoan ez dugu aipatuko nortzuk darabilten **1.-** modu hau, lekuko gehienak baitira eta azterketa alperrik astuntzea litzateke. Gutxiago erabiltzen diren moduen subjektuak ostera, bai aipatuko ditugu horien profila hobeto ezagutzekotan. Edonola

---

<sup>424</sup> I. LASPIUR-ek artikulutxo bat eskaini dio gai honi: “Erakuslien errepikapena” (1999, 38). Gure iritziz, baina, ez dugu uste “uste ze esaldixa indartzen” (*ibid.*) denik, erabilera arrunta delako eta forma indartuak ere onartzen dituelako. Ikuspegi teorikoagoz heltzen dio gai honi X. ARTIAGOITIA-k (1998, 57-59).

<sup>425</sup> 1. gradurako, 1. gradu hurbileko mugatzaileen atalean azaldutako formak erabiltzen dira; 2. gradurako, 2. gradu hurbileko mugatzaileen atalean azaldutakoak; 3. gradurako, gradu gabeko forma mugatuak. Bai erakusleen bai mugatzaileen formak lehenago aztertuta daudenez, horiek ezagutzeko jo beza irakurleak dagokion atalera.

ere, gogoan izan behar da zuzenean galdetu ditugula forma asko (**2.-** modu-koak, adibidez), eta *item* bakoitzarentzat lekuko nagusiek erantzun bat baino gehiago dutela sarri.

—**1.1.-** modua: “erakuslea deklinatzeke + izena- + -erakuslearen graduari dagokion forma mugatzailea, sintagmari dagokion kasu markaz” (“au elixiaugaitxik, ori elixiogaitxi, a elixiogaitxik”, adibidez).

—**1.2.-** modua: “erakuslea edutezko genitibo formaz + izena- + -erakuslearen graduari dagokion forma mugatzailea, sintagmari dagokion kasu markaz” (“onen alabionekin, orren alabiorrekiñ, aren alabiakiñ; onen elixione(n)gaitxik, orren elixiorre(n)gaitxik, aren elixia(n)gaitxik”, adibidez).

Modu honen aldaeratzat jo daitezke erakusle forma “one, orre, are” egiten duten egiturak; adibidez:

*nme2* negárre-sabis?, oné-kótxe txikixaugaittik?

—**2.-** modua: “erakuslea kasu markaz + izena + erakuslea errepikatuta” (“au elixa au, ori elixa ori, a elixa a”, adibidez). Egitura hau **1.-** moduaren aldaera litzateke, baina adibide gutxitan jaso dugu. Erabiltzekotan, batez ere lekuko gazteek darabilte **2.-** modu hau, *kgg*-k eta *kag*-k, esaterako; zaharragoek ere bai, dena dela (noizbait *f.a.*-k eta *nme2*-k, adibidez). Eibarko ahozko hizkera jatorrean piskat bortxatuak dirudite horrelako formek.

—**2.1.-** modua: “erakuslea nominatiboz + izena + erakuslea sintagmari dagokion kasu markaz, eta aurrekoaren graduz” (“au elixa augaitxik, ori elixa ori-gaitxik, a elixa aregaitxik”, adibidez).

—**3.-** modua: “izena deklinatzeke + erakuslea deklinatuta” (“elixa au, elixa ori, elixa a”, esaterako). Euskarazko eredu normalizatuan egitura hedatuena den arren Eibarren ez da hainbeste erabiltzen, lekuko gehienek ezagutu eta noizbait darabilten arren. *kgg*-k gehien darabilen egitura da, baina 3. graduako nominatiboan, adibidez, ez du beti onartzen eta **1.-** modua darabil:

*kgg* °eske irugarren personan ya “alabía óna da”?; es, ya “a alabía ona da” ... beste-la neré alabá bakárra isángo san. Baña dána dalá ... “angó alabía”

Lekukoek leku-denborazko kasuetan darabilte gehien **3.-** modu hori.

Modu honen aldaeratariko batek gradu hurbileko mugatzailez osatutako izenak gogorarazten du; izena eta erakuslea fonikoki soilduta adibide baten baino gehiagotan jaso dugu, eta zalantza dugu erakusle egituratzat jo, ala hurbileko mugatzailea duen formatzat jo. Adibidez:

*kgg* °... badákitx iñois askénengo illíotan ésan eta konturau ei-naixela ... <formari erreparatuta, murrizta delako eta izenari aldaera fonetikak egotzi dizkiolako -otan mugatzailetzat har daiteke>

—**4.-** modua, leku-denborazko kasuetarako bereziki: “balio erakuslea duen adberbio kategoriako forma kasu markaz + izena- + -gradu gabeko mugatzailea

erakusleak duen kasu markaz<sup>426</sup> (“amendik elixatik, ortik elixatik, andik elixatik”, adibidez). Modu hau **1.-** moduaren ia parekoa da baina leku-denborazko kasuetan, kasu marka birritan agertzen dela.

Edonola ere, adlatibo bukatuzkoan eta bide zuzenezkoan **9.-** moduak ordezkatzeko du bide hau neurri handi baten, eta lekuko batzuek “onutz elixartz” erakoak forma piskat “aldrebes”tzat jotzen dituzte.

—**4.1.-** modua. Denborazko formak bereziki beste era batera ere egiten dira, denborazko aditzondo zuzen; graduen hurbiltasuna-urruntasuna ere gorde egiten da aditzondo horien esangurak lagunduta. “Gaur, oin(go), aurten(go)”, “orduán” eta “olako, alako<sup>427</sup>” dira erabilienak eta gehienetan inesibo kasuan erabiltzen dira. Adibidez, “gaur arratsaldian, gaur gabian; oingo illian, oin epokan”; “orduán astian”; “alako lekutan, alako ordutan”. Aditzondo horiek kasu markak har ditzakete baina bakarrik ere ager daitezke, perpausean sintagmari dagokion kasu marka ondoko izenak duela. Nominatiboan, esaterako, adberbioak leku-denborazko kasu markaz ageri dira (“gaurko eguna”, adibidez).

—**5.-** modua **4.-** moduaren aldaeratzat jo daiteke. Egitura horretako adberbio kategoriako forma inesibo markaz joan daiteke, eta kasu marka izenari atxikita agertzen da soilik<sup>428</sup> (“amen elixako, or elixako, an elixako”, adibidez).

Edonola ere, modu hau kasu batzuetan errazago onartu eta erabiltzen da beste batzuetan baino. Adlatiboan, esaterako, *nme2*-k eta *f.a.*-k gaitzetsi egiten dute ablatiboan biek erabili arren. Beste adlatiboetan ere gutxiago erabiltzen da, **9.-** moduak ordezkatzeko duelako, noski. Honelako iritziak jaso ditugu, besteak beste (lekukoek beste adibide batzuetan konturatzeko arrunki erabili arren):

*nme2* °bai bañá, · ésssta orí ee...: mm... orí pixkát ... éuskeras estekixee... ikésten dabilénan ee será da, e...: · sértzen dabenak e, “án etxékuek diá”, orí pixkát erde-érderia sartzen da or!

—**6.-** modua, leku-denborazko kasuetarako bereziki: “balio erakuslea duen adberbio kategoriako forma kasu markaz + izena + erakuslea aurreko adberbioaren graduaz eta kasu markaz” (“amendik elixa on(e)tatik, ortik elixa or(re)tatik, andil elixa a(r)(e)tatik”, eredurako). Modu honek aldaera fonetiko bi ditu. Bata, ereduko adibidekoa, egiturako forma guztiak osorik (aldaera hedatuena); bestea, izena eta erakuslea fonikoki soilduta (“ona elixontara, orra elixortara, ara elixartara”, adibidez).

---

<sup>426</sup> I. LASPIUR ere konturatu da forma horiekin eta honela dio: “Leku-denborazko kasuetan (...) nun azaltzen dan erakuslien ordezk adberbixuak erabiltzeko daukagun modua. Gaur egunian, Eibarren, asko zabaldua dago gramatika arauetatik kanpo dagan erabilleriori” (1999b, 86 2. oh.).

<sup>427</sup> Balio erakuslea duten adberbio horiek izen mugatuak zein mugagabeak har ditzakete ondoan.

<sup>428</sup> I. LASPIUR-en azalpena honakoa da: “Bada beste joera barrixago bat be zabalduz doiana: adberbixua deklinau barik ipintziarena” (1999b, 93). Ez dakigu zenbaterainoko berria izango den lekuko zaharrek ere badarabiltenez.

**6.-** modu honek batzuetan zalantzak sortzen ditu interpretatzerakoan; ikus horrela eraturako formak darabiltzan *kgg* lekukoak zer dioen:

*kgg* °bai baña... eeske-estákitx erabíl-, oséa: sinónimo modúan “elixá onetara” eta “ona elixá onetára”?... es eskee es, nik esá- esáte-oténa da béste... “óna, koma elixá ontára”. Beste gausá bá-da

Lekukoak azaldu duenez, ahoskatzerakoan etena egin ala ez legoke kakoa. Etenik gabe, **6.-** determinatze modua litzateke; etena nahita eginez gero, aposizio egitura lortzen da.

—**7.-** modua, **6.-** moduaren aldaeratzat jo daiteke: “adberbio kategoriako forma inesiboan + izena + erakuslea perpausean behar duen kasu markaz” (“amen elixa on(e)tako, or elixa or(re)tako, an elixa ar(e)etako” eredutzat).

—**8.-** modua, edozein kasutarako baliagarria da. **1.-** moduaren aldaeratzat ere ez dakigu har daitekeen, bitxia baita; erakuslearen edo adberbioaren lekuan, leku-denborazko genitibo markadun balio erakuslea duen adberbioa erabiltzea alegia, eta ondoko izena gradu gabeko mugatzailez deklinaturik (“amengo elixiakin, orko elixiakin, ango elixiakin”, adibidez). Forma soil horien lekuan ablatibo kasu marka duen konposatuagoak ere erabil daitezke (“amendiko elixatik, ortiko elixatik, andiko elixatik”, adibidez). Izenlagun sintagma arrunten eta erakuslez determinatutako sintagmen tarteko egitura da gure ustez, “amengo/amendiko, orko/ortiko, ango/andiko”-k bietarikoak baitakartza.

—**8.1.** modua, **8.-** moduaren aldaera da: “leku-denborazko genitibo markadun balio erakuslea duen adberbioa + **3.-** modua” (“amengo elixa on(e)tara, orko elixa or(re)tara, ango elixa ar(e)tara”, adibidez).

—**9.-** modua, adlatibo bukatuzkorako eta bide zuzenezko adlatiborako barrik erabiltzen da: “ona adberbioa + izena dagokion kasu markaz, gradu gabeko mugatzailez” (**5.-** moduaren parekoa da baina adlatibo egituraz; eredu “ona elixaraño(k), orra elixaraño(k), ara elixaraño(k)” da).

—**9.1.-** modua **9.-**aren aldaeratzat jo daiteke: “adberbio kategoriako forma adlatiboan + izena + erakuslea perpausean behar duen kasu markaz” (“ona elixa on(e)taraño(k), orra elixa or(re)taraño(k), ara elixa ar(e)taraño(k)” eredutzat). **6.-** moduan gertatzen denez, aldaera nagusi bi ditu. Bata, forma osoek osatzen dutena; eta bestea izena eta erakuslea fonikoki soilduta (“ona elixontaraño, orra elixortaraño, ara elixartaraño”, adibidez).

Hainbeste adibide jaso ditugu, euretariko asko zuzenean galdetuta, leku-koek euren erantzunak eta iritziak kontraesanean sarritan jartzen dituzte. Jakineko modu bat —“batzuk” erreala goa da adibideei erreparatuz gero— kasuren baten ez darabiltela diote, eta handik gutxira agian konturatzeke erabili egiten dute; edo lehenago arrunki erabilitako formak beranduago gaitzetsi egiten dituzte beste antzerako adibideetan. Guk erabilitakoei eta onartutakoei garrantzi handiagoa eman diegu itxuraz gaitzestutakoei baino. Lekukoek erabili badute, zerbaitegatik izango da.

Gure ustez aurreko gertakari horrek erakusle determinatzaileen ikerketa santonagoak egin behar direla indarrez iradokitzen du, hainbat eta hainbat lanetan aurkitu ditugun paradigma eta azalpen xehe eta murrizak ahozko erabileratik urrun ere urrun baitira gure ikuspegiz. Gainera, ez dugu uste Eibarko eredu, forma eta aldaera aberastasuna beste herri batzuetako hizkeretatik bereizirik dagoenik, beste hizkeretan ez denik horrelako altxorrik. Polimorfismo orokorra zein polimorfismo idiolektala oso argi antzematen da atal honetan, besteetan ere bai baina honetan areago.

#### 1.10.2.1. SINGULARREKO FORMA ARRUNTAK

Kontuan izan behar da kasu bakoitzeko hiru graduak batera aurkezten direla (eredutzat, ipinitakoan, 1. graduko formak ipiniko dira bakarrik, nominatiboan izan ezik), eta amaiera guztietako adibideak ere batera aurkezten direla<sup>429</sup>. Bereztasunak aurkitu ditugunean bai zehaztu dugu egitura, kasua, gradua eta abar. Egitura moduen erabiltzaileak aipatzerakoan batzuetan forma indartuak ere kontuan izan ditugu, alferrikakoa bailitzateke beste atal baten berriz errepikatzea.

a) Leku-denborazkoak ez diren kasuak.

—Nominatiboan jasotako hiru graduetako aldaera batzuk ipiniko ditugu. Lehenengo gradurako: **1.**-“au elixiau”, **2.**-“au alta au”, **3.**-“elixa au”; bigarren gradurako: **1.**-“ori elixio(r)i”, **2.**-“ori elixa ori”, **3.**-“elixa ori”; hirugarren gradurako: **1.**-“a elixia”, **2.**-“a elixa a”, **3.**-“elixa a”.

**1.**- modua da hedatu eta orokorra lekuko guztien ahotan; *kgg*-k **2.**- eta **3.**- moduak ere badarabiltza; **3.**- moduko adibideak jaso dizkiegu *kgg*-ri, *f.a.*-ri, *rmz2*-ri; **2.**-koak *kag*-ri, *nme2*-ri, *nme1*-i. **8.**- moduko adibideak ere jaso dizkiegu *kgg*-ri eta *naz*-ri. **4.1.**- erako adibideak jaso zaizkio *kmz*-ri Adibide batzuk:

*nme2* ori m- · mutfko txikixori -ero- orí mutfko txiki ori sein da?  
*naz* ándiko basúa txikixá da  
*kmz* Eguen Súri-ok gaurkó egúna

—Ergatiboan, **1.**- (“onek elixionek, orrek elixiorrek, arek elixiak”), **2.**- (“onek elixa onek, orrek elixa orrek, arek elixa arek”), **3.**- (“elixa onek, elixa orrek, elixa arek”), **1.1.**-, **8.**- moduetako adibideak jaso ditugu. **2.**- moduko adibideak *kgg*-ri; **3.**-koak *kgg*-ri, *nme2*-ri, *naz*-ri, *kag*-ri. **8.**- moduko adibidea jaso diogu *kmz*-ri. **1.1.**- erako adibide bakanak jaso ditugu *raz1*-en eta *kmz*-ren ahotan (ez dirudi forma sistematikoa denik):

*raz1* au e basuónek dakás lau etárea —*kmz* á egúnak etxuan ondo urtén

<sup>429</sup> Ez dugu izen arrunten deklinabide orokorreko azterketa bide zabal eta luzea egin, han nahikoa garatu delakoan.

— Datiboan, **1.-**, **1.1.-**, **2.-**, **3.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** modukoak *razl-i*; **2.-**koak *kkg-ri*; **3.-**koak *kkg-ri, f.a.-ri, rmz2-ri*.

— Edutezko genitiboan, **1.-**, **2.-**, **3.-**, **5.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **2.-**koak *kkg-ren, razl-en, nme2-ren* eta *f.a.-ren* ahotan; **3.-**koak *kkg-ren, kmz-ren, naz-ren, nme2-ren* eta *f.a.-ren* ahotan; **5.-**ekoak *kmz-ren* ahotan; **8.-**koak *f.a.-ren* eta *kmz-ren* ahotan (gogoan izan behar da inesiboko postposizioen aurrekariak ere kontuan hartu ditugula forma hauek azaltzerakoan).

3. graduan “arazo” semantikoa sortzen da **1.-** moduaz eraturako adibideetan, batez ere pertsonak direnean; “aren elixian”-en kasuan inork ez du erreparrorik izan esangura aldetik ere onartzeko; baina “aren alabian”-en kasuan ordea, “aren” hitzez hitz uler daitekeela dirudi, beste norbaiten alaba mintzagai balitz legez: *kmz, kkg* eta *nme2* dira horretaz konturatu direnak, besteak beste.

— Instrumental kasu markadun adibideak *kkg-ri* jaso dizkiogu bakarrik, baina alfabetizazioaren ondorio dira argi eta garbi.

— Soziatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **2.-**, **3.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-**eko adibideak jaso dizkiegu *kkg-ri* eta *kaz-ri*; **1.2.-**koak *f.a.-ri* eta *razl-i*; **2.-**koak *kkg-ri*; **3.-**koak *kkg-ri, nme2-ri, f.a.-ri* eta *kmz-ri*; **8.-**koak *nme2-ri* eta *kmz-ri*.

— Motibatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **2.-**, **2.1.-**, **3.-**, **5.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** moduko adibideak jaso dizkiegu lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **1.2.-**koak *razl-i, f.a.-ri, nme2-ri* eta *kmz-ri*; **2.-**koak *kkg-ri*; **2.1.-**ekoak *nme2-ri*; **3.-**koak *kkg-ri, razl-i, f.a.-ri, kmz-ri* eta *nme2-ri*; **5.-**ekoak *kmz-ri*; **8.-**koak *nme2-ri* eta *kmz-ri*.

— Destinatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **2.-**, **3.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** moduko adibideak jaso dizkiegu *naz-ri* eta *kmz-ri*; **1.2.-**koak *kmz-ri, razl-i, naz-ri, f.a.-ri* eta *rmz2-ri*; **2.-**koak *kkg-ri* eta *nme2-ri*; **3.-**koak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **8.-**koak *nme2-ri* eta *kmz-ri*.

b) Leku-denborazko kasuetako bizigabeen formak<sup>430</sup>:

— Leku-denborazko genitiboan **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **4.-**, **4.1.-**, **5.-**, **6.-**, **7.-** eta **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** erakoak *kmz5-i*; **1.2.-**koak *razl-i, naz-ri, kmz-ri* eta *f.a.-ri*; **3.-**koak lekuko nagusi guztiei; **4.-** erakoak<sup>431</sup> *razl-i, kmz-ri, nme2-ri, f.a.-ri, S.B.-ri, kaz2-ri* eta *kazl-i*; **4.1.-**ekoak *kmz-ri, naz-ri, f.a.-ri* eta *kmz12-ri*; **5.-** erakoak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke) eta *ñmz1-i, rmz-ri* eta *kmz7-ri*; **6.-**koak *kkg-ri*; **7.-** erakoak *nme2-ri, kkg-ri* eta *f.a.-ri*; **8.-**koak *kmz-ri, naz-ri* eta *f.a.-ri*. **4.1.-** erakoak ere jaso ditugu eta adibide bat ipiniko dugu:

<sup>430</sup> Erakusleekin gertatzen denez, adberbio formek betetzen dute sarritan erakuslez osaturako egituren funtzioa.

<sup>431</sup> **8.-** moduko formekin sinkretismoa gertatzen da.

*kmz12* "... Gobierno sozialistiak, gaur egunekuak, indar handixagua daka orduan denporako Azañanak baiño ..."

Eredu horietatik kanpo, **1.-** moduaren aldaeratzat har daitekeen beste egitura batzuk ere jaso dira, harrigarria bada ere, **1.2.-** modua hain zuzen, aurreko erakuslea edutezko genitibo markaz:

*raz1* onén elixáko e u- u- u- abaría, Dom-Pédro · Arrátekua... //raz1 orrén elixáko bánkuak e k- ee · kámbixau in dittúe —*naz* onén mendíko itúrrixak óna-dia

eta alderantziz, **4.-** moduaren aldaeratzat har daiteke izena edutezko genitibo markaz dagoenean (ez dakigu **8.-** modutzat hartu ala ez, adibide hauetan leku-denborazko genitiboa "zuzena" delako):

*naz* emengo elixían ee párrokua dom-Pédro da //naz da, orko elixían · párrokua bé, dom-Pédro

— Inesiboan **3.-**, **4.-**, **4.1.-**, **6.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **3.-** moduko adibideak jaso dizkiogu *kgg-ri*, *raz1-i*, *raz4-ri*, *nme2-ri*, *f.a.-ri*, *naz-ri*, *kmz-ri*, *rmz1-i* eta *kmz3-ri*; **4.-**koak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke) eta *rmz2-ri*, *kmz5-i*, *nme2-ri*, *raz-ri*, *rmz-ri*, *rae-ri*, *kaz1-i*, *kaz2-ri*, *kaz3-ri*, *kaz6-ri*, *ñmz1-i*, *rmz5-i*, *ñaz1-i*, *ñaz2-ri*, *kmz11-ri*, *kmz12-ri*, *kmz1-i* eta *kmz3-ri*; **4.1.-**ekoak *kmz-ri*, *raz1-i*, *nme2-ri*, *naz-ri*, *kaz3-ri*, *kaz2-ri*, *raz-ri*, *rmz2-ri*, *ñmz1-i*, *kmz3-ri*, *kmz5-i*, *kaz9-ri*, *kmz6-ri*, *kmz7-ri*, *kmz10-i*, *kmz11-ri*, *kmz12-ri*, *rmz6-ri*, *rmz5-i*, *rmz-ri* eta *rmz6-ri*; **6.-**koak *kgg-ri*, *f.a.-ri*, *kmz-ri* eta *nme2-ri*; **8.-**koak *kmz-ri*, *naz-ri* eta *f.a.-ri*.

— Ablatiboan, **1.1.-**, **3.-**, **4.-**, **4.1.-**, **5.-**, **6.-**, **7.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso dira. **1.1.-** moduko adibideak jaso zaizkio *rmz-ri*; **3.-**koak *kgg-ri*, *raz1-i*, *nme2-ri*, *f.a.-ri* eta *kmz-ri*; **4.-**koak *kmz-ri*, *kgg-ri*, *raz1-i*, *rmz5-i*, *nme2-ri*, *naz-ri*, *kmz10-i*, *kmz12-ri* eta *ñmz-ri*; **4.1.-**ekoak *kmz-ri*, *nme2-ri*, *f.a.-ri* eta *naz-ri*; **5.-**ekoak *kmz-ri*, *raz1-i*, *nme2-ri*, *naz-ri*, *f.a.-ri* eta *kmz6-ri*; **6.-**koak *kgg-ri*, *nme2-ri* eta *f.a.-ri*; **7.-**koak *f.a.-ri*; **8.-**koak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke).

Dena dela, adierazgarriak dira lekukoen iritziak forma aniztasuna onartzerakoan; aldaerak erabilerarako baino ulermenerako aberatsagoak direla pentsa dezakegu, erabilera "pasibo" handiagoa du:

*kmz* °[**6.-** eta **7.-** moduko formak zuzenean galdetutakoan, **4.-** eta **5.-** erako formen ondoan] eses-báá! ... Órrek dának esan leikes, · da-áitxukotzúe!; · baña nik esetzturana léleno "eméndik ex- elixatik urte-juek"

— Adlatiboan, **1.1.-**, **3.-**, **4.-**, **4.1.-**, **5.-**, **6.-**, **7.-**, **8.-**, **8.1.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** moduko adibideak jaso zaizkie *raz1-i* eta *kaz2-ri*; **3.-**koak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke) eta *kmz5-i*; **4.-**koak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke) eta *kmz5-i*, *kmz1-i*, *ñmz1-i*, *raz4-ri*, *ñaz1-i*, *ñaz2-ri*, *kaz3-ri*, *kmz12-ri* eta *kmz3-ri*; **4.1.-**ekoak *kmz-ri*, *nme2-ri* eta *kmz3-ri*;

**5.-ekoak**, *razl-i* eta *naz-ri*; **6.-koak** *kgg-ri* eta *f.a.-ri*; **7.-koak** *f.a.-ri*; **8.-koak** *kgg-ri* eta *naz-ri*; **8.1.-ekoak** *kgg-ri*.

— Adlatibo bukatuzkoan, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-** **4.-**, **4.1.-**, **5.-**, **6.-**, **8.-**, **9.-** **9.1.-** moduetako adibideak jaso dira. **1.1.-** moduko adibideak jaso zaizkio *naz-ri*; **1.2.-koak** *razl-i* eta *f.a.-ri*; **3.-koak** lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **4.-koak** lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **4.1.-ekoak** *kmz-ri*; **5.-ekoak** *kmz-ri* eta *razl-i*; **6.-koak** *f.a.-ri*; **8.-koak** *kmz-ri*; **9.-koak** lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **9.1.-ekoak** *f.a.-ri*, *kgg-ri*, *nme2-ri* eta *naz-ri*.

Ez dakigu **3.-** moduaren ala **9.-** moduaren aldaeratzat hartu “izena + *ara* + *arte*” egitura; hona hemen *f.a.-ren* ahotan jasotako adibidea:

*f.a.* lagúndukotzut e mai ará arté

— Adlatibo bide zuzenezkoan, **3.-**, **4.-**, **5.-**, **6.-**, **8.-**, **9.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **3.-** moduko adibideak jaso dizkiegu lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **4.-koak** *kgg-ri*, *razl-i*, *kmz-ri* eta *naz-ri*; **5.-ekoak** *kmz-ri*, *razl-i* eta *naz-ri*; **6.-koak** *kgg-ri* eta *kmz-ri*; **8.-koak** *kmz-ri* eta *naz-ri*; **9.-koak** lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke) eta *armz-ri*.

**8.-** moduaren beste aldaera hau jaso dugu *naz-ren* ahotan:

*naz* dána-jóyesen ... arusko basóorutz

c) Leku-denborazko kasuetako bizidunen formak:

— Inesiboan **3.-** modua jaso zaio *kgg-ri*; eta **5.-** modua *naz-ri*. Nola liteke **5.-** modua erabiltzea bizidunen forma eraikitzeko? Bada aldaera bitxi bat erabiliz: lehenengo zatia bizigabe legez, eta bigarrena bizidun legez. Hemen adibidea:

*naz* eñ ero es eñ, emén alabianin · dao

Beste lekukoek postposiziozko egiturak darabiltenez, edutezko genitiboaren formak hartzen dituzte.

— Ablatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **5.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** moduko adibideak jaso zaizkie *kmz-ri* eta *naz-ri*; **1.2.-koak** *razl-i*, *naz-ri*, *f.a.-ri* eta *kmz-ri*; **3.-koak** *kgg-ri*, *nme2-ri*, *f.a.-ri* eta *naz-ri*; **5.-ekoak** *naz-ri* eta *kmz-ri*; **8.-koak** *naz-ri*.

*f.a.-ren* adibide bat **1.2.-** modukotzat jo dugu baina ez du genitibo kasu marka osoa (aurkeztu dugu aldaera hori lehenago ere):

*f.a.* oné alabíoneandik ásko ikesi leike

**5.-** moduaz bizigabe eta bizidun formak nahasten dira:

*naz* emen sorúagandi-ser · espero senduen? // *naz* da or sorúagandi-pé, sé-espero sendúen? — *kmz* or anaian--gándi-pe bai

— Adlatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **5.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** moduko adibideak jaso zaizkio *kmz-ri*; **1.2.-koak** *razl-i*, *naz-ri*, *f.a.-ri*,



*kmz*-ri eta *nme2*-ri; **3.**-koak *kkg*-ri, *nme2*-ri, *f.a.*-ri, *kmz*-ri eta *naz*-ri; **5.**-ekoak *kmz*-ri; **8.**-koak *nme2*-ri.

Bizidun-bizigabe formen kurutzaketek beste aldaera batzuk ere sortarazten dituzte, **1.-** eta **4.-** moduen tartekoak; adibidez:

*kmz* oná alabionean- -ána etorri nok —*naz* etorri saitte ona umionenganá —*f.a.* etó-  
rri saitze ona umíana

*raz1* orráxe léngusuana juan saitze

*raz1* juam-biosu aráxe alabían e -ra, alabíanera juam-biosu

—Adlatibo bukatuzko forma oso gutxitan jaso ditugu: **3.-** modukoak *kkg*-ri, *naz*-ri eta *nme2*-ri; **9.**-koak *nme2*-ri.

**9.-** moduaz eraturtako adibideek adlatibo soileko formak gogorarazten dituzte:

*nme2* orrá umíanganáño // *nme2* alleau da, ará um- umíanganáñok

—Adlatibo bide zuzenezko formarik ez da ia erabiltzen.

#### 1.10.2.2. PLURALEKO FORMA ARRUNTAK

Orokorrean, azterketa egiterakoan singularreko prozedura eta egitura jarraituko dugu eta kasu bakoitzerako jaso ditugun formak eratzeko moduak aipatuko ditugu. Gogoan izan behar da, esan beharrik ere ez dago, pluraleko egituretako osagaiak erakusle pluralak eta izenak kasu marka hartzen duenean mugatzaileak ere pluralekoak direla. Erakusleen lekuan adberbioak daudenean, pluraleko marka izenak bakarrik du. Singularrean legez, **1.-** modua da hedatuen lekuko gehienengan, eta horregatik ez dugu aipatuko nortzuek darabilten modu hori kasuka; beste moduetako erabiltzaileak aipatu egingo ditugu, ordea. Egitura moduen erabiltzaileak aipatzerakoan batzuetan forma indartuak ere kontuan izan ditugu, lehen egin den bezala.

a) Leku-denborazkoak ez diren kasuak:

—Nominatiboan, **1.-**, **3.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.-** moduko ereduak hauek dira: 1. gradurako “onek elixok”, 2.erako “orrek elixok”, 3.erako “arek elixak”. **3.-** moduko adibideak jaso dizkiegu *kkg*-ri eta *rmz2*-ri.

—Ergatiboan, **1.-**, **3.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **3.-** moduko adibideak jaso zaizkio *kkg*-ri.

—Datiboan, **1.-**, **1.1.-**, **3.-**, **5.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** moduko adibideak jaso dizkiogu *kmz*-ri; **2.-**koak *kkg*-ri; **3.-**koak *kkg*-ri, *kmz*-ri eta *S.B.*-ri; **5.-**ekoak *kmz*-ri; **8.-**koak *kkg*-ri.

—Edutezko genitiboan, **1.-**, **1.1.-**, **3.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** moduko adibideak jaso dizkiegu *kkg*-ri, *raz1*-i eta *kmz10*-i; **3.-**koak *kkg*-ri, *naz*-ri eta *nme2*-ri.

— Soziatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **3.-**, **5.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** modukoak *razl-i*, *naz-ri*, *raz-ri*, *kaz3-ri*, *rae-ri*, *kaz11-ri* eta *kmz11-ri*; **3.-**koak *kgg-ri* eta *kmz-ri*; **5.-**ekoak *f.a.-ri*.

— Motibatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **5.-**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** modukoak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **1.2.-**koak *f.a.-ri* eta *nme2-ri*; **3.-**koak *kgg-ri*, *kmz-ri* eta *f.a.-ri*; **5.-**ekoak *kmz-ri*; **8.-**koak *f.a.-ri* eta *razl-i*.

— Destinatioan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **5.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** modukoak *kgg-ri*, *f.a.-ri* eta *nme2-ri*; **1.2.-**koak *nme2-ri* eta *f.a.-ri*; **3.-**koak *kmz-ri*, *kgg-ri*, *naz-ri* eta *f.a.-ri*; **5.-**ekoak *kmz-ri*.

b) Leku-denborazko kasuetako bizigabeen formak<sup>432</sup>:

— Leku-denborazko genitiboan **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **4.-**, **5.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-** erakoak *razl-i*; **1.2.-**koak *f.a.-ri*; **3.-**koak *kgg-ri*, *kmz-ri*, *nme2-ri*, *naz-ri* eta *f.a.-ri*; **4.-**koak *razl-i* eta *f.a.-ri*; **5.-**ekoak *kmz-ri*, *razl-i*, *nme2-ri*, *naz-ri*, *f.a.-ri* eta *kmz3-ri*.

**4.-** moduaren aldaeratzat har daiteke izena edutezko genitibo markaz dagoenean (ez dakigu **8.-** modutzat hartu ala ez, adibide hauetan leku-denborazko genitiboa “zuzena” delako):

*f.a.* eméngo elíxen bánkuak kambíxaitxúe

— Inesiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **4.-**, **4.1.**, **8.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.-**ekoak *nme2-ri*; **1.1.-**ekoak *razl-i*, *rae-ri*, *naz-ri* eta *kmz1-i*; **1.2.-**koak *razl-i* eta *raz6-ri*; **3.-**koak *kmz-ri*, *kgg-ri*, *razl-i*, *f.a.-ri* eta *naz-ri*; **4.-**koak *kmz-ri*, *razl-i*, *kaz2-ri*, *nme2-ri*, *naz-ri*, *f.a.-ri*, *ñmz-ri* eta *nme1-i*; **4.1.-**ekoak *kmz-ri*, *kgg-ri*, *razl-i*, *naz-ri*, *kmz3-ri* eta *rmz6-ri*; **8.-**koak *kgg-ri* eta *f.a.-ri*.

**1.-** eta **4.1.-** moduetako adibide bana ipiniko dugu:

*nme2* ónetan ordúotan ónyiok juam-barfk?

*kmz* núndik átor · aláko-ordútan? —*razl* oláko-ordúeta-núndi-... núndi-satos oláko-ordúetan?

**4.1.-** eta **6./3.-** moduen kurutzaketa duten adibideak ere jaso ditugu *naz-*ren ahotan:

*naz* tira-tira!, oñ órdu ónetan señ etorriko da ba?! // *naz* bueno!, oññ, órdu onetan señ etorriko da ba?

— Ablatiboan, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **4.-**, **5.-** moduetako adibideak jaso ditugu. **1.1.-**ekoak *razl-i*, *naz-ri* eta *kmz-ri*; **1.2.-**koak *razl-i*; **3.-**koak *kgg-ri* eta *razl-i*;

---

<sup>432</sup> Erakusleekin gertatzen denez, adberbio formek betetzen dute sarritan erakuslez osatutako egituren funtzioa.

**4.-**koak *razl*-i eta *kmz*-ri; **5.-**ekoak *nme2*-ri, *naz*-ri, *f.a.*-ri, *razl*-i, *kmz*-ri eta *ñaz2*-ri.

—Adlatiboan, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-**, **4.-**, **5.-**, **8.-** moduez eraturako adibideak jaso ditugu. **1.1.-**ekoak *kmz*-ri, *naz*-ri eta *kmz3*-ri; **1.2.-**koak *razl*-i; **3.-**koak *kgg*-ri, *razl*-i eta *f.a.*-ri; **4.-**koak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke) eta *kmz5*-i; **5.-**ekoak *kmz10*-i eta *kmz*-ri; **8.-**koak *f.a.*-ri.

—Adlatibo bukatuzkoan, **1.1.-**, **3.-**, **8.-**, **9.-** moduez eraturako adibideak jaso ditugu. **1.1.-**ekoak *kmz*-ri; **3.-**koak *kgg*-ri eta *naz*-ri; **8.-**koak *kgg*-ri; **9.-**koak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke).

—Adlatibo bide zuzenezkoan, **1.1.-**, **3.-**, **8.-**, **9.-** moduez eraturako adibideak jaso ditugu. **1.1.-**ekoak *kgg*-ri eta *kmz*-ri; **3.-**koak *kgg*-ri, *S.B.*-ri, *kmz*-ri eta *naz*-ri; **8.-**koak *S.B.*-ri; **9.-**koak *razl*-i, *nme2*-ri eta *naz*-ri. *naz* lekukoari beste forma bixi bat jaso diogu, baina ez da gure ustez Eibarko sistemaren partaide:

*naz* dának ... elíx onutz [sic] etosen

c) Leku-denborazko kasuetako bizidunen formak:

—Inesiboan **1.1.-** eta **3.-** moduz eraturako adibideak jaso zaizkio *kgg*-ri.

Beste lekukoek postposiziozko egiturak darabiltenez, edutezko genitiboaren formak hartzen dituzte aurrekari legez.

—Ablatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-** moduez eraturako adibideak jaso ditugu. **1.1.-**ekoak lekuko nagusi guztiei (*S.B.* kontuan hartzeke); **1.2.-**koak *nme2*-ri eta *f.a.*-ri; **3.-**koak *kgg*-ri.

—Adlatiboan, **1.-**, **1.1.-**, **1.2.-**, **3.-** moduez eraturako adibideak jaso ditugu. **1.1.-**ekoak *kmz*-ri; **1.2.-**koak<sup>433</sup> *razl*-i, *nme2*-ri, *naz*-ri eta *f.a.*-ri; **3.-**koak *kgg*-ri.

Bizidun-bizigabe formen kurutzaketek beste aldaera batzuk ere sortarazten dituzte, **1.-** eta **4.-** moduen tartekoak, singularreko formetan gertatzen den antzera; adibidez:

*nme2* etorri bier isen dou oná néskongañ- · oná néskengana  
*razl* aráxe néskeana góyas

—Adlatibo bukatuzkoan, **3.-** moduko adibideak jaso zaizkio *kgg*-ri. Osterantzean, bizigabeen formak jaso ditugu bizidunentzat ere:

*razl* etorri dia onáxe nésketarañok etorri da-ia [sic]  
*naz* ónetxe-néskonn...-táñok etorri bier isen dou

—Adlatibo bide zuzenezko adibiderik ez dugu jaso.

---

<sup>433</sup> Jaso ditugun adibide batzuetako izena kontsonante sudurkariz hasten denez, **1.1.-** moduko forma zein **1.2.-**koa izan daiteke: “\*one(k) nes kogana” zein “\*one(n) nes kogana”. Guk **1.2.-** aukera hautatu dugu baina bestea ere izan zitekeen beste kasuei eta erantzunei erreparaturaz gero.

### 1.10.2.3. FORMA INDARTUAK

Forma singularrak eta pluralak batera aurkeztuko dira atal honetan.

Determinatzailea erakusle soila denean ez du arrunki onartzen morfema indartzailerik; hau da, “etxe auxe” erako oso-oso adibide gutxi jaso ditugu, eta eurak *nme2*-ren eta *S.B.*-ren ahotan; adibidez:

*nme2* nerí, · presisamente · etxe áuxe gustau ata  
*S.B.* etxe onetxetaraño

Baina birritako erakuslez edo adberbioz osatutako egiturek forma indartzuz egitea arrunta da lekuko guztiengan. Beraz, horiexen formak azalduko ditugu azaletik baino ez bada ere<sup>434</sup>. Teorian, erakusleen indartze moduak egitura hauetara ekarri eta erraz eratuko lirateke birritako erakusle indartuak; baina praxian bestelako emaitzak jaso dira. Indartze modu guztietatik, *-(t)xe* atzizki indartzailedun forma da erabiliena deklinabide kasu guztietan.

Nominatibo singularreko ereduak ipiniko ditugu bakarrik; horietatik abiatuta beste kasu guztiak erraz eraiki baitaitezke: “auxe etxiau, o(r)ixe etxio(r)i, axe etxia”.

Dena dela, morfema indartzaileak sintagman tartekatutakoan batzuetan indartutako sintagma desitxuratu egiten da; adibidez:

*f.a.* suk biosun déndia ortxe semáforo orren párian dao

Adibide horretan, galdekizunez lortutako erantzuna denez, badakigu leku-koak ez duela gaztelaniako indartutako egiturarik itzuli (“a la par de ese semáforo” da galdetutakoa), baina euskaraz egiterakoan balio erakuslea duen “ortxe” osagai indartua tartekatzen du. Sortzen den zalantza hauxe da, “ortxe” osagai horrek zer indartzen du?: “semaforo orren” izenlaguna, ala “parian” postposizioa? Aukera biak onargarriak dira gure iritziz.

Gainera, badirudi forma indartzuz osatutakoan **1.1.-**, **1.2.-** eta **5.-** moduak erabiltzeko joera gehitu egiten dela, batez ere leku-denborazko kasuetan. Adibidez:

*kaz2* °... d’an kuadrán erdixan · kútxillua sartze-eben, da axé · distánsiara ...  
*kmz3* °... éuk e, éuk im-bia-isate-sitxuam-plántillak eta-aaxe · plántilletara gausa-asko rendíru! ...

Edonola ere, atzizki indartzaile hori arestian aipatutako adberbioek ere har dezakete; adibidez:

*nme2* eméntxe-etxíam-bisi nais  
*kmz3* °aa! baitxa!, bai, orkestia; a orkéstia suam-bákarrikan! · Bretón!: bai, orduantxe-épokam-baeuan! ...

---

<sup>434</sup> Ez dugu galdekizunean forma indartuak lortzeko *item*-ik prestatu, eta lekukoen bapateko erantzunetatik eta solasaldi askeetatik lortu da horrelakoen korpusa.

Beste indartze moduetako oso adibide gutxi jaso dira. *a-*, *eu-* aurrizkidun formarik ez dugu aurkitu, eta *ber-* aurrizkiz indartutako adibide bakarra jaso dugu:

*kmz* ipinik bokadíllua beronéas gastaíoneas

Edozein modutan ere, balio erakuslea duten adberbioen forma indartuak kontuan hartu behar dira leku-denborazko kasuetan batez ere<sup>435</sup>, eta horrelakoetan *ber-* morfema indartzailea duten adibide gehixeago jaso dira; hemen batzuk:

*naz* °... ta, bestie-emengotxia-áitta!, m- bertan, bertan etxekua, bai...

*kag5* °ta su emen jaixotakua? bertan etxian?

*raz1* -sein déndatara juan sára? ... -onáxe, bai, bertán ingúrura, bertán ingúrura

Indartzeko modu konposatua (indartze **6.-** modua) ostera, “*izena + erakuslea*” determinatze **3.-** egituran eta “*adberbio erakuslea inesiboan + izena deklinatua dagokion kasu markaz*” determinatze **5.-** egituran jaso dugu bakar-bakarrik. Era honetako adibideak dira:

— **3.-** modukoak:

*nme2* ni, .. etxé ortakúa bertakúa nais

*nme2* etxe onetam-bértam-bisi nais —*S.B.* etxe onetan bertan

*nme2* etxé ortátik · bertátik

*nme2* súa .. etxé ontáño bertáño · alleau san

— **5.-** modukoak:

*nme2* eméntxe-etxéti-bertátik urten dabe // *nme2* ortxé-etxéti-bertátik urten dabe

#### 1.10.2.4. FORMAZKO EZAUGARRI OROKORRAK

##### 1.10.2.4.1. Determinatze **1.-**moduaren eta bere aldaeren inguruko iruzkinak

— Birritako erakusleetan, erakuslearen gradua izenari ere itsasten zaio. Horixe da joera nagusi eta orokorra, baina adibide batzuetan izena gradu gabeko markaz ere jaso dugu, edo alderantziz, 3. graduko erakuslea duen adibidea gradu hurbileko mugatzailez. Kurutzaketa horiek ez dira isolatuak, lekuko askok eta adibide anitzetan egiten baitituzte horrelakoak, bai singularrean bai pluralen; deklinabide kasu gehienetako adibideak jaso ditugu gainera, hasi nominatiboan eta adlatibora arte. Hemen horietariko batzuk:

*ñaz1* °... au inguru gustia san ee, markesána! —*ñaz1* °... ortxee ínguruan san! .. ori etxia! ... —*f.a.* orí alabía oná da

<sup>435</sup> Horiek ez ditugu oraindik aurkeztu, baina hemen gai horren aurretiko batzuk ipiniko ditugu.

*razl* onékiñ e ... basúakin dirua et- eta- etara dou —*kgg* sé-im-bia-dabe orrékin e elixiákin?

*razl* orrén alabiana juam-biosu // *razl* orrén soruaána sóyas?

// *kmz* karíñua étzet óneri frákeri

*kmz* l °daa, an bos-dúroo gáltzia ee, axé da ba seróri · ero..., · axé bos-dúrokuori: a bos-dúrokúa lágatzen dosu ba ...

// *kgg* árek elíxok [sic] e gustátze-játas // *kgg* árek elíxok e óso sárta-día

*razl* preuntau dabe ónetzek ... elíxeaitxik

— Forma bitxi batzuk ere jaso ditugu, kasu marka desitxuratuta edo muriztuta dela, adibidez. Horrelakoak edutezko genitibo, soziatibo, destinatibo eta bizidunentzako ablatibo kasu marketan jaso ditugu batez ere, gradu hurbilekoetan gehienetan. Esate baterako:

*razl* onén alabíon iséna-Amáya dá // *razl* orrén elixíon iséna-Asitáin da

*razl* orrékiñ e elixiokín sé ingo dábe?

*razl* orrén txorítuontzako [sic] be bai

*naz* onén alabíogandik ikesi seinke askó

#### 1.10.2.4.2. Formazko eta erabilerazko orokortasunak

a) Erabileraren mugak: pragmatika

— Mintzagaia bera solasaldian agertzerakoan. Adibidez:

*kmz* °“áren etxien isena · dok e ... Etxebárrí”, ... “Etxebárrí dok á”: akábo! ... bai baña, se- sélan bestán tóntuaa · surekin bérbetan daonaa á etxíaa-kin berbetan saosena, · “á Etxebérrí-ok”, “etxía” · esan biarri-pestao

— Edutezko genitiboan, 3. graduko **1.-** moduaz eratutako adibideek bereziki kezkatzen dituzte gure lekukoak. Baliteke izenaren gradu gabeko mugatzailea izatea kezka horren kaka<sup>436</sup>. Edozein modutan, erakuslea gradu hurbilekoa izan arren izenak gradu gabeko mugatzailea hartzen duenean ere gauza bera gerta liteke, baina lekukoek ez dute horrelako iruzkinik eta zalantzarik garatu. Dena dela, kezka horrek ez du egituraren bizitasuna ezabatzen lekuko gehienetan ahotan. Adibidez:

*kgg* °[“áren etxien isena” galdetutakoan] es, ori da nerétzat “mutíll arén etxían iséna”

// *razl* arén etxían iséna Markeskúa dá — *naz* d’aren etxían isena bé, Sumaran da <galdekizunez lortutako erantzunak direnez, ziur dakigu izenlagun osoa “áren-etxían” dela, eta ez direla bi izenlagun bata bestearen ondoan>

<sup>436</sup> Gogoan izan behar da “áren alabian” formaz arestian esan dena.

Gradu gabeko izenaren adibidetzat:

*raz1* orren gastayan usaña etxata gústatzen

b) Determinatutakoa izena izaten da gehienetan, izen arrunta batez ere, baina izen bereziak ere jaso ditugu egitura hauetan, bai pertsonenak bai lekuenak. Esaterako:

*rmz* °l-lo estai-aré-nun itxe-ban!: geuriam-be ingo ban! Ori Esnáolesioi be gurian loindda- loindda daok!

*ñaz2* °ori Eskol' Armerixiori be, · sémat?, métro bete beste be bajatúta eongo da óri, e? ...

c) Izena baino egitura konplexuagoak ere erakuslez edo pareko osagaiz determinatu daitezke; sintagma zein perpaus osoak ere har ditzake barnean. Esateko moduz, kasu eta gradu guztietako adibideak jaso ditugu horrelako egitura konplexuz, bai singular forman bai pluralean, bai forma arruntak zein indartuak. Jarraian adibide batzuk ipiniko ditugu:

—Sintagmak izenlagunez osatutakoak izan daitezke, edo “*izena + izenondo*”, “*izena + determinatzailea*” eta abar. Sintagma barruko osagaiak postposizioz eta antzerakoez ugaritu egin daitezke. Oso arrunta da horrelako izen-adizlagun-izenlagun sintagma “beteak” aurkitzea solasaldi askean. Hemen adibide batzuk:

*naz* au soríxoneko etxiau, etxata bápe gustatzen, e?

*nme2* °ori póni ee, krisóí ipur gáñie-erdí súrixa daukenoi e, s- sein- nungúa ero ser dok ori?

*kaz1* °... ori balléra gustiori da Otaóla, Otaóla-ballía

*kmz3* °... torri atan ori · Trabaku ondoko básarritxarroí ...

*kmz* °emen béste torrián bisi da

*lkmz7* “... ónek ee, labradore ee, pixkat pudientiók ... bialtze eben ee ...”

*nme2* °órre- o- órrek esti ala? · órrek or sillakuk esti alá?

*f.a.* °órrek, guree ortu aldekuook...

*raz* °baái!, baña-apúrto sitxúen áre-kristál aundí-aundí-aundíxak, e? ...

—Perpaua determinatzerakoan erlatibozkoak izaten dira, eta era askotakoak jaso ditugu. Adibide batzuk ipiniko ditugu bakarrik:

*raz1* °... lapúr komplétua-dia géixenak, dának es, e? ... -paña ónek áurrian eon dian danók!?!...

*rmz* °... sárrena san Kaitánonian dá, ónek om-bisi diana-baño sárraua... · ee... · iruroi bat urté be, isengo sitxuam-bisi-isem-balitza

*raz1* °súú fijau sáitxe-báái!, da óne-gisón asskó eraten dabenók!, · au baltzitxuta euko dábe! ...

*naz* baa, ortxéé neuk esautzuten eeee... formán

*raz1* °... baña gaur e, ombré!, léleno m- e · botíkara, bai! ará mutilla dauan lékura...

d) Erakusleek determinatzaile legez duten egitura aukera zabala ikusirik, hauxe da *kgg* lekukoaren iritzia (iritzia ez da berez orokorra, baina lekuko guztiek onartzen duten aukera aniztasuna erakusten du, besteak beste):

*kgg* °eske dakáten impresíñua da es nauala <<erántzun>> bát bés emóten, osea, dá-nak díra nere ústes bai... baña eske-estákit- dáre gausá bátzuk estákitxéna sélan esáiteixurán... .. Eske-estákitx, estáki-sélan esáiteixurasen órrek, eta ordúan urtétze-játa géixenetan modú bardfñian baña estáki-dán, ba óri, <<itzúlpena>> daláko eta ordúan ba jóten dot e normalisáura...

#### 1.10.2.5. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, aipagarria da erakuslea (edo ordezeko dena delako osagaia) funtzio horretan hamabost egituratan ager daitekeela, horietatik batzuk oinarritzko egituren aldaerak diren arren. Orokorrean, lekuko bakoitzaren idiolektoak determinatze moduren baten aldeko joera du, baina polimorfismoa orokorra da, baita idiolektala ere.

Forma arruntei dagokioenez, singularrean, leku-denborazko bizigabeen formetan izan ezik, lekuko gehienen determinatze modu nagusia **1.-** da, “biritako erakusle”-tzat hartzen diren formak, beste modu gehienek ere bizitasun handia duten arren. **1.1.-** modua ere nahikoa orokorra da, sozilatibo eta motibatibo kasu markaz adibidez. **1.2.-** modua nahikoa hedatuta dago lekukoen ahotan baina Arratekoek darabilte sarrien. Determinatzeko **2.-** modua batez ere kaleko gazteen ahotan erabiltzen da, kaleko eta baserriko lekuko zaharrago gutxiak ere erabiltzen duten arren; horren parekoak dira **6.-** eta **9.1.-** moduak, leku-denborazko bizigabeen kasu eta formetarako. **3.-** modua ere lekuko gehienek ezagutzen dute eta batez ere leku-denborazko kasuetan erabiltzen da, baita edutezko genitibo eta destinatibo kasuetan ere; baina alfabetizazioaren eraginez ziurrenik, kaleko lekuko nagusi gazteenak gehien darabilen modua da, edozein kasutan. **4.-** modua ere leku-denborazko kasuetan erabiltzen da bereziki, kurutzaketak kurutzaketa; kasu horietarako modu erabilienetarikoa da. **4.1.-** modua denbora adierazterakoan erabiltzen da, lekua eta bestelako nozioak ere adierazten diren arren. Lekuko zahar gehienen ahotan oso bizirik daude horrelako formak. **5.-** moduaren gramatikaltasuna zalantzan dago lekuko batzuen senan baina argi dago erabili erabili egiten dela eguneroko solasaldietan, uste ez duten lekukoenetan ere. **8.-** modua zaharrenen ahotan bizi dela esan daiteke, adin ertaineko Aginagako lekuko nagusiak ere sarri darabilen arren eta oso gutxitan kaleko lekuko nagusi gazteenak. **9.-** modua ere oso hedatuta dago leku eta adin guztietako eibartarren artean. Adlatibo bukatuzko bizidunen formak Aginagako lekukoen ahotan jaso dira bakarrik, eta lekuko alfabetizatuenetik. Adlatibo bide zuzenezkoen bizidunen formarik ez da erabiltzen Eibarko hizkera jatorrean.

Forma pluraletan ere antzerako emaitzak lortu dira.



Forma indartuei dagokienez, determinatzeko **3.-** moduak nekez onartzen ditu indartzaileak; bai, ostera, birritako erakusleek eta beste moduek orokorrean. *-(t)xe* atzizki-artizkia da indartzeko modu nagusia. Leku-denborazko kasuetan batez ere, determinatze **1.1.-**, **1.2.-** eta **5.-** moduen erabilera areagotu egiten da. “Bertan” forma indartua ere sarritan erabiltzen da leku-denborazko bizigabeen formetan.

Edonola ere, elkarren ondoko determinatzailearen eta izenaren graduetan kurutzaketak izan daitezke.

Egitura eta forma hauen erabileraren muga nagusia pragmatiko-semanticoa da, anbiguateak ekiditze aldera. Osterantzean, determinatutako osagaia izen arruntaz landa izen berezia, izen sintagma konplexuagoak eta perpaus osoak ere izan daitezke.

### 1.10.3. *Balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak*

Forma hauek sarri aipatu dira jada erakusleen atalean barrena, batez ere ize-nordainen eta determinatzaileen lekua betetzen dutelako leku-denborazko kasuetan. Oraingoan adberbio horiei lotuko gataizkie euren azterketarako<sup>437</sup>. Leku-denborazko formak ez ezik, moduzkoak ere kontuan izan ditugu<sup>438</sup>. S. ALTUBE-K<sup>439</sup> erakusleen (“demostrativos”) artean aztertu zituen eta izenordainen maila eman zien lekua eta modua adierazten duten formei. I. LASPIUR-ek<sup>440</sup> “Leku-adberbixo”-tzat hartzen ditu hauetariko batzuk —ez ditu aintzat hartzen moduzko formak, esate baterako—.

Azterketa eta ikerketa pragmatiko askoz ere sakonagoa egin daitekeela badakigu baina ikertzaile espezializatuagoentzat uzten dugu zeregin hori. Gogoan hartu beharko litzateke aurrekaria/erreferentea non den, ahozkoa den ala gauza, zein alde dagoen (neurria, figuratiboa, denborazkoa...), solaskideen arteko eragina... eta abar<sup>441</sup>. Forma nagusiak, aldaerak, eta batzuetan ingurua ere ekarriko ditugu azterketa honetara.

Leku-denborazko eta moduzkoak direnez, ia forma guztiek bizigabetzat hartzen diren erreferentea dute<sup>442</sup>, baina deklinabidean, adberbioak ere badirenez, ez da bizidun-bizigabe bikoizketarik. Aldaerak ostera, ugari dituzte forma bakoitzak, indartuek bereziki.

<sup>437</sup> Guk deklinabideko atal honetan horiek aztertuko ditugu.

<sup>438</sup> R.P.G. DE RIJK-ek honela esaten die: “Deictic manner adverbs” (1995, 79-79).

<sup>439</sup> (1975, 71-96).

<sup>440</sup> (1999b, 126-128).

<sup>441</sup> Erakusleen antzerako emaitzak lortuko lirateke azterketa horiek eginez gero, gure usteetan.

<sup>442</sup> Erakutsi dugu erakusle determinatzaileen atalean batzuetan bizidunentzat ere erabiltzen direla.

### 1.10.3.1. FORMA ARRUNTAK

#### Balio erakuslea duten adberbio kategoriako forma arruntak

1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua
<i>amen /emen; amengo /emengo /ameko /emeko; amendik /emendik /ametik /emetik; ona; onaño(k); onutz. Ola(n) /ala(n)</i>	<i>or; orko /orgo; ortik; orra; orraño(k); orruz. Ola(n) /ala(n)</i>	<i>an; angu; andik; ara; araño(k); arutz. Ola(n) /ala(n)</i>

Inesiboko forma nagusiak hauek dira: “amen/emen, or, an”. Inesiboko formei txertatzen zaizkie beste kasu marka hauek: leku-denborazko genitiboa eta ablatiboa.

Adlatiboek —bukatzukoak eta bide zuzenezkoak— adlatibo soileko formak hartzen dituzte oinarrian: “on(a), orr(a), ar(a)”.

Moduzko formak hauek dira: “ola(n), ola(n), ala(n)”.

Kasu batzuetan, kasu markari leku-denborazkoa erantsita ere sistematikoki jaso dugu: “norako, nundiko, zelako, noruzko” galdekarien erantzunak hain zuzen. Adlatibo bide zuzenezkoan inesibo kasu marka txertatuta ere jaso dugu.

Aipatutako kasuak banaka aztertuko ditugu, jaso diren aldaera bereziak ere aipatuz:

— Inesiboan, 1. graduan alternantzia handia dago hasierako zein bokal hartu; “amen” zein “emen” oso forma erabiliak dira lekuko guztien ahotan, eta alternantzia lekukoen artean baino, lekuko bakoitzaren idiolektoan ere badela esan daiteke. Hala ere, lekukoek eurek ere joerak dituzte: “amen” darabilte nagusiki *kmz1*-ek, *raz*-k, *raz1*-ek, *raz5*-ek, *kag*-k, *ñaz1*-ek, *kaz1*-ek, *kaz2*-k, *kaz3*-k, *kmz3*-k, *kmz6*-k, *kmz7*-k eta *f.a.*-k esaterako; beste batzuek berriz, “emen”, *kmz*-k eta *rmz2*-k legez. Beste lekuko batzuei, bietarikoak jaso dizkiegu: *rmz*-ri, *ñaz2*-ri, *ñmz*-ri, *rmz5*-i, *nme2*-ri eta, *naz*-ri. Alternantzia hori beste kasuetara ere iragazten da, jakina.

Beste formek ingurueak eraginiko aldaera fonetikoak dituzte.

— Leku-denborazko genitiboko aldaera nagusiak hauek dira: 1. gradurako “amengo, emengo //ameko, emeko”. Lehenengo bikotearen banaketa lekukoka inesibo formen arabera da batez ere. Aldaera horiek dira hedatu eta erabilienak lekuko guztien ahotan. Baina besteak ere jaso ditugu eta *raz1* lekukoa, esate baterako, oso arrunt darabiltza solasaldi askean ere. Horrek esan gura du galbidean dauden formak direla. Bestalde, forma horiek leku-denborazko oinarrian ez dela beti inesibo forma osoa argi uzten dute. Edonola ere, banaketa hori (kontsonante belarearen aurreko sudurkaria izan ala ez) beste kasu batzuetan ere ageri da, ablatiboan esaterako, **1.**- moduaz indartutako inesibo formetan eta abar.

2. graduko aldaera nagusiak aipatu ditugu deklinabide orokorraren atalean ere: kasu markan leherkari ahostuna ala ahoskabea hartu. Bigarren aldaera hau da erabiliena alde handiz, baina “orgo” ere jaso dugu *raz1*-en, *raz5*-en, *rmz*-ren eta *f.a.*-ren ahotan.

—Ablatiboan, genitiboan legez, 1. gradurako hainbat aldaera jaso dira (amaierako *-an* gehigarria kontuan hartzeke) eta horien erabiltzaileen profila barreiatuagoa da “amengo /ameko”-ren kasuan baino. Aldaerak kasu markaren aurreko kontsonante sudurkaria izan ala ez, horretan datzate: “amendik, emendik; ametik, emetik”, alegia. Kontsonante horzkariaren aurreko “-n-” sudurkari-dun aldaerak askoz erabiliagoak dira lekuko guztien ahotan, baina hori gabe-koak darabiltzate besteak beste *kmz*-k, *raz1*-ek, *rmz2*-k, *naz*-k eta *f.a.*-k; lekuko zaharrek nolahi ere. Adibidez:

*raz1* °... “sobrekórsa” ero estáki-s’ésatetzén! ... amétik, améndik, · au, au estú-estú ...

Aldaera horiek leku-denborazko genitiboaren marka hartzerakoan ere gorde egiten dira: “amendiko, emendiko; ametiko, emetiko”. Sudurkaririk gabekoak gutxiago erabiltzen dira eta darabiltenen artean *f.a.* da horrelakoak gehien darabiltzan lekukoa. Izenlagun legez hiru graduak erabiltzen dira; baina hiru graduetan lexikalizaturiko formak bereziki erabiliak dira, “amendikalde /emetikalde, ortikalde, andikalde” hain zuzen ere (< “\*amendiko-alde”, noski).

—Adlatiboko formak aipatu dira lehen ere, eta ez dugu jaso aldaera garantzitsurik, nahiz eta erabilera aberatsa izan.

Adlatiboko formei leku-denborazko genitibo marka erantsitakoan ordea, lortu ditugu aldaera batzuk; “onako, orrako, arako” dira forma hedatu eta erabilienak. Baina erredundantziadun aldaerak ere jaso ditugu 1. eta 2. graduetan: “onarako”, *kgg*-ren eta *ñmz*-ren ahotan; eta “orrarako” *kgg*-ren ahotan. Azken aldaera hauetan lekukoek “ona- orra-” oinarriak ez dituzte adlatibo kasu markaduntzat hartzen itxuraz eta izenei txertatzen zaien *-ra-* adlatibo kasu marka gehitzen diete.

—Adlatibo bukatuzko formek ere ez dute aparteko aldaerarik eskaintzen<sup>443</sup>. Bide zuzenezkoetan ere, fonetika sintaktikoko fonetismoak alde batera utzita, kasu markaren beraren aldaerak dira jaso ditugunak, “onutz /onuntz” erakoak, alegia (kontsonante sudurkaridun aldaera *nme2* lekukoak darabil bakarrik).

Horiei leku-denborazko genitibo marka erantsitakoan aldaera fonetikoak jaso ditugu, *-usko* aldaera nagusia den artean, *kgg*-k *-utzko* ere egiten baitu batzuetan, eta *nme2*-k *-unsko*. Orokorrean forma erabiliak dira lekukoan ahotan; lekuko nagusi guztiek ezagutu eta erabiltzen dituzte, eta solasaldi askean ere erraz erabiltzen dira.

---

<sup>443</sup> “Onarte” eredukorik jaso ez dugun arren, ziurki lekukoek erabiliko dute noizbait; forma indartuetan adibide bat jaso dugu bederen.

Inesibo kasu marka txertatutako formak ordea (“onu(n)tzian, orru(n)tzian, aru(n)tzian”), ez dira hain ezagun eta erabiliak, baina lekuko nagusi guztiek, *kgg*-k izan ezik, darabiltzate horrelakoak. Zentzuz<sup>444</sup>, goiko formen antzera-koak dira.

—Moduzko formek ere aldaera fonetikoetan eredu nagusi bi dituzte: amaierako kontsonante sudurkaria izan ala ez, “olan, ola; alan, ala”, alegia. Alternantzia hori galdekariak berak ere badu (“selan /sela”), eta bai forma arruntetan bai indartuetan gordetzen da. Sudurkaridun aldaera da hedatuena, baina “ola” kontsonante sudurkari gabeko aldaera darabilte besteak beste *kmz1*-ek, *kgg*-k, *raz1*-ek, *nme2*-k, *f.a.*-k, *kmz3*-k, *rmz5*-ek, *kaz1*-ek eta *kaz3*-k, beste formekin batera, jakina. “Ala” aldaera darabilte beste formarekin batera *raz1*-ek, *S.B.*-k, *kmz1*-ek, *ñaz1*-ek eta *rmz5*-ek.

1. eta 2. graduko formak berdinduta daude sinkretismoa gertatuz “ola(n)” forman, eta gradu hurbileko mugatzaileekin gertatzen zenez, inguruko osagaiek lagundu behar dute zein gradu den bata eta bestea bereizteko; ondoko erakusleak eta izenordainak zeintzuk diren, aditzondoak, adizkien pertsonak, mintzagaia, eta abar. Areago, “neutralizazio” hori 3. graduko formarekin ere gertatzen da erabilera mailan, formaz ez bada ere, lekuko batzuei 1. eta 2. gradurako “ala(n)” sarri jaso baitiegu beste formen ondoan, *kmz*-ri, *naz*-ri, *f.a.*-ri, *S.B.*-ri, *kmz1*-i, *rmz2*-ri, *nme1*-i, *kaz3*-ri, *kmz5*-i eta *kaz5*-i kasu. Leku-denborazko genitibodun formak kontuan hartuz gero lekukoen zerrenda luza egin daiteke; izan ere, *kaz2*-ri eta *kmz3*-ri ere jaso dizkiegu “alako”-z osatutako adibideak 1. eta 2. graduatarako. Adibide batzuk:

*kmz* °bái!: <esan ahalako unean> bérbetan álan bai!, es naix asperten... <1. gradurako>

*naz* gúri esauskuen · álan · eitte-sala, béste formán, ólan... <1. gradurako>

*kmz* °baa!, éuskixa be-eixosu, goixán, éuskixa! · éuskixa... <marrazten diharduen bilobari esaten dio hori> ... álan! álan! álan!... <2. gradurako>

*kmz1* °... baña, igual eitxen dau berbá ta · -“está esáten ólan, e?, · ála esáten da, e?”

Alderantzizko gertakaria ere jaso dugu baina, “ola(n)” erabiltzea 3. gradurako; *kgg*-k (ez baitu “alan” forma erabiltzen) eta *f.a.*-k egiten dituzte horrelakoak, esaterako. Leku-denborazko genitibodun formak kontuan hartuz gero lekukoen zerrenda luza egin daiteke: *kmz8*-ri ere jaso dizkiogu “olako”-z osatutako adibideak 3. gradurako. Adibidez:

*kgg* °... “... a ólan da, ta ésta ólan”; baña gero ...

Moduzko formei ere leku-denborazko genitiboaren kasu marka txerta da-kieke, ikusi denez, eta “zelako” galdetzailearen erantzunak erabilera aberatsa dute gainera. Hiru graduetak erabilera kurutzaketak honelakoetan ere bete egiten

<sup>444</sup> Deklinabide arrunteko adlatibo bide zuzenezkoari eskainitako atalean azaldua da dagoeneko.

dira. Formazko aldaera nabarmenenak ostera, adberbioaren barruko kontsonantearen alternantziaren arabera dira, kontsonante albokaria ala sudurkaria izan: “olako” eta “alako” ditugu lekuko guztien ahotan, baina “onako” ere jaso diegu *razl-i* eta *nme2-ri* 1. gradurako. “Onako” hori ez da nahastu behar adlatibotik eratorritako formarekin; ez baitute zerikusirik sinkretismoz gertatzen den homofonismo hutsaz landa.

### 1.10.3.2. FORMA INDARTUAK

Adberbioek eurek ez ezik, inoiz galdetzaile batzuek ere onartzen dituzte morfema indartzaileak, “nungotxe, nunditxik, noraxeño(k)/norañotxe(k), selakotxe” erakoak sortzen dira. Beste galdetzaileak indartzeko bestelako bideak erabili behar dira, “egixa/garbi esateko, susen, prexixo, justu, seguru” erako osagaiz osatutako egiturak, errepikapenak, luzapenak eta abar. Ez gara horietan gehiago luzatuko.

Indartze moduak erakusleetan erakutsi ditugunak dira funtsean, kategoria eta forma hauetara egokituta, jakina. Erakusleen atalean egin dugun antzera, modu bakoitzaren zenbakia aipatuko dugu indartze era bakoitza izendatzeko aurrerantzean:

— **1.-** modua: atzizki-artizki bakarra  $-(t)x(e)-$  da eta indartze modu nagusi eta erabilienetarikoa (“amentxe /ementxe; ortxe, antxe”, adibidez).

— **2.-** modua:  $a(u)-$  aurrizkiz (“aor”).

— **3.-** modua, aipatutako aurrizkiz eta atzizkiz osatuta  $a(u)- \dots -xe$ . Eibarren ez da erabiltzen adibide isolaturen baten ez bada (“aolantxe” erako formak, alegia).

— **4.-** modua: *ber-* morfemaz (“bertan”, adibidez).

— **5.-** modua, **1.-** eta **4.-**ren bitartez osatzen da, baina oso gutxi erabiltzen da (“bertantxe”).

— **6.-** modua: “adberbio arrunta + *ber-* aurrizkiz indartutako gradu bereko adberbioa”. Kasu marka erakusle bietan itsas daiteke edo bigarrean bakarrik (“amen bertan, or bertan, an bertan”, adibiderako). Horrela egitura konplexuak sortzen dira, errepikapenez.

— **7.-** modua: “ $-(t)x(e)$  atzizkiz-artizkiz indartutako adberbioa + *ber-* aurrizkiz indartutako adberbioa”. Kasu marka erakusle bietan itsas daiteke edo baten bakarrik (“amentxe bertan, ortxe bertan, antxe bertan”, adibidez).

Ez dakigu sistematikotzat hartu ala ez batez ere *kgg-ri* jaso dizkiogun **5.-** erako adibideak: *ber- \dots + -(t)xe* formak eta horietaz osatutako egiturak<sup>445</sup> (“bertantxe, amentxe bertantxe”).

<sup>445</sup> I. LASPIUR-ek lekuzko forma guztietakoak aurkezten ditu leku-adberbio indartuen taulan (1999b, 128), baina gure lekukoengandik jaso dugunak horren ia erabateko erabilera eza erakusten digu; gainera, egile horrek jarritako adibideetatik baten ere ez da era horretako formarik agertzen.

Orokorrean, formari dagokionez baliteke egitura batzuek indartze maila handiagoa dutela irudi izatea, baina ahozko solasaldian forma indartuek antzerako “indarra” edo adierazkortasuna dutela uste dugu. Areago, erakusleetan ere erakutsi denez, sarritan forma arruntak eta indartuak elkarren ondoan ageri dira piskat anarkikoki antzean.

Indartze modu bakoitzaren kasu guztietako forma denak banan-banan aztertzea lan luzea bezain alferrikakoa litzateke eta orokortasunak aipatuko dira batez ere, eta kasuren baten formazko aipagarririk balego horixe aipatuko da bereziki.

### 1.10.3.2.1. 1.- moduaz indartutakoak

#### Balio erakuslea duten adberbio kategoriako forma indartuak, “-(t)xe”-z

1. Gradua	2. Gradua	3. Gradua
<i>amentxe /ementxe /ametxe /emetxe; amengotxe /amengoxe /emengotxe /amekotxe /emekotxe; amendi(t)xik /emendi(t)xik; onaxe; onaxeño(k) /onañotxe(k) /onaxerarte. Ola(n)(t)xe(i)(k) /ala(n)(t)xe(i)(k) (eredurako: olantxe, olanxe, olaxik, olaxek, olaxeik, olatxeik, olantxek, olantxeik, olantxik, olatxik, olantxen, olaxe, olaxen)</i>	<i>ortxe; orkotxe /orgotxe; orti(t)xik; orraxe /orratxe; orraxeño(k) /orrañotxe(k). Ola(n) /ala(n) (idem)</i>	<i>antxe; angotxe /angoxe; andi(t)xik; araxe /aratxe; araxeño(k) /arañotxe(k). Ola(n) /ala(n) (idem)</i>

Hauek dira hedatu eta erabilienak kasu guztietan adlatibo bide zuzenezkoan izan ezik, ez baitu morfema hori onartzen. S. ALTUBE-k “intensivos” legez aurkeztu zituen beste izenordainekin batera, eta bere ustez, hauek dira benetako forma indartuak<sup>446</sup>.

— Inesiboan, atzizki legez ezartzen da, eta egitura fonetikoaren eraginez ziurki, beti kontsonante afrikariz egiten da. 1. graduako aldaerak, arrunta denez, kontsonante sudurkari izan ala ez dira: “amentxe, ementxe /ametxe, emetxe”. Lehenengo forma biak dira orokorrak, baina “ametxe/emetxe” ere jaso diegu *ñmz*-ri, *kaz3*-ri, *kmz3*-ri eta *naz*-ri, besteak beste —nolanahi ere, denak lekuko

<sup>446</sup> (1975, 72-79).

zaharrak; forma horiek galtzeko zorian dauden erakusgarri—. Deigarria da horietan ere morfema indartzailea kontsonante afrikariz egitea, bokal artean frikari txistukaria ere izan baitzitekeen (“\*amexe/\*emexe”).

—Leku-denborazko genitiboan ere atzizki legez txertatzen zaio oinarriari. Lekukoengan forma hedatuena kontsonante afrikariduna da baina frikari txistukaridun forma batzuk ere jaso ditugu, esate baterako, *ñmz*-ren ahotan (3. graduan, “angoxe” egiten du). Forma arrunten atalean aipatutako 1. graduko aldaera biak jaso ditugu: “amengotxe /amekotxe”.

—Ablatiboan, morfema indartzailea artizki bihurtzen da, kasu markaren aurretik ezartzen baita (“amenditxik” da eredia). Aldaera nagusia kontsonante afrikariduna da, baina frikari txistukariz (“ortixik”) ere egiten dute besteak beste *rmz6*-k, *naz*-k, *kmz3*-k, *kmz5*-ek eta *kmz8*-k (Eibar guztiko zaharrek, esateko moduz).

—Adlatiboan indartze morfema atzizki legez txertatzen da. Aldaera nagusi eta erabatekoa kontsonante frikariduna da (“onaxe”) baina kontsonante afrikaridun aldaera jaso diegu *nme2*-ri (“orratxe” hain zuzen, nahiz eta berak “aratxe” forma gaitzetsi) eta *kaz5*-i (“aratxe” forma).

—Adlatibo-destinatiboan morfema indartzailea atzizki legez txertatzen da. Forma arruntetako aldaerak indartuetara ere iragazten dira: “onakotxe” eredu erabiliena da batetik, eta “onarakotxe” bestetik, azken hau *kgg*-ren ahotik.

—Adlatibo bukatuzkoan, galdetzaileetan ikusi ahal izan denez, indartzailea txertatzeko bi eredu daude. Bata, artizki legez, indartutako adlatibo formei kasu marka txertaturik kasu marka ostean dela (“onaxeño(k)”); eta bestea, adlatibo bukatuzko forma osoari morfema indartzailea atzizki legez txertatuta (“onañotxe(k)”). Lehenengo kasuan adlatiboaren aldaerak kasu honetara iragazten dira, kontsonante txistukari eta guzti, baina alternantzia ere jaso dugu: kontsonante frikariz egitea da erabateko joera, baina afrikariz ere jaso dugu adibide banakaren bat *kmz*-ren eta *raz1*-en ahotan. Bigarren kasuan kontsonante afrikaria da nagusi. Lehenengo eredia da erabiliena lekukoan ahotan; besteak beste, horrela osatutako formak lekuko nagusi guztiek darabiltzate, *kgg*-k izan ezik. *f.a.* lekukoak gainera, “onaxerarte” aldaera ere darabil “onaxeño(k)” hedatuagoaren ondoan. Bigarren eredia darabiltzen artean hauek ditugu: lekuko guztiak, eta *rae2* eta *rag2*.

—Moduzko formak nagusiki era honetara indartzen dira, baina aldaerak ugari dira. Ez ditugu formen graduak kontuan hartuko, azken fineak aldaerak berdintsuak baitira gradua aldatu arren ere. Gradu hurbileko eredia ipiniko dugu baina ezaugarriak 3. gradura ere iragaz daitezke.

Batetik, morfema indartzailea artizki zein atzizki legez txerta daiteke. Gehienetan gertatzen den legez, artizki denean kontsonante frikaria hartzen dute; atzizki denean kontsonante afrikaria, salbuespenak jaso ditugun arren. Kontsonante sudurkaria tartekatuta ala ez, eta nola tartekatzen den ere aldaera gehiago sortarazten ditu. Azkenik, lekuko batzuek adberbioak sortzeko *-ik*

atzizkia (edo horren aldaerak) txertatzen diote forma batzuei (nahiz eta “\*olanik” erako formarik ez dugun Eibarren jaso).

Ikus ditzagun, bada, zeintzuk diren aldaera eredu horiek eta nork darabilen bakoitza: “olantxe” lekuko guztiek *f.a.*-k izan ezik eta gainera *rmz2*-k eta *kaz3*-k; “olanxe” *kmz*-k; “olaxik” *raz1*-ek eta *naz*-k; “olaxeik” *raz1*-ek, *kaz2*-k, *kaz3*-k eta *naz*-k; “olaxeik” *raz1*-ek, *naz*-k, *f.a.*-k eta *kaz3*-k; “olatxeik” *nme2*-k; “olantxe”, *raz1*-ek; “olantxeik” *nme2*-k; “olantxik” *nme2*-k, *kmz10*-ek eta *naz*-k; “olatxik” *S.B.*-k; “olantxen” *kmz10*-ek; “olatxe” *kgg*-k, *nme2*-k, *S.B.*-k eta *f.a.*-k; “olaxen” lekuko guztiek *kgg*-k izan ezik eta gainera *raz*-k, *raz5*-ek, *kmz3*-k, *kmz11*-k, *kmz1*-ek, *raz4*-k, *rmz*-k, *kmz5*-ek eta *kmz11*-k; “olaxe” lekuko nagusi guztiek *nme2*-k izan ezik eta gainera *raz5*-ek, *kmz3*-k, *kmz1*-ek, *raz*-k, *rmz*-k, *nme1*-ek, *ñaz1*-ek, *kaz2*-k, *kmz5*-ek eta *kmz6*-k; “olatxen” *raz1*-ek, *nme2*-k eta *naz*-k. Adibide baten forma “osoago” bat ere jaso dugu, “orrelaxe”, *kmz*-ren ahotan. Adibide bakarra denez, ez dirudi sistematikoa denik, eta agian inguruan (telebistan, umeen ahotan) duen eredu arautuaren eraginez sortutakoa izan daiteke. Dena dela, “olantxe” eta “olaxe(n)” dira forma erabilienak.

—Moduzko formei leku-denborazko genitibo marka gehituta, ostera, ez da hainbeste aldaera sortzen, askoz ere forma bateratuagoak ditugu; “olakotxe, alakotxe” dira orokorrean. Hala ere, indartzailearen kontsonantearen alternantzia honelakoetan ere jaso dugu; *ñmz* eta *raz6* dira “alakoxe” forma jaso dигun lekuko bakarrak; besteek onartu ere ez dute egiten forma hori.

#### 1.10.3.2.2. 2.- moduaz indartutakoak

Oso adibide isolatueta jaso dugu horrelakorik, eta jaso ditugunak ere, 2. graduko inesibo forman, “aor” hain zuzen. Besteak beste, lekuko hauei jaso zaie forma hori: *kmz*-ri, *naz*-ri, *raz1*-i, *nme2*-ri, *f.a.*-ri, *ena*-ri eta *mnaz*-ri. Adibidez:

*kmz* °aor bai!, “asiento”  
*naz* aór!, nun dauen sure lagúna!  
*raz1* °aor bá!, bai bá!

#### 1.10.3.2.3. 3.- moduaz indartutakoak

2.- modutik eratorritako forma denez, are eta gutxiago erabiltzea ez da harrigarria. Dena dela, adibide bakan batzuk jaso ditugu, inesiboan eta moduzkoetan, *rae*-ren ahotan:

*rae* °Juliantxoi ee, eum-bider eraitxutzen orí!, .. gixájua eíñ esínda...: neu be-ei-einda nao! Juliantxoi, · e kastigua!, séma-bidér! Gisájua! ésan ee geldi oten da, xili-pe-es da... .. aortxe!: bíxok éitten! ...  
*rae* °au- oixe terrásioi léintxe!, lau póste aolantxee... · tí-tí-tí!, d’antxe gáñian...



#### 1.10.3.2.4. 4.- moduaz indartutakoak

Forma hauek S. ALTUBE-k “reproductivos”-tzat hartu zituen (1975, 79-93). Balio hori badute, baina indartzaile hutsa ere bai, erakusleen atalean erakutsi denez. Adibide batzuetan balio horiek kurutzatu egiten dira, honetan esaterako:

*kmz3* °... barriro be · aaxe baña íarri naetza-nik! “bértan daok amen!” ... <adibidea  
6.- modukotzat ere har daiteke>

Forma hau leku-denborazko kasuetan erabiltzen da bakarrik, bide zuzenezko adlatiboan ere bai. Kasu guztietako oinarria “berta-” da, eta horri txertatzen zaizkio kasu marka guztiak, onartzen dituenak, jakina. Kasu marka soilak, denak onartzen ditu eta ez dugu aparteko ezaugarririk jaso. Kasu marka konposatu batzuk ez ditu onartzen *-tiko*, *-rusko*, *-rutzian* adibidez (guk behintzat ez dugu jaso “\*bertatiko, \*bertarusko, \*bertarutzian” lako formarik), eta beste batzuk bai, *-rako* adibidez (“bertarako”).

Kasu guztietako oinarria “berta-” denez, hiru graduen sinkretismoa, neutralizazioa gertatzen da adibide gehienetan. Hala ere, oso gutxitan jaso dugu gradu hurbilekoen berezko forma berezia, hau da, “berto-” oinarrikoa —era berean, hor ere 1. eta 2. gradua bat eginik daude—. Teorikoki behintzat, horri ere *berta*-ren kasu marka guztiak ezar dakizkio.

Gradu gabeko forma orokorra lekuko guztiek darabilte gradu guztietarako, baina gradu hurbileko forma lekuko batzuek bakarrik. *kgg*-k esaterako, 4.- moduaz indartutako inesiboan ez du onartzen baina bai 5.- moduaz indartutakoetan; beste lekuko batzuek hurbileko forma onartu ere ez dute egiten, *kmz*-k eta *raz1*-ek esaterako eta *nme2*-k ezaugarri eibartar baino “bizkaitarragotzat” jotzen du (adlatibo bide zuzenezkoan erabili egiten du, nolahi ere, “ona bertoruntz” forman).

Edonola ere, “bertan” osagaia lexikalizaturik ere bada gutxienez bi egitura garrantzitsutan. Batetik, gaztelaniazko “mismo” eta “propio” bikotearen bereizketa betetzerakoan, deklinatuta<sup>447</sup>. Bestetik, solasaldiko beste osagai batzuk indartzerakoan, ez baitio leku edo denbora zentzurik gehitzen ondokoari. Hainbat eta hainbat adibide jaso ditugu baina bakarren bat ekarriko dugu hona bakarrik, erakusgarri:

*naz* ba orduentxe bertan juen san  
*raz5* °... bertán urrian dao!  
*ñaz1* °ber- ber-tan góitxi-bera setórren da geuré · e s- serían, askenian, gure... terrénuetan, “guré-errekaxua” esate-san, estákisu?, esáeria?  
*kgg* °... nik úste-ot e neré kuadriyan bértan entzúten dirála órrek e?, bai “día” eta bai “días” eta “dfras”, nik es

<sup>447</sup> Honelakoak aipatu dira erakusle-izenordainen atalean eta ez ditugu berriz garatuko.

#### 1.10.3.2.5. **5.-** moduaz indartutakoak

Modu hau **4.-** modutik eratorria denez, leku-denborazko formetan erabil daiteke bakarrik. Hala ere, horrelako formak arrunki jaso dizkiogun lekuko bakarria *kgg* da, erakusleetan legeztxe. Dena dela, *nme2*-k “bertakotxia” forma onztat jotzen du ez erabili arren eta *naz*-ri “bertarakotxe” forma jaso diogu.

#### 1.10.3.2.6. **6.-** moduaz indartutakoak

Forma hau ere lekuko guztiek ezagutu eta erabiltzen dute, lekuko batzuek forma erredundantetzat jo arren. Inesiboan izan ezik, bi eredu nagusi ditugu beste kasuetan<sup>448</sup>:

- a) Bata, osagai biak sintagmari dagokion kasu markaz (“amengo bertakua, orko bertakua, ango bertakua” adibidez).
- b) Bestea, sintagmako kasu marka bigarren osagaiari txertatuta bakarrik (“amen bertakua, or bertakua, an bertakua”, esaterako).
- c) Adlatiboaren gainean eraikitako formek hirugarren aldaera ere badute, aurreko osagaia adlatibo kasu marka soilaz (“ona bertarañok, orra bertarañok, ara bertarañok” adibidez).

**a)** eredutzat hartuko dugu “onaño(k) bertaraño(k), orraño(k) bertaraño(k), araño(k) bertaraño(k)”, **b)** eredutzat “amen bertaraño(k), or bertaraño(k), an bertaraño(k)”, eta **c)** eredutzat “ona bertaraño(k), orra bertaraño(k), ara bertaraño(k)”.

— Inesiboan, adverbio biek dute kasu marka bera, “amen bertan, or bertan, an bertan” eredutzat.

— Leku-denborazko genitibo formetan **a)** eredia darabilte besteak beste *razl*-ek eta *kmz*-k. **b)** eredia lekuko nagusi guztiek darabilte (*S.B.* kanpoan utzita). Izatez izenlagunak direnez, ondoan izen edo izenlagun gehiago har ditzakete, adibidez:

*kgg* an bertáko etxéko andría

— Ablatiboan, **a)** eredia darabilte *kmz*-k, *kgg*-k, *razl*-ek, *nme2*-k eta *f.a.*-k; **b)** eredia *razl*-ek, *nme2*-k, *f.a.*-k, *kmz*-k, *kgg*-k eta *kmz14*-k.

— Adlatiboan, **a)** eredia darabilte lekuko nagusi guztiek; **b)** eredia *kmz*-k.

— Adlatibo destinatiboan, **a)** eredia darabil *razl*-ek. **b)** eredia darabilte *razl*-ek, *nme2*-k eta *kmz*-k. **c)** eredia darabilte *kgg*-k eta *naz*-k.

— Adlatibo bukatuzkoan, **a)** eredia darabilte *kgg*-k eta *razl*-ek. **b)** eredia darabil *kmz*-k; **c)** eredia darabilte *razl*-ek, *naz*-k, *kgg*-k eta *nme2*-k.

---

<sup>448</sup> Egitura honek traza handia du erakusleen determinatzeko **5.-** moduarekin, “amen etxetik” arako formak sortzen dituenarekin hain zuzen. Kasu honetan, izenen lekuan aditzondoak ditugu.

— Adlatibo bide zuzenezkoan, **a)** eredia darabilte *kgg*-k eta *nme2*-k. **a)** ereduaren aldaera darabil *razl*-ek: “onutz bertara” erakoa hain zuzen. **c)** eredia darabil *nme2*-k.

#### 1.10.3.2.7. 7.- moduaz indartutakoak

Modu hau ere lekuko nagusi guztiek darabilte, batzuek erredundantetzat jo arren ere. **6.-** moduaren tankera handikoa denez, erduei eta erabilerari dagokiena antzerakoa da atal honetan ere: **a)** eta **b)** ereduak —eta adlatibo bukatuzko eta bide zuzenezkoan **c)** eredia ere bai— erabiltzen dira inesiboan izan ezik.

— Inesiboan, “amentxe bertan, ortxe bertan, antxe bertan” da forma nagusia oso alde handiz; baina *nme2*-ri **2.-** moduaz indartutakoa ere jaso diogu:

*nme2* aor bertán! · beittu nun daosen sure ... antfjuak

— Leku-denborazko genitiboan, **a)** eredia darabilte *nme2*-k, *naz*-k eta *f.a.*-k. **b)** eredia darabilte lekuko nagusi guztiek (*S.B.* kontuan hartzeke).

— Ablatiboan, **a)** eredia darabilte *kmz*-k, *kgg*-k, *razl*-ek, *f.a.*-k eta *naz*-k; **b)** eredia *razl*-ek, *nme2*-k, *naz*-k eta *f.a.*-k.

— Adlatiboan, **a)** eredia darabilte lekuko nagusi guztiek.

— Adlatibo destinatiboan, **a)** eredia darabil *naz*-k; **b)** eredia darabil *razl*-ek, eta **c)** eredia darabilte Aginagakoek, *nme2*-k eta *naz*-k.

— Adlatibo bukatuzkoan, **a)** eredia darabilte *razl*-ek eta *naz*-k. **b)** eredia darabil *kmz*-k, eta **c)** eredia *razl*-ek, *nme2*-k, *naz*-k eta *f.a.*-k.

— Adlatibo bide zuzenezkoan **c)** eredia darabil *nme2*-k.

Modu honen beste aldaera bat darabil *kgg* lekukoak bakarrik, “amentxe bertantxe/bertontxe” ereduko formak sortuz. Nolanahi ere, forma idiolektalak dira.

#### 1.10.3.3. ERABILERA

##### 1.10.3.3.1. Solasaldirako laguntzaile edo komodin gisa

Erabilera arruntaz gain, horrela ere erabiltzen da. Erakusleen atalean ere egin dugu erabilera aukeren zerrenda modukoa. Hemen ere baliagarria da dagozkion egokitzapenak eginez gero. Honelakoetan batez ere inesibo formak eta moduzkoak erabiltzen dira, arruntak nahiz indartuak. Adibide batzuk ipiniko ditugu bakarrik:

*raz* °... d'egún baten esa-nétzen: -“séietzúe suerí? · etxéko-orr · irú gasté ta... · esér, ólan betí gastía-...?” ...

*kmz* °... Órrek asté bi juan sian, · · tore- tóriatzera! · · D'an etorri sian apál-apál éinda, gosíak!

*kmz1* °...es ólan e · ser bat estáik?, eitxe-júe-pa?: alakó bat ipíní!

Erakusleak kontaktetan isildutako osagaien lekuan erabiltzen zirenez, adberbio hauek ere bai. Gainera, funtzio horretan birritako erakusle egiturak sor daitezke, han aipatu denez:

*kmz3* °... esam-be ingo étzen! -“í! ála ta-ala orrék e, · bi alkondara jakas alkarren gañian jantzítxa...” da ...

*kmz3* °... neuk eruango saitzut e · bi-dan lekura sú! · alako lékutaa... · Pello Érrota-antxe-eongo ra ...

#### 1.10.3.3.2. Jakineko egitura adberbialetan

—“Balio erakuslea duten formak + adberbio-aditzondoak”: “amendik/ortik/andik aurrera” erakoak. Egitura horrek esangura bikoitza du, lekuzkoa eta denborazkoa (ekintzazkoa ere izan dezake), baina pareko esanguraz parametro bietan. Egitura horretan, 1. graduko “amendik aurrera” nolabait lexikalizaturik ere badago denborazko zentzuz. “Osterantzekoak” ere esan gura du. Adibide batzuk:

*nme2* °txarrá isengo da-amendik áurrera-amatxo-berák! kéntzen dabenien sapatillia isengo da txarrá! ... éé? Naróa? améndik áurreráá...

*nme2* nik esautu nittuan árek, .. eta-ándik aurrerakoik estákitt esér

Antzerakoa da “andik atzera<sup>449</sup>”. Beste egitura batzuk: “ordutik ona/onutz”, “ortik/andik gero”; adibidez:

*rae* °geroo, artuak amaitze-sienian, gero bábak!, e-eee jo!, babá · ásko-ote-san dá!: árek ee apártau! · mákiñiakíñ · -gámbaran mákiñi eote-san!- da geró ándik atzerá bábak apartátzen! gabian!: oseak'ésan · biarrik amaitzen!

*nme2* jéfe barrixak ipinittue taa, · ordútik oná, gáusak aldátu in dia tallarrían

*naz* °... etorri jakun e · Sestéro!: -“sémat urte daukasus?” esausten da, -“ba, iruroramasortzi” ... · ándi-geró, etorri san atzera, Juanitakiñ eon san, etorri san da -“surí noix kumplidu jatzus?” da ...

—Balio erakuslea duten forma bi elkartutakoan, esaterako: “andik ona”, “andik ara”. Adibidez:

*raz1* °da geró jee- oin dala illebetee- illébetee ikusi neba-nik etaa játeko gogorik esekala da esaestan daa... · ándik oná e, ándik oná gausaonik es, · kutxáuak...

*naz* ni-banekixan orí lem-be ... ándik arakoik estusta-ardura

—“Non/zeren + *andik/anditxik*” egitura, adibidez:

*raz1* urán ánditxik ee e, lur- lurra dao

—Egitura konposatueta, aditzondo zehaztugabe bihurtuta, esaterako: “ortxe! /ortxe-ortxe”, “or da/ero amen //ortxe eta amentxe”, “antxe-amentxe”, “ara

---

<sup>449</sup> Bitxia da baina egitura horrek “andik aurrera”-ren esangura bera du: “atze-aurre”-ren nahas-te semantiko pragmatikoaren aurrean gaude.

eta/ero ona”, “an eta/ero amen”, “andik/ortik eta/ero amendik”, “arutz eta/ero onutz”, “alan ero olan”. Erakusleetan ere erakutsi dugunez, euskarazko hurrenkera urrunenektik hurbilenekora doa; beraz, alderantzizko hurrenkera dutenak gaztelaniaren kalkotzat edo jo ditzakegu, “ona ero orra/ara” adibidez. Adibide-rako:

*razl* ogétamar bat eongo día ortxé-ortxé  
*razl* °... ántxe-amentxe-eongo da numbáitten! ...  
*kmz11* “... Eta, hantxe nindoiala, belozidade haundixakin motuan, Barzelonan polizia municipal bat jarri jatan aurrian eta ez hara eta ez hona eta horra ...”  
*razl* an ero ámen eongo da numbaitxán  
*razl* °síkeran o- <Arratera> orráxe juan eúm-bá-pasátzeko be basáre! · Orrá kale álderá juánda, búltza órtik eta · búltza eméndik!, órtxe! dánok! · Es- égixa da tá! ...  
*rmz* °an etxeuam-béste · sérik! · ibíltzeko lékuik!, bi- bidían síar árus da ónutz! · ero sáltoka eo éskutatzen eo... ...  
*f.a.* álan ero ólan, llegáuko al día

### 1.10.3.3.3. Esapideetan

Adberbio hauek oso erabiliak dira ahozko hizkera bizian, eta adierazgarritasun ikaragarria dute. Era askotako egiturak jaso ditugu, ia interjekzioetat har daitezkeenetatik hasita, perpaus osoetara. Batzuk aipatuko ditugu:

—“*Amen/or/an (balizena/perpaua)!*” egiturak interjekzioen eta erakusle funtzioaren tarteko bidean daude. Adberbioak gehienetan arruntak dira baina indartuak ere izan daitezke. Batzuetan adberbioak bakarrik agertzen dira, baina bestelako osagaiak izan ditzakete ondoan; “ba” osagaia aukerakoa da (hori erabiliz hurrenkera ere anitza izan daiteke) eta izen sintagma eta perpauak ere har ditzake. 1. graduko adibideak ipiniko ditugu batez ere baina guztietakoak jaso ditugu:

*kmz* °emén arrósa!  
*razl* enekíxan-nun daósen d’amén, amé-nun daósen!  
*naz* amem-bá, nun euesan...  
*raz5* °amén!, au be, au be geure aitxán létria da  
*kmz* °... aaaai amá! eméntxe bá!

—“*Amen/or/an + adizkia!*” egiturak ere indar adierazkor handia du. Adizki sintetikoaz indar adierazgarri handia du:

*nme2* bá! emen gábis, arútz da onútz!, · bátera ta béstera  
*raz* °... ta ní etxían!, séose pasau-akuelakúan!, amá batf déika... ... Or dátok!: -“baña nun eon sara?” ...  
*kmz1* °... oin, · séin da- séin da <<ískera>> obíauá, · Tolósakúa? ala Bergarákua? ala Élgoibarkúa? · ala · Sumarrágakúa?: or dáo bá! ...  
*kaz3* °... amak esate-ban · oñes dóyalaa · Ondárruatik e será · ta ira- -“án! dabil gure Pasita!” ...

Baina perifrastikoz ere egiten da:

*kaz3* °... ákordau ákon a máixa ... antigual póólítxa! isam-bi-ban! · atensíñu emote-kua... · es'éban e, á · éne! · tallarréa eruango dáabela!, da-an eru-eben tallarróri a mes- mix- e seróii... · máixori eru-eben tallarréa ...

—“*Ara (balizena/izen sintagma)*!” egiturak ustekabeko zerbait adierazten du, eta errieta egiteko balio du, baina ezusteko atsegina adierazteko ere bai, tar-teko maila guztiekin. Balio deiktikoa ere izan dezake. Bokatiboan ere erabil daiteke. Zerbait adibide:

*raz5* °... -“baña Itúrrios!, se?, burutik ondo ago aimbeste diru gastatzeko Eibarrem-beti gaixki bisi-isa-gitxuk [sic] eta estak-”, -“ará mutíll!, eíná iñ!, ónddiok esangosue · tx- gitxi dalá!”: kláro! ...

*kmz3* °... eskopeta bat ee ájustatzeko · árreglatzen · da totaleko alrebes jiarduan! · ara!: · bárre i-naetzan! ...

*raz1* °ba... len esate-akon, gure démporan: -“íí!” -“ser!” -“í! · kústen don an?” da - “se? nora bei- ...?” -“ará! txiriki- txirikilla ta pálua!”

—“*Alde(izu) ortik*!” esapideak zentzu aurkaria du, baina hizlariaren jarrera ere islatzen du bide batez, zerbait ez duelako onartzen. Esaterako:

*naz* °baai...: · udan ee, ortxé bedárronduek eta ondatzen dau á, enéé!... jesúss!, aréntzako bes da neretzako esta oim-bedárrondotia, e?, aldeisu órtik, alde-alde-alde... Égixe-e? ...

—“*Onako/orrako/arako //olako/alako...*” badaezpadakotasuna adierazteko erabiltzen da besteak beste; hizlariaren jarrera ere islatzen da. Adibidez:

*raz* °... kami-óia!: aberíxau dáá! ta béste sar bat ekarri artían”... oláko sár bat... María-Arikítxakó-pe-esángotzú orí!

*nme2* °“txiribíta” esaaa-ten da iñoix, ee ne- ne- entzunda nao “txiribita” erdédunak esanda: “ése-es un txibirita [sic]”, · ee... séose onako gausaa... dotóriak iteittuena o artisauuu... sérak! dotoriee... itt- itten dabena, “ése-es un txibiríta!” ...

*kaz10* °lantziam-beim-bai!: oñ aimbeste-es baña lélenguetan ako ustes e... · asi bier...

*naz* °es-es! eúnetan, ee... áko játeko gogo gitxí tta... · ni jatúna naix, e? bañ’atzo be baa... fff... játen ja-nebam-bañaa... ...

—“*Olako + izena- + -partitibo marka*!”. Egitura hau ere oso adierazkorra da, baina bai zentzu txarrez, bai zentzu onez. Adibidez:

*f.a.* okurritzeko be, alako gausarik!

*kmz* ñó! alakó neskaa · guáparik estót ikúsi aspaldixan

—Bokatiboetan, “tonto alakua” erakoak sortzen dira<sup>450</sup>. Esaterako:

*f.a.* tónto alakúak, estau eitxen kásorí-pe

---

<sup>450</sup> Ikus bokatiboari eskainitako atalean ere.

—“*Sekula olakorik (orraitxiok)! //sekula olako + izen sintagma- + -partizio kasu marka*”. Harridura handia adierazten du; esate baterako:

*rmz3* °jersixa jantzi bikou! ... sékula olakoik órraitxiok!  
*naz* °[101 urteko auzoko andrakumeaz] bai!, sekula olakoik!  
*nme3* °baña-baña-akordatze-ako-órre-burutasiñuok!, sékula olako umeik, e!?

—“*Es geixao olakoik eiñ!*”, aginte erako esapidea, ekintzaren bat gaitzesterakoan; adibidez:

*naz* °<zortzi urteko bilobari> “su”!, bai!... <oso baxu> bátzuetan itteutzet e olan...  
gáistokérixam-bat...: “es ik iñ olakoik!” eta bañá, ostien “su”, bai...

—“*Olakon/alakon bat*” esapidea erabiltzen da gutxi gorabeherako kopurua, iritzia, denbora adierazteko. Inesiboa batez ere denbora luzaz itxaron ostean zerbait egindakoan erabiltzen da. Adibidez:

*naz* -bá!: ogétamar bat...? ... -bá!, olákom-bat, olákom-bat...  
*kaz2* °da, ara juatia nai txa (?)juatias... · sálto itxia nai plasára! sálto itxia nai plasára ta... · álakom-baten -“ba-nóya!” ...

—“*Alan/olan dalakuan egon*”. Forma indartuak ere onartzen ditu; adibidez:

*kmz* gausak álan dialakuan, alá?  
*kmz3* °... sei o sortzi-amar il dda, tíari “áiba!, ipiñi órrek!” · lúmatu ta · ipintzeitxuan aék eta..., · are-pe, · komo si no!, o- ólaxen dálakuan!, · dakan importansia-kiñ! keixapian! umiekin dda, árrautzekiñ!, árrautzekin dda, txorixak eta... ..

—“*Orraitxiok(an)!*”. Harridura handia adierazten du, adibidez:

*naz* °bedarra sobre dauke geró!, eoteko modun daos orraittiok etá!

—“*Izena + eta arutzaokua*” egiturak gaztelaniazko “... y el de más allí” egituraren kalkoa dirudi. Adibidez:

*kmz3* °... len Larrarte-ermanos, bestia ... famósuak! famósuak!: órrek amen sartu itxuaus ... amen sartu itxuaus · Larrárte-ermanos da béstia t’arutzaokua ta... · sero! · létra bat étxaixek! ...  
*kaz4* “... Gabian gure etxian tertulixia eitxe zan. Goikua, harutzaokua, bekua ... andrak etortze ziran ...”

#### 1.10.3.3.4. Erakusleen funtzioa betez

—Izenordain legez erabilitako erakusleen orde, batez ere leku-denborazko kasuen bizigabeen deklinabidean<sup>451</sup>.

---

<sup>451</sup> Ikus erakusleen atal horretan.

—Birritako erakusleen egituretan, batez ere leku-denborazko kasuetan, erakusleen lekuan, bai forma arruntak bai indartuak<sup>452</sup>.

#### 1.10.3.4. ONDORIOAK

Leku-denborazko kasuetarako erabiltzen diren formen ondoan moduzkoek ere graduazioa dute.

Forma arruntetan, leku-denborazkoetan bi “oinarri” daude. Inesiborako, ablatiborako eta leku-denborazko genitiborako, inesiboko “amen/emen, or, an” formak. Adlatiboetarako adlatibo soileko “ona, orra, ara” formak dira oinarri. Inesiboko 1. graduko bokalen alternantzia beste kasuetara ere iragazten da. Aldaera gehien dituzten kasuak genitiboa eta ablatiboa dira, 1. graduan, kasu markaren aurreko kontsonante sudurkaria agertu ala ez kasu markako kontsonantea ere ahostuna edo ahoskabean delako. Orokorrean, kontsonante sudurkaridun formak arrunt eta erabiliagoak dira, besteak batez ere zaharren ahotan bizi baitira. Ablatiboko forma guztiek onartzen dute leku-denborazko genitibo marka, izenlagun bihurtuz, baita lexikalizaturik ere, “amendikalde” erakoetan. Adlatiboak ere onartzen du genitibo marka eta leku-destinoa adierazten da horrela. Genitibo marka beste adlatiboetan ere erabiltzen da. Adlatibo bide zuzenezkoaren gainetik inesibo markadun formak ere orain arte erabiliak izan dira Eibarren, baina lekuko nagusi gazteak ez ditu ezagutzen jada.

Moduzko forma hurbilak berdinduta daude “ola(n)” forman, baina kurutzaketak edo forma alternantziak sortzen dira 3. graduko formarekin ere. Azken kasu horretan orain arteko joera nagusia “ala(n)” hiru graduatarako erabiltzea izan da, lekuko zaharrek horrela egiten baitute, baina lekuko gazteen ahotik “ola(n)” da hiru graduatarako erabiltzen den forma. Sudurkaririk gabeko aldaerak batez ere kalean erabiltzen dira. Leku-denborazko genitibo marka onartzen dute; horrelakoetan, alternantzia dago “olako” eta “onako” formen artean, azken hau Aginagan eta Arrate inguruko lekuko zaharren ahotan bakarrik erabiltzen den arren.

Forma indartuei dagokienez, indartzeko zazpi modu daude oro har (modu morfologikoak, jakina). Indartze modu horiek funtsean erakusleen atalean azaldutakoak dira eta “indartze” maila antzerakoa da edozein modu erabilia ere. Sortzen diren formen aldaerak ere erakusleen atalean azaldutakoan antza handia dute. Aipagarria da moduzko formen aldaeren ugaritasuna; indartzeko **1.-** modua onartzen dute bereziki baina emaitzak beste kasuetan baino askoz gehiago dira.

Indartzeko **2.-** modua inesiboko 2. graduan erabiltzen da bakarrik. Indartzeko **3.-** modua ere kasu horretan eta moduzkoan erabiltzen da. Indartzeko **4.-** modua

---

<sup>452</sup> Ikus erakusleen atal horretan.



leku-denborazko kasuetan erabiltzen da baina ez horietatik sortutako izenlagun guztietan. **5.-** modua Aginagakoek ezagutu egiten dute baina erabileran ez du emankortasunik; bakarrik kaleko lekuko nagusi gazteenak darabiltza horrelakoak sistematikoki. **6.-** moduaz indartutako formak oso erabiliak dira Eibarren, dituen hiru aldaera sistematikoen bitartez. **7.-** modua funtsean **6.-**aren tankerakoa da.

Adberbio forma hauen erabileretariko bat azaldu da jada erakusleen atalean, horien ordez erabiltzen direnez batez ere leku-denborazko bizigabeen formetan. Osterantzean, adberbio funtzio arruntez gain, solasaldirako laguntzaile edo komodin gisa ere erabiltzen dira. Hainbat egitura adberbialetan ere aurki daitezke eta esapideen eremuan ere altxor handia eratzen dute. Horrelakoetan adierazkortasun handia lortzen da gehienetan, ahozkoan duten bizitasunaren erakusgarri.

## 2.

### Amaierako berbak, ondorioak

Aztertutakoari dagokionez, laburbilduz, beste monografia, lan deskriptibo eta antzerako lan batzuetan ageri **ez** den kasuistika zabala aurkitu dugu, bai forma eta aldaeren aldetik, bai erabileren aldetik:

a) Alderdi **formalean**, hainbat eta hainbat aldaera jaso ditugu aztertutako atal guztietan. Dena dela, lekukoen esanak nolabait koherenteak dira, bai idiolektoa kontuan izanda, bai sistema osoa kontuan izanda ere. Ez daude sistema hausten duten osagai gehiegi, bitxikeria batzuk jaso ditugun arren, eta ahozkoaren berezko ezaugarritzat hartu behar dira.

Aldaerak batzuetan morfologikoak dira eta beste batzuetan fonetikoak, nahiz eta batzuetan ez dagoen igarterik zein motatakoak diren. Aldaeretariko batzuek, areago, berdinketak ere sortzen dituzte, sinkretismoa sortuz; batzuk erabatekoak dira gainera. Beste batzuk noizbehinkakoak eta mugatuak dira. Nolanahi ere, azaldu dugu honelako berdinketak itxurazkoak direla gehien-gehienetan, sistemaren funtzionamenduan ez dutela eragin handirik. Zenbait kasutan azentua bereizgarria da, deklinabideko forma mugagabeak eta pluralak bereizterakoan gehienbat.

Forma eta aldaera horien erabiltzaileen artean ere gauza bera gertatzen da: ez ditugu idiolekto berdinak aurkitu; ezaugarri batzuetan lekuko batzuek elkarren traza handiagoa dute, baina beste batzuetan euren joerak ez datoz bat. Ikusi besterik ez dago ezaugarri bakoitzaren ondoan ipini ditugun lekuko “multzoak”, aldakorrek gehienetan.

Deklinabide kasu marka batzuk aldaera aldetik joriak dira (ahoskatze uneko errealizazioak kontuan hartzeke); adibidez destinatiboa (*-ndako /-ntzat /-ntzako /-tako*). Eibarren erabiltzen ez direla uste genuen kasu marka batzuk ere aurkitu dira, hala nola ablatiboko *-danik/-danetik* marka, denborazko adi-

tzondoei txertatzekoa. Bestalde, ablatiboa ere joria da kasu marka aldaerei dagokienez.

Aldaerak bestelakoak ere izan daitezke: kasu marka batzuek edutezko genitiboarena onar dezakete euren baitan, baina Eibarko joera nagusia (ez erabatekoa, azterketan erakutsi denez) ez tartekatzekoa da; eta tartekatzekotan, mugagabe formetan egiten da gehien. Hori joera nagusia baino ez da, destinatiboak, kasu baterako, beti hartzen duelako.

Leku-denborazko kasuetan, bizigabeen deklinabideari dagokionez, mugagabeko *-ta-* artizkiaren aldaera fonetikoak eta noizbehinkako erabilera aipatuko genuke. Kasu gehienetan eta lekuko gehienen ahotan aukerakoa izatea ere deigarria da.

Bizidunen ezaugarriak bereziki aipatzea merezi du. Inesiboko *-gan* marka ez da ia erabiltzen Eibarren eta horren ordez postposizioetara jotzen da, forma jatorrak sortuz edonola ere. Ablatiboan eta adlatiboan ez dugu gertaera berezirik aurkitu, eta bide zuzenezko eta bukatuzko adlatiboan kasuan forma horiek kasik izan ere ez direla aipatu behar da, adlatibo soilaz edo bestelako bide eta perifrasi ez ordezkatzen baitira. Nolanahi ere, bizidunen deklinabidean Eibarren edutezko genitiboz osatutako marka erabiltzen da: “-(re)nian, -(re)netik, -(re)nera, -(re)nerañok, -(re)nerutz”.

Aldaera fonetikoak ugariak dira, errealizazioak beste, baina gertakari batzuk sistemaz egiten dira: mugatzailea eransterakoan sortzen diren aldaketak; plural ezaugarria txertatzerakoan gertatzen diren aldaketak; kasu marketako bokal arteko konsonante hurbilkari eta ahostunen galera; ondorioz bokal asimilazio-disimilazioak edo luzapenak gertatzea; murrizketak... Bustidurak, loturazko bokalen tinbre alternantziak eta armonizazioak ere kontuan hartzekoak dira, besteak beste. Horiei, fonetika sintaktikoz berba amaierako soinuetan gertatzen diren aldaketak gehitu behar zaizkie.

b) Beste alde batetik, kasu guztiek dute **erabilera** aberats eta jatorra, bai mugagabeen bai mugatuen. Forma aldetik gertatu zaigun bezala, uste bako erabilerak ere sarri aurkitu ditugu:

Kasu gramatikalen artean, nominatiboa da erabilera joriena duena, bai berrezko esaldiko funtzioetan, zein bokatibo funtzioan (funtzio horretarako ia edozein kasu erabiltzen dela ere aipatzekoa da).

Izenlagunak sortzeko kasuak erabilera maiztasun handia izateaz gain, hartzen dituzten balioak eta sortzen dituzten egiturak ugari ere ugari dira.

Leku-denborazko kasuen artean ere joriak dira marka batzuek dituzten esangura eta balioak. Inesiboak, esaterako, kontzeptu eta ezaugarri asko eta asko adierazteko balio du, eta forma mugatu-mugagabeen jokoak ere horretarako lagundu egiten du. Beste horrenbeste gertatzen da multzo honetan sartzen den leku-denborazko genitiboaren kasuan ere. Ablatiboak eta adlatibo soilak ere hainbat erabilera dituzte, baina ez da gauza bera gertatzen adlatibotik eratorritakoekin.

Adizlagunak sortzeko beste kasuetan, erabilera aldetik balio eta ñabardura gutxiago dutela antzeman dugu; sozietatiboa litzateke, nolana ere, horietan aberatsena.

Orokorrean, kasu guztiek uste ez genuen aberastasuna eta balio aniztasun handia dute, gramatiketan aurki ditzakegunak, gutxi-asko, gaituz.

Kasu marken **erabilera mailari edo bizitasunari** dagokionez, batzuen handituz doan eran, besteena gutxituz doa; adlatibo kasu marka soilak, adibidez, bide zuzenezkoaren eta bukatuzkoaren funtzioa betetzen du sarritan, eta ia erabat forma bizidunen kasuan. Horren ondorio garbia da azken bi horien erabilera oso-oso mugatua izatea. Adlatiboaz gain, postposizioek ere betetzen dute horien zeregina. Nolanahi ere, leku-denborazko beste kasuetako bizidunen forma batzuk ere ia galduta daude (inesibokoak, adibidez), adlatibokoak sarri erabiltzen diren artean. Erdibidean daude ablatiboko bizidunen formak.

Gutxien erabiltzen den kasu marka, nolana ere, prolatiboa da. Lekuko batzuek oso jator darabilte, baina postposizioz ordezkatzeko arriskuan dago, edo motibatibo kasuaren erabilera, edo bestelako perifrasis. Instrumentalaren erabilera jatorra ere gehienbat lekuko zaharrenen ahotan bizi da, eta batez ere jakinako egituretan txertaturik, esangura nahikoa tinkoz. Sortzeko indarra kasik galdua duela dirudi, eta bizien, moduzko formak eratzerakoan dagoela esan daiteke. Osterantzeko kasuek erabilera arrunta dutela esan daiteke.

Kasu marken arteko **kurutzaketak** ere badira, guztiarekin ere. Edozein modutan, kurutzaketa eta txandaketa horiek ez dira bakarrik Eibarko ezaugarri, edozein gramatikatan aurki ditzakegu antzerako fenomenoak:

Adibidez, zenbait aipatzearen, edutezko genitiboaren eta leku-denborazko genitiboaren arteko txandaketa dugu bai Eibarren, bai euskaran orokorrean ere. Destinatiboaren eta leku-denborazko genitiboz osatutako *-rako* atzizkiaren artean ere antzerako zerbait gertatzen da. Guk lekukoengandik jaso ditugu nahaste horren adibide asko, erabilera “nahasi” hori eguneroko jardunean finkaturik dagoen erakusgarri.

Instrumentalaren kasua ere aipatzekoa da: formei dagokienean, bertako forma jatorrak erabiltzen dira orokorrean, baina alfabetizazioaren ondorioz berriak ere sartzen daude, batez ere gazteenen ahotik.

Bestalde, instrumentalaren eta beste kasuen arteko txandaketa ere nabaria da. Erabiltzen denean instrumentala jator erabiltzen den arren, beste bidez ordezkatzekoan baliabideak oso ugari dira: beste kasu marka batzuk, postposizioak, eta abar. Hau ere ez da Eibarko ezaugarri isolatua, beste leku batzuetan ere antzerakoa gertatzen denez. Dena dela, inesiboak, sozietatiboak eta motibatiboak, instrumentala kasu marka bizi legez ia desagertze bidean jarri dute.

Adlatibo bukatuzkoan *-raño(k)* eta *-rarte* markek nahikoa ongi gordetzen dute bakoitzaren lekurako eta denborarako erabilera, baina bestelakoak ere jaso ditugu, *-rarte* lekua adierazteko eta *-rañok* denbora adierazteko, alegia.

Goikoez gain badira beste kurutzaketa batzuk: motibatiboak, adibidez, edo soziatiboak, beste kasu batzuei hartzen die lekua batzuetan, eta horrelakoetan “ordezkaketa” gertatzen dela esan daiteke kasu batzuetan, eta “txandaketa” beste batzuetan. Kurutzaketak kasu marken artean ez ezik, forma eta kategorien artean ere gertatzen dira. Erakusleek, izenordain legez erabilitakoek, orokorrean ez dute leku-denborazko bizigabe formen erabilera aberatsik inondik inora ere, forma horiek lekuko gehienek ezagutu egin arren. Horien ordeztu balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak erabiltzen dira, dagokien kasu markaz. Edonola ere, kurutzaketak osterantzekoak ere badira, morfologikoagoak, orokorrak:

- Mugagabea-mugatua “nahasterakoan”, adibidez.
- Edota bizidun-bizigabeen artean esate baterako.

**Maila orokorrako batean** aipatzekoak honakoak dira:

—**Metodologiari** dagokionez uste dugu egin dugun galdekizunaren eta solasaldi askeen bitartez lortutako materiala, azterketaren iturriak ongi finkatzeko zutabe sendoak izan direla. Lekukoengandik oro har lortu dugun korpus handiak Eibarko euskara nolakoa den ondo islatzen du, hainbat lagin geo-soziolinguistiko gogoan izan direlako. Bestelako emaitzek korpus hori hobeto kokatzeko lagundu dute, baita ikerketaren ikuspegi osoago bat lortzeko ere. Egin dugun azterketak morfologiako alor zabal bat nolakoa den zehatz erakusten du. Aldaera fonetikoak eta morfologikoak aintzat hartu direnez, deskripzioak gai honetaz orain arte diren beste lanak osatu eta gaingitu egiten dituela uste dugu, orain arte aipatu gabeko ezaugarri, forma eta egitura asko azaldu ditugun neurrian. Erabilera eremua landu izateak lagundu du amaierako ikuspegi osoa lortu ahal izateko: kontuan hartu da batez ere zer erabiltzen den, nolako egituretan eta zein formaz, zein esangura edo balio duen, zenbat erabiltzen den edo bizitasuna, eta nork darabilen.

—**Polimorfismoa**. Sarri aurkitu dugu polimorfismo idiolektala gure lekukoekoizpenetan, bai alor fonikoan, bai morfologikoan. Gizarteko polimorfismoa, bestalde, beste edozein lekutan bezalaxe oso-oso aberatsa da Eibarren ere, bertako hizkeraren aberastasunaren eta erabilera biziaren ezaugarri.

—Lekukoengandik eibartar **forma jatorrak ez eze, forma “arraro”** batzuk ere lortu ditugu. Esate baterako, lekuko batzuegan alfabetizazioaren eragina nabari da. Beste lekuko batzuek, galdekizuna lantzerakoan, inguruko herrietako aldakien nolabaiteko eragina erakusten dute, Eibartik kanpoko hizkeren prestigioarengatik agian. Solasaldi askean hori ez da hain arrunta.

Beste forma “bitxi” ugari, lekukoek ahoskatzerakoan dituzten zalantzen, ezbairen edota ziurtasun ezaren eraginez sortutakoak dira. Lekuko zaharrenek forma bitxi asko era nahiko “jatorrean” eratzen dituzte, gehienak asistematikotzat jo ditugun arren. Gai horrek askoz ere lan espezializatuagoa merezi du.

Lekuko nagusi gazteenarengandik jaso dugu “bitxikeria” eta berrikuntza asko ia gramatikako alor guztietan. Alfabetizazioaren ondorio ez ezik, Eibarko sistema jatorreko altxorra zaharrenek bezain ongi ez ezagutzeak ere eragina izan dezake horretarako.

Edonola ere, bidean dauden hainbat aldaketa sumatu ditugu, bai bilakaera fonetiko, bai alomorfoen bilakaeraz edota aldaketaz, baita egituren erabilera-  
ren aldetik ere.

— **Soziolinguistika** mailan, ez dugu jaso bereizteka erabatekorik ondorio garrantzitsuak atera ahal izateko. Adibidez, andrazko/gizonezko dikotomiari eustekorik ez dugu aurkitu, eta aztertutako mailan behintzat, antzera berba egi-  
ten dutela dirudi.

Bestalde, adinak ere badu eragina: zenbat eta zaharragoa lekukoa, euskal egitura jatorragoak erabiltzen ditu. Sistema osoenaren ezagutza zaharrenengan-  
dik dator, gazteenek hainbat forma, modu, esangura eta abar ezagutzen ez di-  
tuztenez. Horrek erakusten du sistemaren zati bat galtze bidean dagoela, bizita-  
sun murrizta duela. Gaztelaniaren eragina ere nabarmenagoa da, orokorrean,  
lekuko gazteengan, eta gehienbat egituren mailan.

Horrez gain, alfabetizazioak ere zerikusia du hizkera moldeetan: zenbat eta  
ikasiagoa lekukoa, bere hizkeran forma normalizatuaren eta beste euskalki-hiz-  
keren eragin handiagoa duela antzeman dugu.

Kaletar/baserritar dikotomia bereiztaile legez ageri da batzuetan, forma eta  
egitura batzuk bereziki kaletarrek darabiltzatelako, eta beste zenbait baserrita-  
rren ahotan bizirik daudelako. Edonola ere, baserritarren artean ere, eta oro har  
eibartarren artean, Aginagakoen ezaugarriak dira berezikiak euren hizkeraren  
bereizgarri diren aldaera fonetiko zein morfologikoak gogoan hartu ezker.

— Ahozko hizkera bizia aztertzen jardun dugunez, sarri aurkitu ditugu Eibar-  
ko hizkeraren ezaugarriak **gramatiketako azalpenetatik at**, hainbat arau zorrotz  
baliorik gabe utzirik Eibarrerako behintzat; ahozko zaindu gabeko hizkeraren mal-  
gutasunaren erakusle da ezaugarri hori. Horrek ez du esan nahi gramatika bide  
orokorrak betetzen ez direnik, jakina, sarri jaso ditugulako lekukoengandik agra-  
matikaltasun edo desegokitasun pragmatikoen zantzu eta azalpen zehatzak ere.

Hala ere, horrek ez du esan nahi Eibarko euskararen altxorra kontuan har-  
tzekoa ez denik, liburutuan “klasikotzat” hartzen diren hainbat egitura eta eza-  
garri ere jaso ditugunez.

— Gai zehatzagoetara jauzi eginez, aipatzekoa da osagai batzuen “berezko”  
**kategoria** zein den erabakitzea oso zaila edo noizbait ezinezkoa ere gertatu zai-  
gula, polisemia hutsa baino areagoko arazoa delakoan.

Bestalde, oso erraz gertatzen dira kategorien arteko txandaketak, dena dela-  
ko osagaiak perpausean duen funtzioarengatik, edo kasu markek edo atzizkiek  
horretarako bide ematen dutelako.

Kurutzaketa formal eta funtzionalak ez eze, esangurazkoak ere jaso ditugu. Deklinabideko leku-denborazko erakusleen parean, balio erakuslea duten adberbio kategoriako formak sarri erabili izateak horixe erakusten du, adibide bat ipintze aldera.

Gai hau gehiago zailtzen da lexikalizazioak kontuan hartu ezker; gainera, gogoan izan behar da lexikalizazio mailak daudela eta ez direla berdin landu behar maila horiek.

—Ikuspuntu **diatopikotik**, eremu geolektalen inguruan, argi ikusten da Eibarko formak (aldaera fonetikoak zein morfologikoak kontuan hartuta) batzuetan bat datozela bizkaierarekin, mendebaldeko ezaugarri orokorrekin. Bestetan ez dira, baina, bizkaierako ezaugarriak zeharo betetzen. Badira, bestalde, Gipuzkerarekin bat egiten duten Eibarko ezaugarriak, baita Deba bailarako be-reizgarriekin bat datozen Eibarko ezaugarriak ere.

Beraz, aztertu dugun esparruaren arabera, mendebaldeko hizkeren barruan kokatzen dela ez dago zalantzarik, eta Eibarko hizkerak gehiago du mendebaldekotik erdialdeko baina, tarteko hizkera den arren.

—Azkenik, eta amaitzeko, **denboraren** ardatza kontuan izanik, gure lana sinkronikoa izan da, lehenengo grabaketetatik azkenengo grabatu gabeko oharretara urte batzuk igaro diren arren.

Bost urte (edo gehiago) horietan ez dugu uste funtsezko aldaketarik gertatuko zenik gure lekukoen ahotan; “aldaketa” dei badiezaioke, lekuko batzuk hil egin izatea gogoan hartzekoa da, aurrerantzean horien ereduak ez duelako indarrik izango ondorengoei utzitako neurrian baina.

## Bibliografia, erreferentziak

### Bibliografia

- ABAITUA ODRIOZOLA, J.K.: 1994: «Dependencias locales y anáforas vacías en euskara», *A.S.J.U.*, XXVIII-3 (837-869 or.).
- ALBERDI LARIZGOITIA, J.: 1989b: «Euskararen Morfologiako Ikerketak (1900-1936)», *A.S.J.U.*, XXIII-3 (769-796 or.).
- ALTUBE, S.: 1975: *Erderismos*, Bilbao, Indauchu Editorial (2. arg.; 1. arg., 1929).
- ALTUNA, J.: 1915: *Afijos del euzkera*, Bilbao, Revista Euzkadi.
- ARANBERRI ODRIOZOLA, F.: 1996: *Ermua eta Eitzako euskara*, Oñati, Ermuko Udaleko Euskara Batzordea.
- AREJITA, A.; *et alii*: 1983: *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabidea eta aditza*, Gasteiz, Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Lehendakaritza Saila, Eusko Jaurlaritza [«Hizkuntz Prestakuntza, 1»].
- AREJITA, A.; *et alii*: 1985: *Bizkaieraren idaztarauak: deklinabidea eta aditza*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza = Gobierno Vasco (2. arg.).
- AREJITA, A. (zuzend.); *et alii*: 1989: *Bizkaierazko joskera*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia [«Hizkuntz Prestakuntza, 4»].
- AREJITA, A.; *et alii*: 2001: *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuak*, Bilbao; Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- ARETA, N.: *Eibarko efemerideak*, Eibarko Udala (amaitu eta argitaratu gabea).
- ARETA, N.: 2002: *Eibarko euskara. Morfologiako alor baten azterketa: izen sintagmaren deklinabidea, adjektibo sintagma eta adberbio sintagma*, Deustuko Unibertsitatea, doktorego tesia.
- ARGOITIA, J.A.; AZKARATE, N.; GEZURAGA, X.: 1995: *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk*, Eibar, Eibarko Udala-Euskara Batzordea.
- ARRECHE PÉREZ, I.: 1993-1994. ikasturtea: *Basauriko euskararen azterketa linguistikoa*, Deustuko Unibertsitatea (doktorego tesia).
- ARRETXE J.: 1994: *Basauriko euskara*, Basauri, Udala.
- ARTIAGOITIA, X.: 1995: *Verbal projections in basque and minimal structure*, Donostia = San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa [«Supplements of Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, XXXVI»].



- ARTIAGOITIA, X.: 1998: «Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan», *Uztaro* 27 (33-61 or.).
- AURREKOETXEA, G.: 1986: «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA): inkesta metodologia eta ezezko datuak», *Euskera* XXXI (2. aldia) (413-424 or.).
- AURREKOETXEA OLABARRI, Gotzon: 1997: «Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak», *Uztaro* 23, 87-94 or..
- AURREKOETXEA, G.; VIDEGAIN, X. (paratzaileak): 1992: *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak = Actas del Congreso Internacional de Dialectología = Actes du Congrès International de Dialectologie = Proceedings of International Congress on Dialectology [Euskaltzaindia, Bilbo, 1991.X.21/25]*, Bilbo; Euskaltzaindia [«Iker, 7»].
- AURREKOETXEA, G.; VIDEGAIN, X.: 1993: *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa: Galdesorta Cuestionario Questionnaire*, Bilbo (*Euskera*-ko separata: 3, XXXVIII. liburukia, 2. aldia (529-647. or.)) [«Dialektologia: atlasgintza»].
- AZKARATE VILLAR, M.; ALTUNA, P.: 2001: *Euskal morfologiaren historia*, Donostia, Elkarlanean.
- AZKUE, R.M.<sup>a</sup>: 1925: *Morfología vasca*, Bilbao, Academia de Lengua Vasca («Advertencias para ...» ataleko amaieran «Bilbao, Abril de 1923» dakar (VIII. or.)).
- AZKUE, R.M.<sup>a</sup>: 1969: *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca (1. arg., 1905).
- AZKUE, R.M.<sup>a</sup>: 1969b: *Morfología vasca*, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca (1. arg., 1925).
- AZKUE, R. M.<sup>a</sup> de: 1984: *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo, Euskaltzaindia (K. Mitxelena-ren sarrerarekin).
- BARAIAZARRA, L.: 1986: «Markina-Xemeingo euskara aztertzen», *Euskera*, XXXI, 1 (143-159 or.).
- BARRENA, E.; *et alii*: 1999: *Eibar. 1346-1996. Ekarpen historikoak. Aportaciones históricas*, Donostia, Eusko Ikaskuntza [«Colección Lankidetzan Bilduma, 14» / «Ego Ibarra, 23»].
- BARRUTIA, E.: 1993: *Mundakako arrantzaleen jakintzaren lexiko eta enziklopedia*, Deustuko Unibertsitatea (tesi argitaratu gabea) (ale 2).
- BASAURI, S.; *et alii*: 1997: *Eibarko aditz-taulak* (argitaratu gabeko lanaren zirriborroa).
- BASAURI, S.; *et alii*.: 2003: *Eibarko hiztegi etnografikoa*, Oñati; Eibarko Euskara Mintegia, Eibarko Udala.
- BASAURI, S.; SAN MARTÍN, J.: 1972: «Eibarko euskerari buruz», *Egan* (32-37 or.).
- BASTERRECHEA, J. («OSKILLASO»): 1984: *El libro negro del euskara*, Bilbao, [s.n.].
- BEREICUA BASAURI, R.M.S.: 1972-VI: «A survey of linguistic variables in the Central zone of the Deva River Valley. The zone of Placencia in contrast with its neighbours towns of Eibar and Vergara», *A.S.J.U.* (20-28 or.).
- BIDEGAIN, X.; ETXEBARRIA, J.M.<sup>a</sup>; AURREKOETXEA, G.: 1985: *Euskal Herriko Atlas Linguistikoa. Galdekizuna*, Euskaltzaindia (Euskaltzaindiak 1985.II.22.ko batzarrean onartua) (argitaratu gabea).
- BILBAO AZKORRA, M.N.: 1993-1994: *Getxoko euskararen azterketa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1993-1994. ikasturtean erregistroan sartua).
- BURGETE, X.; GAMINDE, I.: 1991: *Otxandioko euskaraz*, [s.l.], Inprimategia: Gráficas Loroño (Otxandioko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Laguntzaz).
- BUTRÓN, J.; PEDRO, J. de: 1988: *Euskal gramatika praktikoa*, Donostia, Erein.

- CHAMBERS, J.K.; TRUDGILL, P.: 1994: *La Dialectología*, Madrid, Visor (1. arg. 1980) [«Visor Lingüística 3»] (C. MORÁN GONZÁLEZ-en itzulpena; egokitapena eta oharak, E. BUSTOS GISBERT-enak).
- Echaide IARTE, A.M.<sup>a</sup> (paratzailea): 1984: *Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionario = Triple questionnaire (euskara 1925)*, Bilbo; Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Academie de la Langue Basque (ale 2) [«Iker-3»].
- ECHEBARRIA LEJARRAGA, J.M.<sup>a</sup>: 1990-1992: *Bizkai aldeko hizkera mintzatuen azterketa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1990-1992. urteetan erregistroan sartua).
- EIBARKO ADITZ-BATZORDIA: 1998: *Eibarko aditza*, [s.l.], Eibarko Udala - Euskara Batzordea.
- Eibarko UDALA: 2001: *Eibarko euskeriaren unidate didaktikua*, Eibarko Udala, Euskara Batzordea, Ego Ibarra [bideoa].
- ELEJABEITIA ORTUONDO, A.; IRIBAR IBABE, A.; PAGOLA PETRIRENA, R.M.: 1998: *Euskarraren hotsak = Los sonidos del euskara = Les sons de la langue basque = The sounds of Basque*, Bilbao, Universidad de Deusto [CD-ROM formatoa, ordenadoreko artxiboa].
- ELEXPURU ARREGI, J.M.: 1996: *Bergara aldeko lexikoa*, Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea (tesi argitaratu bakoa).
- ELORTZA, J.; *et alii*: 1999: *Arrasateko euskara*, [s.l.], Arrasateko Udala.
- ELORZA MAIZTEGI, J.: 2000: *Eibar: orígenes y evolución. Siglos XIV-XVI*, Eibar, Eibarko Udala.
- ENET (EIBARKO NATURA ETA ETNOGRAFIA TALDEA): 1998: *Laixetan, garixetan: basarrixa Eibarren*, Egoibarra Batzordia, Eibarko Udala.
- ERENO EALO, M.<sup>a</sup> I.: 1990-1992: *Galdakaoko euskera biziaren azterketa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1990-1992. urteetan erregistroan sartua).
- ERRAZTI IGARTUA, A.: 1994: *Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia*, Amorebieta, Iurretako Udala.
- ETXABURU, J.M.<sup>a</sup>: [s.a.]: *Ondarrutar berbetea*, [s.n.], [s.l.].
- ETXANIZ, J.M.: 1960: «El euskera en Eibar», *Aranzazu VII*, 386 (212-214 or.).
- ETXEBARRIA AROSTEGUI, M.; *et alii*: 1998: *Las secuencias vocálicas en euskera*, Bilbao, Ediciones FBV, S.L. [«Fonética Vasca, 5»].
- ETXEBARRIA AYESTA, J.M.: 1986: *Euskal fonetika eta fonologia*, Bilbao, Labayru Ikastegia [«Eskola Apunteak, 11»].
- ETXEBARRIA AYESTA, J.M.: 1988: *Zeberio-Araneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*, Deustuko Unibertsitatea, doktoradutza tesia (ale 2).
- ETXEBARRIA AYESTA, J.M.: 1991: *Euskal fonetika eta fonologia: euskera biziaren azterbidean*, Bilbao, Labayru Ikastegia [«Ikasgaiak eta Ariketak, 3»].
- ETXEBARRIA AYESTA, J.M.: 1991b: *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Ibaizabal, Euba.
- ETXEBARRIA IBARBIA, T.: 1986: *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, Bilbao, Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia (*Euskera* aldizkarian argitaratutakoaren 2. arg.).
- ETXEBARRIA IBARBIA, T.: 1998: *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar. Juan San Martinen gehigarrixagaz*, Oñati; Eibarko Udala, Euskara Batzordea (3. arg., 2.aren faksimila).
- ETXEBESTE, I.; SEGUROLA, K.: 1994: «BAT-BATZUK eta NOR(TZUK) - ZEIN(TZUK) AHOZKO HIZKUNTZAN (Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera)», *Euskera XXXIX 2* (723-734 or.).

- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA: 1997: «Euskararen historia: arazo zahar, bide berri» (C5 mintegia), XVI. *Uda Ikastaroak = Cursos de Verano, IX. Europar Ikastaroak = Cursos Europeos*, Donostia-San Sebastián, Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitatea [«Ciclo C Zikloa: Hizkuntzalaritza eta literatura / Lingüística y literatura. C5»] (ikastaroaren zuzendaria: J.A. LAKARRA) (egitaraua liburukiaren 63-64. orrialdeetan. Ikastaroko hitzaldiak argitaratu gabeak).
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA: 1999: «Euskal dialektologia (I)» (C.1 Ikastaroa), XVIII. *Cursos de Verano = Uda Ikastaroak, XI. Cursos Europeos = Europar Ikastaroak*, San Sebastián = Donostia, Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitatea [«Ciclo C Zikloa: Hizkuntzalaritza / Lingüística. C1»] (ikastaroaren zuzendaria: K. ZUAZO ZELAIETA) (egitaraua: liburukiaren 51-52 orrialdeetan. Ikastaroko hitzaldiak argitaratu gabeak).
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA: 2000: «Euskal testuen historiaz eta edizioaz (I)» (H.1 ikastaroa), XIX. *Cursos de Verano = Uda Ikastaroak, XI. Cursos Europeos = Europar Ikastaroak*, San Sebastián = Donostia, Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000 [«Ciclo H Zikloa: Hizkuntzalaritza / Lingüística. H.1.»] (ikastaroaren zuzendariak: J.A. LAKARRA ANDRINUA; I. RUIZ ARZALLUZ) (egitaraua liburukiaren 105-106. orrialdeetan. Ikastaroko hitzaldiak argitaratu gabeak).
- EUSKALZAINDIA (moldatzailea: P. SALABURU): 1993: *Euskal gramatika laburra: per-paus bakuna*, Bilbo; Euskaltzaindia, Gramatika Batzordea, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- EUSKALZAINDIA, GRAMATIKA BATZORDEA: 1987: *Euskal gramatika: lehen urratsak I. II*, Euskaltzaindia.
- EUSKALZAINDIA, GRAMATIKA BATZORDEA: 1987b: *Eglu-I (eraskina)*, Euskaltzaindia.
- EUSKALZAINDIA, GRAMATIKA BATZORDEA: 1990: *Euskal gramatika. Lehen urratsak-III (Lokailuak)*, Bilbo, Euskaltzaindia [«EGLU-III»].
- EUSKALZAINDIA, GRAMATIKA BATZORDEA: 1991: *Euskal gramatika. Lehen urratsak-I*, Bilbo, Euskaltzaindia (2. arg.) [«EGLU-I»].
- EUSKALZAINDIA: 1998: *Arauak. I. Karpeta*, Bilbo, Euskaltzaindia (CD-ROM disko konpaktua).
- EUSKALZAINDIA: 1999: *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa. Ohiko euskal mintzamoldeen antologia. Euskal Herriko 145 herritako grabaketa atalez osatutako 4 audio CD+testu lagungarria*, Bilbo; Euskaltzaindia, Euskadiko Kutxa (4 CD + CD ROM + Liburuki bat) [«Euskararen Hizkuntza Atlasa»].
- EUSKALZAINDIA: 2000: *Hiztegi batua*, Bilbo, Euskaltzaindia [«Euskera XLV 2»].
- EUSKALZAINDIA: 2001: *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra (Bilbo - Baiona). 2001eko irailaren 17tik 22ra, Biltzarraren aurkezpen-aurkibide liburuskara (berbaldiak argitaratu bakoak)*.
- EUSKO JAURLARITZA: II. *Soziolinguistikako Mapa. Soziolinguistika datubasea*, Eibarko datuak, on-line (Internet helbideak: [www.eibar.org](http://www.eibar.org) // [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)).
- EUSKO JAURLARITZA: *Soziolinguistika datubasea on-line* (Internet helbidea: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)).
- FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, B.: 1997: *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, UPV /EHU, Doktoradutza tesia.
- FRANCIS, W.N.: 1989: *Dialectology. An introduction*, London-New York, Longman (1. arg. 1983) [«Longman Linguistics Library 29»].

- GAMINDE, I.: [s.a.]: *Bilboko euskara*, Bilbao, Bilbo berreuskalduntzeko Koordinakundea [azaleko izenburua: *Bilbo, berbaz berba*].
- GAMINDE, I.: 1988: *Ahozko bizkaieraz*, Bilbo, Bizkaiko AEK.
- GAMINDE, I.: 1989: *Foruko euskeraren morfosintaxiaz*, Foruko Udala.
- GAMINDE, I.: 1989b: *Leioako euskararen gramatikaz*, Bilbao, Leioako Udala.
- GAMINDE, I.: 1991: *Abadiñoako euskaraz*, Abadiño, [Abadiñoako] Udala.
- GAMINDE, I.: 1991b: «Ablatiboaren balioak bizkaieraz», *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 5 (177-190 or.).
- GAMINDE, I.: 1991c: «Adjetiboa “egon” aditzarekin bizkaieraz», *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak*, 5 (191-200 or.).
- GAMINDE, I.: 1992: *Urduliz eta Gatikako herri hizkeraren azterketa linguistikoa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi argitaratu gabea) (ale 2).
- GAMINDE, I.: 1992b: *Urduliz ingeru, berbak eta bizimodu*, Urduliz, Urdulizko Euskera Taldea.
- GAMINDE, I.: 1994: *Bilboko Larraskituko euskaraz: lexikoa eta testuak*, Bilbao, Bilboko Udala = Ayuntamiento de Bilbao.
- GAMINDE, I.: 1995: *Bizkaieraren azentu-moldeez*, Bilbao, Labayru Ikastegia.
- GAMINDE, I.: 1999: *Bakio berbarik berba*, Bilbao, Labayru Ikastegia.
- GAMINDE, I.: *MEÑAKA BERBARIK BERBA*, on-line (Internet helbidea: <http://bips.bi.ehu.es>).
- GARZIA GARMENDIA, J.: 1996: «Hura, bera eta abarren adar gehiago», *Senex Itzulpen Aldizkaria*, 18 (81-112 or.).
- GIMENO MENÉNDEZ, F.: 1993: *Dialectología y Sociolingüística españolas*, Universidad de Alicante (2. arg.; 1.a, 1990).
- GOENAGA MENDIZABAL, F.: s.a.: *Sintaxis vasca: complementación y nominalización*, Vitoria-Gasteiz; Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea [«Tesis doctorales = Doktorego tesiak»].
- GOENAGA, P.: 1980: *Gramatika bideetan*, Donostia, Erein (2. arg., zuzendua eta osatua).
- HOLMER, N.M.: 1964: *El idioma vasco hablado: un estudio de dialectología euskérica*, Donostia-San Sebastián, Seminario Julio Urquijo [«Publicaciones del Seminario “Julio de Urquijo” de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa»].
- HOLMER, N.M.: 1991: *El idioma vasco hablado: un estudio de dialectología euskérica*, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa (1. argitalpenaren berrinprimaketa) [«Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, V»].
- HUALDE, J.I.: 1997: *Euskararen azentuerak*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea; Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia [«Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, Gehigarriak, XLII [42]»].
- HUALDE, J.I.; BILBAO, X.: 1992: *A phonological study of the basque dialect of Getxo*, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa.
- HUALDE, J.I.; ELORDIETA, G.; ELORDIETA, A.: 1994: *The basque dialect of Lekeitio*; Bilbo, Donostia; Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitatea, Diputación Foral de Gipuzkoa = Gipuzkoako Foru Aldundia [«Supplements of Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, XXXIV»].
- HUALDE, J.I.; ORTIZ DE URBINA, J. (argitaratzaileak): 1993: *Generative studies in basque linguistics*; Amsterdam, Philadelphia; John Benjamins Publishing Company [«Series IV - Current Issues in Linguistic Theory, 105»].

- IBARRA MURILLO, O.: 1995: *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Morentin, Nafarroako Gobernu: Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteri Departamentua [Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteri Departamentuaren laguntzaz egina. Ikerketak argitaratzeko deialdia 1994].
- ICAZURIAGA ARANGUENA, M.<sup>a</sup> C.: 1990-1992: *Kortezubi eta Inguruko euskararen azterketa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1990-1992. urteetan erregistroan sartua).
- IGUEREGUI ITURRARAN, M.<sup>a</sup> R.: 1990-1992: *Izenaren morfologia Gernika eta Bakioren arteko lurraldean: agozko euskal dialektologiaren ikerketa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1990-1992. urteetan erregistroan sartua).
- IRIGOYEN, A.: 1985: *De re philologica linguae vasconicae*, Bilbao, Euskal Filologia-Deustuko Unibertsitatea.
- IZAGIRRE, E.; LIZARRALDE, M.; NARBAIZA, A.: 2000: *Eibarko idazlien eta idazlanen antologixia*, [s.l.], Eibarko Udala, Euskara Batzordea.
- KALTZAKORTA MENTXAKA, M.: 1997: «Leku esangurako posposiziotzako batzuk», *Euskera* XLII 2. aldia (333-348 or.).
- LARRAÑAGA IGARZA, J.: 1998: *Antzuolako hizkera*, [s.l.], Antzuolako Udala.
- LASPIUR ZABALA, I.: 1999a: *Eibarrera jatorraren bidetik*, Oñati, ...eta kitto! Euskara Elkartea.
- LASPIUR, I.: 1999b: *Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua*, [s.l.]; Eibarko Udala, Euskera Zerbitzua.
- LIZARRALDE, M.: 1984: *Euskera Eibarren tesina*, Deustuko Unibertsitatea (argitaratu gabea).
- MARKAIDA, B.; GAMINDE, I.; MARKAIDA, E.: 1993: *Sopelako euskaraz*, Urduliz, Urdulizko Euskera Taldea.
- MEJÍAS BIKANDI, E.: 1991: «Case marking in Basque», *A.S.J.U.*, XXV-2 (469-486 or.).
- MENDEBALDE: 1997: *Mendebaldeko euskara xx. mende goienean*, Bilbao, Mendebalde Euskal Kultur Elkarte [1].
- MENDEBALDE: 1998: *Mendebaldeko euskararen ekarria*, Bilbao, Mendebalde Euskal Kultur Elkarte [2].
- MENDEBALDE: 1999: *Euskalkien lekua literaturan*, Bilbao, Mendebalde Kultur Alkartea [3].
- MENDEBALDE: 2000: *Mendebaldeko berbetaren formalizazioa*, Bilbao, Mendebalde Euskal Kultur Elkarte [4].
- MENDEBALDE: 2001: *Euskalkia eta hezkuntza*, Bilbao, Mendebalde Kultur Alkartea.
- MENICA LARRINAGA, M.I.: 1993-1994: *Ahozko erregistroen (morfojoskera arloan) bilketa, analisisa eta sailkapena bizkaierako euskaldun hiztunengan*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1993-1994. ikasturtean erregistroan sartua).
- MENIKA, I.: 1996: «Markina-Xemeingo hizketaren azterketa», in LABAYRU IKASTEGIA: *Derioko Udako Euskal Ikastaroa. 25 urtean (1970-1994)*, Bilbao, Labayru Ikastegia.
- MITXELENA ELISSALT, K.: 1985: *Lengua e Historia*, Madrid, Paraninfo [«Colección Filológica»].
- MITXELENA, K.: 1987-1999: *Diccionario general vasco = Orotariko euskal hiztegia*, Bilbao; Euskaltzaindia, Editorial Desclée de Brouwer, Ediciones Mensajero.
- MITXELENA, K.: 1990: *Fonética histórica vasca*, Donostia = San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa [«Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”, IV. Serie: “Obras completas de Luis Micheleña”, I»] (1. arg., 1961; 2. arg. zuzendua eta handitua, 1977; berrinprimatua: 1985, 1990).

- MOCOROA MÚGICA, J.M.<sup>a</sup>: 1990: *Repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades. Analógicamente clasificado por categorías y conceptos a base de los cuadros e índices de A. Pinoche y F. Brunot. - Ortik eta emendik*, Sondika; Labayru Ikastegia, Eusko Jaurlaritza-Kultura eta Turismo Saila, Etor Argitaletxea [tomo bi].
- MORALES, J.: 1995: «Hura eta bera. Haren, beraren eta bere», *Senez Itzulpen Aldizkaria*, 16 (81-92 or.).
- MORENO FERNÁNDEZ, F.: 1990b: *Metodología sociolingüística*, Madrid, Ed. Gredos S.A. [«Biblioteca Románica Hispánica. II. Estudios y Ensayos, 372»].
- MÚJICA, G. de: 1990: *Monografía histórica de la villa de Eibar*, Zarautz; Ayuntamiento de Eibar, Itxaropena, (4. arg.; 1.a, 1910).
- NARBAIZA AZKUE, A.: 1998: *Eibarko euskara: gutxiespenaren historia*, [s.l.], Eibarko Udala, Euskara Batzordea [lomoan: *Eibarkeraren gutxiespenaren historia*].
- ODRIOZOLA J.C.; ZABALA, I.: 1992: *Idazkera teknikoa. Izen-sintagma*, Bilbao; Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitarapen Zerbitzua [«Idazkera teknikoa, 2»].
- ODRIOZOLA, J.C.: 1999: «Postposizioak EGLUn: egitura motak eta gramatika-kategoriak», *Euskera* XLIV 2 (841-863 or.).
- ODRIOZOLA, J.C.: 1999b: *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*, EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- OLAZAR URIBE, M.: 1970: *Mungialde, Bermio ta Ondarruko euskal-abostegia*, Deustuko Unibertsitatea (argitaratu gabea?).
- ONEJERRA, M.L.: 1990: *Euskal fonologia, palatalizazioa: asimilazioa eta hots simbolismoa*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- OREGI, E.; *et alii*: 1986: *Euskara euskalkiak. Eibar 85*, Zarautz, Eibarko Udala, 1986.
- ORMAETXEA, J.L.: 1998: *Aramaioko euskara* (Euskal Herriko Unibertsitateko lan argitara bakoia).
- ORMAZABAL, J.; ROMERO, J.: 1998: «On the Syntactic Nature of the me-lui and the Person-Case Constraint», *A.S.J.U.*, XXXII-2 (415-433 or.).
- ORTEGO PASCUAL, E.: 1992-1993: *Barrikako euskarari buruzko ikerketa linguistikoa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1992-1993. ikasturtean erregistraio sartua).
- ORTIZ DE URBINA, J.: 1989: *Parameters in the Grammar of Basque. A GB Approach to Basque Syntax*; Dordrecht, Providende; Foris Publications [«Studies in Generative Grammar, 33»].
- PAGOLA, R.M.: 1991: *Dialektologiaren atarian: (Euskal dialektologiaren historiara hurbilketa)*, Ed. Mensajero (Gero Euskal Liburuak), Bilbo [«Unibertsitaterako Liburuak, 3»].
- PAGOLA, R.M.: 1992: *Euskal fonetika Nafarroan (Euskal Herriko hizkuntz atlaserako ekarria)*, Pamplona, Nafarroako Gobernua; Kultur eta Hezkuntza Departamentua (2 ale).
- PÉREZ BILBAO, A.: 1991: *Bermeoko herri hizkera*, Bilbao, Antonio Pérez Bilbao (2. arg.).
- PETYT, K.M.: 1980: *The study of dialect. An introduction to dialectology*, London, André Deutsch [«The Language Library»].
- REBUSCHI, G.: 1984: *Structure de l'énoncé en basque*, Paris, SELAF [«L'Europe de tradition orale, 3»].
- REBUSCHI, G.: 1997: *Essais de linguistique basque*; Bilbo-Bilbao, Donostia-San Sebastián; Euskal Herriko Unibertsitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia [«Supplements of Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", XXXV»].



- REBUSCHI, G.; *et alii*: 1986: *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, Bilbao; Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitarapen Zerbitzua [«Donostiako Udako IV Ikastaroak = IV Cursos de Verano en San Sebastián»].
- RIJK, R.P.G. de: 1990: «Location Nouns in Standard Basque», *A.S.J.U.*, XXIV-1 (3-20 or.).
- RIJK, R.P.G. de: 1995: «Basque manner adverbs and their genesis», *A.S.J.U.*, XXIX-1 (53-82 or.).
- RIJK, R.P.G. de: 1996: «On the origin of the partitive determiner», *A.S.J.U.*, XXX-1 (145-158 or.).
- ROLLO, W.: 1925: *The basque dialect of Marquina*, Leiden.
- ROTAETXE AMUSATEGI, K.: 1978: *Estudio estructural del euskara de Ondarroa*, Durango, Leopoldo Zugaza [«Tesis, 1»].
- SALABURU, P.: 1992: «Euskara, hizkuntza ergatiboa ote da?», in VILLASANTE, L.: *Luis Villasanteri omenaldia*, Bilbo, Euskaltzaindia [«Iker, 6»] (417-433 or.).
- SALINAS SOLANO, M.: 1976: *Descripción fonética del euskera de Lekeitio*, Deustuko Unibertsitatea (argitaratu gabea).
- SAN MARTÍN, J.: 1986-2: «Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar* liburuaren aurkezpena», *Euskera* XXXI (591-593 or.).
- SAN MARTÍN, J.: 1987, 2: «Toribio Etxebarria euskalari eta euskal idazle», *Euskera* XXXII 2 (277-285 or.).
- SAN MARTÍN, J.: 1990, 2: «Botanika lexikoa Eibarren eta Toribio Etxebarriaren *Lexicón lanari gehigarriak*», *Euskera*, XXXV 2 (337-365 or.) (separata).
- SAN MARTÍN, J.: 2000b: «Toribio Etxebarriaren *Lexicon-i* gehigarriak», *Euskera*, XLV 3 (1001-1020 or.).
- SANGRONIZ, M.: 2001: *Eibarko euskeriaren unidade didaktikua*, Eibarko Udala, Euskera Zerbitzua.
- SARASKETA GOJENOLA, A.; *et alii*: 1997: *Eibarko Basarrixak. Dabid Arriolan omenez*, Lasarte-Oria; Eibarko Udala: Zerbitzu Batzordea, Ego Ibarra Batzordea; **...eta kitto!** Euskara Elkarte.
- SARASOLA, I.: 1992: «Bizkaiera eta euskara batua: eritzi-iritzi eta nire-nere literatur tradizioan», in VILLASANTE, L.: *Luis Villasanteri omenaldia*, Bilbo, Euskaltzaindia [«Iker, 6»].
- SEGURA MUNGUÍA, S.; ETXEBARRIA AYESTA, J.M.: 1996: *Del latín al euskara = Latinetik euskarara*, Bilbao, Universidad de Deusto [«Serie Letras, vol. 29»].
- TÚRREZ, I.; AREJITA, A.; ISASI, C. (argitaratzaileak): 1998: *Studia Philologica. In honorem Alfonso Irigoién*, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea [«Serie Euskal Herria, 17»].
- TXILLARDEGI: 1977: *Oinarri bila morfosintasian eta fonologian*, Donostia, ALVAREZ-LOREA.
- UNANUE, J.M.: 1990: *Eibar. Gaiak, idazlanak = Eibar. Temática y trabajos literarios*, Ego-Ibarra Batzordea-Eibarko Udala.
- URDANGARIN ARRIZABALAGA, J.A.: 1990-1992: *Ondarruko euskeraren azterketa soziolinguistikoa*, Deustuko Unibertsitatea (tesi amaitu gabea, 1990-1992. urteetan erregistroan sartua).
- URIARTE GARAI, J.A.: 1995: *Fruizko hizkera: azterketa linguistikoa*, Deustuko Unibertsitatea (ale bi) [Doktorego Tesia, argitaratu gabea].
- URKJO, N.: 1994: *Zenbait apunte Laudioko euskaraz*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatearen hizkuntzalaritza saila.
- URRUTIA, H.; *et alii*: 1995: *Las vocales en euskera*, Bilbao, Publicaciones de la Universidad de Deusto [«Fonética Vasca, 4;» serie «Lingüística», n.º 7].

- URRUTIA, H.; *et alii*: 1998: «Las secuencias vocálicas en el dialecto vizcaíno» (in I. TÚRREZ, A. AREJITA, C. ISASI, 1998, 224-252).
- VILLASANTE, L.: 1972: *La declinación del vasco literario común*, Oñate, Editorial Franciscana Aranzazu [«Serie “Luis de Eleizalde” sobre unificación del euskera escrito, fascículo 2»].
- VILLASANTE, L.: 1992: *Luis Villasanteri omenaldia*, Bilbo, Euskaltzaindia [«Iker, 6»].
- VILLASANTE, L.; ITURRIA, C.; ZABALGOGASCOA, A.: 1955: *Paradigmas de la conjugación vasca (Dialectos Guipuzcoano y Vizcaíno)*, [s.l.], Editorial Franciscana Aranzazu.
- WEINRICH, U.: 1954: «Is an structural dialectology possible?», *Word* XX (388-400).
- ZABALA, I.: 1999: «Gramatika-kategoriak eta EGLU», *Euskera* XLIV 2 (865-896 or.).
- ZABALA, I.; ODRIÓZOLA J.C.: 1994: «“Adjektiboen” eta “adberbioen” arteko muga zehatzik eza», *A.S.J.U.*, XXVIII-2 (524-541 or.).
- ZAMARRIPA Y URAGA, P. de: 1950: *Gramática vasca*, Bilbao, Verdes (7. arg.) (azalean *dialecto vizcaíno dakar*).
- ZAMARRIPA Y URAGA, P. de: 1987: *Manual del vascófilo*, Bilbao, Wilsen (berrinprimaketa; 1. arg., 1913).
- ZARATE, M.: 1975: *Euskal deklinabidea: (bizkaieratik baturantz)*, Durango, Leopoldo Zugaza, (1. arg.) [«Tratados, 2. Serie Lengua»].
- ZARATE, M.: 1979: *Euskal deklinabidea: (bizkaieratik baturantz)*, Durango, Leopoldo Zugaza, (2. arg.; 1. arg., 1975) [«Tratados, 2. Serie Lengua»].
- ZELAIETA GEREDIAGA, L.M.: 1990: *Zornotzako aditz-eren karinkara*, Amorebieta-Etxano [Amorebieta-Etxano] Udala [«“Zornotzari buruzko ikerketa-beka” 1»].
- ZENBAITEK: 1988: *Bergarako euskera*, Bergara; UNED-BERGARA, Bergarako Udalaren diru laguntzaz.
- ZENBAITEK: 2001: *Eibarko euskararen hiztegi orokorra* egitasmoa, Eibarko Udala, Euskara Batzordea (egitasmoa garatzen dihardute, argitaratzeko).
- ZUAZO ZELAIETA, K.: 1988: «Bizkaieraren ezaugarriez gehiago», *A.S.J.U.*, XXII-2 (367-377 or.).
- ZUAZO, K.: 1998 maiatza-abuztua: «Euskalkiak, gaur», *Fontes Lingvae Vasconvm*, año XXX, 78 (191-233 or.).
- ZUAZO, K.: 1999: *Deba ibarreko euskera*, Oñati; argitaratzaileak: Antzuolako, Aramaioko, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako, Eibarko, Eskoriatzako, Leintz-Gatzagako, Oñatiko eta Sorluzeko Udalak.
- ZUAZO, K.; BADIHARDUGU EUSKERA ALKARTIA: 2002: *Deba Ibarretik euskararen herrira*, Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Alkartia, Oñati.
- ZUBIRI, I.; ZUBIRI, E.: 1995: *Euskal Gramatika Osoa*, Bilbo, Didaktiker, SA.

### Kontsultatutako internet gune nagusiak<sup>453</sup>

- [bips.bi.ehu.es](http://bips.bi.ehu.es)  
 —[www.deusto.es](http://www.deusto.es)  
 —[www.egoibarra.com](http://www.egoibarra.com)  
 —[www.ehu.es](http://www.ehu.es)

<sup>453</sup> Denen aurretik “<http://>” jarri behar da.



—[www.eibar.org](http://www.eibar.org)  
—[www.elhuyar.org](http://www.elhuyar.org)  
—[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)  
—[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)  
—[www.fonatari.org](http://www.fonatari.org)  
—[www.geocities.com](http://www.geocities.com)  
—[www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net)  
—[www.rae.es](http://www.rae.es)  
—[www.sustatu.com](http://www.sustatu.com)  
—[www.udalgida.net](http://www.udalgida.net)  
—[www.uzei.com](http://www.uzei.com)  
—[www.uzei.org](http://www.uzei.org)

### Erabilitako dokumentazioa

- EIBARKO UDALA: 1981: *Eibar. Pistas a los caseríos. Normas subsidiarias de planeamiento (Art. 94 b.R.P.)* [mapa: Toponimia /2-<sub>4</sub> /1:5.000].
- EIBARKO UDALA: 1996-VI-19: «Eibar», Eibarko Udaleko Estatistika saileko agiria.
- EIBARKO UDALEKO EGO IBARRA BATZORDEKO «AHOZKO BILDUMA» ONDAREA: 1982. urtetik hona egindako grabazioak eta transkribaketak, eta gainera, «Eibartarren Ahotan» proiektuko ondarea ere arakatu da.
- EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA-k antolatutako Uda Ikastaroetan egileak hartutako dokumentazioa (fotokopiak e.a.) eta apunteak: 1997. urtean, 1998. urtean, 1999. urtean, 2000. urtean.
- EUSKALTZAINDIA: 2001: *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzara (Bilbo - Baiona). 2001eko irailaren 17tik 22ra*. Bilbon banatutako materiala (fotokopiak eta apunteak), argitaratu bakoia.
- ETXEBARRIA, T.: IV tomos «Lexicón dialectal del euskera eibarrés», Eibarko Udal Artxiboa, Toribio Etxebarria Fondoa, 19/87.
- ETXEBARRIA, T.: Apuntes sobre formas verbales en euskera eibarrés, Eibarko Udal Artxiboa, Toribio Etxebarria Fondoa, 19/87.
- ETXEBARRIA, T.: Fichas preparatorias del «Lexicón», Eibarko Udal Artxiboa, Toribio Etxebarria Fondoa, 19/87.
- PUERTA RUEDA, I. de (zuzendaria); *et alii*: 2002: Toponimia mapa (1:10.000), Eibarko Herriaren Hiri-Antolamendurako Plan Nagusia. Aurrerapena (Informazioa: Topografía I-T-TP-01), argitaratu bakoia.



